

# E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak  
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca  
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



## EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2007, 1  
52. liburukia (2. aldia)  
BILBO

# EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
Telefonoa: 94 415 81 55  
Faxa: 94 415 81 44  
e.posta: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)  
web gunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola  
Kideak: Beñat Oihartzabal  
Xabier Kintana  
Jose Luis Lizundia  
Henrike Knörr  
Andres Iñigo  
Jose Antonio Arana Martija  
Adolfo Arejita  
Pello Salaburu  
Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, apaimenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

**Euskera**

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis  
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

**Aldizkari** hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.  
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.  
Rogamos dirigirse al Director.

## AURKIBIDEA

### JOSE IRAZU «BERNARDO ATXAGA» EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Bernardo Atxaga, Euskaltzaindian sartzea, <i>Iñaki Amenabar</i> . . . . .	9
Bernardo Atxaga, Euskaltzaindian sartzea, <i>Andres Urrutia Badiola</i> . . .	13
Antzarak, zenbakiak eta letrak, <i>Jose Irazu</i> , «Bernardo Atxaga» . . . . .	15
Ekintzailearen laudorioa, <i>Xabier Kintana Urutiaga</i> . . . . .	29

### MIKEL ZALBIDE EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Mikel Zalbide, Euskaltzaindian sartzea, <i>Joxe Joan Gonzalez de Txabarriri Miranda</i> . . . . .	51
Mikel Zalbide, Euskaltzaindian sartzea, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	59
Pedagogoa batzar nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan. Euskaltzaindikoko sarrera-hitzaldia, <i>Mikel Zalbide</i> . . . . .	61
Zerbitzari eta eragile zabala, <i>Henrike Knörr</i> . . . . .	159

### EUSKALTZAINDIAREN XV. BARNE JARDUNALDIAK

XV. Barne Jardunaldien egitaraua . . . . .	167
Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	169
Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak, <i>Ibon Sarasola</i> . . . . .	177
<i>EGO</i> proiektua zertan den, <i>Pello Salaburu</i> . . . . .	189

Euskal corpus onomastikoa. Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak, <i>Patxi Galé García-Andres Iñigo Ariztegi</i> . . . . .	197
Pirinioak: hizkuntzak eta literaturak, <i>Henrike Knörr</i> . . . . .	223
XVI. Biltzarraren antolakizunaz, <i>Jose Luis Lizundia</i> . . . . .	227
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak, <i>Andoni Sagarna</i> . . . . .	229
<i>Joanes Etxeberri</i> egitasmoa (2007-2008), <i>Joseba Intxausti Rekondo</i> . .	239
Ahozko ondarea biltzeko egitasmoa. Euskaltzaindia: Dialektologia Ba- tzordea, <i>Adolfo Arejita</i> . . . . .	269
Zientzia, teknologia eta kultura hitzak Euskaltzaindiaren Hiztegi Ba- tuaren bigarren itzulian, <i>Xabier Kintana</i> . . . . .	275

**TEODORO ARBURUA  
ETA  
EUSEBIO DE ETXALAR**

Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar, <i>Andres Urrutia</i> . . . . .	281
Bi etxalartar Euskaltzaindiaren sorreran: Teodoro Arburua - Eusebio de Etxalar, <i>Pello Apezetxea Zubiri</i> . . . . .	283
Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan, <i>Patxi Iñigo</i> . . . . .	291

**IKER SAILA**

**DIALEKTOLOGIA**

UHARTE (IRUÑEA):  
EUSKALKIAK ETA KOMUNUKABIDEA

Euskalkien trataera ikus-entzunezko hedabideetan, <i>Esti Arzuaga</i> . . . . .	319
Euskalkiak eta herri komunikabideak, <i>Iñaki Mundiñano Larraza</i> . . . . .	323
Euskalkiak eta komunikabideak, <i>Iñaki Zabaleta Urkiola</i> . . . . .	335
<i>Karrape</i> Irratian euskalkien erabilera, <i>Arantxa Iparragirre</i> . . . . .	351

Nafarroako euskal komunikabideak, <i>Patxi Iñigo</i> .....	353
Euskara Batua eta euskalkiak, <i>Pello Apezetxea</i> .....	359
Euskalkiak eta komunikabideak, <i>Joseba Igarabide Huarte</i> .....	365
Euskalkiak eta komunikabideak, <i>Jean Haritschelhar</i> .....	367

## ONOMASTIKA

<b>Undio</b> , <i>Onomastika Batzordea</i> .....	373
<b>Lukiano</b> , <i>Onomastika Batzordea</i> .....	375
<b>Erretes</b> , <i>Onomastika Batzordea</i> .....	379
<b>Gereñu</b> , <i>Onomastika Batzordea</i> .....	381
<i>Tolosako leku-izenak</i> liburuaren aurkezpena, <i>Mikel Gorrotxategi</i> .....	383
<i>Hondarribia/Fuenterrabía</i> . Toponimo(ar)en gainean, <i>Patxi Salaberri</i> ..	387
Nafarroako herri izenen bukaerako txistukaria eta toponimoen arautzea, <i>Patxi Salaberri</i> .....	391
En torno a la forma vasca del topónimo mayor <i>larraona</i> (Ameskoa), <i>Patxi Salaberri</i> .....	395

## JAGON SAILA

### SUSTAPEN BATZORDEA

Euskaltzaindiaren eragina euskararen erakunde publikoaren hizkuntza politika proiektuan, <i>Erramun Baxok</i> .....	403
--	-----

## EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

### BATZAR-AGIRIAK

Donostian, 2007ko otsailaren 2an .....	415
Bilbon, 2007ko otsailaren 23an .....	418
Ageriko bilkura .....	421

Ageriko bilkura (Asteasu, 2007-III-17) .....	424
Donostian, 2007ko martxoaren 30ean .....	427
Etxalarren, 2007ko apirilaren 19an eta 20an .....	429
Etxalarren, 2007ko apirilaren 20an eta 21ean .....	434
Ageriko bilkura .....	437
Bilbon, 2007ko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean .....	448
Ageriko bilkura (Donostia, 2007-VI-2an) .....	451
Donostian, 2007ko ekainaren 29an .....	455

## **EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK**

38. <i>Araua</i> : Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak. ( <i>Arau zuzendua eta eguneratua</i> ) .....	459
---	-----

\* \* \*

Euskaltzaindiaren Baionako ordezkari berriaren inaugurazioa, <i>Andres Urrutia</i> .....	485
--	-----

## **BERRIAK**

<i>EiTB</i> eta <i>Euskaltzaindiaren</i> arteko lankidetzeta-hitzarmena .....	493
Euskaltzaindiak eta <i>Elhuyar</i> Fundazioak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute .....	495
Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia 2006ko <i>R.M. AZKUE</i> literatura sariak .....	497
BBK - Euskaltzaindia literatura sariak: 2007ko deialdia .....	501
Kepa Altonagaren <i>Ettxepare, Aldudeko medikua</i> liburuaren aurkezpena ..	503

## **«EZ DOK AMAIRU» ERAKUSKETA**

«Ez dok amairu» erakusketa, <i>Andres Urrutia</i> .....	507
«Ez dok amairu» erakusketa, 1966-03-06 – 1972ko abendua, <i>Joxemari Iriondo</i> .....	509

**JOSE IRAZU «BERNARDO ATXAGA»  
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Asteasu, 2007-III-17*

**BERNARDO ATXAGA**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Iñaki Amenabar,*  
*Asteasuko alkatea*

Egun on eta ongi etorri Euskaltzainburu jauna,  
Euskaltzainak,  
Jose Irazuren emaztea eta alabak, eta gainerako familiako guztiak,  
Asteasuko zinegotzi jaun-andreak,  
Herritarrak, eta  
kanpotik etorri zareten guztiok.  
Ongi etorri ekitaldi akademiko honetara.

Ohore handia da herri batentzat herritarren artean euskaltzain bat eduki-tzea, eta ohore handiagoa da oraindik Alkatearentzat zuen aurrean sarrera-hitzaldi honetako mahaiburu izatea.

Hitz banaka batzuk besterik ez, ekitaldi honetan luze aritu behar dutenak beste batzuk direlako, baina ez nuke bukatu nahi Jose Irazu herritarrari esker-rak eman gabe, sarrera-hitzaldia bere jaioterrian egitea erabaki duelako. Ohore handia da asteasuarrontzat gaur bera gure artean izatea. Hegaldi luzeak egiten ohitua dagoen arranoak bezala, aldiro-aldiro bere habiara itzultzen dela ikusteak pozten gaitu.

Azkenik, Asteasuko Udalak atsegin handiz egin ditu, Euskaltzaindiarekin batera, sarrera-hitzaldi hau behar bezala gauzatzeko egin beharrekoak, eta ekitaldi eta egun ederra opa dizkizuet denoi.



## **BERNARDO ATXAGA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua*

Asteasuko alkatea,  
Euskaltzainkideak,  
Asteasuarrak,  
Jaun-andreok,

Egun on guztioi!

Euskaltzaindia gaur Asteasura dator, zuen herrikide den Jose Irazuren sarrera-ekitaldia egitera.

Hona etortzeko deian, guztiok irakurri ahal izan dugu Jose Irazu izen-abizenaren ondoan, bestelakoa, beharbada guretzat ezagunagoa edota gure gizartean barreiatuagoa. Honetara dio horrek: Bernardo Atxaga.

Nor, ordea, gaur euskaltzain oso bere burua jantziko duena? Bata ala bestea? Esan dezadan argi eta garbi bi-biok datozela Euskaltzaindira, bitzuok baitira bat euskal letretan, gizabanakoa bera eta haren heteronimoa.

Hartara, Euskaltzaindiak bereganatzen du, takada batez, bikote harrigarria, pertsona berak bere baitan daramana. Jose Irazu –noizbait, Bilbo aldean *Joseba* izan bazen ere, batik bat ikaskideen ahotan–, asteasuarra, familia jakinekkoa, herrikidea, biografia baten jabea. Aldi berean, Bernardo Atxaga, aurrekoaren bizimodua, gogoeta, ideiak eta eitea barruratu ez ezik, literaturaren mailuaren bidez moldatuak eta euskal letretan emanak dituenak, guztion gozamenarako eta euskal kulturaren aitzinamendurako.

Irazu eta Atxaga, Atxaga eta Irazu, ispiluaren alde desberdinak izanik ere, ispilu bera osatzen dute, eta irakurleak aukera du horren barruan ispiluaren bi aldeak eta ikuspegiak batera ikusteko, errealitatea eta horren isla, modu askotara kanporatuak baina batera zizelkatuak.

Ispilu horri begira nagoen honetan, ispilu horrek alde itsurik ez duela ohartu naiz, irudiak alde batera eta bestera ikusten baititut. Batean aurkitzen ditut Jose Irazu semea, Jose Irazu senarra, Jose Irazu aita, Jose Irazu adiskide

eta laguna, eta, orobat, haren inguruan diren emaztea, alabak, gurasoak, anai-arrebak, senideak, adiskideak... Horretan datza gizona, bere errealitate historiko eta zehatzean kokatua, bere biografiaren datu esanguratsuetan hartua eta hertsatua.

Ispiluaren beste aldean, ostera, Bernardo Atxaga dut zain, bere literatura munduarekin, bere irudiekin, bere metaforekin, euskal letren sarea ehotzen eta lotzen, autore baten heldutasunaren ezaugarri eta seinale.

Hainbatez, Euskal Akademiara datoz gaur Irazu eta Atxaga, Asteasu eta Bilbo, Gipuzkoa eta Euskal Herria, euskara eta literatura, hizkuntza eta sorkuntza. Asteasukoa da horien eramaile, Asteasutik euskal letretara beste baturek emaitzarik onenak eman zizkioten bezalaxe.

Ezin isilpean utz, soka luze horretan, Juan Bautista Agirre eta Antonio Arrue. Ezin, inolaz ere, bigarrenaren aholkua eta iritzia baztertu:

guk gure bizitza guzian, bai euskerazko bai erderazko, azal, estalki edo jan-ziera apañ eta ongi ornitutako literatura-lanen zale amorratuak izan gera beti eta beti. Baña, azalak, estalkiak eta janzierak ezezik, mamiak, muñak eta barrunbeak ere, ba-dutela ajola, derizkiogu. Ta ez nolanaikoa.

Halakoxea da, izan ere, gure sarrera-hitzaldiaren egilea. Literatur unibertso sendo –azal eta mami– baten asmatzailea. Egin diezaiogun, hortaz, berari ere ongiatorria, ia-ia mende bi lehenago Juan Bautista Agirrek idatzi bezalaxe, eguantzari edo egunsentiko argiari Groenlandian egiten zioten moduan, alegia, *kontentu gelditzeko eguantzari musikaz ongi etorri egitea*. Izatez, musikarik jatorrena eta preziatuena da haren ahotik gaur entzungo duguna, hain zuzen ere, hitzaren musika, literaturaren doinua.

Buka dezadan nire agurra. Artean, Euskaltzaindiaren izenean, mila esker asteasuarroi, eta gainerakoei ere, zuen harrera abegikorrenarengatik, eta egin dezagun aurrera gaurko egitarauarekin. Esan dut.

## ANTZARAK, ZENBAKIAK ETA LETRAK

*Jose Irazu, «Bernardo Atxaga»*

Antzarak ditut nik gogoan herri honetan bizi nintzen garaietatik, eta haiek hartu nahi ditut aintzat orain ere, gaurko hitzaldi honetan. Hiztegiek diote ahatea bezalako hegazia dela antzara, baina handiagoa, eta grisa duela lumajea, laranja kolorekoa mokoa, gorriak direla bere hankak. Entziklopedietako argazkietan ikusten dugunean, berriz, hegazi zein txori guztiek duten begirada serioa antzematen zaio berari ere, eta, nahiz kopeta handirik ez duen, kopetiluna dela esango lukete askok.

Nolanahi dela ere, ez nituen nik bertatik bertara eta xehetasun horiekin guztiekin ikusten garai hartan, herri honetan bizi nintzenez, baizik eta airean, haien urteroko hegaldian. Gogoan ditut oraindik 1958. urte aldera pasatu zirenak. Aurrena haien deialdara zabaldu zen, ahatearena bezalako baina hautsiagoa eta ilunagoa, eta geroxeago ehun buru eta gehiagoko taldeetan azaldu ziren, lerrorik lerro denak, letrak eta zenbakiak osatuz. Gora begira jarri eta zenbaki haiei laren edota 3aren tankera hartu nien gehienetan; aldian behin, 7arena. Letrak, berriz, zirriborotsuagoak iruditu zitzaizkidan, zailagoak ezaizteko orduan. Alfabetoaren azkenekoen itxura zuten, gehienbat; Z dardarata zirudien batek; Y bestea; X etzana hurrengoak.

Nire lehen oroitzapenetakoa da: Asteasu herri honetako kale nagusia hutsik; erretanetan, euriak utzitako ur kondarra; tximinietan kea, haizeak banatzen duena. Eta zerua, lainotsu. Lainoen azpian, antzarak etengabe pasatzen.

Garai hartan aritmetikaren lehen arauak ikasten ariko ginen eskolan, kaligrafiako lehen koadernoak betetzen, eta agian arrazoi horregatik egin zitzaizkidan deigarri hegaztiek hegan egin bitartean osatutako zenbaki eta letra haiek. Itsatsita geratu zitzaidan gertaera gogoan, eta gerora, eskola gehienak bukatu eta idazten hasi nintzenez, behin eta berriro aipatu nituen.

«Neguko egun bat da –idatzi nuen hogeitun bat urte geroago koaderno batean–. Ehiztariek tiro egin dute beren eskopetekin. Zazpi edo zortzi antzara lurrera joan dira. Zeruari letra bat falta zaio orain».

Ohar hori ez zitzaidan baliatu, eta ez zen inongo liburutara iritsi; bai, ordea, antzeko beste hainbat. *Bi anai* deitu nuen nobela laburrean – esan

gabe doa izen hori, *Bi anai* eta ez *Bi anaia*, Euskaltzaindiaren aurrean harroxko xamar nenbilen garaien seinale dela-, antzarak aintzat hartu ez ezik, antzara baten lekuan jarri nuen neure burua, eta lerro honekin eman nion atal bati hasiera:

ehun eta hamaika antzara ginen, eta egun asko generamatzan hegaletan iparreko lur zelai eta hotzetatik aienatu nahiz (...)

Bi mila eta zazpigarren urtean gaude orain, pasatu dira beraz urte ugari antzarak ikusi nituen lehen aldi hartatik; baina nahi nuke antzararen gaiari berriro heldu, eta gainera *Bi anaiko* joko berbera egin, hots, haietako baten lekuan jarri eta, irudimenarekin, Asteasu herri honetara, ez errepidez, ez lurretik, baizik eta airez hurbildu. Eta banator ni, badator antzara Andoain aldetik hegan. Laster, Oria ibaia atzean utzi orduko, bere begirada luzeak Adunako herria ikusten du bere kanpandorre txorrotzarekin, eta, aurreraxeago, Zizurkil biak, goikoa eta behekoa, eta Alkiza, Asteasu hau, Ernio mendiaren gailurra eta, azken-azkenean, itsaso zabala.

Ez da oraingoxe kontua hegaztiak bideak ezagutzea. Gogoan daukat umetan entzun nuena; ez hemen, baizik eta amaren herrian, Albizturren. Bada, Albizturko bi etxeoandre erromes abiatu omen ziren Santiora, eta Ernio azpiko Zelatunera iritsi orduko, galdu. Beleak zebiltzan nonbait inguruan, eta andre haietako batek, beste inoren arrastorik ez, eta galde egin omen zien: «Zein da Santioarako bidea? Hau, hori edo hura?». Beleak antzararen antzeakoak dira ahotsaren aldetik, eta zakar xamar erantzun omen zuten: *krua! Krua!* Arindua hartu zuen galderagileak. Bere lagunarengana egin eta halaxe esan omen zion:

*bidea hango hura dela esaten dinате. Ederki giñunan nik erdera jakin ez banu!.*

Zelatungo bele haien pareko, gure antzarak ere ez du zalantzarik bidez eta noranzkoaz, baina, presa handirik ez duenez, pasatu Aduna gainetik eta jaisten hasi da poliki, eta gelditu ere, gelditu egin da Zizurkil behekoaren eta Zizurkil goikoaren artean; Errekalde baserriko teilatuan.

Askok ondo dakizuenez, Errekalde izeneko baserri horretan hainbat bertsolari jaio ziren, eta haien arteko ospetsuenari, gaur Zizurkilen harrizko oroi-garri bat daukanari, Pedro Mari zeritzan; Pedro Mari Otaño. Aita Zavalaren liburuetan irakurri dut bertsolari askok santu zaindaritzat zeukatela, eta guztiengan izan zuela eragina. Teodoro Mujikak, berriz, areago dio 1985eko bertso batean:

*oraintxe irurogei ta amabost urte Pedro Mari il zala esaten digute, baiñan bere bertsoak bizia daukate, izkuntz onek arnasik galtzen ez dun arte.*

Ez da beroarenik laudorioan. Pedro Mari Otañoen hitzek luze iraun dute. Juan Mari Lekuonak unibertsitatean erabiltzen zituen langaien artean ere aur-

kituko dituzue, edota Xabier Lete abeslari eta poetaren lanetan. Nik neuk oso gaztetan ezagutu nituen. Andres Bitoria izeneko adiskidearekin nengoen hizketan, eta, halako batean, inongo paperik gabe, onbuaren bertsoak kantatzeari ekin zion berak.

Baduzue, noski, kontuaren berri: Otaño Argentinako Pampa izeneko lautadan bizi da, eta inguru hauetako mendi eta basoen mira bilatzen du. Poza ematen dio horregatik arrantxoaren alboan dagoen onbu izeneko zuhaitzak, eta haren azpian edo adar artean esertzen da maiz herri minez, jaiotetxeko inxaurra gogoratuz:

*nere lagunik maitatuena onbu lastana zu zera, argatik nator zure kolkora ni malkoak txurtzera, iduriturik naramazula atariko intxaurpera. Beti izango zaitut gogoan bañan joan nai det ostera Euskal-lurreko zuaizpe artan nere ezurrak uztera.*

Zaila da zehaztea literatura esaten diogun horrek gizarteari ekartzen dizkion onurak, baina, oinarri-oinarrizkoari helduz, hark egiten duen bereizketa lana har liteke gogoan. Bertsoek, poemek, nobelek, bereizi egiten dituzte une, leku edo gertaerak. «Bereizi», diot, baina berdin esan nezake «bakandu», «apartatu», «atera gauzak bere jatorrizko arruntasunetik». Halaxe gertatu zen Errekaldeko intxaurrarekin bertsoen ondoren. Ez da harrezkero nolanhako zuhaitza. Ihartua dago gaur; hala ere jende askok begirada bat eskaintzen dio pasatzean.

Beste leku bat hartuko dut orain aintzat, Errekalde baino ospetsuagoa, Siziliako uhartean dagoena. Ideia bera azaltzeko, hartu ere.

Inoiz Siziliara joaten bazarete, eta Messina izena hartzen duen itsasarteraino hurbildu, ez duzue aparteko ezer ikusiko. Herri bat dago han, kostaldeen ugari diren hamaika bezalakoa, zarpaila eta zaratatsua, eta haren amaieran, hondartza mutur bat, hondarra baino gehiago harri txintxarra daukana. Baina bertakoren batek berehala esango dizu Homero lehen poetak leku hura izan zuela gogoan, eta, *Odisearen* hamabigarren kantuan azaltzen denaren arabera, hango bi harkaitzetan bizi izan zirela Eszila eta Karibdis munstro beldurgarriak, marinelak hil eta irensten zituztenak.

*Odisean* bizpahiru orrialde hartzen ditu aipamenak; nahikoa, ordea, leku hura, berez arrunta, bakan eta berezi bihurtzeko; munduko beste lekuak ez bezalakoa, garrantzitsuagoa. Jakina, Messina aldean bizi den jendeari on egiten dio halako leku seinالاتu batean bizitzeak.

Tradizio grekora jo dut adibide bila, baina errazagoa zatekeen bertatik bertara ibili eta gure beste tradizio nagusia hartzea aintzat, hots, kristautasunak ekarritakoa. Pentsa dezagun Belengo herrian. Herrixka bat izango zen due-la bi mila urte, inolako ñabardurarik gabea. Baina Bibliak zioen han jaio zela Jesus, Jainkoaren semea, gero gurutzean hilko zena, eta kontaera horrek munduko leku aipatuenetakoa bihurtu zuen.

Messinako itsasartea edo Belengo herria ez ziratekeen leku berberak izango *Odiseako* edo Bibliako kontaerarik izan ez balitz. Era berean, Euskal Herria ere ez litzateke berbera onbuaren bertsorik gabe. Badakit izpi bat besterik ez dela; badakit ez dagoela oraingo poeten lana Greziako edo Israelgo lehen poeta haienarekin konparatzerik eraginaren aldetik; baina oinarri-oinarrian lan bera egiten dute denek.

Gure antzarak ez daki luzaro geldirik egoten, eta hor abiatu da hegan. Zizurkilgo gaina alde batera utzi eta, Asteasuko errepide nagusiari helduz, «Konportako errebuta» esaten zitzaion tokira jo du. Astia daukat, ordea, orain arteko hitz nagusiei beste bat gehitzeko. «Bereizi» esan dut arestian, «bakandu», «apartatu». Orain «transfiguratu» esan behar dut. Bertso, poema eta nobelek transfiguratu egiten dituztela une, leku edo gertaerak; errealtatea.

Badakit hitz hau ez dela gure euskal hiztegieta azaltzen, eta guztiek ere jauzi egiten dutela «transferitu» delakotik «transformadore» delakora; baina, oker ez banago, Euskaltzaindiaren hiztegia E letran dago oraindik. Aukera dut, beraz, «transfiguratu» eta baita «transfigurazio» bera ere erabiltzeko. Ziurrenik ere baztertua izango da, zeren elizen arteko Biblian ere nahiago izan baitute «antzaldatze» delakoa; baina, aukera dagoen bitartean, bonbon. Eta gero gerokoak.

Gogora dezagun transfigurazioaren pasartea. Bibliak dioenaren arabera, Tabor izeneko mendian gertatu zen. Hala dio Mateok: «Jesusek Pedro, Santiago eta honen anaia Joan hartu, eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu –«transfiguratu»– egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Elias eta Moises agertu zitzaizkien Jesusekin hizketan. Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, zein ederki gauden hemen! Nahi baduzu, hiru etxola egingo ditut bertan».

Ez litzateke erabat zuzena izango literatura lanek errealtatea –lekuak, uneak, gertaerak– eguzkia bezain distiratsu eta argia bezain zuri bihurtzen dituztela esatea, zeren batzuetan kontrakoa ere burutu baitute. Gogoratu, esate baterako, Goebels kriminala, Hitlerren gobernuko propaganda burua, nobelagilea zela; gogoratu, beste maila batean –oso beste maila batean– ez direla bertsolari guztiak Pedro Mari Otaño bezalakoak izan, egon direla aitzitik umore gaizto bezain atzerakoia erabiliz atsekabea besterik ekarri ez dutenak. Izan zen hementxe bertan inork gutxik gogoan duen bertsolari bat, behin batez herriko maisu errepublikanoari bertsoak atera zizkiona. «*Maestro pequeñito, don Miguel det izena...*», holaxe hasten ziren bertso gaiztoak, eta burla hartan maisuaren gorputzeko akatsa eta haurdun geratutako andre baten auzia nahasten ziren. Dena jakin dezazuen, maisua bila joan zitzaion, eta larri ibili zen gure bertsolaria.

Nolanahi ere, salbuespenak alde batera, egia da lan literarioek errealtatea onerako transfiguratu dutela. «Jauna, zein ederki gauden hemen!», hots

egin omen zuen Pedrok Tabor mendian. Halaxe aterako litzaiguke guri transfiguraturako zeinahi lekutan. Edo, behintzat, errazagoa litzateke poz hori erdieste.

Ez dago, lan literarioek eragindako transfigurazioan, inolako mirakulurik, inolako misteriorik. Bizitza da haren eragile. Pedro Mari Otañok Ameriketara joan behar izan zuen, etxetik urruti; Ameriketara, beste sentimendu askoren artean, herri mina nozitu zuen; onbu bat zegoenez bere arrantxoan, hura baliatu zitzaion Errekaldeko intxaurra gogoan hartzeko. Esperientzia hori hitz bihurtu zuen, eta bere hitzei forma bat eman zien atseginagoak eta iraunkorragoak izan zitezten. Errekaldeko intxaurra herri-minaren ikur zaigu gaur egun. Horra hor transfigurazioaren bidea.

Gure barneko alde hori, arima, espiritu eta beste hamaika modutara deitua izan dena, eta etengabe, egonkortasunik gabe, eraldatzen dena, batzuetan kezkoa ematen duena eta bestetan berunezkoa, arrazoiak doi-doi menderatzen duena, hori guztia, gure barneko alde, infinituaren pareko da. Batzuetan, infinitu horren puntu bat, une bat, kanpoko zerbaiti erantsita geratzen da. Harikatz bati, itsasarte bati, zuhaitz bati. Horra hor transfigurazioaren muina.

Pentsa ezazue, istant batez –antzara Konporta ganean dago jadanik, eta aldatu egin behar dut hizpidez– hutsala izan arren esanguratsua den kontu batean. Pentsa ezazue Euskal Herri honi «Suitza txikia» deitzen ziotela, eta diotela, batzuek. Bitxia da kontua, Suitza eta Euskal Herria ez baitira ia ezertan berdin; baina horrelakoak gertatzen dira bertsoen, poemen edo nobelen transfigurazio lana aintzat hartzen ez denean. Norberaren lekua bigarren mailako bihurtzen da, leku nagusi baten leku-orde hutsa, eta gainera, okerragoa dena, arrotzu egiten da. Ernio mendiaren gailurrean jarri eta hango ikusmira miretsiz «lurralde hau Suitza txiki bat da» esaten duena, bietako bat: edo suitzarra da, edo ez du sentsibilitaterik. Ez diote irakatsi, ez du ikasi, sentsibilitate hori izaten. Berari dagokionez, Otaño, Orixe, Lizardi eta gainerako guztien lana alferrikakoa izan da.

Gure antzara begira dago airetik. Luzea ez ezik, sakona ere bada bere begia, eta ikusi egiten du iraganekoa ere, gaur egun ez dagoena: botana alde batera, urez ia gainezka; erreka zuloan, errota txiki bat; goraxeago, baserri galanta, armarria ere baduena: Konporta bera.

Behin batez, artean ume nintzela, banindoan bizikletan Zizurkilgo eskolara eta adin handiko andre bat ikusi nuen pare hartan, errepidearen ertzean, zumitzezko besaulki batean eserita. Gelditu egin nintzen aurretik pasatzerakoa, agian keinuren bat egin zidalako, eta hizketan hasi ginen biok. Ederki hitz egiten zuen andre hark, bizi eta zorrotz; ondo entzuteko, berriz, tronpeta moduko bat erabiltzen zuen, ni zerbait esaten hasi orduko belarrira eramaten zuena. Tresna erabat harrigarria egin zitzaidan, eta agian horregatik daukat ueña gogoan.

Andre hark Mikela Elizegi zuen izena, eta Pello Errota bertsolariaren alaba zen. Atera berria zuen garaitu hartan, 1963. urtean, *Pello Errotaren bizitza* izeneko liburua. Esan dezadan zehatzago: liburua Aita Zavalak antolatua eta argitaratu zuen Mikela Elizegiri egindako magnetofoni-grabazioak erabiliz. Aita Zavalak berak aitortua duenez, arratsalde asko eman zituen eginkizun horretan; arratsalde gozo xamarrek, gainera; ez bakarrik Mikela Elizegiren kontuak entretenigarri zitzaizkiolako, baita haren alabek pastelak ateratzen zizkiotelako ere. Bistan da: beste garai batzuk ziren idazleentzat. Gozoagoak, berriro esanda. Pentsa! Suitza txikiarekin egokitu beharrean, «petit suisse» batekin egokitzen zen Aita Zavala arratsaldero. Alde ederreko kontua!

Pentsa dezagun orain, tarte batez, zenbat esku behar izan ziren liburu hori aurrera ateratzeko, noiz eta garairik okerreanean, diktadura bizian geundela; euskal kulturaren egoera sekula egon den mailarik behekoenean zegoela. Aita Zavalaren lana behar izan zen aurrena, funtsezkoena. Gero, zentsuraren oztopoa desegiten lagunduko zuen norbait. Hurrena, berriz, dirua arriskatuko zuen argitaldaria. Ondoren, noski, irakurleak behar izango ziren, irakurle biziak bategiz ere, Mikela Elizegiren kontraera zabalduko zutenak. Eta «ahozkotasuna» edo «herri literatura» esaten zaion horren aldeko giroa ere behar izango zen, noski, eta giro horretan Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica* saiakerak ere izango zuen eragina. Horrenbestez, liburutxoari aparteko irakurle bat falta zitzaion, irakurle *sine qua non* bat, bultzada erabakigarria emango ziona. Eta hura ere lortu zuen azkenean: Gabriel Aresti. *Pello Errotaren itzala* bere eskuetara iritsitako euskal «nobelarik» onena zela azaldu zuen Arestik, eta sari bat emango ziokeela berak.

Esku horiek guztiak eta beste hainbat ibili ziren tartean Mikela Elizegiren liburutxoari bultzaka. Eta, alde batera, arraroa izan zen ahalegin hori. Jakina da –nik behintzat ez daukat dudarik– literaturak eta literaturaren munduak eredu aristokratikoaren usteak eta maniak imitatzen dituela, eta *Pello Errotaren bizitza* ikusezina dela eredu horretatik begiratuta. Eta beste eredu nagusitik –eredu komertzialetik– begiratuta ere, berdintsu: ikusezin. Zer arrazoi izan zuten, beraz, Aita Zavalak, Lekuonak, Arestik, liburutxoari balioa emateko?

Nik badakit Aita Zavalak erantzungo lukeena, idatzita baitauka: izugarri maite dituela, gustatzen zaizkiola, herri kontuak, eta horregatik ibili dela «oiñez eta jakin miñez» halakoen bila. Eta badakit zer egon zen *Literatura oral euskérica* delakoaren oinarrian, Manuel Lekuonak berak aitortu baitzidan Andoaindik eman genuen paseo batean. Oñatin 1918. urtean ospatu zen Euskal Kulturari buruzko Nazioarteko Batzarrean sasi-jakintsu batek mespretxuz eta irainez hitz egin omen zuen Euskal Herriaz. Jende baldarra eta baioa zela euskalduna; ez zeukala Euskal Herriak poeta bakar bat ere, eta imajinatu ere ezin zitekeela egin Heinrich Heineren mailakorik sor zitekeenik hemen. Lekuona izugarri haserretu omen zen hori entzutean, eta aurka egin zion esanez ez genuela Heineren mailakorik edukiko, baina horren ordez ehunka herri-poeta ge-



neuzkala, bertsolariak. Une hartan bertan bertsolariaren balioa azalduko zuen liburu bat idaztea erabaki omen zuen.

Gabriel Arestik ere –asmatu egiten dut hau, ez bainuen berarekin gai honi buruz hitz egin, eta irakurri ere ez baitiot inon irakurri– sentsibiltate *alemaniarra* izango zuen Zavalaren eta Lekuonaren moduan, Herder, Schiller, Grimm, Von Chamisso eta beste erromantikoen ondorengoa; baina, horretaz gain, ideia komunistak zituenez, herri xehearen bizitzaz hitz egiten zutelako maiteko zituen Mikela Elizegiren edo bertsolarien kontuak. Gogoan daukat oraindik Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zuen Txirritari buruzko testua. Bertan, haren bertso bat kopiatzen zuen:

*etxe maiorazkoa nintzen tokamentuz, baldin serbitu banu aita pulamentuz,  
nere bizimodua beti dabil kantuz, despatxatuko naute ez banabil kontuz.*

Poeta sozialaren definizio paregabea zela zioen Arestik jarraian.

Zeinahi zirela ere, direla ere, arrazoiak, ondorioa bat bera da, eta hori da nik azpimarratu nahi nukeena: hirurek ere balioa ematen ziotela ahozkotasunari, herri literaturari eta, bide batez, hizkuntzari. Kontuan izan gure hizkuntzan, XX. mendera arte, oso urria izan zela bestelako literatura; bere arrazoiak bazuela Lekuonari Heine aipatu zion kanpotarrak, eta hizkuntzari balioa eman nahi bazitzaion nahitaezkoa zela aurrena herri literatura goraiatzeko. Batzuetan justizia osoz, hala nola Mikela Elizegiren kasuan.

Gure antzara aireratu da berriro ere, eta segituan hartu ditu begietan Asteasuko bi auzo nagusiak, Elizmendi –guk, asteasuarrok, «Elemendi» deitzen duguna– eta ibarrean dagoen beheko alde hau, «kalea». Elizara jo du zuzenean eta, zikoinaren ohiturak ere badakizkiela adieraziz, kanpandorrean kokatu da, erpin-erpinean.

Joera bat egin dio oraingoan antzarari iraganekoa ere ikusteko gaitasunak, eta arestian botana eta errota bezala, oraingoan aspaldiko jendea ikusten hasi da, baina gurpil zoroan bezala, zorabiatu egin bailitza. Militar bat ikusten du aurrena, Zumalakarregi jenerala, hainbat uda inguruko etxe batean eman zituena. Segidan, berriz, beste militar bat, hura ere karlista, liberalekin ez ezik Santa Kruzekin ere lehian ibilitakoa eta Erretotxe delakoan luzaro egondakoa: Lizarraga jenerala. Batera, Juan Bautista Agirre apaiz erretorea, «Asteasuko Agirre» izenez ezagutzen den idazlea, eta haren ondoan gure beste erretore hura, Hipolito Usabiaga, «donipolito». Umeak ere ikusten ditu antzarak, eskolatik atera eta harmailtan kokatuta argazki baterako; tartean zoritxarreko Joseba Arregi hura, 1981ean torturaren ondorioz hil zena. Ezkutatu dira umeak eta, irudi-gurpil etengabea, Mikel Laboa ikusten du arkupe azpitik pasatzen, eta Juan Mari Lekuona eliz barruan aldareko estatuei begira.

Azkenean, lortu du antzarak begirada zehaztea eta irudien gurpil zoroa geratzea. Ikusi, orain, pertsona bakar bat ikusten du. Asteasun jaio eta Asteasuko erretore izan zen Juan Bautista Agirre hura. Dakizuenetz, XVIII. mende-

aren erdi aldera jaio zen, Ilobate deitzen den etxean, batzuen ustez. *Eracusal-diac* –sermoiak– idatzi eta argitaratu zituen, eta euskal literaturaren klasiko-tzat jotzen da gaur egun.

Har dezagun liburuaren pasarte bat. Hamaseigarren atalekoa, adibidez. Bekatuaren arriskuaz ari da, eta dio:

*[...] etzabiltzala bada, Cristaua, aitzaquiac billatzen becuraco bide eta perillac uzteco; aldeguizu lembait len; bestela guertatuco zatzu michirrica edo ingumari guertatu oi zayona. Badabil inguma arguiaren inguruan ariñ ariñ: beguiratzen dio eta cembateta gueyago beguiratzen dion ambat gueyago lilluratzen eta choratzen du arguiaren edertasunac. Alderatzen zayo beñ ta berriz, eta erretzen diozca egoen eta zancoen erzac, baña ez da centzatzen. Atzenean, aimbesterañ alderatzen zayo non osotoro erretzen eta illic geratzen dan. Ay! Aditzen zauden inguma, inguma! Bazabiltza becatuaren bide eta perill orietan, erretzen eta quiscaitzen dira zure gura charrac, baña etzera centzatzen, eta atzenean illic gueratuko zara becatuan, edo gogoz, edo bestela. Ala guerta ez daquizun, aldeguin, aldeguin perilletik.*

Esan ohi da literatura «hizkuntzaren utopia» dela. Idazteari ekin eta tesuari forma bat ematen saiatzen denak lana eginarazten diola hizkuntzari: adierazi ditzala gauzak hobeto, zehatzago, ederrago; adierazi ditzala, gainera, adierazten zailenak diren gaiak. Edo areago: sor ditzala, idatzi bitartean, ustez eta inon ez zeuden gaiak, erreskata ditzala isiltasunetik. Ahalegin utopiko hori ez dago, bestalde, literaturan bakarrik; hori idazketa ororen muin-muinean dago. Juan Bautista Agirreren lanak ere, nahiz literarioak izan, beste zerbait ere baziren. Ideologia bat gizarteratzeko modua ziren, batez ere.

Hizkuntzaren eguneroko erabilera, hizketa arrunta, errazetik errazera ibiltzen da; ahalik eta modurik ekonomikoenean erabiltzen ditu hitzak eta esaldiak. Baita ahoskatzerakoan ere. Asteasuarrak, kasu, ez du «egin» esango; «iñ» esango du. Edo «hartuit», «hartu diat»uen orde. Baina modu errazean ezin da asko adierazi; ezin dira gai baten ñabardurak zehaztu; ezin da seduzitu; ezin da, argia mitxirrikarentzat bezala, testu bat erakargarria izan.

Esan beharrik ere ez dago utopia lortzearren, gero eta gehiago, hobeto, ederrago adierazteko gai izatearren, hizkuntzak baliabide asko behar dituela, eta, ahal den neurrian, bortxatu egiten duela hizkuntzaren naturaltasuna, hizketan azaltzen dena. Euskarak, esate baterako, aditza bukaeran jartzeko joera omen du. Baina Juan Bautista Agirrarentzat joera hori muga bat da, eta horregatik idazten du honela Jesusen eta bere dizipuluen arteko elkarrizketa bat:

*nere semechoac, maite izan ezazue elcar: Filioli, diligite alterutrum. Aspertu ciran icasteac, beti gauza bera adituaz, eta esan cioen: Maisua, cergatik beti gauz au esaten digu? Erantzun cien: Ceren Jaunaren Aguintea dan, eta au ongui eguiten bada, bera bacarrik asco dan.*



Bistakoa da. Aditza aurrera ekartzen du, eta «ceren» bezalako partikulak erabiltzen ditu. Ez da hau Asteasuko hizketa. Ez zuen Juan Bautista Agirrek horrela hitz egingo Asteasuko kalean.

Juan Bautista Agirreraren liburua zabaltzen duenak segituan ikusten du bertan bi hizkuntza azaltzen direla erruz: euskara eta latina. Izan ere, *eracusaldi* bakoitzak hamaika ohar dauzka, guztiak latinez. Batzuetan, oso ohar ausartak dira: halaxe *delectatio* delakoari eskaintzen dizkion bi orrialdeak edo *commotio carnalis*-i eskaintako ia hirurak. XIX. mendearen hasieran idazten ari zela gogoratu, eta gogoratu ere bere erakusaldiak sermoiak eman behar zituzten euskal apaizentzako «langaia» zirela, konprenitzen dugu latina erabiltzearen arrazoietako bat. Apaizen eta intelektualen hizkuntza sekretua zen, eta herri xeheari gorde nahi zitzaizkion kontuak azter zitezkeen berarekin. Baina puntu horretara iritsi aurretik egina zuen latinak bere lana. Azkar eta garbi esateko, markatua zuen euskara. Ekarriak zituen euskarara beharrezkoak ziren elementuak hobeto, zehatzago, ederrago lan egin zezan. Entzun berriro, arren:

*maisua, cergatik beti gauz au esaten digu? Erantzun cien: Ceren Jaunaren Aguintea dan, eta au ongui eguiten bada, bera bacarrik asco dan.*

Antzeko esaldiak egin zituzten Axularrek eta beste euskal klasikoek ere. Latina zekitelako eta, latina zelarik kulturaren eta literaturaren hizkuntza bakarra, haren moduak beren hizkuntzan txertatzea beste aukerarik ez zeukatelako, hala nola egin zuten Bibliaren itzultzaileek Ingalaterran, Frantzian eta Europako nazio guztietan. Esan genezake Albizturko andre hark Ernion bezalatsu: «Ederki ginen, haiek latina jakin ez balute!»

Gogora ezazue Lizardik gure hizkuntzaz egin zuen poema hura: «Bañanik, izkuntza larreakoa, nai aumat ere noranaikoa, yakite-egoek igoa; soña zaar, berri gogoa; azal orizta, muin betirakoa». Bada «noranahikoa» izateko, literaturan bezala biologian zein administrazioan erabili ahal izateko, euskarak presaketara modu hori behar zuen. Hori gabe, aldarrikatu zezakeen hainbatek –herri-tradizioaren edertasunaz ohartzeko gai izandakoek, kasu– bere balioa; baina urte gutxiko kontua izango zen. Izan ere, erabilerak eusten dio hizkuntzari; erabilerak ematen dio baliorik handiena.

Antzara aineratu egin da berriro. Baina, hegan hasi ordez, jauzi egin du hegoak zabal-zabal jarrita, eta Apalasangasti izeneko etxeraino iritsi da erorketa bigunean. Izan ere, han jaio zen, 1903. urtean, Antonio Arrue. Abokatua izan zen ogibidez, *Comunion Tradicionalistakoa* politikan, eta beraz Franco jeneralaren aldekoa gerran. Horretaz gain, euskaltzalea izan zen, hots, maitatu eta bultzatu egin zuen bere lehen hizkuntza. Euskaltzaindikoa ere izan zen, eta berak taxutu zuen, lege kontuetan trebe zenez, erakundearen arautegia.

Bultzatu egin zuela euskara diot, baina hobe da agian babestu egin zuela esatea. Diktaduraren garaian, gerra aurretik 1965era arte edo, euskal kulturak hari gutxi batzuk bakarrik izan zituen aurrera egiteko, eta zalantzak ere bazeuden, ez ote ziren hari horiek etenda geratuko. Halakorik gerta ez zedin, Ameriketako deseritik egin zuten lan Zaitegik, Ibiñagabeitiak eta hainbatek; beste batzuek, Mitxelena buru, hemendik bertatik. Horietakoa genuen Antonio Arrue. Hari esker atara ahal izan zen euskal klasikorik eraginkorrenaren liburua, Axularren *Gero* mila aldiz aipatua. Esku izan zuen, gainera, *Egan* aldizkariaren jarraipenean eta Euskaltzaindiarenean. Arduratu zen, bestalde, literaturaz ere, eta bere hitzaldi batean Gabriel Aresti goraiatu zuen. Jabetu zaitezte: *Comunión Tradicionalistako* gizon bat Alderdi Komunistatik oso hurbil ibili zen beste baten lana goraiatzen.

Gure antzarak ez daki asko ideologia politikoen gorabeherez, baina piztu egin du azken kontu honek, Antonio Arrueren eta Gabriel Arestiren arteko harremanak, eta gai horri buruz pentsatzeari ekin dio. Segituan, urduri jarri da, eta xaltoka hasi txepetx hanka-labur bat bezala. Xaltoek pentsamenduak ekarzen dizkiote burura.

Ideologia politikoak hizkuntza baten aurrera- edo atzerabidean duen garrantzia handia, hori bururatzen zaio aurreneko xaltoan. Bistakoa da: erabileran izanik hizkuntza baten indar-emailerik beharrezkoena, erabakigarria izan behar, nahitaez, eskoletan edo irrati-telebistan indarrean jartzen den hizkuntza eredia. Euskararentzat, esan beharrik ere ez dago, onuragarriagoak dira Gaszetetik erne ohi diren aginduak Parisetik iritsitakoak baino.

Bigarren xaltoa eman du antzarak, bigarren pentsamendua etorri zaio burura. Edo, zehatzago esanda, gogoeta bat etorri zaio, duela hilabete inguru Aingeru Epalzak artikulu batean azaldu zuena. XVIII. mende bukaerako bi diputatu frantses hartzen zituen Epalzak gogoan, Bertrand Baréré eta Henri Grégoire,

euskararen eta eremu urriko hizkuntzen aurkari gogorrak. Aztertu ditu Epalzak haien testu osoak, eta harrituta geratu da: biek ala biek ere hitz zoragarriak eskaintzen dizkiote euskal jendeari. «Maite zituztelako erauzi nahi zieten mintzaira ahotik», adierazten digu Epalzak. Kontua zen Grégoire eta Bareré diputatuentzat frantsesa argiaren hizkuntza zela, askatasunaren eta errepublikaren balio aurrerakoi guztietarako ate nagusia, eta beren ustetan, apaizak jendea fanatizatzeko baliatzen zirela euskaraz eta antzeko beste hizkuntzez. Gure Juan Bautista Agirreren *Eracusaldia* irakurrita, ezin esan Grégoire eta Barerék batiere arrazoirik ez zutenik; zerbait bazuten, nahiz eta, hain muturreraino joaten zirela, glotozida bihurtzeraino, idealisten joera totalitarioa antzematen diegun. Har dezagun, dena dela, alde positiboa. Hizkuntzaren erabilera balio positiboekin lotzen bada –tolerantziarekin edota demokraziarekin, kasu– hainbat eta hobe hizkuntzarentzat. Lan literario ederrekin lotzen denean bezalaxe.



Beste xalto bat eman du antzarak, beste pentsamendu bat bururatzen zaio: ideologia politikoak estu-estutik hartzen badu hizkuntza, normalean txarrerako izaten dela. Pentsa dezagun XX. mende hasierako purismoan, garbizalekeria delakoan. Badakizue: trenari «bultzi» esan behar zitzaion; elizari, «txadonna». Jakina, jarrera horren oinarrian ideologia politikoaren inbasioa zegoen; ideia politiko jakin batzuen mende jarri nahi zen hizkuntza. Labur: areagotu eta muturreraino eramán nahi zen gure hizkuntzaren eta auzokoen arteko desberdintasuna, gizarteak ere erabat desberdinak zirela erakusteko eta erakunde erabat desberdinak aldarrikatzeko. Zilegi ziren ideia politiko horiek, nahiz, nire iritzirako, gehiegizkoak izan; baina zilegi izan eta guzti, ezin ziren

hizkuntzaren alorrera eraman. Hizkuntzarekin ez dago bromarik. Baldarki tratatzen denean, musak jokatzten omen duen bezala jokatzten du: zapuztu egiten da, mututu. Begira zein izan ziren XX. mende hasierako garbizalekeria haren ondorioak: itxita geratu ziren Juan Bautista Agirrek eta beste klasikoek zabaldutako bideak; antzutu egin zen lan literarioa. Hala zirudien, erabil-ezintasunaren mugaraino eraman nahi zutela garbizaleek euskara.

*Kra!* egin du antzarak deiadar bere ahots zakar, ahatearena baino hautsiagoarekin. Izan ere, garbizalekeriak oraindik ere duen indarra gogoratu zaio. Egia ez dela inon «bultzia» edo «txadona» bezalako hitzik erabiltzen; baina «burdinezko arauen aro» bat pasatzen ari da gaur egun gure hizkuntza, eta garrai bateko desberdintze nahi hori dago testu askoren azpian, modu disimulatuan gainera, modu agian okerrean. Norbaitek pentsa lezake Euskaltzaindiaz ari naizela. Ez naiz ari Euskaltzaindiaz. Ez diot *Kra!* egin nahi Euskaltzaindiari. Ez dut ezagutzen euskaltzain bakar bat garbizalea denik. Areago: gaur erantzuna emango didan Xabier Kintana euskaltzainak erakutsi zidan niri garbizale ez izaten. Garbizaleak, gaur egun ere, lehengo tokian daude. Auzoarikiko desberdintasuna areagotzea helburu duten talde, erakunde eta giroetan.

Aireratu egin da antzara Apalagasastiko teilatutik, agian norbaitek, enparazita bere deiadarrekin, uxatu egin duelako. Urrundu baino lehen, Antonio Arrueren eta Gabriel Arestiren arteko lokarriaz pentsatu du. Kontrako ideologia politikoa zuten bi pertsona bat etortzea euskararen auzian, tarte bat jartzea iritzi politikoen eta hizkuntzari buruzko iritzien artean, eredugarria iruditzen zaio.

Antzarak gora egin du bat-batean, ziztu bizian egin ere, lurretik ahalik eta gehien urruntzeko asmoz. Izan ere, elizako kanpandorrean irudiek gertatzen zitzaiona gertatzen zaio orain pentsamendu ilunekin, denak batera etorri zaizkiola, zorabiatzeko moduan, eta, zinez, berak ez duela halakorik nahi: ez du pentsatu nahi 1970. urte aldera talka egin zuten bi euskaltzale belaunaldiek - *berriak* eta *zaharrak*- elkarri eman zioten tratu gaiztoaz; ez du pentsatu nahi, ezta ere, Gabriel Arestik bizi bitartean jasan zituen erasoez edota, oro har, Euskal Herriko joera sektarioek euskal kulturaren izan duten eragin bortitzez, bortitzegiaz. Gorantz ihes egiteak, ordea, ez dio asko lagundu, pentsamendu ilunak berarekin joan baitira. Horregatik iristen zaigu, orain, goi horietatik, bere deiadarra: *kra! kra! kra!* Zorionez, ez dugu besterik aditzen. Gainerako hitzak laino artean geratu dira.

Lasaitu denean, antzara Elizmendiko belaze bateraino jaitsi da. 1957. urte aldera, hantxe kokatua zegoen etxe eder bat, Añorga izenekoa, lurrak irentsi zuten oso-osorik. Eskolara gindoazen ume koxkorrek pasatu ezinik geratu ginen: zuloak, berrogeita hamar metroko diametroa zuenak, bidea ixten zuen. Etxeari zegokionez, bere teilatua bakarrik ageri zen, teilatu gorritzat bat, tximini txuri okertu bat zeukana. Lurpeko uren mugimendu batek eragin omen zuen luizia.

Antzara, goietan jasandako pentsamendu ilunen ondoren, indar gabe geratu da. Ez da metafora ederrik asmatzeko gauza. Ideia sakonik ere ez zaio etortzen. Ezinbestekoa izan zaio, beraz, lurrak irentsitako etxea hizkuntzarekin lotzea. Añorga hura bezala, lurperatuta geratuko al da euskara?

Galdera hau, eta galderak adierazten duen kezka, betidanikoa da Xamarrek «euskara jendea» deitzen duenarengan. Gogoratu gure lehen idazlearen poemak, gogoratu bere deidarra, antzarena baino dotoreagoa:

*heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya, eci huyen lengoagia içanen da floria.*

Hamaseigarren mendean zen hori. Hamazazpigarrenean, berriz, Axularrek hartu zuen hitza:

*baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, Euskaldunek berek dute falta, ta ez euskarak.*

Eta galderek, kezkek, kexuek indarrez jarraitu zuten; gaur arte jarraitu ere.

Joan den udan –desenkusa nazazue etxeko kontu hau azaltzeagatik– oso urruti ez dagoen hondartza batera abiatu nintzen familiarekin. Arratsa zen, gu ginen itsasorako norabidean gindoazen bakarrak; jende guztia itzulbidean zetorren, hondartzatik herrira. Halako batean, orduan 5 urte zituen nire alabak niri begira jarri eta esan zuen: «Munduak ez daki euskaraz!». Bikote eta talde guztiak gaztelaniaz ari baitziren.

Duela bi aste, berriz, ari zen nire 8 urteko alaba gosaltzen, eta esan zuen ez non eta ez han: «Euskarak behera egingo al du?».

*Kra!* egin du antzarak berriro. Zenbaki batzuen oroitzapenak jarri du oraingoan urduri. Hondartzadun herrian egin ziren hauteskundeen emaitzak dira zenbaki horiek. Denak batuta, euskararen alde –erabat alde– dauden alderdiek botoen ehuneko laurogeita bosta bereganatzen dute. Herri horretako gehiengoak eman zien beraz botoa, eta horren arrazoietakoa bat euskara izan zen; euskararen alde –oso alde– daudelako eman zuten boto hori. Hala ere, euskaraz ez dakien mundu batekoak dira.

Ondorio asko atera ahalko dira paradoxa horretatik, baina nik bakarria aipatuko dut: ideologia politikoa baino zerbait gehiago beharko dela gure hizkuntza eta gure kultura aurrera ateratzeko.

Duela urte asko, artean diktadorea bizi zela, Garikano anai-arrebak lizarrak aldatu zituzten Tolosatik Urkizura doan bideko zelaitxo batean. Gaur egun lizardi bat dago han. Zergatik jokatu zuten horrela? Bada haraino igotzen zelako, bakarrik egotera eta pentsatzera, euskal poeta bat: Lizardi, hain zuzen ere. Garikanotarrek beren ideologia politikoagatik ere hartuko zuten lan hori; baina ez horregatik bakarrik.

Duela ez hainbeste urte, berriz, diktadorea jadanik hila zela, Txillidaren eskultura eder bat jarri zen –atzerapen handiarekin jarri ere– Tolosan: «Lizardiren leihoa». Zeremonia negargarria izan zen. Aurrekoa dantzatu zuen dantzariak duintasuna eman zion, baina ondorengo hizlariek dena zapuztu zuten. Bakar batek ere ez zuen taxuzko hitz bat esan; bistakoa zen ez zutela beren jarduna prestatu; are eta nabarmenagoa ez zutela Lizardiren poema bakar bat ere ezagutzen. Nik gaur transfigurazioaz esan dudana aipatu izan banie, eta Lizardik transfigurazio horren alde egin zuen lana laudatu, erotzat hartuko ninduketen.

Ez da zalantzarik. Hizlari haiek beren ideologia politikoagatik zeuden han, ideologia horri esker. Errepika dezadan: beharko da zerbait gehiago gure hizkuntza eta gure kultura aurrera ateratzeko.

Antzara kale nagusitik dator zuzen-zuzenean. Hamargarren zenbakia daraman etxean pintura lehiaketa bat antolatu zen duela berrogeita bost urte. Kontua zen kartel moduko bat egin behar zela, eta bertan aholku edo agindu hau idatzi: «Egin euskaraz!». Lehiaketan etxeko hiru mutil koskorrek hartu zuten parte, eta irabazi, anaia bigarrenak irabazi zuen gai bezala purpurina eta zura erabiliz. Lehiaketaren antolatzaileek etxe sarreran zintzilikatu zuten, eta hantxe geratu zen urte askoan. «Egin euskaraz!».

Antolatzaileak, noski, nire gurasoak ziren. Kezkatuta zeuden, nonbait, behar baino erdara gehiago hitz egiten genuelako. Ikusten duzue: historia bera beti. Baina ez nuke esango seinale txarra denik. Ez zait inporta beti krisian dagoen hizkuntza bat izatea baldin eta krisi horrek bost mila urte irauten badu. «Hobeto krisian papagaioen mokoan baino» esan genezake Chateaubriandek bere memorietan kontatzen duena gogoratzuz, alegia bizitza luzeko papagaiok, Amazonian, ehun urte lehenago desagertutako hizkuntzetako hitzekin egiten zutela hots.

Antzara hemen dago jadanik, frontoi honetan. Bukatu dira bere gaurko joan-etorriak. Eta, antzara horri lotuta nagoenez, nik ere bukatu egin beharra daukat. Azken oroitzapen bat, hala ere, azken hegaldi bat. Elizaraino. Behin batez Juan Mari Lekuonari erakutsi nahi izan nion eliza, eta bera harrituta geratu zen bataioko pontearen edertasunarekin. Aurrez aldareko eskulturekin egin bezala –asko baitzekien arteaz, bere osaba Manuel Lekuonaren ildotik– haren xehetasunak adierazi zizkidan, eta, azkenean, pieza hura ezin zitekeela hala utzi esan zidan, erdi ezkutuan, zoko batean sartuta. Herriko apaizarekin hitz egitera joan ginen biok, eta hura gotzainarekin hitz egitekotan geratu zen. Handik hilabete batzuetara, bataioko ponte orain dagoen tokian jarri zen, aldarearen ondoan, ageri-agerian.

Dakizuenez, Juan Mari Lekuonak erabili zuen domina hartuko dut nik gaur, aurrez Manuel Lekuonarena izandakoa. Nire esker ona Euskaltzaindiari poz hau emateagatik.



## EKINTZAILEAREN LAUDORIOA

*Xabier Kintana Urtiaga*

Asteasuko alkate eta Euskaltzainburu jaunok, Jose Irazuren guraso eta senideok, Gipuzkoako Diputazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Gobernu-ordezkariorik, herriko zinegotzi jaun-andreok, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleok, lagunok, herriko seme-alaba eta adiskideok, egun on eta agur guztioi.

Hasteko, eskerrak eman behar dizkiot, ezinbestean, Jose Irazu adiskideari, beste izenez Bernardo Atxagari, Euskaltzaindiko bere sarrera-hitzaldi honetan berari erantzuteko ohore paregabe hau eskaini didalako. Ohorea esan dut, eta zinez hala da, baina aldi berean erantzukizun ez txikia ere bai. Izan ere, erakunde batean sartzeko protokoloak norbaiten ondoan aita ponte-bat eramatea eskatzen duenean, normalean datorrena hasi berria izaten da, eta horregatik bidean berak baino curriculum eta eskarmentu handiagoa duenen bat hautatu ohi da zeregin horretarako. Oraingoan, ordea, begien bistan dago heldu denak lehendik barruan zegoenak baino esperientzia handiagoa eta merezimendu hobeak dauzkala, eta, beraz, ekitaldi honetan, benetan diotsuet, Euskaltzaindiko atezain sentitzen naiz, apal-apalik, gurera datorren pertsonaia handi honi etxeko sarrera ohorez eta lotsaz umilki irekitzeko gertu.

Urte askotxo dira baina, Bernardo eta biok elkar ezagutzen dugula, eta merezimenduen aldetik berriz ere neure desegokitasuna aitortu behar dudan arren, adiskideen eskariei ezetz erantzutea ez da inoiz erraza izan. Beraz, inbitazioa eskertu eta onarturik, has nadin Jose edo, nahiago baduzue, Bernardoren hitzaldi bikainari erantzuten.

Literaturaz mintzatu zaigu euskaltzain berria, berarengandik espero eta nahi izatekoa zenez, eta literatura gaiak ere era berean eskaini dizkigu, literarioki, berak trebeki aukeraturiko ibilbidean azken bi mende hauetako idazle batzuk tartekatuz. Lehen begiratuan pertsona horiek elkarrekin zerikusi gutxi zutela pentsa genezakeen arren, Jose-Bernardok, antzara-joko honetan nolabait igel-saltoka, autore guztiok elkarrekin lotzen dituen sokari jarraitu eta denbora, toki, belaunaldi eta pentsaera arras ezberdinetako pertsonak multzo baka-rean biltzen jakin du.

Maiz esan da literatura, literaturaz sortzen eta mamitzen dela, eta, hortaz, oraingo idazleak lehenagoko idazleen elkarte berean daudela, autore hilen klub amaitugabeen, haiengandik ikasirikoa, etenik gabeko ibileran, birmoldatu, eraberritu eta itxuraldatu, gerozentzako ere abiapuntu izan dadin.

Izan, ideiak, sentimenduak, helburuak, iradokizunak, gizaki guztionak dira, eta, zentzu zabalean, literatoen klub hau unibertsala da, garai guztietako eta mundu osoko idazleei irekia. Halere, zentzu hertsiaigoan, literatura literaturaz elikatzen dela esaten denean, izkiriatzean idazleak darabilen hizkuntzaz ere ari gara, mintzaira konkretu horixe baita, azken buruan, hitzaren artistaren plastika berezia, pintatzaileak edo eskultoreak kolore eta formez baliatzen diren bezalaxe.

Elkarrekiko lotura, beraz, guztiek darabilten langaia da, hots, hizkuntza, eta euskaraz idazteak batzen ditu Pedro Mari Otaño, Gabriel Aresti, Antonio Arrue, Pello Errota eta beronen alaba Mikela, Juan Bautista Agirre eta Lekuonatar loba-osabak. Baina motz geldituko ginatete guztiek amankomunean daukaten ezaugarri bakarra euskaraz idaztea dela esango bagenu.

Erdi Aroan Europa eta aldirietako pertsona eskolatuen kopurua oraindik aski urria zenean, latina (1), intelektual guztien adieraztresna orokorra izaten zen, eta halaxe idazten ziren orduko tratatu filosofiko, teologiazkoak, lege arlokoak, ideologikoak eta zientifiko asko. Halere, poesia salbuetsirik, Erdi Aroan literatura oso gutxi lantzen zen latinez, segur asko hura kultura eta informazio hizkuntza landu bikaina izan arren, herritar gehientsuen eguneroko bizimoduan mintzaira hila zelako, fosil bat, eta, beraz, errealtate bizi eta hurbilaren erreferente izateko baliorik gabea (2), pentsaezina, adibidez, herriko jendeen aurrean teatro lan bat aurkezteko.

Horrexegatik, egiazko literatura modernoa Ernazimendutik aurrera agertu zitzaigun, idazleak nor bere herriko hizkuntzan idazten hasi zirenean. Horrek, hasieran bederen, Europan latinaren lehenagoko eremu zabala hautsi eta idazle bakoitzari bere hizkuntzaren araberrako hedatze-barruti propioa ematen zion, geroxeago, auzo-hizkuntzetara eginiko itzulpeni esker, hedatuz joango zena. Alde horretatik arrazoia zuen Pessoa poetak bere aberria portugaldar hizkuntza zela zioenean, portugesez mintzatzen den lekuan aise eta ongi konprenitua sentitzen zelako, *ubi bene ibi patria*, hots, «ongi sentitzen garen tokian, hantxe dugu aberria» esaera klasikoaren bidean. Eta halaxe pentsatu zuten, nonbait, gure herria beren hizkuntzarekin definitu zuten antzinako euskaldunek ere, hari Euskal Herria deitzean, hau da, euskararen herrialdea.

(1) Eta greziera ere bai, berau mendebaldean hain jakina eta erabilia izan ez arren.

(2) Antzeko zerbaite gertatzen zaigu, *mutatis mutandi*, gaur egun ingelesarekin ere, unibertsitateetan zientzi eta ikerkuntza artikulua idazteko noraezeko tresna da, baina bera txikitandik ikasirikoak alde batera utzirik, inor gutxi ausartzen da ingelesez bere jatorrizko sormen-lanak, hots, literatura, idaztera.

1962an eginiko poema eder batean (3) Mukhran Matxavariani georgiar poetak bere herriaren hizkuntza Georgiako hiriburutik igarotzen zen ibaiarekin konparatzen du, eta ardandegiko suiletik ontzira, ontzitik botilara, botilatik edalontzira eta hortik ahora doan ardoarekin, edo pertsonen zainetan beti bizi dabilen odolarekin, belaunaldiz belaunaldi heredatua. Era berean, antzinako idazle, errege, pentsalari eta heroien ahotik ibiliriko hitzak gaur egungo gazteen ahoetan ere errepikatzen dira, eta mendez mende belaunaldien arteko segida osatzen.

Hizkuntzarekin batera badira beste balio batzuk, mintzaideen artean konpartituak: oroitzapen historikoa, ohiturak, erreferentzia sozio-kulturalak, esae-rak, atsotitzak, kontzeptuak, konnotazioak, jokorako gaiak, baliabideak, hitzen arteko loturak eta esale-entzule edota idazle-irakurle arteko konplizitateak. Horiek, eta ez politikak, elkartzen ditu jendeak, azken buruan. Hori dela eta, portugaldar poeta hura Portugalen bezain ongi sentitzen zen Brasilen ere, espainolak Latinamerikan bezalatsu, tartean ozeanoa izan arren. Eta, halere, legearen arabera itsasoz bestaldeko pertsona horiekin lotura juridiko txikiagoa daukate, Europar Batasuneko frantses, ingeles, aleman edo poloniarrekin baino.

Arrazoi berberetatik, ez da hain zaila ulertzeko, zergatik Ipar eta Hegaldeko euskaldun asko, muga politikoak gorabehera eta tartean ozeanorik izan gabe, elkarrengandik hurbilago sentitzen garen, guregandik hizkuntzaz eta kulturaz askoz ere urrunago bizi diren beste auzo batzuegandik baino, lege-konstituzioek bestelakorik esaten diguten arren. Hau baina, ez du oraindik ulertu, antza, egun hauetan Bilboko egunkari batean, Azkue literatur sarien berri emateko orduan, idazpuruan eta era probokatiboaz «*Crece la presencia femenina y francesa en los premios Azkue*» bezalako perla idatzi duenak, letra handiz gainera.

Esandakoetatik, idazteko orduan, normalean inork ez du bere hizkuntza aukeratzen: nor bere herrikoa darabil txikitandik ikasia, ingurutik jaso duena, horrexetan baita ondoenik moldatzen.

Baina kasu: normalean esan dut, hau da, egoera normalean bizi garenean. Beraz, elkarri ongi ulertuko badiogu, lehenengo eta behin, normaltzat zer hartzen dugun zehaztu beharko genuke. Bere etxeko edo herriko ama-hizkuntzan eskolatua denak, horixe du mintzaira normala, eta gainerako berbetak georago ikasiriko gehigarriak dira. Guztioi ez zaigu, ordea, geure herriko edo ama-hizkuntza irakatsi, Estatuko etnia nagusi eta hegemonikoarena baizik, eta mintzaira hori, sarritan, denboraz bigarrena izan arren, etxekoa edo herrikoa baino hobeki geureganatu dugu.

Hitzaldia arintzeko baina, zilegi bekit hemen pasadizo bat kontatzea, kontu honen argigarri. Beharbada baten bat harrituko zaidan arren, jakizue duela

---

(3) Erantzun-hitzaldi honen bukaeran, georgiar poeta horren euskal itzulpena ageri da.

berrogei bat urte Bizkaiko enpresa batean ari nintzela lanean, traktoreak eta nekazaritzarako tresnak saltzen. Behinola, Uribe-Kostako udalerrri batean behiak jezteko makina bat saldu behar eta bezeroari bere baserrian hitzordua jarri nion, makina hartaz eta bera ordaintzeko moduz hitz egiteko. Esandako orduan haraxe joan nintzen, baina eroslea etxean izan ez. Hortaz, baserriko atartean haren zain egon nintzen, gure gizona noiz agertuko. Denbora pasa eta, hona eta hara begira nengoela, halako batean ate ondoko horman paperezko bilgu edo erroilutxo batzuk ikusi nituen, harlanduen bitartean sarturik (4).

Basetxe hartan senar-emazte ezkonberriak bizi ziren. Andrea etxeko alaba bakarra zen, tratuan aski trauskil eta umore garratzekoa, neskazahar izaten hasteko adinean ezkondua. Gizona, aldiz, bermeotarra, marinela izandakoa, nekazaritzan molde gutxi eta eskarmenturik bat ere gabea. Gainera, ez zuen ezkututzen baserriko bizimoduaz sentitzen zuen axolagabekeria. Hori bai, senar-emazte bitxiak izan arren, bi-biak euskaldun peto-petoak.

Atarian nengoela, beraz, jakin-minak bultzaturik, indiskrezioa izan arren, halako batean hormako papertxo bildu horietako bat hartu, zabaldu eta han eskutitz nimiño bat aurkitu nuen idatzirik, guk, ikasle ginenean, apunteekin etsaminetan kopiatzeko erabiltzen genituen txuletak bezalako bat. Etxeko alabak hartan bere gizonari herrira joana zela esaten zion erdaraz, zerbait erostera, eta, bukatzeko, maitasuneko hitz hauek jartzen: *Tu Begoña*.

Gogoan dut, hura irakurtzean, irribarre egin nuela. Egia esan, nekez pentsa nezakeen, salerosteko kontuetan nirekin eskuarki hain zakar eta latza izaten zen andre hark, bere bihoztzua ere bazeukala, eta, senarrarekin mintzatzean behintzat, hain gozo eta inspiratua ager zitekeela. Esan dizuedanez, biek elkarri beti euskaraz egiten zioten, baina *Tu Begoña* hark argi salatzen zuen sentimenduen hizkuntz ereduak nondik jaso zuen andreak. Eta ez dut uste erdaraz asko irakurtzetik ikasia zukeenik hura, etxe osoan ez baitzen liburu bat ere agertzen. Onenean ere, filmetatik edo garai hartan erdal irratietatik arrakasta handiz ematen ziren nobela arrosaren batetik, agian *Ama Rosa* edo *Gautier Casaseca* jaunaren eskutik. Baina edonola ere den, huraxe zen orduko euskaldun gehienek eredu nagusia maitasunez hitz egiteko.

Ez, lumara berez etortzen zaiguna ez da, besterik gabe, gure eguneroko hizkuntza. Horretaz ongi jabetu zen Pompeu Fabra ere. Jaun hau Bilboko Industri Ingeniarren Eskolako irakasle izan genuen, joan den mendearen hasieran. Behin bere senide bati eskutitz bat idaztea bururatu omen zitzaion. Pompeu Kataluniako semea zen, eta berezkoa denez, senide horrekin beti katalanez mintzatzen zen. Gutuna idazten hastean ordea, paperean jarriko lehen hitzak irakurtzean, konturatu ere egin gabe gaztelaniaz idatziak, haiei harriduraz be-

---

(4) Urte batzuk geroago Jerusalem, judu jainkotiarrek gauza bera egiten zutela ikusi nuen Tenplu zaharraren mendebaldeko horman, guk eskuarki Deitoreen Horma deituan, izkributxo horien bitartez Ahalguztidunari mesedeak eta eskatzeko.

gira gelditu zen. Nola izan zitekeen baina! Bera senide harekin gaztelaniaz hizketan?. Orduan gutuna bigarrenez idazten saiatu zen, oraingoan katalanez. Halere, berehala ohartu zen gauzak ez zirela hain errazak, eta mintzatzea bat baina ahoz esandakoa idaztea beste bat zirela. Eta, azken buruan, idazteko automatismoa eskolan irakatsi diguten hizkuntzan daukagula, eta ez, nahitaez, geure ama-hizkuntzan.

Izkribuz komunikatzeko premiak arazo hori bere haragitan sentiarazi ziolako, Pompeu Fabra, harrezkero, katalan hizkuntza sakonki aztertzen hasi eta bera izan zen gaurko katalan idatziari oinarri sendoak ezarri zizkiona, hau da, literatur katalan batuaren aita. Haren omenez gaur Bartzelonako unibertsitate batek Pompeu Fabra izena darama.

Esandakoen argitan, berton gauden askok, beharbada gehienok, geure esperimentiaz aitor dezakegunez, besteren hizkuntzan hazitakoen kasuan, idazleak, elebiduna delako, luma hartzeko orduan nahitaez hautatu beharra dauka berak dakizkien bi mintzairen artean. Idazle elebakardunak, aldiz, ez dauka aukeratu beharrik, horixe baita, txikitandik dakien hizkuntza soil hori, idazteko daukan tresna eta baliabide bakarra, hain zuzen.

Hizkuntza horietako batean, etxeko giroan ikasirikoan, bere sentimenduak, maitasun-bizipenak, herriarekiko loturak dauzka, baina, horiek adierazterakoan, eredu landuak falta, eskuarki jasoriko erreferentziak erdarazkoak izan direlako. Hizkuntza bera ere maiz egoera dialektalean zatikatua aurkitzen du, morfologia eta ortografian etengabeko zalantzak dauzka eta horren sintaxiaren labirintoan duda-mudazko makuluaz ibili behar izaten du haztamuka.

Maitasun platonikoarengatik, idazleak etxeko Mari Errauskin polit baina umezurtz, dirugabe, zarpail eta jantzi urratudun hau nahi luke emaztegai, baina horren aldamenean, bestea agertzen zaio. Inoreneko alaba eder aberatsa, halakoxe gurasoak dituena, jantzi hobereenez apaindua, mojen paguko ikastetxean ikasitakoa, manera dotoredun eta distiratsua. Gainera, irribarre egitean badaki bere xarma zoragarriak erakusten, Parisko Loréal eta Madrileko Heno de Pravia kosmetika-etxeei esker lortuak. Horrekin ibiltzea erabakiz gero, gainera, berorren gurasoen adiskide eta harreman-sare zabalari esker, toki guztietara ate nagusitik sartu eta negozio bikainak egiteko aukera izango lituzke. Ia neurrigabeko ospea lortzeko bideak ireki ere bai. Oi tentazioaren handia!

Bai, Bibliak berak ere juduei atzerriko emazteekin kontuz eta tentuz ibiltzeko gomendatzen zien, beren arima galdu nahi ez bazuten behintzat. Gogoa zer gertatu zitzaion izan Samsoni ere, Dalila filistearraren besoetan gehiegi fidatu zelako.

Zaila gertatzen da inoren eginak epaitzea, batez ere, norbera egoera eta denbora berean egon arren, besteen barne kondizionamenduak nolakoak diren ez dakigunean. Ni neu behintzat, sarritan zalantzan ibiltzen naiz. Horregatik horrelako tentazio handietan bertan behera erori dena ez dakit ondo nola juz-

ga: pertsona normaltzat, alegia, amuan loturik dagoen zizare-beita zapoetsua irentsi gabe ezin egon daitekeen arrain gizagaixoa bezala, ala duintasunez haren aurka gizonki –edo emakumeki– ezetz esaten jakin ez duen txepel bat gisa. Eta kontuak badu bere garrantzia, egiten dugun epaiketaren arabera, kontra-koa ere epaitu beharko dugulako, jokoan, tranparik ez egiteko, beti ere karta eta erregela berberekin jokatu behar delako.

Horretara, bere garaiko giroan korrontearen kontra joan eta euskara ikasi edota landu beharrean, gure hizkuntzaz idazteko bide neketsu, txarto ulertu eta gaizkiago ordainduari uko eginik, erdaraz idazteko bide errazago, ongi txalotu eta hobeki saritua hautatu duena, agian pertsona normaltzat har daiteke, gizakiok haragizkoak eta mundu honetan behin baino ez garela biziko argudiatuz. Baina, logika berbera aplikatuz, aurrean aurkitzen zituen oztopo ugari eta potoloen kontra egin eta euskarazko idazbidea aukeratu zuenari, ordea, ez-normal iritzi beharko diogu; hau da, idazle hori pertsona heroiko, erraldoi, herriar goren eta ia-ia supergizakitzat hartu beharko genuke.

Eta hona heldurik, publizitaterako etena. Ez alde egin, mesedez, laster itzuliko gara eta:

jaun-andreok,

Badakit ez dela oso atsegina izaten, eta are gutxiago interesatuaren aurrean, berori pertsona apala eta umila denean, bere merezimenduak halako *striptease* publiko batean banan-banan aipatzen jardutea. Baina ohitura da, sarrera-hitzaldien legea nolabait, eta halaxe jokatu behar. Dena den, euskaltzain berriarentzat eta gainerakoentzat ere zama hau astunegia gerta ez dadin, gauza onak zatika ematen saiatuko naiz, eta bere lanen zerrenda azken eranskin baterako utzi, hitzaldi hauek argitara eman daitezenean, zuek, lasaiago, irakur dezazuen.

Literaturarako, aspaldian Bernardo Atxaga goitizena hartu zuen, eta gaur horrela ezagunagoa den arren, benetako izena Jose Irazu Garmendia du. Guztiok hobeki aditzeko, nik aldizka Jose-Bernardo, edota Bernardo-Jose moduan aipatuko dut, kanta zaharrak dioskunez, batela omen zuen Jose-Migel / Migel-Jose haren antzera.

Jose Irazu Garmendia hemen, Asteasuko herri honetan, sortu zen 1951ko uztailaren 27an. Jazinto eta Izakun dira haren gurasoak, euskaldun jatorrak biak. Josez gainera, beste bi seme dituzte: Iñaki eta Ramon, berauek ere, seme zintzo askoak. Aita arotza izan da, eta etxegilea ere bai. Koldo Mitxelenari behin entzun nionez (5), eskulangileen seme-alabek maiz sormen berezia izaten dute, genetikaz edota gurasoei begira ikasia, eta konposizio eta eraikuntzak, materialak zein fikziozkoak, antolatzekeo trebetasun aparta ere bai. Segur

---

(5) Izan ere, haren aita saskigilea zen, edo berak zioskunez, «*xeterua*».

asko, gure Bernardok eta bere anaiek ere halako zerbait zor diote aitari, beste gauza askorekin batera.

Ama, aldiz, maistra izan da, pertsona ongi eskolatua beraz, eta berarengandik kultura eta liburuak irakurtzeko zaletasuna datorkiola susma dezakegun arren, hori egia izanik ere, aitak ere semeak bide beretik bultzatu dituela jakin dut. Beraz, biengandik jasoriko heziera onean oinarritzen dira, Jose-Bernardoren irakurmena, idazle-sena eta bere gainerako zaletasunak ere: musika, pintura eta naturaganakoa.

Lehen ikasketak Asteasun bertan egin zituen, eta gogorapen oso onak dauzka bere herriaz, adiskideoi maiz kontaktzen digunez. Hementxe bizi, ezagutu eta bereganatu zuen bere haurtzaroan gure herriaren euskal giro jatorra, aspaldian, zoritxarrez, toki askotan urritzen ari zaiuna. Goi mailako ikasketak egiteko Bizkai aldera alde egin zuen. Bilboko Unibertsitateko Ekonomia Zientzien Fakultatean (6) estudiatu eta, behin aldi hori amaitu eta gero, zenbait lanbidetan aritu zitzaigun (euskara irakaslea, irratiko gidoilaria, liburu-saltzailea, ekonomialaria, etab.), harik eta, azkenean, laurogeiko hamarkadaren hasieran, literaturari bete-betean ekin zion arte. Bera izan da, orain arte, euskaraz idaztea erabateko lanbide eta bizimodu bihurtu duten autore bakanetako bat, eta, oso oker ez banago, lehena ere bai. Bilbon zegoela Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegian parte hartzen zuen. Egia esan, orduko xea da gure elkar-ezagutzea, 1970. urte ingurukoa, bion adiskide dugun Jesus Eizmendi andoainarrak aurkezturik. Giro eta garai berean Andolin Eguzkitza, Isabel Lertxundi, Joseba Agirreazkuenaga, Gotzone Agirre, Roman Basurto, Jon Juaristi, Arene Garamendi eta beste lagun batzuekiko ezaupidea izan zuen, guztiak, zein bere arloan, hizkuntza, literatura, historia, arte edota irakaskuntzan geroago oso nabarmenduak.

Bere ibilaldian zehar Bilbon, Donostian eta Andoainen bizi izan da. Herri horretan Rikardo Arregi eta Manuel Lekuona ezagutu eta tratatu zituen, eta, ondo dakidanez, aparteko atxikimendua sentitu du beti Andoain eta andoaindarrez. Azken aldian Estatu Batuetan ere bizi izan da, Atlantan hain zuzen.

Bere lehenbiziko lanak Lur argitaletxean plazaratu zituen, eta han Gabriel Aresti, Ramon Saizarbitoria, Arantza Urretabizkaia, Ibon Sarasola eta Luis Haranburu-Altuna ezagutu eta tratatzeko aukera izan zuen. 1972an *Borobila eta puntua* antzerki lan labur esperimentalak eman zigun argitara; 1976an bere lehenengo eleberria argitaratu zen, *Ziutateaz*. Bi urte geroago, 1978an, bere lehen poema liburua atera zuen, *Etiopia* zeritzona, Liburu hau Pott aldizkariaren editorialean argitaratu zen, eta jadanik Andolin Eguzkitzaren kritika-artikulu bikaina merezi zuen urte bereko abenduaren 15ean ANAITASUNAn.

---

(6) Fakultate hori orduko *Bilboko Unibertsitatean zegoen*, edo hobeki esan, *Universidad de Bilbao-n*, izena erdara hutsean baitzeukan. Hura 1980 urteaz gero desagertu zen, harrezkeroko Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatean integratzeko.

Hasieran literatura experimentalaren ildotik abiatu zen, abangoardismo estetiko eta ideologikoan kokatua; hor, literatur generoen arteko bereizketak baztertzeko zituen, bai eta, berariaz elkarrekin nahasten ere, ordura arteko errege-la eta sailkapenak hautsi nahirik.

Literatura aldizkari askotako kolaboratzaile edota bultzatzaile izana da Atxaga, hala nola, *Ustela* aldizkarietan, –Donostia 1974-1976 (*Panpina Ustela*, *Zorion Ustela*, *Mermelada Ustela*, Koldo Izagirrekin batera (1974-1976)– eta *Pott* aldizkarian, Bilbo, 1978, hor Joxe Mari Iturralde, Joseba Sarrionandia eta Ruper Ordorika lagun zituela. Orduan idazle eta kantari hasiberrien izenak besterik ez ziren; orain, aldiz, gure kulturaren zutabe sendoak. Gaur ere, guztion pozerako, antzeko landare berriak hazten ikusten ditugu geure inguruan, zalantzarik gabe, geroko euskal ortziko izargai.

1980 inguruan, haur literatura idazteari ekin zion, batetik, eta geografia pertsonal bat sortzeko zereginen hasi, bestetik: *Obaba*. Hamarkada osoan zehar hainbat ipuin eta nobela labur argitaratu zituen, gehienak *Obabakoak* liburuan (1988) bilduak. Lan horrek sekulako oihartzuna izan zuen, baita Euskal Herriatik kanpoko inguru literarioetan ere, eta urte berean *Euskadi Saria* jaso zuen. Hurrengo urtean, gainera, obra berberetatik *Espainiako Literatura Sari Nazionala* eman zioten eta Glasgow hirian banatzen den *European Literary Award* sarian ere finalista gertatu zen. Obra hau, guztiok dakizuenez, Montxo Armendariz zuzendariaren eskutik duela urte bi pantailara eraman izan da.

Geroago *Gizona bere bakardadean* nobela ere (1993) eman zuen argitarara. Atxagak azken urteetan idatziriko kontakizunei, herri literatura eta hizkuntzaren aldetik, euskal tradizio literarioaren kutsu nabaria darie. Kaleratutako azken bi liburuekin, *Soinujolearen semea* eta *Lekuak*, ordea, bukatutzat eman du ildo hori.

Eta publizitate-aldia bukatu baino lehen, utz dezagun azken tartetxo bat umorerako:

Behinola, kuartelean, kapitainak soldaduak lerro batean tente jarrarazi eta, haiei begira zegoela, arrisku handiko misio baterako hiru boluntario behar zituela esan zien. Hori entzunda, soldadu gutxi batzuk ez ziren mugitu, beren lekuan gelditu ziren trinko, baina kapitainak horietatik hautatu zituen hirurak, gainerako guztiek pauso bana eman zutelako... atzerantz.

Baina gatozen harira. Bai Etxeparek eta bai Joan Perez Lazarragak ere ebanjelioko pasarte famatu bat jorratu zuten beren poemetan, hots, «Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri» (Mat, 25,35-36). Eskuarki hitz horiek banabanako gizakiez ulertu dira, baina, ene ustez, berdín aplika lekizkieke giza talde eta nazio osoei, beroriek ere inoiz gose, egarri, biluzik, gaixorik eta preso egon daitezkeelako.



Gorago aipatu dudan aukeran, egoera gogorrean herriko hizkuntza utzi eta erdal bidera pasatuak, hots, tentazioan eroriak, pertsona normaltzat hartuz gero, aldi berean, besteak, kosta ahala kosta korrontearen kontra euskararen bide neketsutik aurrera joandakoak heroitzat jo beharko genituzke.

Halere, bere herria eta jendea zapaldurik aurkitzen dituenen, gose, egarri, biluzik eta preso, intelektual normal batek (7) gutxien-gutxienez egin dezakeena eta moralki egin behar duena hauxe da, zapalkuntza horren aurka jo eta herriari ukatzen zaizkion balioak, hizkuntza lehenik, bultzatu eta salbatzen ahalegintzea, bide batez itxaropena, aurrera egiteko adorea emanaz. Beraz, hor ez legoke inolako heroismorik, ez supergizentasunik, betebeharrak moral hutsa baizik, horixe baita duintasunak, kontzientziak, zintzotasunak edozein pertsonari eskatzen diona. Ni neu behintzat iritzi honetakoa naiz: inori ez zaio eskerrik eman behar egin behar zuena egin duelako, berak ongi egindakoa aski ordaindurik daukalako bere kontzientziaren lasaitasun eta barne pozarekin.

Hemen, ordea, behialako predikari zahar haien betiko baina madarikatu hura agertzen zaigu. Orduan, bide zaila onartu zutenak herritar normaltzat hartzen baditugu, nola iritzi beharko diegu, txikitandik euskara jakinda, ondoren erdal tentazioan erabat eroritakoei? Ez nauzue ni epaile. Ondo gogoan ukan behar dugu pertsona bakoitzak bere zirkunstantzia, bizipen eta testuinguru berezia ukan duela. Ene ustez, bakoitzak, bere bizitzan onartu eta garatu duen ideologiaren arabera juzgatu beharko luke zintzoki bere burua. Edonola ere, dakiten hizkuntza bakarraz lau haizeetara abertzale gisa agertzen direnak, segurenik, ez dira barkakizunenak izango.

Eta orain, bigarren publizitate-aldira goaz. Ez alde egin, mesedez!

Bernardo-Jose ezkonduko dago. Egia esan, berandu xamar ezkondu zen, eta segur aski arrazoi osoaz, perla ederrak ez baitira berehalakoan ez edonon aurkitzen. Eta halakoxea da, preseski, Asun Garikano, bere emaztea, laguna, emakume atsegina, beren alaba bien ama, irakasle, idazle eta kritikaria. Itzultzailea ere bada, eta ezagunak dira berak egindako euskal itzulpenak, Stevenson-en (*The treasure Island*) *Altxor Uhartea*, eta Faulknerren (*The sound and the fury*) *Hotsa eta Ardaila* izenez argitaratuak. Bistan da lan asko egin duela hor, eta oso ondo gainera.

Eta bai, lehentxeago esan dizuedanez, Asunek eta Josek bi alaba dituzte: Elisabete, 8 urtekoa eta Jone, 6 urtekoa. Biak, politik bezain bihurritxoak dira –hau da, beren adineko neskatu zintzo guztiek izan behar dutenez–, baina gainera guztiz azkarrak, eta aitaren eragile onak ere bai. Nondik uste duzue zuek, bada, ateratzen dituela Bernardo-Josek bere haur-kontakizunetarako ideiak? Nork motibatzen eta bultzatzen du bera Bambulo, Xola, Nikolasa, Ramuntxo, Jimmy Potxolo edo Flannery-ren abenturak idaztera? Ala pentsatzen al duzue

---

(7) Eta eskuarki badirudi toki gehienetan idazleei intelektual irizten dietela.

perzonaia horiek guztiok Aralarko sorginen batek belarrira kontatzen dizkiola? Ba ez! Orain Elisabete eta Jone ondo isilik daude hor, txintxo eserita, baina nik badakit beren sekretu horretaz zerbait.

Baina itzul gaitzen Jone eta Elisabeteren aitarengana, gure Jose-Bernardorengana. Idazle handi gehienen antzera, irakurle amorratua izateaz gain, Jose Irazu bidaiari eta so egile bizkorra dugu. Noranahi doala ere, inguruan gertatzen dena, esaten dizkietenak eta entzuten dituenak oroimen harrigarriaz bildu eta ondoren horiek guztiak inbidia emateko adimenaz hausnartzen ditu. Horixe du, noski, bere gai-harrobia: batetik, inork sorturiko literatura eta, bestetik, bere bizi-esperientzia aberatsa.

Horrexegatik bildu ditu, bere antzara-joko literario horretan, autore horiek. Guztien arteko lotura, hizkuntza izan da, bai, baina, aldi berean, hizkuntza bat guztiak kontzienteki hautatua, eta hor, ezinbestean, gure idazleak gogaidetasuna aurkitu du, batzuk ezker, beste batzuk eskuin, eta zenbaitzuk erditatik joan arren, den-denak euskalgintzaren bide beretik ibiliak direlako. Eta Bernardok badaki bide lagunen artean hautatzen, oraingo eta lehengo bidaideak aukeratzeko orduan. Ordea, ez da bera hurkoa erraz baztertzen duten horietakoa, eta askok ondo gogoan daukagu, kenketa murrizgarriak ez baina batuketa aberasgarriak egiteko gomendatu ziela zuhurki, Orixeren izenean kale bat jartzeko aitzakiaz, hura Cervantesi kendu gura ziotenei, idazle biei kale bana ipintzeko soluzio bikaina eskaini zuenean. Horrela, edozeinekin harremanak izateko daukan izaera atseginagatik, bestalde, toki, giro, maila eta ideologia askotako lagunak ezagutzeko aukera eman dio.

Bere lanak, hizkuntza askotara itzuli dira eta bera da, apika, literaturaren mundu zabalean euskaldunok dugun enbaxadore ezagunena. Behin izan naiz Eslovenian, baina bertako hiriburuan, Ljubljanan, izan genuen gidariak ongi ezagutzen zuen Bernardo, bertako unibertsitatean euskal literaturari buruzko hitzaldi bat emana zuelako, eta haren liburu batzuk eslovenieraz saltzen zireneko liburu-denda handi batera eraman gintuen. Zorionez, inor bere herrian ez dela profeta dioen esaera gorabehera, ez da txikiagoa Euskal Herrian gure Jose-Bernardori guztiok diogun estimu eta maitasuna.

Bernardok istorioak asmatzeko daukan ahalmenak beti harritu nau. Pasadizo bat kontatuko dizuet, esandakoa nolabait ilustratzeko. Duela hogeita zazpi bat urte, Sobietar Batasuna oraindik zutik zegoenean, Georgiako Errepublikan ikasten egoteko aukera izan nuen uda bitan, bertako Zientzien Akademiak gonbidaturik. Hemengo andre bat ezagutu nuen han, Francisca Domingo, gerrako umea, hau da, gerra zibilaren garaian, oraindik haurra zenean, gurasoek, bera babesteko asmoz, hara bidalia. Georgiar batekin ezkondua zen eta lau seme-alaba zituen. Elkar ezagutu ondoren, andre hark, mesede bat eskatu zidan. Oporretan hona etortzeko asmoa zuen, hemengo senideak eta bisitatzeko. Handik dirurik ateratzeko baimenik ez zuen, baina bai, ordea, nahi adina produktu. Hortaz, eskatzen zidan ea esango nion hemen saltzeko zer ekar zeza-

keen eta ea ni arduratuko ote nintzen berak ekarririko gauzak bertan saltzen, hortik lorturiko diruaz berak hemen oporrak pasatu eta bertoko gauza batzuk, harako, erosteko. Laguntzeko asmoz, baietz esan nion. Eta hala egin genuen.

Franciscak Errusiatik kutxatila lakatuak ekartzen zituen (8), miniatura bikainez apainduak, eta nik neuk, horiek lagunen artean saltzen nituen, ezagun-ezagunen artean soilki, balio handiko produktu bitxiak izaten zirelako, men-debaldera oso gutxitan heltzen zirenak, nahiz eta, andre hark lortzen zituen prezioak merkatukoak baino askoz merkeagoak izan, hango artistei zuzenik erosiak izanez.

Behin, Donostian nintzela, Bernardo aurkitu nuen bulebarrean, ene bes-bestengusu Jesus Higueraekin batera. Biak agurtu eta kutxatila haietako batzuk erakutsi nizkien. Bernardo berehala konturatu zen arte-lan bikainak zirela eta honela esan zidan: «-Xabier! ez dakizu asko zein ongi datorkidan hau. Izan ere, amaren urtebetetzea da eta hona hemen zer nolako opari polita egingo diodan». Eta kutxatila bat hautatu zuen. Eta jarraian. «A baina nik amari hau honela ezin diot eman, besterik gabe. Zerbait asmatu behar... Badakit. Honelako zerbait... Gaur, Donostiatik nembilela, bat-batean kalean gizon bat ene gainera erori eta atzerriko azentuaz «Mesedez, lagundu!» esan dit, eta bizkarrean labana bat sarturik daukala konturatu naiz. Ospitalera eramateko esan diot eta berak ezetz, gero ez zuela poliziarekin ezer izan nahi. Bera sobietar agente bat zela eta amerikar batek, C.I.A.koak nonbait, hil nahi izan zuela. Orduan, etxea handik gertu nuenez, gizon hura hara eraman eta ahal bezain ongi zauria sendatzen lagundu niola esango diot amari. Handik egun bitara, jada ongi sentitzen zenean, alde egin baino lehen, esker onez, kutxatila hau utzi zidan, ama, nik gaur zuri oparizat ematen dizudana».


Hau guztiau bat-batean bururatu zitzaion, hantxe, kale erdian ginela, nire bestengusua eta ni berari harriduraz begira geundela. Aspaldiko fama da, frantsesek ez bezala, errusiarrek ez dutela gehiegi zaintzen beren produktuen eta paketeen presentazioa (9), baina Josek ederki erakutsi zigun mami ona azal distiratsuaz biltzen eta aurkezten ere ongi zekiela.

---

(8) Sobietar iraultzaz geroztik, lehenago arte zurezko santugintzan jarduniko eskulangile asko, gobernu-sistema berriaren ideologia antiklerikalagatik, beren ordura arteko lana galtzeko arriskupean gelditu ziren. Intelektual batzuek, Maxim Gorkik batez ere, tradiziozko langintza hori gal ez zedin, artisauei eredu berriak egitea iradoki zizkieten, erlijio kutsuko lan hutsen lekuan, herri-ipuin, mitologia eta iraultza-gaiak irudikatzen esanez. Horri esker, Palekh (Палех) eta beste herri askotan artisautzak bizirik iraun eta gorakada nabarmena izan du. Gauza bera egin zuen Stalinen ere: iraultza baino lehen, bizimodua ateratzeko, aberatsen jauregiak harri landuz eta eskultura dotorez apaintzen zituzten hargin, urtzaila eta artistak Moskuko metroan enplegatu zituen, hura proletarietazko eguneroko jauregi bihurtu zezaten, hango geltoki eta korridoreen gainean sobietar iraultzako mosaikoak, eskulturak eta sinboloak ezarri.

(9) Behin, Georgian nintzela, Sergei Serebryakov irakasleak honetaz anekdota xelebre hau kontatu zidan: Petri I.a Handia, Errusiako tsarra, bere erresumak berriztatu nahirik, laguntzaile batzuekin 1697. urtean Mendebal Europara joatea erabaki zuen, urtebeterako, bertako langintza-

Dena den, ene ustez, Bernardoren prosa bikainak kalte egin dio, nolabait, bere poesiagintzari. Kontua da mundu guztiak lehena goraiatzeko duela, baina bigarrena, beharbada hain ugaria ez delako, bidegabeki isiltzen. Eta ez da inondik ere ahanztekoa. Eskertzekoa litzateke, bestalde, gure idazleak arlo hau ere lantzen segitzea, askotxo baikara bera bezalako poeta afizionatuak ez egun bakar batez, baizik eta anitz urtez ere, soportatzeko pozik geundeenok.



Beste askoren artean, Andolin Eguzkitza idazle eta euskaltzainak berak ere Bernardo Atxagaren poesia biziki estimatzen zuen. Hona hemen ETIOPIA poema liburuaren orrialde bat, Andolinen eskuko ingeles itzulpenarekin

Jose-Bernardo garai zailetan haziriko idazlea da, bere herriarekiko eta hizkuntzarekiko konpromiso tinkoa harturikoa, hori egitea hain erraza ez zen denboran. Beraren bizitza kontatzean nostalgia gazi-goza sortzen zait, eta burura datorrit, ezin bestean, Robert Redford eta Barbra Streisand protagonista dituen film famatu hura, *The way we were*, gaztelaniaz *Tal como éramos* itzulpenaz pantailaratu zena, beraren musika gogoangarria eta guzti. Eta garai hartako ekintzaileen iragan-mina, gaztaroko idealismoaren oihartzun ozen baina jada urruna.

-sistimak gertutik ikusteko. Ingalaterra bisitatzera heldu zenean, egokizunerako, ingeles noble bati jauregi bat alokatu zion, bera eta bere segiziokoak, nobleak gehienak, han zeuden bitartean, bizi zitezten. Egotaldi hartan handiki horiek, Errusiako bizimodu aski basatian heziak, maiz mozkorzen ziren, eta, halakoetan jauregiko koadro, altzari eta ate-leihoen kontra tiroka hasten omen ziren, beren pistolekin punteria egin nahirik. Ondorioz, jauregia aski hondaturik utzi omen zuten. Petri tsarra, noski, hondamen hartaz jabetu eta, handik alde egitean, jabeari jauregia itzultzean, kalte-ordaina eman nahi izan zion. Hortaz, hasieran akordaturiko alokairua eman ondoren, bere nobleen heziera trakets hura otoi barkatzeko esanez, gainerako kalteak kitatzeko, eskua sakelara sartu eta handik, egunkari-paper zahar batean bildurik, intxaur baten neurriko diamante potoloa atera omen zion Lord izutuari, halako beste jauregi berri bat eraikiarazteko adina balio zuena. «Orduetik hona gauzak ez dira asko aldatu gurean» –ziostan ironiaz Sergeik, sobietar dendetan gauza guztiak, ohikoak zein berezianak (ikonoak, esmalteak, anbar eta urrezko bitxiak, arte-liburuak edo kabiarrak, adibidez) biltzeko eskuarki erabiltzen zen paper latz itsusia seinalatuz.

Orduan euskaldunok bagenekien geure gainean ez genuela babesik, ez eta babeslerik ere. Gure hizkuntzaren etorkizuna, hortaz, geure esku hutsetan zegoen eta kontzientzia horrekin egiten ziren gauzak. Denborak politika egoera hobea ekarri digu eta aspaldiko hogeita zazpi urteotan badugu, Euskal Herriaren zati batean bederen, gure jendeaz, gure hizkuntza eta kulturaz ardurazten den gobernu autonomikoa. Eta horrek euskararen alde gauza asko egin ditu, irakaskuntza, administrazio eta hedabideetan, adibidez.

Batzuek salatzen dutenez, ordea, gure Jaurlaritzak euskalgintzan ez du egiten egin lezakeen guztia. Ni ere horretan konforme nagoke, baina, aldi berean, euskal administrazioaren orain arteko eginak ohiko hiritarrek egindakorekin konparatzen baditugu, panorama horretan, zalantzarik gabe, gobernariak garaile gertatzen dira, eta goleadaz gainera. Eta hau frogatzeko aski dugu geure hirietako hizkuntza-paisaiari begirada bat egitea, maiz, euskara ere hizkuntza ofiziala duen herrialde batean ez baina, Valladolid edo Sevillako kaleetatik gabiltzala ematen du eta.

Gauzak argi aitortu eta sala dezagun behingoz geure burua: geure hizkuntzarekiko arduragabekeria tradizio luzea dugu euskaldunok, ez baita gaurkoa, zoritxarrez, bekatu hori, behin eta berriro horixe salatu behar izan baitute gure idazleak aspaldidanik (10). Irudiz, euskaldun batzuek uste dute hizkuntzaren salbazioa, alde batetik, gure erakundeen zeregina eta, bestetik, bertoko idazle, gramatikari eta hizkuntzalarien erantzukizun hutsa dela, eta berek, bitartean eguneroko bizimodua oso-osorik erdaraz eman dezaketela lasai asko. Ez dira konturatzen, antza, idazleak, hizkuntzalariak eta gramatikariak, -arrainak, bizi eta igerian egiteko, ura behar duen bezala-, eguneroko bizitzan eta usadioan daukala bere ikerketen mamia eta, irudimena lantzeko, erreferentzi iturri nagusia. Horregatik, hori erdaraz dagoenean, espainolez entzuniko txisteekin pasatzen zaigunez, bertoko errealtatea frantsesez edo gaztelaniaz kontatzea errazago eta sinesgarriago gertatzen da euskaraz baino. Argiago esanda, erdaraz bizi diren euskaldun horiek gure herria deseuskalduntzen dihardute, eta erdal administrazio, idazle eta intelektualen fabore ari dira, etxekoen kaltetan. Eta gu, geure ingurumenaren kronista eta kontatzaile ez baina itzultzaile bihurtzen gaituzte, hots, errealtatearen makillatzaile.

Izan ere, hizkuntzaren bizitza erabilera bera da, denboran zehar daukan iraute historikoa bera, eta, horregatik, zenbat eta mintzaira gehiago erabili, bizitasun, grazia eta indar handiagoa lortzen du. Egia hau gogoratzeko, gure Ber-

---

(10) Euskaldunek beren hizkuntzaz zuten arduragabetasun eta itsukeria hau deitoratzeko, Virgilioren Georgiketako bertso hau ederki hautatu zuen Joanes Etxeberrik: *O fortunatos nimium, si sua bona norint, agricolas!* (Georg. II, 458,459). Hau da, Iñigo Ruiz Arzalluz-en itzulpen bikainaz, «Oi zorionekoak benetan, beren ondasunak ezagutuko balituzte, nekazariak!», Orduko Erromako baserritarrak, oraingo euskaldun asko bezalatsu, ez baitziren konturatzen zeukaten ondasunaz, beren eguneroko bizimodu onaz, eta besteak ahoan zerabilten hizkuntza ederraren baliotza ere.

nardok, behin adibide polita jarri zigun, xaboia ez bezala, hizkuntzak zenbat eta erabiliago, are gehiago hazten direla gogorarazi digunean.

Ene adiskide batek, uda pasatzeko, etxetxo bat zuen Burgosko herrixka batean, mendi artean erdi galdua. Urruntasunagatik, hara produktu batzuk, arraina adibidez, ez ziren beti ondo iristen, eta maiz sasoz pasatu eta zahar xamar jan behar izaten zituzten. Hori dela eta, behin, Ondarroan zegoela, itsasontzietatik portura sardinak deskargatzen ari zirela ikustean, Burgosko bere auzokideez gogoraturik, kaxa pare bat bete sardina erosi zituen, bizi-biziak. Automobilean sartu eta bizpahiru ordu geroago esandako herrixora heldu zen.

Sardinak auzoko lagun guztien artean banatu zituen, behingoz arrain freskoa jan zezaten. Egunak pasa eta, gure gizona pixka bat kezkatu zegoen. Izan ere, sardinak harturikoen artean, batek ere ez zion ezer esan, gozo egon ote ziren jakinarazteko behintzat. Horregatik, egun batean, herriko plazan auzo horietako batzuk elkarrekin kartetan aurkitu zituenean, haiengana joan eta sardinen kontua atera zuen, ea gustatu zitzaien edo galdetuz. Orduan auzo haietako batek, begiei adi, honela esan omen zion: «Hara, Kasto, zure intentzio ona estimatzen dugu. Bai, ekarri zenizkigun sardinak jan genituen, baina, zer esango dizut nik ba: txarto, txarto ez zeuden; baina motelak, ia-ia gustu gabeak ziren eta. Izan ere, guri besteak gustatzen zaizkigu... *las picantonas*». Hots, lagun haiek zapore mineko arrainetara ohiturik, sardina erdi-ustelak nahiago zituzten, eta arrain fresko eta bikaina dastatzeko aukera izan zuten baterako, hari gusturik hartu ez!

Moisesek israeldarrak faraoiaren eskuetatik atera zituenean, basamortuan jateko, Jainkoak mana ematen omen zien, baina haiek laster nekatu ziren zerutiko janari horretaz, eta Egiptoko tipula eta baratxuriak zeuzkaten gogoan (Zenb 11, 5). Era berean, jende euskaldun asko ere oraindik berdintsu itsuturik bizi da lehengo eta oraingo erdal uholde kulturalaren azpian. Eta gauden garai hauetan, euskara, gaztelaniarekin batera aspaldiko hogeita zazpi luze hauetan ofizial izan ondoren, nahiko gaizki justifika daiteke euskaldun batzuen inertzia hondagarria. Izan ere, guztion lotsarako, konturatu ere egin gabe, geure eguneroko jardueran frankismo garaiko joera erdaltzaleaz segitzen dugu, geure elkarriketetan, famili eta lan-harremanetan, eskutitzak, ofizioko kartel-txartelak, abisuak, jatetxeetako kartak, produktu edo artelanen izenak ipintzeko orduan, bertoko hizkuntza bakarra gaztelania balitz bezala (11).

Zinez esan daiteke, autogobernua dugunetik, umezurtz-garaiko idealismoa, euskararen aldeko ekintza eta militantismo hura nabarmenki moteldu

---

(11) Orainsu irakurri dudanez, badirudi norbait konturatu egin dela, azkenean, gure hizkuntzaren etsai beldurgarrienak ez direla euskara batu estandarra ikasten saiatzen diren euskal herritarak, txikitandiko euskaldun «jator» bezain analfabeto, konplexatu eta hezur-muinetaraino erdaldunduak baino, berak bere artikulu ederrean salatzen digun azkoitiar oftalmologo lotsagarri horren parekoak. Eta hori *Bilbon gertatua* den arren, bezero euskaldunari ere beti erdaraz egiten dioten handiki izan nahikoak, zoritxarrez, ugariegiak ditugu herri txikiagoetan ere.

dela. Badirudi herri honek, erasoak hartzen dituenean, badakiela asaldatzen, eta mobilizatzen ere bai, bat-bateko protesta egiteko behintzat. *Euskaldunon Egunkaria* bidegabeki itxi zigitenean bezala, baina gero, lasaialdian, laster ahanzten zaigu, euskal egunkariak eta liburuak kiosko-dendetan ikusten segi dezagun, horiek egunero erosi eta irakurri egin behar direla. Ongi da gobernuak euskararen aldeko legeak eta neurriak ateratzea, baina munduko lege guztiak ez dira nahikoa izango euskarak iraun dezan, euskaldunok geure hizkuntza edonon eta noiznahi erabili nahi ez badugu. *Ekina gogorra da gero!* esan zidan behin Erandioko auzo batek, horrekin beti ekinen jardutea nekagarria izaten dela adierazteko. Baina hori bestela ere uler liteke: beti ekinaren ekinaz arituz gero, edozer egin eta erdiets daitekeela, Larramendiren *ezina ekinenez egina* haren bidetik.

Hizkuntzaren transmisioa etxean hasten da, eta beren artean eskuarki erdaraz mintzatzen diren gurasoek jai dute, behin haurrak ikastolara bidaliz gero, beren erantzukizunaz konplitu dutela uste badute. Euskara, hartaz mintzatzen jakite hutsa baino zerbait gehiago da. Hizkuntzek hitzak ez eze, hitz horiekien loturiko sentimenduak, oroitzapenak, giroak eta zapoak ere gordetzen dituzte, familiar eta adiskide artean jaso-josiak, eta belaunaldien arteko transmisio hori, oso-osorik, eskolaren bizkar gainean uztea, ene aburuz, ez genuke onartu behar, ezinbestean ez bada. Edozein pertsonari, benetan euskalduna baldin bada, lotsa eman beharko lioke bere seme-alabek honelako zerbait aitortu beharrak: «Gure gurasoak euskaldunak dira baina gurean ez zuten inoiz euskaraz egiten. Horregatik, euskaraz dakiguna eskolan ikasia dugu», guk euskaraz tutik ez dakiten askori, beren aita-amengatik saminez, sarritan entzun behar ukan diegunez. Horrela, antzinatearen iluntasunetik gaur arte, belaunik belau, gurasoengandik seme-alabengana heldu zaigun kate luze hautsigabea une bidez puskatzen ari gara ergelki, trukean ezer ez irabazteko.

Horregatik, Jose-Bernardorengan islaturik, euskal ekintzaileak gorai patu nahi ditut, eta beren egunean-eguneango etsenpluaz euskarari bizitza ematen diotenei laudorioa egin ere bai. Agintarien aldetiko laguntzak beharrezkoak dira, bai, eta, beraz, ezin ahantz genezake, Autonomia Erkidego honetatik kanpoan, beste euskal lurralde batzuek oraindik pairatzen duten egoera lotsagarria. Baina, erraztasunak erraztasun, garbi dago euskara euskaldunok hala gura dugun bitartean biziko dela, eta halaxe nahi dugun neurrian.

Beraz, testuinguru honetan kontsideratu behar dira, ene ustez, Jose Iraturen nortasuna eta lana, garai ilunetan sorturiko euskal idazleen belaunaldiaren giroan. Batetik, herri konpromiso eta moral handiko herritar intelektualtzat, herriko seme jator eta kutuntzat, baina, aldi berean herritar normaltzat, eta ez aparteko heroi erraldoitzat. Nik behitzat, bere herriaren alde egin ahal eta egin behar duelako ikuspegitik hartzen dut Jose Irazu Euskaltzaindian, Bernardo Atxaga, neure adiskide, gogaide eta euskal idazle bikaintzat, hain zuzen.

Eskerrik asko Jose-Bernardo. Euskararen Akademiara sartzean, guztiok ohorez eta harrotasunez betetzen gaituzu, Bernardo-Jose. Euskaltzaindiak jadanik 1991ko urtarrilaren 31n izendatu zintuen euskaltzain urgazle. Iazko martxoaren 31n, aldiz, euskaltzain oso. Zure sartzearen lehen fruituak jadanik jasotzen ari gara, gure Akademiaren batzarretara zatozen guztian beti zer ikasi izaten baitugu zuregandik. Ongi etorri, beraz, eta segi dezagun guztiok elkarrekin lanean gure hizkuntzaren eta geure literaturaren onerako.

\* \* \*

## ERANSKINAK

### Jose IRAZU GARMENDIAk argitaratutako lan nagusiak:

#### Eleberria

*Ziutateaz I eta II.* Luis Haranburu, 1976  
*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian.* Erein, 1984  
*Sugeak txoriari begiratzten dionean.* Erein, 1984  
*Bi anai.* Erein, 1985  
*Obabakoak.* Erein, 1988  
*Behi euskaldun baten memoriak.* Pamiela, 1991  
*Gizona bere bakardadean.* Pamiela, 1993  
*Zeru horiek.* Erein, 1995  
*Sara izeneko gizona.* Pamiela, 1996  
*Groenlandiako lezioa.* Erein, 1998.  
*Soinujolearen semea.* Pamiela, 2003  
*Lekuak.* Pamiela, 2005

#### Poesia

*Etiopia.* Pott Liburutegia, 1978  
*Henry Bengoa, Inventarium.* Elkar, 1988

#### Haur-literatura

*Ramuntxo detektibea.* Antonio San Román, 1980  
*Nikolasaren abenturak eta desbenturak.* Antonio San Román, 1980  
*Antonino Apretaren istorioa.* Erein, 1982  
*Chuck Aranberri dentista baten etxean.* Erein, 1982  
*Asto bat hypodromoan.* Erein, 1984  
*Jimmy Potxolo.* Erein, 1984  
*Flannery eta bere astakiloak.* Elkar, 1987  
*Xola eta basurdeak* 1997  
*Bambuloren istorio bambulotarrak..* Erein, 1998



## Artikuluak

Honako egunkari eta aldizkarietan aurki ditzakegu haren artikuluak: El País; El Mundo; El Correo; Garziarena; Egunkaria; El Paseante; El Europeo; Revista de Occidente; La Sibila; La Modificación; Autrement (Frantzia); Les inrockuptibles (Frantzia); Quai Voltaire (Frantzia); Cahiers de Ville Gillet (Frantzia); Lignes (Frantzia); Lettre International (Alemania); Linea d'ombra (Italia); Panta (Italia); Main de singe (Frantzia); Die Horen (Alemania); Jahrbuch der Lurik (Alemania); Vuelta (Mexiko); Viceversa (Mexiko); Svetovej Literatry (Eslovakia); Guggenheim Magazine (Estatu Batuak), etab.

## Beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak

Jose Irazu Garmendiaren lanik nagusienak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira, eta, besteak beste, *gaztelania, frantses, portugés, katalan, ingeles, aleman, italiera, esloveniera, errusiera, arabiera, greziera* eta *japonieraz* argitaraturik daude.

## Hitzaldiak, musika eta zinematografia

Azken urteotan Euskal Herrian zein mundu zabalean hitzaldi franko eskaini ditu eta hainbat literatur irakurketatan parte hartu ere bai. Bere testu poetikoak hainbat musikaririk oinarri izan dituzte kantak sortzeko: Ruper Ordorika, Itoiz, Mikel Laboa, Xabier Muguruza, Les Mecaniciens, Loquillo, Gari eta Orquesta Mondragón, besteak beste. Oraintsu berak idatzitako bi libururen pe-likulak aurkeztu dituzte:

*Obabakoak* (*Obaba*, Montxo Armendariz, 2005) eta *Zeru Horiek* (*Zeru Horiek*, Aizpea Goenaga, 2006).

## Sariak

**1978, Espainiako Kritikaren Saria** (olerki alorrean) *Etiopia* lanagatik.

**1983, Lizardi Saria** *Sugeak txoriari begiratzen dionean* lanagatik.

**1985, Espainiako Kritikaren Saria** (narrazioan) *Bi anai* lanagatik.

**1988, Euskadi Saria** *Obabakoak* lanagatik.

**1989, Espainiako Literatura Sari Nazionala**, *Obabakoak* liburuagatik. *Obabakoak* liburuari esker, bestalde, **Kritikaren Saria**, **Euskadi Saria** eta **Pariseko Millepages Saria** lortu zituen. Glasgow hirian banatzen den European Literary Award sarian ere finalista izan zen.

**1990**, Bilboko Liburu Azokan **Kritikaren Zilarrezko Idazluma**, *Obabakoak* liburuagatik.

**1994, IBBYren** (International Board on Books for Young People) **Oho-rezko Zerrenda** (*Behi euskaldun baten memoriak* liburuagatik).

**1994, Espainiako Kritikaren Saria** (narrazioan) *Gizona bere bakardadean* lanagatik.

**1994, Euskadi Saria** *Gizona bere bakardadean* lanagatik.

**1995, Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Edizio Saria.**

**1996, Rosalia de Castro** nazioarteko saria, euskarazko atalean. Sari hau Galiziako Pen Club delakoak ematen du.

**1997, Haur eta Gazte Euskadi Saria** *Xola eta basurdeak* lanagatik.

**1999, Gaztelaniazko Euskadi Saria** *Lista de locos y otros alfabetos (Gronlandiako Lezioa* liburuaren gaztelaniazko bertsioa) lanagatik.

**1998, Prix Millepages.**

**2002, Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria** jaso zuen.

**2002, Antzerki-egilearentzako Max saria,** *Bambulo* lanagatik.

**2003, Beterriko Liburu** izendatu zuten *Soinujolearen semea*.

**2003, Espainiako Kritikaren Saria** *Soinujolearen semea* lanagatik.

**2005, Bilboko Liburu Azokan Kritikaren Zilarrezko Idazluma,** *Soinujolearen semea* liburuagatik.

### Bere lanari buruzko azterketa akademikoak

*Bernardo Atxagaren irakurlea.* María José Olaziregi Donostia, Erein, 1998.

*Antzarra eta ispilia.* Iñaki Aldekoa. Erein, 1997.

*Atxaga Baionan.* Ur Apalategi eta beste hainbat. Egan, 1999.

*Bernardo Atxaga, los demonios personales de un escritor.* José Ángel Askunze. Saturraran, 2000.

MTKVARI BEZALAXE (1) ვითარება მტკვარის ვითარება *vitartza mtkvari*

Eguzkia zetorren gora, ilargia zihoan behera,

Oilarrak kukurruka, eta igotzen ari zen kea,

Norbaitek negar, norbait kexaka

Norbait gose zen, norbait hotzak dar-dar

Eta iragaten zen denbora.

(1) Poema osoa Georgiako kultura eta literatura aipamenez josia da, edozein georgiarrentzat erabat ezagunak eta iradokizunez beteak. Geografi eta kultur urruntasunagatik, euskaldunok hobeki ulertzeko, horiek azaldu beharra dagoela iruditu zait. **Mtkvari**, Georgiako hiriburua, Tbilisi, zeharkatzen duen ibaiaren izena da, errusieraz **Kura** deitua. Gure **Arga**, **Aturri**, **Bidasoa**, edo **Ibaizabal** balira bezala.

Ardoa bezalaxe, suiletik zalira (2),  
Zalitik pitxerrera, pitxerretik ontzira,  
Georgiar odola, georgiar arima,  
Georgiar hitza, georgiar bihotza  
Iragaten zen gizakiagandik gizakiagana...

Iragaten zen, iragan,  
Iragaten zen eta bazetorren,  
Bai, bazetorren, etorri,  
Bai, bazetorren, Mtkvari bezalaxe...

Bidez bide zebilela, edaten zuten, uhertzen, isurtzen,  
Jainkogabeki lohitzen zuten, bihotz-gabeki saltzen  
Eta...

Hala ere, hori gorabehera,  
Rustaveliren bihotzetik iragana da (3),  
Vakhtang-en bihotzetik iragan zen,  
Tamar-en bihotzetik ere iragan zen,  
Sulkhan-en bihotzetik ere iraganez...

Eta gaur, Xotak eduki zuen odolaz,  
Eta gaur, Vakhtangek edukiriko odolaz,  
Eta gaur, Sulkhanen barruko odolaz,  
Tbilisiko kale zabaletan dabilta:  
Leila, Londa, Natia, Nani (4),  
Eliso, Vaja, Giorgi, Givi (5).

Eta...  
dabiltzala ba, bai, ibil bitez, bebiltza! Hala biz!

1962 (*Mukhran Matxavariani* მუხრან მატყავარიანი)

(2) Georgiako kulturaren, mahastizaintza eta ardogintza tradizio luzeko lanbideak dira. Horregatik, poetak ardoa-odola-hizkuntza arteko lotura sinbolikoa egiten du. Hango ardandegietan ardoa lurtean ahorraino sarturiko suil erraldoi batzuetan gordetzen da. Ahoa lauza batekin estalirik egoten da, zoruaren maila berean. Handik ardoa ateratzeko, zali erraldoi batez baliatzen dira, berori makila luze batez zulaturiko kuia edo kalabaza huts lehor batekin egina.

(3) **Xota Rustaveli**, Georgiako poeta nagusia, *Zaldun tigre-larruduna* deritzon poemaren egilea, XII. mendekoa. **Vakhtang**: Georgiarrek beren historian bi errege nagusi izan dituzte izen honekin: **Vakhtang Gorgasali**, jada V. mendean hiriburua Tbilisin jarri zuena, eta Vakhtang VI.a (XVII. mendekoa), kulturaren bultzatzaile nabarmena. Poemako aipamena horietako edozeinez uler daiteke. **Tamar**: Georgiak bere hedadura, garapen, kultura eta botere handiena lortu zuen garaiko erregina (XII. mendekoa). **Sulkhan Saba-Orbeliani**: XVIII. mendeko georgiar idazle, politikari eta filosofo ospetsua. Euskaraz Eneko Aresta, Joan Sebastian Elkano, Axular, Zumalakarregi eta Iparragirre aipatuko balira bezala.

(4) Georgian egun maiz erabiltzen diren neska-izenak. Euskarazko kideak **Iratxe**, **Arantza**, **Ainhoa**, **Itsaso** edo **Joana** lirakeke.

(5) Gaurko mutil-izenak, georgieraz, euskarazko **Eneko**, **Mikel**, **Aitor**, **Beñat** edo **Jurgi** gisa.

**MIKEL ZALBIDE**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Donostia, 2007-VI-02*

## MIKEL ZALBIDE, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

*Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda,  
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Euskaltzainburua,  
euskaltzainak,  
agintariok,  
jaun-andreok:

egun on eta ongi etorri, Gipuzkoako Foru Aldundiko batzar areto nagusira:  
*Jargi* aretora.

Euskaltzaindiarentzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat esanahiz beteriko eraikin eta aretoa aukeratu du Mikel Zalbide Elustondo jaunak sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Jakin, ondo dakizuenez, areto honetan egin zuen Euskaltzaindiak batzar eratzaileria eta bertan aukeratu Resurreccion Maria Azkue lehen euskaltzainburu eta Luis Eleizalde idazkari, lagun zituztela Julio Urkixo eta Arturo Kanpion, lehen euskaltzainak. Gela honetantxe izendatu zituzten Eguzkiza, Inzagaray, Landetxe, Lhande eta Olabide jaunak euskaltzain; baita Schuchardt, Vinson eta Uhlenbeck ere ohorezko euskaltzain. Eta bertan aukeratu zituen lehen berrogeita lau euskaltzain urgazleak; besteak beste, Manuel Lekuona, Severo Altube, Toribio Alzaga eta Ramón Menendez Pidal.

Soka luzea da eta ez da eten.

1886. urtean, Aristides Artiñano jaunak Durangoko lore-jokoetan aurkeztu zuen «Proyecto de Academia Vascongada» txostena.

1906an, euskal erakundeetako mahaietan dabil egitasmo hori. Adolfo G. de Urkijo jauna zen orduan presidente Bizkaiko Diputazioan. Eta Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioei zuzendu zitzaientzen, «Laurak bat» izenburupean, lau euskal diputazioen babespean euskal akademia eratzeko proposamena eginez, euskararen zaindu eta zabaltzeko (1).

---

(1) Hona hemen proposamenaren zati esanguratsuenak:

«El que suscribe somete a la ilustrada consideración de las Diputaciones vasconavarra las siguientes bases: 1ª Se crea una Academia de la Lengua vascongada, compuesta

Aldi berean, Ramón María de Lili zen Gipuzkoako Diputazioaren presidentea (2). Eta Gipuzkoako Diputazioak aho batez eta dagoen dagoenean onartzen du Bizkaikoaren proposamena. Eta jakin nahi du zein den Araba zein Nafarroako Diputazioen gai honekiko jarrera. Baiezkoa izanez gero, norbait izendatuko du Gipuzkoakoak Euskal Akademia eratze-lanetan parte har dezan, eta erakunde berriaren aurrekontuak bideratzen hasiko da (3).

---

de doce individuos de número y de otros académicos que tendrán carácter de honorarios (...) 2ª Será condición precisa que entre los miembros de número haya cultivadores de todos los dialectos literarios de la lengua euskara. (...) 4ª Las Diputaciones de Navarra, Guipúzcoa, Alava y Vizcaya contribuirán al sostenimiento de la Academia (...) 5ª El nombramiento de los doce individuos de número de que ha de constar, por ahora, la Academia habrá de encomendarse a las mismas Diputaciones hasta la constitución de aquel cuerpo. Una vez que se constituya la misma Academia irá cubriendo libremente las vacantes que ocurran por fallecimiento de alguno de sus miembros (...).

«Academia vascongada. Proposición presentada a la Excma. Diputación de Vizcaya por su Presidente don Adolfo Gabriel de Urquijo», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1907, 31. or.

(2) Foru-sistema deuseztatu izan zenetik, hauek izan ziren Gipuzkoako Aldundi Probintzialeko diputatu-buruak, hurrenez hurren: Tadeo Ruiz de Ogarrio (1878-1880), José Manuel Aguirre Miramón –liberala– (1880-1883), Benito Gorostegui Garagarza (1883-1884), Ramón Zavala Salazar –karlista– (1884-1886), José María Unceta Murua –karlista– (1886-1888), José Machimbarrena Echea –liberala– (1888-1892 / 1898-1905), Ramón María Lili Laborda (1892-1896 / 1906-1907), Manuel Lizariturry Echarri –kontserbadorea– (1896-1898), Francisco Zavala Villar –liberala– (1905-1906), Joaquín Carrión Garagarza –karlista– (1907-1911), José María Orbe Gaytan de Ayala, Valde-Espinako markesa –karlista– (1911-1913 / 1918-1919), Ladislao Zavala Echaide –integrista– (1913-1918), Julián Elorza Aizpurua –karlista– (1919-1924), Vicente Laffite Obineta –kontserbadorea/maurista– (1924-1926), Modesto Luzmariz Noain (1926-1929), José Ángel Lizasoain Palacios (1929-1930) eta Ricardo Añibarro Lángara (1930-1931).

(3) Hona hemen, hitzez hitz, Gipuzkoako Diputazio Probintzialak 1906.eko maiatzaren 21ean aho batez onarturiko akordioa:

«La Comisión de Fomento ha examinado con toda la cariñosa atención y detenimiento que por su importancia merece, el proyecto de Academia de la lengua vascongada que ha formulado el dignísimo señor Presidente de la Diputación hermana de Vizcaya don Adolfo G. de Urquijo. Como se dice en el mismo escrito, se trata de la realización de una idea que estaba flotando en el ambiente y que palpitaba en el corazón de todo buen vascongado, pero que hasta ahora no se había concretado en la forma en que lo ha hecho el señor Urquijo, cuya plausible iniciativa es muy merecedora de cordial alabanza.

Entiende la Comisión de Fomento que la Diputación de Guipúzcoa, fiel a su constante amor a la lengua vascongada y a cuanto tiende a su conservación y enaltecimiento, está en el caso de aceptar en principio las bases que acertadamente propone el señor Urquijo, a la conclusión de su escrito, para la constitución de la proyectada Academia. Y opina también que haciéndoselo saber a la Diputación hermana de Vizcaya, se le ruegue que manifieste si muestran igual conformidad las de Alava y Navarra; para que en caso afirmativo proceda esta de Guipúzcoa a la designación de la persona que, a su juicio, deba formar parte del Comité que ha de organizar los trabajos de constitución de la Academia de referencia, a la vez que convenga con las mencionadas Corporaciones la forma y cuantía con que cada una de ellas ha de contribuir a los gastos que origine la fundación y sostenimiento de la Institución, cuya creación se proyecta».

DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE GUIPUZCOA, Actas, sexta sesión, 21 de mayo de 1906, págs. 54-55.

Nafarroak ere baietza eman arren, Arabakoak ezezkoa adierazi zuen, eta egitasmoa bere horretan geratu zen mahai gainean, garai egokiagoen zain.

Eta, etorri, etorri ziren garai hobeak. Bizkaiko Diputazioak, 1918ko urtarilaren 25eko diputatuen bileran, onartzen du Cosme de Elgezabal eta Felix de Landaburu diputatuek aurkeztutako mozioa. Mahai gainean da Euskal Akademiaren sortzeko egitasmoa. Hego Euskal Herriko beste hiru diputazioekin batera gauzatu nahi da eta, azterkizun izan dadin, Oñatiko Batzarrera bidaltzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1919ko apirilaren 1ean, Diputazio Probintzialaren ohiko bileran, Valde-Espina markesa buru zelarik eta Aldundiko Sustapen Batzordearen proposamenari jarraiki, onartu zituen Euskaltzaindiaren Estatutuak. Hauek Oñatiko Kongresuan izendatutako ponentziak idatzi zituen, euskararen ikerketa eta babeste-erakundeak sortuz (4).

Julian Elorza Aizpuru azpeitiarra (1878-1964) probintziako diputatu izan zen 1911tik 1919ra eta Gipuzkoako Aldundiko presidentea 1919tik 1924ra.

---

(4) «Excma. Diputación provincial de Guipúzcoa.= Excmo. Sr.:= Acordado por V.E. en sesión de ayer que informase esta Comisión de Fomento acerca del escrito presentado por la Sociedad de Estudios Vascos, con el que acompaña el proyecto de Estatuto de la entidad o Academia de la Lengua Vasca, elaborado por la ponencia nombrada con este objeto en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate, la propuesta de esta Comisión no puede menos de ser favorable a la aprobación del mismo, que en el escrito se razona y solicita. Precisamente en anterior informe dictado por esta misma Comisión acerca del asunto de constitución de dicha Academia y aprobado por V.E. en sesión de 5 de Junio de 1918, se encomendó a la Junta de organización del Congreso de Estudios Vascos de Oñate, diera estado oficial a dicho proyecto, discutido por entonces en las reuniones preparatorias del Congreso mencionado. Decidida en una de las conclusiones de éste la creación de tal organismo de investigación y tutela del euzkera y nombrada en la Sección correspondiente una ponencia para redactar el actual proyecto, ésta lo sometió a la pública censura dándolo a conocer en la prensa diaria y admitiendo, dentro de un plazo determinado, la presentación de enmiendas, se dio por ultimados sus trabajos con la aceptación, en sesión celebrada en el Palacio de la Diputación de Vizcaya, de alguna de ellas incluidas ya en el proyecto que presenta la Sociedad de Estudios Vascos. Dicha sociedad, encargada de cumplir y ejecutar las decisiones de dicho Congreso y de atender a la vida y al desarrollo de las instituciones que en él se originaron, haciendo que concurren todas ellas de un modo armónico al fin común de la vida vasca, hace presentes en un escrito los motivos tan poderosos que hay para que la lengua vasca, nexos social el más característico de nuestro pueblo, reciba el cultivo científico y la influencia tutelar que le permitan una vida de cultura y que hacen cada vez más oportuna la constitución del organismo de que se trata, para lo que concurrirán las personalidades y representaciones más calificadas de todo el país.

Con tales fundamentos, la Comisión tiene el honor de proponer a V.E. que apruebe el proyecto de Estatutos de la entidad o Academia de la Lengua presentado por la Sociedad de Estudios Vascos, encargando a ésta, previa citación de los señores en él designados, de constituir dicho organismo, a cuyas sucesivas decisiones la Excma. Diputación de Guipúzcoa prestará el apoyo moral y social que se interesa para fines tan elevados.

V.E., sin embargo, resolverá lo que juzgue más conveniente.

Palacio de la Provincia, 1 de Abril de 1919.= Ladislao de Zavala.= Emilio Santos.= Antonio Aguirre». DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA, Actas, vigesimoquinta sesión, 1 de abril de 1919, págs. 208-209.

Buru-belarri jardun zuen, 1918.etik aurrera, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Kongresuko prestakuntzan, eta ekinkide nabarmena izan zen hurrengo urteetan Eusko Ikaskuntzaren zereginetan. Garai horretako lanen emaitzak dira Oñatiko Batzarraren antolaketa bera (1918), Euskaltzaindiaren sorrera (1919) eta Lizarrako Estatutua (1931). Bere jardun politikoan, nabarmen ageri da karlista eta foruzale zela. Garaiko kronikek diotenez, Julian Elorza Aizpuru jaunaren agintaldian ezagutu zituen Gipuzkoako Aldundiak garairik ospetsuenak, eta herritarren aldeko itzal sendo eta bikaina erdietsi zuen, bere ekimen, gogo eta politika giteko era trebeagatik (5).

1919ko irailaren 21ean, Eusko Ikaskuntzak Oñatiko Batzarrean erabakitako egitasmoari jarraiki, eta Gipuzkoako Aldundiaren eta Eusko Ikaskuntzaren buru zen Julian Elorza jaunaren deiari erantzunez, Gipuzkoako Diputazioan izan zen Euskal Akademiaren batzar eratzaillea. Lau euskaltzain izendatu zituzten Oñatin, unibertsitatean: Resurreccion Maria Azkue, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo. Beste lehen zortziak Gipuzkoako Aldundian: Txomin Agirre, Pierre Broussain, Mr. l'Abbé Adema, Ramon Inzagaray, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkiza, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande (6).

Hamabost egunen buruan, 1919ko urriaren 7an deitu zuen Euskaltzaindiak bere lehen bilkura akademikoa, Gipuzkoako Aldundiaren egoitza nagusira deitu ere. Julian Elorza Aldundiko presidenteak hartu zituen euskaltzainak eta Euskaltzaindiaren bilera zuzendu. Euskaltzainburuaren hautatzeari ekin zioten euskaltzainek, eta Resurreccion Maria Azkue hobetsi. Egun horretako batzar-agiriak dioenez, «Elofzak Azkue Euskaltzaindia'ren Buru izendatu zuan. Orduan au bere lendakarizko alkian jafi zan eta euskaltzaiñ guzieren eskefak eman zien...» (7).

Ez dira hemen amaituko, ordea, Euskaltzaindiak eta Gipuzkoako Aldundiak 1919an izandako harremanak. Abenduaren 23an, gipuzkoar Aldundiak aho batez erabakitzen du Euskaltzaindiaren diru-kontuen sostengurako 5.000 pezetako diru-laguntza (8). Irudi lezake lau txakur txiki zirela. Ez, horregatik! Izan ere, 1919ko Diputazioaren aurrekontu osoa 8.308.814,49 pezetakoa zen. Beraz, baliabide guztien % 0,06a eskaini zizkieten Euskaltzaindiari. Egun, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak 805.617.921 eurokoak dira, eta

---

(5) ESTORNES LASA, B.: *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco*, Ed. Auñamendi, Donostia, cuerpo A, volumen X, pág. 452.

(6) EUSKALTZAINDIA, *Euskera*, 1919-1921, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1982, 47-48. orr.

(7) EUSKALTZAINDIA, *Euskera*, 1919-1921, Sendoa argitaldaria, Donostia, 1982, 51. orr.

(8) Aktan ikus daiteke Bizkaiko Aldundiak 10.000 pezeta ematea erabaki zuela. Bistan da orduan ere, gaur bezala, indarrean zeudela euskal erakundeen arteko koefizienteak, gaurkoen galga bertsuan.

«Excma. Diputación provincial de Guipúzcoa.= Excmo. Sr.:«Con sujeción a un Reglamento que ha sido aprobado por V.E. y por las Diputaciones hermanas ha empezado a funcionar la Academia de la lengua vasca, cuyas labores pueden ser y es de esperar que sean de extraordinaria trascendencia para la conservación y el desenvolvimiento literario del idioma privativo del país.



302.938 euro zuzentzen dizkio Euskaltzaindiari Gipuzkoako Foru Aldundiak; hau da, 2007ko aurrekontuaren %0,037. Aditzaile onari...

Gipuzkoako Diputazioan erabaki zuen Euskaltzaindiak egoitza nagusia Bilbon kokatzea eta, geroztik, damaturik-edo, osoko bilkurak hilabete batean Bilbora eta hurrengoan Donostiara, Aldundiaren jauregira, deitu zituen. 1920tik 1936ra bitartean, Azillonako markesari esker –euskaltzalea eta «Cía. de los Ferrocarriles Vascongados»-eko presidentea baitzen markesa– euskaltzainek doan egiten zuten joan-etorria pullmanean Donostiatik Bilbora edota Bilbotik Donostiara. Nahiz eta egoitza nagusia Bilbon izan, osoko bilkurak eta batzorde-bilerak Gipuzkoako Aldundira deitzeko joera berezia izan du Euskaltzaindiak. Ezbairik gabe, Gipuzkoako Aldundia da Euskaltzaindiaren lan-bilera gehien ezagutu dituen herri-erakundea.

Espainiako gerra ostean, 1941ean hasiko da pixkana-pixkana Euskaltzaindia berpizten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen babespean. Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburua hil ostean (1951), Gipuzkoako Foru Diputazioan egiten dira ia Euskaltzaindiaren bilera guztiak.

1960ko hamarkadaren amaieran, Manuel Lekuona euskaltzainburu eta Juan San Martin idazkari zirela, ireki zuen Euskaltzaindiak lehenbiziko ordezkari Donostian, hementxe: batzar-areto honen eskuinaldean, «Julio Urkijo» liburutegian. Hamabost urte luzez izan zuen Euskal Akademiak ordezkari jauregi honetako solairu nagusian, harik eta 1985ean Foru Diputazioak Euskaltzaindiari Hernani kaleko bulegoak zabaltzeko egokiera eskaini zion arte.

Gure belaunaldiko euskaltzale askok eta askok lotzen dute Euskaltzaindiaren irudia euskaltzainek «Julio Urkijo» aretoan egindako bilera-argazkiarekin. Leku aproposagorik! Bertara deitu izan dituzte makina bat bilera euskaltzainburuek. Zazpi euskaltzainburuetako hiru izan dituzue gipuzkoarrak:

---

La Academia, para que su vida se desarrolle con la robustez que es necesaria para que su labor responda a lo que de ella esperan cuantos desde el año de 1906 venían anhelando su constitución, necesitará recursos económicos que por el momento no puede procurarse por sí misma. Por ello, parece que están moralmente obligadas a ayudarla, bajo este aspecto, las Corporaciones que han aprobado su Reglamento, y con más insistencia han abogado por su fundación.

Entre ellas se encuentra la Diputación de Guipúzcoa; y el Presidente de la misma se atreve a proponer a V.E. que acuerde ayudar al sostenimiento de la Academia de la lengua vasca, en la forma y cuantía que indique la Comisión de Hacienda provincial.

(...) Afirmó por último que es muy grande la labor que la Academia de la lengua vasca, recientemente creada, respondiendo a antiguas aspiraciones del país, y en cumplimiento de una de las conclusiones del Congreso inolvidable de Oñate, puede llevar a cabo para la conservación y desarrollo del euskera y su cultivo literario, y agregó que por ello la Diputación no sólo debía prestarle su apoyo moral, sino también su apoyo material en forma de una subvención anual que pudiera fijarse en 5.000 pesetas, pues había visto que la Diputación de Vizcaya había consignado la suma de 10.000 pesetas con el mismo objeto.

Ignazio Maria Etxaide, Jose Maria Lojendio eta Manuel Lekuona. Laugarren batek, Luis Villasantek, jaiotzez bizkaitarra izanik ere, Gipuzkoako Arantzazun eman zuen ia bizitza osoa. Jean Haritschelhar baxenafarrak ere etxean bezala eman ditu bertan euskaltzain- eta euskaltzainburu-lanetan berrogeitaka urte.

Luzea eta iraunkorra izan da, beraz, Euskaltzaindiaren eta Gipuzkoako Aldundiaren arteko harremana. Elkarren arteko begirunean eta errespetuan oinarritua. Erakundetik erakundera.

\* \* \*

Orain, Mikel Zalbide jaunak Euskaltzaindiaren jaiotetxean egingo du sarrera-hitzaldia, Euskaltzaindiak batzar eratzalea izan zuen areto berean. Egokia aukera, harira datorrelako, horretarako hautatu duen gaia: «Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntza azterbideak, Iturriagaren argitan». Lehenagotik baitator soka, eta sakonagoa baita.

Gipuzkoako herri-erakundeek gutxienez XVIII. mendetik aurrera izan dute euskararen egoeraren kezka bizirik, puri-purian, Udal, Diputazio eta Batzar Nagusietan. Garaian garaiko erantzun egokiak eskaintzen saiatu dira. Larramendi, Iturriaga, Lardizabal eta Iztuetaren ahaleginak bete-betean uztartzen dira urteotako Diputazioen euskararen aldeko egitasmoekin. Euskal hiztegiak, euskal gramatikak... izatearen egitasmoak eta euskara eskoletan irakastearen ahaleginak eta ondoriozko euskalgintza publikoak, berrehun urteko soka luzea du Gipuzkoako Aldundiaren eta Batzar Nagusien jardunean.

Foru-izaera eta foruzaletasuna, usadioz, burujabetzarekin, zergak bildu, bide-azpiegiturak eraiki eta mantentzearekin, gizartegintza, lurraldeko baso eta mendien zaintza eta soldaduska ez egitearekin lotu izan da. Foru-izaera horrek izan du, ordea, ezaugarri berezirik Gipuzkoan: euskararen hizkuntza-egitura landu eta gizarte-erabilera esparruan sendotu eta zabaltzea. Hizkuntza *corpusa* eta *statusa*, duela berrehun urte! Paradoxa badirudi ere, euskalgintzaren aldeko jarrera eta politika horiek ez ziren foruen deuseztatzearekin itzali; eta, gorabeherak gorabehera eta salbuespenak salbuespen, bizirik iraungo dute Gipuzkoako Aldundian.

Esanaren lekuko, ekar ditzadan harira Blanca Urgellen hitz esanguratsuok:

oso ezaguna da Euskal Herriko instituzioak historian zehar euskararekiko desatxikimenduaren seinale nabarmenak eman dituztela (...), gure idazleak argitaratzeko dirua dela-eta igaro behar izan dituzten estuasuna bezain ezaguna (...). Dakidalarik, ordea, inor ez da alderantzizko ikuspuntutik auziari begiratzen jarri, alegia, nondik atera den kalera diren buru-lan ez hain gutxiren diru-laguntza. (...) Orain artean ezagutzen ditugun zertzeladen arabera, oso leku jasoan jarri behar-ko genuke Gipuzkoako Foru Aldundia, are gehiago itzalpeko (ikerlarien erruz itzalpeko) literatur gipuzkeraren eragile izan dela aitortu beharrean gudelarik. Ai-

patu besterik ez, jadanik hain goiz, Larramendiri argitaratu Diccionario Trilingüe-a, baina batez ere ari garen garaian [1820-1860], Iztueta, Iturriaga eta Lardizabali egin enkarguak eta eman diru-laguntzak (9).

Ez dugu euskaldunok inoiz izan euskalgintzaren eragile izan den erakunde publiko orokor eta bateraturik. Egun, askok pentsatzen dugu, mugak muga, Eusko Jaurlaritzak betetzen duela eginkizun hori. Egun aproposa gaurkoa azpimarratzeko euskalgintzaren ikuspegitik, euskararen gau ilunetan, Gipuzkoako Aldundiak bete izan duen zeregina, azkeneko laurogei urteotan Euskaltzaindiarekin eskuz esku (10).

Euskaltzale askorentzat, Euskaltzaindiak irudikatzen du, erakunderen bategi irudikatzekotan, euskal gizarte-egitasmoa bere osoan. Zazpi euskal herrietako euskaldunek osatzen duzue, ikerketa eta berrikuntza uztartzen ari zarete, euskararen bizi-iraupenerako oinarri sendoak jartzen, herrikoitasunaren izerdi bizigarria eta zientziaren zehaztasunaren hotza bikain uztartzen. Itzal eta begirune zabala duzue euskaldunon artean.

Egungo hizkuntza-politikek badute zinez, atzokoak eta herenegungoak bezalaxe, zuzendaritza eta argibide akademikoaren beharrik. Herrikoitasuna, jakinduria eta herri-pedagogia neurrian eskainiko dituen autoritate moralez jantzitako giza talderik. Herri Erakundeek eginkizun jakin hauetariko batzuk utzi izan dituzte Euskaltzaindiaren esku.

691.895 mila bizilagun gara Euskal Herriko *Gipuzkoa hiria* barrutian. Azkeneko azterketa demolinguistikoek diotenez, %52 elebidunak. Hiru euskalkitan hitz egiten dugu euskaraz egungo gipuzkoarrok: goi-nafarreraz, Oiartzualdean; gipuzkeraz, Urola Kostan, Donostia-Beterrin, Tolosaldean eta Goierriin; Gipuzkoako bizkaieraz, Debarroan. Euskalgintzaren ekimen eta gizarte-indar ugari eta berezi daude Gipuzkoan kokatuta Euskal Herri osora begira. Gipuzkoako herri-erakundeak (udalak, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia) aitzindari dira, beren helburu behinenen artean euskararen gizarte-normalizazioa eta hizkuntza-politika aberats eta integratzaileak aurrera eramaten. Egun, gizarte elebidunean bizi gara. Euskal Herri euskalduna dugu amets. Soka luzea da. Oinarriak sendoak. Katea ez da eten.

1919ko irailaren 21ean Julian Elorza garai hartako Diputazioko presidentek Resurreccion Maria Azkue euskaltzainburuari laga zion bere aulkia, batzar-areto honetan Euskaltzaindiaren batzar eratzaileren buru izan zedin. Gaur, Andres Urrutia euskaltzainburua, zeurea duzu Diputatu Nagusiaren besaulkia, Mikel Zalbide Elustondo jaunaren sarrera-hitzaldian buru izan zaitezten.

Etxean zaudete. Ekin eta jarrai.

(9) URGELL, Blanca, (1995) «Atari gisa», in Lardizabal, Francisco Ignacio: *Testamentu Zaharreko Kondaira I*, Donostia, Euskal Editoreen elkarte, Klasikoak 72.

(10) ARANA MARTIJA, J. A. «Euskaltzaindiaren 75. urtemugan», *Jakin*, 73. zk. (1992), 19-24. orr.

**MIKEL ZALBIDE**  
**EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

*Andres Urrutia,*  
*euskaltzainburua*

Gipuzkoako Foru Ahaldu Nagusia,  
Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak,  
Nafarroako Gobernuaren ordezkariak,  
Erakundeen ordezkariak,  
Agintariak,  
Euskaltzainak,  
Hona hurreratu zareten guztiak!

Egun on.

Sarri-sarri hartu izan ditu eta hartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere jauregian, Euskaltzaindiaren ohiko bilerak.

Egun, hala ere, ez-ohiko bilera batera dator Euskaltzaindia gipuzkoarren etxera, hain zuzen, Mikel Zalbide euskaltzain donostiarraren sarrera-hitzaldia egitera.

Arlo askotan saiatu da Mikel Zalbide urte luzeetan zehar, euskalgintzan eta Euskaltzaindian. Ezin, hortaz, den-denak aipatu. Bi, alabaina, ezin bazterrean utz. Lehena, hiztegegintza eta LEF Batzordea, eragin eta ondorio zabalakoak euskara batuan. Bigarrena, aldiz, JAGON Saightik dator, horretan Mikel Zalbidek ondutako lana gidari izan baita azken hamabost urteetan Euskaltzaindiaren barruan.

Hitzak lotu, ehotu, bilbatu; hitzen artekoak azaldu... Horrelakoak egin ditu Mikelek, neke handirik gabe, gu guztion eskarmenturako. Hitzetik hortzera, hitzunen mintzoetara joan eta berehala konturatu zen Mikel hitzak eta mintzoak ez direla deus ere izaten mintzatzaileen mihietan ez badira. Mintzo direnak gizartean bizi dira, besteekin ari dira. Horra hor soziolinguistika, Mikelen kezka sakona.

Luze-zabal jardun du horretan Mikel Zalbidek. Kutunena, nolana ere, pedagogia eta hezkuntza, euskararen lehenean, oraingoan eta geroan.

Lanpeturik ezagutu nuen Mikel. Lanpeturik jarraitzen du, gaiak euren nondik norakorik zabalenean hartzen dituelako. Halaxe hartu dugu Euskaltzaindian ere, zabal-zabal, uste dugulako bere jakituria eta esperientzia erabakigarri gerta daitezkeela gure erakundearen eraberritze-prozesuan.

Gogoan ditut hogei urte lehenago Txurruka kalean Euskaltzaindiak zuen ordezkari izan zuten igarotako larunbat goiz haiek. Ibon eta Nagore, Mikelen seme-alabak gelarik gela ibili bitartean Mikel bera, beste Mikel bat, Mikel Lasa poeta, Andoni Sagarna eta *laurok*, bueltaka eta bueltaka EEBS egitasmoaren zerrenda bukaezinekin.

Ibon eta Nagore nagusi dira gaur, eta beraiantzat, Marian emaztearentzat eta Leire amarentzat, zorionik beroenak, bihotz-bihotzez.

Bukatu hurren egon eta abagune hau profitatu behar dut Gipuzkoako Foru Ahalduen Nagusiari jendaurrean eskerrik beroenak emateko. Eredugarriak izan dira guretzat zuk zeuk Euskaltzaindiari erakutsi eta eskaini dizkiozun arreta eta harrera instituzionala, egoki ulertu duzulako instituzio honen izaera, itxia baino, irekia eta euskarari eta Euskal Herriari emana dela.

Esan den legez, atxikimendu ezin egokiagoa erakutsi diozu Euskaltzaindiari. Horrexegatik duzu gure aitoren zabala, eta, aldi berean, eskabidea, etorkizunean ere, ari zaren lekuan ari zarela, zure laguntza izan dezagun.

Euskaltzaindiaren izenean mila esker guztioi, eta, orain, Euskaltzaindiaren arautegiak eta barne erregelek dioten bezalaxe, ekar dezatela hona bi euskaltzainek Mikel Zalbide euskaltzain osoa, bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

**PEDAGOGOA BATZAR NAGUSIETAN.  
HIZKUNTZEN AZTERBIDEAK, ITURRIAGAREN ARGITAN**

**Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia**

*Mikel Zalbide*

Aldun nagusi jauna, agintari agurgarriok, euskaltzainburu jauna eta euskaltzain-kideok, etxeko eta familiarteko senide maiteok, aspaldiko eta lanbidezko lagun preziatuok, jaun-andreok: egun on digula guztioi.

Atsegin ez nator zuengana. Atsegin handiz eta begitarte arraiz. Euskaltzain-kideoi eta entzule guztioi zor dizuedan hitzaldia eskaintzeko eguna iritsi da azkenik. Eginbidea aurre-aurrean izanik, atsegina izan ohi da aurrez emandako hitza behingoz bete ahal izatea. Atsegin berezia dut, horrezaz gainera, aspalditxoan buruan darabildan gai bati heldu ahal izateaz. Hizkuntzaren beraren gibel-erriak alde batera utzita, hizkuntza-soziologiari eta ele biko hezkuntzari helduko diogu gaurkoan. Euskalgintzaren alorrean bide-urratzaile izandako hernaniar handi bat aztertzen saiatzeko aukera dugu horretarako: Agustin Iturriaga.

Kezka-beldurrez eta lotsa apur batez nator, halere, zuen artera. Burutik kendu ezinik nabil, ekitaldi eder hau gehiegizko aitortza dela nire merezimen-  
du ahulentzat. Norberak jakin ohi du ongien, barne-muinen bakardade isilean, bere hutsegiteen eta ahulezien berri. Jakite horrek eragina duzue nire kezka-beldurra. Horrek bakarrik ez: hitzaldiari hain entzule adituen aurrean *behar duien tornua* ematen asmatuko ote dudan ez jakiteak, horrek ere lotsa ematen dit noski. Bide bakarra izan ohi da, nolana ere, lotsa-beldur horiek uxatzeko: lanari ekitea. Eskerrik asko beraz, eskaini didazuen aukera paregabe honengatik, eta natorren harira.

Gaiari heldu aurretik esker onezko aitormen bi egin nahi ditut berariaz, labur-labur izango bada ere (1). Eskerrak eman nahi dizkiot, batetik, Henrike Knörr euskaltzain eta adiskideari. Azken urteotako gizarte-giro zurrunbilo-

---

(1) Oin-ohar xumez baizik izango ez bada ere, eskerrak eman nahi dizkiet orobat, ahaztu baino lehen, hitzaldi hau prestatzeko hain laguntza ederra, eta hain eskuzabalik, eskaini didaten Ana Otegiri, Iñaki Azkuner, Txomin Peillen, Joseba Intxaustiri eta Juan Joxe Agirreri. Haiei eskerrak baliatu ahal izan naiz, garaiz eta oparo, bestela nekez eskuratu ahal izango nuen bibliografia prestatuz eta dokumentazio aberatsaz. Eskerrik asko bostoi, bihotz-bihotzetik.

tsuan, bestetarako tentaziorik falta izan ez denean ere, gizalegezko jokabide garbia aldarrikatu izan du Henrikek, hitzez eta egitez. Zenbaiten ustean kazetaritzazko artikulu xume diren bere gogoetak, hori dela medio, gizabidezko jarrera zabal baten lekuko irmo ditugu: ur bizia bezain beharrezkoa dugu, nire ustez, gogoeta horietariko asko. Elkar hartuzko lan-giroan jarduteko gonbita izan ohi da, askotan, bere mezua. Gure etorkizuna, hizkuntza eta kultura kontuei dagokienean ere, errespetuz eta buru argiz oratu nahia. Atsegin gertatzen zait, zeharo, Henrikeren ikuspegi eta jokamolde hori. Horregatik, eta beste hainbat motiborengatik, poz ematen dit bere erantzunaz aurkeztu ahal izatea zuengana. Eskerrik asko, Henrike, nire sarrera-hitzaldi honi erantzuna ematea zeure gain hartu zenuelako, bi aldiz pentsatu gabe, joan den otsailean-edo hala eskatu nizunean. Eta esker mila anitz, adiskide, unerik deserosoenean erantzun-idazkia prestatzeko astia hartzen, eta benetako adorea azaltzen, jakin duzulako. Sutan jartzean jakiten da, eltzea nolakoa den: hala erakutsi zigun Xenpelar handiak. Halaxe diot nik ere, Henrikerenganako esker onez.

Eskerrak ematerakoan oso gogoan izan nahi nuke, bestetik, gure guztion Patxi Altuna. Bere ordeztua sartua naiz Euskaltzaindian, dakizuenez, eta ohore handia da hori niretzat. Azpeitiar argia orain urte t'ardi joana bada ere gure artean ditugu gaur Manuel Altuna, Patxi zenaren anaia, eta bere emazte Maria Pilar. Eskerrak eman nahi dizkizuet bioi, gaurko ekitaldi honetara etorri izanagatik. Eskerrak emateaz gainera hitz bi esan nahi nituzke, zuen guztion baimenaz, Patxi Altunaren alde. Maisuarenganako begiruneak narama gorazarre xume hau egitera. Euskarazko alfabetatze kontuan, aditz-jokoaren ezagutzan bereziki, Patxiren zordun naiz ni inoren zordun izatekotan. Orain ahaztu samarrik dagoen bere liburu bat (*Euskal Aditza*) izan nuen nik, artean hogeitau urte bete gabea nintzelarik, aditz-jokoaren alorreko bide-erakusle. Euskal aditzaren egitura nagusiaz, bere atalez eta barne-joskeraz, Patxiri eskerrak dakit orain ere, dakidan gehiena. Gauzak argi eta taxuz azaltzen zekien. Pedagogo trebea genuen bera, ikertzaile zorrotz izateaz gainera.

Euskara ikasteko metodoen alorrean ere trebetasun handia erakutsi zuen Patxik. Ez dut inoiz ahaztuko bere *Euskera Hire Laguna*. Metodo haren bidez euskaldundu zen gure arteko hainbat erdaldun. Hori bakarrik ez: etxetik nola-halako euskaldun ginena alfabetatzen hasteko ere ez zen lagungarri eskasa gertatu. Metodo hura zela medio hasi nintzen ni, artean euskaraz ia alfabetatu gabe nengoelarik, ikasle erdaldunak euskalduntzen. Ondo gogoan dut noiz eta nola hasi nintzen, ikaskideei euskara-klaseak ematen. Klaseak ematen eta, hori eginaz, neure burua euskaraz alfabetatzen. Bide-erakusle izana dut beraz, alde horretatik ere, Kanpaxa handia, eta halaxe aitortzen dut gaurkoan, esker onez eta atsegin handiz.

Esker onezkoak aitorturik, gatozen harira. Iturriaga dugu, ondo dakizueenez, gaurko protagonista. *Agustin Iturriaga* edo, bataio-agiriari hitzez hitz helduta, izenez *Agustin Ignacio María* eta apellidos *Pascual Ugalde Iturriaga*

*Amitesarobe* (2). Hiru ponte-izenetatik bakarria erabili zuen berak normalean, eta bakar horretaz da orain ere ezaguna: *Agustin*. Apelidu kontuan, aldiz, gauzak ez daude argi: izatez eta jaiotza-agiriz *Pascual* zuen Agustinek lehen abizena. *Iturriaga* hori ez zuen ez lehenengoa eta ez bigarrena, hirugarrena baizik. Euskal literaturan, ordea, *Pascual Iturriaga* edo *Iturriaga* esan izan zaio, aspaldidanik, Agustini. Amaren *Ugalde* deitura oso goiz galdu zuen (3). Gero, une batetik aurrera, aitaren *Pascual* ere galduz joan zen. Agian ez bere erabakiz, edo berak hala nahita, baina hala gertatu zen hainbat dokumentutan (4). Nolanahi ere, 1851ko bere heriotza-agirian *Agustin Iturriaga* esaten zaio huts-hutsik: ez aitaren *Pascual* apelidurik aipatzen da bertan, eta ez amaren *Ugalderik*. Geroztikako idazle askok, gehienek (5) agian baina ez guztiek (6), horrela deitu izan diote: *Agustin Iturriaga* (7). Nik ere horrela jokatu dut gaurkoan.

---

(2) Errioxako Autol-etik Errenteriara etorritako Andres *Pascual* eskribauaren eta Mikaela *Iturriagaren* iloba zen Agustín, aitaren partetik. Bigarren deitura, amarena, *Ugalde* zuen. Migel Antonio *Ugalde* eta Maria Agustina *Amitesarobe* zituen amaren aldetik aitona-amonak. *Iturriaga* hori hirugarren deitura zuen beraz, ez lehenengoa eta ez bigarrena: aitaren aldetiko amonaren deitura zuen hori.

(3) Agustín bera baino lehenagotik zetorren nahastea, nire ustez. Lehenengo bi abizenekin apelidu bakarria egin zuen Agustinen aita Juan Josek: zehazki esateko, Juan Joseph *Pasqual de Iturriaga* ageri da 1804ko dokumentuetan. Hots, aitona *Pascual* eta amonaren *Iturriaga* haiek deitura bakar bihurtu zituen: *Pascual de Iturriaga*. Hala sinatzen zuek aitak, une batetik aurrerako dokumentuetan. Horren ondorioz nonbait, «*Pascual de Iturriaga y Ugalde*» izenpetzen hasi ziren Agustín eta bere anai-arrebak, hirugarren lekuan behar zukeen *Iturriaga* hura bigarren lekura aurreratuz. Horrela egin zuten adibidez 1804an, «Autos de entroncamiento de hidalgüía, nobleza y limpieza de sangre» direlakoetan (ikus AGG-GAO, SS 187, 5). Gutxitan erabili zuten, ordea, hain deitura luzea: *Ugalde* hori alde batera utzi zuten, gehienetan, Agustinek eta bere senideek. Agustini dagokionez, ezagunak ditugun dokumentuen arabera *Pascual* (hasieran *Pasqual*) *Iturriaga* edo *Pascual de Iturriaga* erabili zuen maizenik. *Ugalde* gabe. Hori ere ez beti: lehenengo atala murriztera jotzen zuen inoiz, *Agustín Pasq. Iturriaga* sinatuz. Hots, lehenasuna bigarren atalari ematen zion berak ere.

(4) Horrela ageri da 1817an lehenengoz, eskola eraikitzeko baimen kontuetan: gauza bera 1821eko urtarrilaren 4ko eskutitz ofizialean, Liberalen garaiko Diputazio probintzialak *Iturriaga*ri egindako enkargu-idazkian. Horrela ageri da, orobat, 1831ko ekainaren 16an, zientzia-tekniken eta euskararen sustapenerako elkarte ofizialak Gipuzkoako Batzar Nagusiei aurkezturiko dokumentazio teknikoan. Baita 1831ko uztailaren 12ko Batzar Nagusien aktetan ere. Horrelaxe ageri da, berriro ere, Sustapen-elkartearen 1833ko maiatzaren 15eko txostenean. Horietan denetan *Agustín de Iturriaga* edo *Agustín Iturriaga* aipatzen da espresuki. Bestalde, 1841eko eta 1842ko bere ikasliburuetan D. A. P. I. P jarri zuen aurreko azalean, ia era anonimoan adieraziz bere nortasuna: *Don Agustín Pascual Iturriaga, Presbítero*.

(5) Oker ez banago Jose Manterola izan zen, 1880ko bere artikuluan, *Agustín Iturriaga* deitu zion lehena. Arzak-ek, bere aldetik, A. P. *Iturriaga* erabili zuen 1887an, lehen bi letrak izen-adierazle bailiran. Zehatzago esateko, *Pascual Iturriaga* edo *Pascual de Iturriaga* esaten dio hainbatek, sarrerakoan, eta gero *Iturriaga* soil-soilik, artikuluan zehar. Ikus, adibidez, L. Villasante (1979) eta J. M. Setien (1978).

(6) Euskal gaiez baina erdaraz ari direnen artean baliteke gehiengo zabalaz *Pascual (de) Iturriaga* deitura bikoitzaz baliatzen dena. Ikus, esate baterako, Lasala Collado, Mandasko dukea (1884), Jose Ignacio Lasa (1964, 1965, 1968, 1978), Tellechea Idígoras (1978) eta De Benito (1994). Lasalak berak ere *Agustín Iturriaga* darabil ordea, inoiz edo behin.

(7) Horrela ageri da Euskal Literaturako lan gehienetan. Patxi Altunaren esanean, «Urteen joan etorrian aitaren lehen deitura ere kendu egin zion askotan eta *Agustín Iturriaga*-tzat ezagutzen dugu komunzki» (1987: 22).



Bazuten kideasunik Agustin Iturriagak eta Patxi Altunak. Apaiz genituen biak; apaiz eta irakasle. Pedagogo ona izateagatik dugu Iturriaga batez ere ezagun (8). Antz handia du Hernaniko benefiziaduak, horretan ere, Patxi Altunarekin. Hitzun ederrak ziren biak: hitzun ederrak eta ikasketa-lanera emanak, zeharo. Bide beretik zebiltzan, beraz, honetan eta hartan.

Ez dugu esango, haatik, hernaniarra eta azpeitiarra denean bat zetozenik. Ezin esan liteke, bereziki, gizarte-irizietan gogaide zirenik erabat. Ez da harritzekoa: jaiotzaz eta bizialdiz mende t'erdiko aldea dute elkarren artean, eta horrek berak muga sendoa ezartzen du. Kasu honetan badago, gainera, gehigarriko motiborik, halako kideasun estu-esturik ezin aurkitu ahal izateko. XIX. mendeko bi iritzi-joera handietako batetik, pentsaera ilustratu-liberaletik, zetorren Iturriaga: hori zuen etxeko giroan eta lagunarte jasoan gidari, eta bide horri eutsi zion, bere gorabeherekin, bizi izan zen artean (9). Euskaldunon artean hain indartsu izandako beste pentsabide nagusitik, tradizio-zaletasunetik, zetorren Patxi. Hain iturri diferenteetatik edandakoak izanik ere bata eta bestea, begirune osoa eta errespetu handia zion azpeitiarrak hernaniarrari. Estimatu handitan zuen Patxi Agustin. Hain zuen gogoko non, Iturriagaren berrargitaratzaile eta sarreragile izan zen. Berak prestatu zuen, orain dela hogeituro, Iturriagaren *Dialogo*-jolasen argitalpena (10). Badu horrek ere zer erakutsia, bien arteko kideasunak zehazterakoan. Patxiaren interes handi horrek berekin du, nire ustez, Iturriagaren esan-eginak zehatzago ezagutzeko gogoia eta bere pentsaera hobeto entenditu nahia.

Banuen nik ere, atrebentzia onartzen bazait, Iturriaga ilustratu-liberala hurbilagotik ezagutzeko eta bere ibilerak xeheago entenditzeko gogoia. Esango dizuet zergatik. Etxetik jaso da dut umetan, beste askoren moduan, apaiz-jendea eta gizarte-aurrerakuntza bateragaitzak direlako ikusmoldea. Aitak esango zukeenez, «Lapitzak ez dik artorik ematen, Zalbide!» Zenbat aldiz entzun ote genion aitari etxean, bere gaxtetako gertaerak aipatzen zituenean, esaldi hori gogoratzen. Aitak herriko apaizarekin egin nonbait topo, Hernaniko kalean, eta honek zorrotz galdetu: «nora hoa, Zalbide?» Baita berak ere, erdi-lotsaz, erantzun: «gau-eskolara, jauna, *regla-de-tresa* eta aritmetika gehixeago ikasiko ote degun». Apaiz jaunaren epaia, berriz, ozena bezain etsia: «Zertan ari haiz gero, baserriko lanak alde batera utzita? Ez al dakik lapitzak ez duela artorik ematen?»

(8) Datu bat baino gehiago dago, Agustinen trebezia pedagogiko horren berri ematen duenik.

(9) Horretaz jabetzeko ikus, bereziki, Fermín Lasala Collado 1884 eta Madariaga 2005. Filosofia soziokultural eta politiko liberala Iturriagaren baitan gidari izateak ez du esan nahi, ezinbestean, bere jokaera osoa pentsaera bakar horren gurrupilera lotua zuenik huts-hutsean. Egunen batean Iturriagak eta Iztuetak Aieteko gainean, euskara eta euskal kultura indarberitze aldera, maiz izan ohi zituzten elkarriketak zehazterik lortzen bada, esate baterako, bere iritzi-zabaltasuna ere azaldu ahal izango da seguruenik. Badaude hori uste izateko motiboak. Ikus, esate baterako, Lasala 1884.

(10) (1987) *Jolasak*. Euskal Editoreen Elkarteak (konkretuki Kriseluk) kaleratua da Altunak prestatuturiko berrargitalpena. Patxi ez zuen jatorrizkoa berrargitaratu, Bonaparteren 1857koa baizik. Ikus, orobat, berrargitalpenerako Patxi prestatuturiko hitzaurrea, 21-9 or.



Aspaldiko kontuak dira horiek: Primo de Rivera-ren garaikoak, oker ez banago (11). Aspaldikoak izanik ere, beti gorde izan ditut gogoan. Aitaz akordatzen naizen bakoitzean, bere uste-sinesmenak, amets-gorrotoak eta jo-kaera entenditzen eta gure gizarte honen eten-urratze sakonetan kokatzen ahalegintzen naizen bakoitzean, ezin alboratu izan dut Hernaniko apaizaren ateraldi hura. Berekin daraman mundu-ikuskerak hertsia garrantzitsua da, nolana ere, gure lehena entenditzeko. Baserriko semea baserriar izateko jaioa zen, ez bestetarako, eta hartarako ez zuen kultura idatziaren behar handirik.

Alfonso Maria Zabala, ipuin- eta antzerki-idazle ezaguna, Hernaniko erretoare izana zela jakin nuen halako batean, Kizkitzaren *Ereintza* irakurriz. Baita neure buruari galdetu ere, ez ote zen bera izango aitari kargu hartu ziona (12). Laster ikusi nuen, ordea, oker nembilela: 1901etik aurrera Hernaniko erretoare izana zen Zabala. Gure aitak, 14an jaioa izaki, ezaguna izango zuen

(11) Inoiz datu hori galdetu ez banion ere aitari, bere aipamenak kontuan izanik 1926-28 inguruko gertaera izan behar zuen.

(12) Ezkion jaio eta Zegaman hazia, apaiz-ikasketei ekin zien Zabalak. Karlistetan kapilau ibili ondoan Hondarribian, Zegaman eta Donostiako Artzain Onean izan zen apaiz, eta 1901etik aurrera Hernanin erretoare. Zamarridak asmatuiko *zarrontzale* terminoa bete-betean egokitzen zitzaien, oso oker ez banago, Alfonso Maria Zabalari. Gutxiegi dakigu ordea bere biziaz, azalpen zehatzegirik egiteko. Orain ahaztuta badago ere, Gipuzkoako integritismoak euskal idazle eta euskalari ezagun askotxo izana du bere baitan: Etxaide aita batetik, Orkaiztegi tolosarra bestetik, aipatu berri dugun Zabala hurrenik eta agian, Mitxelena oker ez bazebilen, Txomin Agirre bera azkenik. Mereziko luke, nolana ere, Alfonso Zabalaren ezagutza zehatzagoa eskuratzea, bere idazlan guztiak bilduz eta, bide batez, ahalik eta bizi-zertzelada gehienak jasoz. Egiteko dago lan hori, oker ez banago.

beraz, umetan. 1919an hil zen ordea Alfonso Maria, Donostiako zenbait gazterentzat hainbat antzerki-lan irri-eragile prestatu ondoan. Ateraldi hura ezin zen, hortaz, berea izan. Apaiz hura nor zen jakitea, hori da gutxienean. Bestea da garrantzitsua: Gipuzkoan orain dela laurogei bat urte gertatzen ari zen gizarte-aldaketa begien bistan izan, eta horren aurrean lehenari loturik, beti-bateko ordena zaharrean estekaturik, geratu izana. Horrexek sortua zidan niri, nolana ere, lehenaldiari iltzaturiko apaiz-prototipoaren irudia. Irudi hura zela medio, Hernaniko herria eta bertako apaizak loturik nituen gogoan.

Lotura hura eten egin zitzaidan, euskal kontuen berri izaten hasi eta Agustín Iturriagarekin topo egin nuenean. Hernaniarra genuen hau ere, eta apaiz. Iturriaga ezin nezakeen, ordea, arto-lapitzen pasadizo harekin uztartu. Oso urruti zegoen Agustín, aitagandik iritsitako apaiz-prototipoaren iruditik: justu beste punta-muturrean. Agustinen eta beste apaiz-idazle batzuen bizia arakutzen hasi, eta besterik ere ikusi nuen: denetik zegoela hor ere (13). Historiak beti aurrera egiten duela pentsatzen ohiturik gaudelarik horra non, Hernanin behintzat, itxuraz atzera egin zuen. Iturriagaren biziak bazuen beraz, pedagogo gisa diogun itzalaz gainera, bestelako interesik ere. Hori guztia nuen hortaz, Iturriaga arakaturik eta biografía orori zor zaion begirunez, argitu beharrekoa.

## 1. ITURRIAGA ETA BERE GARAIA

Askotan aipatzen dira Iturriagaren nortasun-printzak. Ondotxo gutxiagotan saiatu izan gara, ordea, gizona bere gizarte-giroan txertatzen. Beharrezkoa da bigarren hori ere, biografiari bere zukua aterako bazaio. Beharrezkoa da hori biografía gehienetan eta, ene ustez, ezinbestekoa dugu Pascual Iturriagarenean (14).

Aldaketa sakon eta bizkorren garaian bizi izatea suertatu zitzaion Agustini. Lau gerra-aldi bizi izandakoa dugu Iturriaga: Konbentziokoa lehenik (1793-95); Independentziako gerra (gure artean *Frantseseta* esan izan dena) gero (1808-13); «Trienio Liberal-konstituzional»ean (1820tik 23ra) erregezaleek egindako altxamendua hurrena; eta, azkenik, gure herriaren historia hain sakon markatu duen Karlistada: Lehen Karlistada (1833-39). Hamasei urte luze bizi izan zen Agustín, era batera edo bestera, ekintza armatuen erdian (15).

---

(13) Gaia behar bezala aztertu gabe dagoela esango nuke, dakidan apurretik. Apaiz ilustratuak lehenik, eta liberalak gero, literatura-liburuetan ageri zaizkigunak baino gehixeago izan dira gure artean. Are gehiago: iritzi-aniztasun eta aurrerazaletasun hori aski nabarmena izan zen Donostialdean eta Gipuzkoako zenbait eskualdetan, XIX. mendearen hasierako apaizen artean.

(14) Badu J. A. Fishmanek lan bat, *Ideology, Society and Language* izenekoa, soziobiografiaren aukera paregabeak eskaintzen dituena. Maisu handiaren bidea kontuan izaten saiatu naiz, lantxo hau prestatzerakoan.

(15) Bizi-denbora osoaren zati handia da hori. Gutxitan gertatu izan da Europan, azken mendeotan, herritik atera gabe hamasei urte gerra-giroan bizi behar izatea. Are gutxiagotan, gerra-

Aurrez aurreko gatazka-giro hori ez zuen, gainera, plano militarrean bakarrik bizi izan. Antzera gertatu zitzaion beste hainbat sailetan ere. Alor instituzionalean, batetik: mendeetako foru-sistema jatorra arrailtzen, ahultzen eta, partez, desegiten ikusi zuen bere bizi-denboran. Antzera gertatu zitzaion ekonomian eta teknologian ere: burdingintza-molde zaharra gainbehera larrian erortzen ikusi zuen, itsas merkataritzaren txapelaldi sakona oso gertutik bizi izan zuen, eta Donostia (16) erre eta kiskali egin zen erabat. Aldaketa handiak eta gogorrak, belaunaldi bakarrean.

Guztia ez zen gainbehera izan. Enpresa-molde berriak sortzen hasi ziren han-hemen, bide asko berriro edo zabaldu zen, eta abar. Antzera gertatu zen plano soziokulturalean ere: aldakuntza nabarmenak agertu ziren janzkera-orrakeretan, dantza-musiketan, ezkontza-ohituretan eta gizabidezko arau nagusietan. Baita erlijio-sinesmenari eta eliz kontuei zegozkienetan ere. Fraideen esklaustrazioak eta desamortizazioak, baita apaiz liberalen ibilera berezia ere, zurrumbilo horren osagai nagusi izan ziren. Horiek guztiak, eta ondotoz gehiago, ikustea eta nozitzea tokatu zitzaion Iturriagari.

Hori bakarrik ez: aldaketa batzuetan, testigu ez ezik eragile ere izan zen bera. Iturriagaren izaerak berak bazukeen horretan bere eragina. Ekintza-gizona zen hernaniarra, bete-betea. Aldaketa-giro bortitz hark eta Agustinen ekintzarako joerak esplikatzan dute, hainbatean, Iturriagaren biografia: horren guztiaren argitan ulertu behar dira hizkuntza alorreko bere esan-eginak (17).

### 1.1. Gizonaren zenbait ezaugarri

1778an jaio zen Agustin, Hernanin, eta herri berean hil zen handik 73 urtera, 1851n. Etxe onekoa zen Agustin: «zezakeen jendea» ziren Pascual Iturriagatarrak (18). Zezaketenak eta, herrian zein Probintzian, zezakeen jen-

---

giro hori barne-konfliktuzkoa izatea hein handi batean. Etsai-giro horren marka-seinaleak bekorian ondo iltzaturik daramatza Iturriagak. Ez da harritzekoa: nor ez luke gatazka-zurrumbilo latz horrek sakon markatuko?

(16) Bai eta gero, neurri mugatuagoan, Hernani bera ere.

(17) Uste baino landu-arinago dauzkagu Iturriagari buruzko azterlanak, eta beraz oso posible da egunen batean orain arte esandakoak erroitik aldatu behar izatea, honetan edo hartan. Datu fidagarrien eskasia ohargarria da. Ez noski aita Lasak 1968an aipatzen zituen «muchas lagunas biográficas» haien parekoa (Lasa, 1968: 129), baina bai oraindik ere ohargarria. Lasaren funtsezko ekitaldiaz gero Juan Madariaga Orbearen ekarpena izan da, oker ez banago, aurrerapen handiena ekarri duena (Madariaga, 2005). Gauza asko dira ordea, oraindik, argi-ilunean daudenak. Balegoko tesi on baterako gaia, Iturriagaren eta bere bizi-giroaren inguruan.

(18) Agustinen eta bere anaia Joakinen esanean, «vecinos concejantes de esta Villa» izateaz gainera «exercieron en repetidas veces oficios honoríficos y los mas distinguidos de la misma Villa» aita Juan Josek eta amaren aldeko aitona Migel Antoniok.

dearekin harreman estua zutenak (19). Iturriagarren lanbide nagusiek horren berri ematen dute, halako neurri batean (20).

Gizon apala zen: buruan ez zeukan harrokeria handirik (21). Ez zen diruzale amorratua ere. Hitzez eta egitez, pobreen maitale zela esan izan da (22). Bere eskutizetan ere, erraz da Iturriagaren hurkoarenganako esku-zabaltasuna eta zinezko gizalegea antzematen (23).

Hiztun ederra, alai eta jakituria handikoa zen Agustin. Jakintsua izateaz gainera, zekiena oso ondo erakusten zuena (24). Hernaniko eta Donostiako lagunarte jasoan ere gizon atsegin eta alai zen Iturriaga (25). Hizketarako atsegina eta gogoetalaria (26).

Izaeraz ez zen odol-beroa. Bere hitzetan esanik, «berotasunak eta errabiak ez dute beñere gauza iraunkorrik egiten». Buru-hotza eta kalkulazaila zen Agustin, kontu grabeetan: gizakion desio-irriken eta ahuldadeen jakitun, eta muga horiekin jokatzen ohitua. Apala izanik ere apalekin, bazekien bere ustez kontrako bidean aurrera samar zebiltzanei gogor egiten: beldur emateko neurrian ere bai, inoiz (27). Horrekin batera, gizarte hobea eraikitzeko esperantza ilustratuaren seme genuen Agustin. Aurrera begirako itxaropen horrek indar

---

(19) Agustinen harreman-sareari dagokionez ezin alboratuzkoa da, orain ere, Lasala Colladoren 1884ko artikulua: *Una Asociación Bascongada de 1820 a 1850*. Beste hainbat loturatarako, aldiz, iturri espezializatuagoetara jo beharra dago: Zuaznabartarrekiko harremanez ikus aita Jose Inazio Lasa (1968: 138-46); Iztuetaerrekikoak argitzeko ikus Garmendia Arruebarrena 1968; Muñagorrirekiko adiskidantza kontuetarako, azkenik, ikus Labayen (1976) eta Madariaga (2005: 324).

(20) Aitona eta aita eskribau izan zituen, eta anaia bat ere bai. Beste anaia berriz, bera bezala, apaiz eta irakasle izan zen. Anaietako bat herriko alkate.

(21) Bere alde zeuzkan gipuzkoar ezagunenak eta ahaltsuenak. Hala nahi izan balu erraz igoko zen hortaz, haien laguntzaz, goiko mailetara. Ez zuen halakorik nahi izan, ordea. Hernaniko apaiz izatea zen bere nahia eta, dakigun neurrian, ez zuen bere gogoz herriko eliza inoiz utzi izan.

(22) Askok dio hori: ikus, besteak beste, Lasa (1968) eta Setien (1978:121). 1840an, bere gogoz eta inork behartu gabe, kapilau-lanengatik zegozkion diru-eskubide guztiei uko egin zien eta herriko bikarioaren esku utzi zituen, Hernaniko pobreei laguntzeko. Batez ere ospitalean edo ospitaletik kanpora gaixo zeuden pobreei laguntzeko. Behar gorrian zegoen Hernaniko familia pobre bati ere bere dirua utzia izan behar zion (Lasa, 1968).

(23) Ikusi, esate baterako, 1831ko eskutitza, Iztuetari egina eta donostiarrak oro har, ez bertako jende xehea soilik, diruz aski estu zebiltzan garaikoa: «Baroja, que está desocupado, y Vd. habrán de trabajar y yo me alegraría muchísimo de que Vd. sacase alguna utilidad como lo merece. *Nosotros que no necesitamos de estos recursos para mantenernos debemos trabajar para los que no los tienen*» (Beltzezkoa nirea).

(24) «hombre de fácil palabra y de vastísima erudición; había nacido para el magisterio (...) y enseñaba más aun de lo que sabía», Manterolak dioenez (1880: 40-1). Ikus, orobat, Mujika, (1910: 7).

(25) Lasala Collado, 1884; Madariaga, 2005

(26) Manterolaren hitzetan «muy frugal, de caracter suave y afable (...) muy dado al estudio, y eminentemente pensador». Manterola (1880: 40-1).

(27) Oso deigarria gertatu zait niri, esate baterako, gogaide ez dituenak mendean hartzeko bidez dioena (Garmendia Arruebarrena, 1968: 176). Inguruan pizten zuen etsaitasunaren zati bat ez ote zetorkion ezaugarri horretatik?

berezia zuen bere baitan. Konbentzitua zegoen hernaniarra, esperantzari esker-  
rrak eskuratzen duela gizonak bere goi-maila, itxaropen horren bidez erdiesten  
duela bere izaera betea. Aitortu ere horrelaxe aitortu zion, behin batean, bere  
lagun Iztuetari: «Esperantzak gizona bizi du; ken bekio esperantza eta da  
kriaturarik kupigarriena».

Azkenik, euskaltzale zen gure Agustin. Euskaltzale porrokatua, batzuen  
ustez (28). Aski berezia, beste zenbaiten iritzian. Baina euskaltzalea, guztien  
esanean. Bide batez, eta hitzak hizpidea emanik, galdera bat egin nahi nuke  
hemen, guztion aurrean eta gero esango ditugun kontuen argigarri: zer da,  
funtsaren funtsean, *euskaltzale* izatea? Zer da *euskaltzaletasuna*? Hitzaren  
axalera bagoaz erraza genuke, *Orotariko Euskal Hiztegia* lagun, bere agerpen  
goiztiarrena kokatzea: Iturriagaren lagun Iztuetak erabilia da lehenengoz,  
itxuraz, idatziz. Erraza genuke, era berean, bere jendarteko eztanda eta za-  
balkundea egiaztatzea: Azkueren 1897tik 99ra arteko *Euskaltzale* aldizkaria  
izan genuen, noski, hedapen zabala eman ziona. Aurrez aurreko definiziorik  
ematen ez bazaigu ere lehen agerpen haietan, ezaugarri zehatzez hornitua ager-  
tzen da hitza hasiera-hasieratik: euskararen alde, ez kontra, dagoen jendea  
dugu, batetik, euskaltzalea: hitzez eta *egitez* hizkuntza bizirik ateratzen eta  
indarberritzen saiatzen dena. Hitzez eta idatziz euskara garbian egiten saiatzen  
dira, bestetik, euskaltzale gehienak (29).

Gatozen gurera, eta egin dezagun proba. Saiatu al zen Iturriaga euskara  
indarberritzen? Bai, ahalegin bizian eta ondo jakinaren ganean saiatu zen  
horretan, aurrerago ikusiko dugunez. Saiatu al zen euskara, idatzizko lanetan  
bereziki, mordoiloegi ez erabiltzen? Horretan ere saiatu zen, nahiz eta osorik  
lortu ez, gero ikusiko dugunez. Ez dago dudarik, hortaz: aski neurri zabalean  
bete zituen Iturriagak baldintza biak. Euskaltzale argi eta goiztiartzat hartzekoa  
dugu, beraz, Hernaniko benefiziadua.

## 1.2. Harreman-sarea: lagunak, ezagunak eta etsaiak

Geure baitarik eman ohi dugu gizakiok, duguna eta dezakeguna. Egia da  
hori, baina ez egia osoa. Biltzen gaituen gizarte-giro zabalak eta inguruan

(28) Hala dio, adibidez, J. San Martinek.

(29) *Euskaltzale* hitza gurea izanik ere, kontzeptua bera aski ezaguna da mundu zabalean:  
hizkuntza ahul askoren baitan, bereziki, uztarkide zuzena du *euskaltzaletasun* hitzak. Hori baka-  
rrik ez: hizkuntza-soziologian ere termino tekniko jakina du kontzeptu horrek. Oker ez banago  
Uriel Weinreich-ek sortua da, eta nazioarteko bibliografia soziolinguistikoa ongi errotua, euskal  
hitz horren baliokide hurbila: *language loyalism*. Terminoa sortzeaz gainera, definizio modua ere  
eman zion Weinreich-ek bere sorkariari: *Language loyalism* horren ezaugarri bereziak honako  
hauek dira: a) hizkuntza bizirik gordetzen edota indarberritzen ahalegintzea; b) hizkuntza hori  
garbi, beste hizkuntzen morrontza handiegirik gabe, erabiltzen ahalegintzea. Ikusten denez,  
etxeko tradizio soziokulturala eta mundu zabaleko terminologia teknikoa elkarren eskutik doaz  
kasu honetan.

dugun lagunarteak ere garrantzi handia dute, gure esan-eginetan. Hala gertatzen zaigu egungo gizakioi, lautatik hirutan, eta halatsu izango zen Iturriagaren garaian ere. Saia gaitezen, beraz, Agustinen berezko ezaugarriez gainera bere harreman-sarea kontuan izaten (30). Zer lagunarte zuen Iturriagak?

Bazuen Agustinek, batetik, lagunarte jaso, goi-mailakoa, nahi izanik ere gipuzkoar gutxik izan zezakeen modukoa. Gipuzkoako jende ikasiarekin, Hernaniko eta Donostialdeko jende ilustratu eta, oro har, liberal famakoarekin bildu ohi zen sarri Agustín (31). Gipuzkoako gizarte-hierarkian goi-mailan zegoen jendea biltzen zen Hernaniko eta Donostiako bilera horietara. Jende ikasia, ilustratua; gizartearen esparru instituzionalean, ekonomikoan edo kulturean goi samarrean zegoena edo gorabidean zihoa: horrelakoak ziren bere solaskide jantziak, guztiak edo gehienak.

Iturriagaren lagunartea ez zen, ordea, jende ikasi eta goi-mailakoen alorrera mugatzen. Hizkuntzarekiko kezka bizia zuen Iturriagak: Hernaniko eta Donostiako bilera horietako kide gehienek baino biziagoa. Euskaltzale eragileak zen Agustín, eta bere moduko kezka-gogoak ageri zituzten gipuzkoar eta euskaldun batzuekin harreman estuak izan zituen. Goi-mailako bileren kontua beti aipatzen den bezala, beste kontu hau alde batera utzi izan da maiz. Iturriagaren nortasuna bere osoan aztertu nahi bada, ordea, bestelako harremanok ere oso kontuan izan behar ditugu. Deigarriak dira, alde horretatik, Juan Inazio Iztuetaekin (32) izandako harremanak, bai gutunez eta bai aurrez aurre. Aieteko parean, «Oriyamendiko gañean» egin ohi zituzten elkarrizketak, zenbaitetan behintzat (33). Euskara aurrera nola atera, hori izaten zen itxuraz «goi»-bilera horietako solasgai nagusia (34).

---

(30) Agustinen harreman-sareari dagokionez ezin alboratuzkoa da, orain ere, Lasala Colladoren 1884ko artikulua: *Una Asociación Bascongada de 1820 a 1850*. Beste hainbat loturatarako, aldiz, iturri espezializatuagoetara jo beharra dago: Zuaznabartrekiko harremanez ikus aita Jose Inazio Lasa (1968: 138-46); Iztuetaekikoak argitzeko ikus Garmendia Arruebarrena (1968); Muñagorrirekiko adiskidantza-kontuetarako, azkenik, ikus Labayen (1976) eta Madariaga (2005: 324).

(31) Hernaniko bilerak Zuaznabartarren etxean egiten ziren batzuetan, Iturriagarenean ere bai aldiari behin. Donostiako bilerak, berriz, Fermin Lasala Collado «Mandasko duke»aren gurasoen etxean egiten ziren, askotan. Lasala aita, Fermin Lasala Urbietakoa (Donostia 1798-1853), bazen nor: Donostiako alkate, Foru aldun (1844an aldun nagusi), Diputado a Cortes (1846-53), «consiliario del Banco Español de San Fernando» 1848-49an,...

(32) 1767an jaio zen Iztueta, Zaldibian, eta 1845an hil. Iturriaga baino hamaika urte zaharragoa, eta Astigarragaren zein Humboldt-en edade berekoa. Euskal Erromantizismoaren adierazle argienetakoa, nire ustez. Abentura zalapartatsua eta arrazoi-bidezko gogoeta bat eginik ageri dira Iztueta biziaren bizian, noiz bide batetik dabilen, eta noiz bestetik, esaten erraza ez delarik beti.

(33) Hala aditzera ematen da, behin baino gehiagotan, Iturriagak Iztuetaekin egindako eskutizetan. Eskutitzez eguna eta ordua jarri, eta Oriamendin biltzen ziren, bata Donostiatik etorri eta bestea Hernanitik. Giro horretara biltzen ziren, beti edo sarri, Iturriagaren anaia Cayetano eta Manuel Larrarte Hernaniko organo-jolea, biak ere Hernaniko eskolan irakasle-kide izandakoak. Ikus Idazlan honetako VI. eranskina.

(34) Formazioz eta status sozialaz aski diferenteak izanik ere biak, euskaltzaletasunean bat zetozen. Iztueta ez zen, ezaguna denez, Iturriaga baino atzerago gelditzen hizkuntza eta euskal

Lagunarte dotorea eta euskaltzale-taldexka bizia: horiek izan zituen bere harreman-sarearen oin biko oinarri. Horrezaz gainera, gauzak hobeto zehazte aldera, kontuan izatekoa da Iturriagak norekin harremanik izan *ez zuen*. Badi-rudi, horrela, euskara kontuan aski aurrera zebiltzan Zarauzko frantziskotarrekin ez zuela Agustinek trataturik izan: ez tratatu handirik, behintzat. Konbentzioko gerra, Frantsestea eta Trienioko gertaerak zirela medio kontrako punta-muturretan suertatuko ziren, sarri, Zarauzko fraideak eta Hernaniko benefiziadua: Iturriaga liberal berritzaileen artean, eta besteak erregetiar absolutisten sailean. Horregatik izango da, seguruenen, elkarren artean harreman handirik ez izatea (35). Badi-rudi, orobat, Tolosako Juan Inazio Mendizabal inprimatzailearekin eta Abandoko Jose Paulo Ulibarri euskaltzale bezain tradiziozale sutsuarekin ez zuela zuzeneko harremanik izan (36). Ideologiazko zati-banatzeez eragindakoa izan liteke, kasu horietan ere, Iturriagaren eta bere garaiko zenbait euskaltzaleren artean antzematen den distantzia hori.

Horietan guztietan badago, nolana ere, esplikaziorako oinarria. Harri-garriena, esplikazio argirik gabea, beste hau da: Luis Astigarragarekin ere ez zuela Iturriagak, itxuraz, harremanik izan. Hori bai dela harritzekoa. Biak gipuzkoar ezagun eta gailenak izaki; adinez ez hain diferenteak (37); pedagogo handiak biak: ikuspegi didaktikoz aski antzekoak, ele biko metodologiari dagokionean; biak ama-hizkuntzaren printzipioaren aldeko sutsu; biak eskola banaren sortzaile; biak euskaltzale zintzo eta saiatu; biak hizkuntza askoren jabe (38); biak ekintza-gizon eta biak liberal aurrerazale (39). Hori guztia parepareko izanik (40), zergatik ez da bien arteko harreman-izpirik inon ageri?

---

etnokultura osoa bultzatzeko orduan. Bide-erakusle zuen Agustinek zaldibitarra, hainbat kontutan. Are gehiago: Hernaniko eskolan jasotako eskarmentuak erakutsi zionaz gainera Iztueta izan zen, itxura osoz, Iturriaga euskaraz idaztera bultzatu zuena. Bera zuen hernaniarrak, euskaraz ondo idazteko orduan, maisu eta eredu. Hori ere garbi ageri da Iturriagak Iztuetari egindako eskutizetan. Ikus VI. eranskina.

(35) Bestela ez da erraz ulertzen, Juan Mateo Zabala batekin (azken hau bizi izan zen artean: 1840ra artean alegia) nolatan inolako harremanik ez zuen izan, edota horren arrastorik gelditu ez zaigun. Baliteke halere, jakina, gure edo nire ezjakintasuna izatea ustezko harreman falta horren iturburu nagusia.

(36) Bada hala ere eskutitz bat, eskutitez bederen Ulibarri ezagutu zuela pentsarazten duena. Honela dio bertan: Bizcaitarra(ren?) izcuntza frances euscaldunena da. Escribatu bezala mintzabada ez da itzucia. Ezaugun da odol beroa duela, eta buru arroa. Aberatza balitz serbitzu andi bat eguingo lioque gure itzcuntzari, aimbeste maiteduen ezquero. Ikus VI. eranskina, 14. dokumentua.

(37) 1767an jaio zen Astigarraga, Iztueta bezala, eta 1841ean hil.

(38) Astigarragak idatzia da hau: «cultivé las lenguas como la Bascongada, Latina, Castellana, Francesa e Inglesa». Jakin badakigu, bere testu-liburua lekuko, euskara ederra zuela.

(39) Astigarragaz informazio eguneratuena Joseba Intxaustik dauka. Ikus Intxausti 2006 eta 2007.

(40) Inon alderik antzematekotan bien artean, Larramendirenganako atxikimendu-mailan antzeman liteke, agian. Erabateko miresmena zion Seguran jaiotako eta munduan asko ibilitako Astigarragak Larramendiri: negar egitera iristen zen, andoaindarrak idatzitakoak irakurriz. Iturriagaren kasuan ez zen horrela. Ez horrenbestearaino behintzat. Larramendik corpus-plangintzan xahutu zuen bere euskalgintzaren parte nagusia. Pauso hori beharrezkoa zen Iturriagaren ustez.



Gatozen, azkenik, Iturriagaren etsaietara. Horrelakorik askotxo izan zuen Iturriagak bere bizian. Ezagunenak, agian, 1820-23 garaikoak. Eta denetan agiriena, jasotako datuak zuzenak baldin badira, Hernaniko «beste» irakaslea: Mariano Arizmendi (41). Etsai okerrenak badirudi, halere, paperetan ageri ez direnak, edota hala seinalaturik ez daudenak, izan zituela. Herrian bertan zituena, itxuraz, etsairik gogorrenak. Apezpikuak Agustín herritik desterratu zuzenean, adibidez, uste izatekoa da erabaki horren xaxatzailak ez zebiltzala batera urruti. Iturriaga oso jakitun zen, bere muga horiena. Hortik eratorritako eragozpen larriak konformidatez hartzen ohitua zegoen, bestalde (42). Zuhurtziak hala agindurik, hori bai, isilik lan egitearen zale zen Agustín, zenbait egitekotan (43). Ondo eskarmentatua zegoen, inondik ere, jendearen ahotan ibiltzearen kalteez.

### 1.3. Bizi-ibilera: aldiak eta gertaerak

Bost aldi nabarmen bereiz litezke Iturriagaren bizian: a) ikasle-garaia; b) apaiz- eta pedagogo-garaia; c) ikastetxea itxi eta karlistada artekoa; d) karlistada-garaia; eta e) azken hamar urteak. Ikus ditzagun bost aldiok, hurrenez hurren.

---

Beharrezkoa baina, bere horretan utzita, antzua. Corpus-plangintzak ez zuen ondorio onik ekarri, eta ez ekarriko, bere ustean, eskuratzeko-plangintza sendo batean txertatu ezean. Hor ere ez dago ordea bien arteko tirabira erabatekorik, maila kontua baizik.

(41) Funtsezko pertsonaia da Arizmendi ere, 1800etik 1833ra bitartean Gipuzkoako hezkuntza kontuan, eta are plano instituzional osoan, izan zuen bilakaera ongi ulertzeko. Lasaren garaitik aurrera berekin dakarren fama, inori desio ez izatekoa, ez dakit noraino den egia. Egozten zaizkionak egia (eta egia osoa, ez egiaren erdia) izatera bistan da ez genuela Mariano inori laguntzat opa izateko horietarikoa. Horrela al ziren kontuak, ordea? Ez ote gabiltza, honetan ere, onen eta gaiztoen azalpen erraxegian kateatuak, azalpen konkretu horretan halere Agustín delarik ona, eta oihartzuarra gaiztoa? Merezki luke azteraldi on bat Mariano Arizmendik ere.

(42) Ikus, esate baterako, Iztuetari esaten dion hau (VI. eranskina, 1832?-V-3ko dokumentua): «Bastará luego que la Diputación o la Provincia recomiende a los pueblos su uso, para que se introduzca en las escuelas y lograremos nuestro objeto sin necesidad de recurrir a la Junta de Inspección de Madrid, donde puede haber enemigos de nuestra lengua, y aquí enemigos de otra especie en la Junta de Inspección del País. Vea Vd. cuánto cuesta hacer el bien. A mi nada de esto me admira, porque sin salir de este rincón conozco a los hombres y conozco al mundo. Dijo una gran verdad el que dijo que los hombres somos niños grandes; pero yo encuentro una gran diferencia entre nosotros niños grandes y los niños pequeños, y es que teniendo como éstos mucho egoísmo y mucha envidia no olvidamos, como ellos se olvidan al momento, nuestras ofensas y nuestras aprehensiones».

(43) 1830ean euskara indarbertzeko plana egitea eskatu zitzaionean Gipuzkoako Batzar Nagusietatik, Iztuetari erakutsi zion bere plan-zirriborroa, ohar eske. Ikus hori dela-eta Iztuetari egindako eskutitzean zer dioen: «Emen arquituco du Conde Villafuerteari bigaldu deran paperaren copia. Chit gustatuzo eta naico det berorren gogocoa ere izan dedin. Iracurri eta biurtu(co) dit, iñori ecer esan gabe, ceren berorrec badaqui ez de(te)la maite landare oric, ez iñoren autan ibiltceare ez (..)itorcico (?) e(t)a ez oneraco.» (Ikus VI. eranskineko 5. dokumentua).

**a) 1778-1805: ikasle-garaia**

Hernanin izan zuen Agustinek, seguruenik, bere lehen eskola. Latin-ikas-keta ere bai, itxura denez (Lasa, 1978: 124). Gero (44), apaiz-bidea aukeratu zuenean, Andoaingo seminario txikian egin zituen hartarako lehen ikasketak. Azkenik, Oñatiko Unibertsitatean matrikulatu zen 1797an, goi-mailako estudioak egiteko (45). Han amaitu zituen apaiz-ikasketak (Lasa 1968: 130), 1804an edo 1805ean (46). Apaiz egin eta berehala, 1805ean, herrira itzuli zen eta Parrokiako benefiziadu izendatu zuten (47). Benefiziadu-lan horretan jardun zuen, gero esango diren gorabeherekin, 1851n hil arte.



(44) Edota, Hernaniko ikasbidea laburragoa izan bazen, ondotoz lehenagotik.

(45) Apaiztu aurretik, Oñatiko ikasketa-aldi luze samar hartan, badakigu besterik ere egin zuela Agustinek. Hernaniar gazteei latin-gramatika irakasten jardun zuen, gogotik. Bere hitzetan esanik, «desde mucho antes que fuese Presbitero, imitando el exemplo de varios sacerdotes zelosos y beneficos de su Pueblo, se habia dedicado a enseñar la gramatica latina á algunos juvenes, cuyos padres, o carecian de medios para embiarlos fuera del Pueblo o preferian que se habilitasen á vista suya en los principios de la latinidad» (Lasa 1968: 133). Patxi Altunaren ustez, zerbait gertatu zitzaion Agustini horren berandu Filosofia ikasten hasteko: Bere esanean «ez nintzateke batere harririk gure Agustini latineko edo erretorikako ikaskuntza amaitu eta Filosofia ikastera Oñatira baino lehen zoritxar edo ezbeharren bat etxean gertatua eta bien bitartean bizpahiru urte Ernanin eman behar izana. Beharbada Filosofia ikasten hasi aurreko bizpahiru urte horietan irakatsiko zien Ernaniko gazteei latina.» (Altuna, 1987: 23).

(46) Jose Inazio Lasaren esanean, 1804ko azaroaren 29 eta 1805eko uztailaren 24 artean apaiztu zen Iturriaga. Ikus, bestalde, Madariaga (2005: 317).

(47) Hala agertzen da, dagoeneko, 1805ean (Lasa, 1968: 131; 1978: 127).

**b) 1805-1823: apaiz eta pedagogo**

1805 eta 1817 bitartean, zenbait urtez eta gotzainaren aginduei men eginenez, apaiz- eta irakasle-lanean jardun zuen Iturriagak aldi berean (Alberdi, 1990: 2). Urte horietan irabazia (edo irabazten hasia) izan behar zuen Agustinek pedagogoko onaren fama.

1817an, gizarte-giroan aldarte politiko egokia izanik hartarako, bere anaia Cayetanorekin eta herriko maisu eta organo-jole Manuel Larrarterekin «casa de educación» edo ikastetxea zabaltzea pentsatu zuen Agustinek (48). Ikastetxe pribatua zen berea, herri-kaskoan lehendik zabaldu zuten beste biak (49) osatzera zatorrena (50). Tramite guztiak amaitu eta 1818an zabaldu zuen Iturriagak, ofizialki, bere ikastetxea (51). Berritzailea zen ikastetxe hori, alde batetik baino gehiagotatik (52). Zigorra debekatua zegoen eskolan, eta ikasgai osagarriak eskaintzen ziren: kultura-giro osoan txertatuz erakusten ziren hizkuntzak, bere hutsean irakatsi ordez. Famatua egin zen ikastetxea, eta ikasleez gora egin zuen berehala. Hernanitik ez ezik Gipuzkoa osotik, eta are Nafarroatik, etortzen omen zitzaizkien ikasleak (53).

Lan horretan hasi eta handik gutxira, Gipuzkoako eskoletan hizkuntza kontuan gaizki jokatzen zela konturatu zuen Agustín: gaztelaniaz erakusten zitzaizten irakurtzen, erdaraz ezer gutxi zekiten edo tutik ere ez zekiten umeei. Etxetik euskaldun izanik ikasle gehienak (eta horietariko asko elebakar), irakasle-lanak probetxu onik aterako bazuen alfabetatzea lehen-lehenik euskaraz egin behar zela ikusi zuen Iturriagak. Euskararenganako maitasun beroa baino motibo pragmatikoagoak izan ziren, beraz, Iturriaga sinesmen horretara eramanez zutenak (54). Haurrek ez zuten, bere esanean, erdarazko ikasbidez

(48) Idazlanaren I. Eranskinean ematen da eskola sortzeko pausoen berri.

(49) Herriko eskola eta Mariano Arizmendiren pribatua.

(50) Iturriaga anaiek eta Larrartek ez zuten, soil-soilik, umeei irakurtzen, eskribitzen, kontatzen eta dotrina erakusten jardun nahi: hortik gora ere jo nahi zuten, mutilak unibertsitaterako bidean jarritz. Manuel Larrartek musika eta irakurketa emango zuen, Cayetanok geografia eta matematika, eta Agustinek gaztelaniazko eta latinezko gramatika batetik, eta dotrina bestetik. Goizeko zazpietatik hasi eta arratsaldeko zazpiak arte, tartean bi ordu hartuz gosaltzeko, bazkaritarako eta atsedenerako, gauza askotxo erakusten zen nonbait ikastetxe berrian. Gauza bat eskas, zenbaiten esanean: dotrinari ez omen zen aste barruan erakusten; larunbat arratsalderako uzten omen zuen hori Agustinek (Madariaga, 2005: 317).

(51) Ikus Manterola (1880: 39).

(52) Ikastetxearen izaera pribatua ere ongi ezkontzen zen Frantzian, Iraultzaren ondoren, eskola-mundurako emandako orientabideekin.

(53) Barnetegi moduan funtzionatzen zuen, besteak beste, ikastetxeak. Lekuz aldatu behar izan zuten etxea, handik gutxira, hazkondeagatik itxuraz (Madariaga, 2005).

(54) Iztuetari egindako eskutitzean, honela dio Iturriagak: «Orain dala saspi urte humecheoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaztia iracurtcen eracustearquin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea. Nere paperaren artean beardet izan *abece* bat eusqueras eta erderas iracurtcen eracusteco eguin nuena» Ikus idazlan honen I. Eranskina.

ezer asko ikasten. Hori ikusten zuen berak bere eskolan, behin eta berriro. Egoera hori hobetu nahirik ikasbide berria eratu nahi izan zuen, eskola-umeek ikasi beharrekoa (gaztelania eta beste hainbat ikasgai) errazago ikas zezaten. Ikasbide berri horretarako ikasmaterial xumeren bat ere prestatzen hasia izan behar zuen, bere eskolan (55).

1820an, Madrilen gobernu-moldea aldatu eta liberalek agintea eskuratu zuten. Eskola-sistema berri nahian hasi ziren Probintziako agintari berriak. Eskola kontuan eredugarri zelakoan, Iturriagarekin akordatu ziren 1821ean eta beregana jo zuten. Eskola kontuotarako aholkulari hartu zuten berehala. Gehiago ere bai: Gipuzkoa osorako ikasmaterial egokiak presta zitzaizkien (56). Agustinek ontzat eman zuen eskea, 1821eko urte-amaieran (57). Handik berehala, bere apaiz- eta irakasle-lanak alde batera utzi gabe, Aldundi liberalaren enkar-guz ikasmaterial elebidun egokiak sortzen hasi zen buru-belarri.

Ez zuen luze iraun, ordea, kontuak. 1823an erori egin zen aginte liberal- konstituzionala, burundara bizian, eta gauzak asko itsustu ziren Iturriagaren- tzat. Bai beretzat eta bai bere eskolarentzat. Hasteko, ikastetxea itxi edo itxiarazi egin zen kolpean. Bestetik, susmagarrien zerrendara pasa zen Agus- tin (58). Liberala edo liberal kutsukoa zela-eta, Hernaniko bere apaiz-postutik apartatua izan zen. Zestoako herrira bidali zuen eliz aginteak (59), eta han egon zen hainbat hilabetez (60). Hurrengo urtean Hernanira itzultzeko baime- na lortu zuen, eta herrira etorri zen berehala (61). Istiluak ez zitzaizkion, ordea,

---

(55) «Nere paperaren artean beardet izan *abece* bat eusqueras eta erderas iracurtcen eracusc- teco eguin nuena. Egunen batean biralduco diot uste det erraslitequean gustia errastua daducada- la humetazuneco lanbide andi samintasunez bete, negareraguin garri au. Ala bada, iduritzen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutzi iracurtcen, erderascoetan asi baño leen. Erraslitzaque liburucho bat eguiten onetaraco gausac chit ones betea. Icacolicolustequ gasc- teac, cergatic isquidatuco litustequan, eta argatic beragan iracurricco liteque gogoc». Ikus VI. eranskineko 2. dokumentua.

(56) Kontu hauei buruz, ikus idazlan honen II. Eranskina.

(57) Hori bakarrik ez: 1820-23an diputatu ordezkoko aukeratua izan zen. «Diputado a Cortes suplente», Lasalaren esanean (1884: 17).

(58) Ez zen Iturriaga bakarra izan, gauetik goizera gainbehera etorritakoa: liberal-aldian agintariekin ongi konpondutako hainbat irakasle eta apaizek arazo larriak izan zituen, Agustinek bezala, bere lanean aurrera jarraitu ahal izateko. Horietarikoa izan zen Iturriaga. Gipuzkoako apaiz eta irakasle liberal edo liberal-kutsukoek kontua ez dago, dakidanez, era monografikoan aztertua. Azterketa horren faltan ikus De Benito Pascual (1994) irakasleen kasurako, eta Tellechea Idigoras (1984) zein Madariaga (2005) apaizen kasurako. Zaldibiko adibide konkreturako ikus Zalbide eta Muñoa (2006). Orain arte aztertu denetik badirudi, gutxiengoa izanik ere, kopuru ohargarria osa- tzen zutela Gipuzkoan (ez Bizkaian) apaiz liberalek (ondotxoz kopuru txikiagoa fraideek). Apaiz liberalen multzo nagusiak Donostialdean zeuden batetik (Donostian, Hernanin, Pasaian, eta hortik Hondarribiraino), Bergaran bestetik eta Goierriin azkenik (Segura-Zerain-Mutiloa inguruan, Ordizian, Zaldibian).

(59) 1823-V-1: Hernanitik erauzia. Iruñeko *Provisoreak* Zestoara desterratu zuen Iturriaga. (Goñi, 1991: 366).

(60) Ikus idazlan honen III. eranskina.

(61) Ikus idazlan honen III. eranskina.

hori eta horrenbestez amaitu. Herrira itzuli eta handik gutxira bere kontrako epaiketa hasi zen (62).

Saiatu zen Iturriaga bere burua zuritzen. Kontu bat baino gehiago bere onera ekartzea ere lortu zuen. Ez erabat, ordea. 1824ko sententziak, izan ere, zera erabaki zuen: errege-indultuaren barruan gelditzen zela Iturriaga eta, beraz, 206 errealeko kostak ordainduta libre gelditzen zela eta bere apaiz-lanean jarrai zezakeela Hernanin. Baina debekatua zuela, handik aurrera, irakasle-lanean jardutea. Hori izan zuen Agustinek bere biziko kolperik larriena: 1823tik aurrera ez zuen Iturriagak irakasletzan jarraitu ahal izan (63). Bere anaia Cayetano saiatu zen beren ikastetxea izandakoa berriro martxan jartzen, Agustin gabe, baina alferrik. Ez zen horrela ere baimenik lortu, Hernanin eta Hernanitik kanpora hain entzute handia izandako ikastetxeari jarraipenik emateko (64).

### c) 1823-1833: ikastetxea itxi eta Karlistada arteko garaia

Tribunaleko kontuak pasa ondoren, bide berriari heldu behar izan zion Agustinek. Eskola emateari utzi egin behar izan zion, esan bezala (65). Hezkuntza-gaiekin kezkatu jarraitu zuen ordea (66). Horiekin bakarrik ez: euskararen gizarte-egoerarekin, batez ere bere etorkizunarekin, gero eta kezkatuago agertu zen handik aurrera. Loturik ikusi zituen berak, une batetik aurrera, eskola-molde egokia eta euskararen bizia.

Bere burua euskaraz janzen hasi zen. Erraz eta jator hitz egiten zuen Agustinek, itxura denez, baina ez zen euskaraz idazteko gai. Lan handia zeukan horretan egin beharra, eta berrogeita hamar urte inguru bazuen ordu-rako. Ez zen adinik egokiena, euskaraz alfabetatzen hasteko. Horretan hasi zen

---

(62) Gorriak entzun behar izan zituen bertan: aurreko agintari nagusien lagun min eta lankide izana zela; hain lagun min non, hauetakoren bat Hernanira etorri gero, ez omen zen Agustinen etxera hurbildu eta bisita egin gabe gelditzen; Gipuzkoako jefe politikoari berak markatzen omen zion bidea: bera omen zen gidari, eta agintaria (berak hala nahita, halere) Agustinen egitasmoen betearazle; Hernaniko gazteak bide okerrera eraman zituela, Voltaire-ren aldeko zela, lehen ere zerbaitegatik bidali zuela obispoak herritik kanpora, eta abar.

(63) Ikus idazlan honen III. eranskina.

(64) Ikus idazlan honen III. eranskina.

(65) Eskola-ardurarik gabe gelditu zelarik, eta denbora libre gehiago zuenez, baratzea lantzeri ekin izango. Baratze bat errentan hartu zuen, eta han sartzen bide zituen ordu libreak (Lasa, 1978: 131). Horretan ere, ordea, eskola-gaiak gogoan zituen nonbait. Bere *Dialogo*-jolasetan eta *Fabula*-ipuinetan nekazaritzaz, arbolazaintzaz eta abelzaintzaz ageri dituen zehaztasun askorekin loturik dago baratzeazaintza hori, J. I. Lasaren ustean (1978: 131).

(66) Garbi ikusten da kezka hori Iztuetari egindako eskutitzetan. Uste izatekoa da 1821ean jaso zuen enkargua, Gipuzkoako eskoletarako testu-liburu ofiziala prestatzekoa, ez zuela erabat bazterturik izango. Ez dago daturik, ordea, 1824tik 1830era bitartean gai hori espresuki lantzen jarraitu zuela esateko. Presarik ere ez zuen kontuak, jakina. Agintari berriak apenas horren eskan zebilzkion.

ordea, eta ez probetxurik gabe. Eskutitzak euskaraz, edota erdi erdaraz eta erdi euskaraz, idazten hasi zen Iztuetari. Konturatzen zen dorpe zebilela idatzizko jardun horretan, baina bazuen itxaropena bere burua ondo alfabetatzeko. Iztuetari zera esaten zion, eskutitz batean: «Jaincoac naico du sartze (zahartze?) luce neque eta quezca gabeco bat berorri eman, eta neri bitarteco osasuna berorrequin batean dembora igaro dezadan zurdapillatzen cien (?) guztiz autzez (hautsez) eta sisas (sitsaz) beteric arquitzen degun gure jaiotzaco izcuntza. *Asi naiz pisca bat au ezagutzen eta uste det dembora guchiren barrenen escribatuco diodala neque aundi gabe.*» Denbora gutxian neke handirik gabe euskaraz eskribatzen jakitea espero zuen Iturriagak. Baikorregi jokatu zuen uste horretan (67). Iztuetaren eskua behar izan zuen gero ere, euskaraz idatzitakoa behar bezala orraztu eta dotoretzeko (68).

Meza eman eta baratzea zaintzea ez zuen aski, itxuraz. Jauntxo-jende buru-jantziekin eta diruz edo aginpidez zezakeen jendearekin bilerak egiten segitu zuen, horrezaz gainera, Hernanin eta Donostian. Ez dirudi ordea, epaiketaren ondorengo lehen urte horietan bederen, goi-mailako gizarte-bizitzan bereziki nabarmendu zenik. Iztuetarekin, berriz, gero eta harreman estuagoa izan zuen. Badirudi Karlistada aurreko urtealdi horretan euskaltzaletu zela, gogor euskaltzaletu ere, Iturriaga (69). Euskararen etorkizunaz kezkatuak zegoen: burua astintzen saiatzen zen, hizkuntza ahula indarberritzeko biderik egokiena zein izan zitekeen antzemateko.

Une batez, 1830ean, deia jaso zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietatik. Zehatzago esanik, Batzar Nagusiek azken uztailean eratu berria zuten Sustapen-batzordetik. Euskara gainbehera zetorrela, zerbait egin beharra zegoela ikusten zutela Batzar Nagusietan, eta euskara indarberritzeko plan bat egitea

---

(67) Hala ere idazmen-maila on baten jabe egin zen, bere inguruko begietan: gizarte-ikuspegitik hori da balio duena, inola ere ahaztu ezin dena. Iztuetaren aholku-gidaritza behar izan arren badakigu bere garaiko gipuzkoar alfabetatuen (gaztelaniaz alfabetatuen) batez besteko mailatik gora, aski gora iritsi zela Iturriaga euskarazko idazmen kontuan. Hori dela-eta, leku askotatik etortzen zitzaizkion laguntza eske. Herrietako apaizak, besteak beste, maiz etortzen zitzaizkion beren sermoi-lana hobetzeko-edo argitasun bila (Lasala, 1884: 19).

(68) Hori bakarrik ez. Jakin badakigu bere ikasliburuetako zenbait zati erdaraz prestatzen zituela Iturriagak, eta Iztuetak euskaratzen zizkiola. Ikusteko dago, Iturriagarenak direla esaten diren liburu horietan zer den Iturriagak berak euskaraz idatzi eta Iztuetak orraztua, eta zer berak erdaraz idatzi eta Iztuetak euskaraz jarria. Besterik da *Fabula*-ipuien liburua. Bertsoak izanik oinarri, posibleago da jatorrizkoak Iturriagarenak berarenak izatea. Orduan ere badakigu, ordea, Arrangoitzeko konde Bernardok eman ziola hainbat bertsoari azken ukitua, Larraldeko jauregian. Estilo literariozko ukitua bakarrik izan zen tartean, edo orrazketa osoa, ez dakigu. Litekeena da azken orrazketa-lana Iztuetak egin izana hiru liburuetan, ez lehenengo bietan bakarrik. Lehenengo bietan ez dago duda handirik. Ikus, batez ere, 1831ko eskutitzak, idazlan honen VI. eranskinean emanak.

(69) Motiborik ez da falta, Iztuetak akuilu-lana behintzat egin zuela uste izateko. Ikus, esate baterako, Iturriagaren aitortpena, Iztuetari 1831ko urtarrilaren leian eginekako eskutitzetik jaso (zehaztasun gehiagorako, ikus idazlan honen VI. eranskina): «Nere adizquide mamia: ona ni berorren deseori conforme ocupatua, gure eusquera escuetatic joan ez daguigon, nere buruan bideac billatcen».

erabaki zela. Plan hori idatzi eta aurkeztea eskatzen zitzaiola berari, Agustín Iturriagari (70). Ez zaio edonori horrelako eskaintza etortzen noiznahi. Are gutxiago konstituziozaleen lagun eta lankide izateagatik herritik desterratua eta irakasle-lanean jarduteko betiko indargabetua izandako bati. Aurreragoko puntu batean ikusiko ditugu Batzar Nagusien enkarguzko lanak, xeheago. Esan dezagun baiezkoa eman zuela Agustinek eta, Izuetari garai horretan egindako idazki ugarien argitan, Batzar Nagusien enkargu horri erantzun nahirik joan zitzaizkiola Iturriagari bizpahiru urte. Izuetarekin eskuz esku jardun zuen horretan. Horretantxe ari zen 1833an, Lehen Karlistada lehertu zenean. Han bukatu ziren, aldi baterako, Herri-aginteen enkarguak eta enkargu-ondoak.

#### *d) 1833-39: Karlistada*

Gerra luzea eta gogorra izan zen Lehenengo Karlistada, 1833an hasi eta (gure artean) 1839an, Bergarako Besarkadaz, amaitu zena (71). Istilu haien artean ez zuten Agustinek, bere anaiek eta beste zenbaitek beren burua batere seguru ikusten. Hori dela-eta herritik alde egin zuten Agustín Iturriagak, anaia Cayetanok eta zenbait lankide zaharrek, 1834an: Donostiara joan ziren lehenik eta Agustinek Iparraldera jo zuen hurrengo urtean (72). Han egon zen bost bat urtez, harik eta 1840an Hernanira itzuli zen arte.

Iparraldean izan zen artean, saio bat baino gehiago egin zen gerra lazgarri hari amaiera «adostu» bat bilatzeko. Muñagorri eskribauaren gidaritzaz, eta Madrilgo zein Londresko gobernuen babesez, «Paz y Fueros» mugimendua sortu zen. Iritzi deigarriak agertu zituen Muñagorrik: bere esanean, dinastia kontuak alde batera utzi eta geure burua zaindu behar genuen euskaldunok; beste interesen gainetik zeuden euskaldunon interesak; horretarako, berriz,

---

(70) Eskaintza horren berri ematen duen dokumenturik edo zehar-idazkirik ez da gorde: nik, behintzat, ez dut halakorik eskuartean izan. Gainerako dokumentu ofizialak eta eskutitz pertsonalak eskuera ditugu, ordea. Aski esplizituak dira horiek eta, beraz, pentsatzekoa da gutxi gorabehera Iturriagari zer esango zitzaion: Sustapen-batzordeak Agustinen plan hori ontzat emanez gero datorren urtean, 1831n, Batzar Nagusietan aurkeztuko zela, eta ganoraz aztertuko. Hala egingo zela eta, herri-agintarien onespena jasoz gero, plan hori eramango zela aurrera Probintziako eskoletan.

(71) Bereziki gogorra izan zen gerra-garai hori Hernani aldean. Bando bien muga ez zegoen herritik batere urrutik, eta bando bien arteko agente-aldaketa ere izan zen tartean. Hasieran liberalen esku zegoen Hernani; karlistek hartu zuten gero.

(72) Aski dokumentatua dago hori ere. Horrela,

- a) 1835-III-4: «Lista nominal de las personas que han abandonado su domicilio con motivo de la presente guerra». Hernanin, peseteroak kenduta, sei omen dira. Tartean Agustín eta bere anaia Cayetano, 12 hilabete lehenago Donostiara ihes eginak. (AGG-GAO, CA 156,3);
- b) 1835eko abuztua: Gerra Diputazio Karlistaren ziurtagiri-espeditentea, Agustín Iturriagak lehenik Donostiara, eta gero Frantziara alde egin zuela adieraziz. Imposición y ejecución de multas a los enemigos del Rey, comprendidas en las listas nominales confeccionadas por los Ayuntamientos (GAO-AGG, CA 204,1).

bake on bat lortzea komeni zitzaigun lehenbailehen, karlista buruzagien interesak eta gureak ez omen zetozelako bat. Hala zioen Muñagorrik, besteak beste (73). Ideia horiek zabaltzen saiatu zen Berastegiko eskribaua, Iturriagarren aspaldiko laguna. Bere ideia horien zabalkundean, publizitate-lanean, proklamez gainera pisu handia izan zuten euskal kantuek eta bertso-pape-  
rek (74). Muñagorriren aldeko bertso batzuen egilea Agustín Iturriaga izan zela uste da (75).

Non bizi izan zen, Iparraldeko urte horietan? Badirudi hasieran, 1835etik aurrera, Hendaian bizi izan zela lehenik, Zuaznabartarrek bertan zuten etxean, (Ana Batistaren) kapilau moduan (76). Gero, Ana Batista hil ondoan eta Hernanira itzuli aurretik (77) Milafrangan bizi izan zen, Arrangoitzeko markesaren Larraldeko jauregian (Lasa, 1968; Alberdi, 1990: 4). Ana Batistaren iloba zen Arrangoitzeko Bernat, Iturriagaren hitzetan esanik «Iruburuko alkate, Baionako Batzarre andian esertzen dan Bernardo jauna» (78). Larraldeko jauregi horretan ondu zituen Agustinek, azken ukitua behintzat hor eman zien Bernaten beraren laguntzaz, bere *Fabula*-ipuin famatuak.

#### e) 1840-51: azken urteak

Pozik hartu zuen Iturriagak, dakigun neurrian, gerra-amaieraren berria. Begi onez ikusten zuen Agustinek, Bergarako Besarkadak ustez berekin zekarren irtenbidea, Estatuaren goi-agintea eta euskal Probintzien burujabetza uztartzekoa (79). Ez dakigu Gipuzkoara, gerra amaitu ondoren, juxtu-juxtu

---

(73) Ikus, konkretuki, bere proklamaren zati hau: «¿Por qué combatís? ¿Por quien? ¿Paz y Fueros! Tal debe ser nuestro objeto. ¿Si ambiciosos desean el trono, allá se las hayan! La Navarra, las provincias vascongadas, unidas por tantos vínculos de amistad, de sangre, de costumbres, de libertades, son desde ahora independientes. Desde hoy no somos ya los esclavos de esos miserables acostumbrados a mandar como señores y a enriquecerse a expensas de los pobres. ¡A las armas! ¡Viva la independencia! ¡Paz y libertad! ¡Obediencia a las nuevas autoridades!»

(74) Garai horretan sortua izan liteke, Karmelo Etxegarairen esanean, bertso-papereen ohi-tura soziala: euskara ahozko planotik idatzizkora jende xehearen artean zabaldu zuen gertaera berria.

(75) Ikus Labayen (1976) eta Lasa (1978: 133). Horrek esan nahi luke, karlisten oinarri sozialean ere aparteko erakarmena eta itzala zuela Iturriagak. Bestela ez zuten Muñagorrik-eta bere izena jarriko. Batzuen eta besteen arteko zubigile moduan ageri da hor, itxura guztien araber, Hernaniko benefiziadua.

(76) Ikus aita Jose Inazio Lasa, 1968: 145-6.

(77) Mujikak zehatzago dio, 1839tik 1840ra arte Milafrangan izan zela Iturriaga, hiri hartan Arrangoitzeko markesek zuten *Chateau Larralde* etxean (Mujika, 1910: 7).

(78) J. I. Lasaren esanean ez ziren hain salbuespen huts iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunen, are euskaldun handikien, arteko ezkontzak (Lasa, 1968: 146).

(79) Saiatu ere saiatu zen, Besarkadaren urteroko oroitzu-ekitaldiari aparteko oihartzun instituzional eta jendartekoa ematen. Ikus Iztuetari 1840ko azaroan eginiko eskutitzean zer dioen: «Celebro (...) que haya tenido la satisfacción de disfrutar en el campo del abrazo los días gloriosos de que era Vd. tan digno. He apuntado la especie de que deben las Provincias preparar



noiz itzuli zen. Jakin badakigu 1840an Hernanin zela berriro (80). Etixeratu orduko lanean hasi zen. Orduan ere ez, ordea, herritar guztien gogo onez. Baten batek honela idatzia izan behar zion apezpikuari: «se ha presentado aqui ese hereje consumado, con el descaro que acostumbran los herejes» (Arozena 1952 in Altuna, 1987: 24). Urteetako odisea zurrunbilotsua zeraman gainean, eta ibilbide horrek faktura pasatzen zion. Herentzia horrekin kontatu beharko zuen, aurrerantzean ere.

Eliz lanak egiteaz aparte bere ikasliburuak argitaratzen saiatu zen Iturriaga, herrira itzuli bezain azkar. Hamar bat urte lehenago, Batzar Nagusien enkarguz, prestatu zituen ikasliburuak argitaratzeari ekin zion buru-belarri (81). Ez zen lan eroso. Batetik, baimen ofiziala behar zen horretarako, eta hori ez zen batere lan erraza (82). Bestetik, baimena izanik ere liburuak nork argitaratua behar zen. Hartarako astirik zukeen eta abentura horretan sartzeko prest zegokeen inprimategia behar zen. Jakin badakigu, liburuak Donostiako Baroja etxean argitaratzen saiatu zela Agustin, baina hirutik bat bakarrik lortu zuen horrela argitaratzea: *Fabula*-ipuinin liburua, euskal letretan fama eta oihartzun zabala eskainiko ziona. Beste biak, bai *Arte de aprender la lengua castellana* eta bai *Dialogo*-jolasak, bere kontura argitaratu behar izan zituen (83). Ideia ez zitzaion hain gaizki atera. Eskoletarako bi liburuxko, behintzat, lortu zuen Hernanin bere kontura argitaratzea: 1841ean lehena, *Artea*; hurrengo urtean bigarrena, *Dialogo*-jolasak. Horrezaz gainera, bere *Fabula*-ipuinak argitaratu zituzkion Donostiako Baroja etxeak 1842an. Urteetako lana horra, etxera itzuli eta berehalako batean, argitara emana azkenik. Bazuen, beraz, zertaz poztu.

*Baina*-rik ere ez zitzaion falta izan, ordea. Hasteko, berak buruan zuen material-multzo osoaren zati bat, ez multzo osoa, argitaratu zen 1841ean eta 1842an. Aldiz 1830-31ko bere planean badakigu bi liburuxka horiezaz gainera besterik zuela buruan: «Seguirá a los dos libritos susodichos un compendio

---

premios para los mejores bailarines, jugadores de pelota, tiradores al blanco, coplaris e improvisadores, etc., etc, para los años sucesivos, a manera de los antiguos que establecieron los juegos olímpicos y otros. No ha disgustado la idea y seria el mejor medio para llamar la gente y perpetuar la memoria del Convenio.» Ikus VI. eranskina, 20. dokumentua.

(80) 1841era arte Iparraldean (Milafrangako Larralden) jarraitu zuela esan izan da inoiz, baina ez da egia. ikus Iztuetari 1840ko abuztuaren 7an Hernanitik egindako eskutitza, in VI. eranskina, 18. dokumentua. Are gehiago dio Lasak (1968: 145): «hace su aparición en Hernani el día 16 de junio de 1840». Aurretik Donostian egona zen ez dakigu.

(81) Batetik, gerra aurretik bukatirik-edo utzi zituen *Kartilla-arte*a eta *Dialogo-jolas*en liburuxka. Horrezaz gainera, azken orduan hasitako edo geroko utzitako beste lanak: gramatika, hiztegia eta abar. Honela dio 1840ko azaroaren 30ean: «Yo tengo el mío (hiztegiak ari da) en limpio en la letra E, dedicándole los ratos que mis ocupaciones me permiten.».

(82) Kontu horretaz ikus, besteak beste, Zalbide eta Muñoz, 2006.

(83) Horra nola: «No habiendo podido conseguir que Baroja, ocupado en la obra de la Revolución francesa, se dedicase por mucho tiempo a la impresión de mis libritos para las escuelas de primeras letras, me he resuelto a hacer aquí mismo una pequeña prensa y a divertirme yo mismo en su publicación, desengañado de todo lo que depende de voluntad ajena. No sé cómo saldrá mi idea.» Ikus Iztuetari 1840an eginikako eskutitza, in VI. eranskina, 20. dokumentua.

de gramática basco-castellana (...) y al fin del arte se pondrán la tabla pitagórica y las cuatro reglas de aritmética en ambas lenguas (84). Hiztegia ere argitaratzeko asmoa zuen: bai eskoletarako eta bai, aurrerago ikusiko denez, apaiz-jendearentzat, sermoi hobeak idatzi eta pulpitutik txukunago, jatorrago eta dotoreago hitz egin ahal izateko. Horiek ez zuen argitaratzerik izan, antza denez (85).

Ez zen hori izan, ordea, ustekabekorik larriena. Liburuen kopurua murrizteaz gainera, enfoke-aldaketa ohargarria izan zuten bere bi material horiek. Iturriagaren langintza osoak helburu bi zituen: lehenik euskara indarberritzea, neska-mutilak beren ama-hizkuntzan alfabetatuz eta garaiko jakituria oinarrizkoaz euskaraz hornituz. Bestetik, umeak gaztelania errazago eta probetxu hobez eskuratzeko bidean jartzea (86). Hori zen Iturriagaren 1830-31ko asmo bikoitza. 1841-42an, berriz, lehen asmo hori gabe argitara ziren Hernaniko ikasliburu biak. Euskara indarberritzeko asmoz sortuak ziren horiek, 1830etik 32ra artean; eta orain, lanak argitara ematerakoan, isilpean utzi zen erabat euskara indarberritzeko asmo hori.

Badirudi, azkenik, hirugarren ustekabea ere izan zuela Agustinek: lehenengo bi liburu horien salmenta uste baino okerrago atera zitzaion itxuraz (87). 1844an, Azpeitian egindako Batzar Nagusietan, bere bi liburuen launa ale aurkeztu zituen Iturriagak, Herri-aginteen babes eske. Liburu horiek gaztelania errazago ikasteko helburuarekin idatzi zituela zioen. Diputazioak, lanak aztertu ondoren, Gipuzkoako herriei liburu horiek gomendatzea erabaki zuen (AGG-GAO: JD AJI 115). Foru Aldundia egin zen liburuen (guztien edo mordo on baten) kargu. Bera arduratu zen Probintziako herri guztietara liburu bakoitzetik ale bana bidaltzeaz, udal bakoitzak herriko maisu-maistren esku jar zituan materialok, eskolan erabiltzeko (88).

(84) Ikus J. I. Lasa, 1968: 157.

(85) Ez zituen, behintzat, berariaz eta aparte argitara eman. Badakigu, jakin, *Fabula*-ipuinien bukaeran hiztegitxo bat erantsi zuela. Hori ote zen begiz jotako eskola-hiztegia? Ez dirudi.

(86) «Lehenik» diogunean ezin da, inola ere, lehentasun argiaz hitz egin. Bata eta bestea azpimarratzen zituen berak, antzeko enfasiak.

(87) Kontuak horrela izatera, diru aldetik estu ibilia izango zen Agustín bera, non eta dirua lagunen batek aurreratu ez zion: Zuaznabartarrek?

(88) Ikus Diputazioaren 1845-II-13ko zirkularra, Gipuzkoako alkateei zuzendua, Iturriagaren bi ikasliburuak bidaltzen dizkietela eta herriko lehen hezkuntzako maisuari entregatzeko esanaz. «la Diputacion ha considerado útiles para la enseñanza pública los dos libritos que el Presbitero D. Agustin Pascual de Iturriaga ha dado á luz con los títulos de Dialogos Basco-Castellanos, y Arte de aprender á hablar la lengua Castellana. Por cuya razon le remite adjuntos dos egemplares, para que se sirva entregar al maestro de primeras letras de esa villa con recomendacion.» Ez zen lehenengo aldia Gipuzkoako Herri-aginteei erabaki hori hartzen zutena, eta ez zen azkena gertatu ere. Larramendiren *Imposible Vencidoaz* geroztik, bere *Hiztegi* handia barne delarik, behin baino gehiagotan jardun zuten herri-agintariek lan horretan. Laguntza-bide hori bereziki zabala izan zen 1828tik 1858ra artean, hogeita hamar bat urtez alegia. Iztueta, Astigarraga, Iturriaga, Juan Mateo Zabala, Lardizabal eta Agirre Asteasukoa sartu beharko lirateke gutxienez, kasuan kasuko laguntza-molde diferenteaz halere, Herri-aginteen laguntza jasotakoan zerranda horretan.

Arazoak arazo, aspaldiko bere ametsik goxoena, euskaldun neska-mutilentzat euskaraz eta erdaraz irakurtzen ikasteko bidea, hezurmamiturik ikusi zuen Iturriagak. Partez bakarrik, ordea, eta iragaitzaz bezala. Lekutan gelditzen zen hasierako asmo nagusi eta esplizitua, euskarari bizirik eutsi eta, ahal zelarik, indarberritzekoa. Gaztelania hobeto ikasteko metodoa: kalera begira, hori izan zen bere langintza osoaren azken emaitza publikoa. Administrazioaren akta ofizialetan, behintzat, hala gelditu zen gorderik. Zuri-gorritzko ametsetik eguneroko errealtate nabarrera zenbateko aldea dagoen frogatzeko aukera ederra izan zuen, horretan ere, Hernaniko benefiziaduak (89).

Suerte hobeia izan zuen, nolana ere, bere hirugarren liburuarekin, *Fabula*-ipuei buruzkoarekin. Ez dago dudarik hirugarren hori gertatu zela, luzarora, Agustinen produkzio osoan erakargarriena. Bere sarrerako bertsoa, *euscal errico gasteriari* eskainitakoa, gertatu zen orobat bere filosofia soziokulturalaren azalpenik adierazgarriena. Euskarari bizirik eusteko, preserbazio-bide hutsa ez zen aski bere ustean. Espezialistek *language spread* (90) deitu ohi duten prozeduraz, hizkuntza apala funtzio berri eta jasoetara hedatuz indartu behar zen euskara. Ordura arte erdara jaun eta jabe izandako goi-mailako esparru batzuetara sarbidea eskaini behar zitzaion baserritarren euskara jator baina mugatuari. Kultura europarra euskaraz eskuratzeko apustua egiten zuen Agustinek, bere *Fabula*-ipuekin eskaintzazko bertsoan:

Nere euscal errico / Gazteri ederra,  
 Ez det uste derala / Eguin lan alferra,  
 Ipuiac ifintzean / Gure zorcicoan.  
 Cantateco, nai bada, / Arturic gogoan.  
 Badirade latíñez, / Badira erderaz;  
 Ez alditugu bear / Guc ere euscaraz?

Ez zen horretara mugatu, bestalde, Iturriagaren 1840tik 1851ra arteko jarduna. Donostiako lagunarte jasoan parte hartzen segitzeaz gainera, euskalari-lanetan ere aurrera egin zuen, zezakeena emanez. Juan Mateo Zabalaren aditz-liburuaren onspen-azterketan jardun zuen batetik, Iztuetaekin batean, garaiko dokumentazioak argi aditzera ematen duenez (91). Eta, hori bezain

(89) Herri-agintearen babesaz ere, ez dirudi Iturriagaren liburuak Gipuzkoako eskoletan harrera handi-handirik izan zutenik. Eskoletarako berrargitalpenik ez dugu, behintzat, ezagutzen. Astigarragaren *Diccionario Manuala*, aldiz, barra-barra berrargitaratzen eta saltzen (inoiz, Herri-agintetik doan banatu) zen. Gutxienez 27 berrargitalpen izan zituen Astigarragaren liburuak, ehun urteko tarte luzean (Intxausti, 2007). Zergatik izan zuen batak hain arrakasta komertzial handia, eta bestea zergatik gelditu zen aurrera atera ezinik? Gaurkoz ez dago erantzun argirik, galdera horrentzat.

(90) Bi eratara egin ohi da *language spread edo hizkuntza-hedapena*: a) hiztun gehiago bereganatuz hizkuntza horrek; b) ohiko hiztunek (sarrrienik, hiztun batzuek) ordura arte erabili gabeko funtzio-esparruetan erabiliz beren hizkuntza hori. Definizio xume baina argi hau Robert A. Cooper-i zor zaio (Cooper arg.:1982).

(91) Labur bilduz esan dezagun, aita Luis Villasanterekin batean, Gipuzkoako Probintziaren kontura argitaratu zela Juan Mateo Zabalaren (1777-1840) *El Verbo Regular Vascongado del*

garrantzitsu dena, euskarari jendaurreko ekimenetan ordura arte izan gabeko lekua eskaintzen saiatu zen eskolatik kanpora ere. Horrela etorri zen San Inazioaren martxa, ordura arte gaztelaniaz kantatu ohi zena, euskaraz jartzea eta errotulazio publikoan euskarari presentzia argia ematen hastea. Hernaniko hilerriaren sarreran dagoen goiburua ez zen, oker ez banago, bere saio horren lekuko bakar gertatu.

1851ko martxoaren 30ean hil zen Agustin Iturriaga, Hernanin, 73 urterekin. Hil baino sei urte lehenago egina zuen testamentua, burua argi zuelarik artean. Erabateko kristau katoliko aitortu zuen bere burua (92).

## 2. ITURRIAGA ETA GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK (1830-33)

*Iturriagaren 1830eko planaz* hitz egin ohi da normalean, urte horretako Batzar Nagusietan, Arrasaten, eman zitzaizolako ideiarri hasiera. Prozesu luzea izan zen ordea, ez egun bakarreko edo urtealdi bakarreko lana, egun hartan martxan jarritakoa. Hiru urte iraun zuen kontuak, dokumentazio ofizialaren argitan: 1830etik 1833ra (hots, gerra hasi arte). Oso giro nahasia gertatu zen parean: gertaera soziopolitiko bortitzek gogor erasan zioten bere ibilerari, bai eta azken emaitzari ere. Beste kontu horien berri ere eman beharko da beraz, gain-gainetik bada ere, *Iturriagaren 1830eko planaz* hitz egiterakoan.

### Abiaturuak

1819an huts egindako (93) eta 1829an berriro planteaturiko asmoa berpiztea lortu zen 1830ean, Arrasaten egindako Batzar Nagusietan: XVIII. mendeko *Real Sociedad Bascongada* famatua berpiztea. Izena aldatuz, halere, berpiztu nahi zen *Bascongada* hura. Izen berria honako hau izango zuen: *Sociedad de fomento de artes de Guipúzcoa*. Egitasmo zabal honekin sortu nahi zen Elkarte hori: «fomentar la agricultura, artes y comercio del distrito de la Provincia, estendiéndolas á cuanto creyese susceptible de concurrir á la mayor prosperidad del país».

Hori zela-eta, beste elkarte bat ere sortzea komeniko zela esan zuen, Arrasateko batzarraldi horretan, Zumaiako Joakin Frantzisko Barroeta Aldamarrek. Euskara indarberritzeko Elkarte ofizial bat. Asmoa ez omen zen berea:

---

*dialecto vizcaíno*, 1848an (Villasante, 1979: 242). Datu xeheagoak nahi dituenak jo beza Iturriagak Iztuetari 1840ko azaroaren 30ean eta 1841eko otsailaren 28an egindako eskutitzetara (idazlan honen VI. eranskinean datoz biak).

(92) Jose Inazio Lasaren eta gainerako biografo gehienek ustean, oso nekez izan zitekeen halako gizona Voltaire-ren jarraitzaile sutsu (Lasa, 1978: 132).

(93) Hobeto esanik, Batzar Nagusiek onartu bai baina 1820ko gertakariengatik aurrera eraman ezineko ekimena izan zen hura.

Juan Bautista Erro euskalari eta politikari erregezaleak, une horretan Erregeren «Consejo de Estado»koa zenak (94), bultzatu omen zuen horretara. Asmo jakina zuen elkarte honek, Barroeta-Aldamarren esanean: «una Sociedad que procure la conservación é ilustración de la lengua bascongada». Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Erroren euskaltzaletasuna kontuan izanik eta gaiaren garrantziaz jabeturik, ontzat eman zuten proposamen hori ere. Gauza bat esan zuten, halere: elkarte bi sortu ordez hobe zela dena batean egitea. Hobe zela Sustapen-elkarte bakarrak, *Sociedad de fomento de artes de Guipúzcoa* delakoak, enkargu biak jaso eta lan biak berak egitea (95). «Euskara bizirik gorde eta ilustratzeko neurriak» proposatzea eskatu zitzaion beraz, industria eta merkataritza kontuez gainera, 1830eko Batzar Nagusietan sortutako Sustapen-elkarte edo Sustapen-batzordeari (96).

### Erabakiaren garrantzia

Hau da lehenengo aldia, dakigularik, Gipuzkoako goi-agintariek euskararen aldeko hizkuntza-politika esplizitu eta orokorra egitea erabaki zutena. Hizkuntza-politikazko erabaki asko harturik ziren aurreko mendeetan, partzialak eta implizituak gehienetan (97). Oraingoan, ordea, euskararen *aldeko* politika egin nahi zen, batetik, eta politika *orokorra* bestetik: *euskara bizirik ateratzeko eta ilustratzeko neurriak* planteatzea eskatzen zitzaion Sustapen-batzordeari. Euskararen bizia arriskuan zegoela onartu zen, beraz, Gipuzkoako

---

(94) Jakin badakigu, bestalde, antzeko asmoak zerabiltzala buruan, Bizkaiko Batzar nagusietan aurkeztu eta aurrera ateratzeko intentzior, Abandoko Ulibarrik. Erroren miresle handia zela Ulibarri, hori ere gauza jakina da. Probintzia bietako egitasmoek lotura zuzenik ba ote zuten, eta baiezkotan zer-nolakoa, ezin liteke, gaurko informazioaren argitan, zehaztu. Ulibarriren *Gutun-liburuaren* irakurketa nekoso eta zehatzak sorpresa bat baino gehiago emango liguke ordea, seguruenik, guztioi.

(95) Nolatan hartu zen hain erabaki sendoa, aurrekari ezagunik gabea, Batzar Nagusien bilaldi bakarrean? Garaia oso zen berezia, eta horrek ekarriko zuen, seguruenik, beste erabaki handi eta eztabaidagarri batzuen artean hori ere sartu ahal izana. Deigarria da, besteak beste, asmoa nondik zetorren: Errogandik. Eta deigarria da, bereziki, proiektua idazteko enkargua nori eman zitzaion: Iturriagari. Horra hor erregetiar absolutista nabarmenaren asmoa, liberal bati enkargatua. Gutxi da zinez garai haietako eztabaida soziokulturez dakiguna, eta gure jakite falta horrek bakarrik esplika ditzake, seguruenik, itxurazko paradoxa horiek.

(96) Batzorde hori hasieran nork osatu zuen, hori ere ezaguna da: Joakin Frantzisko Barroeta Aldamar, Manuel Joakin de Igerabide, Jose Maria Zabala eta Francisco de Palacios izan ziren batzorde horren kide. Hots, euskara indarberritzeko proposamena egin zuen Barroeta Aldamarrek eta beste hiru kidek osatu zuten, hasieran, Sustapen-batzordea. Beste hiru horien artean zegoen, hortaz, Iturriagaren aspaldiko lagun eta foru-alduna, Jose Maria Zabala «conde de Villafuertes» handiki tolosarra. Villafuertes-ko konde hori Gipuzkoako jefe politiko izan zen 1820-23an. Berak esana izan behar zuen garai hartan, Iturriagaren burutik pentsatzen zuela. Liberal moderatuen multzora bideratua zegoen Zabala hori, eta badakigu Iturriaga biziki estimatzen zuela.

(97) Erabaki partzialak eta implizituak bai, baina ez horregatik eraginik gabeak. Bertako herri-ordetzarien erabakiz edo onespenez hartu izan ziren neurri horietariko zenbait, eta gogoz kontra edo goitik beherako ezarpen argiz beste hainbat.

Batzar Nagusietan. Euskararen gizarte-dimentsioa garrantzizko gai bihurturik agertu zen, lehenengo aldiz, Probintziako herri-agintearen organo gorenean. Garrantzizko gaia zen agintarientzat, posizio argia eskatzen zuena. Erabaki ere hala egin zen: euskara arriskuan zegoenez, eta bizirik eutsi nahi zitzaionez, hartarako neurri praktikoak hartu beharra zegoela erabaki zen. Erabakiak hartzeko, berriz, proposamen bat egin beharra zegoen eta Sustapen-batzordeari eman zitzaion horren enkargua. Ez, ezinbestean, euskara indarberritzeko plana berak idazteko, lana adituren bati enkargatu eta hurrengo urtean Batzar Nagusira ekartzeko baizik. Ez dago konstantziarik, halako plangintza-saiorik egin izanaz 1830a baino lehen. Ez dirudi, era berean, hain erabaki zabalik hartu zenik berriro XIX. mende osoan. Euskararen aldeko plangintza instituzionalean garrantzizkoa izandako une batez ari gara, beraz, hizketan.

Horrekin batera, beste zerbait ere eskatu zitzaion Sustapen-batzordeari: *euskara ilustratzeko neurriak* planteatu zitzala. Behar bezala argitu gabe dago gure artean, orduko Gipuzkoan euskara *ilustratzea* zer izan zitekeen (98). Nolanahi dela ere, erronka handia zen plangintza hori, bai proposamen konkretua egin behar zuen batzordearentzat eta bai, bereziki, proposamena onartuz gero neurri konkretuak aplikatu beharko zituzten Batzar Nagusientzat eta Foru Aldundiarentzat.

### **Sustapen-batzordea martxan jartzea**

Lau alor nagusi berezi zituen Sustapen-batzordeak, 1830ean bertan, bere lana aurrera eramateko: batetik Hazienda, bestetik Nekazaritza, hurrena Merkataritza eta Industria eta, azkenik, «Literatura». Literatura-atalean sartu zen, hain zuzen, Barroeta Aldamaren proposamenez onarturiko ekimena, euskara indarberritzeko planarena. Sustapen-batzordearen beraren hitzetan esanik, literaturako batzorde-atalaren egitekoa honako hau zen: «Disposiciones dirigidas a conservar nuestra lengua bascongada, nativa de estas Provincias» planteatzea.

### **Enkargua nork nori noiz**

Plana idatzi eta Batzar Nagusietan aurkezteko erabakia hartua zegoen, beraz. Orain, urtebeteko epean, bete egin behar zen erabaki hori. Adituren

---

(98) Hizkuntzak kanpoko eta bertako hainbaten ustean berekin zuen bajeza-estigma uxatzea izan zitekeen, batetik, ilustrazio-lan hori. Euskara, corpus-plangintza egoki batez, handiki-soinekoz janzteko prestatzea (terminologia teknikoan, *cultivation* eta *elaboration stage* direlakoan hurbileko eginkizuna) izan zitekeen beste asmo bat. Euskaltzaindiaren moduko aditu-elkarte bat sortzea bestea: jakin badakigu, Erroren eta Ulibarriren buruan bueltaka zebilela ideia hori. Euskarari eskolan sarbide zabala, ordura artekoa baino zabalagoa eta eragingarriagoa, ematea izan zitekeen beste neurria,...Baliteke, azkenik, euskara *ilustratzeko* asmoaren azpian helburu horiek guztiak eta beste zenbait gehiago egon izana.

bat behar zuen Sustapen-batzordeak, literatura-ataleko lana garaiz eta zuzen egiteko. Aditu gisa Agustin Iturriaga aukeratu zen (99). Baliteke enkargua lehendabizi Iztuetari eman izana, Villafuertes-ko kondeak edo dena delakoak, Iztuetak enkargua onartu ez eta, honek hala aholkaturik, enkargua azkenik Iturriagari pasa izana (100). Baliteke, orobat, eskaintza zuzenean Iturriagari egin izana. Kontua da berari enkargatu zitzaiola eta, eskutitz pertsonaletatik dakigunez, 1831ko urtarrilaren 1erako prestatua zuela bere oroitzatza-idazkiaren lehen zirriborroa. Badakigu hori baino gehiago ere: Zabalari erakutsia ziola eta honi «txit gustatu» zitzaiola. Badakigu, jakin, hortik aurrerakoetan ere lanean ari zela Iturriaga: bere txostenean esaten ziren ikasmaterialak prestatzen ari zen buru-belarri, Iztuetaren laguntzaz (101). Eskutitza 1831ko urtarrilaren 1ekoa baldin bada, eta hori ia segurutzat eman liteke Probintziaren artxibo ofizialetako beste dokumentuen daten argitan, enkargua 1830eko udan (uztailaren bigarren hamabostalditik aurrera) edo udazkenean egin zitzaion Iturriagari, eta honek 1830ean bertan prestatu zuen planaren lehen idazkuntza, eta Zabala batzordekideari bidali. Bere planaren kopia bat Iztuetari bidali zion 1831ko urtarrilaren 1ean, eskutitzez hari ere.

### Tramitazio-lana eta liburu-prestakuntza

Badakigu, 1831ko ekainean egindako deskargutik eta artxiboetan ondo gorderik agertu diren lau oroitzatza-idazkietatik, lanean gogor jardun zutela Batzorde-atal guztiek. Lanean eta ilusio handiz. Ekonomia aldetik oso egoera tristean zegoen Probintzia, burdingintza gainbehera bizian zetorren eta Donostiako eta Pasaiako merkataritza burua jaso ezinik zebilen. Horrezaz gainera aparteko larrialdia sortu zen 1830eko urri-azaroetan, txostena egiteko enkargua eman zen ia une berean: Frantziatik bertaraten hasiak ziren espainol erre-

(99) Ez da dokumenturik ezagutzen, argi dezakeenik nolatan erabaki zen enkargua berari ematea, eta ez enkargua nork eta noiz eman zion ere. Barroeta Aldamarrek berak emango zuen enkargua, agian, proposamena ere berea izan baitzen Batzar Nagusietan. Hori baino seguruago, ordea, Tolosako Zabala handikia, Villafuertes-ko kondea, izango zen enkargu-emaile. Gauza batetik diot «seguruago»: txostena, egindakoan, hari pasa zion Iturriagak. Enkargua eman duenari erantzun ohi zaio, normalean, enkargua egindakoan.

(100) Ez da hori asmakari hutsa. Bada urtarrilaren 1eko eskutitza (motiborik bada, eskutitz hori ia seguru 1831ko urtarrilaren 1ekoa dela uste izateko), Iturriagak Iztuetari honako hau esaten diona: «Nere adizquide mamia: *ona ni berorren deseori conforme ocupatua, gure eusquera es-cuetatic joan ez daguigun, nere buruan bideac billatcen*. Emen arquituco du Conde Villafuerteari bigaldu deran paperaren copia. Chit gustatuzao eta naico det berorren gogocoa ere izan dedin.» (Beltzekoa nirea).

(101) Iturriagak oso kontuan hartzen zituen Iztuetaren esanak, gero ikusiko denez, eta bere burua ez zuen nabarmendu nahi. Horra 1831ko urtarrilaren 1eko eskutitzean Iztuetari zer esaten dion: «Iracurri eta biurto(co) dit, iñori ecer esan gabe, ceren berorrec badaqui ez de(te)la maite landare oric, ez iñoren autan ibiltceare ez (..)itorcico(?) e(t)a ez oneraco.»

fuxiatuak, eta errefuxiatu haiei (102) aurre egiteko tertzioak eratu behar izan zituen Probintziak. Tropa-eratze horrek ohiz kanpoko gastu handiak ekarri zituen. Ekonomia eta industriako txostenak, horregatik besterik ez balitz ere, aparteko garrantzia zuen une hartan.

Bestalde, euskaltasunaren inguruko gaietan ere pizten ari zen giroa, eta «la cuestión bascongada» gorpuzten. Lasalaren esanean «una cuestión más dolorosa y sangrienta por sí misma, como si no fueran suficientes las que existían». Estutasuneko egoera horretan, euskara indarberritzeko txostenari ere garrantzi handia ematen zitzaion: oinarri egokiak gerta zitezkeen bata eta bestea, Gipuzkoako egoera sozioekonomikoa eta soziokulturala hobetzen has-teko. Txostenak ez ziren gogoeta teoriko huts moduan enkargatu, Gipuzkoako arazo sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalentzako konponbide gisa baizik. Ez zebiltzan Batzar Nagusiak teoria sakonen bila, bertatik bertara aplikatzen hasi ahal izateko neurrien galdezka baizik. Proposamen konkretuak eskatzen zitzaizkion Sustapen-batzordeari, problema konkretuei gerora gabe erantzun egokia eman ahal izateko.

Iturriagaren proposamenak, esana dugunez, eskola-elebitasuna izan zuen helburu. Ez nolana hiko elebitasuna, *full bilingualism* edo *elebitasun betea* baizik (103). Ordura arteko eskola-eredu elebiduna, Astigarragarena bereziki, bere osoan onartu zuen Iturriagak hainbat puntutan. Hori bakarrik ez: hura onartu eta harantzago jo zuen: eskolaren azken xedeak zeintzuk ziratekeen, eta begiz jotako gizartean euskara-erdarek izatekoa zuketean moldaera, ordura arte inork ez bezalako zorroztasunez planteatu zuen Iturriagak bere txosten-ean (104). Aurrerapen handia zen hori, eskolaren jarduna gizarte-giroan txertatu beharra baitze goen aurrera eraman nahi zen hizkuntza-politika orokorra eztabaida didaktiko antzuetan galduko ez bazen.

Formulazio teoriko eta planteamendu programatiko hori ez zen, ordea, aski. Helburu-finkapena eta inplementaziorako zehaztapena ez ziren aski, hizkuntza-plangintzazko proposamen hura benetako ekimen bihurtu ahal izateko. Baliabideak ere behar ziren horretarako. Plana aurrera aterako bazen, besteak beste, *elebitasun beterako* material sorta zabala prestatu beharra ze goen. Norbaitek prestatu behar zuen material sorta hori ere, bere oroitza-txostena proposamen hutsean geldituko ez bazen. Agustinek berak hala deli-beraturik, Iztuetaren akuiluz edo Zabalak espresuki eskaturik, materialak prestatzeari ekin zion Iturriagak, oroitza-idazkia entregatu eta berehala.

Badugu ikasmaterialen sortze-lan horren berri. Badakigu korrika eta pre-saka jardun zutela hurrengo hilabeteetan Iturriagak eta Iztuetak, material-

(102) 1823an Frantziara ihes egin beharrean gertatutako errefuxiatu frantsestu eta liberal askotxok, une batez, Espainiara itzultzea erabaki zuen.

(103) Termino horrekin esan nahi denaz ikus, batetik, aurrerago zehaztuko dena eta, beste-tik, jatorrizko definizio-azalpena in Fishman eta Lovas (1970/1979).

(104) Aurrerago azalduko da zertan.



sorkuntza horretan (105). Iturriagaren izenean joan baziren ere materialak, jakin badakigu Iztuetaren parte-hartzea ez zela hutsaren hurrengoa izan: Agustinek euskaraz prestatuturiko liburu-atalen hizkuntza-orrasketa egiten zuen Iztuetak, batetik. Beste zenbaitetan, berriz, Agustinek erdaraz prestatuturiko zati batzuen euskal itzulpena berak egiten zuen zuzenean (106). Liburuak, kartilla eta bi dialogo- edo jolas-liburutxo, prest izan nahi zituen Iturriagak 1831ko uztailerako, Batzar Nagusiak Donostian biltzen zirenerako (107).

### ***1831ko Batzar Nagusiak***

Donostian izatekoak ziren Batzar Nagusiak, uztailean. Aurretik, ekainaren 6an, Sustapen-batzordea bildu eta Iturriagak egindako lana aztertu zuen. Hernaniarrak (Iztuetaren laguntzaz) egindako lana ikusi eta ontzat eman zen. Eskabide konkretuarekin joan zen Sustapen-batzordea Donostiara, Batzar Nagusietara: «Pedimos a V. S. se sirva dictar en la materia las disposiciones que juzgue convenientes, para llenar los interesantes fines propuestos». Hots, plana onartu eta berehala aplikatzen hasteko neurriak hartzeko.

Donostiako Batzar Nagusietan ez zen giro izan, 1831ko uztailean. Ez Iturriagaren txostenagatik, Merkataritza eta Industria alorreko idazkiak astindu zituen hautsengatik baizik. Dirua falta zitzaien Herri-aginteei, bestalde, ezertan hasi ahal izateko. Aurreko urtean, urri-azaroetan, Frantziatik bueltan zetozen errefuxiatuen auzia sortu zenean tropak deitu eta eratu behar izan zituen Probitziak, bere kontura noski, eta gastu handiak ekarri zituen horrek (108). Diruen jentzioaz ere baziren zalantzak.

Giro horretan aztertu zen, beraz, Iturriagak idatzi eta Sustapen-batzordeak bere egindako proposamena. 1831-VII-12ko data daraman aktan zera esaten da:

---

(105) Badakigu eskutitz batetik, bere latin-ikasle izandakoa, une horretan Hernaniko lehen letretako maisu zena, berarekin ari zela lanean, kartilla prestatzen eta material berriak ikasleekin probatzen. Paperetan halakorik ageri ez bada ere espresuki, baliteke Agustinen anaia Cayetanok eta Manuel Larrarte organo-jole eta maisu-ohiak ere langintza horretan lagundu izana.

(106) Honetaz dudarik duenak irakur bitza idazlan honen VI. eranskineko eskutitzak, batez ere 5. dokumentutik hasi eta 15. enerainokoak.

(107) Ez zen posible izan: kartilla aurrez bukatu zuen eta ale bat Batzar Nagusira eraman ahal izan zen, baina dialogo-jolasen liburutxo ez. Lagin bat eman zen hortik, ez liburuxka osoa. Azaroan lanean ari zen Iturriaga, oraindik, Iztuetarekin. Badago motiborik 1832an ere horretan jarraituko zuela uste izateko. Une batetik aurrera, gainera, bestelako lana sartu zitzaion tartean, hori ere Sustapen-batzordearen enkarguz, itxuraz: euskara-erdara hiztegia.

(108) Hernanin eratu ziren Probitziako Tertzioak, eta Batzar Nagusiek bertako alkateari, Agustín Iturriagaren anaiari, pasa zioten gastu-ordaina (ikus diru-altxortegiaren argibideak, 104. or.; Urretxuko artxiboa). Ohartzekoa da, bide batez, Juan Ignazio Iztuetaren soldata ere han azaldua ageri dela: «Mil ochocientos reales de vellon pagados a Don Juan Ignacio de Iztueta, celador de la puerta de tierra de la ciudad de San Sebastian por su salario de medio año» (107. or.).

- a) euskara indarberritzeko plana Joakin Frantzisko Barroeta Aldamarrek eta beste hiru batzordekideek aurkeztu zutela (109). Batzar Nagusietako kideentzat deskargua eman zutela, eta azken hauek eskerrak eman zizkietela lau batzordekideei.
- b) Ez zen dudarik egiten, batzordekideak oso pertsona egokiak zirela, jakitez eta eskuartez, eta, beraz, haiek esandakoa kontuan hartzekoa zela: «Los señores que componen la Junta de fomento son de las principales ilustraciones del Pais, y sus primeros capitalistas.»
- c) Eskerrak ematen zitzaizkien, urtebetean egindako lanagatik: «Opinamos que V. S. debe manifestar su gratitud á los Caballeros que componen la Junta de fomento.»
- d) Aurrerabiderik, ordea, ez zen ematen. Probintzia ez zegoen, une horretan, erabaki sendorik hartzeko egoeran. Horra esplikazioa, Batzar Nagusien egun horretako aktan jaso: «Doloroso es que la penuria de fondos no permita á V. S. destinar algunos para cooperar á los mismos fines. Pero el déficit grande, que se observa en los presupuestos aun para cubrir las atenciones corrientes y perentorias, y los gravámenes harto crecidos, de que se quejan los pueblos de V. S., se oponen á sus bien decididos deseos en esta parte» (110); eta, azkenik,
- e) Esker onezko aitormena egin zitzaien txostengileei. Sustapen-batzordeak berak ez hainbat, baina aditu konkretuek bai buru-belarri, lan handia egina zuten hainbat txostenetan. Aditu horiei ere zerbait aitortu nahi izan zitzaien, eta Sustapen-batzordearen kide izendatu zituzten. Horra garaiko dokumentua «declarando su aprecio particular á los señores D. Domingo Iribe, D. Agustin de Iturriaga Presbíteros, D. Antonio Ramon y D. Miguel de Azcarate, que por sus esfuerzos han merecido el honroso título de Sócios de mérito. La Diputacion, examinando detenidamente los trabajos, que han presentado, podrá hacer lo necesario, á fin de que el pais reciba en cuanto se pueda el resultado de lo que tengan de útil, y practicable sus proyectos. (131. or.). Ezezko biribilik ez zuten jaso, ez Iturriagaren planak eta ez gainerakoek. Egoera hobetu arte ez zegoen, ordea, zer egirik.

Kontu horien berri eman zion handik gutxira Tolosako Zabala bazarkideak Iturriagari, egia esanez baina esperantzari leihoa itxi gabe. Batzar Nagusietan gauzak ez zirela nahi bezala atera, baina bazegoela aurrera egiterik. Iturriagak behar zuen dirua, liburuak inprimatu ahal izatekoa, ez zela berez hainbatekoa, eta nondik edo handik aterako zela. Horren berri eman zion Itu-

---

(109) Beste hirurak, gorago adierazitakoak dira: Manuel Joaquin Igerabide, Jose Maria Zabala eta Francisco Palacios.

(110) Diru-kontuen 1830eko estutasunak aurrerantzean hobetuko ziren esperantza agertu zuten horretan aditu zirenek, Alejandro Burgek eta Joaquin Antonio Olazregik.

riagak Iztuetari, oraingoan erdaraz, abuztuaren bian: «el Conde no estaba contento del descargo de la comisión y decreto de las Juntas en que parece se dice que la provincia no se halla con medios para proporcionárselos a la Junta de Fomento de la Industria del País. Me añadía que para nuestros libritos no se necesitarán muchos y que podrá proporcionárselos regularmente la Junta.» (ikus VI. eranskina, 13. dokumentua)

Ordurako erdi hitz egina zegoen Iturriaga Donostiako Baroja etxearekin, liburuak inprimatzeko. Liburuen zuzenketa-lana Iztuetaren esku jartzeko asmoa-edo zuen Agustinek. Baita zertxobait ordaintzeko ere. Iturriagak berak sosik kobratu gabe egin zuen lan guztia, eta halaxe jarraitzeko asmoa zuen (111).

### **1832ko Batzar Nagusiak**

Lanean jarraitu zuten Iturriagak eta Iztuetak, beren eskola-liburuekin. Zain zeuden, dirua noiz etorriko. Sustapen-batzordea ere bai. Denbora aurrera zihoan, ordea, eta diru-itxaropena ez zen hezurmamitzen.

Berariazko bilera egin zuen Sustapen-batzordeak 1832ko ekainaren 28an. Kexu gogorra egin zien Batzar Nagusiei: dirurik gabe alferrikakoa zela hain Sustapen-batzorde dotorea: «negándose los precisos medios para llenar los objetos indicados, la influencia de esta Comision en el pais es de ninguna consideracion». Jarraitu behar bazuten, emateko baliabideak. Hordagoa jo zuen Sustapen-batzordeak, bestela esanik (112).

Etorri zen Batzar Nagusiak egiteko eguna. Egundoko eskandaloa sortu zen bertan, Donostiarrek atera zuten txostenarekin: *Memoria justificativa de*

---

(111) Honela zioen Iturriagak Iztuetari, abuztuaren biko eskutitzean: «Baroja, que está desocupado, y Vd. habrán de trabajar y yo me alegraría muchísimo de que Vd. sacase alguna utilidad como lo merece. Nosotros (apaiz-jendeak alegia) que no necesitamos de estos recursos para mantenernos debemos trabajar para los que no los tienen.»

(112) Kexu-idazkiak honela dio: 1832-VI-28: Esposicion de la Junta de Fomento «Nos apresuramos á instalar esta Comision: celebró algunas sesiones: formó el reglamento para el regimen de ella, y presentó sus primeras tareas a á las juntas generales celebradas por V. S. en la ciudad de San Sebastian el año último, pasando al popio tiempo á su consideracion diferentes observaciones dirigidas al logro de sus deseos. La gravedad de la materia y el interes que tiene todo el pais en los ramos que abraza aquella exposicion, nos inspiró una justa esperanza de que se insertaria en las actas del referido congreso, más bien para que el público tubiese noticia de estas ideas, que por el corto mérito de nuestro trabajo. En tal estado se nos comunicó por la Diputacion lo resuelto por las citadas últimas juntas generales: conocimos a primera vista que sus efectos dejan paralizado el curso del interesante plan prescrito por las celebradas en Mondragon el año anterior. Efectivamente, negándose los precisos medios para llenar los objetos indicados, la influencia de esta Comision en el pais es de ninguna consideracion». Jarraituko badute, emateko baliabideak. Izenpetzaile: Marques de Narros, Conde de Monterron, Jose Ramon Mendia, El Conde de Peñaflorida, El Conde de Villafuertes, Gaspar de Aranguren, Ignacio de Zavala. (AGG-GAO, JD AJI 10, 5).

*los que tiene expuesto y pedido la Ciudad de San Sebastian para el fomento de la industria y comercio de Guipuzcoa.* Argudio-bide argia zuen donostiarren txostenak: a) pasatzeko aduanak Ebrotik kostara eta Bidasoara, Donostia eta ingurua bizirik aterako baziren; eta b) beraiek ez zeudela foruen aurka, bizibidea ukatzen zien zenbait foru-xedapen birmoldatzearen alde baizik. Gipuzkoako herri gehien-gehienetako ordezkariak oso kontra agertu ziren. Batzarraren ustez, txosten horrek «ofende á los Fueros, privilegios, buenos usos y costumbres de Guipuzcoa», eta aktan jarriarazi zen «la completa y pública desaprobacion de esta junta general al expresado folleto.» Donostiarren erantzuna: «que ha sabido y sabe dar pruebas de su adhesion á las instituciones forales que ama y respeta (...) pero protesta el decreto que acaba de hacer la Junta». Aurreko urtean bere ordezkariak Azpeitian esandakoari eusten zion Donostiak. Pasaia bere alde agertu zen oraingoan.

Ez zegoen girorik, Iturriagaren bi liburuekin zer egin behar zen ganoraz eztabaidatu eta erabaki argi bat hartzeko. Edozein hasten zen, foruen automutilazioa eztabaida-gai bihurturiko bilera batean, umeentzako kartillak eta dialogo-jolasak xehekiro aztertzen... Zerbait erabaki zen halere, geroko papereetatik jakin ahal izan denez: Sustapen-batzordeari diru bat jarriko zitzaioela eskueran, Iturriagaren eta gainerakoen planak aplikatzen hasi izateko.

### ***1833ko Batzar Nagusiak***

Agindutako dirurik ez zitzaion, ordea, Sustapen-batzordeari iritsi. Erabakimen handia bai, baina dirurik ez: hori zen, itxuraz, Probintziako agintearen une hartako egoera. Beste urtebete itxaron behar izan zen, ganorazko pauso bat aurrera eman gabe.

Sustapen-batzordea 1833ko maiatzean bildu zen azkenik, zer egin deliberatzeko. Maiatzeko bilera horretan, Iturriagaren txostenaren azalpen laburtua eman zen. Alde batetik laburpena, eta bestetik berrikuntza ohargarria. 1831ko txostenean, euskararen gaitza eskolan zegoela esaten zen. Eskolan bakarrik. Orain, berriz, gaitzaren bigarren fokoa identifikatzen zen: pulpituia. Sustapen-batzordearen hitzetan esanik, «Buscando las causas de la corrupcion y desaparacimiento progresivo del Bascuence, ha parecido que se encuentra en las Escuelas de primeras letras y en el Púlpito. En aquellas por la falta de medios auxiliares para enseñar a los jovenes la lengua castellana, sin perjuicio ó mas bien con ventaja de la nativa, y en éste por falta de un Diccionario manual del Bascuence al Castellano y del Castellano al Bascuence. Se ha tratado en consecuencia de atajar estos dos inconvenientes ó suplir estas dos faltas».

1833ko Batzar Nagusietan ere bere kexua agertu zuen Sustapen-batzordeak: «un año sin que se haya plantificado ninguna de las ideas reclamadas por todas

las personas ilustradas del pais, e interesadas en su prosperidad.» Beharrezkoenak edo egingarrienak ziren zazpi egitasmo hautatu zituen Sustapen-batzordeak, denak gehiegi izango zirelakoan, eta zazpi horiek azaldu zizkien Batzar Nagusiei (113). Lehentasunezko zazpi horien tartean, euskara indarberritzeko argitalpenak. *Lengua Bascongadaren* batzorde-atalak honela zioen, bukaeran: «Por estos dos medios es de esperar que se logre el efecto deseado y se perfeccione la enseñanza de primeras letras del pais, poniendo á los jóvenes en disposicion de leer con fruto los libros de asignatura de las Escuelas de esta clase.»

Ez da begi-luzeegia izan behar, konturatzeko diru-eskasiaz gainera beste-lako arazorik ere bazegoela tartean. Batzordeko lanak, eta Iturriagaren enkar-guak, helburu zehatz eta jakina izana zuen Arrasaten, 1830ean: euskara bizirik ateratzeko eta ilustratzeko neurriak planteatzea. Orain, berriz, zera esaten zen: planaren asmoa «perfeccionar la enseñanza de primeras letras del pais, poniendo á los jóvenes en disposicion de leer con fruto los libros de asignatura de las Escuelas de esta clase» zela. Jauzi handia zegoen, 1830eko erabakitik 1833ko aplikaziora. Jauzia are handiagoa zen, Iturriagaren elebitasun beteko xedea eta materialgintza osoa kontuan hartzen bada. Norbaitek murriztu egin zuen jatorrizko xedea, aplikatu beharreko neurriak minimora ekarri eta helburua bera nabarmenki desitxuratu. Proiektuetatik aplikazio praktikora maiz egon ohi diren murriztapen ohargarrien eredu argia da, dudarik gabe, Iturriagaren planarekin 1830-33 epean gertatua. Horixe da hizkuntza-plangintzaren teoria-azalpen askotxok, batez ere zenbait azalpen sinplifikatuk, errazegi ahaztu ohi duena (114).

Ez zen aukerarik izan, nolana ere, hasierako planaren murriztapen eta desitxuratze horren zenbatekoaz jabetzeko. Batzar Nagusiak egin eta handik gutxira hil egin zen erregea, eta gerra piztu zen: Lehen Karlistada. 1839ra arte ez zen girorik izan, hezkuntza elebidunaren gaiari berriro aurrez aurre heltzeko. Eta gerra amaitu zenean, beste Euskal herri bat zegoen begien bistan: beste agintehalmen, beste *Zeitgeist* eta beste lehentasun batzuk. Iturriagak laster ikusi zuen, gerra aurrean bukaturik utzitako bere liburuak argitaratuko baziren bere kabuz jokatu beharko zuela. Euskara aginte-babesez indarberritzeko saioa, 1830eko

(113) Honako zazpiok: a) arbolado; b) extraccion de la lana del pais y de las pelletas; c) Escuelas de Dibujo y Geometria (Industria garatzen laguntzeko); d) Artefactos de lana (fabricación de objetos de lana); e) Lengua Bascongada. f) Carta Topográfica de Guipuzcoa; g) Sociedad Bascongada (promover en union de Vizcaya y Alava la reconstitución de aquella insigne sociedad).

(114) Jakin badakigu 1831n bertan, Batzar Nagusietan edota handik berehala, hasi zirela Iturriagaren planaren kontrako iritzi kritikoa agertzen. Plan hori ez zen egingarria, zenbaiten ustean: kritikagile horiek ez zuten uste, euskaraz ikastea erdaraz ikastea bezain erraz gerta zekienekin bertako eskola-umeei (batez ere, ongi ulertzen bada, euskaraz baino erdaraz hobeto zekitenei eta, beraz, euskarazko alfabetatzea ez baina euskalduntze bete behar zuten umeei). Kritika hori Iturriagaren belarrira iritsia zegoen abuztuan, eta honako komentario hau egiten zion berak Iztuetari: «ez naiz arritren Cineren (?) izcuntzai, ceren orobat da erdera, non francesa, non latina icasteco. Bestela beguira cein laster eta ederqui itcequiten duten eusquera chorrosquille paarguille eta chiquiratzalleac. Eraqueria da uste izatea icuntza bat bestea baño gaitzagoadala. Eusquerac ez du beste cer esanic autsez bete beti vici izatea besteric.»

ilusioa eta ekimena, bultzada eta aupada pasata zegoen. Une egokiagoen zain egon beharko zen, gaiari aurrez aurre eta aginte-mailatik heltzeko.

### 3. EUSKARA-ERDARAK, ITURRIAGAREN GARAIAN

Hain gaizki al zegoen euskara, 1830ean, goitik beherako plan bat aplikatu behar izateko? Hain nabarmena al zen euskararen gainbehera, Probintziako jauntxoek gaia beren agenda politikoan txertatzeko? Hainbatekoa al zen beharra? Badakigu, jakin, bertako protoeliteek euskararen atzera-martxaz kezkatu-rik zeramatela ehun urte inguru (115). Hizkuntzaren (hobe: euskara-erdaren) erabilera handiaz edo txiki-az eta erabilera horren gizarte-moldaeraz ezer gutxi esan ohi zuten. Gutxi esan izanik ere, han-hemen idatzita utzi zigutenetik badago batez besteko deskribapen soziolinguistikoa egiteko behar adina lehengai. Lehengai horietaz baliaturik eskaintzen da hortaz, lehen hurbilpen moduan, Iturriagaren garaiko egoeraren azalpen-saioa (116).

Zenbat gipuzkoar ziren euskaldun, eta zenbat erdaldun, Iturriagak bere txostena aurkeztu zuen garai inguruan? Ahozko jardunean zer hizkuntza zen nagusi, eguneroko gizarte-bizitzan? Zer hizkuntza zen nagusi hitzez, eta zein idatziz? Euskararekiko jarrerak eta jokabideak nolakoak ziren? Hitzunen hitz-errotia eta erraztasuna zenbatekoa zen hizkuntza batean, eta zenbatekoa beste-ean? Elebidunen euskara hura nola ageri zen, erdaratiko interferentziez eta euskara-erdaren konmutazioz?

#### a) Zenbat gipuzkoar euskaldun, eta zenbat erdaldun?

Har dezagun, hasteko, Iztuetak Gipuzkoako Probintziaz 1845erako pres-taturiko azalpena (117) (Iztueta, 1847: V): «Provincia labor onetaco mugapean contactcen dira eun ta oguei milla arima bezalatsu; oetatic eun milla bederic

(115) Gipuzkoari dagokionez 1745etik, Larramendik bere hiztegiaren sarreran dioena aintzakotzat hartuz, eta Nafarroan are lehenagotik (ikus D. Fermin de Ulzurrun, 1662). Badakigu, halere, azalpen gehienak euskararen egituraz eta bere atributu linguistiko-ekin ohi zituztela, edota hizkuntzaren behinolako unibertsaltasunaz eta lehen-tasun kronologikoaz, penintsulako kontestuan.

(116) Hizkuntzen arteko ukipen- edo kontaktu-lekua izana dugu Euskal herria, mende luzez. Hala ziren kontuak, Iturriagaren garaiko Gipuzkoan ere. Badakigu jakin, Fishmanek 1966an bere *Language Loyalism in the United States* handia argitara zuenetik, hizkuntza biren arteko kontaktu jarraiak hiru eratako ondorioak izan ohi dituela berekin, urteen harian: hizkuntza bien erabile-ra-maiztasuna aldatu egin ohi da sarri; hiztun elebakar batzuk elebidun bihurtzen dira, eta elebidun horien produkzioak, hizkuntza batean edo bestean (batez ere batean: kontestualki ahula den hizkuntzan) arauz kanpoko ezaugarriak agertzen dira (interferentziak).

(117) Jakin badakigu, liburua ondotoz lehenagotik idatzia zegoela. Oso litekeena da, beraz, hor azaltzen den egoera 1830 ingurukoa izatea orpoz orpo.

izango dira Euscara beste itzcuntzaric ezdaquitenac: gañerontzeco oguei milla-etan beguira izan ezlitezquean erdiac baño gueiago, Euscararen ugazume etorqui arrotz, nongoak eta noren odolecoac diran berac ere ezdaquitenac; eta azquenengo amar milla-etan ere izango dira guichienaz sei millaraño, Euscaraz charqui, eta gaztelaniaz, gaizqui itzeguiten dutenac, beren buru arroac guizon andi ta jaquintsu eguiteagatic.»

Antzeko bidetik dabil Madoz, honako hau dioenean: «Se habla el vascuence en toda la prov. Es el lenguaje que en su niñez aprenden todos sus naturales, y el único que saben los que por su educación ó con el trato de gentes no han aprendido el castellano» (Madoz, 1847: IX. liburukia, 113. or).

Azalpen horiek bat datoz, funtsean, handik hogeit bat urtera Eguren eskola-ikuskariak egindako baieztapenarekin: «en los pueblos rurales, que son los que forman la mayor parte de la Hermandad guipuzcoana, solamente se habla el vascuence, con muy cortas escepciones, y aun en las poblaciones de más importancia no es todavía habitual la lengua castellana sino entre las personas cultas y de más instrucción. Así es que la masa general del pueblo guipuzcoano habla usualmente el vascuence» (Eguren, 1867). Bereizketa garrantzitsu bi ezarriak dizkigute Iztuetak, Madozek eta Egurenek: a) kalea gauza bat da, eta baserria bestea; b) baserrian euskara da jaun eta jabe; aldiz kalean, handikien eta jende ikasiaren artean, eguneroko hizkuntza da erdara: ez bakarra, inola ere, baina bai egunerokoa.

Hiztun-kopuru eta banaketa molde horiek kontuan izanik argi dago euskarak oso leku zabala duela eguneroko mintzajardun arruntean, Iturriagaren garaiko Gipuzkoan. Erdara ere etxekotua dago, ordea. Nola? Zer neurritan? Ikuspegi xeheago batetik begiratu behar diogu, horretarako, gaiari. Hizkuntza-soziologia deskriptiboaren ohiko analisi-bideetatik. Nork dihardu norekin hizkuntza batean, ahoz ari delarik, gai honetaz edo hartaz diharduela? Eta nork norekin erdaraz, idatziz edo, bakanago, ahoz? Honako puntuok, bederen, argi samar daude Iturriagaren garaiaz ari garelarik oro har, eta 1830 inguruko egoeraz dihardugunean bereziki.

### *Ahozko jardunean, euskara nagusi*

Euskara zen 1778an, Iturriaga jaio zenean, gipuzkoar gehieneguneko hizkera (118). Euskaraz (119) egiten zen familia gehienetan. Euskara zen neska-mutil horien ama-hizkuntza (120). Euskaraz ikasten zuten hurrek gurasoe-

(118) Bai eta, xehetasun gehiagorekin halere, 1851n hil zenean ere.

(119) Euskaraz bakarrik edo nagusiki euskaraz egiten zen familietan. Horri buruzko azalpen zehatzagoetarako ikus, esate baterako, Zalbide eta Muñoa 2006.

(120) Eguren eskola-ikuskariaren azalpena goian adierazitakoa baino zabalagoa da berez, eta ikasleen hizkuntza-egoeraren berri ere ematen du.

kin eta senideekin, aiton-amonekin eta neska-morroiekin. Hizkuntza horretan hazten ziren umeak, beraiek bezala euskaraz baizik ez zekiten anai-arreben eta inguruko lagunaren artean: giro horretan hazten eta hezten ziren, eskolatu artean eta are handik aurrera. Euskara zen gizarte-bizitzaren esparru arrunt, ohikoetan nagusi. Horrela egiten zen etxean, auzoan eta kalean, lagunarte hurbilean eta ohiko lanbide gehienetan. Orobat herriko plazan, merkatuan, azoka-ferietan, festa-egunetako erromerietan, hileta-elizkizunetako sarrera-irteeretan eta ezteietan. Beraien moduko euskaldun-jendearekin ezkontzen ziren gazteak, eta euskal familia berriak osatzen. Hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtaturik zegoen horrela, neurri zabalean.

Gero, une batetik aurrera, eskolan lehenik eta gizarte-giro batzuetan ondoren, gaztelaniarekiko kontaktua izaten zuten gazte horietariko askok. L2 gertatzen zen gaztelania, normalean, gazte horientzat. Berez L2 izanik ere, gaztelania hori ez zen askorentzat atzerri-hizkuntza baten pareko. Iturriagak argi dioenez, urteen poderioz eta erdarazko harreman-sareetan txertatu behar izanaren ondorioz elebidun bihurtzen zen hainbat gipuzkoar: gaztelania ere beren hizkuntza zuten hortaz, hainbatean (121).

Horrezaz gainera, jende jantzi eta ikasiak erdaraz egin ohi zuen, maiz, bere artean. Distintzio-seinale eta status sozial baten adierazgarri zen erdaraz ongi jakitea eta parez pareko status soziala, zer esanik ez goragokoa, zuten handikiekin hala egitea (122). Donostian eta Bergaran, Tolosan eta Azpeiti-Azkoitietan, Hernanin eta Hondarribian, ez zen halako harreman-sarerik falta. Aparteko lekua eta lehentasuna zuen, zirkulu horietan, erdarak. Gaztelaniak eta are, zenbaitetan, frantsesak (123). Elebidun funtzional ziren, horrelako harreman-sareetara irispede arteza zuten gipuzkoar gehienak. Goi-mailako jardunbide formaletan gaztelaniaz (inoiz, frantsesez) egiten zuten, eta gaine-rako harreman gehienetan euskaraz: hots, kaleko hizkuntza arruntean, kaletar

(121) «La lengua castellana es lengua viva, pero no lo es respecto a la mayor parte de los bascongados y especialmente de los niños». Baina «hablando muchos el español entre nosotros, tampoco se puede llamar a esta lengua enteramente muerta». (Lasa, 1968: 155).

(122) Aspalditik zetorren kontua: Larramendik argi deskribatua zuen fenomeno (Larramendi, 1745: Liv): «Los Bascongados (...) salen de su País, y hacen estudio de olvidarla, ni escriben, ni quieren siquiera escribir en su Lengua una Carta» eta (1745:Lvi): «Dicen los 4<sup>o</sup> y son Bascongados los arguyentes, que el Bascuence es de grande embarazo para aprender, y hablar bien el Castellano, y que assi sería mejor olvidar, ó desterrar del mundo el Bascuence, para lograr la ventaja de poseer bien la lengua reynante. Con este pensamiento es cosa graciosa ver aun en estos países á muchos tan peluquitas de habla como de cabeza, tan emballenados de Lenguage, y tan almidonados de Castellano, que tienen por arrugas, y manchas qualesquiera terminos de Bascuence. Ponen un hociquito muy fruncido, y precioso, oyenlos con desden, y desprecio, afectan que no los entienden, y que se les hable Romance, y hacen vanagloria de aver olvidado su Lengua materna».

(123) Gaskoi-hizkera, aldiz, atzeraka bizian ari zen. Pasaia bietan (San Juanen eta San Pedron) eta Hondarribian gelditzen ziren, itxuraz, eguneroko jardunean beren artean gaskoiez egiten jarraitzen zuten azken hiztun-taldeak. Donostian ez da, Iturriagaren garaian, gaskoi-hizkeraren arrastorik ageri.



zenbaitek eta herri txikietako edo baserrietako gehienek zekiten hizkuntza bakarrean. Horrela ziren gauzak, ahozkoan (124). Aski bestela ziren kontuak, aldiz, idatzizko zereginetan.

### *Idatzizko jardunean, erdara nagusi*

Hizkuntzaren erabilera formala eta jaso eskatu ohi duten esparru askotatik baztertuta zegoen euskara, esan berri denez. Eta esparru horietan behar izaten zen, bereziki, idatzizko jarduna. Latina eginkizun sakroklasikoetarako (125), gaztelania goi-mailako bizibide laikoaren zeregin gehienetarako (administrazio-esparrurako erabat, merkatarien eguneroko komunikazio-lanetarako eta lagun arteko korrespondentziarako ia erabat) eta frantsesa, gutxitan ingelesa, jakin-iturri formalizatueta zuzenean iristeko edota urrunagoko merkatari-lanetarako.

Eskola-munduan oso leku mugatua zuen euskarak. Dotrina euskaraz eta erdaraz erakutsi ohi zen normalean, 1600. urte inguruko sinodaletan hartutako arau-erabakien ildotik. Arau horiek zirela medio bazuten neska-mutil gehienek euskara idatziarekiko kontaktu minimoa: euskaraz eta erdaraz irakurtzen zuten ikasleek dotrina, eskolan egunero eta elizan aste-bukaeran. Dotrina-irakurtze hori ez zen, ordea, egungo irakurketaren pareko. Buruz ikasten zen liburuan idatzirik zegoena, eta kantuz «irakurtzen». Bide horrek ez zuen, gehienetan, egungo irizpideen araberrako belaunaldi alfabetaturik sortzen. Hortik aurrerakoan, oso kasu mugatueta erabiltzen zen euskara eskolan. Gutxitan erabiltzen zen eta, kasu gehienetan, espresuki debekatua zegoen. Ez zen euskaraz irakurtzen eta idazten erakusten; ez zen euskaraz irakasten. Are gehiago: debekatua zegoen ikasleek eskola-orduetan hitz bat euskaraz egitea (126). Leku guztietan ez zen horrela (127), baina hori zen arau nagusia, eskueran ditugun datuen argitan.

---

(124) Iturri asko dago, euskararen nagusitasuna Gipuzkoako herrietan eta baserri-giroan bereziki, zenbaterainokoa zen aditzera ematen diguna. Har dezagun Iruñeko Severo Andriani artzapezpikuaren eskutitza, erresumako Grazia eta Justizia ministroari egina (1851-XII-13; 1852-II-25). «En la parte de este obispado, que corresponde a la provincia de Guipúzcoa, se halla situada la gran casa de Loyola entre Azpeitia y Azcoitia, ambas poblaciones muy respetables, ya por la gente que se contiene en ellas, como por los muchísimos caseríos que abrazan y varias anteiglesias que de las matrices dependen. Además hay en la misma Provincia las ciudades de San Sebastián, Fuenterrabía y las villas de Tolosa, Villareal, etc., hasta el número de cincuenta y tantos cabildos eclesiásticos. En todas estas parroquias y en todas (!) que pasan de ciento, **es más común la lengua vascongada que la castellana, a tal punto, que los que viven diseminados en los caseríos ni una palabra entienden de esta lengua** (beltzekoa gurea).

(125) Eliz liturgiarako eta unibertsitate-esparruko hainbat ikasbidetarako ezinbestekoa zen latinaren ezagutza, halako maila batean. Beharrian hori atzera hasia zen nabarmen, halere, unibertsitate-esparruan.

(126) Eraztuna pasatzen zitzaion eskolan hitz bat euskaraz egiten zuen haurari, eta aste-bukaeran eraztuna berekin zuena zigortu egin ohi zen.

(127) Salbuespenetarako ikus, adibidez, Lasa (1968) eta Zalbide (1990).

***Euskararekiko jarrera eta jokabidea***

Hiru eratako gertakariak antzematen dira aldi berean, euskararekiko jarrereri eta jokabideei dagokienean (128): jende xehearen euskal giro bizi eta lasaia batetik, status sozial batetik gorakoek euskararen bajeza-estigmatik ihes egin nahia bestetik, eta protoelite euskaltzaleen gorabidea azkenik. Hirurak ikusiko ditugu, labur-labur.

- a) Beren etnizitatea, beren herritartasuna, aparteko elaborazio teorikorik gabe bizi zuten gipuzkoar gehienek, Hernanin eta Hernanitik kanpora: *euskaldun-jendea* ziren beraiek, inolako tatxarrik eta, dakigun neurrian, aparteko harrotasunik gabe. Euskal giro lasaian bizi ziren, hizkuntzaz eta herritartasunaz aparteko buruhauste handirik gabe. «Horrela ziren gauzak», belanez belaun etorriak, eta horrela bizi ohi zituzten. Bazekiten L hizkuntza zela txikitan ikasitako euskara, eta H hizkuntza erdara (129). Adierazpide arrunt, zalu eta erraz zuten beren ama-hizkuntza, ez bestelako gizarte-xedeen ikur edo adierazgai. Aktibatu gabeko etnizitate-giroan bizi ziren euskaldun gehienak (antzeko kontestuetarako ikus Fishman, 1972, 1985) (130).
- b) Jende ikasi askotxok, batez ere kale-giroan bizi eta erdi- edo goi-mailako lanbideetan ziharduen hainbat kaletarrek, epeltasunezko edo arbuiozko jarrera ageri zuen euskarari buruzkoetan. Baziren hor ere euskara beren nortasun pertsonal eta kolektiboaren osagai preziatu sentitzen zutenak, eta euskaraz egiteaz inola ere lotsatzen ez zirenak. Baina ez ziren gutxi euskaldun-jende xehearen euskal giroko gizarte-arau horiek xaharkituztat jotzen zituztenak eta erdarazko gizarte-arau berrien ildotik jo nahi zutenak. Lotsatu egiten ziren horietariko asko, euskaldun izateaz. Euskaraz ez zekitela esatera ere iristen ziren inoiz, euskarak berekin zekarren bajeza-estigma hura begien bistatik (hots, beren status soziala definitzen zuten atributuen sailetik) uxatzearen (131).

---

(128) Erdararekiko jarrera-jokabideak aztertu gabe daudelarik oro har, euskararekikoez jardungo dugu gaurkoan, soil-soilik. Garrantzi bizikoa dugu ordea, garai hura ganoraz ententitzera iritsi nahi badugu inoiz, erdararekiko jarrerak eta jokabideak ere aurrez aurre aztertzea. Lan hori partez egina dagoela esan dezake norbaitek, eta ez zaio arrazoirik falta: euskara bajeza-estigmatzat duenak bistan da prestijiozkatzat duela erdara, eta abar. Hori baino azterketa zentratuagoak behar genituzke ordea, oinak lur sendoan izateko.

(129) Normalean gaztelania, gutxiagotan latina edo frantsesa.

(130) Ikus, esate baterako, Villasanteren aipamena: «(Aizkibel) no deja de referirse más de una vez a la indolencia y apatía característica que tienen los vascos para con su lengua y para con los libros escritos en la misma» (Villasante, 1979: 264).

(131) Adibide gisa, eta Larramendiren goiko pasarteaz gainera, Iztuetaren 1824ko azalpen hau eman liteke: «Jakinduriaren-billa erbesteetan urteac igaroric, joan ziraden aimbatekin, edo guchia-gorekin, jaioterrira biribillatu oi-diraden üaunditu oen galanteoric aundiena da, echera sartu bezain laister, beren guraso, eta senidai esatea ezic, *Eh, callad, no habléis más esa gerigonza propia sola de salvajes o de un rancho de gitanos: vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo también soy de turris eburnia*. Eta oraindic, are icusgariagoac eta adigariagoac dirade oen

- c) Baziren, azkenik, beren ama-hizkuntza «gipuzkoar jatorraren» edo euskaltasun betearen ezinbesteko osagai eta ikur nagusi kontsideratzen zutenak. Beren artean, herritar xeheen ohiko erabilera-arau nagusien arabera euskaraz egiten zuten ahoz, eta zenbaitetan (oso gutxitan) idatziz. Bazen horien artean, halako neurri batean, euskaltasunaz eta euskararen ubikazio sozialaz gogoeta egiten zuenik. Gutxi ziren halakoak, eta oro har indar handirik gabeak. Are gutxiago gai horien araberrako gizarte-helburu esplizituak ezartzen zituztenak. Larramendiren segiziokoak ziren, normalean, horrelako bakanak (132). Giro horretan hasten dira protoeliteok euskaltzetasun-gurpilari jakinaren gainean eragiten. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra aldatzen hasi da Larramendiz geroztik, eta Iturriagaren bizialdian, batez ere 1830 inguruan, inarrosaldi bizia izango du giro-aldaketa horrek (133).

### Hizkera pobretzen ari da

Mende-hasieran, 1800 inguruan, horrela ikusten du Moglek euskararen pobretzea: «la lengua bascongada está tan alterada y desfigurada, que no la

guraso, eta senide choroac, nola egon oidiran beren auzoetaoai esanaz. Gure seme campoetan guenduena bart etorri zaicu echera, chit galanturic, osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundiakicoa. Aztu zaio bada euskera guzi-guzia: ez du itzcho bat bacarra-ere ez-esaten, eta ez endelegatzen edo comprenditzen itzcunza oetan: eta are-guchiago nai-du bestec itzeguitea ere; beragatic, baldin arekin nai badezute itzeguin, erderaz bearco diozcatzute adierazi zuen-esacariac, nola-bait-bederic, bestela aserratuco zaio, portizkiro ala-ere. Oec eta beste onelaco milla astokeria esanarekin, uste dute-eguin chit jakintsun, beren seme eta anaia chori-buru puztua. Jakinduriaren gorde-lecu guziac chit beteric, gañez eguinta, alde guzietatic chirrrian badariotela uste duten oec, edozein biltokitan beren erritarrakin batutzean, iraiñtatzat daukate itzcho bat-ere euscaraz esatea. Eta iñoiz edo berriz, aguzisten badu norbaitec euscarazco itzcriburic, galanteoric aundiena dute esatea ezic, ezin iracurri-dutela, eta are-guchiago endelegatu edo comprenditu zer esan-nai-deban.» Guisa-onetan mintzatzearekin nai-dute eman aditzera ezic, badakitela dana eta datekean guzia. Egiatzki: izan oi-dirade enzuleen artean, ez ala-ere guchi, uste-izaten-dutenac ezen, erausle char beretan arkitzen dala, jakinduriaco putzu ondoric gabecoa dala; baña ez derizkiot nic, euscara ezin-iracurri duena, eta are-guchiago endeglatu esaten-duen euscalduna, izan alditkeala, chit zenzu andico guizona.» (1824 in 1968: 96). Beste asko ere eman litezke, Mogelena barne. Leku faltaz, horretan utziko dugu oraingoan.

(132) Hor sartzekoak ditugu Iturriagaren aurreko belaunaldian, 1740-50 inguruan, jaiotako Juan Antonio Mogel (1745-1804), Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) eta Pablo Pedro Astarloa (1752-1806). Eta hor sartzekoak ditugu, bereziki, 1770 inguruan jaiotako Juan Inazio Iztueta (1767-1845), Luis Astigarraga (1767-1841), Juan Bautista Erro (1773-1854), Juan Mateo Zabala (1777-1840) eta Agustín Paskual Iturriaga (1778-1851). Ibon Sarasola, alderdi linguistikoa begira, honako hau esana du Larramendiz eta bere segiziokoez (Sarasola 1992: 315-6): «Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea.» Baita beste hau ere (Sarasola 1992, 318): «Bazegoen desegokitasunik Larramendiren ahaleginean. Baina ez zen hizkuntzarekiko desegokitasuna, euskaldun-goarean kultur egoerari buruzkoa baizik.»

(133) Hizkuntzarekiko jarrera eta kultura-giroa ari dira aldatzen, Iturriagaren bizi-denboran. Giro-aldaketaren alderdi soziopolitikoaz ikus, adibidez, Lasala 1884.

conocería la Madre que la parió. Si resucitaran los antiguos bascongados, no la entenderían». Mogelek hori dioenean, buruan beste zerbait duela pentsa liteke berez: ez dela ezinbestean bere garaiko euskararen mailegu berriez eta orduko euskaldun elebidunen interferentzia ugariez ari, hizkuntza orok mendeen joanean pairatu ohi duen aldaketaz baizik. Egiaren zati bat bakarrik da, ordea, lehenaldi urruneko perspektiba kontu hori. Markinako parrokoak *Peru Abarkan* azaldu nahi duena bere belaunaldiko gertaera da, batez ere: Mogel ez da aldi joanetako bilakaera pausatu baina etengabeen balorazio hutsa egiten ari, bere bizi-denborako fenomeno ongi ezagunaren testigantza ere ematen baizik.

### **Erdal interferentzia ugaritzen ari da**

Hitz egiterakoan gero eta ugariago baliatzen gara euskaldunak erdararen makuluez: erdarazko hitzak hartzen ditugu, bere doinu-era eta hots-ebakera ezpainetaraten zaigu, joskeraz eta hitzen adieraz ere gero eta erdararen mendeago gaude... Oraingo kontuak direla iruditzen zaigu hori. Ez dira orain-oraingoak ordea, aspaldidanik datozenak baizik. Horra 1854an, Iturriaga hil eta handik hiru urtera, zer zioen Alejo Azpeitiak, Zestoako bikarioak: «El transcurso de los siglos, las continuas guerras y trastornos, en especial de medio siglo aca, han dado el triste resultado de adulterar nuestra primitiva lengua Vascongada con la adopcion de multitud de vocablos tomados de otros idiomas, en terminos, que se hace ya notable el desaliño é incorreccion con que aun los mismos naturales del pais hablan su propia lengua».

Batez ere «de medio siglo aca» gertatzen ari omen diren fenomenoek ari da Alejo Azpeitia. Ez nolana hiko interferentziaz ordea. Interferentzia lexikalez ari da bera, huts-hutsik. Euskalari, euskaltzale eta euskal detraktore asko aho batez dio galtzen ari dela euskara garbia, euskara jatorra, «betiko» euskara. Galtzen ari dela eta, bere orde, euskaldunek hitzetik hortzera (are, bertso-papera lagun, hitzetik lumara) egiten duten «oraingo» euskara hori euskalgaiztoa dela. Beterik dago Iturriagaren garaiko dokumentazioa, XIX. mendearen lehen erdian, ikuspegi ezkor horrekin. Iturriaga bera da, bere buruaz ari dela, arazo horren lekuko: «Nola guc ez degun icasi eusquera gueren gaste demboran icasi izan guer(n?)ezaquean (...)la lan andiari narraizquio, esagutcendet ceren itz bacoitcian dictionarioa escuan artubear» (134). Horra arazoa: hain interferentziaz beterikako euskara erabiliko ez badu *Diccionarioa* eskuan hartu behar, umeentzako ikasliburutxoak prestatzeko eta Iztuetari eskutitz bat txukun antzean idazteko. Hori Iturriagak. Hortik atera kontuak.

---

(134) ikus idazlan honen VI. eranskina, 5. dokumentua, 1831-I-1ekoa ia seguru.

#### 4. HIZKUNTZEN AZTERBIDEAK, ITURRIAGAREN ARGITAN

Bat ote dator aurreko atalotan emandako deskribapen xume hori, Iturriagak 1830-31n dioenarekin? Noraino dira han-hemen barreiatuak dagoen informazio soziolinguistikoa eta Hernaniko benefiziaduak Gipuzkoako Batzar Nagusiei aurkeztutako azalpena bateragarri? Zertan gelditzen da Iturriagaren azalpen hori motz? Non dakartza aldiz ekarpen ohargarriak, ordura arteko iturrietan jaso gabeak edota kontzeptualki landu arinak? Hori ikusiko dugu, hizkuntza-soziologia lagun, hurrengo atalean.

Jakintza akademiko gisa eratu berria da soziolinguistika, eta bere atal nagusien sailkapenean nekez bila liteke egituratze-maila handirik, edonork onartzen duen modukorik. Nolanahi ere, eta Iturriaga gogoan dugula, sei azterbide bereiz litezke hizkuntza-soziologiaren alorrean (135).

**Gauzak nola dauden** begiratzen du, batez ere, lehenengo azterbideak: hizkuntzen erabilera aldetik (bai eta jarrera aldetik ere) gauzak nola dauden, gizarte osoan edo hiztun-talde jakinetan; hizkuntza-gaitasunaren aldetik gauzak nola dauden, banakako hiztunen artean; eta hiztun elebidunen hizkuntzak ukipen horren seinalerik ba ote duen (interferentzia edo komutazio moduan), eta zer-nolakoa. Azterbide deskriptiboa esan ohi zaio horri guztiari.

**Gauzak nola aldatzen ari diren** begiratzen du (136), bereziki, bigarren azterbideak. Gauzak aldatzen ari diren ala ez eta, baiezkotan, aldaketa hori zer-nolakoa eta zenbatekoa den. Aldaketaren ubikazioak, bere kokapen fisikoak eta soziodinamikak, aparteko garrantzia du azterbide honetan. Azterbide zinetikoa esan dakioke honi, soziologia zaharraren ildotik (137).

**Gauzak zergatik aldatzen (ari) diren** begiratzen du, nagusiki, hirugarren azterbideak. Zergatik indartzen edo ahultzen da hizkuntza baten erabilera? Zergatik ahazten edo atzentzen zaio zenbait hiztuni hasierako hizkuntza, eta beste bat nagusitzen? Zergatik sortzen dira interferentziak eta konmutazioak? Zein prozesu psikologiko, sozial eta kultural daude gertaera horien atzean, edota horiekin nolabaiteko loturan? Azterbide dinamikoa esan ohi zaio, ia aho batez, hirugarren lan-ildo honi.

---

(135) Sei azterbide nagusi, azterbide bakoitzean hiruzpalau dimentsio gogoan izan litezkeelarik. Ez da lehenengo aldia, sailkapen honetaz baliatzen naizena (Zalbide, 2006). Berri-berria ez izan arren, elaborazio handiagoaren beharrean dago: litekeena da, elaborazio horren argitan, aldaketa ohargarriak behar izatea oraindik. Nolanahi ere, azterketa soziolinguistikoen alorrean (hizkuntzaren historia soziala barne) argitasun metodologikorik erdietsi nahi bada funtsezkoa dugu nazio arteko formulazioekin ongi txerta litekeen sailkapen bat eskueran izatea.

(136) Nola aldatzen diren une honetan edo, esan beharrik ez dago, nola aldatu izan diren beste une jakinen batean.

(137) Ameriketako tradizioan bestelako izendapena du, erabilerari dagokionez, atal honek (eta, partez, hurrengoak) 1966tik aurrera: *Language Maintenance and Language Shift*.

**Goazen bidetik goazela, non bukatu behar dugun** kalkulatu nahi izaten du, batez ere, laugarren azterbideak. Hemendik epe batera (hurrengo belaunaldian, hemendik berrogeita hamar edo ehun urtera..) hizkuntzaren erabile-rak (138) aurrera edo atzera egitea espero izatekoa den, zein lekutan, zer funtziotan eta zer neurritan: hori da azterbide prospektiboaren muina.

Hiztun batzuek edo besteek hizkuntza kontuak nola izatea nahi luketen, eta beraz **egungo egoera** (eta aurrera begirako proiektzioa) **gogoko duten ala ez** analizatu ohi du bosgarren azterbideak. Herritarrek ba al dute beren hizkuntzari eta hiztun-herriari buruz kontzientzia argia eta hura aurrera atera nahia (139)? Ba al dute herri-gogorik? Nola loturik joan ohi dira herri-gogoa eta hizkuntza-leialtasuna? Galdera horiei eta antzekoei erantzuten saiatzen da bosgarren azterbidea (140).

Egungo hizkuntza-egoera honetan edo hartan desegokia dela uste bada, bestelako egoera bat lortu nahi bada hortaz, **zer egin behar da?** Iritsi nahi den **helburura iristeko** zer egin litekeen analizatzen du seigarren azterbideak, Fishmanek RLSren ildotik azterbide *preskriptiboa* deitu izan duenak (141). Hizkuntza-plangintza esaten zaio gaur egun, maizenik, atal honi. Hizkuntza-soziologia aplikatua ere esan izan zaio inoiz (142).

Gatozen beraz, Iturriagak 1830-31n prestatu eta Batzar Nagusiek 1831-33an mahai gainean izandako planera, euskara indarberritzeko proiektura. Zer leku zegokien, egitasmo hartan, goiko sei azterbide horiei? Zer neurritan izan genuen Iturriaga, azterbide horietan, bide-urratzaile? Ikus ditzagun seiak, banan-banan.

#### 4.1. Euskara-erdaren egoera

Zer leku dagokie euskara-erdare, Iturriagaren garaiko gizarte-bizitzan? Zer neurritan egiten da euskaraz, eta zer neurritan erdaraz? Zer neurritako euskaldunak dira, oro har, gipuzkoarrak? Zer-nolako euskara egiten dute, hitzez eta idatziz? Zer moduko erdara? Zer jarrera modu eta zer jokabide gailentzen dira garai hartan, bere esanean, hizkuntza eta hiztun multzo biei buruz? Aukeran gutxi landua dago deskribapen kontu hori, Iturriagaren txostenean (143).

(138) Berdin jarrera kontuek eta hiztunen hizkuntza-gaitasunak.

(139) Azalpen aberats baterako ikus, adibidez, *Bilingual attitudes and behaviors*, in *Bilingualism in the Barrio*, Fishman, R. L. Cooper, Roxana Ma et al., 1968.

(140) Ez da erraza, azterbide honen izendapen onarturik bilatzea. Hoberik ezean, azterbide *ebaluatiboa* esan dakiok.

(141) Ikus, adibidez, Fishman-en *Reversing Language Shift*.

(142) Ikus, esate baterako, J. A. Fishmanen *Sociology of Language*.

(143) Azterbide deskriptibo hori eta hurrengo (zinetikoa) dira, nire ustez, Iturriagaren planean gutxien landurik dauden puntuak.

Hernaniar gehienegun eguneroko hizkuntza arrunta euskara dela erraz antzeman liteke Iturriagaren idazkietatik. Zehar-aipamenetatik ordea, ez aurreko aitoren argitik. Euskara-erdarek gizarte-bizitzan duten lekuaz jarduterakoan, eskola-mundura mugatzen du Iturriagak bere analisisa: eskola munduan, eta bereziki ikasleen artean, euskara-erdarak nola erabiltzen diren, edo ez diren, adierazten du berak. Bere esanean, dotrina kontura mugatzen da euskararen presentzia eskola-munduan (144). Euskara-erdaren, batez ere gaztelaniaren, lekuaz honako hau dio Agustinek: «La lengua castellana es lengua viva, pero no lo es respecto a la mayor parte de los bascongados y especialmente respecto a los niños.» Baina «hablando muchos el español entre nosotros, tampoco se puede llamar a esta lengua enteramente muerta».

Mintzatzeko eta idazteko gaitasunei dagokienez ere aipamen gutxitxo eskaintzen du. Oraingoan ere ikasleetan zentratutako Iturriagaren azalpena. Gaizki egiten dute ikasleek gaztelaniaz, bai eskolan dabiltzan urteetan eta bai gero (145). Euskara-mailari dagokionean ere aski aitormen etsia egiten du: «Apenas han aprendido algunas palabras sueltas en castellano se les obliga a hablar en esta lengua y por consiguiente a que vayan olvidando su corto diccionario bascongado». Hitz-altxorra aberasteko eta hizkera molde jasoan egiteko aukera, beste hizkuntzetako haurrei eta gazteei eskolak eman ohi diena, debekatua dute Iturriagaren garaiko gipuzkoarrek beren ama-hizkuntza. Hori dela-eta, beren hizkera-sorta osoa aldaera informalera, elaborazio kontzeptual laburrenora, mugaturik dute sarri, eta aldaera horietan ere erdararen interferentzia nabaria da.

Zer dio Iturriagak, azkenik, bere garaiko gipuzkoarrek euskara-erdare buruz pentsatzen dutenaz? Ezer gutxi dio hernaniarrak horretaz ere. Ikasleen autogorrotu linguistikoa aipatzen du une batean. Horra nola: «En otra edad, en que sienten más la necesidad de poseer el castellano, se aperciben de las dificultades, que para aprenderlo les pone el vascuence, y este conocimiento junto con el recuerdo de los fatales anillos y los castigos, que a ellos se siguieron, hace que aborrezcan su lengua nativa». Horrela bukatzen da, oker ez bageaude, azterbide deskriptiboari dagokionez Iturriagak bere txostenean dioena (146).

(144) Jakin badakigu beste hainbat iturritatik, Kardaberaz beraren aitormenetik hasita, hura ere ele bietan ikasten dela maizenik. Iturriagaren esanean, «tan pronto como entran en (la escuela de primeras letras), se principia por ponerles en las manos la cartilla castellana. Luego que han aprendido a leer en ella, se les da sucesivamente el astete, el caton, y otros libros, todos castellanos, y si se les hace leer y aprender la doctrina cristiana en bascuence es porque los mas de los párrocos acostumbran preguntarsela publicamente en la parroquia para la instruccion de los fieles».

(145) «para salir de la tortura, en que se encuentran, sin incurrir en la pena, que se sigue al fatal anillo, forjan entre sí a favor de algunas palabras sueltas, una especie de germanía o guirigay, tanto más ridículo y extravagante, cuando son diametralmente opuestas las construcciones de las dos lenguas, y esta jerigonza deja tales resabios, que apenas desaparecen del todo, aun después que se haya seguido la carrera de las letras».

(146) Zergatik egin ote zuen hain deskribapen laburra, ia kriptikoa? Eguneroko gauza horiek jakinak zirela eta, beraz, horretan denbora galtzerik ez zuela merezi pentsatuko zuen segu-

## 4.2. Euskararen eta erdararen gure arteko bilakaera

Hizkuntza kontuak aldatzen ari al ziren Iturriagaren garaian? Eta, aldatzen ari baziren, nola? Iturriagarentzat, bere garaiko guztientzat bezala, ez zegoen dudarik: aldatzen ari ziren gauzak Hernanin, Gipuzkoan eta Euskal herri osoan. Atzera zihoan euskara. Gero eta jende gutxiagok hitz egiten zuen euskaraz, eskualde osoak euskaratik erdarara pasa berriak zirelarik Bizkaian, Araban eta Nafarroan (147). Gero eta euskaldun gehiago elebidun ziren. Euskaldun elebidun haiek egiten zuten hizkera, berriz, gero eta mugatuagoa zen hitz-altxorrez, esapi-deez eta joskeraz. Gero eta erdal interferentziaz beteago zegoen beren hitz-altxorra, hots-ebakera eta joskera. Konmutaziorako joera ere sentitzen hasia zen han-hemen. Ondo begien bistan zuen hori guztia Agustin Iturriagak. Iztuetaerikiko elkar-idazketan halako aipamenik falta ez bada ere, 1830-31ko txostenean ez zuen bilakaera horretaz azalpen zehatz handirik eman ordea. Gauza jakinak iruditzen zitzaizkion horiek, Batzar Nagusietako jaun aldunei esan beharrik ez zeudenak.

Hori guztia horrela zela jakinik ere, Iturriaga ez zen berehalako mintzaldaketaren beldur. Argi zuen hori Agustinek, eta denborak arrazoi eman zion: Hernanin eta Gipuzkoako herri-herrixka gehienetan *euskara ez zegoen berehala galtzeko arrisku bizian*. Ondo zekien, ordea, etorri bazetorrela arrisku hori, luzera edo ez hain luzera, eta halakorik gerta ez zedin *garaiz hartu nahi zituen neurriak*. Bere bizialdiko arrisku nagusia ez zen luze-zabaleko mintzaldaketa, ez zen *language shift* edo *proceso de substitución lingüística* deitu izan dena. Egon ez zegoen 1830 inguruan, Hernanin eta Gipuzkoa gehiengan, etxean ikasitako euskara alde batera utzi eta bere ohiko eskulanean, kaleko tratuan eta, bereziki, etxean euskaldun-jendea erdara hutsean jarduten hasteko arriskurik. Ez erdara hutsean eta ez, askotan, ele bietan. Euskarak bere-bereak zituen oraindik, Gipuzkoako eskualde eta herri-herrixka gehienetan, etxea eta familia, auzoa eta kalea, herriko plaza eta feria-eguneko merkatua, herriko jai-giroa eta, oro har, aurrez aurreko mintzajardun biziaz oratu ohi den eguneroko bizimodu arrunta (148).

---

ruenik Agustinek. Jendea ez zetorrela Batzar Nagusietara gauzak nola zeuden entzutera, oker zeudenak zuzentzeko zer egin behar zen eztabaidatu, adostu eta onartzera baizik. Arrazoiz, noski. Eskertuko genukeen halere, geroko euskaldunok, horretaz ere argibiderik eman izan baligu. Beharrezkoa da izan ere, Iturriagaren proposamenak ondo ulertu nahi badira, zein gizarte-girotan planteatu ziren jakitea.

(147) Euskararen atzerakadaren jakitun zen Iturriaga. Jakitun eta minbera. Ikus bere txostenean zer dioen: «Pero veamos antes sus perniciosos efectos en aquellos pueblos de Vizcaya, Alava y Navarra confinantes con otros, donde tiene ya sentados sus reales la lengua castellana, y está en plena y pacífica posesión de su dominio. En ellos hoy los hijos de padres de familia, que aprendieron a hablar el bascuence, y lo pudieran hablar todavía, no entienden esta lengua, y los actuales párrocos son los que por primera vez han hecho resonar en aquellos templos acentos castellanos». Erdara euskararen etsai gertatzen ari zela argi ikusten zuen; ikusi ez ezik esan ere egiten zuen. *Language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketa gertatzen ari zen, bere jakinaren gainean, Euskal herriko eskualde eta jardun-esparru jakinetan.

(148) Iturri asko dago, euskararen nagusitasuna Gipuzkoako herrietan eta baserri-giroan bereziki, zenbaterainokoa zen aditzera ematen diguna. Har dezagun, adibidez, baikorregia zertan izanik



### 4.3. Zergatik ari dira gauzak aldatzen?

Iturriagaren txostenaren muinera hurbiltzen hasi gara, azterbide honekin. Gorago esan dugunez, oso interes txikia agertu zuen Iturriagak begien bistako gauzak adierazteko: bai une hartako hizkuntza-egoera deskribatzeko eta bai azken hamarkadetakoa bilakaera azaltzeko. Oraingo galdera-sorta, aldiz, maiteago du Agustinek. Zergatik doaz hizkuntza batzuk aurrera eta beste batzuk atzera? Zergatik egiten da euskaraz gero eta gutxiago? Zergatik dira euskaldunak beren hizkeran gero eta mordoiloago? Zergatik dago euskaldun horien hizkera gero eta erdararekin nahastuago? Lau galdera zorrotz dira horiek, eta laurentzat du Iturriagak erantzuna. Goazen pausoz pauso.

#### a) Zergatik doaz hizkuntza batzuk aurrera eta beste batzuk atzera?

Zenbaitentzat ez dago duda handirik: euskara eta beste hainbat hizkuntza desegokiak dira berez, gizarte berrirako. Horregatik, beren baitako tatxa horregatik, doaz atzera (149). Berez hala sortuak dira, tatxadunak, edota aldi berriek eskatzen duten garapenik ez dute izan eta, horrexegatik, atzeraturik gelditu dira: kasu batean zein bestean, ez dute gizarte berrirako balio. Beñat Oiharzabalek argi azaldua digunez, ikuspegi naturalista edo linguo-darwinista XIX. mendearen bigarren erdian garatua da gehienik. Horien aurrekoa izanik ere Iturriagak badu «berezko orban»aren arrazoi-bide klasikoaren berri, eta hura hartzen du ahotan. Agustinek ez du berezko (edo garapen-erak betiko erantsitako) orbanean sinesten. Hizkuntza batzuk barrutik ahulak direlako, orbandunak direlako, galtzen ari balira, orbangabeak lirateke indar betean ari direnak. Eta jakina, orbangabeak balira ezingo lirateke galdu, ez gaur eta ez gero. Galdu egin dira, ordea, behinolako hizkuntzarik indartsuenak ere.

---

ez duen iturri bat: Iruñeko Severo Andriani artzapezpikuaren eskutitza, erresumako Grazia eta Justizia ministroari egina (1851-XII-13; 1852-II-25). «En la parte de este obispado, que coresponde a la provincia de Guipúzcoa, se halla situada la gran casa de Loyola entre Azpeitia y Azcoitia, ambas poblaciones muy respetables, ya por la gente que se contiene en ellas, como por los muchísimos caseríos que abrazan y varias ante-iglesias que de las matrices dependen. Además hay en la misma Provincia las ciudades de San Sebastián, Fuenterrabía y las villas de Tolosa, Villareal, etc., hasta el número de cincuenta y tantos cabildos eclesiásticos. En todas estas parroquias y en todas (!) que pasan de ciento, *es más común la lengua vascongada que la castellana, a tal punto, que los que viven diseminados en los caseríos ni una palabra entienden de esta lengua* (beltxezkoa gurea).

(149) Beñat Oiharzabalek (2006a eta 2006b) argi aztertua du gure artean, Frantziako Iraultza geroztik Europako zenbait ingurumen intelektualetan indartzat joandako ikuspegia, guregana indar betean Unamunoren eskutik (baina aurrekari argiz: Hovelaque eta Vinson, kasu) iritsi zena. Badakigu, ongi, arrazoibide horren leloa zein izana den: euskara eta bere moduko hainbat hizkuntza txiki atzera badoaz, ez da kasualitate hutsa; ez eta ere, bestetik, gizartearen eraginagatik oro har eta, konkretuki, inork haien kontra duen jarrera edo jokabide galgarriagatik. Berez dute hizkuntza horiek eragozpen larria, beren barne-egituran daramate ezin garbituzko orbana, eta orban horrek ezintzen ditu gizarte berrian adierazbide argi, zalu eta zehatz izan ahal izateko. Beren baitako ezintasunagatik ari dira, beraz, atzeraka.

Iturriagaren aburuz, hizkuntza bat ez da belaunez belaun eta menderik mende bizirik gordetzen bere barruan aparteko birtuteak dituelako, gizartemoldaerarekin zerikusia duten motiboengatik baizik. Bere hitzetan esanik, «Si el mérito intrínseco de una lengua pudiera bastar para su conservacion, vivirán aun con todos los atavios, que las engalanaban, las hermosas lenguas, en que hablaron Demóstenes y Ciceron.» Gizarteko nagusitasun-moldaera da Iturriagaren ustez, ez berezko balio intrintsekoa, hizkuntzen bizi-iraupena edo galera determinatzen duena.

Beste zerbaitek erabakitzen du, Iturriagaren ustean, hizkuntzen atzeraurrera hori: «la dominacion es la árbitra de todas ellas, y mas tarde, ó mas temprano, tienen que ceder á su irresistible imperio; así es que la lengua bascongada va experimentando la suerte comun de todas las demas. (...) Si los países o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan á ser partes integrantes de un estado ó una nacion, la lengua que adopta por suya el gobierno será la dominante, porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalecerá pues sobre todas las demás, enriqueciéndose cada dia, y quizá en mucha parte á costa de las otras, y acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente. Tal es desde algunos siglos á esta parte la posicion de la lengua bascongada con respecto á la castellana, y tal la suerte final, que irremediamente le va á caber.»

Berea da, azkenik, honako azalpen hau ere: «La continua é íntima comunicacion, en que estamos con ella (hots, erdara), y la necesidad, que tenemos de poseerla, si hemos de conservar nuestras relaciones políticas con el gobierno, dedicarnos á diferentes profesiones, y hallar colocacion en la peninsula, y ultra mar, han hecho que nuestra lengua nativa experimente los efectos de la accion, que la castellana egerce sobre ella trabajándola de continuo y arrastrándola hacia su total desaparecimiento. Y, como no ha de ser así, si, consultando nuestras ventajas, procuramos nosotros mismos con todo el empeño, que ellas nos aconsejan, exterminarla de su suelo natal?»

Nondik edan ote zuen Iturriagak, formulazio teoriko horietara iristeko? Berak ez du halakorik esaten, eta kontuz ibili beharko da beraz. Oker egiteko beldur handirik gabe, iturri bitatik behintzat ugari edan zuela pentsa liteke halere: Nebrijaren 1492ko *Arte* edo *Gramatica*-ren hitzaurretik (150) batetik, eta Gregorio Mayansen 1737ko *Orígenes de la Lengua Española*-tik bestetik (151). Hortik edandakoa izanik ere, bistan da ondotoz urrunago joana

(150) Gogoratu «siempre fue la lengua compañera del imperio» eta abarrekoak. Kuriosoa da zinez, euskaldunoz egiten den aipamen espresua gogoan izanik eta atzerriko soziolinguista aditu batek baino gehiagok hitzaurre horri aspaldi aitortua dion garrantzia kontuan hartuz, Nebrijaren hitzaurreak gure artean ia inoren aipamenik ez jasotzea. Funtsezko diokumentua dela uste dut nik, 1500etik 1700era arteko gure hizkuntza-kontuak hobeto entenditzeko. Iturriaga Oñatin ikasle izan zen garaian ere testu-liburu gisa erabiliko zuen, seguruenik, Nebrijaren *Arte*a.

(151) Mayans-en hitzak dira, esate baterako, honako hauek: «así Cantabria como los pueblos vecinos procuraron siempre conservar su lengua (...) Lo que más contribuyó a la

dugula Iturriaga, bere formulazio jeneralean. Hizkuntza nagusian jarduteko beharra (ez gogoa) izan ohi dute hizkuntza ahuleko hiztunek, bizian aurrera egingo badute; behar horrek sortzen du hizkuntza batzuen gorabidea eta beste gainbehera. Lotura nabarmenak ditu Iturriagaren ikuspegi horrek, hizkuntza-soziologiaren XX. mendeko postulatuekin. Luze-zabaleko mintzaldaketaren iturri nagusietariko bat justu hor dagoela esan izan du hizkuntza-soziologiak, azken hamarkadetan: *social dependency relationship* deitu izan dio gertaera horri Fismanek (152), eta harreman-bide horren haritik doaz egungo esplikazio landuenak.

Oso azalpen zehatza da, nolana ere, hernaniarrak azterbide dinamikoaren alorrean eskaintakoa: bere aurretik inork egin gabea zuen horren parekorik gure artean (153). Iturriagaren ondoan, beste urte askoan, inork berriro egingo ez zuen modukoa. Aurrerapen argia zekarren Iturriagak, azterbide horrekin. Bazituen mugak ere, ordea: plano makro hutsean ari zen Iturriaga, honetan eta beste zenbait puntutan, bere oroitzatidazkian. Generalizazio-maila handiko, normalean hamarkada askoren (zenbaitetan, mendeen) buruan antzematen diren gertakariez ari zen bera (154). Hori baino plano hurbilagora jaitsiz ere bazegoen, ordea, zer esanik. Zerk eragiten du, konkretuki, euskararen gainbehera?

### ***b) Konkretuki zergatik egiten da euskaraz gero eta gutxiago?***

Konkrezio horretara iristean, bete-betean sartzen da Iturriaga bere mian. Bere ustez erdal eskolagatik ari da euskara galtzen. Hori du bere txosteneko argudio-bide nagusia. Horra bere hitzak: «Hechese una ojeada sobre nuestras escuelas de primeras letras y en ellas se tocará de lleno esta triste verdad. Allí se verá tramada una conjuración sistemática, y permanente contra la lengua bascongada: allí formadas las oficinas, en que se forjan constantemente armas para destruirla (la lengua bascongada), haciendo de los niños otros tantos titanes destinados á destronar á su madre. Estas no son figuras retóricas, no son exageraciones, ni espantajos, son la pura y exacta verdad, y la palparemos, si pasamos á examinar la práctica introducida en dichas escuelas de tiempo inmemorial, para enseñar á los niños el castellano (155).»

---

conservación del lenguaje fue el haber vuelto a la antigua rudeza y poco trato con las naciones cultas, siendo cierto que donde no hay comunicación con los extraños se conserva más la lengua antigua».

(152) Ikus, adibidez, Fishman et al., 1984: 61-2.

(153) Aurrekari asko dago, halere, azterbide dinamikoaren «etxeko» azalpenetan. Azterketa monografikoa eskatzen du horrek.

(154) Argudio-bide hori ez zuen Iturriagak bestelako analisisiekin behar bezain estu lotu.

(155) Egia da aspaldiko ohitura dela, Iturriagak hor azaltzen duena. Larramendik eta Kardaberazek ere izan zuten egoera horren berri, eta zorrotz kritikatu zuten. Kardaberazek, esate baterako, zera zioen (*Eusqueraren Berri Onac*, 1761: 16-19): «Seme, ta alabak chiquitatic Escolan Erdaraz, ta Eus-

Argudio-bide hori eraman zuen Iturriagak, esan bezala, 1831ko Batzar Nagusietara. Eskola zen, bere esanean, euskararen gizarte-arazoan iturburu eta eragile. Hori zen euskararen gainbeheraren motiboa. Eskola moldea aldatzea eskatzen zitzaizen hortaz Batzar Nagusiei, euskararen gainbehera eragozteko. Gauzak luzatuz joan ziren ordea, gorago esan dugunez, Batzar Nagusietan. Literatura-batzordekoek, berriz, lanean jarraitu zuten eta, une batetik aurrera, bigarren motiboa aurkitu uste izan zuten euskararen atzerakada esplikatzeke. 1833ko beren txostenak hau zioen: «Buscando las causas de la corrupcion y desaparecimiento progresivo del Bascuence, ha parecido que se encuentra en las Escuelas de primeras letras y en el Pulpito. En aquellas por la falta de medios auxiliares para enseñar a los jovenes la lengua castellana, sin perjuicio ó mas bien con ventaja de la nativa, y en éste por falta de un Diccionario manual del Bascuence al Castellano y del Castellano al Bascuence». Ikusten denez, euskararen atzerakadaren analisi dinamikoan bigarren aldagaia sartu zen, erdal eskolarenaz gainera: euskal gaiztoko edo erdara hutsezko eliz jarduera publikoa. Euskara jasoaren eta herri giroko talde-bizitzaren erreferentzia-gunetik aski euskara okerra (edo erdara hutsa) iristen zen. Jarduera hori, berriz, herritarren mintzajardunaren norma kolektiboetan eragiten ari zen: euskal erabileraren kontra eta erdal erabileraren alde (156).

### *c) Zergatik dago gero eta euskaldun garbi gutxiago?*

Eskolengatik: hori da Iturriagaren erantzuna. Hemengo eskolen hizkuntza-trataera okerra da oso, eta umeak horregatik ateratzen dira gero eta euskara aldetik pobregao.

### *d) Zergatik dago euskara gero eta erdararekin nahastuago?*

Erantzun egituratua, ordura arte gure artean inork eman gabeko koherentzia kontzeptualerik eta oinarri objektiboz hornitua, ematen dio Iturriagak gal-

---

caraz, edo guztietara oitu beardira, ta arrazoi gabeco lotsa beltz gaistoa pisatu, ta quentcera» (...) «Aldatequean disparateric bidegabeena da, Eusquera gazteai debeatu, ta madaricatu balego bezala castigatu, ta eragozte. Escolan bertan eracutsi ordu onean, ta Erdaraz jardun dezatela; baña guero libre, naiz Eusqueraz, naiz Gaztelaniaz: orrequin bietara eguingodira. Bestela Gaztelara gazteak badijuaz, an burla, ta lotsa andien costuan badere, Erdaraz icasten dute: ta nola Eusquera quendu cieten, ta jarduten ezduten, beren Erri, edo Echeetara biurtecan, alde gucietara barregarriac oidira: ta eguiaz esan oida: Gaztelania ez icasi, ta Eusquera bai aztu. Guero emen lotsa andiaz dacuscuna: ez itzeguiteco, ta ez alcar aditezco, Erdarazco, ta Euscarazco naspilla moldacaiz eta nazcagarribat enzunoida. Bedeica nic daquician Maestra estimagarri errespeto andico bat, bere gracia onarequin, ta castigu gabe ume inocente, sei urtecoai ere, **Eusqueraz, Erdaraz, ta Latinez berdin**, chit trebetasun andiaz, ta ederqui lotsaric gabe iracurten eracasten diena. **Ojala ori bera Maisu guciac eguiten balute.**

(156) Bat dator hori, beste alderditik begiratuta bada ere, Barbageroren 1861eko diagnosiarekin.

dera horri: «*Una lengua mantiene su primitiva pureza, y se conserva ilesa, mientras está aislada. Desde el instante en que, saliendo de su aislamiento, se pone en comunicacion con otras, empieza á corromperse y perderse. Tal es desde algunos siglos á esta parte la posicion de la lengua bascongada con respecto á la castellana, y tal la suerte final, que irremediamente le va á caer. La continua é íntima comunicacion, en que estamos con ella (...) han hecho que nuestra lengua nativa esperimente los efectos de la accion, que la castellana egerce sobre ella trabajándola de continuo y arrastrandola hacia su total desaparecimiento*».

#### 4.4. Nora goaz, hizkuntza kontuan?

*Nora goaz, gauzak horrela segitzen badu, euskara-erdaren kontuan? Non bukatu behar dugu, hemendik 50 edo 100 urtera? Galdera horiei ere erantzun zien Agustinek, bere idazkian. Ilun ikusten zuen Iturriagak euskararen eta euskaldunon etorkizuna. Gindoazen bidetik gindoazela, ez zegoen atarramentu onik. Alferrik zen euskararen ederra eta euskararen argia goraiptatzea. Alferrik zen garai bateko bere hedadura zabala eta nagusitasun erabatekoa argudiatzen saiatzea. Bere hitzetan esanik, «lo que veo es que mientras nuestros filólogos están haciendo la anatomía de esta lengua, se nos va escapando de las manos, digamoslo así y (...) si nos descuidamos, nos vamos á quedar como el cuervo de la fabula hinchados de vanidad y sin queso. Que importa (...) todo esto, si cada dia camina con mas celeridad ácia su perdicion, y se nos va á desaparecer totalmente?»*

Iturriagaren ustez, ezer egiten ez bazen galdu egingo zen euskara. Eten handia gertatua zen Hernanin, eta seguruenik Gipuzkoa osoan, bi belaunaldiren buruan. Bera baino bi belaunaldi zaharrago zen Kardaberaz, eta harentzat ez zegoen dudarik euskarak bizirik iraungo zuela menderik mende (Kardaberaz, 1761) (157). Kardaberazentzat bakarrik ez: oso diferenteak dira, oro har, «nora goaz?» galderari diglosiaren iraunkortasunean oinarritzen diren autore zaharrek (Kardaberazek eta bere kidekoek) ematen dituzten erantzunak, batetik, eta Wilhelm Von Humboldt-en eskutik ari diren pentsalari eta idazle gazteagoen ikuspegia, bestetik. Azken hauetakoa zen Agustín Iturriaga (158). Ez ordea bera

---

(157) Kardaberazaren ustea, funtsean, honako hau da: Baserritarrik bizi den artean, euskara bizirik izango da. Iritzi horretakoak ziren beste hainbat, urte-garai beretsuan. Are gehiago: Ordóñezek ez zuen ikusten euskara Donostiako kalean ere galtzera zihoanik (Ordóñez 1761).

(158) Euskararen galera ez zen, Gipuzkoan, planteatu ere egiten Mendibururen, Kardaberazaren eta gainerakoien idazkietan. Iturriagaren belaunaldiak, berriz, aski gauza probabletzat hartzen du galera-arrisku hori: ez berehalakoan, baina bai belaez belaeuko perspektiban. Eten handia dago, 1700-10 inguruan jaiotako euskal idazleen eta 1770-80 inguruan jaiotako artean. Azken hauek, Iturriaga tartean dela, argi ikusten dute euskara galtzeko arrisku bizian dagoela. Araba-Nafarroetan (eta parteren batean Bizkaian) beren begien bistan dute hizkuntzaren galera. Bizkai-Gipuzkoetan ere, hain berehalako kontua ez izan arren, arriskua badagoela ikusten dute.

bakarrik: Erro batek euskara indarberritzeko berariazko elkarte edo batzordea eratzea proposatu bazuen, Barroeta Aldamarrek proposamen hori Mondragoeko batzarraldira eraman bazuen eta bertan bildutakoek euskara ez galtzeko neurriak aztertzea erabaki bazuten, seinale da arriskuaren kontzientzia aski zabaldua zegoela jendearen (gipuzkoar jakitunen eta zezakeen jendearen) artean.

Luze-zabaleko mintzaldaketa (159) zergatik gertatzen zen azaltzen saiatu izana: hori da Iturriagaren ekarpen nagusia. Iturriagaren pasarterik etsigarriena eta kopetilunena dugu hori, dudarik gabe. Generalizazio-maila handienetako bat ere bai. Pasarte batean badirudi Iturriagak ez duela ikusten, ezer eginaz ere euskarak salbaziorik duenik: «tal la suerte final, que irremediabilmente le va á caber». Euskararenak ez du erremediorik, itxuraz, Iturriagaren us-tean (160). Bigarren puntu horretan, Ilustrazioaren eta harrez geroko progresu-paradigma mekanizistaren oihartzun bortitza ageri da Iturriagaren hitzetan. «Egiten duguna egiten dugula, gureak ez du konponbiderik».

Gero, ordea, txosten berean, aurrez aurre gezurtatzen du Iturriagak hasieran esandako hori. Ba omen dago modurik, euskara bizirik ateratzeko: ez, beharbada, nahi litzatekeen neurri osoan; baina bai behar adinako neurrian. Hori bakarrik ez: horrela jokatzuz gero, galdutako eremuak ere berreskuratu ahal izango omen dira euskararentzat, tentuz eta elkar hartuz, indarrak bilduz egiten badira gauzak (161).

#### **4.5. Asmoak, interesak eta ikuspegiak**

Euskara-erदारak direla-eta, galdezka ari da jendea: nora joan nahi dugu, hizkuntza kontuan? Zer leku dagokio euskarari, gizarte berrian? Posible al da, hori? Merezki al du? Bide onetik al goaz, joan nahi dugun lekura garaiz eta zuzen iritsi ahal izateko? Era honetako galderak dira, atal honetan ikustekoak. Has gaitezen puntuz puntu

##### **4.5.1. Zein da Iturriagaren helburua?**

Hiru zatitan emanik dator Iturriagaren erantzuna: gizarte-perspektiban, hiztunen mailan eta hizkuntzaren barne-egituran. Ikus ditzagun hirurak:

---

(159) Mintzaldaketaz bazen, lehendik ere, berariaz jardundako aditurik: bai Nafarroan (Ulzurrun) eta bai Araban (Landazuri). Ez, ordea, ikuspegi zinetikoari osagai dinamikoak hain plano generalean erantsitakorik.

(160) Hori esan nahi al du? Baliteke hala izatea. Orduan ere, ikusi egin beharko genuke zer epe-moduez ari den: Bizpahiru belaunaldiz? Bizpahiru mendez? Epe luzeagoaz? Idatzita dagoen moduan, epe luzeaz ari dela dirudi. Ilun jarraitzen du, halere, puntu honek.

(161) Iturriagaren 1830-31ko testua ez da barne-tentsiorik gabea. Honako hau da, konkretiki, tentsio-punturik handienetako bat.

- a) *Zer egin nahi dugu euskara-erdarekin, gizarte-bizitzako erabilerari dagokionez? Zer egin nahi dugu, konkretuki, euskararekin? Bizirik gorde nahi al dugu? Indarberritu egin nahi al dugu?* Lehenengo galdera multzo honetan, erantzuna partez emana aurkitu zuen Iturriagak: ***euskara bizirik gorde nahi zen***. Hori baino gehiago ere bai: *ilustratu* egin nahi zen euskara, bizirik gordetzeaz gainera. Labur esanik, bere atzera-martxari fretoa jarri nahi zitzaion, eta lanketa bidez indarberritu. Hori zen Gipuzkoako Batzar Nagusien posizio ofiziala, 1830. urteko akta ofizialetan jasoa. Horretan ez zuen beraz, Iturriagak, burua nekatu beharrik izan. Airean gelditzen zen, ordea, puntu horretako lehen galdera: «Zer egin nahi dugu euskara-erdarekin, gizarte-bizitzako erabilerari dagokionez?»

Galdera hori erantzun gabe zegoenez, aurrez aurre heldu zion Iturriagak. Ikus dezagun nola: «Destruyamos pues desde luego esta práctica tan perniciosa a la lengua bascongada, y sustituyámosle otra, que la hermane con la lengua castellana haciendo que se auxilién recíprocamente, y que de enemigas, que eran hasta aquí, se hagan y sean en adelante íntimas amigas y compañeras. ¿qué pretendemos, o qué necesitamos nosotros en nuestra posición actual con la lengua castellana? Aprenderla y llegar a poseerla con la mayor perfección posible. (...) Y ¿qué han hecho con nosotros para enseñárnosla, y qué hacemos nosotros para enseñar a nuestros jóvenes? Erizarla de dificultades, haciéndola chocar de frente con nuestra lengua nativa y poniéndola en pugna con ella, pero en una pugna tan encarnizada como perjudicial a nuestra lengua nativa. Ya que por la naturaleza de las cosas esta lucha es desigual, y el triunfo ha de quedar para la lengua castellana, salgámosle al encuentro, recibámosla de paz, introduzcámosla como amiga en nuestra casa,...»

Lehen begiratuan argia dirudi, bere asmo nagusiaren berri ematen duen testuak: ele biko marko instituzionala sortzea planteatzen du Iturriagak. Bi hizkuntza izango dituen gizartea (162). Kontua ez dago,

---

(162) Txostena behin eta berrero irakurritz, halere, duda bat gelditzen da airean: ele biko gizarteaz ari da Agustín, edota soilik ele biko eskola-sistemaz? Diglosia-marko tradizionala apurtzen ari zela eta apurketa hori euskararen kaltean zela ikusirik, erdibideko gizarte-moldaera berria bideratu nahi zuen Iturriagak, pasarte batzuetan dirudien moduan, edota eskola elebidun batez ari zen soil-soilik? Erantzuna lehenengoa izatera, nolako konpartimentazio fisiko eta soziofuntzional berria eratu nahi zuen euskara-erdarentzat, gauza jakina baita konpartimentazio hori gabe erredundantzia funtzionala ezin dela luzaroan mantendu eta ezintasun horrek mintzaldaketara lehenik, eta kontestualki ahula den hizkuntzaren galera osora gero, eramaten duela ezinbestean. Zer konpartimentazio modu zuen Iturriagak buruan, halakorik baldin bazuen? Funtsezko galderak dira horiek, oraingoz airean utzi beharko direnak. Denborarekin, Iturriagaren dokumentu idatzi gehiagok eskuratzen bada, litekeena da oraingoz zabalik utzi den galdera sorta horri erantzun konkretuak ematen hasi ahal izatea. Nolanahi ere, Iturriagak egiten dituen proposamenetan hau da gizarte-inpakturik handienekoa eta, zoritxarrez, egileak berak ahulnik zehaztutakoa.

ordea, nahi bezain argi. Lastima handia da, horixe baita txosten osoaren eztabaida-gune nagusietako bat.

- b) *Zer egin nahi dugu ikasleekin? elebakarrak sortu nahi al ditugu? euskal elebakarrak?; erdal elebakarrak?; elebidunak?; nolako elebidunak?* Galdera-sorta honek erantzun argia zuen, Iturriagaren asmoan: euskaraz eta gaztelaniaz ondo irakurtzen (eta, seguruenik, baina ez erabat seguru, ondo idazten) jakingo zuten gazteak sortu nahi zituen Iturriagak. Hori baino gehiago ere bai: gramatika, eragiketa aritmetikoak eta, jolas bidez, natura-zientzien oinarriko informazio tekniko-profesionala euskaraz eta erdaraz eskaini nahi zitzaizkien ikasleei. Horrekin guztiarekin, euskaraz eta erdaraz ondo moldatuko ziren gazteak prestatu nahi zituen berak.
- c) *Zer-nolako euskara zabaldu nahi da?* Euskara ona nahi zuen Iturriagak: ahal zen neurrian txukuna, gaztelaniaren morrontza handiegirik gabea. Baina entenditzen erraza eta erabiltzerakoan eroso sentitzeko modukoa. Larramendiren hiztegiarekin bakarrik bazekien berak jai zegoela, terminologia teknikoa sartzerakoan. *Dialogo*-jolasetan, bereziki, «se ha tenido mucho cuidado en la introducción de voces vascongadas, poco o nada usadas, para que no hagan ininteligibles las frases y se vayan adoptando y generalizando paulatinamente.»

Euskararen atzera-martxari alto ematea espero zuen bere planarekin, lehenik eta behin, Iturriagak. Hizkuntzak azken mendean galdutako lur-sailak berriro eskuratu ahal izatea ere ez zuen begien bistatik kentzen. Hots, euskara indarberritzeko plana zen berea, *language acquisition* eta guzti. Fishman-en eta Lovas-en 1970eko sailkapen famatuaren arabera *full bilingualism* edo *elebitasun betea* eragin nahi zuen Iturriagak, bere metodoaz, Gipuzkoako ikasleen artean. Erabateko elebidun funtzionalak sortzen lagundu nahi zuen. Gipuzkoako gazte guztiengan pentsatzen ari izango zela uste izan liteke. Eta agian hala izango zen. Jakin badakigu, ordea, bere barne-asmo maiteena zein zen: baserrietako ume eta gazteentzako eskola-molde elebiduna sortzea (163). Batez ere haiek atenditzea: hori zuen bere xede nagusia.

Hizkuntza bera txukundu, hainbatean bateratu eta terminologia aldetik elaboratu egingo zela horrela espero zuen Agustinek. Hizkuntza-plangintzaren munduan batere arraroa ez den bidetik, *cultivation* eta *implementation* bidetik lortu nahi zuen berak euskararen corpus-plangintza aurrera eramatera.

---

(163) Honetan ez dago duda handirik, nire ustez: Iztuetaari eginiko eskutitzetan, behin eta berriro dio hori. Ikus, esate baterako, bi aipamen hauek: «Nic sinisten eta esperatzen dedan eran provinciaco Jaunac beguiratcen badie gure lanari, ecusico du cer gausac ateraco ditugun eta cer prochuscoac necazari gendearentzat, eta cer honra andia emango diogun euskalerrari» eta «Laster aci bearra degu irrugarrenarequin gure necazari prestuai itceguiten» (Ikus VI. eranskina, 11. eta 15. dokumentuak).



#### 4.5.2. *Posible al da helburu hori? Merezki al du saiatzea?*

Nola ikusten zuten kontu hori Iturriagak eta bere lankide-taldeak? Eta nola ikusten zuten kontua Batzar Nagusiek? Nola ikusten zuten asmoa, azkenik, berrikuntza horien hartzaile izan zitezkeen instantziek eta pertsona jakinek?

- a) *Iturriagaren ikuspegia eta ekarpena*. Entusiasmo handiz egindako saioa izan zen Iturriagarena, 1830etik 33ra artean. Entusiasmo horrek bere ikuspegia ere markatu zuen, hainbatean. Bai lehenengo galderari eta bai bigarrenari baiezko erantzun espresua eman zien Iturriagak, oroitza-idazkian bertan.
- b) *Batzar Nagusien jarrera eta deliberamendua*. Hasieran, kontua mahai gaineratu zenean, baiezko betea eta babes sendoa izan zuen proiektuak. Hiru urteko ibilian gesalduz eta epelduz joan zen ordea, gorago esan den gizarte-giro bihurrian, euskara indarberritzeko asmo hura (164).
- c) *Gainerako instantzia kolektiboen eta norbanako jakinen interesak*. Hain berrikuntza zabalak interes eta ikuspegi kontrajarri asko jar zitzakeen airean, eta interesdun horiek garbi jokatu zuten: kontrako interesa zutenek plana ahultzera joko zuten, ez indartzera (165).

---

(164) Hasierako entusiasmo hura ahulduz, indargalduz eta desitxuraturaz joan zen hiru urteko tartean. Azken unera arte, halere, eskola-materialak ateratzeko asmoari zutik eutsi zitzaion. Aldaketa handien eta filosofia oso bat hipotekatzearen truk, ordea. Posibilismoaren amildegi-ertzean mugitu behar izan zuten, agian, Sustapen-batzordeak eta Iturriagak berak, zerbait egitea ezer ez baino hobe dela onartuz. Edota beraiek konturatu ziren, hilabeteek eta urteek aurrera egin ahala, begiz jotako xedeak eta hartarako hartu nahi ziren erabakiak ezin uztartuzkoak zirela. Liburuxka batzuekin ezin zen, ametsetan ere, mendeetako eskola-sistema gauetik goizera aldatu eta gizarte berri bat eraiki: Ilustrazioaren hoberena eta beldurgarriena berekin zuen Iturriagaren planak, erromantizismoaren txuri-gorritzko amets erakargarrienenkin oraturik. Ederregia zen plana, hain erraz eta hain kolpean egia bihurtu ahal izateko: nola espero zitekeen, bere bizi osoan euskaraz irakurtzen ohitu gabeko maisu-maistrak, alfabetatze-eragile sendo bihurtzea kolpean? Zer gizarte-indargarri izan zezakeen euskarazko praktika sozioedukatibo batek, horren aldeko elite formatu, konsziente eta eskudunik gabe? Noraino eraman zitekeen formula berria aurrera, gurasoen eta herritarren gogo bizirik gabe? Hiru urte horietan gauza bat baino gehiago hausnartzeko aukera izan zuten batzuek eta besteek, nolana ere, eta litekeena da asmoen beharpena autorregulazio bidez ere sortu izana.

(165) Elizgizon guztien posizioa ez zen uniforme puntu honetan, eta bistan da elizak berak interes argiak zituela eskola kontuan. Jakin ez dakigu, esate baterako, hiru urte horietan Gipuzkoako artziprestazgo nagusiak Iturriagaren planaz ezer esan zuen. Bestelako interesdunik ere bazen tartean: irakasleen multzo zabala, oro har, eta gidaritzaren moralak berekin zuten irakasle gailenak. Luis Astigarraga, esate baterako. Ez dakigu Astigarragak begi onez edo makurrez hartu zuen Iturriagaren plana. Aurrera ateraz gero, 1825eko eta 1828ko bere liburua zirkulaziotik kanpora utz zezakeen plan horrek. Nekez egon zitekeen Astigarraga, bere «ume kuttuna» hipotekatuko zuen formula baten alde. Interes horiek ere kontuan hartu beharko lirakeke, azterbide ebaluatiboa bere betean osatu ahal izateko.

#### 4.6. Azterbide preskriptiboa: zer egin behar da, helburua lortzeko?

Hizkuntza-soziologia aplikatuaren esparrua da, bete-betean, orain ikustera goazena. Azken mende-erdiko terminologia teknikoan izen bat baino gehiago jaso izan duena baina, nagusiki, *hizkuntza-plangintza* esan ohi zaiona. Hizkuntzaren gizarte mailako problemei irtenbide antolatua bilatzeko saioen azterketari esan izan zaio, beste zenbait definizioen artean, *language planning* edo hizkuntza-plangintza.

Asmoa aurrera ateratzeko zer arazo ikusten zituen Iturriagak, aztertua dauka-gu aurreko atalean. Arazo horiek konponbidean jartzeko zer neurri hartu nahi zituen ikusiko dugu orain, Iturriagaren eskutik azterbide preskriptiboaren alorra hurbilxeagotik arakatur. Planaren oinarri teorikoak aztertu behar dira horretarako, batetik, eta bere aplikazio praktikoa ikusi bestetik. Ezagunena bigarren zatia bada ere Iturriagaren kasuan, soziolinguistikaren aldetik bere oinarri teorikoen ikustaldia da, dudarik gabe, erakargarriena. Has gaitezen hortik, beraz.

Zer egin behar da gero eta jende gehiagok, gero eta jardun-gune eta harreran-sare gehiagotan, euskaraz egin dezan? Galdera horri erantzuten saiatu zen Iturriaga, bere garaiko inor baino zehatzago eta esplizituago. Horixe du bere meriturik handienetakoa: galdera on bati erantzuten saiatu izana. Erantzuna bilatzerakoan, bere irizpide nagusiak bi eratakoak izan ziren. Batetik, «zerk ez du balio?» Galderari erantzun zion. Bestetik, berriz, «zerk balio du edo balio luke?» galdera argitzen saiatu zen. Goazen gu ere, puntuz puntu, galdera biak bereiz lantzeraz.

##### 4.6.1. Zerk ez du balio, euskara indarberritzeko?

Azterbide preskriptiboa da hori, ez preskriptiboa. Halere, teoria aldetik hain landu-arin egonik azterbide preskriptiboa, ikuspegi preskriptibo hori ez da gauzak argitzen hasteko hain puntu okerra. Hiru argudio-oinarri eskaini zituen Iturriagak, ikuspegi horretatik. Hirurak ere aski berriak ziren: ordura arteko ikuspegi nagusiak auziperatzen zituztenak. Ikus ditzagun Iturriagaren hiru argudio-oinarriok.

##### a) Euskara ez da apologiazko lanen bidez indarberrituko

Hori da Iturriagaren abiaburua. Hortik ekiten dio bere planari. Segurutzat ematen du abiaburu hori, eta hortik aurrera hasten da gauzak xehetzen. Horra bere hitzak: «lo que veo es que mientras nuestros filólogos están haciendo la anatomía de esta lengua, se nos va escapando de las manos, digamoslo así y que si nos descuidamos, nos vamos á quedar como el cuervo de la fabula hinchados de vanidad y sin queso. Qué importa que el bascuence sea própri-

simo en la significacion de sus voces, muy cortés en sus fórmulas y expresiones; ordenadísimo en sus reglas, conexo y consecuente en su construcción, armonioso sin par; rico y copioso en vocablos, la mas antigua lengua de España, universal por un tiempo en la Península, primitiva, si se quiere, y como tal inspirada por el mismo Dios á nuestros primeros padres?. Qué importa, digo, todo esto, si cada día camina con mas celeridad hácia su perdicion, y se nos va á desaparecer totalmente? Astarloa, Erro eta konpainia egiten ari diren lana entenditzen du Iturriagak, eta begi onez ikusten ere du agian. Baina burua hotz dauka Agustinek, eta oso garbi ikusten du hortik ez dagoela irtenbide onik. Euskararen aldeko hitz ederrekin jai dagoela, besterik egiten ez bada. Bide-berritzaile da Iturriaga, horretan. Mendeetako tradizio bati etxe barruko kritika mingotsa eginez, ikuspegi egokiagoen aldeko apustua egiten ari da.

*b) Hizkuntzen etorkizuna ez dago beren barne-egituran*

Ez da egia, hizkuntza batzuk berez direnik hobeak bizirik irauteko eta beste batzuek, euskarak adibidez, beren baitan (bere barne-egitura desegokian) daukatenik bizi ezinaren gaitza. Hizkuntza guztiek balio dute, berez, aurrera egiteko. Hizkuntzaren galbidea ez dago bere barne-egituran, beste nonbait baizik. Modernoa da Agustinen ikuspegi hori ere: XX. mendera itxaron behar izan da, linguistikan eta hizkuntza-soziologian, gertaera horretaz osorik jabetzeko. Iturriaga ez zen batere esentzialista. Ikus bere hitzak: «Si el mérito intrínseco de una lengua pudiera bastar para su conservacion, vivieran aun con todos los atavios, que las engalanaban, las hermosas lenguas, en que hablaron Demóstenes y Ciceron.» Argi eta garbi bereizten da Iturriaga, horretan, euskal apologistengandik. Ez horiengandik bakarrik ordea. Baita euskal detraktore esentzialistengandik eta, oro har, hizkuntzen atzera-aurrera beren barne-egituraren arabera planteatu izan duten guztiengandik ere (166). Azken muturreraino eramán izan du jarrera hori Iturriagak. Hizkuntzen geroa ez ezik hizkuntza bat L2 moduan ikasteko erraztasuna ere nagusiki ez dela bere egituraren mendeko: hori ere idatzia dauka argi asko: «Eraqueria da uste izatea iscuntza bat bestea baño gaitzagoadala: beguirá cein laster eta ederqui itceguiten duten eusquera chorrosquille, paarguille eta chiquiratzalleac. Eusquerac ez du beste cer esanic autsez betea beti vici izatea besteric.» (Iturriagak Iztuetari idatzitako eskutitza, in VI. eranskina).

*c) Corpus-plangintza hutsak ez du balio, euskara indarberritzeko*

Iztuetari egindako eskutitz batean aurrez aurre heltzen dio gaiari, bere ikuspegi pertsonaletik abiatuta. Horra zer dioen Iturriagak: «Nic ecusten dera-

---

(166) Gorago, hizkuntzen azterbide dinamikoaz jarduterakoan, jorratu dugu puntu hori. Orain ez goaz, hortaz, han esandako kontuak berritzen hastera.

na da eun urtes onontz arimbat eusquera ezdala moldizquiratu, eta alaere ez dala gure itzcuntza euscaldunen beren artean ere obetoago icasten eta mintzatzzen. *Ez det ere uste hitzteguinaquin zaitiraunducodala.*» (Ikus VI. eranskina, 2. dokumentua). Esan nahi duena ondo ulertzen bazaio (kasu honetan, adiera ez dago batere argi) hiztegitzak ez du lortuko euskarari belaunez belaan bizirik eustea. Bere baitarik eta bere hutsean ez du hartarako eragimenik. Ikuspegi modernoa da hori ere, inon halakorik bada. Hizkuntza-soziologiak eta hizkuntza-plangintzak aski berrikitan asumitu duten ikuspegia (167).

Zer egin behar ez den, edota ordura arteko moduan zertan denbora pasatzea aski alferrikako den, esana digu argi. Hori ez da ordea, berez, jarduera preskriptiboa. Jarduera proskriptiboa, zer egin behar ez den azaltzen duena, da hori. Esan al digu Iturriagak, horrezaz gainera, zer egin behar den? Bigarren hau da, izan ere, benetako jarduera preskriptiboa. Bai, esana digu. Horri erreparatuko diogu, hortaz, hurrengo puntuetan.

#### **4.6.2. Zer egin behar da, euskara indarberritzeko?**

Iturriagaren ustez, alor batean baino gehiagotan jardutea komeni da. Alor fisiko-demografikoan batetik, soziokulturean bestetik eta eskola bidezkoan hirugarrenik. Are gehiago: eskola bidezko jardunak bigarren alorrean ere eragin onuragarria izango duela espero du berak.

##### *a) Ahal bada, isolamendu fisikoa eta konpartimentazio soziofuntzionala mantendu*

Garrantzitsua da, oso, isolamenduaren edo konpartimentazio fisikoaren puntu hau. Iturriagaren idazkia ez da gai honetan, zoritxarrez, batere argia. Kontuz aztertzea komeni da, hortaz, ondorio okerrera ez iristeko. Has gaitezen, horretarako, Larramendiren ikuspegitik. Isolamendu fisikoaren alde agertua zen Larramendi, bere garaian, Gipuzkoako errepide-sare nagusia berritzeko eta urruneko joan-etorria ugaritzeko planak eratu zirenean. Iturriagaren beraren esanean, Larramendi ez zegoen bide-berritze horien alde. Bide berri horiek jendearen (bertakoen eta arrotzen) joan-etorria areagotuko zuten, eta euskaldunen erdaldunekiko kontaktua indartuko. Horrek guztiak, ezinbestean, ondorio jakinak izango zituen euskara-erdaren erabilera-molde nagusian: euskarazko jardunguneak murriztuko zituen bideberritze horrek, hainbat euskaldun

---

(167) Hizkuntza-soziologiaren eta hizkuntza-plangintzaren ekarpen sendoenak, puntu honi dagokionez, zera dio: oinarri sendoa duen status-plangintza baten altzoan, eta horrekin koherentea den moduan eratzen den heinean, eman ohi du hiztegitzak eta corpus-plangintza osoak begiz jotako fruitua: bestela ez.

elebakar elebidunduko zuen bestetik eta, azkenik, elebidun horien euskara erdal interferentziaz beteko.

Iturriaga, 1830-31ko bere txostenean, bidegintza dela-eta Larramendiren kontra agertzen zen une batez. Kalte horrek ba omen zuen bere alderdi ona. Hala zioen Iturriagak: «miraba con ceño y desaprobaba (Larramendiz ari da) la abertura del camino real para Castilla y Francia. Lo que no vió, y hubiera visto acaso, á haber vivido mas, ó haber tenido mas tiempo, es el medio de convertir en ventaja de la lengua bascongada». Horren arabera, kalte hori mesede bihur zitekeen. Bazirudien, hortaz, Iturriagaren iritzian isolamenduari eustea, eta bere bidez euskara-erdaren ordura arteko konpartimentazio fisikoa eta soziofuntzionala zaintzea, ez zela hizkuntza txikia indarberritzeko hain garrantzitsua. Egokia ere ez, agian. Ordura arteko eta geroztikako azalpen gehienek kontra zetorren Iturriagaren baieztapen hori.

Badakigu Iztuetak kontra egin ziola Iturriagari, iritzi hori zela medio. 1831?-VI-16ko eskutitzean, ordea, Iztuetaren kritika hori zela-eta honako hau zioen Iturriagak: «Adisquidea: berorrec dionez eta On Manuelec esan diranez ez nau ongui iracurri. Ez det nic esan aita Larramendic arrazoiric ez daucala bide berrien gañean. Lembicico alcar ecustean, berorrec ustebaño urbillago arquituco guera alcarren gai onetan beste ascotan bezela.» (Ikus VI. eranskina, 12. dokumentua).

Are gehiago: 1830-31ko txostenean bertan, beste pasarte batean, honako hau esaten du Agustinek: «Una lengua mantiene su primitiva pureza, y se conserva ilesa, mientras está aislada. Desde el instante en que, saliendo de su aislamiento, se pone en comunicacion con otras, empieza á corromperse y perderse». Isolamendua lehen mailako eragiletzat hartzen du, hortaz, Iturriagak.

Azkenik, eta hori guztia aski ez bailitzan, kolera-izurritearen arriskua zela-eta berak Iztuetari esandakoa oso kontuan izan behar da: «Los males físicos como los morales tienen su origen en la acumulación de la gente. Nos podríamos unos a otros como se pudren los huevos o las manzanas, y este nuestro dichoso suelo lleva en el esparcimiento de su población el principio de todo género de felicidades. *Nos faltan para nuestra dicha poblaciones grandes y ojalá no lo fomentaran esa* (Donostiaz ari da) *y alguna otra del país*». Ikus VI. eranskina, 19. dokumentua.

Ondorioa oso argia da: Iturriagak ez du konpartimentazio fisikoaren garrantzia ukatzen. Lau kasutatik hirutan, konpartimentazio horren garrantziaren alde mintzo da. Hiru horietariko batean, gainera, zera dio: isolamenduaren kontra hitz egin duela uste dugun kasu bakarrean gaizki ulertu diogula. Gauza ona da beraz konpartimentazio hori, Iturriagaren ustean, gurea bezalako hizkuntza txikientzat. Ona da eta, ahal izanez gero, zaindu egin behar da: «ojalá no lo fomentaran (deskonpartimentazioa)» Donostiak eta bestek. Nahi izatea ez da, ordea, aski. Behinolako isolamendu-maila galtzen hasia da Gipuzkoa, Mendebal Europa gehiena bezala, eta euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzionala ere pitzatzen hasia da joan den hots, XVIII. mendetik.

b) *Isolamendu hori osorik atxiki ezin denez, «beste zer bait» egin behar da*

Posibilista da Iturriaga, inon halakorik bada, eta ondo asko daki esaera zaharrak zer dioen: «ahal denean ahal dentxo». Isolamendu zaharrari bere osoan ezin eutsi zaio: gizarte-urak beste bide batean barrena doaz. Ezintasun horregatik dio berak, gertatzen ari den gizarte-berrikuntzarekin ezin litekeela konpartimentazioa antigioaleko moduan mantendu. Badaki errepide berriak, jendearen joan-etorria eta merkatu-zabaltzea etorri badatozela: *factum* horrekin kontatuz egin nahi ditu berak euskara indarberritzeko planak, ez berrikuntza horien aurrean begiak itxiz.

Ilun samarra da Iturriagaren argudio-bidea, puntu honi buruzkoan. Iluna izanik ere badago modurik, argudio-bide horren arrasto nagusiei heltzeko. Honelatsu doa bere arrazoi-bidea, nire ustez: «maila bateko deskonpartimentazio fisikoa onar dezagun, gainean baitugu gustatu edo gustatu ez. Gaztelania onar dezagun, euskararen galgarri izango ez den gizarte-moldaera indartuz». Hori da, funtsean, Iturriagaren oinarrietako bat. «Egunetik egunera nabarmenago den isolamendu-galera ezinbestekoa denez, eta horrekin datorren deskonpartimentazioak etxeraino sartuko digunez gaztelania, onar dezagun esku-zabalik eta presta dezagun gure gizarte-bizitza hizkuntza biko eszenario horretarako. Orain arte etsai izandakoak adiskide ditzagun (168), aurrera begira». Hori da Iturriagaren ikuspegia, isolamendu-galerari eta deskonpartimentazioari dagokienean. Hizkuntza biko eszenario horretan euskara-erderei egoituko litzaiekeen funtzio- eta esparru-banaketa berriaz ez da, ordea, ia ezer esaten. Eskola-munduko leku-banaketa bakarrik mintzo da Agustin, halako zehaztasun-maila batez. Gainerakoaz, eta gainerakoak osatzen du gizarte-bizitzaren %95 baino gehiago, ez du ezer esaten. Konforme «beste zer bait egin beharra» dagoela. Baina zer? Hori du bere azalpenak ahal-gune nagusietarikoak. Ez, halere, erabatekoa. Soluzio modu bat buruan du berak, izan ere, eta hori azpimarratzen du bere txostenean.

c) *Hizkuntza lantzea, indarberritze-saioaren giltzarri*

Bere hitzetan esateko, «Las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el vascuence, y veremos que la misma causa produce el mismo efecto. Pero ¿cómo hemos de cultivarla, si hemos visto que todos nuestros intereses y ventajas están en contra de ella? La cultivaremos convirtiendo estos intereses y ventajas en favor suyo. Ahí está la imposibilidad, se me dirá. Pero yo responderé que esta imposibilidad no es absoluta, o total, sino que es posible en parte, y que *esta parte posible es suficiente para la conservación de nuestra lengua nativa*,

---

(168) Ondo ezaguna da Iturriagaren azalpena, puntu honi buruzkoan.

para hacerla más generalmente inteligible en todo el país bascongado, y para detener su marcha retrógrada, que es el objeto del decreto, sobre que versa este escrito. Hori da, funtsaren funtsean, Agustin Iturriagaren giltzarri-idea. Lantzen diren hizkuntzak aurrera ateratzen dira, lantzen ez direnak ez. Landu dezagun euskara, behar adinako neurrian bederen, eta bizirik aterako da. Are gehiago, horrela lortuko da «hacerla más generalmente inteligible en todo el país bascongado».

Nola «landu» behar da, ordea, euskara? Aurrerago dioena ongi ulertzen bazaio, horra nola: hiztunen euskarazko aldaera-sorta zabalduz, hitzezko jardunari idatzizkoa erantsiz, belaunaldi berriei ahalik eta hizkera-molde bateratuen bideratuz eta beraiekiko jardunean estilo-lanketa jaso (eguneroko hizkeran sortu ohi dena baino jasoagoa, bederen) indartuz. Pausoz pauso eta inor behartu gabe, baina hizkera bateratuagoa (euskalkiei dagokienez izen- eta aditz-jokoa bakarrik atxikiko dituen) indartuz. Ehun eta berrogei urte aurreraturik dabil Iturriaga, partez, bere terminologia horrekin. Hizkuntza-plangintzaren teoriak, Haugen-en, Das Gupta-ren, Jernudd-en eta gainerako bidegileen garaitik, *language cultivation* deitzen dio hizkuntza-plangintzaren atal bati. Hizkuntza bat *Kultursprache* (Kloss, 1952) bihurtzearekin loturik dago hori, eta Lizardiren ametsarekin, larreko hizkuntza noranahiko bihurtzearekin alegia, bete-betean uztartzen da. Horretan ere aurrelari izana dugu Iturriaga, ahazturik bagaude ere. Zer egin behar da, ordea, hizkuntza lantzeko? Iturriagaren erantzuna argia da: eskolara eraman behar da.

*d) Ele biko eskola eratu, haurrak erdal itsasora eramanez*

Gauza jakina da, ele biko hezkuntza gertakari zaharra dela mundu zabaLEAN. Ez hainbat gure artean, eta are gutxiago bertako hizkuntza ahula salbatzeko xedeaz. Hizkuntza indarberitzeko tresna bihurtu nahi izan zuen Iturriagak eskola. Baziren lehendik, Larramendirekin hasi eta Kardaberaz tarteko, eskola molde euskal-etsaia gogor salatu zutenak. Iturriagaren meritua da ordea, ordura arte idazle eta pentsalari bakan haien buruan ibilitako, eta idatziz oso noizbehinka adierazitako, iritzi hari formulazio operatiboa ematen saiatu izana, hartarako plan konkretua idatziz (169), ikasmaterial konkretuak sortuz eta Probintziako aginte-maila gorenean aztergai eta erabaki-gai bihurtuz. Iturriagak bakarrik egin zuen hori, bere bizi-denbora osoan. Horrelakorik egina zuen zenbaitek, partez. Egiten ere ari zen halako zerbait, pedagogo bat baino gehiago: Astigarraga, Hiriart, Archu eta, geroxeago, Eguren.

Bere plana ez da, bestalde, euskara hutsezko eskolak sortzekoa. Nahi izan balu ere, ez zeukan hori egiterik. Goi-agintetik argi esana zegoen, erdara

---

(169) Plana idatziz eta, bide batez, plan hori aurrera eramateko beharko ziren ikasmaterial guztiak prestatuz.

erakustea zela bertako eskolen zeregin nagusietako bat. Debekurik izan ez balu ere ez dago garbi, hartara joko zuenik. Kontua ez zen juridiko-penala, soziologikoa baizik: gizarterako ongi prestaturiko gazteak heziko zituen eskola nahi zuen Iturriagak, eta gizarteak zeraman martxan erdaraz jakitea ezinbesteko baldintza bihurtua zegoen, bizian aurrera egin ahal izateko. Hori zen giltzarria, eta hortik abiatzen zen bera.

«A este fin empezemos a derramar al enemigo desbaratando las oficinas, donde forja sus armas. El lector entiende ya que hablo de las escuelas de primeras letras. (...) Destruyamos pues desde luego esta práctica tan perniciosa a la lengua bascongada, y sustituyémosle otra, que la hermane con la lengua castellana haciendo que se auxilien recíprocamente, y que de enemigas, que eran hasta aquí, se hagan y sean en adelante íntimas amigas y compañeras. (...) Haciendo en nuestras escuelas de primeras letras todo lo contrario de lo que hasta ahora se ha hecho, habremos conseguido el doble objeto, que nos proponemos, es decir, la destrucción de la práctica perniciosa a nuestra lengua, y la introducción de otra, que le sea favorable. Enséñeseles a leer en bascuence. ¿Se les ha obligado a hablar el castellano sin preparación alguna anterior? No se les obligue a hablarlo hasta que tengan copia suficiente de voces y frases castellanas. (...) ¡Quién sabe si de esta hermandad, buena correspondencia y armonía, en que pusiéramos a las dos lenguas, que hasta ahora han sido enemigas irreconciliables, resultará que entrando la castellana por todo este país a paso franco sin inconveniente de ningún género, y sí con muchas ventajas de la bascongada, hará también ésta por su parte la reconquista de aquellos pueblos, donde hoy se halla agonizando, y en momentos de expirar? A este fin sería preciso invitar a las Diputaciones, a que corresponden aquellos pueblos, a adoptar el método de que se trata acomodando el bascuence de los libritos referidos a sus respectivos dialectos y teniendo cuidado de conservar la misma terminología, para que fuese generalizándose en las diferentes provincias y haciéndose de este modo más inteligible nuestra lengua en todas ellas. Si la experiencia, como es de esperar, correspondiese a nuestros deseos, se podría ir, como se ha dicho, multiplicando sucesivamente los diálogos, y haciéndoles girar sobre puntos de agricultura, economía doméstica, etc., y por este medio se lograría que se enriqueciese la lengua, se extendiese la instrucción de los jóvenes y se perfeccionase la enseñanza primaria de nuestras escuelas.»

Amets handiak, neurri gabeak ia, jartzen zituen Iturriagak ele biko eskolaketan. Oker zebilen noski: eskola gizarte-gaitz guztien osatzaile deneko ikuspegi hura, Iturriagari Ilustraziotik zetorkiona, aspertzerraino ikusi da oso dela ahul, hanka-mehe eta badaezpadako. Jakin badakigu, orain, gizarte-zigorren eta ordainsarien etsasoan igeri eginaz doazela hizkuntza batzuk gora eta besteak behera, eta eskolaren eragina txikia, benetan txikia, dela eskola-umeak adin batera iritsi ondoan, eta beraz mintzajardunaren gizarte-moldaera eskolatik kanpora dagoela nagusiki.



Oker zebilen, orobat, euskara-erdaren bizikidetzeta eskola-formula egoki batek eskuratu ahal izango zukeela uste izanik. Hala nahi genuke askok, gehienok ere bai agian. Baina biziaren erdia hartan eman dugularik badakigu ongi, eta gezurrik ez esatea da gizakiaren lege nagusietako bat, gauzak beste-la direla. Behar-beharrezkoa da eskolak euskara-erdarek lekua eskaintzea, haur elebidunak eratzeko. Horrek ez dakar ordea berekin, urrundik ere, euskal-galgarri izango ez den hizkuntza bien arteko funtzio-banaketa egonkor eta itxaropentsurik gizartean. Bestelako neurriak eta bestelako formulazio teorikoak behar dira horretarako.

## 5. ZENBAIT ONDORIO

Bada motibo argirik, Iturriagaren hizkuntza-jokabidea azaltzea nabarmen zailtzen duenik. Gurea da arazoa, funtsaren funtsean. Eragozpen-muga larriak ditugu oraingo euskaldunok, garai hartako esan-eginak orduko baldintzen arabera ententitu eta baloratu ahal izateko. Iturriagaren esan-eginak eta bere ekarpenak, batez ere eskola-mundukoak, ezin uler litezke bere osoan Gipuzkoako garai hartako egoera soziolinguistikoa nolakoa zen jakin gabe. Erresumako goi-agintearen filosofia soziokultural eta politikoa kontuan izan gabe ere ezin dira bere jarrerak eta jokabideak argi epaitu. Maizegi egiten dugu halakorik. Argitu ordez ilundu egiten dugu, horrekin, gure lana. Txosten honetan esandakoak, eta amaierako hitzak, argitze-lan horretarako ekarpen gisa eratu dira. Aurrez adierazitakoak hamar bat ondoriotara bilduz eman nahi nioke gaurkoari akabera. Goazen beraz, puntuz puntu. Zer esan dezakegu, labur bilduz, Iturriagaren egitasmoaz, jokabideaz eta ekarpenez?

- a) Soziolinguistikaren gaurko markoan txertatu behar bagenu Iturriagaren 1830eko lana, non txertatuko genuke? Hizkuntza-soziologia aplikatuaren esparruan sartzen da, bete-betean, Agustinen lana. Gaurko hitzetan esateko, *hizkuntza-plangintza* diseinatu zuen Hernaniko benefiziaduak. *Top Down planning* edo *Goitik Beherako plangintza* zen berea: Herri Aginteez eztabaidatu, adostu eta erabaki bezain azkar Gipuzkoa osoko eskoletara zabaldu beharrekoa.
- b) Absolutismo ilustratuaren iturrietan edandakoa izaki, ez zuen Agustinek *Bottom Up* edo *Behetik Gorako* plangintza-biderik begien bistan. Bideak erakutsiko zion, beste askori bezala, plangintzaren zati osoak behetik gorakoak direla. Behetik gorako bultzada gabe ilaundu egin ohi direla, sarri, planik dotoreenak ere.
- c) Zer plangintza modu, ordea? Eskola-mundura mugatua zegoen, lehenik eta behin, Iturriagaren plana. Proiektu hura ez zen, bestalde, *acquisition planning* delakoaren egungo lan-esparru nagusian zentratzen: ez bete-betean, behintzat. Iturriagak ez zituen Gipuzkoako ume erdal-

dun bakanak euskaldundu nahi, gehiengo zabala osatzen zuten ume euskaldunak elebidun funtzional bihurtu baizik. Ume euskaldunek erdaraz ondo ikastea nahi zuen berak, batetik, eta beren ama-hizkuntzan ganoraz alfabetatzea bestetik. Inondik hurbil ibiltzekotan, ele biko alfabetatze-programatik zebilen Agustín hurbil.

- d) Inoiz edo behin besterik esan izan badugu ere, Agustinen asmoa ez zen pasabideko elebitasuna hedatzea. Berak ez zuen, alegia, egungo terminologian *transitional bilingualism* esan ohi dena bultzatu nahi. Zabaldu eta estabilizatu egin nahi zuen berak euskara-erdaren presentzia, Gipuzkoako gizarte-bizitzan. Bateriaezina da hizkuntza biren konpartimentazio soziofuntzionala egonkortzeko asmo hori, pasabideko elebitasunarekin.
- e) Iturriagaren hizkuntza-jokabidea azaltzen ez da lan erraza. Arrisku handiegia dago, berari buruz txuri edo beltzeko ondorioak ateratzea. Horrek badu esplikazioa. Hirurogeita hamar urteko odisea pertsonal luzean, posizio bat baino gehiago izan zuen Agustinek. Oraingo ezku artean ditugun argibideen arabera euskaltzale sendo agertu zen 1823 eta 1833 artean. Hori baino lehenagoko gertaerez ez dago informazio zehatzik: baliteke bere euskaltzaletasuna, nolana ere, liburuek baino gehiago 1817tik 23ra artean eskola-umeekin izandako eskarmentuak sortua izatea.
- f) Iturriaga ez zen gizon isolatua, bakardadez josia. Langintza horretan ez zen inorekin kontatu gabe sartu. Harreman-sare trinkoa, askotarikoa, zuen Agustinek berekin. Horri eskerrak ongi samar ezagutzen zituen bere gizartearen goien-barrenak. Goiko harremani dagokienez eskueran zituen, oso, Donostialdeko zirkulu ilustratu-liberalak (Lasala, 1884) eta, harreman horien itzalaz, herri-aginteekiko harremanak ere aski eskueran zituen. Gipuzkoako jende ikasia eta Probintziako agintariak hain hurbileko izanik ere, bere bidetik jo nahi izaten zuen Agustinek, euskarari eta euskal kulturari zegozkienetan bestelako lagunarteetan bilatuz sormen-iturria eta edertasun-sena. Lagun handia izan zuen, euskalgintza horretan, Juan Inazio Iztueta.
- g) Europako hainbat lekutan XIX. mendearen lehen erdian plazaraturiko buru-langile berrien adibide argia dugu Agustín. Herria, hizkuntza eta ohiko gizarte-bizitza beste era batera antolatu nahi zuen protoelite jakitun baten adibide. Ez gizartearen kontserbazioa zuen lekuan lekuko protoelite horrek lehentasunezko xede, are gutxiago bere preserbazio mimetikoa. Gizartea aurrera zihoan. Ezinbestean aurrera jarraitu behar zuen, gainera, gizalegezko bizimodu hobea eskainiko bazitzairen herritarrei. Bizimodu hobea eskaini nahi zieten buru-langile horiek, izan ere, hiritar jantziei ez ezik baserritarrei ere. Jatortasunaren eta modernidadearen arteko ezkontza modua bilatzen zuen protoelite horrek. Planteamendu horretatik abiatu ziren Astigarraga,

Iturriaga eta beste zenbait gipuzkoar, euskarari egoera buru-jasoagoa ekar diezaiokeen eskola-moldea berrantolatzen. Euskara bizirik gordetzea, eta gizarte-bizitzan goi-mailako funtzioetara (funtzio batzuetara bederen) zabaltzen laguntzea: hori zuten xede.

- h) 1800etik 1833ra arte, ilustratuen (eta, nahiago bada, haien oinordeko ziren frantsesuen eta liberalen) esku joan zen euskara-debekuaren paradigma zaharra apurtzen hasi eta ele biko irakaskuntzari atek zabaltzea: haiek izan ziren aitzindari. Batez ere Astigarraga eta Iturriaga, Gipuzkoari dagokionez. Intxaustik (2007) Astigarragarentzat esan berri duena orpoz orpo egokitzen zaio Agustini, hainbat puntutan. Hori ere kontuan hartu behar genuke, Iturriagaz eta XIX. mende hasierako bere kideez hitz egiterakoan. Guztion ondare intelektualaren iturburu dira bata zein bestea: iturburuetako bat.
- i) Zertan huts egin zuen Iturriagaren planak, egungo ikuspegitik? Lotsa ere eman behar du, ura joan eta gero errotari eragin nahi izatea. Maisukeria merkea izan ohi da, gainera, erantzun ezin duenari zertan oker jardun duen esaten hastea. Ez nuke halakorik egin nahi. Kontrakoa ere ez ordea: ez da itxurazkoa, inoren lanaz izan litezkeen iritzi kritikoak isilpean gordetzea, itxura txarra ez emateko aitzakian. Hel diezaiogun gaiari, hortaz. Honako muga hauek ageri ditu, egungo begiekin ikusiz, 1830-31ko planak:
- Baikortasun handia. Nahi izate hutsarekin euskara-erdaren konpartimentazio berri bat, euskara bizirik gordetzeko adina ahalmen berekin izango duen moldaera berria, egingarri dela uste izatea. Ez dago munduan adibiderik, gizarte-aldaketa onez onean, inolako arazorik gabe, gertatzen denekorik. Horretaz ez zen Iturriaga jabetzen. Asmoaren ederrak liluratzen zuen, seguru asko.
  - Eskolaren neurritz kanpoko balorazioa. Mundu berriaren iturburu bailitzan ikusi nahi izaten dugu, sarri, eskola. Berez eman dezakeena asko da, eta ez genuke hori gutxietsi behar. Dezakeena eman dezake ordea, ez gehiago. Dagokion baino leku zabalagoa aitoritzen zion Agustinek eskolari, gizarte-bizitzaren berrikuntzan; bere plan ausart hura herren jaio zen hasieratik, hori zela medio.
  - Ez zuen, azkenik, euskara-erdaren konpartimentazio soziofuntzional berrirako inolako eredurik agertu. Erdi erorian dagoen etxeari pika-txoiaz ekin aurretik komeni izaten da, noski, etxe berria egiteko planoak, baimena eta baliabiderik eskueran izatea. Motx gelditu zitzaigun, horretan ere, bere plan famatua. Euskarazko bizia erdararen presentziaz «aberasteko» prest zegoen. Baina erdararen hedapenari (*language spread* delakoari) mugak nola jarri, hedapen hori luze-zabaleko mintzaldaketa edo *language shift* ez bihurtzeko? Funtsezko puntu hori landu gabe utzi zigun.

Orain erraza da, jakina, hori eta gehiago esatea. Orduan ikusi behar, nork hartuko ziokeen Iturriagari argudio-bide landuan, trinkoan eta argian aurrea. Orduan ikusi behar, Gipuzkoako Batzar Nagusietara nork plan zehatzagorik, landuagorik eta erakargarriagorik prestatu eta agintarien aurrean defendatu ahal izango zukeen.

- j) Planaren aurrerabideak azal ditzagun, azkenik. Goiko muga-eragozpen horiezaz gainera aurrerabide argiak zekartzan berekin, izan ere, Agustín Iturriagaren planak. Horregatik dugu orain ere, mende eta hiru laurden pasa berri diren honetan, bere plan hura aipagai. Ikus ditzagun aurrerabidezko ezaugarri horiek, labur-labur:
- Gipuzkoako eskoletan eraztunaren bidezko euskara-debekua kentzeko pausoa izan zen, dudarik gabe, Agustinenena. Ahaztu egiten dugu hori, orain. Errazegi noski. Aldaketa ohargarria zekarren berekin, Iturriagaren planak. Euskararekiko begirunea eta errespetua berreskuratzeko bidea zen plan hori, besteak beste.
  - Euskara-erdaeri sarbide osoa eman nahi izan zitzairen lehen letretako eskoletan. Erdarak hasieratik bereganatua zeukanez leku hori, euskarari sarbidea ematea esan nahi zuen praktikan Agustinen plan horrek. Gipuzkoako eskola guztietan zabaldu nahi zen eskola molde berria, oro har, eta baserritarren artean bereziki. Iraultza osoa zen hori, aurrera eramanez gero.
  - Ama-hizkuntzaren printzipioa ezarri zen, berrikuntza horretarako, gidari: oinarri teorikoak baino areago ebidentzia enpirikoak eraman zuen Agustín irizpide horretara. Etxean ikasitako lehen hizkuntzan alfabetatu behar ziren Gipuzkoako neska-mutilak: ama-hizkuntzan (beraz, normalean euskaraz) ikasiko zuten irakurtzen, lehenik. Beste hizkuntzan (normalean, gaztelaniaz) gero. Latinerako jauzia ere erraztu egingo zen horrela, Iturriagaren ustez.
  - Berriazko ikasmaterialak sortuko ziren, asmo horiek aurrera eramateko. Ikasmaterial horien hizkuntza-trataera kontu handiz zainduko zen. Iztueta zen orrazketa-lan horren buru. Gipuzkoan une horretan zegoen autoritaterik handienetakoa. Eta
  - Alfabetatzeaz gainera, informazio profesionala ere jasoko zuten mutilek (apenas, antza, neskek). Informazio profesional hori *dialogo*-jolaren bidez eskuratuko zen, hizkuntza bietan.

Plan oso baten egile dugu Agustín Iturriaga: euskarari bere garaiko Gipuzkoan leku hobea eskaintzeko asmoz egindako planaren asmatzaile. Elebitasun beteko formula sozioedukatiboa aukeratu zuen horretarako, aukeran zeuden beste bideak alboratuz. Ez zen hori, egia da, Agustinen asmo bakarra: erdal itsasora ere eraman nahi zituen berak Gipuzkoako haurrak. Haur guztiak: baita baserrietako umeak ere. Ahalik eta erarik lasaienean (ez ahalik eta azka-

rren), baina erdal itsasora nolanahi ere. Euskara hutsezko Gipuzkoa joaten, galtzen ari zen bere begien bistan, eta hizkuntza biak, ez bakarra, beharrezkoak izango ziren ingurumen berrirako prestatu nahi zuen Agustinek bertako gazte-jendea. Hori zen bere bigarren asmoa.

### **Azken hitz moduan**

Txuri eta beltz arteko gizarte giroan, askoren atseginez eta beste hainbaten ezin eramanez, elkar hartuzko konponbideak bilatzen saiatu zen Agustin Iturriaga, Hernaniko apaiz euskaltzale eta argitasun-zalea. Lapitza ez zen bereztzat dotrinaren etsai. Bata eta bestea elkartuz eratu nahi zuen berak gizarte berria: erlijioa eta entziklopedia, kale-giroko bizimodu berria eta aspaldiko baserriar-legea, euskara eta erdara.

Bere ilustrazioa eta ikuspegi liberala, gizona eta gizarte-aurrerakuntza dialektika jakinean biltzen zituen, argi agertu zen 1830ean, Gipuzkoako Bartzar Nagusietarako idatzi zuen txostenaren zenbait pasartetan. Ez gutxienik, ene irudiko, honako honetan: «Lo que (Larramendi) no vió y hubiese visto acaso, a haber vivido más, o haber tenido más tiempo, es el medio de convertir en ventaja para la lengua bascongada la fuerza de la acción, que la castellana estaba ejerciendo sobre ella, no de otra manera que convierte el hombre en bien suyo las fuerzas físicas, dando a las leyes naturales la dirección correspondiente al objeto que se propone».

Pasarte hori lehenengoz irakurri nuenean, eta badira urteak, deigarria egin zitzaidan oso: horra herri koskor bateko apaiz benefiziadua, Gipuzkoako herri-agintariei esplikatu nahian nolatan «convierte el hombre en bien suyo las fuerzas físicas, dando a las leyes naturales la dirección correspondiente al objeto que se propone». Aparta iruditzen zitzaidan esaldia, apaiz baten lumatik jasoa izateko. Ez zen, ordea, hain aparta: bertako ilustrazioak, Azkoitiko jauntxoekin identifikatu ohi dugunak, erro zabalak zituen eta elizgizonak ez ziren, inola ere, gogo-giro hartatik kanpora geldituak. Gero konturatu nintzen, urteen joanean, ez genuela Iturriaga hain salbuespen huts, hain egun bakarrekore lore. Lehendik zetorren kate luzea, gero ere ondorengo ugari izan dituen, eta kate hari loturik bizi izan zen Agustin.

Agustin asko izan ditugu, geroztik ere, gure artean. Bakar bat aipatuko dizuet, gustu baduzue, «dar a las leyes naturales la dirección que se propone (el hombre)» horren lekuko. Ez naiz, aipamen horretarako, filosofiaren edo gizarte-zientzien osin mamitsuetan murgilduko, olerkien mundura hegaldatuko baizik. Xabier Lete handiak, nire ustez azken mende erdiak eman digun poetarik sakonenak, ez dakit Iturriaga irakurri ondoren idatzi zuen, eta kantuz eman, *izarren hauts* zirrarragarria:

«Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,  
borroka hortan bizi da eta hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia: bide ilunak nekez aurkitu,  
lege berriak noizpait erditu, hortan jokaturz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea.  
Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.  
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,  
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

«Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia (...). Gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea». Horra hor Agustinen «la manera en que convierte el hombre en bien suyo las fuerzas físicas, dando a las leyes naturales la dirección correspondiente». Horra hor olerkari-kantariaren ezpainetan, pentsalari argituaren mende t'erdiz lehenagoko gogoeta sakona. Agustinen estilokoa da, hainbatean, *Izarren hautseko* bizi-programa: «Gure sustraiak lurrari lotuz, ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea». Errealitateari bizkar ez ematea eta aurrera begirako ikuspegia sendotzea: xede bikoitz hori zuen Iturriagak, dakigun neurrian, bere eguneroko bizi-poz eta oinarri. Horretan saiatu zen, deblauki, Hernaniko pedagogo. Hori dela-eta, guztion esker onezko aitormena merezi du bere saio zintzoak. Gaurko ekarpen xume honek ezer gutxi erantsiko badio ere lehendik jaso duen sonari, gizona eta bere ingurumena hurbilagotik ezagutzeko balio izango ahal zigun. Lagunduko ahal zigun, orobat, Iturriagaren 1831ko eskola-plana hizkuntza-soziologiaren mar-koan kokatzen. Hori nuen behintzat jomuga. Horretara iritsi banaiz, edota gu-txienez hurbildu, banengoke pozik.

Eskerrik asko, jaun-andreok.

## ERANSKINAK

### I. Eranskina: 1817ko eta 1818ko tramitazioa, Hernaniko ikastetxea sortu eta martxan jartzeko

Honako pauso hauek ongi dokumentaturik daude:

- a) 1817-VII-7: Iturriagak bere herrian eskola sortu nahi zuen ikastetxearen planidazkia egun horretan sinatua ageri da. (AGG-GAO, JD IM 4/6/27);
- b) 1817-X-17: Iturriagak Gipuzkoako Probintziari egindako eskutitza, ikastetxea zabaltzeko baimena eskatuz. «El exponente desde mucho antes que fuese Presbitero, imitando el exemplo de varios sacerdotes zelosos y beneficos de su Pueblo, se habia dedicado a enseñar la gramatica latina á algunos juvenes, cuyos padres, o carecian de medios para embiarlos fuera del Pueblo o preferian que se habilitasen á vista suya en los principios de la latinidad. Ha seguido en este ejercicio propio de su caracter y estado, hasta ahora que ha sido solicitado por varios amigos, para que dando mas extension á su enseñanza, se encargue de la primera educacion de sus hijos e interesados. Cediendo á sus ruegos y creyendo que será para mayor utilidad del publico, ha formado un plan de establecimiento de una casa de eucacion, donde, asi á los alumnos internos que fuesen confiados á su cuidado, como á los que quisiesen asistir de fuera, se les enseñe á leer, escribir y contar; las gramaticas castellana, francesa, y latina, los elementos de geografia y mathematicas y la musica. Con este objeto se ha asociado con su hermano Dn. Cayetano Pascual Iturriaga y con Dn. Manuel de Larrarte Maestro de primeras letras con titulo, y Organista asalariado de esta Villa. Mas para complemento de su plan falta al exponente el beneplacito y maternal proteccion de V. S. y le Suplica rendidamente quiera dispensarselo, si halla que el plan susodicho puede ser util á los hijos de V. S., pues en ello recibirá el suplicante una merced a que quedara por siempre agradexido.»

(«Expediente relativo al establecimiento de un colegio privado por el presbítero D. Agustín Pascual de Iturriaga»).

- c) 1817-X-20: Udalaren onespena Agustín Iturriagaren planari, Aldundiak hala eskaturik. «El plan ( ) ha merecido mi aprovacion y el aplauso de todo mi bezindario por las ventajas que porporciona para que mis hijos puedan instruirse en todos los principios de Religion, y buenas costumbres al lado de un sacerdote que **por sus luces**, virtudes, y celo caritativo se merece el aprecio general». Udaleko eskribau?: Juan Maria Pascual Iturriaga. (AGG-GAO, JD IM 4/6/27);
- d) 1817-X-31: Azpeitian izandako Diputazio formalean, «en vista de todo se acordó que la provincia le preste su beneplacito y maternal protección, como lo pide el presbitero Iturriaga (goraxeago, dokumentu berean, Don Agustín Pascual Iturriaga), y que se le conteste dandole parte de esta resolución; igualmente a la expresada villa de Hernani en contestación a su oficio. (AGG-GAO, JD AM 166); eta

- e) 1817-X-31: Diputazioak ikastetxe-planaren kopia dauka, fetxa horrekin. Egun horretan tratatu da eskabidearen onespén kontua. (AGG-GAO, JD IM 4/6/27). Egun horretan bertan egiten zaio Agustín Pascual Iturriagari erantzuna: «pres-to á el mi entera conformidad y beneplacito, quedando también en facilitarle mi maternal protección en los casos que necesite» (AGG-GAO, JD CO 72)

## II. Eranskina: Iturriagak probintziako Agintearekin izandako harremana, trienio liberallean

1820tik 1823ra arteko gertakari horiek ere aski ongi dokumentatuak daude. Horrela,

- a) 1821-I-4: Gipuzkoako Diputazio Probintzialaren ofizioa Agustín Iturriagari, Lehen Hezkuntzarako ikasliburuen hautalanean (edo prestalanean) parte har dezan eskatuz. (AGG-GAO, JD IM 4/6/33) «Apreciando los interesantes conocimientos que tiene V. adquiridos en la enseñanza pública de primeras letras, y haciendo la debida estimación de la ilustrada laboriosidad con que se consagra V. con recomendable celo á este útil objeto, le excito a que se sirva comunicar a D. Joaquín de Garmendia y D. José Francisco de Saralegui vocales de esta Diputación y sus comisionados para obtener los mejores libros elementales para las escuelas de primeras letras, todas útiles noticias que tubiere Vd. En el asunto y demas que se le ofrezcan. Y en punto de tan alta importancia como es de la Instrucción pública.»
- b) 1821-I-8: Iturriagaren erantzuna Diputazioari, gogoz parte hartuko duela esanez. (AGG-GAO, JD IM 4/6/33);
- c) 1821-XI-29: Gipuzkoako Diputazio Probintzialaren ofizioa Agustín Iturriagari, Lehen Hezkuntzarako ikasliburuen hautalanean (ez, itxuraz, prestalanean) parte har dezan eskatuz. (AGG-GAO, JD IM 4/6/33): «deseando promover la educación de la juventud, cuyo encargo me confiere la Constitución política de la monarquía, y teniendo presente que en este interesante ramo há adquirido V. conocimientos muy útiles, hé venido en conferirle la competente comisión para que se sirva formar libro o libros que reunan nociones para las escuelas de primeras letras de esta provincia, y comprendan las religiosas y políticas al alcance de la inteligencia de los alumnos, a quienes desde sus primeros años les enseñe el camino de llegar con tiempo á ser ciudadanos apreciables así por sus virtudes como por el civismo tan necesarios en la sociedad, y sean en fin un firme apoyo de los justos derechos de la nación. Los sentimientos patrióticos que animan a V. me prometen que se servirá admitir esta comisión, y que procurará desempeñarla con el acierto propio de su ilustración.»

Iturriagaren komentarioa: «Se trata de formar, para las escuelas de primeras letras del país, libros elementales, que contengan principios de religión y de (derecho) político propios para que nuestros jóvenes lleguen un día a ser hombres virtuosos y ciudadanos celosos de sus derechos y de los de la heroica nación a que pertenecen» Hitzok bereak dira, ez Diputazioarenak.

- d) 1821-XII-(3?): (AGG-GAO, JD IM 4/6/33) Iturriagak Diputazioari erantzuna, ikasliburuak prestatzeko enkargua onartuz.



### III. Eranskina: Liberalen lagun eta lankide izateagatik kargu hartu zitzaioneko dokumentazioa

1823an aginte liberal konstituzionala erori zenean, ordura arteko agintarien alde agertu, edota haientzat lan egin, izandako hainbat herritarri kargu hartu zitzaion. Maisuak eta apaizak izan ziren, besteak beste, kargu hartutakoak. Hainbati kendu egin zitzaion lan-postua. Iturriagak arrisku handia zuen noski. Batetik apaiz eta irakasle zen, eta bestetik agintari erori-berriekin aski harreman ona zuen, hainbaten ustean. Halaxe gertatu ere ziren kontuak. Ondoko dokumentuek ematen dute horren guztiaren zenbait argitasun.

- a) **Desterrua:** 1823ko maiatzaren 1ean, Iruñeko probisoreak Hernanitik desterratu eta Zestoara bidali zuen. Han egon behar izan zuen hamar bat hilabetez.
- b) 1823-V: Obispoak «pastoral de reconciliación» delakoan esandakoaren ildotik, **barkamena eskatu** zion **Agustin Iturriagak** Hernaniko herriari, cabildoari eta Eugenio Galardiri. Bere etxera, Hernaniko cabildora eta lagunartera itzuli ahal izateko Obispoari eskea egin ziezaioten eskatzen zien berak, zer oker egozten zitzaion ez zekielarik; loa galdu zuen, gosea ere bai, eta osasuna galtzeko arriskuan zegoen. Ama zaharrarentzat errematea gerta zitekeen hori. Ursula Zuaznabarrek, Hernaniko moja agustinen superiorak, obispoarengana jo zuen isilpean, Iturriagaren alde. Kastigurik behar bazuen Iturriagak lehenbailehen emateko, eta bestela herrira itzultzen uzteko, eskatzen zion Ursulak obispoari. Iturriagak barkamen eske egindako hiru eskutitzen kopia bidali zizkion obispo jaunari. Bere buruiritzia hainbateraino apaldu zuen eta damua hain apalik aitortzen zuen gizonak ez ote zuen absuluzioa merezi? (Goñi, 1991: 366);
- c) 1823-VII-19: Hernaniko parrokoak **Iruñeko obispoaren pastoral**a irakurri zuen. Erregeak liberaleri emandako indultua komentatzen zen bertan. Hernaniarrek atseginez jaso omen zuten berria. (Goñi, 1991: 367)
- d) 1824ko otsailaren erdialdean **itzuli** zen **Iturriaga**, Zestoako **desterrutik** bueltan. Ez zion inori esan, zergatik kanpoan izana zen. Kanpotik jakin zuten bere apaiz-lagunek, Zestoan izana zela. (Goñi, 1991: 367).
- e) Ikastetxea, bitartean, itxi egin zen eta berriro ez zen ireki. Lasak (1978: 129) horrela dio: «a partir de 1823 no hallamos vestigios del funcionamiento de este colegio». 1824an Hernaniko gor-mutu bati irakurtzen, idatzen eta dotrina esaten erakutsi ziola Agustinek badakigu, eta horrelako gehiago ere egingo zuen agian handik aurrera. Irakaskuntza arautuan ez zuen, ordea, Agustinek gehiago jardun. Ez berak eta ez, itxuraz, anaia Cayetanoak.  
Cayetano saiatu zen, 1825ean eskola zabaltzeko baimena lortzen. Alferrik ordea. Honako pauso hauek eman zituen horretarako.
- f) 1825-IV-15: Cayetano Pascual Iturriagak bere ikastetxearen araudi-idazkia idatzi eta izenpetu zuen, irakasten jarraitu ahal izateko baimena eskatzeko asmoz (AGG-GAO, JD IM 4/6/27);
- g) 1825-V-19 eta 24: Gipuzkoako Korrejidoreak karta bidali zion Diputazioari, Cayetano Pascual Iturriagak bere eskolan jarraitu ahal izateko eskatzen zuen lizentziaren berri emanez eta Cayetanoren «aptitud y conducta politica y moral»ei buruz azalpenak eskatuz;

- h) 1825-V-24: Azkoitian bildutako Diputazio formalak hartutako erabakia «Tomó conocimiento la Diputación de un oficio del Señor Don Rafael de Ainat y Sala, Corregidor de esta Provincia, de fecha de diez y nueve del corriente (...); y acordó que previos informes reservados, y según lo resultante de ello se evacue. In Registro de las Juntas Generales de Azcoitia de 1824 y Diputaciones desde 13 de julio de 1824 hasta 1º de julio de 1825 (AGG-GAO, JD AM 171);
- i) 1825-VI-11: Diputazioak Korrejidoreari emandako erantzuna: «Habiendo obtenido la Diputacion dos informes reserbados pedidos acerca de la aptitud, conducta política y moral de Don Cayetano Pascual Iturriaga (...); acordó se diga a Su Señoría, que el expresado Don Cayetano Pascual como maestro que es de Matematicas, y con respecto a los conocimeintos, instruccion y demas cualidades necesarias, como igualmente por su buena conducta moral y politica, es acreedor a que continúe con su casa de educacion, y acarreará ventajas al publico sin embargo de que en el tiempo de la abolida constitucion fue miliciano Reglamentario, o de la Ley, como todos los demas, mas no Voluntario Nacional ni empleado ni pertenecido a sociedades secretas. (AGG-GAO, JD AM 171);

Ez zuen eskola berriz zabaltzerik izan, ordea. Zergatikoa ez dago argi.

#### **IV. Eranskina: 1830-33 arteko dokumentazio ofiziala, Batzar Nagusietako Sustapen-batzordearen eta Iturriagaren hizkuntza-planaren ingurukoa**

**1830-VII-3:** Arrasaten egindako Batzar Nagusietan, «Se dió cuenta á la Junta de una exposicion de la de comercio de la ciudad de San Sebastian de tres de este mes, referente al estado abatido en que se halla el comercio é industria de esta Provincia, particularmente en dicha Ciudad, suplicando se sirva tomar todas sus indicaciones en la grave y muy urgente consideración que recomienda su importancia: impuesta la Junta resolvió pase á la comision de la Real orden transmitida por el Ministerio de Hacienda. XVI. batzarraldian, « El Señor Alcalde de esta N. y L. villa de Mondragon Conde de Monterron expuso á la Junta en representacion de la misma, que varios Caballeros amantes y celosos por la prosperidad del país, deseosos de promoverla, intentaron planear el año de 1819 una Sociedad á imitacion de la anterior Bascongada, y entablada su solicitud en la Superioridad para obtener la competente autorizacion, les fué concedida el x de x de 1820, mas quedó sin llevarse á efecto por las circunstancias que concurrieron. Que al presente existen cuatro individuos de la sociedad Bascongada, á saber el Excmo. Señor Duque de Granada de Ega, los Señores Condes de Villafuertes y Villafranca de Gaitan y el mismo Señor Monterron, y propuso á la Junta que siempre que merezca su aprobacion la idea, se pudiera crear la Sociedad que se indicó en las Juntas generales del año último y de que se hace espresion la comision de Hacienda en su descargo para el fomento de la agricultura, artes y comercio del distrito de la Provincia, estendiéndolas á cuanto creyese susceptible de concurrir á la mayor prosperidad del país. La Junta oyó con su mayor agrado la proposicion del Señor Alcalde Monterron, y decretó que reunidos en sociedad los cuatro Señores citados antes, nombrasen a otros ocho individuos de su satisfaccion que formen y den principio á la Sociedad de fomento de artes de Guipuzcoa, estableciendo al efecto el reglamento que ha de regir y todo lo demas que crean conducente.

La representacion de Zumaya D. Joaquin Francisco de Barroeta Aldamar hizo presente que el Excmo. Señor D Juan Bautista de Erro, distinguido hijo de la Provincia y Consejero de Estado de S. M. le manifestó el deseo de que se forme una Sociedad que procure la conservacion é ilustracion de la lengua bascongada; y la Junta apreciando el celo de dicho Señor por su lengua nativa, acordó que la Sociedad de que se habla en el decreto que precede, quede muy encargada de ello» (AGG-GAO, JD AJI 10, 2).

**1831-VI-6: «Descargo de la Junta de Fomento»** (hamabi kide: Bascongadako lehengo lau, eta berauek izendaturiko beste zortzi). Lautik hiru bildun ziren («el Conde de Villafranca no ha podido admitir este encargo; para reemplazarlo queda nombrado D. Jose Manuel de Emparan»).

«Los individuos comprendidos en 2ª nómina han sido nombrados por supernumerarios, y de mérito, con reserva de aumentar su número segun hagan ver la conveniencia, y necesidad de otros sugetos, en quienes concurren inteligencia y conocimientos en los diferentes ramos, que abraza este establecimiento».

Barne-araudia:

«Presentamos con el nº 3 el reglamento que hemos formado para el régimen de ella. Si necesita aprobación Real, se servirá V. S. obtenerla»

«Ha nombrado la Junta por su Director, para lo subcesivo, al Conde de Peñaflo-rida; la Vice-directoria ha recaído en D. José Manuel de Emparan, y el de Secretario en D. Manuel Joaquin de Uzcanga.

Deskarguak landu dituen gaiak:

1. Hazienda:

Hiru probintziek elkar hartuz jardun dezatela, 1830eko ekainaren Errege Agin-duari nola erantzun ikusteko.

2. Nekazaritza:

- a) alearen prezioa;
- b) arbola kontua;
- c) sagastiak.

3. Merkataritza eta Industria:

- a) burdingintzaren gainbehera;
- b) ereduzko burdinola eraikitzea;
- c) artilea;
- d) artilezko ehungintza;
- e) diru-laguntza eskatzen zaio probintziari, aurreko saio horiek martxan jartzeko.

4. Literatura:

- a) «Disposiciones dirigidas a conservar nuestra lengua bascongada, nativa de estas Provincias. Memoria de D. Agustin de Iturriaga. Pedimos a V. S. se sirva dictar en la materia las disposiciones que juzgue convenientes, para llenar los interesantes fines propuestos».
- b) Carta (topográfica) de Guipuzcoa. (AGG-GAO, JD AJI 10,5).

**1831-VII-12:** Batzarkide hauek azaltzen dute Sustapen-elkarteko kideen txostena (seguruenik, ekainaren seikoa): Joaquin Francisco de Barroeta Aldamarrek, Manuel Joaquin de Igueravidek, Jose Maria de Zavalak eta Francisco de Palaciosek. Batzar Nagusietakoentzat eman zuten deskargua, eta azken hauek eskerrak eman zizkieten azalpenak emandako batzarkideei. Horra batzarkideen azalpenaren puntu batzuk:

- «Los señores que componen la Junta de fomento son de las principales ilustraciones del Pais, y sus primeros capitalistas.»
- «Opinamos que V. S. debe manifestar su gratitud á los Caballeros que componen la Junta de fomento.»
- «Doloroso es que la penuria de fondos no permita á V. S. destinar algunos para cooperar á los mismos fines. Pero el déficit grande, que se observa en los presupuestos aun para cubrir los atenciones corrientes y perentorias, y los gravámenes harto crecidos, de que se quejan los pueblos de V. S., se oponen á sus bien decididos deseos en esta parte.»
- «Declarando su aprecio particular á los señores D. Domingo Iribe, D. Agustin de Iturriaga Presbíteros, D. Antonio Ramon y D. Miguel de Azcarate, que por sus esfuerzos han merecido el honroso título de Sócios de mérito. La Diputacion, examinando detenidamente los trabajos que han presentado, podrá hacer lo necesario, á fin de que el pais reciba en cuanto se pueda el resultado de lo que tengan de útil, y practicable sus proyectos.»

**1831ko Batzar Nagusiak. Diru-altxortegiaren argibideak.** (Urretxuko udal txean dagoen dokumentaziotik jasoa)

- a) Joaquin Maria Pascual de Iturriaga, Hernaniko alkate. Dirua ordaintzen dio Diputazioak, 1830eko urri-azaroetan Frantziatik hona sartzen ari ziren espainiar errefuxiatuei aurre egiteko tertzioak (partez Bizkai-Arabetako gastu gehigarriez) eratzeak ekarri dituen gastuak direla-eta. (104. or).
- b) Juan Ignazio Iztuetaren soldata: «Mil ochocientos reales de vellon pagados a Don Juan Ignacio de Iztueta celador de la puerta de tierra de la ciudad de San Sebastian por su salario de medio año» (107. or)

**1832-VI-28: «Exposicion de la Junta de Fomento»:** «Nos apresuramos á instalar esta Comision: celebró algunas sesiones: formó el reglamento para el regimen de ella, y presentó sus primeras tareas á las juntas generales celebradas por V. S. en la ciudad de San Sebastian el año último, pasando al popio tiempo á su consideracion diferentes observaciones dirigidas al logro de sus deseos. La gravedad de la materia y el interes que tiene todo el pais en los ramos que abraza aquella exposicion, nos inspiró una justa esperanza de que se insertaria en las actas del referido congreso, mas bien para que el público tubiese noticia de estas ideas, que por el corto mérito de nuestro trabajo. En tal estado se nos comunicó por la Diputacion lo resuelto por las citadas últimas juntas generales: conocimos a primera vista que sus efectos dejan paralizado el curso del interesante plan prescrito por las celebradas en Mondragon el año anterior. Efectivamente, negándose los precisos medios para llenar los objetos indicados, la influencia de esta Comision en el pais es de ninguna consideracion. Jarraituko badute, emateko baliabideak. Izenpetzaile: Marques de Narros, Conde de Monterron, Jose Ramon Mendia, El Conde de Peñafiorida, El Conde de Villafuertes, Gaspar de Aranguren, Ignacio de Zavala. (AGG-GAO, JD AJI 10, 5).

**1832-VII?-xx:** Batzar Nagusietan egundoko eskandaloa, Donostiarrek atera duten txostenarekin: *Memoria justificativa de los que tiene expuesto y pedido la Ciudad de San Sebastian para el fomento de la industria y comercio de Guipuzcoa*. Batzarraren ustez, txosten horrek «ofende á los Fueros, privilegios buenos usos y costumbres de Guipuzcoa», eta aktan jarriarazi zen «la completa y pública desaprobacion de esta junta general al expresado folleto» Donostiaren erantzuna: que ha sabido y sabe dar pruebas de su adhesion á las instituciones forales que ama y respeta (...) pero protesta el decreto que acaba de hacer la Junta». Aurreko urtean bere ordezkariak Azepeitian esandakoari eusten dio Donostiak. Pasaia bere alde ageri da.

**1833-xx (ekainean?)-xx:** «**Exposicion de la Junta de Fomento en las Juntas Generales celebradas en Elgoibar**». Txostena 1833ko maiatazren 15ean izenpetua dago. Izenpetzaile: conde de Peñaflores, Conde de Villafuertes, Esteban Hurtado de Mendoza, Ignacio de Zavala, Juan Antonio de Lardizabal, Jose Joaquin de Olazabal.

«Imposibilidad en que se halla de principiar á realizar los benéficos fines que V. S. se propuso al crearla. Los grandes dispendios que han agobiado a la Provincia durante el año foral que acaba, han sido causa, no lo dudamos, de que no se haya llevado a efecto lo resuelto por las últimas Juntas generales, respecto á la cantidad que asignaron para las atenciones de esta Junta. No se extrañe, pues, que haya transcurrido aun un año sin que se haya plantificado ninguna de las ideas reclamadas por todas las personas ilustradas del país, e interesadas en su prosperidad.» Beharrezkoenak edo egingarrienak diren batzuk azaltzen dituzte. Horrela,

- a) arbolado
- b) extraccion de la lana del pais y de las pelletas.
- c) Escuelas de Dibujo y Geometria.(Industria garatzen laguntzeko)
- d) Artefactos de lana (fabricación de objetos de lana)
- e) *Lengua Bascongada*.
- f) Carta Topográfica de Guipuzcoa
- g) Sociedad Bascongada (promover en union de Vizcaya y Alava la reconstitución de aquella insigne sociedad)

**<Lengua Bascongada>.**

«La conservacion de nuestra preciosa lengua nativa, obgeto que merece la predileccion de V. S., porque en mucha parte descansan en el sus glorias, y sus mas caros intereses, ha ocupado y ocupará muy particularmente la atencion de la Junta. Buscando las causas de la corrupcion y desaparecimiento progresivo del Bascuence, ha parecido que se encuentra en las Escuelas de primeras letras y en el Púlpito. En aquellas por la falta de medios auxiliares para enseñar a los jovenes la lengua castellana, sin perjuicio ó mas bien con ventaja de la nativa, y en éste por falta de un Diccionario manual del Bascuence al Castellano y del Castellano al Bascuence. Se ha tratado en consecuencia de atajar estos dos inconvenientes ó suplir estas dos faltas.

El Presbítero Don Agustin de Iturriaga que se ocupa de éste particular con el celo y constancia que le distinguen, ha trabajado y tiene en disposicion de imprimirse el arte de aprender la lengua Castellana para el uso de los Bascongados. Consta de dos

partes; la primera es una frasiología Basco-Castellana por todas las reglas de declinación, conjugación, y sintaxis de una a otra lengua; la segunda es una continuación de la primera, en diálogos que se versan sobre asuntos tan divertidos, como instructivos. El coste de la impresión de dos mil ejemplares será aproximadamente de seis mil reales de vellón, cantidad que solo se trata de anticipar momentáneamente, debiéndose repartir los ejemplares que se quieran imprimir entre los Maestros de primeras letras, ó entre las repúblicas.

Está trabajando también para el uso de los Párrocos y demás predicadores un Diccionario manual del Bascuence al Castellano y del Castellano al Bascuence, enriquecido con considerable número de voces que no se encuentran en el trilingüe del Padre Larramendi. Se procurará que cada ejemplar no cueste arriba de veinte reales vellón, para que su uso se generalice en el país, ya por la equidad de su valor, ya por la facilidad con que se podrá manejar. Por estos dos medios es de esperar que se logre el efecto deseado y se perfeccione la enseñanza de primeras letras del país, poniendo á los jóvenes en disposición de leer con fruto los libros de asignatura de las Escuelas de esta clase.» (AGG-GAO, JD AJI 10, 7).

#### **V. Eranskina: Iturriagaren hizkuntza-plana, 1831n Batzar Nagusiei aurkeztua**

Txosten osoa: AGG-GAO: JD IM 2/21/133) Erabilitako iturri nagusia: Jose Inazio Lasaren *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco* (Lasa, 1968: 150-60)

##### ***«Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragon relativo á la conservacion de la lengua bascongada»***

Salutem ex inimicis nostris. Zacarias

«El autor anónimo de la disertación crítica ó apologética sobre la lengua bascongada se queja de que son pocos los que se han ocupado de este idioma, y que todavía son menos los que la han estudiado con algun fruto. Yo prescindo de si es fundada ó no su queja, y de si, como pretende, puede quedar aun, ó no mucho que hacer, para sondear el mecanismo de nuestra lengua nativa, y descubrir sus perfecciones: pero lo que veo es que mientras nuestros filólogos están haciendo la anatomía de esta lengua, se nos va escapando de las manos, digamoslo así y que si nos descuidamos, nos vamos á quedar como el cuervo de la fabula hinchados de vanidad y sin queso. Qué importa que el bascuence sea proprísimo en la significacion de sus voces, muy cortés en sus fórmulas y expresiones; ordenadísimo en sus reglas, conexo y consecuente en su construcción, armonioso sin par; rico y copioso en vocablos, la mas antigua lengua de España, universal por un tiempo en la Península, primitiva, si se quiere, y como tal inspirada por el mismo Dios á nuestros primeros padres?. Qué importa, digo, todo esto, si cada día camina con mas celeridad hácia su perdición, y se nos va á desaparecer totalmente? Si el mérito intrínseco de una lengua pudiera bastar para su conservación, vivieran aun con todos los atavios, que las engalanaban, las hermosas lenguas, en que hablaron Demóstenes y Ciceron, pero la dominación es la árbitra de todas ellas, y mas tarde, ó mas temprano, tienen que ceder á su irresistible imperio; así es que la lengua bascongada va experimentando la suerte comun de todas las demás. Una lengua mantiene su primitiva pureza, y se conserva ilesa, mientras está aislada. Desde el instante en que, saliendo de su aislamiento, se pone en comunicacion con otras, empieza á

corromperse y perderse. Si los países o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan á ser partes integrantes de un estado ó una nación, la lengua que adopta por suya el gobierno será la dominante, porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalecerá pues sobre todas las demás, enriqueciéndose cada día, y quizá en mucha parte á costa de las otras, y acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente. Tal es desde algunos siglos á esta parte la posición de la lengua bascongada con respecto á la castellana, y tal la suerte final, que irremediabilmente le va á caer. La continua é íntima comunicación, en que estamos con ella, y la necesidad, que tenemos de poseerla, si hemos de conservar nuestras relaciones políticas con el gobierno, dedicarnos á diferentes profesiones, y hallar colocación en la península, y ultra mar, han hecho que nuestra lengua nativa esperimente los efectos de la acción, que la castellana ejerce sobre ella trabajándola de continuo y arrastrándola hacia su total desaparecimiento. Y, como no ha de ser así, si, consultando nuestras ventajas, procuramos nosotros mismos con todo el empeño, que ellas nos aconsejan, exterminarla de su suelo natal? Sino, hechese una ojeada sobre nuestras escuelas de primeras letras y en ellas se tocará de lleno esta triste verdad. Allí se verá tramada una conjuración sistemática, y permanente contra la lengua bascongada: allí formadas las oficinas, en que se forjan constantemente armas para destruirla (la lengua bascongada), haciendo de los niños otros tantos titanes destinados á destronar á su madre. Estas no son figuras retóricas, no son exageraciones, ni espantajos, son la pura y exacta verdad, y la palparemos, si pasamos á examinar la práctica introducida en dichas escuelas de tiempo inmemorial, para enseñar á los niños el castellano. Ya se sabe cuan pobre es el diccionario de los niños hasta la edad de la pubertad, que es período de tiempo, que asisten á la escuela, desde que llegan á tener cinco ó seis años. Pues tan pronto como entran en ella, se principia por ponerles en las manos la cartilla castellana. Luego que han aprendido á leer en ella, se les da sucesivamente el astete, el caton, y otros libros, todos castellanos, y si se les hace leer y aprender la doctrina cristiana en bascuence es porque los más de los párrocos acostumbra preguntársela públicamente en la parroquia para la instrucción de los fieles.

Apenas han aprendido algunas palabras sueltas en castellano se les obliga á hablar en esta lengua y por consiguiente a que vayan olvidando su corto diccionario bascongado. En otra edad, en que sienten más la necesidad de poseer el castellano, se aperciben de las dificultades, que para aprenderlo les pone el vascuence, y este conocimiento junto con el recuerdo de los fatales anillos y los castigos, que a ellos se siguieron, hace que aborrezcan su lengua nativa. A vista de causas tan poderosas y que de tantas maneras y tan constantemente están trabajando a nuestra desventurada lengua, me parece que oigo decir al lector: que es imposible salvarla de las garras de tan mortales enemigos; y añadir quizá que, aun cuando fuera posible no vale la pena de salvar y conservar una lengua ceñida a un pequeño rincón de la Península y que por lo mismo para nada puede servir. Reparos semejantes dejó satisfechos mi paisano el P. Larramendi. [Oin-ohar batek hau dio: «El P. Larramendi, que nació accidentalmente en Andoain, era de Hernani, así como el P Cardaveraz, su íntimo amigo y agonizante»].

Al primero contestó con su gramática y diccionario de la lengua bascongada, como yo trato de hacerlo con los libritos que estoy trabajando; al segundo con razones, como también lo haré yo, pero oigamos primero las del sabio P. Jesuita en su demostración previa al arte, pag. 9. «Pero ¿de qué ha de servir, válgate Dios, al arte, el diccionario, y todo ese afán y trabajo si no hay libros en esa lengua, si está cerrada entre aquellos riscos, si no la ha de aprender nadie? Muchos síes son esos, y estaba

penso con otros tantos noes o nones. Al primero digo que hay algunos pocos libros en bascuence, y si quieres más yo te los escribiré de buena gana, si (y va uno) quieres aprender la lengua para leerlos: si (y van dos) dieras unas friegas a la bolsa para imprimirlos: al segundo digo que no le ha ido tan mal al bascuence entre aquellos riscos, que le han sabido conservar tantos centenares de años, lo que no supieron los llanos. Más ceñido estuvo en sus principios el latín, y después se extendió, y lo mismo puede suceder al bascuence, y más, si nos acompañamos a hablarlo en todas partes con la misma licencia de los que hablan francés. Al tercero digo que a lo menos la aprenderán los mismos bascongados, que no la saben signate y reflexe: pasen los términos de la escuela, en que significo que no lo saben científicamente y con reflexión, distinguiendo de declinaciones de nombre y pronombre, de conjugaciones absolutas y relativas, de la armonía de la sintaxis y otras cosas que ignoran: de que nace que, aun en el modo regular, pocos lo hablan bien. Además que puede haber algunos curiosos, que la quieren aprender por su afición particular a la nación, y otros habrá que a lo menos lo estudiarán, lo que basta para censurar y hallar tachas y defectos en ella».

No vió el Padre Larramendi bien en esta parte, porque sus extraordinarias y penosas tareas, para la composición de la gramática y diccionario susodichos, debieron robarle todo el tiempo, que le dejaran sus indispensables obligaciones, y no pudo tener seguramente lo necesario, para reflexionar debidamente sobre la materia. En prueba de esto, dejó incompleto su diccionario en la parte, como él mismo dice, más fácil y material. A no ser así ¿cómo podría haberse escondido a su penetración, lo que ha podido ver mi corto alcance? No; el P. Larramendi veía que todo el fruto de sus tareas solo podía servir para lo que ha servido; a saber, para el estudio metafísico de la lengua bascongada, pero no que ni sus obras ni las de cuantos le siguiesen en el sendero, que dejó abierto, bastarían para que la lengua bascongada no fuese experimentando los efectos destructores de la comunicación con otras. Tal vez esta última previsión fue una de las razones, porque miraba con ceño y desaprobaba la abertura del camino real pra Castilla y Francia. Lo que no vió y hubiese visto acaso, a haber vivido más, o haber tenido más tiempo, es el medio de convertir en ventaja de la lengua bascongada la fuerza de la acción, que la castellana estaba ejerciendo sobre ella, no de otra manera que convierte el hombre en bien suyo las fuerzas físicas, dando a las leyes naturales la dirección correspondiente al objeto que se propone.

Ya hemos probado que las lenguas dominantes prevalecen sobre las que no lo son porque se cultivan con preferencia a ellas. Cultivemos el vascuence, y veremos que la misma causa produce el mismo efecto. Pero ¿cómo hemos de cultivarla, si hemos visto que todos nuestros intereses y ventajas están en contra de ella? La cultivaremos convirtiendo estos intereses y ventajas en favor suyo. Ahí está la imposibilidad, se me dirá. Pero yo responderé que esta imposibilidad no es absoluta, o total, sino que es posible en parte, y que esta parte posible es suficiente par la conservación de nuestra lengua nativa, para hacerla más generalmente inteligible en todo el país bascongado., y para detener su marcha retrógrada, que es el objeto del decreto, sobre que versa este escrito.

A este fin empecemos a derramar al enemigo desbaratando las oficinas, donde forja sus armas. El lector entiende ya que hablo de las escuelas de primeras letras. Pero veamos antes sus perniciosos efectos en aquellos pueblos de Vizaya, Alava y Navarra confinantes con otros, donde tiene ya sentados sus reales la lengua castellana, y está en plena y pacífica posesión de su dominio. En ellos hoy los hijos de padres de fami-



lia, que aprendieron a hablar el bascuence, y lo pudieran hablar todavía, no entienden esta lengua, y los actuales párrocos son los que por primera vez han hecho resonar en aquellos templos acentos castellanos. Enseñándose a los niños a leer y hablar en este último idioma, a detestar el bascuence y olvidarlo, y estando en continua e íntima comunicación con los pueblos vecinos, en donde ya no se habla otra lengua, sino la que a ellos se les quiera enseñar; fuerza es que aprendan ésta, abandonando totalmente la que se les hace detestar, y olvidar. Y he aquí los párrocos precisados a hablarles e instruirles en castellano, lo que hacen con tanta más gana, cuanto que por iguales causas conocen mal la lengua nativa, y les es más fácil explicarse en la castellana.

Destruyamos pues desde luego esta práctica tan perniciosa a la lengua bascongada, y sustituyámosle otra, que la hermana con la lengua castellana haciendo que se auxilien recíprocamente, y que de enemigas, que eran hasta aquí, se hagan y sean en adelante íntimas amigas y compañeras. ¿qué pretendemos, o qué necesitamos nosotros en nuestra posición actual con la lengua castellana? Aprenderla y llegar a poseerla con la mayor perfección posible.

Y ¿qué han hecho con nosotros para enseñárnosla, y qué hacemos nosotros para enseñar a nuestros jóvenes? Erizarla de dificultades, haciéndola chocar de frente con nuestra lengua nativa y poniéndola en pugna con ella, pero en una pugna tan encarnizada como perjudicial a nuestra lengua nativa. Ya que por la naturaleza de las cosas esta lucha es desigual, y el triunfo ha de quedar para la lengua castellana, salgámosle al encuentro, recibámosla de paz, introduzcámosla como amiga en nuestra casa, y una vez que nos jactamos de civiles y corteses, démosle un hospedaje correspondiente a las prendas de que hacemos alarde. Creamos que, si nos gloriamos de afables y corteses, el castellano hace vanidad de ser francés, bizarro y generoso, y que sabrá corresponder a nuestro obsequioso trato, no mezquina e individualmente, sino con nobleza y con generoso agradecimiento.

Haciendo en nuestras escuelas de primeras letras todo lo contrario de lo que hasta ahora se ha hecho, habremos conseguido el doble objeto, que nos proponemos, es decir, la destrucción de una práctica perniciosa a nuestra lengua, y la introducción de otra, que le sea favorable. Enséñeseles a leer en bascuence. ¿Se le ha obligado a hablar el castellano sin preparación alguna anterior? No se les obligue a hablarlo hasta que tenga copia suficiente de voces y frases castellanas.

Las lenguas se aprenden de tres modos: o por imitación, o por principios o por uno y otro medios juntamente. Del primer modo se aprenden generalmente las lenguas vivas y del segundo las que se llaman muertas. La lengua castellana es lengua viva, pero no lo es respecto a la mayor parte de los bascongados y especialmente respecto a los niños. Sin embargo se les ha enseñado a estos en las escuelas por imitación, como si fuese viva respecto a ellos, y he aquí el error, origen del mal que trato de atajar. Es menester confesar que hasta el tiempo del P. Larramendi no es de extrañar que no se les hubiese enseñado de otro modo, porque faltaban medios fáciles al intento; pero desde que este P. dio a luz su arte y Diccionario bascongados, apenas se puede concebir cómo se ha seguido un método tan absurdo por todos lados. Hablando muchos el español entre nosotros tampoco se puede llamar a esta lengua enteramente muerta, y de aquí la ventaja de poderla enseñar del tercer modo, es decir, por imitación y por principios, que es el método mejor y el que nuestra posición con la lengua castellana nos aconseja seguir por dicha nuestra. Adoptémosla desde luego y con todo el empeño

posible, y veamos los resultados, que va a producir indefectiblemente, si lo hacemos observar con tesón y constancia en todas las escuelas de primeras letras.

Enseñando a los niños a leer en bascuence por la cartilla que acompaña, al primer fruto que se recojerá indefectiblemente, será el de facilitarles esta operación trabajosa. Si podemos traer a la memoria los malos ratos, que ella nos ha causado, y las lágrimas que nos han hecho derramar en nuestros tiernos años, nos persuadiremos de una verdad, que parece paradoja, y es que la operación más difícil, que presenta la instrucción del hombre, es indudablemente la lectura. Los Señores Maestros de primera letras pueden testificar esta verdad, que la están palpando cada día. He dicho que el primer fruto que se va a recoger del método que propongo, es el de facilitar los niños esta difícilísima operación de la lectura, porque, siendo cierto que esta operación la debemos más a la previsión o la adivinación de las palabras y frases, que vamos a leer, que a la material inspección de cada letra y sílaba, y a la aplicación de nuestra atención sobre cada una de ellas, es claro que los niños han de aprender con más facilidad a leer en vascuence que lo entienden, que en el castellano que no lo comprenden. Así es que leemos con más desembarazo los asuntos familiares, que los extraños, y que manuscritos antiguos, y aun modernos, indescifrables, por el carácter de su letra, los desciframos por solo el socorro de unas letras o sílabas a favor del conocimiento anticipado, que tenemos de las palabras y frases de la lengua, en que están escritos. En consecuencia de esta observación se ha procurado no introducir en la cartilla, ni en los diálogos, ninguna palabra o frase, de que no tengan conocimiento anterior los niños, o que no lo puedan tener con la mera indicación del Maestro. Este punto es capital en la enseñanza, en la cual se debe proceder siempre de lo conocido a lo desconocido. Del abandono de este principio fundamental provienen la pobreza o casi total falta de libros elementales en toda clase de instrucción, y yo no lo perderé de vista en el método que propongo. Los niños empezarán desde las primeras letras del alfabeto a leer, al paso que las vayan conociendo. Así se les ahorrará el fastidio resultante del monótono sonsonete de la lectura de sílabas insignificantes; y para cuando hayan llegado a conocer las últimas letras del alfabeto, sabrán ya leer. Como irán palpando a cada paso la utilidad del conocimiento de las letras por el resultado de la combinación de éstas, su amor propio se lisonjeará con los progresos, que irán haciendo, no de otra manera que se engríen cuando, a favor de una caña o de una onda, alargan la palanca de su corto brazo y extienden hasta un elevado tejado la piedrezuela, que sin este adminículo no hubieran podido arrojar, sino muy a corta distancia de sí mismo. A medida pues que vayan conociendo el aumento de sus fuerzas irán entrando en ganas de progresar más y ved aquí todo el secreto de la enseñanza.

Luego que los niños están corrientes en la lectura de la cartilla pasarán a leer el primer librito de diálogos basco-castellanos, cuya muestra acompaña. Se reduce a conversaciones triviales propias de su edad, y algunos apólogos, que interesen su curiosidad. Se ha procurado que las preguntas y respuestas sean muy cortas, y que la construcción bascongada se acerque en todo lo posible a la española, para que entiendan mejor la correspondencia castellana. Se ha tenido también mucho cuidado en la introducción de voces vascongadas, poco o nada usadas, para que no hagan ininteligibles las frases y se vayan adoptando y generalizando paulatinamente.

El segundo libro, que se les hará leer cuando estén corrientes en el primero, y de que también acompaña una muestra, contiene retazos de la historia natural más acomodados a su edad. No puede menos de agradarles su lectura. Por su novedad, interés

y curiosidad, no sólo los divertirá con agrado, sino que al mismo tiempo les será instructiva bajo diferentes aspectos, y contribuirá a formar convenientemente sus tiernos corazones, que es en lo que consiste lo esencial de una buena educación.

Seguirá a los dos libritos susodichos un compendio de gramática basco-castellana, que estudiarán los jóvenes para instruirse y adiestrarse prácticamente en la declinación y conjugación y construcción de ambas lenguas, y al fin del arte se pondrán la tabla pitagórica, y las cuatro reglas de aritmética en ambas lenguas.

Veamos ahora las ventajas, que nos podemos prometer de la introducción de este método en nuestras escuelas de primeras letras, y para hacerlas resaltar más, pongámosle en parangón con el que tratamos de suprimir.

Hemos evidenciado que el método actual dificulta la enseñanza de la lectura y la hace fastidiosa tanto como el nuevo método la facilita y la hace agradable.

El método actual, obligando a los niños a hablar el castellano por imitación, sin preparación ninguna anterior, les pone en la alternativa de condenarse a la mudez en la edad más locuaz, o de hablar una lengua que no la saben, ni la oyen hablar, resultando de aquí que para salir de la tortura, en que se encuentran, sin incurrir en la pena, que se sigue al fatal anillo, forjan entre sí a favor de algunas palabras sueltas, una especie de germanía o guirigay, tanto más ridículo y extravagante, cuando son diametralmente opuestas las construcciones de las dos lenguas, y esta jergonza deja tales resabios, que apenas desaparecen del todo, aun después que se haya seguido la carrera de las letras. El nuevo método atajando este inconveniente de tanto bulto, irá enseñando a los niños con la lectura de los diálogos las dos lenguas, insensiblemente, sin ningún esfuerzo, ni violencia y sí con mucho agrado. No quiero decir que los bascongados no encontrarán en adelante ninguna especie de dificultad para producirse en castellano. La lengua nativa, que ha ordenado nuestras ideas conforme a su índole y construcción, siempre será un obstáculo para poderse explicar con toda propiedad, corrección y facilidad en cualquiera otra, y especialmente en las de índole y construcción enteramente opuestas. Lo que digo es que por el nuevo método hablarán los niños un castellano mucho más regular y que lo hablarán con mucha más expedición. Por él se conseguirá además otra ventaja de la mayor importancia, y es que se cultivará nuestra lengua nativa, se enriquecerá con voces y frases inusitadas ya, y con las que, creadas analógicamente por el P. Larramendi, nunca han salido de su diccionario, sino para ser trasladadas a algunas obras, que las han hecho ininteligibles y fastidiosas, y que por tanto han quedado arrinconadas para siempre. Fijada hasta cierto punto nuestra lengua por medio de los diálogos referidos, se generalizará en el país y se hará inteligible en todo él, porque no quedará más diferencia que la precisamente irremediable de sus varios dialectos, la cual debe consistir tan solamente en la diferencia de la declinación y conjugación. Es verdad que, para conseguir este resultado, será menester ir multiplicando sucesivamente el número de los libritos de diálogos basco-castellanos; pero surtiendo los dos de que he hablado al efecto, que es de desear y esperar, quedará asegurado el despacho de todos ellos con beneficio inapreciable para la instrucción de los jóvenes del país, y no obstará la dificultad que embarazaba al P. Larramendi, cuando decía «yo te escribiré más libros en bascuence, si dieras unas friegas a la bolsa para imprimirlos».

El P. Larramendi los hubiera escrito seguramente, si le hubiera ocurrido esta idea, porque hubiera asegurado el despacho de ellos. Si hubiese sucedido así, la len-

gua bascongada hubiera sido aun hoy en el día la de no pocos pueblos, que han entrado bajo el dominio de la castellana, y hubieran sido harto más fructuosas las laboriosas tareas, que costaron a mi paisano su arte y su diccionario. Mas, ya que no ha sido así para desgracia de nuestra lengua, apresurémonos sin pérdida de tiempo a adoptar la idea, que la ha de salvar. El nuevo método instruyendo desde sus primeros años a la nueva generación en la lengua de sus padres, contendrá en sus límites actuales los estragos, que va haciendo la castellana, porque ésta no caminará como hasta aquí con la espada en mano labrando su fortuna sobre las ruinas de nuestra lengua nativa; al contrario vendrá a nuestro suelo a hermanarse con ella, y a vivir en compañía suya en la mejor correspondencia y la más íntima amistad. Si alguno dijere que la idea que propongo nada tiene de particular y salta a los ojos de cualquiera, le responderé primeramente en el lenguaje festivo del P. Larramendi: «ikusi ta urrisa», le diré en segundo lugar que no hubiera venido a mis mientes, ni muy probablemente a las de ningún otro, a no haber sido por la excitación del autor del Alfabeto bascoongado y del mundo primitivo, que ha motivado el decreto de las Juntas de Mondragón. Sin su amor ardiente al país donde vio la primera luz, y a la lengua en que pronunció sus primeras palabras y de que es entusiasta hubiera quizá continuado siendo cada vez mayor la indiferencia, cuando no la aversión, con que la miramos por las razones que se han expuesto. Mas ya que depende de nuestro arbitrio, que desaparezcan éstas con todos sus lamentables efectos, no las dejemos subsistir un solo instante, y plantemos desde luego un método que, como hemos visto, ha de ser fecundo en resultados lisonjeros.

¡Quién sabe si de esta hermandad, buena correspondencia y armonía, en que pudiéramos a las dos lenguas, que hasta ahora han sido enemigas irreconciliables, resultará que entrando la castellana por todo este país a paso franco sin inconveniente de ningún género, y sí con muchas ventajas de la bascongada, hará también ésta por su parte la reconquista de aquellos pueblos, donde hoy se halla agonizando, y en momentos de expirar? A este fin sería preciso invitar a las Diputaciones, a que corresponden aquellos pueblos, a adoptar el método de que se trata acomodando el bascuence de los libritos referidos a sus respectivos dialectos y teniendo cuidado de conservar la misma terminología, para que fuese generalizándose en las diferentes provincias y haciéndose de este modo más inteligible nuestra lengua en todas ellas. Si la experiencia, como es de esperar, correspondiese a nuestros deseos, se podría ir, como se ha dicho, multiplicando sucesivamente los diálogos, y haciéndoles girar sobre puntos de agricultura, economía doméstica, etc., y por este medio se lograría que se enriqueciese la lengua, se extendiese la instrucción de los jóvenes y se perfeccionase la enseñanza primaria de nuestras escuelas. Ella facilitaría también en gran manera el estudio de la gramática latina, que tan dificultosa suele ser para los naturales de este país por falta de conocimiento de la lengua castellana. Y ¿cuántos bascongados que saben leer en su lengua nativa, y no entienden la castellana, no la podrían aprender por los Diálogos y aprovecharse de la instrucción que encerrasen? Su número es considerable, incluso las niñas, que asisten actualmente a las escuelas de las maestras, y el beneficio que se les hiciera con la adopción del nuevo método, que necesariamente redundarían en bien suyo, sería imperdonable.

Creo haber evidenciado que, como dice el epígrafe de este escrito, se pueden convertir en áncoras de salvación de la lengua bascongada los escollos, en que va a naufragar de lo contrario. Que llevándola a puerto de salvación se puede hacer de ella un medio excelente de instrucción para la juventud de nuestro país. Y que finalmente

conservando y fortificando este vínculo, que tanto estrecha nuestro paisanaje y confraternidad admirable, podemos adquirir un título nuevo de más para gloriarnos de pertenecer a este privilegiado y envidiable solar.

## **VI. Eranskina: Iturriagak Iztuetari idatzitako eskutitzak**

Eskutitzok Jose Garmendia Arruebarrenaren *Obras Inéditas de Iztueta* liburitik jasoak daude (Garmendia, 1968: 169-96). Ez dira oso-osorik jaso: lan honetarako argigarrienak ziren pasarteak aukeratu dira, soil-soilik. Garmendiak berak argi azaldua duenez, eskutitz gehienetan ez da urtea ageri. Hori dela-eta, lan zaila da eskutitzok justu noizkoak diren jakitea eta, oro har, Iturriagaren eta Iztuetaren arteko lankidetzafasea bere osoan zehaztea. Saiatu naiz, halere, eskutitzean esaten direnetatik urte probablea edo, hori ezin denean, urte-inguru posiblea aztertzen eta, galdera-ikurrez, hasieran adierazten. Horren araberako birsailkapena egin da, ahal zelarik urterik urteko ordenari eutsiz eskutitzetan (170). Urte seguruko eskutitzetan osorik ematen da data, eta (nire ustez) egiantz handieneko fetxak galdera-ikurrez adierazi dira.

### **Dokumentu-zkia: 1**

#### **Noizkoa: 1824?-VII-25 (beranduenik)**

Garillaren ogeuita bostian

Jaquinet Larrarte gandic molderatcecoac dirala sarri aurrecoac dantzatzen zituzten soñu zar berorrec biribillartu dituenac, baitaere beren itz neurtuac. Atceguin andibat izango det berorren lan aleguiñac guipuztarren gogocoac irtenzia, bañan biarliraque eracutsi jotcen eta dantzatzen danbolin eta dantzari gazteai. Gascoi errian dituzte eta dantzatzen dituzte asco lecutan soñu mota berac, dembora guchiz onontz utzi ezpadituzte. Badaqui berrorec euscaldunak cirala aien antziñacuac. Gueldibedi ondo eta vici-bedi alai.

Nere escumiñac berorrec daquien personai eta aguindu berorren adisquide biotzeco

Agustin.

### **Dokumentu-zkia: 2**

#### **Noizkoa: 1824 eta 1830 artean**

Agorrillaren biyan

Nere adisquide maitea: nerequin det berorren erenegungo carta, eta onen barrenen cetorren irudia Mr. Leclusec ematen duena bere hitzteguiaren jaquintza emateco eta zabaltceco. Ez naiz ni arritcen ecusiaz beroi aurreratu zaiotela lan onetan, ceren mendiaz ango aldetic errasac diran gausac guretzat anis gaitzac dira. An jaquin nai asco, emen guchi, an aberatz milla emengo baten lecutan; oni deritza dezaquenac badezaque.

---

(170) Halakorik urrundik ere egin ezin izan den bi kasutan, eskutitza aparte eman da, zere-rendaren bukaeran.

Nic ecusten derana da eun urtes onontz arimbat eusquera ezdala moldizquiratu, eta alaere ez dala gure itzcuntza euscaldunen beren artean ere obetoago icasten eta mintzatzen. Ez det ere uste hitzeguinaquin zaitiraunducodala.

Orain dala saspí urte humechoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaiztiaí iracurtcen eracustea-requin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea. Nere paperaren artean beardet izan abece bat eusqueras eta erderas iracurtcen eracusteco eguin nuena. Egunen batean biralduco diot uste det erraslitequean gustia errastua daducadala humetazuneco lanbide andí samintasunez bete, negareraguin garri au.

Ala bada, iduritcen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutzi iracurtcen erderascoetan asi baño leen. Erraslitzaque liburucho bat eguiten onetaraco gausac chit ones betea. Icasicolitusteque gasteac, cergatic isquidatuco litustequean, eta argatic beragan iracurricó liteque gogos.

Beti naigabe andí batequin ecustenditut gure mutilchoac iracurtcen erderasco liburuac, monjac latinescoac becela, cer iracurtcen duten ezdaquitela, eta adinic onena ecer icasi gabe iragotcen zaiotela. Astaqueria andia arantzas betericaco bidetic sasi mendira eramatia, loresco bide zabal ederretic fruta gozos betericaco baratzara eraman bearrean.

Ar(ri)tuco litzaque cein a(n?)tzera dauden oraindic lecu gucietan eracasdearen gañian. Nola errasago baitan paperac izcuntza ederres betetce(a) escribus aurraquin jardutea baño; nola aurraquin jarduteco ifiñiac daudenac gueienac buruac utzac baititusten, emendic datos ain guchi aurreratzea lan valioso onetan.

Asco da gaurcos. Ongui eta posquido vicibedi; nere goraintzac adisquide oirai, artuvitza emen dituenenac eta iduqui naza bedorri gueiena naidiotenen artean, badaberorena da gueiago valitz ere.

Agustin.

### **Dokumentu-zkia: 3**

**Noizkoa: 1824 eta 1830 artean**

Sete. 27

Nere adizquide mamia: ezdiozaquet aguertu bear eta nai bezela biurtzen diozcan bere seme maitearen izquida biac iracurtz(e?)an nic artu dedan poza eta ere biotzean sentitu ditudan quilimica eztiac. Jaincoac naico du sartze (zahartze?) luce neque eta quezca gabeco bat berorri eman, eta neri bitarteco osasuna berorrequin batean dembora igaro dezadan zurdapillatzen cien guztiz auttez eta sisas (?) beteric arquitzen degun gure jaiotzaco izcuntza. Asi naiz pisca bat au ezagutzen eta uste det denbora guchiren barrenen escribatuco diodala neque aundi gabe. Egun oietaic batean biralduco diozcat liburuchoac garbiro jarriac, iracurri ditzan, eta Barojagandic, icusi ondorean cenbat costaco dan moldezquidatzea. Jaquin dezan guchi gora bera.

Badaquit aotan narabiltela or Provinciaren aldeco erantzuqui baten gañean esanaz eta seguratuaz nic escribitu dedala. Ez daucat beste eguitecoric. Nic bezela eta egunaren orduetan nic becin batetan ecer alquia epurdiz berotuco baluteque orco cenbait

chori buruc, beste moduz denbora igaroco luteque eransietan baño. Izan liteque oiecatíe Islac Valenciatarraçatic esan zuena.

*Llevaban por cascabeles  
cabezas de Donostiarres.*

Arbeza nere pozerazquida eta ninitan bequio beti biotzaren erdi erditic naico dion  
Agustin.

**Dokumentu-zkia: 4**  
**Noizkoa: 1830?-VII-10**

Hernanin, Garillaren amarren eguiña

Nere adizquide maitia: artu nuben, sei bat egun dirala berorren esquelachoa, eta gaur ecarri dirate berriz beste carta bat ceñetan ipintcen diran armac eta soñecoac Tercioentzat aguintcen dituzten Guipuztar eguiazco guizon galanten lista. Atseguin andi bat ematen dit onelaco noticia gozoaquin, eta berago Juntac dirala berechienetacoac; gende eder prestu asqui eta eztitasun andiarequin gausac erabaquitcen ari dirala.

Ala bear da. Berotasunac eta errabiac ez dute beñere gauza irauncoric eguiten, eta garaitu dubenac bere lecua ez galtceco eta beti gañean egoteco biotz sabal lasaiz garaituai beguiratu bear die, bideric eman gabe arrazoia irabasteco, eta beti arrazoiaren bidez mendian iruquitcen dirala; au da beñere bururic alchatcen ez usteco manera eta cer errabia andiagoa lur jo dutenentzat ecin alchatua baña secular, non eta gañean dagoanac escua ez dion ematen! (1830eko urri-azaroetan mugimendua izan zen inguruotan, Frantzian errefuxiaturik bizi ziren frantsestuená (eta liberalena?). Muga pasa eta Espainian kokatzen saiatu ziren. Orduko kontuak dira, itxuraz, hor aipatzen direnak).

Esperantcac gisona bisi du, quenbequio esperanza eta da criaturaric cupigarriena. Ez litzaque lastima gueiegui pelotac lucau bearrez partida galtceco zorian jartzea. Ez; postu arrantzac (jostorrazak) baño ariac luceago bear du izan. Bebilora lotsaz beteac baña garrochic gabe. Eracutzi beguie nola portatu bear dan bein etsaia aspian artu ezquero ez gueroago alchatzen usteco.

Arbitza nere anaia eta Manuelen escumiñac; emanbetiaisca nereac andre Maria Ana Menari; cer estiquin farra eguingo duen orain; bai nic ere. Gorantci berorren alaba alaiari, eta seme dantzariari.

Berorrena naiz, gueiago banintz ere.

Adisquide eguiasco

Agustin

**Dokumentu-zkia: 5**  
**Noizkoa: 1831?-I-1**

Enero 1º

Nere adizquide mamia: ona ni berorren deseori conforme ocupatua, gure eusquera escuetatic joan ez daguigun, nere buruan bideac billatcen. Emen arquituco du Conde Villafuerteari bigaldu deran paperaren copia. Chit gustatuzaió eta naico det berorren

gogocoa ere izan dedin. Iracurri eta biurtu(co) dit, iñori ecer esan gabe, ceren berorrec badaqui ez de(te)la maite landare oric, ez iñoren autan ibiltceare ez(..)itorcico e(t)a ez oneraco. Adi nai(z) cartilla, gramatica eta beste izcuntcetaco liburuchoac nere baitan moldatcen, eta nola nainituzquean aietan sartu aldituran(eus)quera garbizco icen edo termino guztiac, ecusi beza(... )ldu alditsazquiran itz mota Larramendiaren diccionario-an arkitzen ez diranac, eta usu edo.....batzuetan daudenac.

Nola guc ez degun icasi eusquera gueren gaste demboran icasi izan guer(n?)ezaquean (...)la lan andiari narraizquio, esagutcendet ceren itz bacoitcian diccionarioa escuan artubear, baña uste det irtengo naicela nolarebait sasitic, eta bearbada gure ondorenguac, gure lana dala bitarte, euscaldun ede(rrac?)ateraco dira. Ala guertatuco dalaco esperanzarequin (...) errastuco da, eta oraindic postuco naiz. Ona nere saria, eta ez det besteric nai.

Uste det Donostiaco Juntetan itseguingo dala Mondragocoetan eguin zan decretoaren gañian, eta orduraco izango da nere lana bear dan bezalacoa irteten bada.

Ondo vici. On Manuelen escumuñac eta nere añayarenac artu, eta naiduen guztiya aguindu.

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 6**  
**Noizkoa: 1831?-III-12**

Marzo, 12

Adisquidea: Onela lan asco eguingo degu:

Ha traducido Vd. perfectamente el diálogo. Hay va otro, para que lo traduzca Vd. cuando tenga tiempo.

Sus observaciones y correcciones a mi traducción, o a mi vascuence, hechas por Vd. son exactísimas y fundadísimas.

Basta por hoy, eta beti berorrena

Biotzetic

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 7**  
**Noizkoa: 1831?-III-15**

Marzo, 15

Eguin dequiogun gure lanari adisquidea.

Me he hecho cargo de cuanto me dice Vd., querido amigo. Ahi va otro dialoguito y venga puesto en el puro y hermoso vascuence que Vd. habla. El maestro de primeras letras de esta Villa, que es discípulo mío de latinidad, está ocupado en escribir en planchas la cartilla vascongada, pero antes que se presente a la Comisión de la provincia se la enviaré a Vd. para que la examine.



El maestro hará sus ensayos en la escuela para ver cómo entran los chicos en nuestro nuevo médico (método?), y si, como no dudo, corresponde a nuestras esperanzas, tendremos a nuestro favor la irresistible razón de la experiencia, y lo demás dependerá del celo y amor al país de la Provincia.

Ongui visi ta agindu berorena dan

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 8**  
**Noizkoa: 1831?-III-15**

Marzo, 15

Equin lanari gogotic.

He recibido la traducción y también la amable carta de mi amigo. Una tarde que sea buena y desocupada nos veremos en Oriamendi, y hablaremos. Se lo prevendré a Vd. de víspera o por la mañana y no me olvidaré de acompañarme de un manual ni de llevar conmigo la colección de voces y de frases de Vd.

Ondo vici ta agindu

beraren adisquide venetaco

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 9**  
**Noizkoa: 1831?-IV-27**

Apirillaren 27 eguïña

Orra, nere adisquide mamia: beste bi hizqueta eusquerara biurtu ditzan. Laxter bucatuco degu lendabico liburuchoa, eta emango diyogu asiera bigarrenari, ceñatan itceguingo da animalichoen izairaren gañian. Nainuque bucatu au berala Donosti-yaco batzare aundiyetaraco, ecusi dezagun cer deritzayoten batzartarrai. Ondo baderitzayote joango guera aurrera gure lanian eta aita Cardaveraz ta Larramendiren erritic irtenac izangodira oyec aimbeste maite zuten euscara ederra ez galceco baicic aberasteco ta apaintceco eguiten ari gueran liburuchoa.

Eznaiz aztu alcarrequin itceguin bear degula, eta aleguin eguingo det lembailen Oriyamendico gañera joateco.

Ongui bici eta on Manubelen, bere semearen ta nere anayaren escumuñae ematen diozcadala guelditcen naiz bedorren adisquide maitea eta maite duben

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 10**  
**Noizkoa: 1831-V-15**

Domingo, 15 de Mayo 1831

Adisquide mamia:

Me dice el Sr. Conde que el Miércoles próximo por la noche tiene que celebrar su reunión con sus socios.

Si Vd. despachase uno de los diálogos, que tenia Vd. ahí para el medio día o la tarde del día de mañana lunes, yo podría ponerlo en limpio y enviarle pasado mañana, para que puedan aquellos Señores formar una idea de lo que será el libro 2.º que destinamos a las escuelas de primeras letras.

Berorren mamia

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 11**  
**Noizkoa: 1831? Maiatz ingurua?**

Igande eguna

Adisquide maitea: orra lana eta orra jana para dira bi ipuincho oiec. Iduritzen zait faltaco dirala oraindic cenbait, lenbizico liburuchoa betetzeko nere contuetan eta argatic ecartcen dioscat eta ekarrico dioscat beste bost edo sei. Jana da papercho ori ceñña bidaldu deran Tolosara Diputacioac Juntatara equerdezan. Ustedet gustatuco saiola asco. Berorrec bacarric iracurrita biurtuco dit gusto duenean. Nic sinisten eta esperatcen dedan eran provinciaco Jaunac beguiratcen badie gure lanari, ecusico du cer gausac ateraco ditugun eta cer prochuscoac necazari gendearentzat, eta cer honra andia eman-go diogun euskalerriari.

Berorrena dan

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 12**  
**Noizkoa:1831?-VI-16**

Junio 16

Adisquidea: berorrec dionez eta On Manuelec esan diranez ez nau ongui iracurri. Ez det nic esan aita Larramendic arrazoiric ez daucala bide berrien gañean. Lembizico alcar ecustean, berorrec ustebaño urbillago a(r)quituco guera alcarren gai onetan beste ascotan bezela.

Gueguiogun gueure lanari eta agur

Berorrena dan

Agustin

**Dokumentu-zkia: 13**  
**Noizkoa:1831?-VIII-2**

Agosto, 2

Amigo:

Se me olvidó decir a Vd. que el Conde no estaba contento del descargo de la comisión y decreto de las Juntas en que parece se dice que la provincia no se halla con medios para proporcionárselos a la Junta de Fomento de la Industria del País. Me

añadía que para nuestros libritos no se necesitarán muchos y que podrá proporcionárselos regularmente la Junta.

Baroja, que está desocupado, y Vd. habrán de trabajar y yo me alegraría muchísimo de que Vd. sacase alguna utilidad como lo merece. Nosotros que no necesitamos de estos recursos para mantenernos debemos trabajar para los que no los tienen.

De Vd.,

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 14**  
**Noizkoa: 1831?-VIII-28**

Agosto, 28

Nere adisquide mamia: nerequin ditut atzo egorri dizquidan paperac. Orra besteac. Aurrera goaz gure lanean, eta dembora guchiren barrenen bucatua gueldituco da bigarren liburua, ascoc naico duena, engañatcen ez banaiz.

Ez naiz arritcen Cineren (?) izcuntzai, ceren orobat da erdera, non francesa, non latina icasteco. Bestela beguira cein laster eta ederqui itcequitzen duten eusquera chrosquille paarguille eta chiquiratzalleac.

Eraqueria da uste izatea iscuntza bat bestea baño gaitzagoadala. Eusquerac ez du beste cer esanic autsez betaeta beti vici izatea besteric. Zurdapilla onac arrapatu du eta astiñ aldi ona emango dio. Guero besteren batzuec demborarequin arguitaguic (argizariz, alegia) igortcico dute eta polituco.

Bizcaitarra(ren?) izcuntza frances euscaldunena da. Escribatu bezala mintzabada ez da itzucia. Ezaugun da odol beroa duela, eta buru artoa. Aberatza balitz servitzu andi bat egingu lioque gure itzcuntzari, aimbeste maiteduen ezquero. (Ulibarriz ari ote da?)

El Conde me dice que la Junta del fomento se reunirá dentro de poco y que se tratará en ella de pedir permiso para la impresión de la cartilla y libros. No creo que encuentre dificultad en conseguirlo por el medio que tengo indicado: porque querer que se observe el reglamento de escuelas y privar de sus beneficios a los vascongados, sería injusticia y contradicción.

Conseguida pues una justicia tan rogada (?) está conseguido lo que buscamos, que es la conservación de nuestra engua.

Digo al Conde que me parece que el coste de la impresión lo cubrirán fácilmente los mismos impresos, porque cuantos sepan leer los encontrarán ansiosos e insaciados, y como se procurará que sean lo más baratos posibles, apenas habrá quien no se vea tentado de tenerlos.

No será menos interesante el tercero, según que van ocurriendo especies en algunos ratos, que me pongo a pensar.

¿Qué se hizo el trabajo del Diccionario a que quedó encargado D. Justo Pastor Pérez?

Aquí adisquidea beti berorrena

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 15****Noizkoa: 1831?-IX-1**

Sete. 1

Artu ditut nere adisquidea, berorren paperac. Orra non dijoacen bigarren liburu-choa bucatcen dutenac.

Laster aci bearra degu irrugarrenarequin gure necazari prestuai itzeguiten. Baldin adiarazotzen badizquiotegu guigaunac(?) arritu eta zur eguiñic utzico ditugu. Gauza gaitza da chit arani eguitera goazquiogun baña andia izango da ere eta chit baldin ongui irteten baguera gueren asmotic.

Berorrena beti

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 16****Noizkoa: 1831?-IX-3; 1833?-IX-3**

Irailaren irugarrena

Obe omenda berandu iñoiz ez baño. Zordiozcat Bigar zorcico egun onac nere adisquide maiteari beraren seme alaba onai eta andre Mariari ( ) nere errespeto gustiaren jabeari. Campotarrac izan ditut echean eta ez det demboraric atseman berorri itz bi oiec escribitceco ez astuba negoalacoz berorrentzas eta gende prestu oietzas.

Bigar dijuaz on Manuel eta anaia egun batzuetaco visita bat eguitera; osasuna dute eta berorreitzaz oroitcen dira.

Naico det berorren visi moduan ez dezan izan galbideric egun guchi onontz Madrillen guertatudan gausa berriagatic.(1833ko azaroaren 7an hil zen Fernando VII.a: hil aurreko testamentu kontuen inguruko zerbaitez ari ote da hor Iturriaga?). Pena anitz artuco nuque alacoric guertatuco balitz.

Badaqui berorrena naicela, ezan betiaisquiete asco gausa on seme alaba et An(d)re Marianari eta agurri...

Berorren adisquide

Agustin

**Dokumentu-zkia: 17****Noizkoa: 1839?-XI-7; 1840?-XI-7?**

Noviembre, 7

Mi estimado amigo:

No contesté a la expedita de Vd. del día pasado, en que tuvo la atención de darme la noticia de la amnistía. La sabíamos por la diligencia de la noche anterior, pero no por eso he apreciado menos la finura de Vd., y si no le he dado respuesta, ha sido porque no la pedía urgente y he estado ocupado.

Doy pues a Vd. un millón de gracias. Quiera Dios que se sepulte en etemo olvido lo pasado y que hagamos vida nueva. No todos lo querrán desgraciadamente, pero serán ya criminales los que se opongan a la voluntad del Soberano. Es un gran bien, un bien inapreciable y de extraordinarias consecuencias la providencia que quita tanto pretexto a la maldad, y pone en plena libertad de obrar bien a los hombres de providad. Estoy corrigiendo mi pequeño diccionario para ponerlo en limpio y enviarlo a Madrid con los demás libros para solicitar la licencia de imprimir. Contendré casi todas las voces de origen bascongado del Diccionario de Larramendi y de la impresión, cuyas pruebas deberá Vd. hacer, le pondrá Vd. la última mano.

Una vez obtenida la licencia poco importará la añadidura de algunas palabras y consultando el volumen y aumento de coste haremos las adiciones que nos acomoden, porque nadie vendrá a hacernos cargos de voces sueltas. Sería una cucaña, si como espero, logramos imprimir por seis o siete reales una gramática y un diccionario. Lo veremos.

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 18**  
**Noizkoa: 1840-VIII-7**

Hernani, 7 de agosto de 1840

Mi muy apreciado amigo D. Juan Ignacio:

(...). Va una ezpata dantza descriptiva de ella, y una marcha de San Ignacio (2). Siendo éste bascongado, la marcha se cantaba en castellano, lo que parecía ridículo. El Bautista Biribil era un bailarín de chirulivus, muy nombrado en este pueblo, ahora 70 años, le conocí muy viejo y lo es una hija suya que aún vive.

Agur amigo, viva Vd. pizcor mandando a su amigo

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 19**  
**Noizkoa: 1832?-V-3**

Mayo, 3

Amigo mío muy amado:

Esa carta es para Irigoyen consuladu coarensat. Le pido las cuentas y le digo que Vd. me las remitirá, porque sé que si Vd. no se las arranca, no me las pasará. Llevo adelante mi gramática que tendrá por título Compendio fraseológico de la Gramática del Padre Larramendi o cosa semejante. De este modo se conseguirá más fácilmente la licencia de imprimirla y nosotros conseguiremos una equivalencia de la reimpresión del imposible vencido.

Bastará luego que la Diputación o la Provincia recomiende a los pueblos su uso, para que se introduzca en las escuelas y lograremos nuestro objeto sin necesidad de recurrir a la Junta de Inspección de Madrid, donde puede haber enemigos de nuestra lengua, y aquí enemigos de otra especie en la Junta de Inspección del País. Vea Vd.

cuánto cuesta hacer el bien. A mi nada de esto me admira, porque sin salir de este rincón conozco a los hombres y conozco al mundo.

Dijo una gran verdad el que dijo: que los hombres somos niños grandes; pero yo encuentro una gran diferencia entre nosotros niños grandes y los niños pequeños, y es que teniendo como éstos mucho egoísmo y mucha envidia no olvidamos como ellos olvidan al momento, nuestras ofensas y nuestras aprehensiones.

No sé si se ha apoderado de Vd. el temor que infunde el cólera. Los males físicos como los morales tienen su origen en la acumulación de la gente. Nos podríamos unos a otros como se pudren los huevos o las manzanas, y este nuestro dichoso suelo lleva en el esparcimiento de su población el principio de todo género de felicidades. Nos faltan para nuestra dicha poblaciones grandes y ojalá no lo fomentaran esa y alguna otra del país. No temo pues ninguna especie de peste en este venturoso rincón, estoy bien seguro de que tampoco Vd. pierde sueño por ello.

Viva Vd. bueno y contento como su apasionado amigo,

Agustin.

**Dokumentu-zkia: 20**

**Noizkoa: 1840-XI-30**

Hernani, 30 de noviembre de 1840

Mi estimado amigo D. Juan Ignacio:

He recibido su última apreciable de Vd. y el tratado del verbo vizcaíno del Padre Zabaleta, de que en ella me habla y que se ha servido pasarme para su examen el Sr. Guereca, secretario actual de esta provincia. Abundamos de esta especie de obras así como escaseamos de otras. Se conoce, el P. Zabaleta como él mismo lo dice ha hecho un gran estudio de la materia que se propuso tratar.

Sería lástima que no viese la luz pública, como sucedió al diccionario del Sr. Aguirre (Etxeberri Sarakoaz ari da), Médico que fue de Azpeitia, de quien habla el Padre Larramendi en el prólogo del suyo y cuyo diccionario de puño todo de su autor se halla en mi poder .

Yo tengo el mío (hiztegiar ari da) en limpio en la letra E, dedicándole los ratos que mis ocupaciones me permiten. No habiendo podido conseguir que Baroja, ocupado en la obra de la Revolución francesa, se dedicase por mucho tiempo a la impresión de mis libritos para las escuelas de primeras letras, me he resuelto a hacer aquí mismo una pequeña prensa y a divertirme yo mismo en su publicación, desengañado de todo lo que depende de voluntad ajena. No sé cómo saldrá mi idea.

Celebro se mantenga Vd. tan bueno, como me lo han asegurado, en compañía de su esposa, y que haya tenido la satisfacción de disfrutar en el campo del abrazo los días gloriosos de que era Vd. tan digno (1).

He apuntado la especie de que deben las Provincias preparar premios para los mejores bailarines, jugadores de pelota, tiradores al blanco, coplaris e improvisadores, etc., etc., para los años sucesivos, a manera de los antiguos que establecieron los juegos

olímpicos y otros. No ha disgustado la idea y sería el mejor medio para llamar la gente y perpetuar la memoria del Convenio.

Consérvese Vd. bueno y mis expresivas a su esposa y quedo como siempre su afectísimo,

Agustin.

---

(1) Las tres provincias acordaron festejar el aniversario e Iztueta tuvo parte con su comparsa.

**Dokumentu-zkia: 21**

**Noizkoa: 1841-II-28**

Hernani, 28 de Febrero de 1841

Mi estimado amigo D. Juan Ignacio:

(...). He leído la obra del P. Misionero Zabala, y me parece que ha llenado perfectamente el objeto que se propuso, y que ha hecho un servicio señalado a nuestra lengua y por consiguiente a nuestro país,

Agustin.

**Gainerako eskutitzak, data hurbila ere ezin asignatuzkoak**

**Dokumentu-zkia: 22**

**Noizkoa: ?**

Julio 19 martes

Nere adizquidea: gaur goibel dago, eta ezbadu euriric eguiten eta chit arquitcera eta berotcen On Manuelequin Oriamendin izango da lauterdiarequin bosten bitartean berroren adizquide

Agustin

(Es un papel pequeño).

**Dokumentu-zkia: 23**

**Noizkoa: ?**

Gaur asteazquena

Adisquide mamia: luzaresiric egongo da baño ez da posible izandu lenago biurtea liburucho au, Mutiozabalen... ta, eta ez du (da?) ere bialtzea oiequin aurquituco duen papera, ceñean icusico du calpar-motza urratuba, puscataba auts biurtua. Naico det beroren gustora ipiñia aurquitzea nere lana.

Iduritzen-zat chit neque andia eta lan gogorra artuco duela, baldin Aita Larramendi itz bacoitzean escuetan erabilli bear ba du nere papera erdaratic cusquerara biurtzeco, zergatic chit itz asco aurquituco ditu bestela esan al ezditezqueanac, bañan gauza mota

oietan ez da posible beste itzequin jardutea. Erdaraz moldizquiratzearen gañean berorec derizquiona egingo du.

On Manuelen escu-muñac arbitza eta agindu berorren adisquide

Agustin.

## BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, ANDRES (1990). *Agustin P. Iturriaga*. In Bidegileak. Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- ALTUNA, PATXI (1987) Iturriagaren *Jolasak* liburuaren Euskal Editoreen Elkarteko berargitalpenerako eginiko hitzaurrea, 21-9 or.
- ARCHU, J.B. (1848). *Choix de fables de La Fontaine traduites en vers basques*. La Réole: Pasquier.
- (1852). *Uskara eta franzes gramatika*, uskalherrietaco haurrentzat.
- AROCENA, FAUSTO (1952). *Brumas de nuestra historia*. Donostia.
- ARZAC, A. (1887) «Nuestros autógrafos de J. B. Erro, A. P. Iturriaga, J. I. de Iztueta, Jose de Aizkibel», in *Euskal-Erria* 1887-XVI, 282.
- ASTIGARRAGA (1825). *Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática*. Para el uso de la juventud de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, con ejemplos y parte de la Doctrina Cristiana en ambos idiomas. Donostia, Baroja etxea.
- BAKER, COLIN eta SYLVIA PRYS JONES (1998) *Encyclopedia of Bilingualism and Bilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- BARBAGERO, JUSTO (1861). «Memoria del Abad de Santo Domingo de la Calzada Justo Barbagero, elevada al Ministerio de Gracia y Justicia el 5 de agosto de 1861».
- BLOOMFIELD, LEONARD (1933) *Language*. New York: Holt.
- BOWEN REES, IOAN (1998) in Baker, Colin eta Sylvia Prys Jones, *Encyclopedia of Bilingualism and Bilingual Education*, 1. or. Clevedon: Multilingual Matters.
- BUJANDA, JOXEMANUEL (1991). «Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoia: Agustin Pascual Iturriaga 1778/1851». Bilbo: UEU, 1991, 133-4 or.
- CAJAL VALERO, ARTURO (2002). «Paz y fueros». El conde de Villafuertes. Guipúzcoa entre la «Constitución de Cádiz» y el Convenio de Vergara (1813-21839). Madrid: Biblioteca Nueva.
- CASTOREO, PATRICK (1993). *Langue Basque et Enseignement, en France, de 1789 a 1993*. Argitara gabeko U. F. R. azterketa. Université de pau et des Pays de l'Adour.
- COOPER, ROBERT L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.



- COOPER, ROBERT L. (arg.) (1982). *A Framework for the Study of Language Spread. Studies in Diffusion and Social Change*. Washington, DC. Center for Applied Linguistics with Indiana University Press.
- DE BENITO PASCUAL, JESÚS (1994). *La enseñanza de las primeras letras en Guipúzcoa (1880-1825)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- DORIAN, NANCY C. (1989, Erabilitako argitaraldia 1992). *Investigating Obsolescence. Studies in language contraction and language death*. Victoria, Cambridge Universities Press.
- EGUREN, J.M. (1867). *Método Práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*. Gasteiz, Semanario Católico Vasco-Navarro-ren inprimategia.
- (1876). *Diccionario vasco-castellano*. Donostia, Barojaren inprenta.
- FERGUSON, CHARLES A. (1959). «Diglossia», in *Word*, XV, 325-40.
- FISHMAN, JOSHUA A. (1964). «Language Maintenance and Language Shift as a Field of Inquiry», in *Linguistics*, IX, 32-70.
- (1970). *Sociolinguistics. A Brief Introduction*. Rowley, Massachusetts: Newbury House.
- (1972). *Language and Nationalism: Two Integrative Essays*. Rowley: Newbury House.
- (1976). *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley, Massachusetts: Newbury House.
- (1979). «Bilingual Education: What and Why?», in Trueba eta Barnett-Mizrahi ed., *Bilingual Multicultural Education and the Professional*: 11-19.
- (1982). *Sociología del lenguaje*. Madrid: Cátedra.
- (1987). *Language, Society and ideology. The Odyssey of Nathan Birnbaum*. Ann Arbor: Karoma publishers.
- (1989). *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- (1991). *Reversing Language Shift*. Clevedon, Multilingual Matters.
- FISHMAN, JOSHUA A. et al., (1966). *Language Loyalty in the United States*. The Hague, London eta Paris: Mouton de Gruyter.
- FISHMAN, JOSHUA A., R.L. COOPER, ROXANA MA et al., (1968). *Bilingualism in the Barrio*. New York: Yeshiva University.
- FISHMAN, JOSHUA A. eta J. LOVAS (1970). «Bilingual Education in Sociolinguistic Perspective», in TESOL Quarterly, 4, 215-22. Erabilitako iturria Trueba (1979).
- FISHMAN, JOSHUA A. et al. (1985). *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin: De Gruyter.
- GAARDER, A.B. (1967). «Organization of the Bilingual School», in *Journal of Social Sciences*, 23, 110-20.

- GABARAIN ARANGUREN (1984). *Lehen Liberalismoa Oiartzun haranean. El primer liberalismo en el valle de Oiartzun (1800-1840)*. Oiartzungo Udala.
- GARCÍA, OFELIA eta RAKHMIEL PELTZ eta HAROLD SCHIFFMAN, GELLA SCHWEID-ekin (2006) *Language Loyalty, Continuity and Change*. Clevedon: Multilingual Matters.
- GARCÍA FERNANDEZ, PEDRO PABLO (2004). «La escuela de Hernani del XIX», in *Hernani* 2004, 46-52.
- GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, ÁNGEL (2004). «Los procesos de eclesiásticos liberales guipuzcoanos del Archivo Diocesano de Pamplona (1823-1824). El caso de los hermanos de Zumalacárregui», in Príncipe de Viana LXV/231 (uztail-apirilak), 259-284or.
- GARMENDIA ARRUEBARRENA, JOSE (1968). *Obras inéditas de Iztueta*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- GINER, SALVADOR, EMILIO LAMO DE ESPINOSA eta CRISTÓBAL TORRES, ed. (1998). *Diccionario de Sociología*. Madrid: Alianza Editorial.
- GOÑI GAZTAMBIDE (1991). *Historia de los Obispos de Pamplona*. IX. liburukia Iruñea: Ediciones Universidad de Navarra et al.
- GRÉARD, M. (1890). *La législation de l'Instruction primaire en France depuis 1789 à nos jours*. I. liburukia. Paris: Delalain.
- GUMPERZ, JOHN J. (1962). «Types of linguistic communities», in *Anthropological Linguistics*, 4:1. 28-40.
- HAUGEN, EINAR (1966a). «Linguistics and Language Planning», in *Sociolinguistics*. Proceedings of the UCLA Sociolinguistics Conference, 1964, William Bright editore, (gero in 1972 *Studies* by Einar Haugen, Evelyn Sherabon Firchow et al. editore). The Hague: Mouton.
- (1966b) *Language Conflict and Language Planning: the Case of Modern Norwegian*. Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press.
- HIRIART (1840). *Introduction à la langue française et à la langue basque*.
- HERTZLER, JOYCE O. (1965). *The Sociology of Language*. New York, Random House.
- HORNBERGER, N. eta PÜTZ, M. (editore) (2006). *Language Loyalty, Language Planning and Language Revitalization*. Clevedon: Multilingual Matters.
- IDIAKEZ, ANTON et al. (1998). *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755 – Mutioloa, 1825), Goierriko Euskal Idazle Ezezaguna*. Lazkao: Goierriko Euskal Eskola / Maizpide Euskaltegia / Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- INTXAUSTI, JOSEBA (2002). *Gure herriko frantziskotarrak: herrietako historia garaikidea (1791-2000)*. Oñati: Ed. Franciscana Arantzazu.
- (2006). *Seguraren historia. Bizitzak eta aurpegiak*. Segura: Segurako Udala.
- (2007). «Luis Astigarraga Ugarte, pedagogo euskaltzalea». Eskuz eskainitako artikulua, Paulo Iztuetaren omenezko liburuan aurki argitaratzekoa.

- ITURRIAGA, AGUSTIN (1841). *Arte de Aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de las primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani.
- (1842a). *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*. Hernani.
- (1842b) *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Donostia: Baroja.
- IZAGIRRE, KOLDO (1981). «Jose Joaquín de Clararrosa (ex Aita Olabarrieta)», in *Oh! Euzkadi*, 9, 1981eko maiatza.
- IZTUETA, JUAN IGNACIO (1824). *Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak*. Erabilitako iturria 1968 Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- JUARISTI, JON (1992). «Las fuentes ocultas del romanticismo vasco», in *Euskalaritzaren historiaz*, I: XVI-XIX mendeak, 341-365 or. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- KAPLAN, ROBERT B. eta RICHARD B. BALDAUF (1997). *Language Planning. From Practice to Theory*. Clevedon, Multilingual Matters.
- KLOSS, HEINZ (1952). *Die Entstehung Neuer Germanischer Kultursprachen*. München: Pohl.
- (1967). «Abstand languages and Ausbau languages», in *Anthropological Linguistics*, IX, vii, 29-41.
- LABAYEN, ANTONIO MARÍA (1976). *Muñagorri, eskribaua, pakegille ta fuerozale. Escribano, pacificador y fuerista*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- LASA, FR. JOSE IGNACIO (1964). «Agustín Pascual Iturriaga», in *BRSBAP*, 20, 434-53.
- (1965). «Iturriaga, adelantado de las artes pedagógicas sobre el vascuence», in *BRSBAP*, 21, 185-96.
- (1978). «Agustin Pascual Iturriaga, presbítero. Notas biográficas», in *EUSKERA* XXIII-1, -2. aldia, 123-33.
- LASA, FR. JOSE IGNACIO et al. (1968). *Sobre la Enseñanza Primaria en el País Vasco*. Donostia: Auñamendi.
- LASALA, FERMIN DE (DUQUE DE MANDAS) (1884). *Una Agrupación Bascongada de 1820 a 1850*. Tolosa: Eusebio Lopez.
- LECLERCQ, JAQUES (1955). *Introducción a la Sociología*. Barcelona: Instituto Católico de Estudios Sociales.
- MADARIAGA ORBEA, JUAN (2005). «Eclesiásticos Liberales Guipuzcoanos, 1820-39», in *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 39, 305-40.
- MANTEROLA, JOSE (1880). «Escritores Euskaros (1): Agustín Iturriaga», in *Revista Euskara*, hirugarren urtea. Iruñea.

- MAYANS, GREGORIO (1737). *Orígenes de la Lengua Española*. 1873ko berrargitalpena  
Madrid: Eduardo Mier.
- MESTHRIE, RAJEND (2001). *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*. Amsterdam: Elsevier.
- MITXELENA, KOLDO (1992). «Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1770-1880)», in *Euskalaritzaren historiaz*, I: XVI-XIX mendeak, 243-259 or. Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MUJIKAKO GREGORIO (1910). Ernani'ar ospetsuak. Iturriaga, Kardaberaz, Urbieta. Jaso in K. M. Fondo Gordeak. J. U. 2137. 7327.
- NEBRIJA, ANTONIO DE (1492). *Gramatica de la Lengua Castellana*. Salamanca.
- OIHARZABAL, BEÑAT (2006a). «Linguistique et anthropologie: la langue basque entre primitivisme et darwinisme linguistique dans le seconde partie du XIX<sup>e</sup> siècle». Baionako 2006/05/16-17ko kolokioa Bayonne: carrefour de langues et cultures.
- OIHARZABAL, BEÑAT (2006b). «Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak», in *Gramática Vascongada*. Frantzisko Inazio Lardizabalen 1856koa, 2006an Gipuzkoako Foru Aldundiak berrargitaratua.
- ORDOÑEZ, JOAQUÍN (1761). *Descripción de la ciudad de San Sebastián*.
- OTERO, CARLOS-PEREGRIN (1972). *Letras I*. Barcelona: Seix Barral.
- REVUELTA GONZÁLEZ, MANUEL (1973). *Política religiosa de los liberales en el siglo XIX*. Madrid: C.S.C.I.
- SAN MARTIN, JUAN (1978). «Agustin Pascual Iturriaga euskararen eraikitzaile», in *EUSKERA*, XXIII-1. (2. aldia), 135-44.
- SETIEN ALBERRO, JOSE MARIA (1978). «Iturriagaren omenaldia», in *EUSKERA* XXIII-1, 2. aldia, 119-22.
- SPOLSKY, BERNARD (1974). «Speech Communities and Schools», in *TESOL Quarterly*, 8, 17-26.
- KJOLSETH, ROLF (1973). «Bilingual Education Programs in the United States: For Assimilation or Pluralism?», in *Turner* 1973, 3-27.
- TELLECHEA IDÍGORAS, J. IGNACIO (1978). «Documentos sobre los establecimientos educativos de D. Agustin y D. Cayetano Pascual Iturriaga (1817 y 1825)», in *EUSKERA* XXIII-1, 2. aldia, 145-57.
- (1984). *Nacionales y realistas. Un episodio donostiarra (1827)*. Donostia, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra.
- TRUEBA, HENRY T. (1979). «Bilingual education models», in Trueba, Henry T. eta Carol Barnett-Mizrahi, ed., 54-73.
- TRUEBA, HENRY T. eta CAROL BARNETT-MIZRAHI, editore (1979). *Bilingual Multicultural Education and the Professional*. Rowley, Massachusetts: Newbury House.

- ULIBARRI, JOSE PAULO (1975). Jose Paulo Ulibarri Galindez-en «GUTUNLIBURUA» izeneko eskuzkribuaren facsimil gisako argitalpena. Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarra.
- ULZURRUN, D. FERMIN DE, (1662). «Carta del Doctor D. Fermin de Ulzurrun al Diputado del Reino Don Martin de Agoiz. 1662» in ESTORNES LASA, Jose: *Los Vascos y la Universidad* (1970). Donostia, Auñamendi editoriala.
- VELTMAN, CALVIN (1991). «Theory and Method in the Study of Language Shift, in *Language and Ethnicity*, 2. liburukia, James R. Dow editore. Amsterdam: John Benjamins.
- VILLASANTE, LUIS (1979). *Historia de la Literatura Vasca*. (2. argitaraldia). Oñati, Editorial Aranzazu.
- ZALBIDE, MIKEL (1988). «Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak». In *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara-biltzarra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1990). «Euskal Eskola, asmo zahar bide berri». In *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 211-271). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2001). Fishman-en HINBE edo RLS. Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroko txostena, erabili.com-en ere eskuragai.
- (2003). «Hendai-Hondarrietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntza-plangintzaren iturburu» in *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak 2001). Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- ZALBIDE, MIKEL eta ARANTZAZU MUÑO A (2006). «Lardizabal eta bere euskal gramatika, perspektiba soziolinguistikoan», in *Gramática Vascongada*. Frantzisko Inazio Lardizabalen 1856koa, 2006an Gipuzkoako Foru Aldundiak berrargitaratua.
- ZAVALA, ANTONIO (1964). Jose Vicente de Echagaray. Festara. Bere Bertso Guzien Bilduma. Tolosa, Auspoa.

## ARTXIBOETAKO AGIRIAK

### Iruñeko Katedraleko artxiboa

Iturriagak 1823ko ekainaren 26an Zestoatik Hernanira bidalitako eskutitza. In Caja «Secularizados, constitucionales y exclaustrados, 1820-1850».

### Hezkuntzaren eta euskararen gaineko agiriak

- **1820-1822:** FORU ALDUNDIAREN AKTAK: Lehen hezkuntzako ikasketa publikoak bultzatu nahi dira Aldunditik. Iturriagak horretarako jasota daukan materiala gorapatzen dute. (AGG-GAO: JD AM 169).
- **1821:** Gipuzkoako lehen hezkuntzako ikasliburua(k) prestatzeko enkargua, 1821eko azaroaren 29an edo 30ean. (AGG-GAO: JD CO 76).

- **1824:** EXPEDIENTE FORMADO SOBRE LAS DISPOSICIONES TOMADAS PARA LA PROVISION DE LA PLAZA DE MAESTRIA DE ESCUELAS DE LA MISMA VILLA. (HERNANIKO UDAL ARTXIBOA).
- **1825:** EXPEDIENTE RELATIVO AL DICCIONARIO MANUAL VASCONGADO ESCRITO Y PUBLICADO POR DON LUIS ASTIGARRAGA Y UGARTE. (AGG-GAO: JD IM: 4/7/51).
- **1829:** EXPEDIENTE RELATIVO AL ESTABLECIMIENTO DE UNA CASA DE INSTRUCCION PRIMARIA POR D. LUIS DE ASTIGARRAGA, EN LA VILLA DE SEGURA. (AGG-GAO: JD IM 4/6/47).
- **1830:** EXPEDIENTE RELATIVO AL NOMBRAMIENTO DE UNA COMISIÓN AUXILIAR DE LA DIPUTACIÓN, HECHA POR LAS JUNTAS GENERALES DE MONDRAGÓN, PARA EL FOMENTO DE LA INDUSTRIA Y COMERCIO Y DE LA LENGUA BASCONGADA. (AGG-GAO: JD IM 2/21/133).
- NEGOCIADO NÚM. 6. INSTRUCCIÓN PÚBLICA. COLEGIOS, UNIVERSIDADES Y ESCUELAS (AGG-GAO).
- **1845:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren zirkularra, Ladislao Zabala aldun nagusiaren izenean Ramon Gereka idazkariak Probintziako udaletara bidalia, udal bakoitzak Iturriagaren ikasliburu bien ale bana bidaltzen diola adieraziz, ikasliburuak herriko maisuari eskuratzeko direla azalduz. (1845-II-13).

#### **Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentuak**

- **1823, Tolosa:** LEGAJO QUE COMPRENDE LAS CONTESTACIONES DE LOS PUEBLOS A UNA CIRCULAR DEL JEFE POLÍTICO SOBRE EL ESTADO DE LAS ESCUELAS. (AGG-GAO: JD 4/6/35).

#### **Karlisten dokumentuak**

- EXPEDIENTE FORMADO PARA LA IMPOSICION Y EXECUCION DE MULTAS Á LOS ENEMIGOS DEL REY N.S. D.N CARLOS 5º COMPREDIDOS EN LAS LISTAS NOMINALES DIRIGIDAS POR EL AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE HERNANI. 1835eko abuztua. (AGG-GAO: CA 204,1).
- COMISARIA DE VIGILANCIA PUBLICA, 1837ko apirila: Karlos V.aren aurkako apaizen zerrenda. (AGG-GAO: CA 49,23).
- RAZON DE LOS PARROCOS; BENEFICIADOS Y DEMAS ECCOS. TANTO SECULARES COMO REGULARES QUE SE HALLAN MAL CONCEPTUADOS EN ESTA PROVINCIA DE GUIPUZCOA, eta RAZON DE LOS PARROCOS, BENEFICIADOS Y DEMAS ECCOS. TANTO SECULARES COMO REGULARES QUE SE HALLAN BUENOS EN ESTA M. N. Y M. L. PROVINCIA DE GUIPUZCOA. (AGG-GAO: CA 45,3).
- ANTECEDENTES POLITICOS DE LOS ECCOS. DE LA PROVINCIA DE GUIPUZCOA, SEGUN RESULTA DE LOS EXPEDIENTES FORMADOS Y REMITIDOS P. R LOS COMISARIOS DE VIGILANCIA, PPEER. Á LA SUPERINTENDENCIA GENERAL. (AGG-GAO: CA 48,30).

## ZERBITZARI ETA ERAGILE ZABALA

*Henrike Knörr*

*In principio erat Zalbide.* Hau bururatzen zait, beste edozer baino lehen, egun, ospe handiz eta merezimendu handiagoz, Mikel Zalbide jauna Euskaltzaindian sartze-ekitaldian, eta haren ibilbide luze eta lan oparoa gogoratzean.

Hastapen asko izan ditugu, jakina, baina ni harako hartaz mintzo natzazue, 1970-1975. urte bitartean, zeinetan bide berrien zantzuak nabarmen baitziren gure hizkuntzarentzat, nahiz diktadura ez zen artean bukatu. Orduan hasi nintzen ni Zalbideren izena entzuten, *Elhuyar* aldizkarian, zeinen sortzailekide baitzen. Urruti zitzaidan (nire zoritxarrerako, orain bezala) zientzia, baina euskaraz zen aldizkaria. Eta, gainerakoan, era guztietako euskal liburu eta aldizkariak erosten genituen anitzek garai hartan, Matematika, Fisika, Teologia, Mikologia eta abarren alorrak gureak ez izan arren.

Gazterik (hogei urte bete berri), baina bipil eta indarrez, sartu zen Mikel Zalbide euskararen aldeko langintzan, Lizardik ezin hobeki deitu zuen euskara *jakite hegoez igotzeko* ahaleaginean, Ingeniaritza titulua oraindik eskuratu gabe. Gero etorri zen Euskaltzaindiaren Matematika azpibatxordetza, Karlos Santamariaren zuzendaritzapean. Garbi zekusan Luis Villasante euskaltzainburuak Akademiaren batzordeak eratu behar zirela, jende adituekin, fruitu umotuak eta edonon aurkeztekoak, emango bazituen gure erakunde maiteak. Hurrena, 1978tik aurrera, UZEIko habe eta zutabe nagusietariko bat izan zen Zalbide, betiere materialak, hiztegiak, maileguak finkatzeko proposamenak prestatuz, ikastaroak eskainiz... Eta, azkenik, 1979az gero, bete-betean datusagu Mikel Zalbide Gernikako Estatutuaren sorkari gisa jaio lan-talde eta batzordeetan, goimailako Hezkuntzaren duintasuna segurtatzeko, euskarari zegozkion guztietan. Eta 1981ean, Eusko Kontseilu Orokorra Eusko Jaurlaritza bihurtzean, gure adiskide ona egin zuten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean txertatua den Euskara Zerbitzuaren buru.

Pertsona gutxi dirateke Zalbide jauna bezain garrantzitsu eta hura bezain giltza, urte hauetan guztietan irakaskuntzaren maila orotan euskara burua gora ibil dadin lagundu dutenak. Garaian garaiko agintariekin eta garaian garaiko lankideekin, Hezkuntzan lortu zen, eta aski goiz lortu ere, Mitxelena jauna ur-

duritzen zuen arriskua saihestea, hots, alor horretako eskumenak Jaurlaritzara pasatzean etenak sortzea edo kexak piztea.

Eskola-umeak eta eskola-gazteak ez zirenentzat, Hezkuntza Sailak bazuen bere esparruan beste zeregin bat, milaka eta milaka jenderentzat axola handikoa: EGA. Ez naiz Kanpezu eta Berrotzatik Lizarrara joaten den ibaiatz ari. Hori pasatzea erraza da. Zailagoa bestea da, eta etxean, hori dela eta, maiz egin ditugu txantxak. Egia da lehendik bazela bide bat egina, titulua Euskaltzaindiaren babespean eta esparruan egon zelako, euskara ofizialtzen hasi edo zenetik. Baina zama handiena gero etorri zen, eta Mikel Zalbideren Saitetik hori oro ederki eraman zen aurrera.

Talaia ezin egokiagoa izan du gure euskaltzain berriak Jaurlaritzatik, nabari denez: teorian eta praktikan, herrian eta atzerrian, Zalbide jauna ederki baliatu da talaia horretaz argibide guztiz aberatsak biltzeko, hainbat alorretan, eta zerrenda ez da laburra: soziolinguistika, glotodidaktika, hizkuntzen biziberritze eta plangintza, hizkuntzen prognosia, testuen zuzentasuna (nork ez ditu gogoan EIMA, hots, Euskal Ikas Materiala proiektuaren fruituak?), IRA-LE, Europako eta Europatik kanpoko hizkuntzen egoerak konparatzea, e.a. Atzerrian ikertzaile eta berri-bilatzailernean izan da Zalbide, begiak zabalik, lehengo eta oraingo maisuen estimatzailea.

Etxean ere bazuen Zalbide jaunak, seme eta aita izan den aldetik, ikasbide joria. Urte asko iragan dira bere harridura eta atsegina kontatu zidanetik: amak esan baitzion egun batez: «Mikel, eta zuk zer *proposatzen* duzu?».

Eta Zalbideren euskararen txukuntasunaz, zer esango dut? Hizkuntza ongi zizelkatua ageri zaigu haren testuetan, beti errazkeriatik urrun, argitasunari deus ere kendu gabe, baina irakurleari etengabe gehiago eskatzen.

Ikerlan, txosten edo hitzaldi horietariko ugari labe aski berezitik hasi ziren gorpuzten. Grezia klasikoan *peripatetikoak* deitzen ziren filosofoak baldin baziren, hots, ez eskolan, baizik eskolatik kanpo, lorategietan, kale eta plazetan, egurasten ibiltzen zirenak, Mikel Zalbidek beste molde bat landu du, ez hain klasikoa baina zaharra eta hedatua berebat, lanerako eta lanetikako autobusean irakurriz eta idatziz.

Iturriagari buruz mintzatu zaigu gaur Zalbide jauna, eta berriro erakutsi du zein maisuki diharduen hizkuntzaren historian (*kanpo-historia* esaten da gure hizkeran), hari guztiak antolatu nahian, hango eta hemengo berrien bila. Jakina, lehen ere erakutsi du egileak gure iragana aztertzean duen dohaina. Horra, urrutira gabe, 2003an argitaratu zuen artikulu bikaina, «Hendaia-Hondarribietako biltzarrak, XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu» (1). Gauza asko ikasi genituen orrialde haietan. Eta are hurbilago, nola ez aipa aur-

---

(1) *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak (2001). Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2003.



ten, Arantzazu Muñoa andrearekin batera, argitaratu duen artikulua, «Lardizabal eta bere euskal gramatika perspektiba soziolinguistikoa», Gipuzkoako Diputazioaren babespean plazaratu liburu dotorean, hots, Lardizabalen gramatikaren facsimile edizioan (2).

Hernaniko Iturriaga, Iturriagaren Hernani... Donostia izan baino lehen, jakina denez, baten Hernani, menturaz lehenago –a-duna, (*Hernania*, Pierre de Marca 16. mendeko historiagileari kasu egin behar badiogu, lur eremu handiaren jabe. «... sitio elevado y alegre sobre la falda del monte de Santa Bárbara», dio 1802ko Historia Akademiaren hiztegiak, eta horrela jarraitzen du: «El caserío es suntuoso y cómodo [...] las calles [...] son rectas, bien pavimentadas y con losas en las aceras. Para el recreo de los vecinos se cuentan hasta 6 paseos con dirección a San Sebastián, Astigarraga, Urnieta, Vega, Urumea y Lasarte; el juego de pelota es muy cómodo y enlosado». Nekazaritzaz ere ez da falta xehetasunen bat: «El suelo es delicioso y fértil; produce trigo, maíz y legumbres; la manzana en años buenos es cosecha considerable, y con ella se hace la sidra, bebida ordinaria de los naturales; de castaña, nuez, guinda, pera, melocotón y uva de parra se coge medianamente, y no faltan otras especies de frutas en especial naranjas y limones». Iturriak ere aipatzen dira, hala nola *Zillarriturria*, egoki itzulia: «fuente de plata».

*Hernani* izena laketu zitzaion, garbi dagoenez, Euskal Herrian barrena bi aldiz, haurretan eta helduaroan, ibili zen Victor Hugori, eta arras ezaguna bihurtu zen Hugok 1830ean Parisen aurkeztu zuenean bere drama, *Hernani ou l'honneur du castillan* (klasikoen eta modernoan arteko istilu eta gatazkaren erdian). Hamalau urte geroago, Veneziako La Fenice teatroan, Verdik estreinatatu zuen *Ernani* bere opera, eta horrenbestez izenaren oihartzuna areagotu zuen (3).

Zorrotza da Iturriagak sortu eskolaren prospektuan irakurtzen dena: «Todo castigo corporal queda proscrito». Baina liberalismoaren alde ateratzek atsekabeak ekarri zizkion. Era guztietako irainak eta kalumniak jaurtiki ziren haren aurka: Voltaire-zale zela, «embaucador de la juventud» zela... Er-

(2) *Gramática vascongada, escrita por D. Francisco Ignacio de Lardizabal...* Facsimile argitaraldia, beste lau artikulua eta eranskinekin.

(3) Era apalagoan, zer esanik ez, urte asko geroago Serafín Barojak Hernaniri eskaini zion zortziko bat 1875ean, honela hasten dena:

*Libertade maitea,  
bandera santua,  
itsu eskergabeak  
abotan artua,  
ez zerade eroriko,  
egon segurua,  
Ur-meko inguruan  
Zaude landatua.*

(*Ur-meko* hori Urumea izenaren etimologia da, Barojarena edo besterena.)

bestetik itzultzean, Iruñeko artzapezpikuak bazuen mahai gainean salaketa bat, izengabea: «Se ha presentado aquí ese hereje consumado con el descaro que acostumbran los herejes, y según parece con todas las licencias de Su Ilustrísima para predicar y confesar».

Agian norbaitek pentsa lezake Iturriaga gutxiengoan zela bere liberalismoan. Ez da horrela, ordea, eta komeni da gure artean dabilen ustekeria behin betiko desegitea. Hartzen badituzue Antonio Zavalak argitaratu bi bildumak, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* eta *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*, eta kontu ximple bat egiten, emaitza ez da inondik ere horren alde min-tzo. Hau da niri atera zaidana:

1. karlistaldia.

Liberalen aldeko testuak: 27. Karlisten aldeko testuak: 20.

2. karlistaldia.

Liberalen aldeko testuak: 62. Karlisten aldeko testuak: 60.

Egia da liberalismoak ez duela aurpegi bakarra: *tabula rasa* egin nahi zuen Cadizko konstituzioarena ez da, jakina, lau probintziotan indartsu zen liberalismo foruzalea. Eta Frantziako liberalismoaz denaz bezain batean, argi dago frantsesaz beste hizkuntza guztiak *patois* direla oraindik... eta hori askatasunaren eta aurrerapenaren izenean, omen.

Beti harritu nau nola karlismoak iritzi mota bateko nazionalismoa kilikatu duen, eta Santa Cruz apaiza eredu eta aitzindari ezarri. Nikolas Ormaetxeak hori egin izana aise ulertzen da. Gizonik antimodernoena zen hura (ikus haren euskal literaturaren historia), eta apaizaren biografia argitaratzeari (1929an) guztiz logiko deritzat. (Bidenabar: Orixek jakin ote zuen Santa Cruz azkenean *alfonsino* bihurtu zela, hainbat non Alfonso XIII.ak zilarrezko turuta bat opa baitzion, Kolonbiako indiarrek bere predikuetara bil zitzan?)

Mikel Zalbide Euskaltzaindian sartu da gaur; hobeki esan, euskaltzain oso sartu da gaur, zeren urgazle baita 1983az gero. Eta nolako urgazlea, gero! Zinzinez urgatzu du, lagundu du Zalbide jaunak. Euskaltzain osoaren izendapenaz gero hurbilago dugu zorionez, sarriago dugu hizketarako aukera, eta aurrerantzean ere izango dugu gure hizkuntzaren orainaz eta etorkizunaz ditugun galde eta kezka iraulkatzeko parada.

Ikusten denez, kezken artean Zalbide jaunak pentsatzen du oraindik munduan jende askok ez duela euskalaritza guztiz aintzat hartzen. Nik, aldiz, esango nuke gauzak arrunt aldatu direla azken 30 urte honetan. Urruti gara Menéndez Pidalek ezagutu zuen bi alderdiko egoeratik. Hara maisuak Bilbon, 1921ean, jaulki zituen hitzak:

«El vascuence ha compartido con la lengua santa [hots, hebreera] un triste privilegio: todo el que quería decir los mayores disparates lingüísticos se encaramaba en el vasco o en el hebreo, para gritar su desatino desde más alto. [...] El

buen sentido vasco ha renunciado para siempre a la erudición quimérica y anárquica de los periodos precientíficos, y entra de lleno en el terreno del método, en el que vive y se mueve la parte superior de la humanidad que ha elevado su pensamiento a la disciplina organizada de las ciencias» (4).

«Zentzu ona», nik uste, gure artean hedatu da osoki, nahiz oraindik Cejador eta antzekoen oihartzunak entzuten diren

Anitez gehiago larritzen eta artegatzen nau, adibidez, araugintzatik erabilera publikora eta pribatura dagoen bide malkarrak eta oztopoz josiak. Jaunandreak, deus ere ez zaigu doan eman, eta hizkuntzaz eta kulturaz jabetu behar dugu, Goethe handiak neurtitz famatuan esan zuen bezala:

«Was du ererbt von Deinen Vätern hast,  
erwirb es, um es zu besitzen».  
(«Arbasoengandik hartu duzun senipartea,  
ahaleginen bidez lor ezazu, haren jabe  
izango bazara»)

Benetan konpreniezina zait hainbeste profesionalen (?) jokabidea. Nolan entzuten dira oraindik irrati eta telebistetan horrelakoak: *usten (dut)*, *partidu*, *laister*, *doazte*, *Donosti*, *Biriaturú* eta abar? Euskaltzaindiak erabaki badu *sor-marka* dela *label* delakoaren ordain egokia, zergatik torturatzen gaituzte *Eusko Label* horretaz? Arauak eta legeak norentzat ote dira? (5)

Eta euskara hizkuntza baldin bada, beregain eta lokabe, eta ez beste hizkuntza baten probintzia edo jopu, norbaitek azalduko dit zergatik behar dugun gaztelaniaren hain menpeko agertu, eta gaztelaniaz bezala ahoskatuak entzun, adibidez, *Sarajevo*, *Angela (Merkel)* (biak gaztelaniazko jota ederrekin), *Carrefour (Car-fúr)* behar da), *Michelin (Mixlén)*, *Saunier-Duval (Sa-u-nier-Duval)* diote gure kiroletako esatari gehienek), eta abar. Eta frantsesa Euskal Herriko hizkuntza izanik! (6). Fenomeno hau, jakina, ez dago isolatua, eta norbaitek astindu behar du egoera negargarri hau, zeinetan paper, irrati eta telebistako kazetalarik askoren erreferentzia-mundua Irunen hasten baita eta Tarifan bukatzen (Marbellan gaindi, nola ez, *marujeo* delakoa barne).

Lozorroan gelditzeko eskubiderik ez dugu. Gure aurrean dugu, zorigaitoz, ezjakintasunaren *tsunami* ikaragarria. Fakultateetara etortzen zaizkigun ikasle askori arrotz zaie Iparragirreraren izena, demagun, edo Villasanterena, zein Guridirena, euskal kantu edo olerki bat ez aipatzearen. Horregatik behar

(4) Ramón Menéndez Pidal: «Introducción al estudio de la lingüística vasca». In Menéndez Pidal eta beste: *Curso de lingüística. Cursos de metodología y alta cultura*. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1921, 8.

(5) Haizu bazait, Hezkuntza Sailean balikete zer alda: *derrigorrezko* hitzak baitu Hiztegi Batuan aldamenen oharra: «Hegoalde, hobe *baitezpadako*, *nahitaezko*».

(6) Gauzak horrela, oraingoz agian sobera eskatzea litzateke *Diesel* behar den bezala ahoskatzea: *Dí-sel*.

da gogoratu eta birgogoratu, gure herria biziko bada, Etxeberri Sarakoaren dei larri hura, gazteei zuzendua:

«Baina deitzen tut Minervaren dosteta ezti, eta canta-alosien bidez enorantziaren contra eguiten den guerla ohorezcora, eta bat-bederac batere arriscuric gabe hainitz abantail eder ardiets detçaquenera» (7).

---

(7) *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri*. Urquijoren edizioa. Paris 1907, 175.

**EUSKALTZAINDIAREN  
XV. BARNE JARDUNALDIAK**

*Etxalar, 2007-IV-19 eta 20*

## XV. BARNE JARDUNALDIEN EGITARAUA

*ETXALAR (Kultura Etxea)*

### **Apirilaren 20a, ostirala**

- 16:00etan Euskaltzainburuaren sarrera txostena.
- 16:45ean a) Aribideko egitasmoei buruzko errendapenak eta 2007-2008rako jarraipena.
- Ibon Sarasola: Euskaltzaindiaren hiztegia.
  - Pello Salaburu: EGO (Euskal Gramatika Orokorra).
  - Andres Iñigo: ECO (Euskal Corpus Onomastikoa).
- b) Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia: Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra.

### **Apirilaren 21a, larunbata**

- 9:30ean Egitasmo berrien aurkezpenak:
- Andoni Sagarna: «Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak».
  - Joseba Intxausti: «*Joanes Etxeberri* Egitasmoa (2007-2008): Euskararen Historia Sozialerako (EHS) Proiektua».
  - Adolfo Arejita: «Ahozkotasanaren ondarea».
  - Xabier Kintana: «Zientzia eta teknologia Hiztegi Batuan».
- 12:00etan XV. Barne Jardunaldien amaiera.

Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldiak (1979 - 2007; I - XV)



## **EUSKALTZAINDIAREN XV. BARNE JARDUNALDIAK**

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Joanak dira bi urte eta lau hilabete Zuzendaritza berriak Euskaltzaindiaren ardura hartu zuenetik. Denboraren harian, hortaz, lau urteko agintaldiaren erdia egin du, eta, ohikoenez, Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurari kontu-arrazoiak ematera dator, nire hitzen bidez, Barne Jardunaldi hauetan.

Hiru helburu nagusi azaldu zizkion Zuzendaritzagaiak Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurari 2005. urteko abenduan. Lehena zen egoera ekonomiko larria gainditzea eta gure erakundearen finantzaketarako eskema eta marko berria ezartzea. Hurrena, estatutuak eta barne erregelak aldatzea, euskaltzain berriak gureganatzeko eta gure arau nagusiak egungo errealitateari egokitzeko. Hirugarrenak, bestetik, Euskaltzaindiak dituen egitekorik behinenak hartzen zituen bere baitan, ikertze- eta zabaltze-lanari baitzegokion, besteak beste, egungo euskaldunen premiei erantzuna emateko tenorean.

Horra, bada, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bere gain hartu zituen lehendabiziko eginkizunak. Ez, ordea, bakarrak, barne antolakuntza, euskaltzainei ez ezik, Euskaltzaindiaren babesleei ere baitagokie. Kudeaketa-lana dago hor jokoan, gure moduko erakunde batean berebiziko pisua eta esangura daukana. Esan gabe doa, kudeatze-lanik gabe, ezinezkoa dela gure lana, baliabideak eta pertsonak uztartu behar izaten baititugu geure zereginetan.

Joan nadin, alabaina, harago, eta esan dezadan, ezin argiago, iraganari so egiteak ez diola kalterik egin behar eginkizun eta etorkizun dugunari, ezinezko baita Akademia batentzat gizartean ari dena bazterrean uztea.

Hortaz, nire esanaren laburra honetara dator:

1. Euskaltzaindiaren eta Herri Agintarien arteko hitzarmena: urtebeteko eskarmentua.
2. Euskaltzaindiaren Arautegia eta Barne Erregelak egokitzea eta euskaltzain berriak geureganatzea.
3. Ikerketa zientifikoa eta egitasmoak garatzea.



4. Barne kudeaketa: eskema berri baten garatzea.
5. Ikerketa-proiektu berriak.
6. Etorkizuna.

## **1. EUSKALTZAINDIAREN ETA HERRI AGINTARIEN ARTEKO HITZARMENA: URTEBETEKO ESKARMENTUA**

Luze bai luze joan zen Euskaltzaindiaren eta agintarien (Euskal Autonomia Erkidegoa, hiru foru-aldundiak) arteko hitzarmena adostea, biribiltzea eta hitzartzea. Hala gertatu zen, zorionez, 2006. urtean. Ondoriorik nabarienak ere laster igarri dira, dagoeneko Euskaltzaindiaren egonkortasun ekonomikoa bermaturik geratu baita. Aipatu beharrekoa da, bestalde, hitzarmen horretan administrazio publikoek egin duten ahalegina, diru-kopurua arras gehitu baita, gure erakundearen beharri zehar hobeto erantzuteko.

Arazoak, haatik, ez dira guztiz desagertu. Izan ere, zenbait administrazioen aldetik, atzerakuntza burokratikoak gertatu dira ordainketa egiteko enan, eta, horren ondorioz, Euskaltzaindiak urtea bukatu ondoren jaso ditu aurreko urteari dagozkion diru-kopuruak.

Bide beretik etorri da, urteko zenbaki berriak finkatzerakoan, Euskaltzaindiari leporatu zaiola dirua erabili ez izana, horri dagokion urtealdian, ahazturik, hori bai, jaso ez den dirua ezin daitekeela inolaz ere erabili. Aipatzeak dira, orobat, agintari publikoen arteko desadostasunak Euskaltzaindiaren kontuak ikertu eta garbitzeko orduan. Dena den, positibotzat jo daiteke eskema berria, eta datozen urteetan finkatu eta sendotu beharrekoa, gure moduko erakunde batek behar duena eskura izan dezan.

Azpimarratu beharrekoa da, bestalde, Euskaltzaindiak gainerako agintariekin dituen finantzaketa-iturrien bilakaera.

Nafarroako Gobernuarekin dugun hitzarmenaren barruan, urteko protokoloak sinatu dira 2005, 2006 eta 2007. urteetan. Esan gabe doa diruaren kopuruak izan duen gehitze urria, eta diru hau ez dela, ezta hurrik eman ere, Euskaltzaindiak behar duena. Horretan ere, harremanak landu beharko dira, baliabide ekonomiko ugariagoak lortzeko asmoarekin.

Iparraldean ere, Euskararen Erakunde Publikoa dugu solaskide berria, diruaren aldetik lehengo kopuru berbera jasotzen bada ere. Errepara diezaiogun, bestalde, Baionako ordezkari berriari, eta Euskararen Erakunde Publikoarekin sinatzeko asmotan dagoen hitzarmenari ere. Azken hilabeteetan, halaber, Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza-politikaren partaide hartu du Euskaltzaindia.

Arlo honen azkenean aipatu behar, Madrileko Gobernuaren diru-iturriei dagokien gorakada, hain zuzen ere. Bilakaera begien bistakoa da:

- 2004, 280.000 euro
- 2005, 350.000 euro
- 2006, 500.000 euro
- 2007, 510.000 euro

Aurrekoak ikusirik, esan daiteke, oro har, egoera onean dagoela Euskaltzaindia, diru-iturriei dagokienez, hurrengo urteetan egin beharko dituen ahalginei aurre egiteko.

Hortaz, jokaera argi dago: lasaitasuna, bateko, eta, ardura, besteko, berriro gerta ez daitezen oraintsu arte kinka larrian izan gaituzten zailtasunak.

Horretan, bistan da, gure agintarien jarrerak zeresan handia du. Gure lana da eurekin euskarak beharrezko dituen hitzarmenak ontzea eta garatzea, elkarrekikotasun eta begirune osoz.

\* \* \*

## **2. EUSKALTZAINDIAREN ARAUTEGIA ETA BARNE ERREGELAK EGOKITZEA ETA EUSKALTZAIN BERRIAK GEUREGANATZEA**

2005. urteko maiatzean izan genituen aurreko Barne Jardunaldiak Argomaizen. Han onetsi genituen Euskaltzaindiaren osaerari buruzko eraldaketarik funtsezkoenak azken berrogei urteetan. Izan ere, han erabaki ziren, bestek beste, euskaltzain osoen artean emeritu-kategoria sortzea, 75 urtetik gorakoak eta hutsarte berriak hornitzea, gehienez ere euskaltzain osoen herena zela kopuru berria.

Onartuak izan dira, urtebete geroago, 2006. urtean, Espainiako Estatuko Gobernuaren aldetik gure arauen aldaketak. Ondorenez, 6 euskaltzain emeritu ditugu, eta baita bi euskaltzain oso berrien izendatzea ere. Aurki beste bi ere izango ditugu, eta, urtea bukatu aitzin, beste bi.

Une horretan bukatuko da, aurreikusi bezalaxe, urte eta erdirako ezarri zen behin-behineko aldia, eta hasiko gara, arau berriek esan bezalaxe, hurrenez hurren, 75 urte betetzen dituzten euskaltzain osoen emeritutasuna adierazten eta hutsarte berriak aldarrikatzen.

Aldibaterakotasuna, beraz, amaitu egingo da, eta egoera berriaren barruan murgilduko gara.

Aribidean dagoen prozesu horretan ezin zailtasunak ukatu, nor bere interesak eta gogoak jokoan dituenen. Banan-banan gaintitu dira, eta gaintitu beharko dira halakoak, guztion borondate eta asmo onarekin. Eskerrak, beraz,

guztiori. Eta eskertzekoak, berebat, Jose Luis Lizundiaren lana, bera izan baita txostengilea halakoetan, eta, zer esanik ez, Jean Haritschelharren argibide ederrak, lehendik gure erakundearen barne ibilbidean duen eskarmentua egoki baliatuta.

Argomaizko hartan, nolana ere, bazen bestelakorik, emakumeen partaidetza bultzatzea erabaki baikenuen. Hirugarrena gure artean dugula, beste batzuk ere barruratzeko aukera izango dugulakoan nago.

Euskaltzain oso berrien kopurua, beraz, esanguratsua da 2005 eta 2006. urteetan. Guztira, 6 berri dira dagoeneko, arlo desberdinetakoak: literatura, hizkuntzalaritza, ingeniari, hezkuntza, idazletza.... Euskalgintzaren arlo desberdinak daude hor jokoan, betiere goi mailako unibertsitate-formazioan lekuak.

Euskaltzain osoak ez dira, onik onenean ere, bakarrak Euskaltzaindiaren ibilbidean. Borondate fermua du zuzendaritzak, bai euskaltzain urgazleen multzoa, bai euskaltzain ohorekoena, zabalatzeko. Ez edozein modutan eta besterik gabe, ezpada modu antolatuan, urgazleen kasuan erakargarri egin behar baitugu geure Akademia, urte batzuen buruan gure ordezkari izango diren horiek hurreratzeko eta geureganatzeko.

Bistan da oraingo bidea urte batzuetarako konponbidea dela. Begien bistakoa, orobat, orain izan dugun eta dugun arazo berbera izan dezakegula aurrerantzean ere, eta erne egon beharko dugu, euskalgintzaren belaunaldi berriak errelebo ona izan dezaten gure erakundearen.

Aurki izango dugu, beraz, prozesu horren lehen aldia ixtea. Geroak, alabaina, esango digu behar bezala asmatu dugun. Ni baiezkotan nago, batez ere, artez bete direlako guztion eskubideak, erakundearen barruko berriztatze-premiekin batera.

Ez da, horratio, helburu hau itxiztat edota amaitutzat eman behar. Izatez, prozesu hori amaigabekoa da, etengabe berriztatu beharko dugulako erakundearen, euskararen munduak behar duena egoki zertuta.

Falta dugu, nire ustez, urgazleek gure lanetan parte-hartze zabalagoa izateko bidea. Ukaezina da batzordeen lana. Hortxe daude hainbat eta hainbat, egunero gure lana ahalbidetzen dutenak.

Badira, alabaina, beste batzuk, aspaldikoak eta ez hain aspaldikoak, lan egiteko gogoia izan dezaketena. Horiek ere «Euskaltzaindiratu» behar, horretarako bideak (kolaborazioak, euren erabakimenaren gaiak eta abar) erraztuz.

Xede du zuzendaritzak, inoiz osoko bilkuran esanenez, bilera bereziak egiteko urgazleekin, horretarako aukerak eskainiz. Berebat, euren kolaborazioak bultzatuz, gure argitalpenetan, eta, ahal den neurrian ere, euren lanak gure bitartez argitaratuz.

### **3. IKERKETA ZIENTIFIKOA ETA EGITASMOAK GARATZEA**

Ez naiz ni larregi luzatuko puntu honetan. Lehengoetan bezalaxe, ardatz nagusiak gogoratu besterik ez ditut egingo, gero, ikerketa-egitasmo bakoitzaren arduradunak luze-zabal garatuko baititu horien nondik norakoak.

Has dezadan, beraz, azalpen labur hau, Argomaizen abiarazi ziren hiru proiektuekin: Euskararen Gramatika Orokorra, Euskararen Korpus Onomastikoa eta Euskaltzaindiaren Hiztegia 1 (Adierak eta Adibideak).

Egitasmo bakoitzak bere arduraduna du; eta arduradun horrekin behar diren merkataritza-kontratuak egin dira, arduradunaren lana eta horren saria uzartzeko. Bestaldetik, egitasmo bakoitzean, teknikariak eta langileak ditugu, erakundearekin lan-harremanak dituztenak.

Zoritzarrez, lan-harremanen eskemak zaildu dira Euskaltzaindiarentzat Hegoaldean, egun ez baita posible epe jakin batetik aurrera lan-kontratuak egi-tea, kontuan hartuta, bestalde, administrazio publikoekin dugun hitzarmenak eragozten digula gure langile finkoen kopurua gehitzea, administrazio horien baimenik eman gabe.

Kontratazio eskema berrira joan behar, hortaz, ikerketa-egitasmoak aurrera eraman ahal izateko. Esan gabe doa eskema berri hori abiarazteko pausoak eman dituela zuzendaritzak, batez ere, merkataritza-kontratuen aldetik, eta laster izango dugula horren berri.

Hiru egitasmo horiez landa ere, badira gure artean beste batzuk, ondu direnak, hala nola, Literatura Hiztegia, Literatura Batzordeak bultzatua eta bideratua, eta antzeko bidean direnak, berbarako, Euskararen Herri Hizkeren Atlas eta Gasteizko Toponimia. Bi horiei buruz, oraingo honetan baino, egokiera hobea izango dugu hurrengo osoko bilkura batean jarduteko, horren nondik norakoak xehe-xehe azaltzeko.

\* \* \*

### **4. BARNE KUDEAKETA: ESKEMA BERRI BATEN GARATZEA**

Ohikoa izan da Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan, kontu-arrazoiak ematearekin batera, hurrengo biurteko arduradunak eta batzordekideak izendatzea. Hala egingo da oraingoan ere, apirilean baino, maiatzean, ordurako egitasmo berrien albiste izango dugulako, eta baita eskema berri bat garatzeko aukera ere.

Natorren gaira. Gutako askorentzat batzordeen eskema izan da nagusi Euskaltzaindiaren ibilbidean. Duela urte asko jarri zen abian, Villasanteren garaian, eta bere fruitu oparoak eman ditu. Indarrean dirauen eskema, 1981ean,

Loiolan egin ziren II. Barne Jardunaldietakoa da, bere balioa duena, baina egitasmoen lan-taldeekin kidekatu beharko duguna.

Galdera, hala ere, bestelakoa da, aintzat hartuta gero eta pisu gehiago duela egitasmo zehatzen zereginak, alegia, egitasmoetan egunero lan egiteko modua dugula.

Ez da hori gauza berria. Esan ere, Barne Erregelaren 52. artikuluan hauxe esaten da:

**52. artikulua. Egitasmo bereziak**

*Euskaltzaindiak egitasmo bereziak bidera ditzake. Honetarako, Zuzendaritzak eta sailburuek egitasmo-lantalde bat proposatuko dute, osoko batzarrak onar dezan.*

Egun Euskaltzaindiak eskaini behar dio bere lana gizarteari. Horretarako egin behar ditu lan batzuk, euskararen herrialde guztiak kontuan hartuta, nekez egin daitezkeenak beste leku batean.

Konkurrentziak gorabehera, Euskaltzaindiak badu bere leku propioa euskararen munduan, hain justu ere, goi mailako ikerketa-bideak eta horien aplikazioak uztartu eta gizarteratzea, euskararen normatibizazio eta normalizazio bultzatu nahian.

Horrexegatik, egitasmoak bultzatu beharra dago, batzordeekin batera osa dezaten gure ahaleginen ardatza.

Hala agertzea ere komenigarri izango litzateke, diru-baliabideak eskuratzeko orduan beti baita hori, egiten dugun horren seinale dudabakoa.

Horretarako ere, teknologia berriak profitatu behar, batik bat, gure edukiak egoki gizarteratzeko. Pauso esanguratsuak eman nahi ditu halakoetan zuzendaritzak, eta egitasmo berrietan isla argia izango du horrek.

\* \* \*

## **5. IKERKETA-PROIEKTU BERRIAK**

Barne Jardunaldi hauetan, badugu aukera ederra, egitasmo berriei aurre egiteko. Besteak beste, zerrendaratu egingo ditut halakoak, arduradun bakoitzak gero garatuko duelakoan:

- Datak gorabehera, Euskaltzaindiak, datorren urtean, bere XVI. Kongresua egitea bultzatuko du. Horren xehetasunak, *Iker* Sailburuak eta diruzainak, nork bere arloan, emango dizkigute.
- Gure edukiak gizarteratzeko ahaleginetan eta teknologia berriak gure barruan bultzatzeko asmotan, Andoni Sagarna euskaltzain osoak eman-

go dizkigu xehetasunak, Informazio eta Komunikazio Teknologiak lantzeko gogoarekin. Esan gabe doa Euskaltzaindiarentzat arlo honek duen garrantzia eta esanahia, egungo egoeratik aurrera joateko.

- *Jagon* Saisetik etorriko da beste egitasmo bat, Joseba Intxaustik atondua, euskararen historia sozialean berak duen eskarmentua, *Euskararen Liburu Zurian* ere egiaztatu zuena, Euskaltzaindiak balia eta gara dezan, guztion onurarako.
- Adolfo Arejita euskaltzainak ere bere proposamena egingo digu, euskararen barruan berebiziko ondarea den ahozko tradizioaren bilketa-lana egiteko, epez epe eta mailaz maila, gerogarrenean ere gure erakundearen aberasgarri izan, eta, oro har, ikertzaileen eskura egon dadin.
- Azkenez, Xabier Kintanak, aspaldiko puntuari eutsiz, Hiztegi Batuko bigarren itzulia osatzeko asmotan, zientzia eta teknikaren hitzak nola ekarri adieraziko digu, horretarako behar den egitura txikia sortuz.

\* \* \*

## 6. ETORKIZUNA

Esandakoa gorabehera, ez nuke nire oraingo hau amaitu nahi, bestelako puntuak gogoratu gabe:

Lehena da, Argomaizen esandakoaren arabera, euskalgintzaren eragileekin Euskaltzaindiak izan behar dituen harremani dagokiena. Zuzendaritza honen ekimenez, hitzarmenen bidez lortu da mota desberdineko eragileekin (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, komunikabideak, hizkuntzaren industriak, udalak eta abar) elkarrekin lan egiteko oinarriak jartzea, geroko baten egitasmo zehatzetan mamitu beharko dena.

Zuzendaritzaren asmo honetan, jarraitu ez ezik, sakondu ere egingo da, hor baitago gizartearen aldetik Euskaltzaindiari aitortzen zaion itzala berresteko eta berriztatzeko modua.

Bigarrena da komunikazio eta prentsari dagokiona. Horretan, eta Euskaltzaindiaren web-orrian dauden eduki berriak aintzat hartuta, azpimarratuko nuke *Eusker*a Agerkarian on-line jartzea, eta *Plazaberri* aldizkari elektronikoa sortzea, modu arin eta erosoan Euskaltzaindiari buruzko berriak ematen dituen. Oro har, gure irudia eta komunikazio-premiak hobetzeko ahalegin hauek euren horretan iraungo dute, eta hobetu eta zorrotz ere egingo dira, Internetek eskaintzen duena profitatuz. Bide beretik ari dira, jakina denez, *Jagonet* zerbitzua eta bestelakoak, hilero-hilero zenbaki esanguratsuak erakusten dituztenak.

Hirugarrena da, *Jagon* Sailaren aldetik, Corpus Batzordeak eta Euskalkien Lantaldeak ontzen duten lana, hor baitago zinezko muina herrialde desberdinetatik datorrena egoki uztartzeko euskara batuaren baitan. Sustapen Batzordeak ere asmo berriak ditu, batik bat, nazioarteko mailan euskarari dagozkion testuak bilduz eta euskaratuz.

Laugarrena da Argitalpen Batzordeari buruzkoa. Zin-zinez esan behar diuzet sakoneko eta ezin utzizko aldaketak behar dituela Euskaltzaindiaren argitalpen-bideak eta batzordeak berak. Hobeto baliatu behar ditugu gaurko teknologiak eskaintzen dituenak, eta gure erakundearen zerbitzupuan jarri, gure bildumak eta materialak gaurkotzeko eta gizarteratzeko, edukiz nahiz formaz. Puntu hau erabakigarri da oso, zuzendaritza honen aburuz, eta uste dut laster izango direla urrats berriak arlo horretan.

Bosgarrena, aldiz, Fundazioaren arlotik dator. Aspaldiko asmo hau ez da gauzatu oraindik gure artean, eta ez zuzendaritzaren gogoaren faltaz, ezpada beste lehentasunak artean izan direlako eta horietan aritu behar izan duelako zuzendaritzak buru-belarri eta Herri Aginteren baten partaidetza faltaz. Gero eta premiazkoagoa, ordea, Fundazioaren zeregina gure artean, Akademiaren egitekoak gizarteratze-bidean tresna guztiz erabilgarri izan daitezkeelako.

Esan dezadan, beraz, bukatzeko, bi urte eta lau hilabeteko ibilaldi honetan, zuzendaritzaren programan dauden puntuetan, aurreratu egin dela, beste puntu batzuk oraindik betetzeko badaude ere. Falta diren horiek behar den moduan betetzeko asmo sendoa dauka Zuzendaritza honek, eta, horretarako, zer esanik ez, behar du zuen guztion laguntza, eta, orobat, urgazleena eta Euskaltzaindiaren langileena.

Hortaz, laguntza eta leialtasuna beharrezkoak dira erakundearekiko, jakinik, hori bai, zuzendaritza honen zereginen gaintetik dagoela guztiontzat baliagarri izan beharko lukeen Akademia. Hori da une honetan zuzendaritzako kide guztion arreta eta ardura, eta horren gobernuan dihardugu zuen konfiantzari esker.

Konfiantza horren truk, xehetasun hauek ematen ditut, Zuzendaritzaren ustea baita zuen konfiantza ekimen zehatzetan gauzatzea, Euskaltzaindia aurrera ateratzeko eta behar duen lekuan jartzeko.

## EUSKALTZAINDIAREN XV. BARNE JARDUNALDIAK

*Ibon Sarasola*

### **EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA EGITASMOA**

#### **0. ATARIKOAK**

Txosten honetan, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoaren berri emango dugu. Lan hori zertan datzan adieraziko da, hiztegiaren ezaugarri nagusiak deskribatuko dira, erredakzioa bideratzen duten irizpide orokorrak azaldu, oinarri eta iturri nagusiak ezagutarazi eta lan honetarako berariaz sortu diren baliabideak aipatuko dira. Horretaz gain, orain dela urtebete inguru erredakzio lanak abian jarri zirenetik, hilabetez hilabete egindakoaren azalpen ahalik eta zehatzena egingo da, gure jardunean izan ditugun gorabehera eta arazo nagusiak ere agerraraziz. Amaitzeko, gaur egungo egoeraren laburpena eta hausnarketa egin ondoren, aditzera emango dira, hiztegiaren erredakzioa burutzeko proiektu honetako lan taldeak dituen baliabide eta epeei buruzko kezka nagusiak.

Agindu zaigun lana, Euskaltzaindiaren Hiztegia erredaktatzea da, hau da, 2000. urtean *Eusker*a aldizkarian argitaratu zen eta hogeitabat mila hitzez osatua den Hiztegi Batuko zerrendako hitz-sarrerak erredaktatzea.

Hiztegi Batua ortografia hiztegia da funtsean, hots, hitzen forma egokiaz ari dena. Hala ere forma huts horiez gain, zenbait xehetasun ere eman dira, hala behar zuela pentsatu izan den sarrera batzuetan: hitzen euskalki-hedadura, maila eta jakintza-arloko argibideak, sinonimoak eta antonimoak, aditzoinarentzat ageri diren aukera bikoitzak (hala gertatzen denean), tradizio sendoa duten hitz-elkartuak edo esapideak, eta beharrezko gertatzen zen kasuetan, hitzaren adierak ere bai.

Gure zeregina, hitz sarrera horien guztien barne egitura antolatu eta adieraz, definizioz, adibidez, ohar gramatikalez eta bestelako argibidez hornitzea izango da.

Jakina denez, Euskaltzaindiaren Hiztegia osatuko duten hitzen zerrenda nagusi hau, lehen idatzaldikoa da oraindik eta Hiztegi Batuko lan-taldeak aldian-aldian biltzen jarraitzen du, zerrenda zuzentzen, osatzen eta eguneratzen joateko.



## 1. EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIAREN HITZ-SARREREN ANTOLAKETA ETA BARNE EGITURA

### 1.1. Irizpide orokorrak

Hitz-sarrerak moldatzerakoan, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* hiztegi orokorra dela izango da gogoan. Hala ere lan hau egiteko Euskaltzaindiaren Hiztegia ez da hutsetik abiatuko. Azken urteotan argitaratutako euskara hutsezko hiztegiak ere, ez dira hutsetik abiatu eta hizkuntza guztietan gertatu ohi den bezala gurean ere harreman eta lotura estuak izan dira batzuen eta besteen artean. Hiztegi-gilerik gehientsuenek lotsarik gabe aitortu dituzte beren zorrak, lotsarik gabe aitortu, beraz, zein izan diren oinarri eta eredutzat erabili dituzten hiztegi eta hiztegi-gileak eta nor izan duten bide-erakusle. Puntu honi dagokionez, esan genezake, halako mugarri bat dugula azken urte hauetako hiztegi-gintzan: K. Mitxelena-ren Orotariko Euskal Hiztegia. Hiztegi honen eragina, erabakigarria izan da egungo euskal hiztegi-gintzak iritsi duen maila goran, eta hein batean behintzat, bere atzetik etorri diren hiztegi askoren guraso edo hartzekodun dela esan daiteke. Labur eta argi adierazteko, Azkueren paradigmatik Mitxelena-ren paradigmara igaro gara azken urteotan eta paradigma hori, I. Sarasolaren hiztegiak eta *Lur* eta *Elhuyar* hiztegiak osatuko lukete, besteak beste. Hiztegi hauen arteko antzekotasuna, sarreraren barne egitura eta informazio edukian dugu batez ere.

I. Sarasolaren *Hauta-Lanerako Hiztegia*, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* irakurketa arauemailea da, Mitxelena maisuaren gidaritzapean hasia. *Lur* eta *Elhuyar* hiztegiak berriz, ez dute ixilpean gordetzen, batari eta besteari zor diotena hizkuntza orokorreko lexiko kontuetan. *Lur Hiztegi Entziklopedikoaren* (1991) lehen liburukiaren sarreran irakur daitekeenez: «Hiztegi orokorreko sarreraren aukera egiteko, bada, I. Sarasola jaunaren «Hiztegi arau-emailea» izan da iturburu nagusia, hura iristen ez denetan, berak gogo onez eskaini dizkigun gainerako argitasunekin eta bere «Hauta-lanerako hiztegiarekin» batera. Sarreraren definizioa ematerakoan ere I. Sarasolak aukeratutako bide berari jarraitu diogu, eta haren lanean oinarritu gara. Bertatik hartu ditugu, orobat, hainbat adibide, eta definizioaren garrantzi handiko zatia den gramatikazko errejimenari dagokion informazioa ere I. Sarasolaren lanei zor zaie neurri handian. Horrez gainera, kontutan hartu ditugu orobat Azkueren hiztegia, Laffitterena [...]» (XIII or.).

1993an argitaratutako *Elhuyar Hiztegi Entziklopediko*-an ere halaxe irakurtzen dugu: «Euskaldunon artean zabalduen dauden lanak, duda-izpirik gabe, Xabier Kintanaren *2000 Hiztegia*, UZEIren hiztegiak eta *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* dira. Hori etxek (eta, noski, argitaratuta dauden *Orotariko Euskal Hiztegi*ko liburukiak) izan dira aipatu arazoak ebazteko erabilitako iturri nagusiak eta haien arteko adostasunik ezean, irizpide orokorra, oro har, UZEIk jorratutako bidetik jotzea izan da, lexiko arrunteko hitz hutsen kasuan *Hauta-lanerako Euskal Hiztegiak* egindako aukerak hobetsiz» (XVI or.). *Ado-*

rez taldearen *Euskararako Hiztegia*-ren atariko azalpenetan ere hala diote egileek: «Ibon Sarasolaren *Hauta-Lanetarako Euskal Hiztegia*: A eta B letrei dagokienez, guztiz baliagarri gertatu izan zaigu».

Inguruko hizkuntzei begira jarritz gero, eta urrunegi joan gabe, Katalunian ere modu beretsuan jokatu dutela ohartuko gara. 1994an, Generalitataren proposamenari erantzunez, Institut d'Estudis Catalans-ek argitaratu zuen *Diccionari de la Llengua Catalana*-ko egileek ere, katalanezko beste hiztegi batzuekin izan zitezkeen aldeak murrizten saiatu zirela aitortzen dute, nolabaiteko homogeneotasun bat bilatu nahian, hizkuntzaren «política lexicogràfica» delakoan. Honako hau irakur daiteke Antonio M. Badia i Margarit-ek hiztegi horri idatzitako hitzaurrean: «Hom ha tendit a reduir les divergències pel que fa a d'altres diccionaris, amb el fi d'aconseguir una certa homogeneïtat en la que podríem anomenar «política lexicogràfica» de la llengua». Gogoan izan bedi gainera, Institut-ak berak, garbiro aitortzen duela P. Fabraren lana izan dutela oinarri bere hiztegi arauemailea prestatzeko.

Hortaz, Euskaltzaindiaren Hiztegi batuak ere, gaur egun gure gizartean ditugun euskara hutsezko hiztegi nagusien arteko «consensus» batean izango du oinarria. Hau da, hiztegi horien artean halako adostasun bat agertzen baldin bada hitz batean, adostasun hori aintzakotzat hartu beharko da ezinbestean Euskaltzaindiaren Hiztegiko hitz hori moldatzerakoan. Adostasunik ezak arazoren bat sortzen duenean, berriz, albo batera utzi beharko da sarrera horren erredakzioa, aldi baterako behintzat. Horrelakoetan Euskaltzaindiari aditzera emango zaio hitz horrek dauzkan zailtasun, korapilo eta koskak, eta beharrezko diren argibide eta ohar guztiekin moldatutako txosten bat aurkeztuko zaio, gerorxeago, dagokion batzordeak, erabakiren bat hartu ahal dezan.

## 1.2. Hiztegiaren barne egitura

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren hitz sarreretako definizioak, adierak, adibideak, azpisarrerak, ohar gramatikalak eta bestelako argibideak lantzerakoan, goian adierazitako irizpideen bidetik joko dugu, eta aipatutako hiztegi horien arteko adostasunean oinarrituko gara, neurri handi batean behintzat.

Definizioei dagokienez, aintzat hartuko dira gainera, euskara hutsezko hiztegiak ez ezik, inguruko zenbait erdal hiztegi itzal handikok jorratutako bide berriak eta ahalegin berezia egingo da orain arteko erdal hiztegitantza 'txararren' imitaziotik sortutako aldrebeskeria ugari gainditzeko. Horien artean, honako hauen eredu nabarmenduko genuke: frantsesezko *Le Petit Robert*, ingleseztako *Oxford Advanced Learner's Dictionary*, eta gaztelaniazko M. Moliner-en hiztegia, *Vox*-eko *Diccionario Actual de la Lengua Española* edota M. Seco, O. Andrés eta G. Ramos-en *Diccionario del español actual*.

Adibideen kasuan, ezin ukatuzkoa da hauen indar argigarria edozein hitzen definizioa osatzeko. Esanahiaren ulermena erraztuko dute beti eta egitura sintaktikoen berri ere emango dute. Hiztegi honek ere adibide argigarriak izango ditu adiera bakoitzarendako. Literatura tradizioko aipuetan oinarrituak izango dira eta ez hiztegiak asmatutakoak. *Orotariko Euskal Hiztegitik* eta aipatutako beste hiztegietatik aukeratuko dira. Hala ere, *OEH*koak ez dira hitzez hitz eta letraz letra kopiatuko, euskara batura egokituta baizik.

Gramatika kategoriei, euskalkiekiko argibideei, hizkuntza mailei, gramatika oharrei eta erreferentziei dagokienez, goian adierazitako bide beretik joko dugu, eta zeregin honetan ere, adostasunaren irizpidea izango da beti edozein erabakiren atzean.

## **2. BALIABIDEAK ETA EPEAK**

### **2.1. Giza baliabideak**

Euskaltzaindiaren Hiztegia erredaktatzen hiru lagun ari dira Ibon Sarasolaren gidaritza eta zuzendaritzapean: Elizabet Kruzeta, Ainhoa Otamendi eta Ane Loidi (azken hau lanaldi murriztuan). Laugarren kide batek, Gabriel Frailek, Euskaltzaindiaren Hiztegirako materiala prestatzen dihardu *Orotariko Euskal Hiztegia* oinarri harturik.

### **2.2. Baliabide teknikoak: erredakzio ingurunea**

Hiztegi hau erredaktatzeko aplikazio informatiko berezia sortu da. Lan hori UZEIko informatika sailak egin du eta horretarako mundu zabalean erabiltzen den XML estandarra Hiztegi Batura egokitu da. Egokitze hori TEI (Text Encoding Initiative) ekimenaren jarraibideen arabera egin da. UZEIk sortutako lehen ereduaren gainean, hainbat aldaketa proposatu eta gauzatu dira. Hasierako hilabeteetan, Hiztegi lan taldeak lehenengo erredakzio probak egin ahala, zenbait akats azaleratu dira eta hobekuntzak proposatu. Zuzenketa, egokitzapen eta bestelako premiazko aldaketak, Iñaki Kareaga Euskaltzaindiko informatikariarekin elkarlanean egin dira.

### **2.3. Epeak**

Epeei dagokienez, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lehen itzuliaren erredakzioa burutzea 2008ko abenduaren 31rako pentsatua zegoen. Hala ere, aplikazio erabilgarri bat izateko epeak bete ez direnez, erredakzio epea ere berriusi egin beharko dela uste dugu. Aplikazioa bera ere oraindik ez dago erabat

itxita eta proposatutako eta nahitaez egin beharreko hobekuntza asko egin gabe daude. Honetaz gain, epe honen barruan ez da aintzat hartu zenbat denbora behar den zuzendari akademikoak egindako zuzenketak sartzen, ez eta zuzenketa hauek nork eta nola egingo dituen ere.

## **2.4. Argitalpena**

Euskaltzaindiaren Hiztegia argitaratu behar denean, bai paperera eta bai argitalpen elektronikora ere eraman behar da.

Gaur egun ezinbestekoa da, gure ustez, paperezko edizioa egitea. Hala ere, argitalpen elektronikoak abantaila handiak eskaintzen ditu paperezkoarekin alderatzen badugu.

Interneteko bertsioa eginez gero (Internet izango da seguruenik argitalpenaren irtenbideetariko bat), sareko konexioa duten mundu guztiko milioika ordenagailutatik egin daiteke kontsulta. CD edo DVD bertsioak erabiliz gero 12 cm-ko disko batean dugu informazio guztia.

Argitalpen elektronikoa lasterra da. Hiztegi guztian barrena abiatu gabe, paperean ia ezinezkoak diren kontsulta modu konplexuak eskura ditugu berehala.

Eguneratze eta zuzenketa bideak ere lasterrak eta merkeak dira. Edizio ingurutik (erredakzio taldetik) argitalpenera berehalako batean eraman daitezke. Ortografia hutsen eta bestelakoen zuzenketak gainera, nahi adina aldiz egin daitezke.

## **3. ORAIN ARTE EGINDAKO LANA**

Euskaltzaindiaren Hiztegia deituko dena egiteko lantaldea finkatu zeneztik urtebete inguru pasatu da. Memento honetan, beherago aipatzen diren oztopoak gorabehera, badirudi egitekoak halako urrats edo abiada bat hartu dela, hemendik aurrera mantenduko dena. Hona, beraz, orain artekoaren kontu errendapena.

### **2006ko ekaina**

Lehen probak egin genituen aplikazio berriarekin. Oinarri-oinarrizko probak izan ziren, batez ere tresna berria ezagutu eta azaldu ahala informatikariari akatsen berri emateko. Hasiara-hasierako aplikazio hark akats nabarmenak zituen azpiadiera eta azpisarrerak gordetzerakoan, esate baterako. Banan-banan gure informatikariari aipatu eta aplikazioa prestatu duen Ainhoa Agirre UZEIko kidearekin zuzendu behar izan genituen. Akatsak azalerrateaz gain behar-beha-

rrezko hobekuntzak proposatzeko balio izan zuten proba horiek. Lan horretan lanaldiaren zati batean bakarrik jardun genuen eta gainerako orduetan, aurreko hilabeteetan hasitako lanarekin jarraitu genuen, alegia, *Orotariko Euskal Hiztegia* oinarrituz Hiztegi berri honetarako materiala prestatzen.

### **2006ko uztaila**

Aplikazio berriaren erabilgarritasuna hobetzen eta akatsak zuzentzen ziren bitartean *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoaren arduradunarekin, paper gainean, lehenengo erredakzio saioak hasi genituen. *Adendar-afrikaerditar* hitz multzoa landu genuen lehenik denok taldean, lehenengo zalantza eta irizpideak argituz. Ondoren *a-abizen* zatia erredaktatu genuen bakoitzak bere aldetik, eta gero denon artean egindako aukerak erkatu genituen.

### **2006ko abuztua**

Aplikazioak aurrerapen handirik izan ez zuenez, batez ere *Orotariko Euskal Hiztegi*ko lanarekin jarraitu genuen Euskaltzaindiaren Hiztegiarako materiala prestatzen nork bere aldetik. Bai UZEI eta bai Euskaltzaindiarentzat opor garaia denez kontua geldirik egon zen hil guztian.

### **2006ko iraila**

Hilabete honetan ere lehenengo hamabostaldian *Orotariko Euskal Hiztegi*ko lanarekin jarraitu genuen, materiala prestatzen, tarteka informatikariarekin aplikazio berriaren akatsak zuzenduz eta hobekuntzak landuz. Hilabetearen bigarren hamabostaldian bakoitzak hitz multzo bana landu genuen, bitartean arduradunarekin irizpideak finkatuz. Zati hauek dira Euskaltzaindiaren hiztegiarako erredaktatutakoak (definizioak, adierak eta azpisarrerak landu, testuinguruak aztertu eta adibideak aukeratu):

*a-aberriratu*  
*adendar-afrikaerditar*  
*afrikar-ahal izate*

### **2006ko urria**

Eguneko lanaldiaren erdia arduradunarekin egindako lana zuzentzen eta irizpideak finkatzen jardun genuen eta beste erdia norberaren hitz multzoak erredaktatzen. Hauek dira hilabete horretan landutako hitz multzoak:

*abertzale-adelatu*  
*ahalke-aingira*  
*aingura-akain*  
*aldare-alhatu*  
*alikota-amore eman*

### **2006ko azaroa**

Euskal Hiztegiaren erredakzio lanetan hasi ginen bete-betean. Hauek dira landutako hitz multzoak:

*akara-aldarazi*  
*amorragarri-antropologi*  
*antsia-apostata*  
*apostolu-arestian*  
*areto-arnasa*  
*arnasbide-arrazoitu*  
*arre-artista*  
*artistiko-aste*

### **2006ko abendua**

Erredakzio lanarekin jarraitu genuen. Hauek dira landutako hitz multzoak:

*astearte-atsedendu*  
*atsedenleku-atzizki*  
*atzo-ausardia*  
*ausarditsu-azalpen*  
*azaluskeria-azpiratu*  
*azpisarrera-azuzena*

Aipatutako 7 hilabete hauetan zehar lantaldeko laugarren kideak Euskaltzaindiaren Hiztegirako prestakuntza lanekin jarraitu zuen, Orotariko Euskal Hiztegia oinarri hartuta. Hau da bai hark egun osoz eta bai taldeko gainerako kideek tarteka ekainetik abendura sail horretan egindako lana:

**Ekaina-urria.** *Haur-az*  
**Urria-abendua.** *Ba-baizik*

2007ko urtarrila. Hauek dira erredaktoreek landutako hitz-multzoak:

*bainugela-balio izan*  
*baliiodun-baritono*  
*barka eskatu-barrikada*  
*barrikote-baztergabe behargin-beltz*  
*baztergarri-behargabeko*

*Orotariko Euskal Hiztegi*ko prestaketa lanen barruan, hauxe da hil honetan egindakoa:

*baj-bal* tarteko buruak aztertu eta berregin  
*baj-bakoitz* tarteko sarrerak aztertu eta berregin

Koordinazio eta zuzenketa lanei dagokienez, Ibon Sarasola arduradunak lantaldearekin egindako bileretan zalantzak argitzen eta irizpideak finkatzen jarraitu zuen aurreko hilabeteetan bezala. Hala ere, ezin izan zuen paper gainean zuzendu a letrako hitzen lehenengo itzulua. Zuzenketa horretarako nahitaezkoa zen erredaktatutakoa formatu egokian inprimatu ahal izatea eta aplikazioak ez zuen oraindik aukera hori ematen.

## 2007ko otsaila

Hauek dira erredaktoreek landutako hitz-multzoak:

*behargin-beltz*  
*beltzaran-berdinu*  
*berdingabe-bertsogile*  
*bertsogintza-betezpal*  
*bihozgabetu-bilera*

*Orotariko Euskal Hiztegi*aren prestaketa lanetan honako tarte hau egin da hilabete honetan:

*bakoizki-banatu* tarteko buruak eta sarrerak aztertu eta berregin.

Koordinazio eta zuzenketa lanen barruan, Ibon Sarasola arduradunak lantaldearekin egindako bileretan zalantzak argitzen eta irizpideak finkatzen jarraitu zuen aurreko hilabeteetan bezala. Hilabete honetan egindako lana inprimatu ahal izateko behin-behineko eredu eskuratu zen. Horri esker, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lehenengo itzuliko *a-aditze* tartearen lehenengo irakurketa eta zuzenketak egin zituen.

## 2007ko martxoa

Hauek dira erredaktoreek landutako hitz multzoak:

*beti-bihozgabe*  
*bilgor-birjina*  
*birjintasun-bixigarri*  
*bixika-borroina*  
*brida-buruhandi*  
*borroka-bretoi*

Orotariko Euskal Hiztegiaren prestaketa lanei dagokienez, honako hau da hil honetan egin dena:

*banatu-barna* sarrerak osatu eta zuzendu.

Koordinazio eta zuzenketa lanen barruan, Ibon Sarasola arduradunak lantaldearekin egindako bileretan zalantzak argitzen eta irizpideak finkatzen jarraitu du aurreko hilabeteetan bezala. Hilabete honetan, hainbat arazo izan dira egindako lana inprimatu ahal izateko behin-behineko ereduarekin. Dena den, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren lehenengo itzuliko *aditze-ahogozo* tartearen lehenengo irakurketa eta zuzenketak egin dira.

Hiztegia erredaktatzeko aplikazioaren hobekuntzen artean, hilabete honetan hitz berriak sartu ahal izateko funtzioa sortu du Iñaki Kareaga informatikariak.

#### 4. LAN TALDEAREN KEZKAK

Ikusten denez, beraz, arazoak arazo eta oztopoak oztopo aurrera egin dugu Euskal Hiztegiaren erredakzio lanean. Arazoak arazo eta oztopoak oztopo aipatu dugu, izan ere orain arteko bidean horrelako asko izan dugula iruditzen baitzaigu.

Hasteko hiztegia erredaktatzeko darabilgun aplikazio berezia apirilean oraindik erabat itxi gabe dago eta beharrezko ditugun hainbat hobekuntza falta dira.

Erabiltzen duguna web aplikazioa izateak ere uste baino arazo gehiago sortu izan digu. Batetik guk espero genuena baino motelagoa da berez, eta bestetik sarearen mende gaude uneoro. Sarritan gertatu zaigu konexiorik gabe geundelako lanik ezin egin ahal izatea; batzuetan ordu bat edo beste galdu izan dugu eta beste batzuetan goiz guztia lanik egin ezinda egon gara.

Aplikazio horretan barneratuak beharko luketen Elhuyarren *Euskal Hiztegi Modernoaren* eta Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiaren bertsio elektronikoak ere ez ditugu oraindik eskura. Bi lan horiek paper gainean kontsultatu behar ditugu, horrek gure lanerako dakarren atzerapen eta geldotasunarekin.

Orain arteko atzerapen horiek gorabehera gure lanarekin aurrera jarraitu dugu eta abenduan **a** letraren erredakzioa bukatu genuen eta **b** letra apirilean bukatuko dugu.

Dena den aurrerantzeko gure lanari buruzko kezka azaldu nahi genuke leerro hauen bitartez.

Orain arte ezarrita zeuden epeak asko atzeratu dira, eta ikusten dugu ezin izango dela lana ezarritako denboran bukatu. Izan ere, erredakzio epeak ezar-



tzeko erabili zen irizpideak ez du orain erabat balio, orduan ez baikenekien zein izango zen aplikazio berriarekin erabili beharko genuen lan moldea. Aplikazioa espero genuena baino motelagoa izateak eta eremuka lan egin beharrak lana moteldu egiten du. Eta beldur gara, gainera, Elhuyar-en hiztegia eta Euskal Hiztegia gehitzen zaizkionean ez ote den gehiago motelduko. Lur hiztegia aplikazioan sartu zenean asko jaitsi zen abiadura; sarrera batetik beste batera pasatzeko tarte 14 bat segundokoa zen. Hainbeste denbora itxaron beharrak arreta galtzea dakar askotan eta pantailara begira zurian pasatu beharreko tarte horrek ondorioak izan ditzake gure lanean.

Erredakzio lana bukatutakoan egin beharreko zuzenketak sartzeak ere uste baino lan handiagoa emango du, eremuz eremu egin beharko baitira eta aplikazioa ez baita horretarako behar bezain lasterra. Gainera, goian aipatu bezala, hasieran ezarritako epeetan ere ez da lan hori kontuan hartzen.

Orain arteko atzerapenez gain Ainhoa Otamendik lau hilabeteko amatasun baimena hartu duela gogoan izan behar dugu, horrek gure lanean izango duen galerarekin.

Bada gainera, beste kontu bat, ahalik eta lasterren argitu eta finkatzea eskatzen duena, alegia, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren jarraipen batzordearen gaia. Gorago adierazi dugun bezala, hiztegi hau bideratuko duten irizpide orokorren berri ematerakoan, hitzen baten definizioa eta abar moldatzerakoan adostasunik aurkitzen ez bada iturritzat erabilitako hiztegien artean, eta honek arazoren bat sortzen baldin badu, albo batera utzi beharko da sarrera horren erredakzioa, aldi baterako behintzat, eta Euskaltzaindiari aditzera emango zaizkio zein diren hitz horrek dauzkan zailtasun eta arazoak. Horrelakoetan, beharrezko diren argibide eta oharrez eratutako txosten bat aurkeztuko zaio dagokion batzordeari erabakiren bat hartu ahal dezan.

Baina definizioak moldatzerakoan ez ezik, Hiztegi Batuko lan taldeak osatutako hitz zerrendan agertzen diren ohar eta argibide batzuetan ere, zenbait kontraesan edo akats aurkitu dira.

Garrantzizkoenetako bat, aditz baten laguntzailearen berri emateko erabiltzen den sistemari buruzkoa dugu. Orain arte landutako hitzetan ikusi ahal izan dugunez, «*dio ad.*» gramatika oharra bi gauza ezberdin adierazteko erabili da (ik. esaterako *argitarazi*, *ahantzarazi* bezalako aditz erazleen adibideak alde batetik eta *lagundu*, *deitu* bezalako Hegoaldeko «*dio ad.*» bestetik), informazioaren argitasunari eta zehaztasunari begira inondik inora komeni ez dena.

Euskaltzaindiak beste hitz baten erabilera hobesten duenetan ere («abandonatu h. alde badera utzi», «aurreikusi h. aurrez ikusi»...), sarrera horiek erredaktatu gabe utziko ditugu oraingoz, ez baitakigu garbi nola jokatu behar den horrelakoetan.

Gramatika termino batzuk erabiltzeko orduan ere, eta kontuan izanik, zenbait kasutan, gauza bera izendatzeko modu bat baino gehiago erabili izan dela azken urteotako eskuliburu eta idatzietan («erkaketa / konparaketa», «zeharkako osagarria / zehar objektua», «partizipioa / era burutua...»), beharrezkoa iruditzen zaigu jakitea Euskaltzaindiak zein terminoren aldeko hautua egiten duen, era horretan, terminonologia bateratzen eta finkatzen joan ahal izateko.

«Ik.» eta «Sin.» erreferentzien erabilera ere argitzeko premia dago.

Zer esanik ez, goian aipatutako puntuak eta, jakina, erredakzio lanak aurrera egin ahala agertzen joan daitezkeenak ere eztabaidatu eta argitu ahal izateko, behar-beharrezko deritzogu Euskaltzaindiaren Hiztegiaren jarraipena egingo duen batzorde bat eratzeari lehenbailehen. Erredakzio lanak gehiegi aurreratu baino lehen komeniko litzateke batzorde hori antolatzea, han eta hemen sor daitezkeen zalantza eta irizpide hutsuneak denbora luzez argitu eta bete gabe egotea, oztopo handia izan baitaiteke Euskaltzaindiaren Hiztegiaren behar bezalako erredakziorako.

## EGO PROIEKTUA ZERTAN DEN

Pello Salaburu,  
Gramatika Batzordeko burua

### Aurkezpena: Argomaiz

Argomaizen aurkeztu nituen, 2005eko maiatzaren 27ean, oker ez banaiz, EGO proiektuaren nondik norako funtsezkoenak. Zer egiten ahal zen, eta nola egiten ahal zen egin behar zen hura. Dakizueenez, EGO izenak euskal gramatikari egiten dio erreferentzia: behin EGLU guztiak bukatu ondoren (zazpi liburuki dira orotara), hori hartuz egin daitekeen gramatika motari, alegia. Akronimoaren adierazia bi modutara, gutxienez, irakurria izan da: *Euskal Gramatika Orotarikoa* eta *Euskal Gramatika Orokorra*. Aurrerantzean EGO erabiliko dugu guk ere, azken adieraziaz gehiegi arduratu gabe.

Aurkezpen hartan aipatzen nuen, besteak beste, nolako gramatikak egin daitezkeen, kontuan izanik inguruko gramatikariek azken urte hauetan argitara eman dituztenak: besteak beste, Jose Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina ingelesez argitaratutako euskal gramatika; Real Academia Española-k atara duen Ignacio Bosque eta Violeta del Monte gramatikarien *Gramática Descriptiva de la Lengua Española*, eta katalanez atara den *Gramàtica del català contemporani*, Joan Solà, Maria-Rosa Lloret, Joan Mascaró eta Manuel Pérez Saldanya-k zuzendua. Eta hiru gramatika hauek elkarren artean komunak dituzten puntu batzuk aipatzen nituen. Haiekin batera beste bi gehiago ere aipatzen nituen, ingelesez idatziak, eta batez ere sintaxia hartzen dutenak aztergai: Quirk, Greenbaum eta Svartvik-en *A Grammar of Contemporary English* (Longman, 1972), eta Declerck-en *a Comprehensive Descriptive Grammar of English* (Kaityakusha, Tokyo, 1991). Hauek guztiak EGLU-rekin erkatzen genituen.

Nolako EGO egin nahi genuen etorkizunean? Puntu horretan, garai hartan, galdera gehiago genituen erantzunak baino. Hala ere, hauxe genioen orduan:

«Eta eman ditugun adibideak kontuan izanik, berehala konturatzen gara EGO eta EGLU proiektuak elkarren artean erkatzean bi gauza desberdin egin behar direla: batetik, EGLU-n esandakoa birmoldatu, kontraesanak kendu, terminologia finkatu, adibideak gaurkotu, eta abar, eta, bestetik, EGLU osatu. EGLU osatzeko bi bide erabili behar dira: han ukitutako gai batzuetan sakondu behar da. Ez da dudarik Gramatika batzordeak ere material desberdi-

nak erabiltzeko aukera izan duela hasieran eta amaieran, hasieran ez baikenuen inolako corpus informatikorik. Horrek, noski, tratamendu desberdina emanarazi die gai batzuei eta besteei. Horra zergatik sakondu behar diren gai batzuk, batez ere lehenbiziko liburuei dagozkienak. Bestetik, beste gai batzuk osatu beharko direla dirudi, kontuan hartzen baditugu orain arte egin ditugun oharrak.

Zer egin euskarari buruzko datu soziologikoekin, euskalkiekin, gaur egun batasuna dela-eta, sortu zaizkigun hiztunen belaunaldi berrieekin? Zer egin fonetika-fonologia mailako gaiekin, hizkera doinuarekin, eta abar? Holako gaiak sartu behar dira edo ez? Zenbateraino osatu behar dira lehendik sakontasun aski izan ez duten gaiak? Teoriaren inguruan zerbait esan behar da? Zer egin *EGLU*-n ageri diren adibide horiekin guztiekin, ez baitaude batuan eta batzuetan nekez baitabil irakurlea horiek irakurri nahi dituenen? Aitortu behar da beste hizkuntzei buruzko gramatiketan ez dela arruntean holako adibiderik aurkitzen.

Baina ez dira hor bukatzen galderak: neurri batean gramatika arauemai-  
lea nahi dugu? Bildu behar ditu gramatika honek Euskaltzaindiak eman dituen arau nagusiak? Zenbateraino? Bildu behar dira hemen Gramatika batzordeak behin eta berriz, Jagonet dela eta, ematen dituen erantzunak? Kontuan izan behar dugu gramatika hau kontsulta liburua izango dela, oren gainetik, irakasleek-eta zalantzak dituztenean gauzak behatzeko toki segurua edo, gutxienez, segurua».

Honaino orduan esaten genuena. Hola bukatzen genuen sail hau: «Horiek guztiak galderak dira, oraingoz erantzunik gabeko galderak».

Nola egin lana? Prozedurari buruz, esaten genuen, Gramatika batzordearen lana litzateke eta ez, beste gramatiketan gertatu den bezala, batzuei eskatzen zaien bakarkako lana. Uste genuen, eta uste dugu, batzordearen orain arteko metodologia, neurri batean bederen, errespetatu egin behar dela. Horretaz gain, han esaten genuen batzordekide batek Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuan egiten duen lana lan honekin batera egingo lukeela, eta teknikari bat beharko litzatekeela, atal batzuetan lan mekaniko asko egin beharko litzatekeela ikusten baikenuen.

Kontuan izan behar da, bestetik, EGO eta EGLU-VII (EGLU saileko azken liburukia) batera egin behar genituela, egutegia eta egitarauak horren araberatik.

Hurrengo urteetako lanari begira, hola ikusten genuen orduan egitaraua:  
2005

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)*. Eskema orokorra eztabaidatu eta lehen kapituluaren lehenbiziko idazketa

*EGO*: Eskema nagusia eztabaidatu, metodologia zehaztu eta lana zedarritu

2006

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)*. Kapituluaren bigarren idazketa.

*EGO*: aztertutako gai berriak lantzeko lehenbiziko lanen idazketa

2007

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (VII)* Hirugarren idazketa egin eta **argitaratzeko entregatu**

*EGO*: Lan berriak eztabaidatu eta erabakiak hartu. Aurretik landutako gaiak osatu

Hori zen orduan begiz jo genuen egutegia, pixka bat atzeratu dena, eman-go ditudan arrazoiengatik. Batetik, EGLU-VII uste baino zailagoa izan da. Hori bistan gelditu da. Lan batzuk sei aldiz ere eztabaidatu dira, sei aldiz idatziz eta berridatziz guztia. Kontuan izan behar da azken liburuki honetan aztertzen ditugun gaiak direla euskal gramatiketan gutxien landu izan diren gaiak. Batzuk biziki berriak egiten zaizkigu euskaraz. Hala ere, aurrera goaz, eta kapitulu batzuk dagoeneko idatziak dira. Nahi genuke 2007an izan esku artean kapitulu guztien lehenbiziko idatzaldia, eta, posible baldin bada, 2008ko abenduan izango genuke azken bertsioa inprentara bidaltzeko moduan.

### **Lehenbiziko txostena: Donostia**

*EGO* dela eta, Gramatika batzordeak 2005eko azaroan ikusi zuen, eta eztabaidatu, lehenbiziko txosten zehatza, nik neuk aurkeztu nuena. Txosten honen 8 orrialde ditu, eta hor zehazten dira aurreko txostenean aipatu besterik egiten ez ziren zenbait gai.

Lan egiteko sistema aipatzen zen lehenik, eta han berresten zen komenigarria zela orain arte bezalatsu egitea lana, batzordean eztabaidatuz txostenak. Lan sistema hau ez da arinena, baina seguruena da gaur egun, ez baititugu euskal gramatikaren inguruko ikerketak beste hizkuntzetako ikerketak bezain garatuak. Hori dela eta, taldearen inplikazioa ezinbestekoa ikusten genuen.

*EGO* gramatikaren edukia dela eta, puntu hauek bereizten ziren txosten hartan, egin beharrekoen artean:

1. Terminologia berrikusi. Terminologia kontuetan bada maila bat baino gehiago. Esaterako, gauza bat da kontraesanak aztertu eta batasuna jartzeari («erlatiboazko perpausak» / «perpaus erlatiboak» bezalako bikoteak batera ekarriz). Beste kontu bat da aurretik hartutako erabaki batzuk aldatzea: «predikatu osagarria» izeneko kontua, konparazione. Eta oraindik konplikatua eskema hartan zerbait aldatu behar badin bada, «deklinabidea» izeneko kontzeptua bera. Hauek guztiak nahaste handia sor dezaketen arazoak dira, eta gauzak bi aldiz pentsatu behar dira ur sakonegietan sartu aurretik.

2. Osatu behar diren puntuak zehaztu. Gure ustez, EGLU bera ere garai desberdinetan egin baita, badira zenbait puntu osatu behar direnak, gehiago lehenbiziko liburukiei dagozkienak azken liburukiei dagozkienak baino. Horien artean aipatzen ahal dira *predikatu osagarria*, *izen motak*, *adjektibo motak*, *aditzen erregimena*, eta abar. Edo, *lexikoaren inguruko informazioa*, *aditz batua* (adizki batzuk ez ditu inoiz ere jaso Euskaltzaindiak) *ergatibitatea*, *egitura pasiboak eta antipasiboak*, *mintzagaia eta galdegaia*, *ukagaia*, eta abar. Aldi berean, ezinbestekoa ikusten genuen informazioan euskalkien arteko parekotasuna ez haustea, batzuk besteen gainetik jarritz. Hau guztia egiteko OEHTik informazio gehiago biltzea ezinbestekoa zen, eta, beharbada, EGLU liburukietan erabili izan dugun eskema bera egokia den ikustea.

Horretaz gain, EGOk beste kontu batzuk ere hartu beharko lituzkeela kontuan esaten zen txostenean:

1. Gramatika deskribatzailea eta arauemailea. Gure ustez, EGO, oro har, deskribatzailea da, baina arauemaile ere behar luke izan. Urte hauetan Euskaltzaindiak hainbeste arau eman ditu, kontuan hartu beharko liratekeenak. Ez arau bezala biltzeko, hori ez baita tokia, baina bai gramatikan, tarteka eta zeharka, modu natural batean emateko. Adibidez, zenbatzaileen gainean hitz egiten denean zenbakiak nola idatzi behar diren esan beharko da (eta, horrela, bide batez, Euskaltzaindiaren araua biltzen da).
2. Aldi berean, ezinbestekoa ikusten zen *EGO* orain hiztunen artean egon daitezkeen zalantzak argitzeko lanabesa izatea. Hori dela eta, han eskatzen genuen JAGONET izeneko atalean dauden galdera-erantzunen berri izatea, zalantza horiek, gramatikari dagozkion puntu bakoitzean, argituz joateko.
3. Hirugarren arazo multzoa adibideekin lotzen zen: nola eman adibideak denok ulertzeko moduan? Bistan da historian, hobeki esan, historian ere, oinarritu behar ditugula gramatikaren baieztapen eta ondorioak, baina adibideek, balio izatekotan, denek ulertzeko modukoak behar dute izan. Eta EGLUn ageri diren adibideak, anitzetan aski ulergaitzak gertatzen dira irakurle arrunt batentzat. Aldi berean, adibideak batuan eman behar ote diren edo ez, hori ere eztabaidatzen zen.

Gauza bat da, dena den –eta puntu honetaz ere baziharduen txostenak– orain arte emandakoa modu egokian emana den edo ez. Eta emandako hori nola eman modu bateratuan, orain arte urteetan zehar sortu diren kontraesanak baztertuz. Halaber, gauza bat da EGLUetan ageri diren gaiak nola osatzen ahal diren aztertzea. Baina beste kontu bat da, aski desberdina, ikustea EGOn gai berririk sartu behar den edo ez.

Beste gramatiketan, konparazione, fonetika eta fonologia kontuak sartzen dira, edo egoera soziolinguistikoari buruzkoak, edo historiari buruzkoak. Hizkuntza bera zer den ere maiz aztertzen dute gramatika batzuek. Euskararen kasuan dialektologiak ere izan dezake pisu handia, edo euskararen batasunaren historiak berak. Txostenean aztertzen zen puntu hau: EGOn gai berriak sartu behar dira? Sartzekotan, nola sartu behar dira? Non daude mugak? Nola jarri mugak?

Hau guztia eztabaidatu zuen Gramatika batzordeak. Lehenbiziko egun horretan ez zen argi ikusten zer egin, baina gehienek iritzia zen mugak jartzea komeni zela. Eta muga hauek hurbilago egon beharko luketela gramatikan da-goeneko landuta dauden gauzak ordenatzetik gauza berriak lantzetik baino.

## 2006ko lana

Urte horretan batez ere beste gramatiketan dagoena aztertu zen. Ni neu egon nintzen Bartzelonan Joan Solà irakaslearekin, eta berak eman zidan informazio xehea beren gramatikari buruzkoa. Non izan zituzten zailtasunik handienak, nola sortu ziren ezusteak, eta abar. Gauza bera egin nuen gaztelaniazko gramatikaren arduradunak izan diren Ignacio Bosquerekin eta Violeta Demonterekin. Eta gure eta beste gramatiken arteko konparazioak ere egin nituen, landutako eskemen arabera. Hau guztia, jakina, EGLU-VIIan egiten ari ginen lanarekin konbinatuz.

Urte horretan zehar EGLU osatzen duten liburukiak word formatura pasatu ditugu, bat izan ezik, ezinbestekoa baikenuen lan hau lehenbailehen egitea lehenbiziko urratsak emateko. Egia esan, hau Euskaltzaindiak egitea espero genuen, baina holakoetan gerta daitezkeen eskubide eta lege arazoak ongi aztertu behar direnez deus ere egin baino lehen, azkenean atzeratu da lan hau. Halaber, teknikariak egin zezakeen lana definitu nuen. Eta teknikari hau uda pasatu ondoren hasi zen lanean.

Bi lan gehiago ziren egiteko edozein urrats eman nahi bagenuen: batetik, erabilitako terminologia zehaztu, eta bestetik zalantzen txokoa hornitzen hasi. Terminologiari dagokionez, teknikariak lan zehatz bat egin du, eta datu base handi bat prestatu EGLU guztietan ageri den terminologiarekin: terminoak non ageri diren, nola, definituak diren edo ez, Euskaltzaindiak batasunerako eman hiztegiarekin bat datozen edo ez... eta abar. Horrekin lan dokumentu bat prestatu dugu ACCESS programan, bi bertsiotan: osoa eta soildua, batzordekideen artean banatu dena. Material hori bere garaiari (nahiz orain osatuago dagoen) Euskaltzaindira bidali zenez, ez du merezi hemen luzamenduetan ibiltzea kontu honekin.

Teknikariak terminologia hori gaztelaniazko eta katalanezko gramatikekin konparatu du, eta haien eskema osoak alderatu dizkigu. Ezinbestekoa da

beste gramatiketan gertatzen dena ikustea, ez haiek diotena besterik gabe aplikatzeko. Hots, ez dugu erdarazkoen kopia bat egin nahi euskal gramatikarekin. Kontua ez da hori, kontua da holako gauzek beti pizten dutela argia «hau egin behar da», «beste hori atzendua dago», eta abar. Horregatik ditugu ezinbesteko erreferentzia hauek.

Bigarren lana zalantza txokoarekin lotua dago. Honetaz informazioa behar genuen, jakiteko benetan zein diren hiztunen zalantzak. Horregatik eskatu zuen Gramatika batzordeak JAGONETek duen datu basea esku artean izatea. Baina oraingoz Euskaltzaindiko zuzendaritzak ez digu eskuratu datu base hori, holako materialak erabiltzeko orduan, esan bezala, eskubide eta lege arazoak sortzen baitira, eta hori ongi aztertu gabe hobe baita materialik ez banatzea. Nolanahi ere, beste erakunde batzuetako zalantza datuak eskuratu ditugu, arazorik gabe oraingoan. Ikusi beharko dugu hau guztia nola erabili proiektuan zehar.

### Geroztikako lanak

Gramatika batzordeak 2007ko urtarrilaren 19an egin zuen urteko lehenbiziko bilkura. Egun horretan, *EGO*ren berri eman nuen, nola zegoen kontua azalduz, eta eskema orokorra nola ari nintzen lantzen erakutsiz. Kontu nahasia zenez, nahiago nuen batzordekideen iritziak eskuratu.

Ondoren, martxoaren 18an beste bilera bat izan dugu, ia-ia osorik eman duguna *EGO*ren kontua eztabaidatzen. Bilera horretan eskema luze bat aurkeztu nuen, «*EGO* aurkibide zaharra eta berria» izeneko. Denetara 46 orrialde ditu, eta hor parean jartzen dira *EGLU* guztien (*EGLU-VII* salbu, jakina) eskema, modu berri batera ordenatua, eta *EGO*ren eskema berria, ohar askorekin: hor zehazten da zer sartu behar den berria, zer landu behar den, zer osatu behar den, eta abar.

Erabaki garrantzizkoak hartu ziren bilera honetan:

1. Eskemari dagokionez. Batzordekideei epe bat eman zitzaien, gauza guztiak argitu ondoren, beren oharrak egiteko. Dagoeneko, batzordekide anitzek bidali dituzte oharrak, eta horietatik aztertzen ari gara.
2. Irizpide nagusi gisa onartu zen *EGLU* hartzea oinarritzat, eta han landu beharreko puntuak lantzea, osatzea falta ziren zenbait gauza, eta errepikatutakoak kentzea, gramatika bera soiltzearen. Baina, aldi berean, hori guztia bukatu arte gauza berriak ez sartzea erabaki zen. Aldaketak batez ere lehenbiziko liburuetan egingo dira. Hau da irizpide nagusia.
3. Adibideei dagokienez, bistan da erraztu egin behar direla. Batetik, guk geuk eman ditzakegu kanonikoak direnak, besterik gabe, hartarako li-



teraturakoak moldatu behar baldin badira ere. Hemen kontuan izan behar dugu Rudolf de Rijk zenak lehenbiziko liburukiari egin zion kritika. Betiere literaturakoak aukeratu behar baldin badira, adibide errazentara jotzeko joera erakutsi behar dugu.

4. Liburuak gaurko EGLU guztiak baino laburragoa behar du izan, gauzak bi aldiz esan gabe, eta «doktrina emateari» beldurra kenduz. Orain arteko liburuetan gertatzen da, maiz aski, gu geu ez gaudela ziur esaten denaz, eta gure barneko dialektika modu horretan islatzen dela. Liburu berrian hau saihestu behar da, eta ontzat ematen ditugunak ontzat eman behar dira hasiera-hasieratik. Horrek beste modu bateko liburua bideratuko du: zehatzagoa, trinkoagoa eta laburragoa. Estiloari dagokionez, liburua esku batek bakarrik idatzi behar du, PS-k alegia.
5. Metodologiari dagokionez oinarrizko aldaketa bat onartu zen: batzorde osoak bere pisua izango du, eta bere iritzia emango du. Baina ez orain arte bezala. Batzordeño bat izendatu da, eta batzordeño horrek aurkeztuko ditu dokumentuak, zuzenean berak landuak, nahiz zeharka, beste norbaitek landuak. Baina, oniritzia batzordeño honi dagokio, gauza guztietarako. Batzordeño honen kideak: burua (Pello Salaburu) eta idazkaria (Jesus M. Makazaga), Patxi Goenaga, Itziar Laka, Beñat Oiartzabal eta Paskual Rekalde. Batzordeñoak aurkezten dituen dokumentuak batzorde osoan eztabaidatuko dira, batzordeñoak erabakitzen duen modura. Baina ez dira orain arte bezala lerroz lerro eta hitzez hitz eztabaidatuko.
6. Batzordeñoak uda aurretik egingo du bere lehenbiziko proposamena, eskema nola landu behar den erakutsiko duena. Eta eskema hori hasiko gara berehala lantzen.

### **Azken egoera**

Gauzak honela, uste dugu dena behar bezala definitua dagoela dagoeneko. Eskema egina da, eta oinarrizko materialaren parte handi bat behar bezala landua. Ekainean eztabaidatuko dira azkeneko puntuak, batez ere osatu behar diren sailak. Eta berehala hasiko gara idazten. 2007a bukatu aurretik kapitulu batzuk idatziak izango dira. Eta uste dugu 2008a bukatzen deneko lehenbiziko liburukiaren hasierako aldaketa osoa ere amaitua izango dela.

## **EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA**

### **Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak**

*Patxi Galé García,*  
*arduradun teknikaria*

*Andres Iñigo Ariztegi,*  
*zuzendari akademikoa*

Euskal Corpus Onomastiko (ECO) proiektua Euskaltzaindiak 2005. urteko maiatzean Argomaizen egin zituen XIV. Barne Jardunaldietan onartu zuen (1).

Berehala jarri zen abian, 2005eko ekainean hain zuzen, eta orduz geroztik 2007ko apirila arte egindakoaren berri eman da Etxalarren izandako XV. Barne Jardunaldietan. Azalpena modu laburrean (kanoiarene bitartez) egin da. Egitasmoaren helburua eta abiatze prozesua gogorarazi ondoren, arduradun teknikariak espresuki eraturako programa informatikoaren eskutik egitura nagusia eta hartzen dituen lau atalen (toponimia, exonimia, ponte izenak eta deiturak) aurkibidea, fitxen edukia eta aplikazio zehatzak modu grafikoa azaldu dira, bai eta bi urte hauetan gauzatu den lanaren ondorioz lortu den emaitza datu kopuruetan. Epe honetan aurkeztu diren errendapenen berri ere eman da; lehenik, hasierako urtean egindakoa eta, ondoren, proiektuaren zuzendariak 2006az geroztik Euskaltzaindiarekin sinatutako hitzarmenaren aginduetara, hiru hilean behin Akademiaren kudeatzaileari eman zaiona. txosten horietan zehatz azaldu dira, bai aurreikusitako epe barruan burutu diren zereginen emaitzak (orain arte epe guztiak oso-osorik bete dira), bai arduradun teknikariak, egitasmoaren mesedetan, aurreikusitakoez gain egin izan dituen lan osagarriak eta programa informatikoari gehitu dizkion hobekuntzak. Azkenik, 2007-09 eperako pentsatuak diren lehentasunak aipatu dira.

Honen guztiaren informazioa hurrengo bi atal hauetan aurkezten da:

1. XV. Jardunaldietan, kanoiarekin 19 diapositibetan azaldutako laburpena.

---

(1) Ikus *Euskera* 50, 2005, leian, txostena, 49-105 or. eta onarpena 295. or.

2. 2005-07 epean arduradun teknikariak burututako zereginen eta lortutako emaitzen errendapenak:
  - 1.1. 2005eko ekitaldia (ekain-abendua), 2006-I-11n aurkeztua.
  - 1.2. 2006tik aitzinekoak. Hitzarmenean agindutakoaren arabera, errendapenak hiru hilean behin aurkeztu zaizkio Euskaltzaindiaren kudeatzaileari, proiektuaren zuzendariaren balorazio eta oniritziarekin batera.
    - 1.2.1. 2006ko ekitaldia:
      1. hiruhilekoa: 2006-IV-10ean
      2. hiruhilekoa: 2006-VI-27an
      3. hiruhilekoa: 2006-X-09an
      4. hiruhilekoa: 2007-I-02an
    - 1.2.2. 2007ko ekitaldia:
      1. hiruhilekoa: 2007-IV-02an

**1. XV. JARDUNALDIETAN, AZALDUTAKO LABURPENA 19  
DIAPOSITIBETAN**

**EUSKAL CORPUS  
ONOMASTIKOA**

Euskaltzaindiaren  
XIV. Barne Jardunaldietan onartua  
(*Euskera* 50, 2005,1, 49-105)

## ECO:

- Onomastika batzordearen egitasmoa
- Batzordearen lan tresna izateko pentsatua
- Irizpenen kalitatearen oinarri
- Etengabe osatze bidean

## ECO:

### Aurrekariak:

- Luis Eleizalde Brenosa ("Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas" *RIEV*, 1922-1936; *BRSVAP*, 1963-1964)
- Julio Caro Baroja ("Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval" *BRSVAP*, 5, 3, Donostia, 1949: 381-385)
- Ricardo Zierbide ("Onomasticon Vasconiae: consideraciones metodológicas" *FLV*, 45, Iruñea, 1985: 175-182)
- José María Jimeno Jurío ("Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra" *I. Onomastika jardunaldiaren agiriak; toponimia, Gasteiz, 1986ko apirila*, *Onomasticon vasconiae* 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991: 99-110)


**ECO:****Abiatzea:**

- Egitasmoaren eraketa teknikoa: Patxi Galé
- Egitasmoa batzordeari aurkeztea (1999)
- Onarpena: Batzordea (2004), Zuzendaritza (2005), Osoko batzarra (2005 mai)
- Diru iturriak lortzea (2005 eka)
- Abian jartzea (2005 eka)
- Ardura teknikoa: Patxi Galé
- Zuzendaritza: Andres Iñigo

**ECO:****Euskal Corpus Onomastikoa**

Euskarazko izen berezien datutegia:

- Euskal Herri osoko leku-izenak
- Euskal Herritik kanpoko leku-izenak
- Euskal Herriko deiturak
- Euskal ponte izenak


**ECO:****Egitura nagusia:****ECO:****Oinarrizko datuak:**

- Nafarroako Toponimia eta Mapagintza
- Iparraldeko IGNko datutegia
- Euskal Herri osoko toponimia nagusia
- Euskal Herriko mendien katalogoa
- Ponte izendegia
- Euskal deiturategia
- Orotariko Euskal Hiztegiko corpusa
- Euskaltzaindiaren arauak

**ECO:**

2005-2007 biurtekoan gauzatutakoa  
Datu kopuruak:

- Iturri dokumentalak: 1836 erregistro
- Era dokumentatuak: 527481
- Deiturak: 9479
- Ponte izenak: 3118
- Exonimoak: 1408
- Ahozko informatzaileak: 967
- Ahozko erak: 95835
- Euskal Herriko lekuak: 102639

**ECO:** Aurkibide orokorra

## ECO: Deituren aurkibidea

The screenshot shows a web browser window with the title 'EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA'. The main heading is 'EUSKAL DEITUREN DATUGAZIA'. Below this, there is a search bar labeled 'Deiturak' with the value 'AGORRETA'. To the right, there is a table titled 'Deiturak aurkibidea' with columns for 'Deiturak', 'Eusko Lehen Hiztegia', 'Eusko Bigarren Hiztegia', 'Eusko Hirugarren Hiztegia', 'Eusko Laugarren Hiztegia', and 'Eusko Bosgarren Hiztegia'. The table contains several rows of data. Below the table, there are several empty text input fields for 'Nomen', 'Eusko', and 'Deiturak'. At the bottom, there are buttons for 'Bilatu', 'Bilatu berri', and 'Bilatu berri'.

## ECO: Ponte-izenen aurkibidea

The screenshot shows a web browser window with the title 'EUSKAL CORPUS ONOMASTIKOA'. The main heading is 'EUSKAL PONTE-IZENEN DATUGAZIA'. Below this, there is a search bar labeled 'Ponte-izena' with the value 'AGORRETA'. To the right, there is a table titled 'Ponte-izenen aurkibidea' with columns for 'Ponte-izena', 'Eusko Lehen Hiztegia', 'Eusko Bigarren Hiztegia', 'Eusko Hirugarren Hiztegia', 'Eusko Laugarren Hiztegia', and 'Eusko Bosgarren Hiztegia'. The table contains several rows of data. Below the table, there are several empty text input fields for 'Nomen', 'Eusko', and 'Ponte-izenak'. At the bottom, there are buttons for 'Bilatu', 'Bilatu berri', and 'Bilatu berri'.



## ECO: Exonimoen aurkibidea

The screenshot shows a web browser window displaying the 'ECO: Exonimoen aurkibidea' interface. The page title is 'EUSKAL CORPUS ONOMASTROA' and 'EUSKAL EXOTOPONIMOEN DATUBASEA'. The interface includes a search bar with the text 'EUSKAL' and a dropdown menu. Below the search bar, there are several input fields for 'Euzkera', 'Euzkera', 'Euzkera', and 'Euzkera'. A table with columns 'Euzkera', 'Euzkera', 'Euzkera', and 'Euzkera' is visible. The table contains several rows of data. At the bottom, there are buttons for 'Aurkibidea', 'Aurkibidea', and 'Aurkibidea'.

## ECO: Euskal Herriko lekuak

The screenshot shows a web browser window displaying the 'ECO: Euskal Herriko lekuak' interface. The page title is 'EUSKAL CORPUS ONOMASTROA' and 'EUSKAL HERRIKO TOPONIMIA DATUBASEA'. The interface includes a search bar with the text 'EUSKAL' and a dropdown menu. Below the search bar, there are several input fields for 'Euzkera', 'Euzkera', 'Euzkera', and 'Euzkera'. A table with columns 'Euzkera', 'Euzkera', 'Euzkera', and 'Euzkera' is visible. The table contains several rows of data. At the bottom, there are buttons for 'Aurkibidea', 'Aurkibidea', and 'Aurkibidea'.



**ECO:****2005eko lanen errendapena:**

- Datu basean falta ziren *NTM* obrako datuak
- 1979ko herri izendegia
- EAEko 1986 eta 2001eko herri izendegiak
- Onomastika alorrean emandako arauak
- Mikel Belaskoren hiztegiak (Nafarroako herriak, mendiak eta ibaiak)

**ECO:****2006ko hitzarmena:**

Egitasmoaren kronograma eta errendapenak:

- Egitasmoa eta kronograma Onomastika Batzordeak onartuak
- Errendapenak kudeatzaileari data hauetan:
  1. hiruhilekoa: 2006/04/10
  2. hiruhilekoa: 2006/06/27
  3. hiruhilekoa: 2006/10/09
  4. hiruhilekoa: 2007/01/02

Egitasmoa epe bakoitzean oso-osorik bete zen

- + Lan osagarriak
- + Informatika hobekuntzak garaiz planteatu eta aplikatu dira

**ECO:****2007ko hitzarmena:**

Egitasmoaren kronograma eta errendapenak:

- Egitasmoa eta kronograma Onomastika Batzordeak onartuak
- Errendapenak kudeatzaileari data hauetan:
  1. hiruhilekoa: 2007/04/02

Egitasmoa oso-osorik betetzen ari da

- + Lan osagarriak
- + Beharrezko informatika hobekuntzak (MSAccess → SQL Server) garaiz planteatu eta gauzatzen ari dira, egitasmoak atzerapenik ez izateko

**ECO:****2007-2009ko biurtekoa:****Lehentasuna:**

Euskal Herri osoko toponimia datu basea

- Nafarroakoa 2008an amaituko da
- Iparraldekoa: IGN-Euskaltzaindia datuak
- Euskal Autonomia Erkidegokoa ??
  - HPS/Deiker: Bizkaia eta Araba amaituak
  - Gipuzkoa 2007an
  - Eskaria: 2006ko maiatzean HPSko sailburuordeari
  - Baiezko erantzuna laster izatea espero da

## 2. 2005-07KO EPEAN EGINDAKO LANAREN ERRENDAPENAK

### 2.1. 2005eko ekitaldia (ekain-abendua)

Data	Zeregina	Emaitza
2005/05/25	<i>Nafarroako toponimia, hizkuntz normalizaziorako irizpideak eta herrien izendegia izeneko laneko datu guztiak datu-basera gehitu</i>	<i>Erak taulara isuritako 1190 erregistro gehiago, dagozkien lekuekin loturak ezarririk</i>
2005/06/01	<i>Nafarroako izendegia 1999-1-1-lean izeneko laneko datu guztiak datu-basera gehitu</i>	<i>Erak taulara isuritako 1304 erregistro gehiago, dagozkien lekuekin loturak ezarririk</i>
2005/06/07	Bera herrian falta ziren erregistroen migrazio osoa ( <i>Aduana-Kamioa</i> )	<i>Lekuak taulara isuritako 306 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 1156 era dokumentalak ere (Erak taulara), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/09	Añorbeko erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 222 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 774 era dokumentalak (Erak taulara) eta 216 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/10	Donamariako erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 364 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 450 era dokumentalak (Erak) eta 456 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/13	Eslabako erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 171 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 564 era dokumentalak (Erak) eta 124 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/14	Leateko erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 173 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 448 era dokumentalak (Erak) eta 126 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/14	Oibarko erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 331 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 794 era dokumentalak (Erak) eta 345 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/20	Zigako erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 212 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 572 era dokumentalak (Erak) eta 202 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/20	Zozaiako erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak taulara isuritako 72 erregistro gehiago, baita berauei dagozkien 142 era dokumentalak (Erak) eta 67 ahozko lekukotzak ere (LekuAhozkoak), behar bezala erlazionaturik</i>
2005/06/27	* Otsagabia-Itzaltzu 9. mugalarreko ahozko lekukotzak gehitu, Otsagabiko toponimia-bilketa taldeak jasorik, 30. liburukian agertzen ziren arren, datu-basean ez baitzeuden	<i>LekuAhozkoak taulara isuritako 41 erregistro gehiago, dagozkien lekuekin loturak ezarri</i>

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaitza
2005/06/28	* Otsagabia herriko ahozko lekukotzak gehitu. Otsagabiko toponimia-bilketa taldeak jasorik, 30. liburukian agertzen ziren arren, datu-basera isuri gabe baitzeuden	<i>LekuAhozkoak</i> taulara isuritako 250 erregistro gehiago, dagozkien lekuekin loturak ezarriz
2005/06/28	* Auritz herriko ahozko lekukotzak gehitu, Auritzko toponimia-bilketa taldeak jasorik, 35. liburukian agertzen ziren arren, datu-basera isuri gabe baitzeuden	<i>LekuAhozkoak</i> taulara isuritako 8 erregistro gehiago, dagozkien lekuekin loturak ezarriz
2005/07/08	* Ahozko informatzaileen datu-basea osatu eta bakoitzari dagozkion lekukotzekin lotu	<i>LekuLekukoak</i> taula ordezkatu eta datuen iturri bezala aipatzen ziren «gaztelaniazko» nahiz «euskarazko inkesta» adierazpideen ordez, informatzaileen datu-basea osatu da, horretarako 900 erregistro berri editatuz eta gaineratuz. Ahozko lekukotza bakoitza bere jatorriarekin erlacionatu da eta, beraz, oraindik aurrera ahozko datu bakoitza nondik heldu den kontsulta daiteke, <i>NA. TM</i> bildumako liburukiek ematen duten zehaztasunarekin.
2005/07/11	Ziritzako erregistroen migrazio osoa	<i>Lekuak</i> taulara isuritako 108 erregistro gehiago, baita beraei dagozkien 312 era dokumentalak ( <i>Erak</i> ) eta 59 ahozko lekukotzak ere ( <i>LekuAhozkoak</i> ), behar bezala erlacionaturik
2005/07/12	* Egitasmoaren txostenaren atondura	Egitasmoaren txosteneko bibliografia arau ortotipografiko eguneratuen arabera idatzi, bereziki erauzi beharreko bibliografiari dagokionaz
2005/07/18	Nafarroako udalerrietako oharrak (herriaren deskribapena, historia, hizkuntza...)	Nafarroako datu-baseko udalerriei dagozkien oharrak gaineratu, euskarazko bertsioan. Halakorik ez dugunean –asko gaztelaniaz baizik ez baitaude–, identifikatu eta liburukietatik jasotzeko zehazki kokatu (liburukia-orrialdea). 103 herri daude egoera horretan.
2005/09/12	Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri eta herri ofizialen erregistroak gehitu	Inoiz ofizial izandako biztanle-entitate guztien fitxak gehitu dira <i>Lekuak</i> taulara, udalerrri eta herrien artean, guztira 1686 erregistro gehiago alegia.
2005/09/12	* 1976ko <i>Herri eta herritarren izendegia</i> laneko erak gehitu	<i>Euskera</i> aldizkarian [XXI (1976-I), 287-315] Jose Luis Lizundiak eta Henrike Knörrek 1976an paraturiko <i>Herri eta herritarren izendegia</i> izeneko egitasmoaren lehenengo eta bigarren zerrendan agertu zen informazioa <i>Erak</i> taulara isuri, guztira 524 erregistro, dagozkien lotura guztiekin.
2005/09/12	* 1986ko <i>Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak</i> laneko erak gehitu	Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak 1986an argitaraturiko <i>Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak</i> liburuxkan zerrendaturiko izenak, hala udalena nola herrienak, <i>Erak</i> taulara isuri, guztira 1455 erregistro, dagozkien loturekin.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2005/09/12	* 2000. urtean <i>Euskera</i> aldizkarian plazaraturiko <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak</i> lanean agertzen diren izenak gehitu	<i>Euskera</i> agerkarian [XLV (2000-2), 1183-1252] Jose Luis Lizundiak aurkeztu eta Mikel Gorrotategik 2000. urtean argitaraturiko <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak</i> lanean zerrendaturiko izenak, hala udalena nola herrienak, <i>Erak</i> taulara isuri, guztira 1577 erregistro, dagozkien loturekin.
2005/09/12	* 2001. urtean EUDELe argitaraturiko <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak</i> lanean agertzen diren izenak gehitu	Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) 2001. urtean argitaraturiko <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak</i> lanean zerrendaturiko izenak, hala udalena nola herrienak, <i>Erak</i> taulara isuri, guztira 1577 erregistro –urreko lanean agerturiko berberak, zuzenketa gutxi batzuekin–, dagozkien loturekin.
2005/09/22	Iparraldeko herrien fitxak gaineratu	Euskaltzaindiak argitara ateratako arauetan oinarriturik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako udalerrri eta herriei dagozkien fitxak sortu. Ondorioz, 370 erregistro gaineratu ziren <i>Lekuak</i> taulara.
2005/09/22	Iparraldeko herri izendegien arauetako datuak jaso	Euskaltzaindiak emandako Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herri izendegietan agertzen diren arauen datuak <i>Erak</i> taulara isuri, bide batez, fitxa horietan agertzen diren lemak eguneratuz. Zehazki, <i>Zuberoako herri eta herritarren izendegiak</i> 92 eta 99. arauetan arautzen ziren, Lapurdikoak 108. arauan eta Nafarroa Beherekoak 122, 128 eta 133. arauetan. Guztira, 495 erregistro, behar bezala erlazionaturik.
2005/09/22	* Arabako 2005. urteko foru izendegiko datu ofizialak (udalak eta herriak) jaso	Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren Sailak Web orrian eskaintzen duen 2005eko izendegi eguneratuaren datuak jaso eta dagozkien lekuekin lotu. Guztira, <i>Erak</i> taulara isuritako 428 erregistro. Bide batez, izendegi horrek ematen dituen herrien altuera eta data horretako biztanleria ere jaso ziren.
2005/09/25	Gipuzkoako herri izendegiaren arauari dagozkion datuak jaso	Euskaltzaindiak 140. arauan emandako Gipuzkoako herri izendegiko datuak <i>Erak</i> taulara isuri, bide batez, fitxa horietan agertzen diren lemak eguneratuz. Guztira, 96 erregistro, behar bezala erlazionaturik.
2005/09/26	* Euskaltzaindiaren lehen <i>Euskal Herriko udalen izendegiaren</i> datuak jaso	<i>Euskera</i> agerkarian [XXIII (1978-1), 317-334] agertu zen lehenengo <i>Euskal Herriko udalen izendegian</i> datozen datuak jaso eta <i>Erak</i> taulara isuri, behar bezala udalerrri horietako erregistroekin erlazionatuz. Guztira 651 erregistro eta haien loturak.
2005/09/28	* Euskaltzaindiaren <i>Euskal Herriko udalen izendegia</i> liburuxka	1979 urtean liburuxka gisara argitara atera zen <i>Euskal Herriko udalen izendegiko</i> datuak <i>Erak</i> taulara isuri eta dagozkien erregistroekin lotu. Bide batez, herritarren izenak ere gaineratu ziren lekuen fitxetara. Guztira 655 erregistro eta haien loturak.
2005/10/06	Euskal Herriaren, erkidego politikoaren eta herrialdeen arauetako datuak jaso	Euskaltzaindiak 45, 57 eta 139. arauetan emandako era arauzkoei buruzko datuak gaineratu dira <i>Erak</i> taulan beharrezko erreferentzia guztiak emanik eta erlazio guztiak ezarririk, baita araturiko era horiei dagozkien leku-erregistroak sortu ere. Guztira 11 leku eta 11 era.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2005/10/25	Mikel Belaskoren <i>Diccionario etimológico de los pueblos, villas y ciudades de Navarra</i> laneko datuak jaso	1996an Mikel Belaskok argitara ateratako <i>Diccionario etimológico de los pueblos, villas y ciudades de Navarra (Apellidos navarros)</i> lanean aztertzen diren leku-izenak <i>Erak</i> taulara gaineratu, bakoitzari dagozkion erlazioak jarrita. Halaber, egileak ematen dituen azalpen etimologiko eta linguistikoak <i>Lekuak</i> taulako <i>Etimologia</i> esparruan hitzez hitz jaso. Guztira 1254 lekurekin erlazioaturiko 1036 era eta beste hainbeste hizkuntza-ohar.
2005/12/07	Mikel Belaskoren <i>Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra</i> laneko datuak jaso	2000an Mikel Belaskok argitara ateratako <i>Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra</i> lanean aztertzen diren leku-izenak <i>Erak</i> taulara gaineratu, bakoitzari dagozkion erlazioa jarrita. Halaber, egileak ematen dituen azalpen etimologiko eta linguistikoak <i>Lekuak</i> taulako <i>Etimologia</i> esparruan hitzez hitz jaso. Guztira 1225 oronimo eta 467 hidronimo. Honez gainera, dokumentaturiko beste 600 eta 308 era berri gaineratu dira, hurrenez hurren, dagozkien lekuekin erlazioan jarririk.
2005/12/14	<i>Espainiako autonomia erkidegoen, probintzien eta hiriburuen</i> izendegia jaso	1995ean 32. arauan argitara ateratako <i>Espainiako autonomia erkidego, probintzia eta hiriburuen izenak Exotoponimia</i> datu-basera gehitu, lekuak sorturik eta dagozkien erekiko erlazioak ezarri. Guztira 115 leku eta 75 era berri.
2005/12/15	<i>Frantziako Errepublikako eskualde izenak</i> titulua daraman arauko datuak jaso	1995ean 36. arauan argitara ateratako <i>Frantziako Errepublikako eskualde izenak</i> , baita departamendu nahiz berauen hiriburuen izen guztiak <i>Exotoponimia</i> datu-basera gehitu, leku horiek guztiak sorturik eta dagozkien erekiko erlazioak ezarri. Guztira 217 leku eta 227 era berri.
2005/12/19	<i>Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak</i> izeneko arauko datuak jaso	1995eko uztailaren 28an eta 1996ko urtarrilaren 26an onartuta, 1999an argitara eman zen 38. arauan agertzen diren munduko estatuak eta berauen hiriburuak <i>Exotoponimia</i> datu-basera gehitu ziren, leku berriak sortuz eta berauei dagozkiela, erak ere erantsirik. Guztira 194 estatu, 201 hiri eta 395 era berri.
2005/12/19	<i>Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak</i> titulua daraman arauko datuak jaso	1995eko abenduaren 29an onarturik, 51. arau legez ere argitara eman zen izen lerrokada txiki hau, kontinente eta haien azpikontinente batzuen izenak dakartzana. Guztira 18 leku gehitu ziren <i>Exotoponimia</i> datu-basera eta beste horrenbeste era.
2005/12/19	<i>Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)</i> titulua duen arauko datuak jaso	1995eko abenduaren 29an onarturik, 52. arau legez ere eman zen argitara izen lerrokada hau, munduko mendikate, ibai eta itsaso garrantzitsuenen izenak finkatzen zituena. Guztira 41 leku gehitu ziren <i>Exotoponimia</i> datu-basera eta beste horrenbeste era.
2005/12/19	<i>Ibaiak</i> izeneko arauko datuak jaso	1996ko maiatzaren 31n onarturik, 59. arau legez ere eman zen argitara izen lerrokada hau, munduko ibai garrantzitsuenen izenak biltzen zituena. Guztira 74 leku berri ( <i>Exotoponimia</i> ) eta 88 era gehitu ziren datu-basera.

.../...



.../...

<b>Data</b>	<b>Zeregina</b>	<b>Emaitza</b>
2005/12/19	<i>Aintzirak</i> izeneko arauan datozen toponimoak jaso	1996ko maiatzaren 31n onarturik, 60. arau legez ere eman zen argitara izen lerrokada hau, munduko aintzira garrantzitsuenen izenak biltzen zituena. Guztira 34 leku berri gehitu ziren <i>Exotoponimia</i> datu-basera, berauekin loturiko 35 era ere bai.
2005/12/20	<i>Uharteak</i> izeneko arauan datozen leku izenak eta informazioa jaso	1997ko martxoaren 21ean eta apirilaren 25ean onarturik, 70. arau legez ere eman zen argitara exotoponimoen zerrenda hau, mundu zabaleko uharte nagusiak biltzen dituena. Guztira 177 leku berri <i>Exotoponimia</i> datu-basean eta erlazioaturiko 180 era.
2005/12/20	<i>Euskal deituren izendegia</i> laneko erregistroak, baita ondoren onarturiko beste batzuk, datu-basean jaso	1998an argitaratu ziren Mikel Gorrotxategik paraturiko euskal deituren zerrendak, Euskal Herriko errolda zerbitzuetan jendeak bere deiturei euskal idazkera propioa emateko aukera izan zezan. Argitalpenean Madrilgo Justizia Ministerioak eta Gasteizko Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak hartu zuten parte, grafia aldaketa hauei legezko bermea emanik. Guztira 9479 erregistro gehitu dira <i>Deiturak</i> izeneko taulari eta berauekin erlazioaturik, 10800 era. Gehienak liburuan agertzen diren arren, Euskaltzaindiaren Web orriko EODA izendegietan eskaintzen ziren datu berri asko ere gehitu dira.
2005/12/30	<i>Euskal izendegia (Ponte izendegia)</i> izeneko liburuan datorren informazioa datu-basera jaso	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak 2001ean argitaraturik eta Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko kide diren Mikel Gorrotxategik eta Patxi Salaberrik prestatuturiko izendegi honetako informazioa gehitu zaio datu-baseari. Hiztegi moduan azalpen eta guzti agertzen diren izenak nahiz liburuaren amaieran datozen aurkibideetakoak agertzen dira eren artean, beren baliokide frantses edota gaztelaniazkoarekin batera. Guztira 2440 ponte-izen eta 3885 era gehitu dira
2006/01/03	<i>Santutegiko izen ohikoenak</i> izeneko arauko datuak jaso	1997an 66. arauan argitara ateratako <i>Santutegiko izen ohikoenak</i> jaso, eta datu-basera gehitu, ponte-izenen arauzko era dokumental gisara, behar zelararik, izen-erregistro berria sortuz. Guztira 31 izen berri eta 309 era, denak behar bezala erlazioaturik.
2006/01/03	<i>Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak</i> izena duen arauko datuak jaso	1998an argitara ateratako 82. araua, <i>Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak</i> izenburua daramana, datu-basera gehitu. Guztira 253 era dokumental gehitu dira <i>Erak</i> izeneko taulara, eta 237 erregistro berri <i>Izenak</i> taulara.
2006/01/04	<i>San, santu, done eta besteren erabilera</i> izeneko arauko datu onomastikoak jaso	2003an argitaratu zen 125. arauak, <i>San, santu, done eta besteren erabilera</i> finkatzen zuen euskara jasorako. Adibide nahiz zerrenda osatu bezala aipatzen ziren santu izen guztiak gainerratu dira datu-basera, dagozkien erregistroekin loturak ezarritz. Guztira 71 era eta izen berri bakar bat.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaiza		
2006/01/04	<i>Aita Santuen izenak</i> arauko datuak jaso	2003an argitaratu zen 129. arauak, <i>Aita Santuen izenak</i> ematen zituen euskara jasoan erabiltzeko. Zerrenda horretan agertzen diren izen guztiak gehitu dira datu-basera, erregistroen arteko lotura guztiak ezarri. Guztira 31 izen berri eta 80 era.		
2006/01/11	<i>Latin eta greziar pertsona izen klasikoak</i> izeneko arauak dakartzan datuak jaso	1997an argitaratu zen 76. arauak, <i>Latin eta greziar pertsona izen klasikoak</i> euskaraz nola eman behar ote diren finkatu zuen. Arau horretako izen guztiak gehitu dira datu-basera, erregistroen arteko lotura guztiak ezarri. Guztira 370 izen berri eta 391 era.		
	<b>Azkeneko emaitzak:</b>	<b>Izaera</b>	<b>Urte hasiera</b>	<b>Urte amaiera</b>
		<b>Lekuak</b>	<b>100646</b>	<b>103117</b>
		<b>Exolekuak</b>	<b>0</b>	<b>1073</b>
		<b>Izenak</b>	<b>0</b>	<b>3118</b>
		<b>Deiturak</b>	<b>0</b>	<b>9479</b>
		<b>Iturriak</b>	<b>585</b>	<b>663</b>
		<b>Era dokumentalak</b>	<b>235770</b>	<b>268561</b>
		<b>Informatzaileak</b>	<b>2</b>	<b>900</b>
		<b>Ahozko lekukotzak</b>	<b>91397</b>	<b>91397</b>

## 2.2. 2006tik aitzinekoak

### 2.2.1. 2006ko ekitaldia (urte osoa)

Data	Zeregina	Emaiza
2006/01/23	* 1916an Errege Dekretuz aldatu-riko udalerrien lekukotzak jaso	1916ko Boletineko eranskinean jasotzen diren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako udalerrien aldaketak jaso eta udal nahiz herri izenkodeekiko loturak ezarri. Guztira 35 lekurekin lotutako 19 era berri
2006/01/30	Datu iturrien datu-basearen egitura egokitu eta datuz hornitu	2005. ekitaldian zehar jasotako bibliografia eta iturri berrien zerrendak datu-basera gaineratu, besteak beste, toponimia datuen erauzketa maila adieraziz eta edozein unetan zerrendak papereratzeko tresna egokiak sortuz. Modu honetan, aurrerantzean toponimiarako interesgarria izan daitekeen iturrien zerrenda ireki hau datu-basean bertan kudeatu ahalgo da. Guztira 727 iturri berri gaineratu dira <i>Iturriak</i> taulara
2006/02/03	Herrietako euskarazko oharrak gehitu, falta zaienean	Aurreko ekitaldian identifikatu genituen Nafarroako 104 herrietako fitxetan, oharren (geografia, historia, hizkuntza...) euskarazko bertsioa falta zela eta liburukietatik aterata, <i>Lekuak</i> taulako dagokien esparruan jarri dira.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaitza
2006/02/16	NA.TM bildumako lehenengo bost liburukien datuak birpasatu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako lehenengo bost liburukien erregistro eta datu guztiak birpasatu egin dira, loturak ondo ezarrita daudela ziurtatu eta ezer falta ez dela konprobatu. Liburuki hauei (I-V) egiten zaizkien erreferentzia guztietan orrialdea ere gehitu da.
2006/02/22	* «Origen y significado de la toponimia en Navarra» artikuluko oharak jaso	Patxi Salaberri Zaratiegik idatzitako «Origen y significado de la toponimia en Navarra [in RAMÍREZ SÁDABA, José Luis (koord.) <i>La onomástica en Navarra y su relación con la de España; actas de las primeras jornadas de onomástica (Pamplona, 2003)</i> , Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruña, 2005, 91-127 orr.] ponentzia aberatsean jasotzen diren Nafarroako toponimia nagusiari buruzko ohar etimologikoak jaso eta dagozkien fitxetako <i>Etimologia</i> esparruan gaineratu. Guztira 907 leku fitxetako informazioa aberatu da honela, betiere oharraren erreferentzia zehatza emanik.
2006/03/02	NA.TM bildumako toponimo historikoak datu- basera gehitu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako zenbait liburukitan, leku-izenen aurkibidearen aurretik eta eranskin moduan, aztertu diren herrietan dokumentaturiko toponimo dokumentalen zerrenda dator. Lekukotza dokumental horiek bildu, homogeneizatu eta datu-baseko <i>Erak</i> taulara isuri dira, zeukaten informazio guztia gordez, etorkizunean jadanik jasota dauden lekuekin erlazioa ezarri ahal izateko. Guztira 71112 era ziren, baina haietarik 8446 bazeuden aipaturik leku-fitxetan ageri den dokumentazioan eta, informazio bikoizketak saiheste aldera, hauek ez dira berriz gehitu. Ondorioz, <i>Erak</i> taulan 62666 era dokumental berri jaso dira, oraindik lekuekin lotu gabe daudelarik.
2006/03/04	* Era «zurtzak» lekuekin lotzeko tresna sortu	Toponimo dokumental historiko ugariak gaineratu ondoren, eta aurrerantzean datu- basean honelako datu dokumental huts gehiago gehituko direnez, <i>Erak</i> taulan bai baina <i>Lekuak</i> taulako erregistroekin loturarik gabeko eren kopurua izugarri handituko da. Modu honetan, <i>Erak</i> taula, egiazko fondo dokumental bilakatzeko ari da dagoeneko, baina aldi berean, datuok zein leku zehatzi egiten diren erreferentzia ez dute beti behar bezalako detailez aditzera ematen. Horrek lekuak eta eren arteko erlazioak ezartzeko bigarren lan bat ekarriko du etorkizunean. Oraindik horretan aritzeko aurreikuspenik ez daukagun arren, lotura horiek ezartzeko formulario berezi bat gauzatu dugu.
2006/03/30	Luis Eleizalderen <i>Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas</i> lanak biltzen dituen izenak jaso	Luis Eleizalde Brenosak bultzaturik 1922an plazaratzen hasi ziren <i>Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas</i> izeneko lanak zenbait aldizkaritan ikusi zuen argia: <i>RIEV</i> (1922-1934), <i>BR SBAP</i> (1963-1964) eta <i>Euskal Eснаlea</i> (1930 gehigarri batzuk). Bilduma oso hori bildu eta jaso da, datu bakoitzaren jatorriaren erreferentzia

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaita
		zehatza emanez, eta izendatzen duen lekua non dagoen eta zer den ere adierazita. Guztira 22079 era dira. Euskal Herri osoko leku izenak direnez, hasierako asmoa aparteko taula batean gordetzea zen, baina Nafarroako datuak oso ugariak dira eta <i>Erak</i> taulan integratzea hobetsi da, aurrerantzean jadanik datu-basean ditugun lekuekin lotzeko aukera zabalduz. Iturriaren informazio eskasagatik, 144 leku geratu dira kokatu gabe eta 38 zer diren zehaztu gabe (25ek dute gabezia biak).
2006/03/30	Agirre Gandariatsen <i>Las dos primeras crónicas de Vizcaya</i> liburuko datu onomastikoak taula bihurtu eta migrazioarako prestatu	Sabino Agirre Gandariatsesk argitara ateratako Bizkaiko lehenbiziko bi kronikak jasotzen ditu lan honek. Ustez Lope García de Salazarrek idatzirik, <i>Crónica de Vizcaya</i> (1454) eta <i>Anales breves de Vizcaya</i> (1452) izenez ezagutzen dira eta Agirrek, transkripzio bakoitzaren ondoren, aurkibide onomastikoak paratu ditu. Datu onomastiko hauek antroponimo eta leku-izenen artean bereizturik jaso badira ere, lehenengoen sarritan toponimo batez lagundurik joaten dira. Honen guztiaren ondoren, paratzaileak eranskin dokumental interesgarri bat gehitu du, 1281 eta 1502 urte bitarteko agiriak dakartzana eta aurkibiderik gabekoa. Hurrenez hurren 1784, 1497 eta 829 era dokumental prestatu dira (guztira 4110) migrazioarako, baina aparteko taula batean utzi dira, izen gehienek oraindik datu-basean ez dauden Bizkaiko lekuei dagozkielako.
2006/04/14	<i>Bienandanzas e fortunas</i> liburua- ren datu dokumentalak taula egoki batean jaso eta migrazioarako pres- tatu	Lope García de Salazarrek XVI. mendean idatzitako <i>Bienandanzas e fortunas</i> kronika eskergaren IV. liburukian Bizkaiko historiaren berri ematen da eta liburu horretan datozen pertsona eta leku izenak jaso dira egitura egokia duen taula batera. Migrazioarako, Ángel González Herreroek transkribaturik, Bizkaiko Aldundiak 1967an eginiko argitalpena erabili da, baina ez beronen aurkibidea, akats ugari dituela uste dugulako. Izen hauetarik gehienek Bizkaiko lekuei egiten diete erreferentzia eta, horregatik, <i>Erak</i> taulara isuri ordez, aparteko taula batean gorde dira, Bizkaiko leku haiek <i>Lekuak</i> taulan ditugunean migratu eta bakoitza dagokionarekin erlazioatuko direlako esperantzatan. Guztira 6381 era dokumental.
2006/04/25	Luis Maria Mujika Urdangarinen <i>Latina eta erromanikoaren eragina euskaran</i> liburuan ageri diren datu onomastiko guztiak taula egoki batean jaso eta migrazio- rako prestatu	1982an Luis Maria Mujika Urdangarinek argitaraturiko <i>Latina eta erromanikoaren eragina euskaran</i> doktorego tesian, adibide gisan ageri diren datu onomastiko guztiak jaso dira eta behar bezala erreferentziaturik, <i>Erak</i> bezalako egitura duen taula batera pasatu dira, Euskal Herri osoko lekuen datu-basea osatukoan migrazioa erraz burutu ahal izateko. Datu-base honen interesa, lekukotza dokumental gisara ez, baina izenen etimologia eta eboluzioa ikertzeko izan daiteke baliagarria.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2006/04/28	* Era dokumental errepikatuak ezabatzea eta erregistroen arteko erlazio guztiak eguneratu	Era dokumental bakar bat leku bat baino gehiagorekin erlazioan jar zitekeenean, zenbaitetan, lekukotza hari zegokion informazio osoa errepikaturik gorde izan da datu-basean, era haietarik bakoitza leku bakar banarekin erlazonaturik egon zedin. Eginbide horren ondorioz, <i>Erak</i> taulan 22073 era dokumental errepikaturik identifikatu ahal izan ditugu. Datu-basearen taula-anitzeko egitura horretarako pentsaturik dagoenez, era errepikatu horiek ezabatu egin dira, datu desberdin bakoitzeko erregistro bakar bat utzirik, bakoitzari dagozkion leku guztiekiko erlazioa mantenduz, ordea. Modu honetan, lehen bistaratzen zen informazio berbera agertzen da orain, erregistro kopurua nabarmen jaitsi den arren. Honi esker, datu-basearen txukunketa eta eguneraketa lanak erraztu eta kontsulten abiadura hobetu egin da. Guztira 22073 era gutxiago daude <i>Erak</i> taulan.
2006/05/12	<i>Nafarroako herri izendegia</i> izeneko lanean ageri diren ahozko lekukotza guztiak jaso eta dagozkien lekuekin erlazionatu	1990ean Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak argitaraturiko <i>Nafarroako herri izendegia</i> lanean, herrialde horretako toponimia nagusiaren ikerketarako egindako ahozko bilketaren emaitzak jasotzen dira besteak beste. Lekukotza horiek eta beren erlazio guztiak migratu dira datu-basera eta dagoeneko dagozkien lekuen fitxetan daude kontsultagai. Migrazioa egitean, azentuazioari eman zaio garrantzi berezia eta <i>Testuingurua</i> izeneko esparruan, deklinaturiko formen informazio guztia jaso da ere. Guztira 1687 era berri gehitu dira <i>LekuAhozkoak</i> taulara eta 38 informatzaile berri <i>LekuLekukoak</i> taulara.
2006/06/02	<i>Nafarroako herri izendegia</i> izeneko lanean ageri diren lekukotza dokumental guztiei jatorrizko erreferentzia jarri	Aipaturiko lan horretan ageri diren lekukotza dokumentalak <i>NHI</i> erreferentzia huts sekundarioarekin jaso ziren <i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bilduman eta hala zeuden gure datu-basean. Era dokumental horien erreferentzia guztiak banan-banan konprobatu eta dagokien iturri eta erreferentzia jatorrizkoa jarri zaie, zeudenak zuzenduz eta falta zirenak behar bezala gaineratuz. Hasiarian <i>NHI</i> tik jasotako 5091 era baldin bazeuden, orain 7599 daude eta hartuak izan diren iturriaren zehaztasuna daramate guztiek, betiere <i>Nafarroako Herri Izendegian</i> jaso zen prezisio maila berarekin. Honez gainera, lan honen 225-245 orrialdeetan agertzen den izen normalizatuen zerrenda (Euskaltzaindiaren 1990eko proposamenak) ere gaineratu da datu-basera, 1025 erregistro alegia, kasu honetan iturri bezala liburu hau berau agertzen delarik.
2006/06/13	Julio Caro Barojaren <i>Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina</i> lanean ageri den corpus onomastikoaren migrazioa	1945ean Julio Caro Barojak argitaratu zuen eta euskal hizkuntzaren historiaren ikaskuntzan iraultzailea izan zen <i>Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina</i> lanak, informazio ugaria du epigrafiaz, pertsona-izenez, toponimiaz eta horien guztien balizko etimologiaz. Datu korpusari gure <i>Erak</i> taularen egitura eman zaio eta aparteko taula batean gorde da, kontsulta bereziak egiteko tresna ere sortuz. Guztira 1896 erregistro berri jaso dira.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2006/06/22	NA.TM bildumako VI, VII, VIII, IX eta X. liburukien datuak birpasatu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako beste bost liburukiren erregistro eta datu guztiak birpasatu egin dira, loturak ondo ezarrita daudela ziurtatu eta ezer falta ez dela konprobatu. Liburuki hauei (VI-X) egiten zaizkien erreferentzia guztietan orrialdea ere gehitu da. Honenbestez, konprobatuta daude jadanik bildumako lehenengo hamar liburukiak.
2006/07/03	* Frai Joan Zumarragak 1537an Mexikotik idatzitako euskarazko gutuneko datu onomastikoak erazi eta migratu	Frai Joan Zumarraga durangarrak, 1537an, Mexikoko apezpikua zela, idatzitako euskarazko gutunean ageri diren datu onomastiko guztiak erazi eta <i>Erak</i> taulara migratu dira, dagozkien lekuekin, exonimoekin nahiz ponte-izenekin dituzten erlazioak ezarriz. Guztira 8 erregistro berri <i>Erak</i> taulan.
2006/07/05	Pablo Pedro Astarloaren <i>Apología de la lengua bascongada</i> laneko datu onomastikoak jaso	Pablo Pedro Astarloak 1803an argitaraturiko <i>Apología de la lengua bascongada</i> lanean ageri diren datu onomastikoak jaso eta egitura egokian gorde dira datu-basean. <i>Erak</i> taulara noiz isuriko diren zain. Gehienak etimologia bitxiak dira, baina datu-base interesgarria izan daiteke, besteak beste, toponimia ikerketen historiaren memoriarako. Guztira 418 erregistro.
2006/07/14	Resurrección María Azkueren <i>Morfología Vasca</i> lan deskriptiboan datu onomastikoez egindako aipamen guztiak jaso	Resurrección María Azkue Aberasturik 1923-1925ean argitara emandako <i>Morfología Vasca, gramática básica dialectal del euskera</i> lanean, onomastikaren gaineko ohar eta aipamen asko egiten dira. Datu horiek guztiak jaso eta taula egoki baten egituran gorde dira, noizbait <i>Erak</i> taulara isuri eta ECOren erregistro nagusiekin (lekuak, deiturak...) erlazioan jartzeko zain. <i>La Gran Enciclopedia Vasca</i> 1969an ateratako edizioa erabili da eta III. liburukian Azkuek berak eginiko <i>Verbo guipuzcoano</i> eranskina ere erazi da. Honez gainera, <i>Euskera</i> agerkarian argitara emandako beste bi eranskin ere aztertu eta erazi dira, <i>La épéntesis en la conjugación vasca</i> [ <i>Euskera</i> , VIII (1927, 1-2), 70-90] eta <i>El artículo y la épéntesis en la toponimia (Segundo apéndice de la Morfología Vasca)</i> [ <i>Euskera</i> , IX (1928, 3), 212-217; (1928, 4), 307-310]. Guztira <i>Morfología vasca</i> lanean 711 erregistro bildu dira, gipuzkoar aditzari dagokion eranskinean 38, lehen eranskinean 18 eta bigarrenean 300.
2006/07/20	Seber Altubek Azkueren <i>Morfología Vasca</i> lanari eginiko oharretako datu onomastikoak jaso	Azkueren <i>Morfología Vasca</i> argitara ateratzean, <i>La Gran Enciclopedia Vasca</i> III. liburukiaren amaieran Seber Altube Lertxundi euskaltzainak 1934an lan hari eginiko oharrek ere eman zituen argitara. <i>Observaciones al Tratado de morfología vasca de don R.M. de Azkue</i> izenburua darama eta bertan ageri diren datu onomastikoak ere jaso dira ECO datu-basean Azkueren datuekin batera. Guztira 57 erregistro baino ez dira.
2006/09/21	NA.TM bildumako XI, XII, XIII, XIV eta XV. liburukien datuak birpasatu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako beste bost liburukiren erregistro eta datu guztiak birpasatu egin dira, loturak ondo ezarrita daudela ziurtatu eta ezer falta ez dela konprobatu. Liburuki hauei (X-XV) egiten zaizkien erreferentzia guztietan orrialdea ere gehitu da. Honenbestez, konprobatuta daude jadanik bildumako lehenengo hamabost liburukiak.

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2006/09/28	Fitxa errepikatua duten lekuen kudeaketarako tresna eta metodologia	<p><i>NA.TM</i> bilduman azterturiko barruti batean baino gehiagotan (udalerrriak, kontzejuak, elkarrekikoak...) dauden «lekuak», hainbestetan agertzen dira fitxaturik, barruti bakoitzeko behin, alegia. Bereziki gertatzen da hau izaera lineala duten objektu geografikoen (ibaia, errepideak, trenbideak...), izaera hedatua dutenekin (basoak, larreak, aurkintzak...) eta mugetan ohi daudenekin (mendiak...). Era berean, bildumako liburukietan maiz gertatzen da leku baten izeneko fitxan, beste izen bat ere baduela aditzera ematea (llamado también...; más conocido como...), eta izen honek ere bere fitxa izatea. Hau da, leku bakarrik bi izen eta bi fitxa izatea.</p> <p>Gure azken helburua, leku bakoitzak fitxa bakarrean agertzea da, aldi berean barruti horietan guztietan eta errotulaturik agertzen den mapa guztietan dagoela aditzera ematen duena, noski, eta aldi berean, lekuak dituen izen desberdinen berri agertzen duena. Era berean, fitxa desberdinetan barreiatuak dagoen informazio guztia (oharrak, etimologiak...) bakar horretan bildu behar da, ezer gal ez dadin.</p> <p>Gutxi gorabeherako kalkulu batzuk egin ditugu fitxa errepikapen hauek zer-nolako heinera heltzen diren jakiteko. Izen antzekotasun hutsen oinarrituriko balizko errepikapenak 31300 inguru izan daitezkeela ikusi dugu. Hala ere, lagin bat banan-banan azterturik, egiazko errepikapenen kopurua 25%era hurbiltzen dela ikusi dugu eta, hortaz, 7800 bat errepikapen daukagula aurreikus daiteke. Bikoizketa hauen kudeaketa ezin da inola ere masiboki egin, informazioa galtzeko edo nahasteko arrisku handia legokeelako.</p> <p>Horrenbestez, bi ekinbide jarri ditugu martxan. Lehenik, liburukien dokumentazioaren birpasa zehatza egitearekin batera, errepikapen hauen ezabaketa arretatsua egitea. Birpasa egitean, liburuki bakoitzeko barrutietan (udal nahiz kontzejuetan) errepikatzen diren fitxak oso erraz identifikatzen dira eta fitxa horiek elkartu egin ditugu formulario eta makro batzuen laguntzaz, nahiko modu manulean, hala ere, zeren maiz egiaztabide kartografikora jo behar baita leku berbera ote den jakiteko. Hiruhileko honetan aztertu ditugun XI-XV liburukiez gainera, orain arte egindako guztietan ere bilatu eta desegin dira errepikapen hauek (I-X). Hortaz, aurrerantzean liburukien birpasa patxadatsuagoa izango da, baina etekin handiagoa ere aterako zaio.</p> <p>Bigarrenik, izaera linealeko zenbait objekturen saneatze hau aparte egitea hobetsi dugu, zehazki, trenbideak, errepideak eta ibaia. Lagin moduan, trenbideak sailkatzen zizutzen 95 fitxen azterketari ekin genion eta, elkartzeko lanak egin ondoren, 13 bakarrik gelditu dira, trenbide zaharrak barne (Bidasoia, Irati, Plazaola, Lizarra-Gasteiz, Castejón-Soria, Tutera-Tarazona...), hori bai, informaziorik galdu gabe. Errepideak 1249 fitxetan daude bildurik eta lan mardulagoa ekarriko dute. Ibaiei dagozkien fitxak 5878 dira eta banan-banan begiratzeak denbora luzea ekarriko duela jakin arren, ezinbestez ekin beharko zaio noiz edo noiz.</p>

.../...

.../...

Data	Zeregina	Emaizta
2006/10/10	Andres Iñigo Ariztegiaren <i>Toponómastica histórica del Valle de Santesteban de Lerín</i> laneko datu guztiak jaso	Andres Iñigo Ariztegiaren doktorego tesia izan zen <i>Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín</i> lanak, 1996. urtean plazaratu zen Nafarroako Gobernuak argitaraturik. Lan horretan Malerrekako Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubieta herrietako toponimia aztertzen da sakonki, etxean izenetan arreta berezia jarri eta aparteko kapituluetan azterturik. Lan mardul honetan ageri diren datu guzti-guztiak jaso dira datu-basera, hala leku berriak zirenak, nola jadanik fitxa zeukatenak. Egilearen arautze proposamenak ez ezik, agertzen diren lekukotza dokumental eta ahozko guztiak ere gaineratu dira, baita hizkuntza nahiz historia edo geografia oharrak ere, kasu guztietan datuen jatorria gordez. Guztiara 1829 erregistro berri gehitu dira <i>Lekuak</i> taulara, 2711 ahozko lekukotza ( <i>LekuAhozkoak</i> ), 12734 lekukotza dokumental ( <i>Erak</i> ) eta 58 datu-iturri berri ( <i>Iturriak</i> ). Dagozkien lotura guztiak ere ezarri dira eta, beraz, aipatu lau herri horietako toponimia datu-basea izugarri aberastu da, dagozkien leku-fitxetan dagoeneko informazio guztia ageriz.
2006/10/26	Arautze irizpideak gordetzeko taulak sortu eta argitara atera direnak gaineratu	Izen propioen arauzko erak erabakitzeo irizpideak etengabeko eginbidean daude. Hala ere, gaur egun toponimia ikerketak egitean, seinaleztapenak iradokitzean, ponte-izenen nahiz deituren euskal erak erabakitzean eta abar, irizpide batzuk erabiltzen ditu Onomastika batzordeak. Jatorriz, lan zehatz batzuen aitakiapen argitara emandako irizpideak dira, baina balio orokorraz daude indarrean. Toponimia nagusia arautzeko irizpideak Patxi Salaberri Zaratiegik garatu zituen <i>Nafarroako herri izendegia</i> atontzearekin batera eta Onomastika batzordeak onetsi zituen («Nafarroako toponimia nagusiaren normalizaziorako irizpideak», <i>Euskera</i> , XLII (1997, 3), 653-666). Toponimia txikiari dagozkion irizpideak, Mikel Gorrotxategi Nietok eta Patxi Salaberri Zaratiegik atondu zituzten, halaber, <i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> lanean zehar egindako hausnarketen emaitza gisara («Toponimia txikia arautzeko irizpideak», <i>Euskera</i> , XLV, (2000, 1), 273-314). Donostiako udalak eskaturik, kale izendegiak euskaraz ongi arautzeko irizpideak ere atondu zituzten bi batzordekide hauek eta, Onomastika batzordeak onetsirik, Akademiaren agerkarian argitaratu ziren («Hiri-izendegia, irizpideak eta erabiltzeko arauak (Donostia/San Sebastián)», <i>Euskera</i> , XLIV, (1999, 1), 583-588). Ponte-izenen gaineko azken irizpideak, berriz ere bi batzordekide hauek paratutako <i>Euskal izendegia</i> . <i>Ponte izendegia</i> laneko atarikoan adierazita daude modu xumean (Euskaltzaindia & Justizia, Lan eta Gizarte gaietako Saila, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2001). Era berean, Mikel Gorrotxategi Nietok paratutako <i>Euskal deituren izendegiaren</i> atarikoan (Justizia Ministerioa & Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila & Euskaltzaindia, Madril, 1998), euskarazko zerrendak atontzeko erabili ziren irizpideak azaltzen dira laburzki. Irizpide horiek guztiak jaso dira atalka horretarako propio sorturiko taula berri batean (Irizpideak) eta jadanik jatorrizko dokumentuetan ageri diren bezala ikus daitezke datu-basean. Guztiara 390 irizpide izen horretako taulan.

.../...



.../...

Data	Zeregina	Emaitza																														
2006/10/31	Sabino Aranaren <i>Deun ixendegi euzkotarra</i> zerrendetako pertsona izenak jaso	Sabino Arana Goirik 1897an egin eta Luis Eleizalde 1910ean argitaraturiko <i>Deun-ixendegi euzkotarra</i> (Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren Euzkera'ren Bizkai-Batzar Ordia, Bilbo, 1910) lanean datozen santuen izenen euskal ordainak jaso dira. Erdara-euskara hurrenkera duten zerrendak aukeratu dira, lanaren asmoa gaztelaniazko izendegia euskaratzea izan baitzen, itzulpenean gizonetako eta emakumezkoentzako ordaina ematen dela. Guztira 957 erregistro berri gaineratu dira <i>Erak</i> taulan. Izenekiko loturak egin gabe utzi dira, lotura hauek ezarri aurretik, batzordeak onarturiko Euskal ponte-izendegian baliokiderik ote daukaten –eta berau zein ote den– aztertu behar baita.																														
2006/11/14	<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> osatzeko korpuseko datu onomastikoak jaso	Luis Mitxelenak diseinatu eta haren ondoren Ibon Sarasola euskaltzainaren zuzendaritzapean gauzaturiko <i>Orotariko Euskal Hiztegiak</i> , datu iturri gisa erabili zuen korpusetik datu onomastikoak erazi eta gure <i>Euskal Corpus Onomastikoan</i> integratu dira. Erregistro bakoitzean aipatzen den izen berezia ez ezik, berau agertzen den testuingurua ere gaineratu da datu-basera, hala leku izenak, nola deiturak, ponte izenak, goitizenak, exonimoak eta abar, euskal idazleek erabili dituzten bezala. Bilaketak errazte aldera, datu-base horretako grafiak eguneratuak izan ziren eta halaxe jaso ditugu, onomastika ikerketetarako jatorrizkoak gordetzea interesgarria izango litzatekeen arren. Akatsak akats, oso korpus handia eta interesgarria izango delakoan gaude, guztira 162324 erregistro gehitu baitira <i>Erak</i> taulara eta 301 datu-iturri berri, batez ere, izaera literarioko lanak. Hala ere, jakinarazi behar da idazlan hauek ez direla <i>OEH</i> ko bibliografian aipaturik ageri diren guztiak, honen ondoren «Relación de textos despojados exhaustivamente» izeneko atalean ageri direnak baizik (XV. lib., XLI. orr.).																														
2006/12/28	<i>NA.TM</i> bildumako XVI, XVII, XVIII, XIX eta XX. liburukien datuak birpasatu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako beste bost liburukiren erregistro eta datu guztiak birpasatu egin dira, loturak ondo ezarrita daudela ziurtatu eta ezer falta ez dela konprobaturik. Liburuki hauei (XVI-XX) egiten zaizkien erreferentzia guztietan orrialdea ere gehitu da. Honenbestez, konprobatuta daude jadanik bildumako lehenengo hogeitun liburukiak.																														
	Azkeneko emaitzak:	<table border="1"> <thead> <tr> <th>Izaera</th> <th>Urte hasiera</th> <th>Data honetan</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Lekuak</td> <td>103117</td> <td>103912</td> </tr> <tr> <td>Exolekuak</td> <td>1073</td> <td>1073</td> </tr> <tr> <td>Izenak</td> <td>3118</td> <td>3118</td> </tr> <tr> <td>Deiturak</td> <td>9479</td> <td>9479</td> </tr> <tr> <td>Iturriak</td> <td>663</td> <td>1828</td> </tr> <tr> <td>Irizpideak</td> <td>0</td> <td>390</td> </tr> <tr> <td>Era dokumentalak</td> <td>268561</td> <td>(14310 +) 510970</td> </tr> <tr> <td>Informatzaileak</td> <td>900</td> <td>967</td> </tr> <tr> <td>Ahozko lekukotzak</td> <td>91397</td> <td>95847</td> </tr> </tbody> </table>	Izaera	Urte hasiera	Data honetan	Lekuak	103117	103912	Exolekuak	1073	1073	Izenak	3118	3118	Deiturak	9479	9479	Iturriak	663	1828	Irizpideak	0	390	Era dokumentalak	268561	(14310 +) 510970	Informatzaileak	900	967	Ahozko lekukotzak	91397	95847
Izaera	Urte hasiera	Data honetan																														
Lekuak	103117	103912																														
Exolekuak	1073	1073																														
Izenak	3118	3118																														
Deiturak	9479	9479																														
Iturriak	663	1828																														
Irizpideak	0	390																														
Era dokumentalak	268561	(14310 +) 510970																														
Informatzaileak	900	967																														
Ahozko lekukotzak	91397	95847																														

## 2.2.2. 2007ko ekitaldia (urtarril-martxoa)

Data	Zeregina	Emaitza
2007/02/08	Euskaltzaindiak onarturiko Bizkaiko eta Arabako izendegiak (145 eta 150. arauak) datu-basera gehitu	Onomastika batzordeak 2006an aztertu eta Euskaltzaindiaren batzarrak onartutako azkeneko udal izendegietako datuak jaso dira datu-basera, alegia, Araba (150. araua) eta Bizkaia (145. araua). Gaineratutako datu guztiak, dagokien fitxarekin loturik agertzeko moduan integratu dira eta arauetan ageri den eskualde antolaketa berari egokitu zaio <i>LekuNon</i> taula, bilaketak ere eskualde horien arabera egitea ahalbidetzeko. Guztira Bizkaiko 123 erregistro eta Arabako 61 izan dira.
2007/02/12	Euskaltzaindiak onarturiko Antzinateko eskualde eta hirien izendegiak (142 eta 147. arauak) datu-basera gehitu. Halaber Euskal Herri inguruko exonimoen izendegia (149. araua)	Exonomastika azpibatzaileak proposatu eta euskaltzain osoen batzarrak onarturiko izendegi batzuek arau maila dute eta informazio hori ECO datu-basera gehitu da. <i>Eusker</i> a agerkarian emandako zerrendak datu dokumental moduan gehitu dira <i>Erak</i> taulan eta behar izan denean –kasurik gehienetan, egia esan–, Euskal Herriaz kanpoko lekuak jasotzen dituen <i>ExoLekuak</i> taulako leku erregistro berriak ere sortu behar izan dira. 142. arauko antzinateko eskualdeak 101 erregistro izan dira, 147.eko hiriak 162 eta 149.eko Euskal Herri inguruko exonimoak 83. Denak ageri dira fitxetan, arauetan emandako informazio guztia (herri-tar izena, izen klasikoa, aldaerak eta abar) dagokion esparruan dutela eta era dokumentalekiko lotura behar bezala ezaririk.
2007/02/26	Nafarroako errepide sare ofizialeko datu eguneratuak datu-basekoekin alderatu eta zuzenketak eginik, fitxa errepikatuen informazioa bateratu	Duten izaera linealagatik, errepide bakoitza zenbait fitxatan erregistraturik ager zitekeen datu-basean. Kode geografiko hori zuten erregistro guztiak errepasatu dira, mapetan konprobatu, errepide sare ofizialeko zerrenda (2004koa) eta maparekin (2005koa) erkatu eta, hala behar izan denean, bateratu egin da informazio guztia, daturik gal ez dadin. Eginbide honen hasieran errepide-kodea zeukatzen 1119 fitxa zeuden eta txukuntze lana amaitutakoan 458. Bistan denez, lan konplexu honen ondorioz, leku erregistro eta eren kopurua jaitsi bada ere, ez da horregatik informaziorik galdu.
2007/03/01	* Euskal Mendizale Federazioak <i>Euskal Herriko Mendien Katalogoan</i> onartzen dituen gailur ofizialen izenen azkeneko zuzenketak jaso	Onomastika batzordeak Ziurdian, 2007ko otsailaren 16an onarturiko azkeneko zuzenketak Mendien Katalogoaren argitaraldi berrian jaso dira (2007ko otsaila, <a href="http://www.emf-fvm.com">www.emf-fvm.com</a> ) eta edizio berri hori plazaratzeaz batera, ECO datu-basean ere eguneratu behar izan ditugu. Guztira 100 baino gehiago izan dira zuzenketok eta <i>Nafarroako Toponimia</i> eta <i>Mapagintza</i> bildumako datuak nahiz Deikerrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako egindako toponimia lanen ondorio izan dira batez ere. Datu hauek Euskaltzaindiak ere eskaintzen ditu bere Web orriko Euskal Onomastika Datu-basean (EODA) eta eguneratuak ager daitezkeen bide berriak urratu dira (ik. hurrengo). Zuzenketa hauek erregistroen lema nagusietan eta izen ofizialetan izan dute isla, baina ez dira jaso <i>era</i> bezala.

.../...

.../...

<b>Data</b>	<b>Zeregina</b>	<b>Emaitza</b>																																								
2007/03/01	* EODako taulak eguneratzeko aplikazio automatikoa	ECO datu-basearekin estekaturik, aplikazio berria eraiki da, Euskaltzaindiaren Web orriko Euskal Onomastika Datu-basean agertzen den informazioa era azkar batez eguneratu ahal izateko. Aplikazio horri esker, bost komando-botoi sakatze hutsarekin, zerbitzarian kargatu behar diren bi taulak sortzen dira minutu eskas batean informazio guztia eguneraturik. Taula horiek, Onomastika batzordeak Ziordian 2007ko otsailaren 16an onartu zituen diseinu-aldaketak jasotzen dituzte eta, beraz, aurrerantzean Web orriak ez ditu eskainiko <i>Erdal era</i> eta <i>Sai-hestekoa</i> izeneko esparruen edukia, nahiz eta haien bidezko bilaketa ere egiten duen. Adibidez, «Guetaria» eskatzean «Guetaria» erregistroa emango du, baina «Erdal era: Guetaria» informazioa erakutsi gabe.																																								
2007/03/29	NA.TM bildumako XXI, XXII, XXIII, XXIV eta XXV. liburukien datuak birpasatu	<i>Nafarroako Toponimia eta Mapagintza</i> bildumako beste bost liburukiren erregistro eta datu guztiak birpasatu egin dira, loturak ondo ezarrita daudela ziurtatu eta ezer falta ez dela konprobatu. Liburuki hauei (XXI-XXV) egiten zaizkien erreferentzia guztietan orrialdea ere gehitu da. Honenbestez, konprobatuta daude jadanik bildumako lehenengo hogeita bost liburukiak.																																								
2007/03/30	* EHAA, 2007ko martxoaren 22an argitaratutako EAEko udalerrien izen ofizialen zerrenda jaso	Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzak noizean behin argitara ematen duen zerrenda informatiboko datuak Euskal Herriko Agintaritzaren Agiritegian plazaratzen dira eta izen ofizialen zerrenda eguneratua izaten da. Kasu honetan 2007ko martxoaren 22ko aldizkarian (7063-7065 orr.) argitaratutako zerrenda osoa jaso da, guztira 251 erregistro berri <i>Erak</i> taulara, eta dagozkien lekuekin erlazionatu dira. Izen ofizialen edukia ere konprobatu da eguneratua ager dadin.																																								
	<b>Azkeneko emaitzak:</b>	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th><b>Izaera</b></th> <th><b>Urte hasiera</b></th> <th><b>Data honetan</b></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td></td> <td><b>Lekuak</b></td> <td><b>103912</b></td> <td><b>102639</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Exolekuak</b></td> <td><b>1073</b></td> <td><b>1408</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Izenak</b></td> <td><b>3118</b></td> <td><b>3118</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Deiturak</b></td> <td><b>9479</b></td> <td><b>9479</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Iturriak</b></td> <td><b>1828</b></td> <td><b>1836</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Irizpideak</b></td> <td><b>390</b></td> <td><b>390</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Era dokumentalak</b></td> <td>(14310 +) <b>510970</b></td> <td>(14310 +) <b>513171</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Informatzaileak</b></td> <td><b>967</b></td> <td><b>967</b></td> </tr> <tr> <td></td> <td><b>Ahozko lekukotzak</b></td> <td><b>95847</b></td> <td><b>95835</b></td> </tr> </tbody> </table>		<b>Izaera</b>	<b>Urte hasiera</b>	<b>Data honetan</b>		<b>Lekuak</b>	<b>103912</b>	<b>102639</b>		<b>Exolekuak</b>	<b>1073</b>	<b>1408</b>		<b>Izenak</b>	<b>3118</b>	<b>3118</b>		<b>Deiturak</b>	<b>9479</b>	<b>9479</b>		<b>Iturriak</b>	<b>1828</b>	<b>1836</b>		<b>Irizpideak</b>	<b>390</b>	<b>390</b>		<b>Era dokumentalak</b>	(14310 +) <b>510970</b>	(14310 +) <b>513171</b>		<b>Informatzaileak</b>	<b>967</b>	<b>967</b>		<b>Ahozko lekukotzak</b>	<b>95847</b>	<b>95835</b>
	<b>Izaera</b>	<b>Urte hasiera</b>	<b>Data honetan</b>																																							
	<b>Lekuak</b>	<b>103912</b>	<b>102639</b>																																							
	<b>Exolekuak</b>	<b>1073</b>	<b>1408</b>																																							
	<b>Izenak</b>	<b>3118</b>	<b>3118</b>																																							
	<b>Deiturak</b>	<b>9479</b>	<b>9479</b>																																							
	<b>Iturriak</b>	<b>1828</b>	<b>1836</b>																																							
	<b>Irizpideak</b>	<b>390</b>	<b>390</b>																																							
	<b>Era dokumentalak</b>	(14310 +) <b>510970</b>	(14310 +) <b>513171</b>																																							
	<b>Informatzaileak</b>	<b>967</b>	<b>967</b>																																							
	<b>Ahozko lekukotzak</b>	<b>95847</b>	<b>95835</b>																																							

\* Urteko kronograman aurreikusitako ez gain egindakoa.

## «PIRINIOAK: HIZKUNTZAK ETA LITERATURAK»

**Iruña, 2008ko irailaren 29 eta 30ean eta urriaren 1, 2, 3, 4an**

**Biltzarrerako proposamena eta egitarau-zirriborroa**

**(Etxalarren, 2007ko apirilaren 20an, asteartez,  
Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldietan)**

*Henrike Knörr,  
Iker Sailburua*

Gauza jakina da Euskal Herria hizkuntza eta kultura alor zabal batean egon dela eta dagoela txertatua, hots, Pirinioaren bi aldeekin, eguzkialdetik sartaldera. Giza aztarnak ondare guztiz aberatsa eman du mendeetan barrena. Eta auzo izanak ekarri du hainbat esparrutan kidetasuna, ikertzaileek nabarmendua.

Hemen aurkezten dugun proposamena ondare hori guztia agerrarazteko eta aztertzeko Biltzar bat egitea da, guri dagozkigun sailetan, hau da, hizkuntzetan eta literaturetan. Hizkuntzen eta literaturen lehengo eta oraingo izaera eta egoera azaltzea eta aztertzea genuke xede. Iragina ikertuko da, batetik, baina, bestetik, orain-oraina ere bai: zertan garen oro eta etorkizunari begira zer egin.

Hiru ardatz izango lituzke Biltzarrak:

1. Biltzarra bera.
2. Gure hizkuntzen erakusketa bat, mapen eta bestelako materialen birtartez.
3. Erakusketa / azoka bat, erakunde eta elkarten argitalpenak erakusteko eta saltzeko.

Biltzar akademikoa litzateke, goi-mailakoa. Kanpoan geldituko dira bihotz-berotasunak eta gerrarako deiak.

Hizlari nagusiez gain, txostenak onartuko dira, halatsu: egun bakoitzean lauzpabost hitzaldi eta hamar txosten, guzti-guztiak ongi galbahetuak.

Hitzaldi eta hizlarien zerrenda eratu beharreko batzorde zientifikoak ikusi beharko du.

## Hizlari nagusien bigarren proposamena

### A. Hizkuntzak

#### Ataria: gai orokorrak

Mario Alinei (Italia): Europa zaharreko hizkuntzak: egungo eztabaiden berri.

Michael Metzeltin (Vienako Unib.): Hizkuntzen bizirik irautea, hizkuntzen arautzea.

#### Euskara

- Joaquín Gorrochategui (akitanieraz eta)
- Joseba Lakarra (aitzineuskaraz)
- Iñaki Camino (Dialektologia)
- Pello Salaburu (Baztan eta inguruko hizkerak)
- Andres Urrutia (Zuzenbidearen ikuspuntua)
- Mikel Zalbide: Euskara batua: 40. urteurrenaren atarian.

#### Bestelako hizkuntza zaharrez

- Jürgen Untermann edo Javier Velaza (iberieraz)
- XX: (hebreerari buruz).
- Mikel Epalza: arabiera eta E. Herria.

#### Aragoiera

Xavier Tomás Arias  
Frantxo Nagore

#### Okzitaniera eta nafar-aragoiera

Ricardo Cierbide (gaskoieraren ikuspuntu historikoa)  
Rober Laborde (egungo egoera)  
Xavier Lamuela (araneraz bereziki)  
Fernando González Ollé (nafar-aragoieraz)

#### Katalana

Joan Martí i Castell? (antzinako katalanaz eta)  
Joan Veny (Dialektologiaz)  
Joan Solà (katalanaren egungo izaera eta erronkak)  
Francesc Vallverdú (Soziolinguistika)

**Gaztelania**

Angeles Libano (El castellano en Vasconia)

**B. Literaturak**

**Euskara**

Jean-Baptiste Orpustan  
Adolfo Arejita

**Aragoiera**

XX

**Okzitaniera**

Francisco J. Oroz

**Katalana**

Lola Badia  
Joan Triadú

**Gaztelania**

XX

**Frantsesa**

XX

## XVI. BILTZARRAREN ANTOLAKIZUNAZ

*Jose Luis Lizundia,  
diruzaina*

*Iker* Sailburuak aurkeztu dizue datorren urtean egiteko asmoa dugun Biltzarraren lehen egitasmoa. Alderdi akademikotik prestatu du XVI.a izan daitekeen Biltzar hau eta, bigarrena Nafarroan, herrialde horretako lehendabizikoa 1984ean Iruñean izan baitzen, gramatikari eskainia, Arturo Campionen omenez.

Antolaketaaren aldetik, hara hor, ildo nagusiak:

- Tokia: Iruñea eta, ahal delarik Nafarroako Unibertsitate Publikoa edota Baluarte. Finkatuko da.
- Data: 1908ko irailaren 29tik urriaren 4ko astean. Gogora 1968an ere, Gipuzkoako Arantzazuko Biltzar famatua data horietan izan zela, urriaren 3, 4 eta 5ean; Leioakoa, 1994.ko urriaren 3, 4, 5 eta 6an eta datorren urtean betetzen direla Euskaltzaindiaren sortze erabakiaren 90 urteak.
- Biltzarra arintzeko zenbait emanaldi antolatzeko asmoa dugu: erakusketa, kontzertu, dantza eta abar; baina oraingoz gehiago zehazteke.
- Biltzarretan ohi bezala, Nafarroan zehar txango bat antolatzeko asmoa dugu, euskararekin zerikusia izan dezakeen ibilbidearekin.
- Partaidetza akademikoa: Institut d’Estudis Catalans, Huescako Instituto de Estudios Altoaragoneses, Institut d’Estudis Occitans eta antzerako erakundeekin harremanetan sartuko gara, hots, Pirinioetako hizkuntzeekin zerikusia dutenekin.
- Babesak: aurrekontu eta, oro har, diru babesen aldetik, Nafarroako Foru Erkidegoko agintarien laguntza izango da lehendabizi kudeatu behar duguna. Hala ere, Diruzaintzaren ikuspegitik, kontuan izanik Pirinioetako hizkuntzak eta literaturak dela begiz jotako gai nagusia, Aragoiko Diputazio Generalera, Huescako Diputazio Probintzialera, Kataluniako Generalitatera, agian Andorrara eta borondatea duten neurrian, Frantses Errepublikaren Hegoaldeko hiru Eskualde Kontseiluetara.

- Antolakizun Batzordea: datorren hileroko batzarrean Euskaltzaindiaren Batzorde Organigrama berria hornitzen denerako proposatuko dugu Antolakizun Batzorde zehaztu bat. Oraingoan, ni neu, Diruzain legez; Andres Iñigo, Nafarroako Ordezkar bezala; Juanjo Zearreta, Kudeatzaile gisa eta Pello Telleria, Idazkariorde denetik. Beste norbait edo norbaitzuk sartzekotan, Nafarroako besteren batekin behintzat kontatu behar da, «in situ» lankideak izateko.
- Biltzarrek ongi eratzeko, batzorde akademiko eta antolakizunezkoaz gain, Araudi propio bat behar izaten dute: hitzaldi eta txostenen bereizketa, txostenen onarpena, eztabaidaketa prozedura, erakunde harreman eta prentsa, dieta eta gastuak, azpiegitura eta gainontzeko xehetasunak Erregelotan finkatuko dira, garaiz, Zuzendaritzaren bidez, osoko bilkura batera aurkeztuko direlarik.



# INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK ETA EUSKALTZAINDIAREN EDUKIAK

*Andoni Sagarna*

## 0. SARRERA

Euskaltzaindiaren Barne-Erregelak irakurtzen hasi orduko, haien lehen atalaren lehen artikuluan bertan, erakundearen xedeak zehazten direnekoan, edukiak sortzeaz eta gizarteratzeaz hitz egiten dela ikusiko dugu. Horrela, *gramatika-legeak azaltzea, gomendioak eta arauak ematea, hiztegi orokorrak eta bereziak argitaratzea, Hizkuntza Atlasak eta Onomastika Izendegiak argitaratzea, agiriak eta diktamenak ematea* aipatzen dira.

Beti egin du hori Akademiak, bere argitalpenen bitartez, hartarako adina baliabide izan duen neurrian, eta baita web gunearen bitartez ere azken urteotan, baina gaur egun Euskaltzaindiak eduki asko eta garrantzi handikoak ditu plazaratzeko, teknologiak ekarri dituen erraztasunei probetxua ateratzen asmatuz gero, orain duten baino askoz zabalkunde handiagoa izan lezaketenak (Ikus Eranskinean behin-behineko zerrenda).

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek azken aldian izan duten garapenak antzina egin ezin ziren gauza asko, materialki ezinezkoak zirelako edo dirutza handiak eskatzen zituztelako, bideragarri bihurtu ditu. Horrela bada, Akademiak bere-berea duen eginkizun hori inoiz baino hobeto betetzeko aukera dago eta baita premia ere, batik bat edukiak erabiltzeko eta gizarteratzeko eta corpusak sortzeko.

## 1. IKUSPEGIAK

Egoera berri horri behar den bezalako etekina ateratzeko gaia sakonki aztertzea eta erabakiak hartzea eskatzen du. Hainbat dira landu beharreko ikuspegiak, besteak beste:

### **1.1. Edukiak erabiltzea eta gizarteratzea**

1. Euskaltzaindiaren edukien inbentario zehatza egitea.
2. Edukien egitura aztertzea, h.d. paperean soilik dauden, euskarri digitaletan dauden, zer formatu duten, etab.
3. Edukien erabiltzaile-moten eta haiei eman beharreko zerbitzuen azterketa egitea. Erabiltzaile-mota bakoitzak irispidean zer eduki-mota izango dituen eta erabiltzaileak autentifikatzeko sistema nolakoa izango den zehaztea.
4. Edukiek gaur egun duten egiturari eragin beharreko eraldaketen azterketa egitea.
5. Edukiei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, eskuratu edo garatu beharreko tresna informatikoen azterketa egitea.
6. Eduki bakoitzak gizarteratzeko duen lehentasun-maila erabakitzea.
7. Edukien eta sistema informatikoen segurtasuna bermatzeko neurriak aztertzea.
8. Edukien jabegoarekin zerikusia duten arazoak aurreikustea eta haiei irtenbide juridiko egokia ematea.
9. Akademian bertan burutu beharreko lanetarako giza eta diru-baliabi-deak aurreikustea eta jartzea.
10. Akademiatik kanpora burutu beharreko lanak zein izango diren erabakitzea, haiek gauzatzeko erakunde, lankide edo enpresak aukeratzeta, kontratuak sinatzea, epeak eta kalitatea kontrolatzeko neurriak ezartzea.
11. Edukiak gizarteratzeko planaren aitzinamendua kontrolatzea eta aurreikusitako epeakiko eta kostuekiko diferentziak mugatzeko neurriak hartzea.
12. Gizarteratutako edukien erabilera egokia sustatzea.

### **1.2. Testu-corporak elikatu, egituratu, bateragarri bihurtu eta gizarteratzeko beharra**

Gaur egun hizkuntzaren ikerketa testu-corporsetan oinarritzen da, esan nahi baita testu-multzo handi egituratutan. Hizkuntzalaritzan ez ezik, hizkuntzaren prozesamendu automatikoan ere corpusak funtsezkoak dira.

Herralde askotan, hizkuntza-akademiek edo antzeko erakundeek beren xedeen artean testu-corporak antolatzea eta lantzea lehen mailakoak dituzte.

Euskaltzaindiak ere aspaldidanik dihardu testu-corpusak eratzen. Hor dau-de OEH eta *XX. mendeko corpus estatistikoa*, urtetako lan handiaren emaitzak.

Bai bata eta bai bestea tamaina eta egituratze-maila bateraino eramanak daude, baina etorkizunean zer nolako garapena izango duten zehaztearen faltan.

Bestalde, corpus horiek mugatuak dira ordezkatzan dituzten epe historiko-koen aldetik eta, denbora geratzen ez den zerbait denez, jarraipena ere eskatzen ari dira.

Badira, Akademiaren barruan nahiz kanpoan beste testu-multzo batzuk, tamaina, eduki, egituratze-maila eta xede desberdinetakoak, Euskararen Erreferentzia-Corpusarentz abiatzeko osagaiak izan daitezkeenak.

Hori guztia kontuan izanda, edukiak gizarteratzeko planaren barruan, leku berezia izan beharko lukete, alde batetik, euskarazko testu-corpusak elikatze-ko, egituratzeko, estandarizatzeko eta erabiltzaileen eskueran jartzeko lanak koordinatzeak eta bestetik Euskararen Erreferentzia-Corpusa lantzeko oinarriak jartzeak.

Bistan da euskal munduan hainbat erakunde ari direla arlo horren inguru-ruan lanean, baina oraingo ez dela beharrezkoa litzatekeen koordinaziorik eta harmonizaziorik bilatu.

Euskaltzaindiak beste edozein erakundek baino ezaugarri egokiagoak ditu eginkizun horietan aitzindari izateko: Euskal Herri osokoa da, euskarari dagozkionetan erakunde aholku-emaile ofiziala da, gizartean itzala du, hainbat erakunderekin hitzarmenak ditu eta ibilbide luzea du horrelako lanetan.

*Hortaz, proposatzen da, edukiak gizarteratzeko planaren barruan, testu-corpusak elikatu, egituratu, bateragarri bihurtu eta gizarteratzeko lanei lehentasunik handiena ematea.*

### 1.3. Plana lantzeko Egiturazko Batzorde baten beharra

Era askotakoak eta sail askori dagozkionak dira Euskaltzaindiaren edukiak. Bestalde, Edukiak Gizarteratzeko Planak ikuspegi zabala eskatzen du, sail guztien beharrak eta sailen artekoak kontuan izango dituenak.

Horregatik, aurreko puntuan deskribatu den moduko plan batek honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Sail eta eduki guztien ikuspegia izan behar du.
- Lanen jarraipen etengabeko eta hurbilekoa ezarri behar du.
- Teknologiaren aldaketa bizkorretara eten gabe moldatu beharra dauka.

Horrek esan nahi du zeharkakoa, hots, arlo eta batzorde guztiak kontuan hartzen dituen eta iraunkorra (alegia, orain arte sortu denaz, oraintxe bertan sortzen ari denaz eta gero ere, sortuko denaz arduratuko dena) izan behar duela landuko duen batzordea.

Euskaltzaindiaren Barne-Erregeletako 38. artikuluan agertzen diren Egiturazko batzordeek betetzen dituzte baldintza horiek. Hauxe dio 38. artikulua:

*Egiturazko batzordeak*

*Sailez kanpoko batzordeak egiturazkoak deitzen dira (une honetan: Argitalpenak, Azkue Biblioteka eta Lege-ekonomia Batzordea) eta Zuzendaritzari atxikiak izango dira.*

***Goian aipatutako arrazoi guztiak kontuan izanik, edukiak erabiltzeko eta gizarteratzeko zein corpusen inguruko plana lantzen hasi aurretik, horiek kudeatuko dituen Egiturazko Batzorde berri bat sortzea proposatzen da, Informazio eta Komunikazioaren teknologiak (IKT Batzordea) izenpeko batzordea, hain zuzen ere.***

Batzorde horren lan-saioetan, batzordekideez gain, gai edo eta beharren arabera, komeniko da sailetako batzordeburuek eta beste aditu eta jakintsu batzuek ere, aholkulari gisa, parte hartzea.

#### **1.4. Plana gauzatzeko diru-aurreikuspenak**

2007. urterako prestatu eta aurkeztu ziren aurrekontuetan, bada atal bat **Berrikuntza egitasmoak** izena daramana eta 5 azpiaurrekontu hartzen dituen:

1. Artxibo historikoaren digitalizazioa (51.515,45 €);
2. Web-aren garapena eta hobekuntza (10.315,45 €);
3. Datu Base desberdinen egokitze eta bateratzea (39.765,96 €);
4. Azpiegitura informatikoa garatzea eta eguneratzea (42.053,05 €);
5. Inbertsio bereziak (60.939,54 €).

#### **ERANSKINA**

##### **Eranskin honek bi atal ditu:**

- 1. Atala:** Behin-behineko eduki-zerrendan erabiltzen diren laburtzapenen esanahiak.
- 2. Atala:** Behin-behineko eduki-zerrenda.

1. Atala. **Behin-behineko eduki-zerrendan erabiltzen diren laburtzapenen esanahiak**

Laburtzapena	Makina/Plataforma
SQL	Egoitzako MS SQL Server 2000n ostatatua. Kontsulta publikorako, Hosting-a eskaintzen digun enpresan DB horren mirror bat dago
MySQL	Egoitzako Linux-MySQL zerbitzarian ostatatua
Web	Web aplikazioa, nabigatzaile bidez erabiltzen dena
C/S	Client/Server aplikazioa, ordenagailu bezeroan software berezitua eskatzen duena
PDF-txt	PDF fitxategiak, testu digitalarekin: maketazio edo OCR jatorria dutenak
PDF-ird	PDF fitxategiak, irudi digitalekin.
JPG-ird	JPEG formatuan konprimatutako irudiak
CD audioak	konpresio gabe
MP3	audio konprimatua
–	Marratxoak adierazten du, ez dagoela informatizatuta edo hala dagoen konstantziarik ez dagoela.

**Egungo erabiltzaileak** (gaur egun oso sailean saileko erabilera egiten da, Interneten dauden edukiena izan ezik)

ABK	Azkue Bibliotekako barne gestioa. Katalogatzaileak
PUB	Erabilera publikoa, Internet bidez
INF	Informatika-zerbitzuan gordeta, ez da erabiltzen.
ATL	Atlasgintza lantaldeko kideak
HIZT	Hiztegi gintza lantaldeko kideak
ECO	ECO egitasmoko langilea

Internet bidez, datu-biltegi hori **gizarteratzeak eskatuko duen begiz jokatuko ahalegina**. Beti ere, gaur egun dagoen moldean eta Euskaltzaindiak eskura duen teknologia erabiliz.

–	Barneko datuak dira, definizioz.
0	Jada Interneten daude
1-5	Aurreikusten den zailtasun maila (1 erraza, 5 ezinezkoa)

## 2. Atala. Behin-behineko eduki-zerrenda

Arloa	Edukia	Makina/Plataforma	Erabiltzaileak	Gizarteratzeak eskatuko duen begiz jotako ahalegina (0-5)
Egiturazkoak	Artibo historikoa	MySQL-WEB	ABK	2
	Idazkaritzakoak			
	Kontularitzakoak			
	Onomastika-Zerbitzukoak			
	Argitalpen-Zerbitzukoak			
	Informatika-Zerbitzukoak			
	Prentsa-Zerbitzukoak			
	Argitalpenen katalogoa	SQL-Web	PUB	0
	Euskera aldizkaria	SQL-Web + PDF-ird	PUB	0
	Arauak	PDF-txt	PUB	0
Argitalpenak	Iker Sailaren argitalpenak	PDF-ird	INF	1
	Hiztegiak			
	Gramatika	PDF-txt	INF	2
	Hizkuntza-Atlasak	SQL-C/S	ATL	3
	Izendegiak [onomastika alorreko erabaki nagusiak (erabaki hutsa) + ponte-izenen azalpena (lan deribatua)]			
		SQL-Web	PUB	0

Arloa	Edukia	Makina/Plataforma	Erabiltzaileak	Gizarteratzeak eskatuko duen begiz jotako ahalegina (0-5)
Argitalpenak	Onomasticon Vasconiae	PDF-ird	INF	1
	Sariak	PDF-ird	INF	1
	Literatura Klasikoak			
	Euskararen lekukoak	PDF-ird	INF	1
	Jagon Sailaren argitalpenak	-		
	Mendaurre Saila	PDF-txt	INF	1
	Bestelako argitalpenak (zenbait)	PDF-ird	INF	1
Biblioteka	Azkue Fonda: <i>(katalogazio + irudi digitalak)</i>	MySQL-C/S + PDF-ird	ABK	2
	Bibliotekako beste fondaok: Satrustegiren artxiboa (katalogazio + irudi digitalak)	MySQL-C/S + PDF-ird	ABK	2
	Bibliotekako beste fondaok: Dagerre	PDF-ird	ABK	4
	Bibliotekako beste fondaok: ABK katalogoa	BRS-C/S	ABK	-
	Bibliotekako beste fondaok: ABK katalogoa.Web	BRS-Web	PUB	0
Araua/ Gomendioak	Gomendioak: <i>Araua sailkatuta, Irizpenak, Onomastika erabakiak, JAGONETeko galde-erantzunak,...</i>	SQL-Web	PUB	0

<b>Arloa</b>	<b>Edukia</b>	<b>Makina/Plataforma</b>	<b>Erabiltzaileak</b>	<b>Gizarteratzeak eskatuko duen begiz jotako ahalegina (0-5)</b>
Jagonet	Jagoneteko galdera-erantzunak	SQL-Web	PUB	0
Testu-ontziak	Digitalizatutako liburuak			
	Digitalizatutako aldizkariak			
	Digitalizatutako egunkariak			
Ikus-entzuzuezk.	Oroitidazkiak (2005 <i>bakarrik</i> )	PDF-txt	PUB	0
	Grabazioak ( <i>EHHA egitasmoak</i> )	CD audioak	ABK	4
	Bideoak	–		
	Argazkiak	MySQL-WEB JPG-ird	ABK	2
	Plazaberri	Plazaberri	HTML-Web	PUB
Albisteak	Albisteak	HTML-Web	PUB	0
Literatura-aldizkaria	Literatura-aldizkaria	–		
Iker Saila	OEH	SQL-C/S	HIZT	3
	Hiztegi Batua	SQL-Web	PUB	0
	Euskaltzaindiaren hiztegia	XML-Web	HIZT	2
	EGLU	PDF-txt	INF	2
	EGO	–		



Arloa	Edukia	Makina/Plataforma	Erabiltzaileak	Gizarteratzeak eskatuko duen begiz jotako ahalegina (0-5)
Dialektologia	EHHA-antologia	PDF-txt+mp3	PUB	0
	EHHA-1	SQL-C/S	ATL	3
	EHHA-2	SQL-C/S	ATL	3
Onomastika	Deitura-izendegia	SQL-Web	PUB	0
	Ponte-izendegia	SQL-Web	PUB	0
	ECO	MySQL-C/S	ECO	2
Literatura	Literatura-Hiztegia	-		
	XIX-XX.mendeetako testuak	-		
Herri-Literatura	Auspoa ( <i>8 zenbaki</i> )	PDF-ird	INF	1
	Eskuizkribuak ( <i>Dagerre egitasmoan badira batzuk</i> )	PDF-ird	ABK	4
Jagon Saila	Jagon Saileko edukiak	-		
	Jagon Saileko edukiak. Adierazpenak	PDF:txt	PUB	0
	Jagon Saileko edukiak. Eliza-euskara	PDF:txt	PUB	0
Hizkuntzaren Historia	Hizkuntzaren Historia	-		
	Agenda	-		
	Curriculumak			

## **JOANES ETXEBERRI EGITASMOA (2007-2008)**

### **Euskararen Historia Sozialerako Proiektua**

#### **EHS**

*Joseba Intxausti Rekondo*

Euskaltzainburuak eta Akademiako Jagon Sailak iradokita dakart hona Egitasmo honen proposamena (1). Ez da hau, noski, Euskaltzaindian Euskararen Historia Sozialaren (EHS) eremuaz hitz egiten den lehen aldia: izendapen molde horrekin, besterekin edo inolakorik gabe behin baino gehiagotan arduratu da gure Akademia euskararen iraganeko bizitza sozialaz. Ez, ordea, modu egitarautu eta jarraituan, nik dakidanez.

Azkeneko hamarkadetan, euskalaritzak (terminoa bere adiera orokorrean eta adiera hertsia gogotan hartuta) (2) urrats nagusiak eman ditu, ikertzaile berriei eta hainbat ikertegiri esker; batez ere, egia da hori hizkuntzaren gaurko eta iraganeko *corpus*-ari dagozkionetan. Euskaltzaindiaren lana bera da horren lekuko ona: begira, bestela, berorren liburu-katalogoan «Iker», «Hiztegiak», «Gramatika» edo *Onomasticon Vasconiae* argitalpen-sortak, *Euskera* agerria bera ahaztu gabe (Katalogoa 2006: 31-38, 39-40, 45-48) (3). Besteak beste, *corpus*-aren barruan onartuta dagoen onomastikako egitasmoari interes bereziko deritzat, Joanes Etxeberri Egitasmoan ere gogoan izan beharko ditugun lanabes teknikoetarako aitzindari gisa (Iñigo/Galé 2005).

Hori horrela izaki, euskararen barne-izaera eta kanpo-biziera (bi eremuak, esan nahi dut: *corpus*-a eta *status*-a) aztertzen ari den komunitate akademikoa

---

(1) Eskerrak eman behar dizkiet Andres Urrutia euskaltzainburuari eta Mikel Zalbide euskaltzainari txosten honen lehen idazketari egin dizkieten oharrengatik. Bereziki baliozkoa izan da, 2007-2008ko egitaraurako Zalbide jaunak proposatu didan bigarren puntua, berori honako eta bestetarako baliozko ekarpena izan daitekeela uste baitut: «2. EHS-ren garapen berrietarako eredu eta irizpide metodologiko-kontzeptualak finkatzeko txostena».

(2) *Euskalaritza*: hitza bere adiera posible zabal edo hertsian hartuta, alegia. 1. Euskara aztertzen edo ikertzen duten jakite-eremu ezberdinak, edo eremu horietan diharduten komunitate zientifikoak (ikerlan linguistikoak, psikolinguistikoak, soziolinguistikoak, zuzenbidekoak, etab.). 2. Berezikiago, euskara aztertzen edo ikertzen duen hizkuntzalaritza eta hizkuntzalariak.

(3) Idazlanean zehar eta eranskinetan aipatuko dudana bibliografia txosten honek aintzakotzat hartu duen testuinguru teorikoa aditzera emateko da, besterik gabe. Ez du, bada, osotasun edo balioespen kritiko baten asmorik.

gero eta zabal eta emankorragoa gertatzen ari da, zorionez. Testuinguru orokor horretan, *status*-ari buruzko ikerlanak eta ahalegin sozialak sekula baino aberatsagoak izan dira euskararen munduan (1978-2007).

Hala ere, euskal herrialde guztietan, erakundeetatik eta ekimen sozialetatik molde ezberdinetan sustaturik sortu diren euskararekiko ezagumendu soziolinguistiko berriek ez dute izan, beharbada, Euskaltzaindian komeni zaigun leku eta hedapen-bide errosorik. Kezka hori da Proiektu honen azpian dagoena, nahiz eta «Joanes Etxeberri Egitasmo» hau arloaren alde historiko-sozialera mugatzen den.

## 0. Proiektuaren izena eta lekua

Ikus daitekeenez Proiektua «*Joanes Etxeberri Egitasmoa*» bezala aurkeztu dut, eta azpigitulu bat eman diot: *Euskararen Historia Sozialerako Proiektua*. Batak eta besteak argibideren bat merezi dute hemen.

Proposamena *Egitasmo* edo *Proiektua* da, Euskaltzaindiko Barne-Erregeletako 53-57. artikuluetan aipatzen direnen modukoa eta han esandakoen arabera prozeduraz eraman daitekeena (*Euskera*: 46, 2001. 2. z., 824-825). EHS delakoaz ari naizela (laburdura horren bidez aipatuko dut «Euskararen Historia Soziala»: EHS), Euskaltzaindia eta Jagon Saila egokiak iruditzen zaizkit Proiektuari bere leku instituzionala emateko, aurrerago esanez joango naizen arrazoiengatik, eta ikerkuntza hutsa ez ezik «aplikatua» ere izan beharko lukeelako hemengo gure EHS honek.

Izendapen moldeari dagokionez, Joanes Etxeberri (1668-1749) hartu dut ikurtzat, bestelako eragozpenen bat ez balego behinik behin (4), euskal idazle laiko eskolatua eta kultur gaiak euskaraz eman zituena zelako (urrats berria gure historian), hizkuntzen arteko harremanen berri bazuena, euskararekiko herri-balioaz kontzientzia argia zuena.

Joanes Etxeberri bi Euskal Herrietako gizona genuen, Ipar-Hegoaldeetako, bietan bizi izana, Axular maisuaren mireslea (*P. Axular Saraco Erretora escuarazco autorerik hautuena, eta famatuena*), hizkuntzaren batasuna baieztatu zuena (*Escuara guztietan bat da, dio berak*), eta hizkuntzarekiko utzikeria bortizki salatu (*Escualdun Escuararen arbuizailleac, berak dira arbujagarriac*) zuena. Jada urrun gaude, noski, Etxeberri euskaraz zituen hainbat ideietatik, baina haren funtsezko jarrera konbentzitu eta langilea eredugarria da guretzat, euskararen erabilpenari eusteko, beraren duintasun kulturala hobetu eta kalitatea zaintzen ahalegintzeko (Etcheberri 1907).

---

(4) Pentsatu ere pentsatu dut A. Oihenart-ena ere izan zitekeela (historialaria eta euskal idazlea) izendapen egokia, baina Eusko Ikaskuntzak bere kaierrerarako harturik duenez, nahigo izan dut gauzak ez nahasi.

*Historia sozialaz* dihardu Proiektuak; hortaz, ez da Linguistika edo Filologia, ez da Soziologia soila: gizarteko historia egin nahi du eta iraganetik denboran zehar datozen edukiak bilatu behar ditu, ikertu, ordenatu, aurkeztu eta hedatu.

Zer da, bada, gure Hizkuntzen Historia Sozial hau (HHS)?

## 1. Hizkuntzen Historia Soziala (HHS)

Jakina denez, ikerkuntzaren mundu akademikoan (Unibertsitate, Goi-Institutu eta Eskoletan), jakintzaren adar berriak ez dira erraz sartzen, eta beren errespetagarritasuna ez zaie musu truk eta berehala ematen. Aitorpen instituzional hori irabazi egin behar izaten da Zientzien Erakundeetan. Horrelako zerbait gertatzen zaie hizkuntzen eremuan jaio berriak diren hizkuntzekiko jake-adar berriei, nahiz eta ez diren beti hain berriak.

Hizkuntzen Historia Sozialarekin ere (HHS) halatsu jazo da, eta horregatik ere komeni da iker eremu honetako alor eta mugei buruz zerbait esatea.

HHSk *hizkuntzen denboran zeharreko gizarteko izaera-bizierak aztertu nahi ditu*; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu. Denboran zehar egiten den unean uneko Soziologia dela esan daiteke, eta nahiago bada, Soziolinguistika, baina beraren aztergaiak segida batean kateaturik datozelako da *historia*, iraganetik gizartean ibili dabilen eta etorrian datorren hizkuntz bizitzaren zientzia.

Historiaz ari gara, beraz, hitz egiten, edo Soziolinguistikan Hizkuntza-Sociologia dinamikoa deitu denaz (5).

Eta HHSk gizarteko gertakari bezala hartzen ditu hizkuntzak; komunitate linguistikoa du gogoan, bere baitan eta inguruko beste komunitate linguistikoekin harremanetan.

Hizkuntzen azalpen sozialak mota eta balio ezberdinekoak dira, hasi hizkuntz transmisioetik bertatik, gizarteko estatusetik segi eta mintzatzaileen (eta idazleen) azken lorpen handi eta estimagarrietaraino. Hau da, hizkuntzaren erabilpen orokorretik hasi eta, adibidez,

- oharpen sozialera (kontzientzia: mentalitateen historia),
- jarrera sozialetara (burubide pertsonalak, taldekoak),
- arte-lanetara (paremiologia, bertsolaritza, herri-literatura eta idatzia),
- ezagumendu zientifikora (linguistikaren historia, adibidez),

---

(5) Mikel Zalbide euskaltzainak egindako ohar bati jarraiki aipatzen dut hemen «Hizkuntza-Sociologia dinamikoa». Aurrerago itzuliko naiz puntu honetara.

- estatus sozialera (A eta B hizkuntzak),
- arau eta portaera politikora (ofizialtasuna eta beronen administrazioa, legeetan eta praxian),
- hizkuntzaren produkzio-mota guztietara (mintzatu-idatziak: liburugintza, ikus-entzunezkoak),
- eta oro har, Soziolinguistikak erakutsi dizkigun aztergai guztien historiario.

Eremu zabal horretan HHSK funtsezko datu berri bat dakar iker-eremura: *denborarena*. Horrek ematen dio nortasun propioa HHSri. Ezin da geratu jakin-neko une batean, ez aurrera, ez atzera begiratzuz, nahiz eta unerik interesgarrien eta erabakigarriena izan esku artean duen hori; adibidez, Frantziako Iraultzan «Grégoire Inkesta» (1790-1792), edo Filipinetan gaztelaniari ofizialtasuna kentzea (1987).

Denboraren kate-begi sozialak lotuz egin behar du lan HHSK, aurreko baldintzak ezagutuz, uneko ingurua begiratzuz eta, ahal duelarik, ondorioetara ere iritsiz, eta betiere gizartean bizirik dabilen hizkuntz kode bati buruz ari dela jakinik

## 2. HHS, Linguistika eta Soziologiaren artean

Linguistikak gisa batean edo bestean, izendatuki edo izendatu gabe, *sin-kronia* bezala *diakronia* ere erabili du, hizkuntzen aldakuntza ere begiratzuz. Eta horrekin, beste gabe, Historiara ere hurbildu behar izan du. Horren ondorioz, Linguistikaren iraganean agerian dago zein sarritan hizkuntzalariek aztertu izan duten aldakuntzen gertaera (Bynon 1977).

Horregatik, HHseko ikertzaileak arretaz so egin beharko die Linguistika-ko lorpenei eta gogoan hartu du Martinet-ek, diakroniaz ari zela idatzitakoa, aipatutako diakroniaren mundu zabala esan nahi da (Martinet 1975: 67):

*...forman parte de la lingüística diacrónica: la lingüística comparativa, la reconstrucción de las lenguas «primitivas», las investigaciones sobre el parentesco de las lenguas y la clasificación de las lenguas por familias, las gramáticas comparadas de las diferentes lenguas, las investigaciones de los neogramáticos, que permitieron establecer leyes de los cambios fonéticos, las teorías del substrato, del superestrato y del adstrato, lo esencial de las investigaciones dialectológicas y de geografía lingüística (6).*

---

(6) Geografia, «soziala» eta «historikoa» den neurrian, obra berean ikus daitezke guretzat ere argigarriak diren oharrak, s. v. «Lingüística geográfica y dialectología». 266-274. Diziplinar-teko mugak bereizi nahirik, bi kapitulu hauetan mugatu nahi izan du Breton-ek bere proposamena: «La géographie linguistique, oeuvre du linguiste» eta «Vers une «géographie des langues» branche de la géographie humaine» (Breton 1983<sup>2</sup>: 5 eta 19).

Baina ez da ahaztu behar Linguistikaz ari dela, eta autore beraren baieztapenaren arabera, linguistaren diakronia ez dela zinez eta zuzenean historikoa (Martinet ib.):

*en ellas no se sigue la evolución, se aportan datos sobre dos estados diferentes de una misma lengua, sin preocuparse de investigar cuándo y cómo se produjo el cambio.*

Dena den, Linguistikaren historiak XIX-XX. mendeetan hizkuntzen iraganaz zuzenki erakutsi dizkigunak eta, beharbada, zeharbidez eta pasaeran azaldu digun hainbat informazio HHSak aintzakotzat hartzen ditu, azken finean, altxor «historiko» aberatsa baita hori: nola ez gogotan har, esaterako, linguistek marraztu diguten hizkuntzen «historia geografikoa» edo «geografía historikoa»? (Baldinger 1971). Horren parean, Linguistikaren historia bera ere, zientziarena alegia, arretaz begiratzekoa du HHSk (Mounin 1967, Chevalier/Encrevé 1984).

Testuinguru horretan, bi eskuliburu, behintzat, aipatuta utzi nahi ditut, erabilpen zabala dutenak, eta horregatik ere bi hizkuntzaren iragana osotasunean deskribatzen lagundu dutenak: R. Lapesa-ren *Historia de la lengua española* (1942) da lehena, eta J. M. Nadal eta M. Prats-ek eman ziguten *Història de la Llengua Catalana* (1982).

HHsean dabilen nork ez lituzke irakurri beharko Lapesa-ren «El español del Siglo de Oro. La expansión imperial. El clasicismo» kapituluko «España y su lengua en Europa», «El español, lengua universal» edo «El castellano, lengua española» pasarteak? (Lapesa 1986: 291-299).

Eta Herralde Katalanetakoa nahi bada, Nadal/Prats-en «el substrat ibero-basc» edo «fixació del domini lingüístic del català», XIII-XIV. mendeetako «la gran expansió de la llengua catalana» hura, adibidez? Eta nola ez diogu begiratu bat emango Sanchis Guarner-en «els parlars vascònics pirinencs» hari? (Nadal/Prats 1982: 28-40, 242-255, 366-388; Sanchis Guarner 1980: 57-60).

Horrela, bada, EHseko historialariok Linguistikako argitalpenetan badugu zer ikusi eta zer ikasi, batzuetan eranskin edo osagarri bezala emanda egongo da hori, baina bestetan baita liburuko diskurtso beraren gorputzean historia sozialari arretaz begi emanez ere. Lehenengo molde horretakoen artean Brunot/Bruneau-k utzi ziguten *Précis de grammaire historique de la langue française* hura gogora daiteke, bere kronologia historiko eta guzti (Brunot/Bruneau 1969: 7-41), eta bestelakoetan, Marcel Cohen-en frantsesaren historia, Meillet-engandik jasotako langai sozial guztiekin (Cohen 1967, 1987). Azken buruan, hizkuntzaren gizarteko bizitzaz ere aurrez aurre jardundako lana izango da Cohen-ena (Cohen 1971).

Eta azken orduko albiste ederra da Alain Rey-k eta aurkeztu digutena: *Mille ans de langue française. Histoire d'une passion*. Ados egon ala ez, go-

zamen hutsa da liburu hau hizkuntzen gizarte-historiaren zaleak garenontzat (Rey et al. 2007). Hain da aberatsa, hain gure alorretik ari dena.

Linguisten galdera sozialak gidaliburu orokor berezitueta ere ageri dira. Esateko, Hizkuntzaren Zientziak orokorrean aurkeztean, Martinet-ek elkarlanean bildu zigun sintesi zabala araka daiteke (*Le langage*, 1987), orain gutxi-ko linguista handiek horretan izan duten ardura ezagutzeko (Martinet 1987: 569-884, 1093-1221).

Linguistikak ez dio, beraz, uko egin hizkuntzen kanpo-historia deitu denari, egunean indarrean dauden eskuliburuak ere hori da gero eta gehiago azpimarratzen dutena, barne-historia egiteko kanpo-historia lagungarri ona dute-lakoan. Horren lekuko egokia da Erromaniari buruz atera berria den *Manual de lingüística románica* bat (Gargallo/Bastardas 2007), non lau partetan banatuta dagoen liburu honetan atal oso batean «historia externa» dioena ematen baita luze eta zabal (71-224), eta tartean eskaini duen linguistikaren historia ere hor dago (299-393).

Batzuetan, halabeharrak ere eramán ditu hizkuntzalariak Soziolinguistikara. Esanahitsua gertatzen da Hudson-ek (soziolinguista ere bilakatutako hizkuntzalari bera) bere liburua ondoko pasarte honekin hastea (Hudson: 1981: 9):

*como lingüista teórico, me he sentido personalmente libre para criticar la tradición dentro de la que trabajo, y la tarea de escribir este libro me ha esclarcido que hay mucho que criticar en esa tradición. He intentado, al mismo tiempo, poner de manifiesto las numerosas contribuciones positivas que pueden hacerse al estudio del lenguaje desde el punto de vista de la sociolingüística.*

Hizkuntz Zientzien artean, bistan da, mugaldeak daude, baina apenas, egia esan, zinezko muga-marrarik, eta denok ere elkarri begira egin beharko dugu lan, begiramenez betetako zientziartekotasun baten barruan. Mugalde horiek bi aldean arteko eskualde partekatu bezala agertzen zaizkigu praktikan, egoera hori liburueta izenburuetan bertan agertzeraino: *Introduction à la Sociolinguistique* dioen batek azpitolutzat *La linguistique sociale* darama, adibidez (Marcellesi/Gardin 1978).

Euskalaritzak ere, bere adiera hertsian (linguistikatik, alegia), jakitate eta norabide anitz du EHSri eskaintzeko, aldizkarietatik bezala liburueta: *RIEV/RIEB, Euskera, BAP, FLV, ASJU, Lapurdum* eta abarretan. Kapitularik nagusienak ezagutuz joateko, euskalaritzako talde-lan eroso da Gómez-Lakarra: *Euskalaritzaren historiaz* (1992), bigarren liburukiarekin osaturik nahiko genukeena. Horren ondoan XIX-XX.eta euskalarien zerrenda estimagarria dator kit burura: XIX.eko Humboldt edo Bonaparte batez ere, baina, esate baterako, baita XX.eko Tovar, Lafon, Irizar, Mitxelena, Irigoyen edo Etxenikeren hainbat lan, urrunago geratzen zaizkigun beste zenbait erabat ahanzi gabe.

Linguistek eskainita baliagarri gerta dakioken oro hartu beharko du aintzakotzat EHSK.

HHSk alde batetik Linguistika baldin badu, bestetik Soziologia hurbiltzen zaio, eta gertuago nahi bada, Soziolinguistika edo Hizkuntza-Soziologia.

Iraganeko eztabaida argigarri hartan sartu gabe (Historia vs. Soziologia, eta alderantziz) (Braudel 1968: 107-129), baina berori gogoan dugula, historialariak badu utopia bat, Historia Soziologiarekin elkartzen duena: berak ere unean uneko eta bakoitzeko soziografia egin nahi du, argazki zehatza eta osoa; besterik da egin ahal izan duen ala ez.

Hizkuntzak komunitate linguistikoetan bizi direnez, giza talde handi eta txikiagoetan, gizarteko errealitateen eta harremanen arteko lanabesak dira berorien hiztunentzat, eta horrek hizkuntzekiko pentsamolde, jarrera, ohitura eta arau sozialak dakartza berarekin. Eta, horrela, gizartean erraztasunak eta zailtasunak sortzen dituen zerbitu dira hizkuntzak, besteak beste batu nahiz banatu egiten baititu hiztunak.

Nahitaez, lehentxeago edo geroago, Soziologiak hizkuntzen presentzia sozialarekin topo egin behar zuen, eta lehendik linguistek barruntatu zuten kanpo-historia historia sozial bezala begiratu behar izan du Soziolinguistikak. Ez lehenagoko aurrekaririk gabe, baina Soziolinguistikaren hau lezio berria izan da hizkuntzei dagozkien Zientzietan, eta baita HHSean ere, Calvet-en testu argi batek erakusten digunez: «La lutte pour une conception sociale de la langue», egon da hor (Calvet 1974, 1993: 5-22).

Zalantzarik gabe, HHSk asko ikas dezake, eta behar du, Soziolinguistikatik, eta iraganari gaurko itaunetatik galdetu ahal izateko premiazkoa edo oso komenigarria izango da eremu horretan indarrean dagoen literaturarik bermagarriena eskuratzea.

Eztabaida teorikoetan sartu gabe, HHSren eduki soziolinguistikoak zeintzuk izan daitezkeen erakusteko Fishman-ek Soziolinguistikaz edo Hizkuntza-Soziologiaren emandako definizioa ekarriko dut hona (Fishman 1979: 33):

*el hombre en cuanto usuario normal de la lengua –lengua hablada, lengua escrita e impresa– está constantemente ligado a los demás mediante normas de conducta compartidas. La sociología del lenguaje examina la interacción entre estos dos aspectos de la conducta humana: el uso de la lengua y la organización social de la conducta. Dicho brevemente, la sociología del lenguaje se ocupa del espectro total de temas relacionados con la organización social del comportamiento lingüístico, incluyendo no sólo el uso lingüístico per se sino también las mismas actitudes y los comportamientos explícitos hacia la lengua y hacia sus usuarios.*

Soziolinguistika horren olatua gurera ere iritsi zen. Aukera horretan, geroago ikusiko dugunez, Euskaltzaindia ez zen izan urrun ikerlan haietatik. Zerbitu aurretik eta geroago, J. M. Sánchez Carrión-i zor zaio jauzi berria gure Soziolinguistikan, ikerkuntzaren eta berorren emaitzen hedakuntzaren aldetik (Sánchez Carrión, 1987; Bat 1996: 18. z.); gero, Administrazio berriek susta-



tu eta ezagutzera emandako ikerlanak daude. Guztiek biblioteka koskor bat osatzen dute.

Ez da hau gure artean Soziolinguistikak izan duen iker- eta praxi-eraginarene balantzea egiteko unea, baina beti gogora daiteke Soziolinguistikako *Bat. Soziolinguistika aldizkaria* (1990...), bere hamazazpigarren urtean 60 eta gehiago alerekin aurrera doana. Argitalpen honek bere inguru-helburuak honela definitu ditu:

*aldizkari honen hartzaileak euskararen berreskurapen eta normalizazio lanetan diharduten euskaltzale, teknikari, irakasle edo unibertsitateko ikerlariak dira. Aldizkariaren helburu nagusia eragile hauentzat bere jarduera esparruan lagungarri izango zaien informazioa bildu eta hedatzea da.*

Gogo bera jarraiki, gure arteko ikerlan soziolinguistikoez ezagutza teoriakoen ondoan eragin sozial praktikoa ere sustatu nahi izan dute. SIADECOREN lanak ere gogoraraztekoak dira, baina horietaz aurrerago esango dut zerbait.

«Joanes Etxeberri Egitasmoak» mugarritu nahi duen Euskararen Historia Soziala (EHS) ezingo da bideratu eta neurri egoki batean egikaritu euskarari begira kaleratu diren azken urteetako liburu, aldizkari eta idazlan soziolinguistikokoak arretaz arakatu gabe, eginda dauden ekarpen baliotsuengatik ez ezik baita gure komunitate zientifikoari zor diogun begiramenagatik ere.

Laburtuz, Soziolinguistika orokorrean gurera ongien egoki daitezkeen argitalpenak (adibidez, Fishman 1972, 1985, 1989) edo euskarari berari edo antzeko kasuei begira emandakoak aintzakotzat hartu beharko ditu Joanes Etxeberri Egitasmoak. Hau izango da lehen epeko lan nagusietako bat.

### 3. HHS, historialarien eremuan

Linguistika eta Soziologia gogoratu ondoren, natorren historialarien jarrera eta lanei buruz zerbait esatera. Zer esan ohi du historiografia orokorrak hizkuntzen historia sozialaz? Nola moldatu izan dira historialarien artean indarrean egon diren edo dauden Histori Bilduma onartuenak hizkuntzen historiaz hitz egiteko?

Adibidetzat, horrelako Bilduma historiografiko handietako bi kasu ekarriko ditut hona: *L'évolution de l'humanité* (1920...), eta UNESCOren *Historia de la humanidad* (1963...). Lehenengoa, libertate intelektual osoan egindakoa da, baina hori, bai, mundura Frantziatik begira idatzitakoa, garai eta lankide jakin batzuekin elkarlanean. Emaitza mugatuak izan zituen gure alorrean, baita H. Berr historialari zuzendariaren iritziz ere, nik uste; baina hizkuntzak ez ziren ahaztu nahi izan, behintzat. (Ikus I. Eranskina: «Hizkuntzak *L'évolution de l'humanité* (1920...) bilduman»).

UNESCOREN lanak bestelako baldintzak izan zituen 30/40 urte geroago. Nazioarteko erakunde horrek 1950.eko hamarkadan bideratu zuen *History of Mankind/Historia de la humanidad* (Paris/Barcelona, 1977-1981), ingelesez lehenengo eta hizkuntza ezberdinetan geroago. UNESCO erakundeak sorreratik dituen baldintzen barruan (baldintza politiko eta kulturalak), argitalpen honek ardura zainduagoa jarri zuen mundu osoko hizkuntza eta literaturetara begiratzen; alde honetatik, India, Txina eta mundu arabiarra dira, Mendebaldearekin batera, hamabi liburuki horietako protagonistak (Unesco 1977-1981).

Ez da ahaztu behar argitalpena Gerrate Hotzaren barruan landu zela, kolonialismoa bere osoan lehertu aurretik (1950-1963), UNESCOK berak Hirugarren Munduan «alfabetatze funtzionala» abiarazi aitzinetik (Teheran, 1965), eta betiere Estatuetako politika linguistiko zurrinak kritikatzeko erraztasunik gabe; alfabetatzearekin Hirugarren Mundu post-kolonialera heltzean, alfabetatze-kanpainetan ikusi ahal izan zuen UNESCOK, ez lehenago, hizkuntzen zinezko tamaina geo-sozio-kulturala (1965-1985).

Horren aurretik, bada, besterik da. Hala ere, nabaria da nola obran zehar hizkuntzen bilakaeraren eta idazketaren historiari aldian aldiko kapitulu berezitu eta errepikatuak eman zitzaizkion, Historiaurretik hasi eta XVIII. mendera arte, gerokoan batez ere literatur historia aurkeztuz. 233 orrialde dira hizkuntzen esparru historikoa lantzen eman zituenak, baina kulturaren historiako hizkuntza handiei begira beti, noski (Unesco 1977-1981: II, 61-101, 317-331, 599-609; III, 405-463; VI, 13-65, 67-127).

Alde gaitza dago, hortaz, UNESCOREKIN egindako hitzarmenari esker EHUK burutu duen Txostenak iradoki diezazkigukeen kezketatik: orokorrean, hizkuntz aniztasunaren balioa, aurreiritzi zaharrei gaina hartu beharra, globalizazioaren alde on eta arriskuak (Martí et al. 2005: 17-20).

Bost epe handitan banatuta dago *History of Mankind*-eko testuan hizkuntzen iragana, baina 1775etik honakoan, ia bakarrik literatura historiaz arduratzen dela:

- 1) K.a. 1200-K.a. 500
- 2) K.a. 500-0. urteak,
- 3) Kristau-Aroa-K. o. 500.
- 4) Erdi Aroa (500-1300).
- 5) Aro Modernoa (1300-1775).

Obra honek dituen muga guztiekin ere, gure EHSK (Euskararen Historia Sozialak, alegia) ikusbide zabalez lan egin nahi badu, *Gizadiaren Historia* honen orrialdeak arretaz irakurri beharko ditu, zinezko informazio sozio-historikoa eskaintzen duelako, eta nolnahi ere, Europa eta urrunagoko historiak iradokizunik aski ekar dezaketelako.

Historia unibertsal horien ondoan, ez da gaizki etorriko «Estatu-hizkuntzen» iragana ere gehitzea, historialarien uzta oparoa izan baita historia «nazionalena»: Estatuetak historiografia nazionalak garrantzizkoak dira esku artean darabilgun arlo honetan.

Zer eman du, adibidez, aldi berean filologo eta historialaria izandako Ramón Menéndez Pidal-ek (1869-1968), EHsean zinez baliozkoa izango dugunik? Begira bitez argitara berriak diren *Historia de la Lengua Española*-ko langaiak (amets zaharra, edizio berria: Menéndez Pidal 2005), baina baita *Historia de España Menéndez Pidal* bezala agertzen den bilduma handia. Komeni zaigu Menéndez Pidal-en historia intelektual hori ezagutzeari (García Isasti 2004).

Beste hizkuntza eta nazio batera goazela, gogora dezadan Pierre Vilar historialari okzitaniarra eta Kataluniako historialaria: interesgarri gertatzen da, sozio-ekonomian ibilitako historialari honek hizkuntzari herri-nortasunean eman zion garrantzia (Intxausti 1985: 527-540).

Eta gatozen geure etxeko historiografiara: gure historialari orokor klasikoez ez zuten hizkuntzarena baztertu, aitzitik liburuetakoen lehenengo kapituluetan eman izan zitzaion bere lekua euskararenari. Aipatuko dudana Madariaga-ren obran daude bilduta horren lekuko testu asko: Zaldibia, Garibai, Isasti, Oihenart, Henao, Moret, Iturritza, Zamakola, etab.

Tovar-ek deskribatu zigun garai haietako hizkuntz «mitologia eta ideologia», liburu llabur eta aberats batean (Tovar 1980), eta eskueran dago XVI. mendeko ideia linguistikoen azalpen eta azterketa bat (Zubiaur 2001). Azken orduan, obra eroso eta osoa dugu berrikitan argitara emanda, euskararen inguruko pentsaera eta ideologiaren testu historikoak aurkezten dizkiguna: *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language* (Madariaga 2006). Mentalitateen hau da EHSren kapitulu garrantzizko bat, osatuz eta aztertuz joan beharko duguna.

Eta antologia honek zuzenean garamatza euskararen inguruko liburuak eman dizkiguten euskal herritar idazleengana, hauek dira hain zuzen euskararen gure defendatzaile eta ideologo suharrak. Nork ez du gogoratzen Poza-rekin hasi eta Etxabe, Larramendi, Astarloa, Erro eta kasik gure egunak arte luzatu den idazle errenka hori? Dena da EHS, hori ere bai.

Zorionez, XIX.eko zenbait buru argiagok eta gure Erakunde Akademikoko honek, EHsean lan egiteko baldintza berriak sortu dizkigute, eta Euskaltzaindiaren lan horretaz esan nahiko nuke zerbait.

#### 4. EHS, Euskaltzaindiaren arrastoan

Beste elkarte zenbaiten artean (Intxausti 1998: 47-55), ordezkaritza ofizialarekin Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia izan ziren gerra aurrean hiz-

kuntzaren alde soziala begiratu zutenak, ikerlan eta ekimen sozialen bidez (Estornés 1983: 173-188). Bidezkoa zenez, protagonismoa Akademiari suertatu zitzaion, hain zuzen bere egiteko propioa euskararen horixe zelako.

Arreta, segida eta modu ezberdinez begiratu eta arduratu izan da Euskaltzaindia Euskararen Historia Sozialaz (EHS). *Eusker*a agerkariaren aurkibideak, Erakundearen bileretako aktak edo argitara berri den liburu-katalogoa bera dira esparru horretako lanak zeintzuk izan diren gogoraziko digutenak; baina ez noa orain horren guztiaren historia xeheki biltzera. Aski izango da egindako larrienak aipatzea (Ik. II. Eranskina: *Euskararen Historia Soziala [EHS] Eusker*a agerkarian. 1978-2006).

Nornahik daki, eta Euskaltzaindiak argi ikusi ahal izan du, adibidez, *corpus*-eko aldakuntza eta arauketa batzuk nolako ondorio sozial sakonak dituzten (ortografia, euskara batuaren arauak, etab.). Sekula egin gabeko estandarren normalizazioan gabiltzalarik, azken mende erdian *corpus*-az eman diren arau akademikoek bete-betean izan dute zerikusi azkarrik hizkuntzari eman nahi zaion *status* berriarekin: *corpus*-aren gaineko lana eta arauen harrera soziala gertakari soziolinguistikoak dira, noski (cfr. *Jagonet*, 1999, 2002, 2003, 2004, 2005). Zalantzarik gabe Euskaltzaindia benetan ausarta izan da azken mende erdi horretan. Bestalde, ez da erraza izango, nik uste, komunitate linguistikoak hain aintzakotzat eta beretzat hartu duen beste Akademia bat topatzea. Horrek guztiak du bere aurpegi soziolinguistiko eta historikoa.

Gerra aurrean eta geroxeago *Iker Sailak* Linguistikan landutako zenbait aztergaik EHserako ere baliozko oinarriak eskaintzen ditu alor ezberdinetan. Hor daude hizkuntzaren historiaz (Fagoaga, Garate, Irigarai, Merino Urrutia, Haritschelhar, Irigoien, Txillardegui, eta abarren lanak), hizkuntzen arteko konparaketa eta dialektologiak (Azkue, Mitxelena, Mukarovsky, Tovar edo *Erizkizundia*), hizkuntzaren geografiaz (Irigarai), bilakaeraz (Azkue, Txillardegui), leku-izenei buruz (Merino Urrutia, Garro, Knörr, Lizundia, Satrustegi, etab.).

*Iker* Sailean eginkizun zen hainbat lani begira, 1976an aurkeztu zuen K. Mitxelenak Sail honetarako eskatu zitzaion lan-egitaraua, eta, ikus daitekeen bezala, egin da biderik handik hona *Iker Saileko* lanetan: Gramatika, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batua*, Toponimia, bereziki. (Euskaltzaindia 1980: 94-96, 96-98, 103-161, 99-100, 100-101, 164-166, 236, hurrenez hurren).

Langai linguistiko baliagarri horien ondoan, *Jagon* Saileko lanak dira, berez eta izatez (7), EHSK bertatik bertara beharko dituenak, Soziolinguistikatik datozelako edo EHS bera espresuki aztertzen dutelako, eta ez dago zergatik ikerlanak bakarrik aintzakotzat hartu, aldiari aldiko ospakizunak ere hor baitaude. *Jagon* Sailaren asmo eta lanak, orokorrean, oso goiz iradoki ziren, Euskaltzaindiaren lehen urteetan (1922, 1922).

---

(7) *Jagon* Sailaren historia zerbaitek ezagutzeko balio du 1999an egindako gogoetak (J. L. Lizundia, M. Azkarate, J. San Martin): *Eusker*a. 44, 1999, 321-354.

Baina *Euskera* agerkaritik kanpo, Euskaltzaindiaren Katalogoan dauden lan nagusiago batzuk dira hemen bereziki gogoraraztekoak, eta horien artean jada urrun samar geratu zaigun trilogia ezagun hura: *Euskararen Liburu Zuria* (1978), *Euskararen Soziolinguistika Azterketa* (1974-1979) eta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979). Akademiak bideraturik, Lankide Aurrezkiak lagunduta eta elkarlanean, SIADECOREN gidaritzapean, egindako lanak izan ziren hirurak (*Euskera*. 20, 1975, 466-467, 507; 22, 1977, 227).

Denak ere EHserako informazio-harrobi ona izan arren, *Euskararen Liburu Zuria*-rena da hemen zuzenago interesatzen zaidana. Nahikoa da berorren orrialdeak begiratzea, EHserako ataria dela ikusteko. Lankideak (16) eta aztertako gaiak ondoko hauek izan ziren (Siadeco 1978: 7-8).

### EUSKARAREN LIBURU ZURIA (1978)

SARRERAKOA: **K. Mitxelena**: «Euskararen bide luze bezain malkarrak» (15-28).

I. ZATIA: *Hizkuntzaren giza ikuspegia, kultural eta politikoa*:

1. **M. Pagola**: Ikuspegi linguistikoa (35-50).
2. **P. Agirrebaltzategi**: Ikuspegi antropologikoa (51-77).
3. **J. Intxausti**: Ikuspegi politikoa (79-142).

II. ZATIA: *Euskara*:

1. **L. Villasante**: Euskararen kanpo historia apur bat (151-163).
2. **J. M. Lekuona**: Ahozko euskal literatura (165-188).
3. **L. Villasante**: Euskal literatura idatzia (189-208).

III. ZATIA: *Faktore ezberdinen eraginpena euskararengan*:

1. **K. Larrañaga**: Faktore [historiko] sozio-ekonomikoak (227-301).
2. **J.M. Barandiaran / J. M. Satrustegi**: Faktore etnik eta sozio-kulturak (303-332).
3. **G. Monreal / M. Rica**: Euskarari eragin dioten faktore politiko administratiboak (333-382);
4. **J. Urrutia**: Euskararen prozesu historikoari eragiten dioten faktore juridiko-legalak (383-440).
5. **J. M. Castells**: Hizkuntza Estatutoen politikan (441-453).

IV. ZATIA: *Hizkuntz problemaren tratamendua beste erresumetan*:

1. **J. A. Obieta**: Minorien hizkuntzak eta Deretxoa (491-537);
2. **J. L. Alvarez Enparantza**: Hizkuntza minoritari batzuren azterketa kritikoa (539-608).

V. ZATIA: *Elebitasuna*:

1. **M. J. Azurmendi**: Elebitasuna (613-650).

VI. *Konklusio antzera*.

Ez naiz hasiko argitalpen hartan EHSri eman zitzaion lekua azpimarratzen; aski da aurkibide horri so egitea. Ez dago zalantzarik: Euskaltzaindiaren ia mende beteko iraganean *Euskararen Liburu Zuria* da euskarak historian izan dituen baldintza etno-kultural, ekonomiko, sozial, legal, politiko, administrati- bo, literario, erlijioso eta abar argitara ekartzen egindako ahaleginik serio eta aberatsena.

Geroztik, Akademiak ez du tamaina bereko beste saiorik egin, edo, behin- tzat, eten bat egon da hor. Hogeita hamar urte geroago, administrazioan be- zala gizartean, ofizialtasun-praktika orotan, programa eta erabaki politikoetan, legerian, mota guztietako saio kulturaletan bizi izan dugunaren ondoren, ba- dirudi egoeraren balantze berri bat egiteko unea datorrela. Hori ere egunen ba- tean idatzi beharreko historia izango da.

Testuinguru horretan, EHSri berriz ere, eta iraunkorki nik uste, bere ildoa ireki beharko genioke, eta hori da Joanes Etxeberri Egitasmoak dakarren pro- posamena. Ez da segur aski komeni irekitako hastapen haiei Akademiak segi- darik ez ematea, zientziari eta praxiari, biei, begira.

## 5. Ezagumendu berriak: EHS (1978-2007)

Argitara izan diren euskararen histori lanek, sarrera gisara edo aldian al- dikoa begiraturaz, alde sozial historikoa ere jaso izan dute. Honelakorik franko dago zenbait ikertzailearen argitalpen zabaletan. Mitxelenauren obran gogoratu behar da *Lengua e historia* bilduma ageri dela, eta bi liburuki marduletan eman dela *Sobre historia de la lengua vasca* (Michelena 1985, 1988). Alfontso Iri- goyen-en lanetan gogora dezadan *De re philologica linguae uasconicae*, hau ere ongi arakatzeko altxorra da, noski (Irigoyen 1985-1995). Bestalde, Ake- soloren lanak errazegi ahazten ote ditugun nago, eta EHserako hainbat ohar eta idazlan baliagarri aurkitzen da berorren orrialdeetan (Akesolo 1989). Bestela- ko iker-tradizio eta tamainarekin berriz ere Siadecorena ere gogoratu behar dut (ik. III. Eranskina: *SIADeco: Soziolinguistikako lanak, 1967...*)

Euskarari ofizialtasun/ofizialkidetasunak aitortu edo ukatu zitzaizkionetik (EAE, 1979; Nafarroa, 1982; Iparralde), modu berri batean piztu da hizkun- tzaren iraganeko egoera sozialak ezagutzeko gogo, hizkuntzen biziera alda- korra eta gidagarria dela ikusita eta gaurkoa ulertzeko iraganak ere lagun de- zakeela susmaturik (Sagarna 1984).

Iragan historikoaren bilaketa horretan badirudi mugalde geografikoek ar- dura berezia pizten dutela, eta baita tokian tokiko soziologiak ere. Irigarai-ren lanekin batera (Apat-Echebarne, 1974), Nafarroan lan bikainak ditugu eskue- ran (Yoldi, 1996; Jimeno Jurío, 1997, 1998; Urmeneta, 1996; Erize, 1997; Sainz, 2000; Jimeno Aranguren, 2000), Toponimiako kartografian burutu den lan erraldoia ahaztu gabe (*Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*). Arabara-

ko, hasteko, hor dago Knörr-Zuazo (1998) lehen testu eta ikerlanekin. Iparraldeaz Orpustan, M. Goihenetxe edo Oyharçabalen lanak baliozko urratsak dira. Bestalde, xx. mendeko euskararen arazo nagusiei errepasso on bat eman zitzaizen 2001ean (Atxaga 2001).

Ikuspegi zabalagoetatik, tokian tokiko historiara gatozela, laster aurkitu ahal izango ditugu, hiri-herriei buruzko azterlanak, gehienetan jakineko une bati begira eginak, aldizkarietan batez ere; baina berrikitan udalek sustatu izan dituzte herriko euskararen historia soziala ezagutzeko saio batzuk (Izagirre 1998, Esnaola 1999, Atela et al. 2000).

Adibideak dira aipatutakoak, ez besterik; ez dugu hasi beharko ezerezetik, eta bibliografia oso eta ordenatua jaso beharko da EHS gure artean modu formalago eta orokorragoan abiarazteko. Joanes Etxeberri Egitasmoak lehen bide-urraketa horri ere ekin nahiko lioke.

## **6. Egitasmoa, nondik nora (2007-2008)**

Adierazi nahi izan dudanaren arabera, ez dugu hutsetik hasi behar; baina, aitortu beharra dago, historialariok geurok ez dugula landu sobera EHS, eta, tamalez, iragan mendeetako euskal historialari klasikoek maiteago izan zutela arlo honetan mitologia errealtate historikoa baino.

Aurreko lerroetan begiztatu ditugunak ikusita, bilketa-lan handi baten aurrean gaudela azpimarratu behar da, lehenengo eta behin; iturri edo altxor ezberdinetatik egin beharko den bilketa izango da. Horretan nahitaezkoa dateke urratsez urrats eta indarren arabera eraman beharko diren lan-lehentasanak ezartzea, eta horixe izan daiteke lehen lan-aldiko estreinako zeregina, bilketa horretako lehentasanak finkatzearena, alegia.

Euskal Erakunde zibil eta eliztarren iraganak begiratu eta agiriak jaso, mota guztietako lekukoak bilduz (Udal, Batzar, Aldundietan; Parrokia, Elizbarruti, Sinodo eta abarretan); euskararekiko garaian garaiko lege eta arauak eskuratu; euskara idatziaren iraganeko hizkuntzarekiko entresaka egin (hainbat argitalpenen hitzaurretan, adibidez); bidaiari atzerritarren lekukotasunak metatu, eta antzeko bilketak. Esparru ezberdinetako hizkuntz erabilerak definituko dituzten datuak argitara ekarri, herrialdez herrialde eta euskalkiz euskalki egoera ezberdinak deskribatzeko. Euskal Herriak alor ezberdinetan ezaugu dituen hizkuntz trukaketak, Erdi Arotik hasi eta gure egunak arte.

Eremu zabalegia da hori dena, eta historia horretako une «beroak» hautatzen asmatu beharko dugu, lanerako iker-lehentasanak jartzten, azken buruan. Hauxe da Egitasmoan aurrenetako eginbeharra.

Aurrera egin ahala, izango dugu azkenean egungo bibliografiaren eta jakitate-egoeraren informazio-gune zaindu bat. Ahal delarik, albiste bibliografi-

koak jakiteaz gain, ez litzateke gaizki etorriko bibliografia hori Euskal Herrian non dugun jakitea ere; baina aurrez begiratu beharko da liburuen bilaketari noiz eta zein erritmotan heldu. Azkue Bibliotekatik ekinda, jada eskueran ditugun liburutegietako katalogo informatikoez lagundu beharko ligukete, baina bertatik bertarako lana ere aberasgarri izango da *HABE* edo *Sancho el Sabio* Fundazioaren altxorretan, adibidez.

Dena den, bibliografia berezituaren honek lehentasuna izan behar du, zerrenda egoki batekin lehenengo, eta gero, esate baterako, erreferentzia bakoitzeko edukiak osatuz.

Ezagunak ditugun eta bila daitezkeen artxiboetako paperak ere astindu bat beharko dute. Ikusita dago betidanik euskara zein isil-ezkutatua gertatu den paper idatzi ofizial eta ez-ofizialetan. Horrek konponbide zaila dauka; baina, begi-bistan ditugun lorratzak galdu gabe, eskizari irten beharra dago berriz ere, beti emaitzarik onenak eman ditzaketen bidezidorrak hartuta. Artxiboan lan-sail honek eska lezakeen lankidetzaz zabalagatik, lehen aldiaren hobe izango da lan-proiektu zehatz baterako irizpideak finkatu eta lana bera jakineko punturen batera mugatzea.

Erran gabe doa, behin abiaraziz gero, Egitasmoaren bilketa-lana ez dela une jakin batean amaituko, baizik eta etengabe osatuz eraman beharko dela, eguneratuz, esan nahi dut.

Egitasmoko zeregin nagusietakoen artean dago, eskura ditzakegun argibideak, agiriak, mota guztietako langaiak ikertzaile eta hizkuntzaren sustatzaileen eskuetan jarritz joatea, mundu akademikoak bezala euskararen eragile sozialek eskueran izan beharko baitituzte bildutako albistekak.

Eta, lanak heldutasun egoki batera iristean, Euskaltzaindiaren gainerako alorretan bezala, nazioarteko informazio-zerbitzura bideratu beharko lirateke lortutako emaitzak. Bestalde, horrek ez du esan nahi, ordea, bakarrik geureari begira ibili behar dugunik, eta jada eskueran egon daitezkeen inoren baliotzako ekimen batzuk Euskaltzaindiak bereganatu ez ditzakeenik, behar denekin ados jarrita web-etik edo bideratzeko.

Honek guztiak, bada, teknologia berrien mundura garamatza zuzenean, hedapenerako ez ezik lana bera ontzeko ere: Euskaltzaindiak garatu nahi dituen baliabide teknologikoez baliatu behar du Egitasmoa honek, nahitaez. Begiratu beharko da Euskaltzaindiaren alor horretan (Internet, *on line* kontsultak, etab.) lehentasunen artean zein izan daitekeen Egitasmo honi eta berorretan bildutako langaietarako dagokiena.

Orain, lanari ekitean, Egitasmoari bi urteko epea eman geniezaioke, non gauden jakiteko, egoeraren lehen balioespina egiteko, geroko lehentasunak hobesteko, ondoko urteetarako egitarau-proposamena marrazteko, lan-prozedurak finkatzeko, 2009tik aurrerako premiazko baliabideak zehazteko.



Esandakoak berehalako bi urteetara mugatuz, ondoko lanei ekingo lioke Joanes Etxeberri Egitasmoak:

1. 2007ko apirila - 2008ko martxoa: EHserako baliabide bibliografikoak prestatuko ditu, gerora ere osatuz joateko.
2. 2007ko azaroa - 2008ko ekaina: EHSren garapen berrietarako eredu eta irizpide metodologiko-kontzeptualak finkatzeko txostena.
3. 2008ko udazkena: Interneten zenbait langai ematen hasiko da Etxeberri Egitasmoa (bibliografia, agiri-bildumaren bat, etab.).
4. 2008ko udazkena: sarrera-ikaslan historikorako lehen urratsak (EHS).

Euskaltzaindiak 2009an ikusiko du, aztertu, frogatu eta egin denaren gain zein segida eman nahi dion lan honi, bere baitan, lehenengo, eta inguruko indarrekin batean, gero (edo aldi bertsuan).

Hau da iradoki eta euskaltzainen eskuetan jarri nahi izan dudana proposamena, Akademiaren jardueran onargarri izan daitekeelakoan.

Bukatzeko (8), A. Rey eta lagunek beren liburuaren atarian eman duten lehen esaldia hartuko nuke Etxeberri Egitasmo honen goiburutzat: etorkizunari adi, oroit-grina batetik jaiotako Egitasmoa da hau (9).

## Bibliografia

(1920...) *Euskera*. Bilbo: Euskaltzaindia.

AKESOLO, L. (1989): *Idazlan guztiak*. Larrea-Zornotza: Karmel.

APAT-ECHEBARNE, A. (1974): *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*. Pamplona: Ediciones y Libros.

ATELA, N. ET AL. (2000): *Pasaiaiko euskararen historia soziala*. Pasaia: Pasaiaiko Udala.

ATXAGA, M. (ed.) (2001): *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena. Sabino Arana Kultur Elkargoaren Jardunaldiak. 2001*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

---

(8) Euskaltzaindiaren osoko bilkuran (Etxalar, 2007-04-21) euskaltzainek egin zizkidaten oharrak eskertu nahi ditut, bukatzeko: eskerrik asko J. L. Lizundia, Tx. Peillen, Aurelia Arkotxa, J.-L. Davant jaun-andreei.

(9) «Ce livre est né d'un désir de mémoire tourné vers l'avenir» (Rey et al. 2007 : I).

- BADIA I MARGARIT, A. M.; ROCA PONS, J. (1958): «Panorama de la lingüística moderna», in: Vendreys 1958: 1-79 (testu originalaren urtea: 1955).
- BALDINGER, K. (1971): *La formación de los dominios lingüísticos en la Península Ibérica*. Madrid: Gredos.
- BRAUDEL, F. (1968): *La historia y las ciencias sociales*. Madrid: Alianza Editorial.
- BRETON, R. (1983): *Géographie des langues*. Paris: PUF.
- BRUNOT, F.; BRUNEAU, C. (1969): *Précis de Grammaire Historique de la Langue Française*. Paris: Masson et C<sup>ie</sup>.
- BYNON, Th. (1977): *Historical Linguistics*. Cambridge: Cambridge University Press. (*Lingüística histórica*. Madrid: Gredos. 1981).
- CALVET, L.-J. (1974): *Linguistique et colonialisme. Petit traité de glottologie*. Paris: Payot.
- (1993): *La sociolinguistique*. Paris: PUF.
- CERTEAU, M. DE; JULIA, D.; REVEL, J. (1975): *Un politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*. Paris: Gallimard.
- CHARTIER, R.; ROCHE, D. (1974): «Le livre. Un changement de perspective», in: Le Goff/Nora 1974: III, 156-184.
- CHEVALIER, J.-C. (1974): «La langue. Linguistique et histoire», in: Le Goff/Nora 1974: III, 130-155.
- CHEVALIER, J.-C.; ENCREVÉ, P. (ed.) (1984): *Vers une histoire sociale de la linguistique*. Paris Larousse. (*Langue Française* aldizkariaren zenbaki berezia).
- CHEVALIER, J.-C.; KUENTZ, P. (ed.) (1972): *Langage et histoire*. Paris Larousse. (*Langue Française* aldizkariaren zenbaki berezia).
- COHEN, M. (1967, 1987): *Histoire d'une langue*. Le Français. Paris: Messidor/Éditions Sociales.
- (1971): *Matériaux pour une sociologie du langage*. Paris: Maspero. (*Manual para una sociología del lenguaje*. Madrid: Editorial Fundamentos, 1973).
- ECHENIQUE ELIZONDO, M. T. (1987): *Historia lingüística vasco-románica*. Madrid: Paraninfo.
- ELGOIBAR, E. ET AL. (1987): *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)*. Iruñea: Pamiela.
- ERIZE ETXEGARAI, X. (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

- (1997a): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863-1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- (1997b): «Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza: Nafarroako euskararen historiaren ezaugarriak (1863-1936)», in: *Bat*. 1997, 26. z., 13-35.
- ESNAOLA, I. (1999): *Lezoko euskararen historia soziala*. Lezo: Lezoko Udala.
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. (1983): *La Sociedad de estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.
- ETCHEBERRI, J. (1907): *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*. Paris: Geuthner. (K. Urkixoren edizioa).
- EUSKALTZAINDIA (1978): *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (1980): «[Euskera:]Aurkibidea. Indice. Index», in: *Euskera*. 25, 1980-1.
- (2001): «Barne-Erregelak», in: *Euskera*. 46, 2001. 2. z., 824-825. Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2006): *Euskaltzaindiaren argitalpenen Katalogoa*. Bilbo: Euskaltzaindia-BBK.
- FISHMAN, J. A. (1971. 1979): *The Sociology of Language*. Rowley: Newbury House. (*Sociología del Lenguaje*. Madrid: Ediciones Cátedra. 1979).
- (1972): *Language and Nationalism*. Rowley: Newbury House.
- (1985): *The Rise and Fall of the ethnic Revival*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- (1989): *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- GARCÍA ISASTI, P. (2004): *La España metafísica. (Lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal. 1891-1936)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- GARGALLO GIL, J. E.; BASTARDAS, M. R. (2007): *Manual de lingüística románica*. Barcelona: Ariel.
- GÓMEZ, R.; LAKARRA, J. A. (1992): *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- GOYHENETCHE, J. (1993): *Les Basques et leur histoire. Mythes et réalités*. Baiona-Donostia: Elkar.
- HUDSON, R. A. (1981): *La sociolingüística*. Barcelona: Editorial Anagrama. (Originala: *Sociolinguistics*. Cambridge: Cambridge University Pres).

- IÑIGO ARIZTEGI, A.; GALÉ GARCÍA, P. (2005): «Euskal corpus onomastikoa», in: *Euskera*. 50, 2005-1, 49-105.
- INTXAUSTI, J. (1985): «Historia, nación y nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar», in: ID.: «Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo». Arantzazu: *Jakin*. 527-540.
- (1998): «Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)», in: ID. (1998): *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Bilbo: EHU.
- IRIGOYEN, A. (1985-1995): *De re philologica linguae uasconicae*. Bilbo: Auteursarenean.
- IZAGIRRE, K. (1998): *Euskararen historia txikia Donostian*. Zarautz: Susa.
- JIMENO ARANGUREN, R. ET AL. (2000): *El Euskera en tiempo de los Euskaros*. Pamplona: Ateneo Navarro (Gobierno de Navarra).
- JIMENO JURÍO, J. M. (1997): *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- (1998): *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamplona: Pamiela.
- KNÖRR, H.; ZUAZO, K. (1998): *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak / El euskara alavés. Estudios y textos*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- LAPESA, R. (1986): *Historia de la lengua española*. Madrid: Gredos.
- LE GOFF, J.; CHARTIER, R.; REVEL, J. (1978): *La Nouvelle Histoire*. Paris: Re-  
tzePL.
- LE GOFF, J.; NORA, P. (1974): *Faire de l'histoire*. Paris: Gallimard.
- LÓPEZ ATXURRA, R. (1987): *Historia, zientzia sozialak eta hezkuntza*. Bilbo: EHU.
- MADARIAGA ORBEA, J. (2006): *Anthology of Apologists and Detractors of the Basque Language*. Reno: University of Reno (Center for Basque Studies).
- MARCELLESI, J.-BTE.; GARDIN, B. (1978): *Introducción a la Sociolingüística. La lingüística social*. Madrid: Gredos. (Frantsesa: Paris: Larousse, 1974).
- MARTÍ, F. ET AL (2005): *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostenak*. Bilbo: EHU. (Ed. ingelesa: *Words and Worlds. World Languages Review*. Clavedon: Multilingual Matters LTD).
- MARTINET, A. (1969): *La Linguistique. Guide Alphabétique*. Paris: Éditions Denoël. (Gaztelaniazko itzulpena: (1975<sup>2</sup>): *La Lingüística. Guía Alfabética*. Barcelona: Anagrama. Hau da eskura izan dudana).
- (ed.) (1987): *Le Langage*. Paris: Gallimard.
- MENÉNDEZ PIDAL, R. (2007): *Historia de la lengua española*. Madrid: Real Academia de la Lengua.
- (ed.) (1935...): *Historia de España*. Madrid: Espasa-Calpe.

- MICHELENA, L. (1985): *Lengua e historia*. Madrid: Paraninfo.
- (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*. Donostia: Seminario Julio Urquijo (Diputación Foral).
- MORENO FERNÁNDEZ, F. (2005): *Historia social de las lenguas de España*. Barcelona: Ariel.
- MOUNIN, G. (1967): *Histoire de la linguistique dès origines au XX<sup>e</sup> siècle*. Paris: PUF. (*Historia de la lingüística, desde los orígenes al siglo XX*. Madrid: Gredos 1968).
- NADAL, J. M.; PRATS, M. (1982): *Història de la Llengua Catalana*. Barcelona: Edicions 62.
- ORPUSTAN, J.-B. (1999): *La langue basque au Moyen Âge (IX<sup>e</sup>-XV<sup>e</sup>)*. Baigorri: Editions Izpegi.
- RÉAU, L. (1961): *La Europa francesa en el Siglo de las Luces*. México: Unión Tipográfica Editorial Hispano Americana.
- REY, A.; DUVAL, F.; SIOUFFI, G. (2007): *Mille ans de langue française. Histoire d'une passion*. Paris: Perrin.
- SAGARNA, A. (1984): «Euskara XVIII. mendean», in: *Hizkuntza eta Literatura*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. III. 17-114.
- SAINT ROBERT, M.-J. (2000): *La politique de la langue française*. Paris: PUF.
- SAINZ PEZONAGA, J. (2000): *El euskera en la Ribera de Navarra*. Pamplona: Pamiela.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. San Sebastián: [Elkar].
- SANCHIS GUARNER, M. (1980): *Aproximació a la història de la llengua catalana*. Barcelona: Salvat.
- SIADeco (1978): *Euskararen Soziolinguistika Azterketa*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Argitaragabea, eta Siadeco 1979-an laburtuta emana).
- (1979): *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- TOVAR, A. (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza Editorial.
- TUSÓN, J. (1982): *Aproximación a la historia de la lingüística*. Barcelona: Teide.
- UNESCO (1977-1981): *Historia de la humanidad. Desarrollo cultural y científico*. Barcelona: Editorial Planeta. 12 t. (Títulu originala: *History of Mankind. Cultural and Scientific Development*).

- URMENETA PURROY, B. (1996): *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- VENDREYS, J. (1921): *Le language. Introduction linguistique á l'Histoire*. Paris. (Hemen gaztelaniazko itzulpena erabili dut: [1958]: *El lenguaje. Introducción lingüística a la Historia*. México: Unión Tipográfica Editorial Hispano Americana).
- YOLDI, P. (ed.) (1996): *Iruña eta euskara. Iruña eta Euskara Ihardunaldiak, 1995eko abenduaren 18tik 200ra*. Iruñea: Iruñeko Udala.
- ZUBIAUR BILBAO, J. R. (2001): *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI (Zaldivia, Garibay, Poza)*. San Sebastian: EUTG.

\* \* \*

## I. ERANSKINA

### Hizkuntzak *L'évolution de l'humanité* (1920...) bilduman

XX. mendeko lehen erdian agertutako obra historiografiko nagusienetako baten aurrean gaude inondik ere, Frantzian eta itzulpenetan argitara emandako bilduma hau hona ekartzean (1920...).

Henri Berr-ek (1863-1954) gidatu zuen hainbat liburukitako sintesi obra erraldoia. Sona handiko historialari frantsesek burutu zuten proiektua, besteak beste Marc Bloch (1886-1944) eta Lucien Febvre-k (1878-1956). Lehenik, *Revue de synthèse historique* (1900) eta geroko *Annales* (1929) aldizkarietan eta azken honetako eskolaren arrastoan eramandako liburu-bilduma izan zen *L'évolution de l'humanité* «Historia Berria» deitu izan dutenaren lehen testuinguruan lekutu behar da, beraz. (Le Goff-Chartier-Revel 1978: 26-32, 78-82, 173-176).

Hizkuntzen historia gogoan izan zuen H. Berr-ek, eta saiatu zen, ongi saiatu ere, historia unibertsal eta orokorrean hizkuntzei beren tokia eman nahi horretan. Asmatu al zuen, ordea?

Hizkuntzaren gertakari historikoari liburuki oso bat eskaini zitzaion: *Le language. Introduction linguistique á l'Histoire* (1921). Badia eta Roca-k esan zuten bezala, bere garaiko obra maisua da J. Vendreys-en liburu hau (10), baina autoreak –oneski jokatu– apenas sartu zen HHSn.

Vendreys-en orrialde horietan azpimarratzekoak dira liburuko bi parte (gaztelaniazko itzulpena dut eskuetan): «Constitución de las lenguas» eta «La escri-

---

(10) J. Vendreys (1875-1960) Sorbona-ko Irakaslea eta indoeuropeista zen, A. Meillet-en ikaslea, eta «Pariseko Eskola» deituan lekutu behar da beraren lana. Ik. Badia-Roca 1958: 44-49, 77-79. Meillet-ek M. Cohen-ekin batera, hizkuntzaren alde sozialez berezikiago arduraturik, *Les Langues du Monde* argitara eman zuen (Paris, 1924).

tura» deritzenak. Eta, era berean, beste pasarte hura: «La variedad de las lenguas refleja la complejidad de las relaciones sociales» (Vendreys 1958: 262-266).

Bilduma-zuzendariaren ahaleginak gorabehera, ez dirudi Vendreys-en lanak Berr gogobete zuenik, hitzaurreko lerro-tarteetan begiratzen bada, behintzat. Vendreys linguista handiaren lana ez zen heldu zinezko HHSeraino, baina Linguistika historikoaren zenbait aztergai arretaz begiratu zuen (11).

Gero, geratutako hutsunea partez bederen bete nahirik edo, frantsesaren unerik jasoeneko historiari eman zion lekua bildumak, izenburu esanahitsu bat erabiliz: *L'Europe française au Siècle des Lumières*. Hemen, bai, bete-beteaz aztertu zen XVIII. mendeko frantsesaren historia soziala, batez ere berorren tesuinguru politiko-kulturala Europan nola gauzatu zen aurkeztean (Réau 1961). Baina, bistan da, horrek ez zuen betetzen zabalagoa zen HHSren bildumako hutsunea.

Horregatik ere, hurrengo belaunaldiko historialari frantsesek gogoz helduko zioten gaiari, historia linguistiko eta sozialaren arteko hurbiltasun eta aldeak berriro auzitegira ekarriz, edo, adibidez, Mendebaldeko liburuaren historiari ekinez (Le Goff-Nora 1974: III, 130-155, 156-184).

1970.enerako urteek bihurtu nabaria ekarri zuten Frantziako historiografian, hizkuntzaren alde sozio-politikoak bilatzean (Certeau-Julia-Revel 1975; Calvet 1974), eta horrek gurean ere bere oihartzuna izan zuen (Euskaltzaindia 1978: 103, 108-109). Kolonialismo ondoko estualdi berrietan (ingelesa da orain lehiakidea), frankofoniaren balioei heldu behar izan zaienean, historialariek ere aurkitu dute HHS zer esanik, eta bibliografia ugari dator orain nahi duenaren eskuetara (adibide arrunt bat: Saint Robert 2000).

## II. ERANSKINA

### **Euskararen Historia Soziala Euskera Agerkarian (1978-2006)**

Akademiaren aldizkari ofizial hau da Euskaltzaindiak berak eta beronen lankideek Euskararen kanpo-historiaz erakutsi duten arduraren begiratzeko tresna eroso bat. Eranskin honetan, batez ere *Euskararen Liburu Zuria* agertu zenetik hurrengo hogeita hamar urteko epea hartzen dut gogoan. EHSren alorrean

---

(11) Ohar bat hemen: Frantziako historialarien tradizio intelektualean zabarkeria handia egon da HHS historia orokorretan emateko: begira nolako ekarpen eskasak dauden historialari profesionalentzat argitaratutako *Nouvelle Clio. L'histoire et ses problèmes* dozenaka liburu dituen horretan (Paris: PUF. 1960. hamarkadatik dator, aurreko argitaraldiak berrituz). Baina, bestalde, Calvet-ek espresuki ohartarazi du nola Soziolinguistikaren sortze-erroetan Linguistika frantsesaren tradizioa ere badagoen, Meillet-enganetik hasi (1866-1936) eta W. Labov-ganaino (1976) (Calvet 1993: 4, 6-9).

egindako lan horretan hutsuneak daude, noski, eta sistematikotasuna falta da, baina, era berean, burututako lana gogoan izatekoa da.

Aipatu liburu horren aurretik ere eta aldizkariaren *Aurkibideetan*, hurrenez hurren ondoko gai eta albiste soziolinguistikoak ageri zaizkigu, esaterako: has-teko, Euskaltzaindiaren historia bera, alfabetatzearen (1972) eta bertsoaritzaren historiak (1956-1967), «Bai Euskarari» kanpaina (1978), literatura sariketak, irakasle-tituluen ardura (1972), elebitasuna kazetaritza eta komunikabideetara eram-an beharra, hezkuntza eta eskola-liburugintza, Nafarroako euskararen egoera, Erakundeekiko eta atzerriarekiko harremanak. (Euskaltzaindia 1980: 213-235 eta 238-239, 239, 183-184, 242, 240-242, 237, 264-276 hurrenez hurren):

Agerkaria Euskaltzaindiaren historia ezagutzeko albistegi bazter ezina da, lehen eskukoa eta aberatsa. Erakunde akademikoa bera da xx. mendean daukagun euskararen EHSeko kapitulu oso bat: euskaltzain, euskal ospakizun soz-ial, euskalarien mendeurren, batzar akademiko ireki, Erakundeekiko harre-man eta abarren albisteak *Eusker*a-n topa daitezke. Azken urteetan *Bidegileak* bildumak (Eusko Jaurlaritza. *Eusker*a 38, 1993-3, 659-671) egiten duena be-tidanik egin du, bere gisara, Euskaltzaindiak, agerkariaren bidez, eta altxor biografiko zabala dago berorren orrialdeetan.

EHSk badu lekurik *Eusker*a buletin akademikoan, azterlanetan bezala be-riemateetan: hala nola, balio sozial bereziko gertakarien albisteak jasotzean (ele-bitasun-agindua, 1979; Santamaria eta Baxok: euskara eskolaratzea, 1979, 1999); Erakunde akademikoaren barne-historia aurkeztean (Antolaera berria, 1978).

Ohartxo bat, hainbat Mendeurren tarteko dela, herrietan egin izan diren ekitaldietako langaiei buruz: gure idazlegoaren eta euskaltzaletasunaren histo-riaz langai aberatsez jantzirik egon dira horrelako ospakizunak. Errenka luzea osatzen dute (mende-laurden batean badaude 75 ospakizun behintzat) (12). Hona 1979az geroztik antolatutako diren ospakizun-jardunak, herriz herri, ur-tez urte eta ospakuntzaren arrazoia adierazita:

Arrasate, 1979: Altube; Bera, 1980: Euskal Jaiak; Urraul Goiti, 1980: Aita Adoain; Lakuntza; Alegria; Donaxiti-Ibarre, 1982: López; Markina, 1983: Lore Jo-koak; Azkaine, 1983: Zerbitzari; Iruñea, 1984: Campión; Donostia, 1984: Etxaide; Bilbo, 1985: Aresti; Donostia, 1985: Peñafiorida kondea; Lekunberri, 1986: Intza, Oieregi, Donostia; Barkoxe, 1986: Topet-Etxahun; Baiona, 1987: *Eskualduna*; Ei-bar, 1987: T. Etxebarria; Bilbo, 1988: Euskal Katedra; Bidarra, 1988: Oxobi; Ui-tzi, 1988: Orix; Getxo, 1988: Amezaga; Bilbo, 1988: Durango eta Zumarraga; Bi-llabona, 1989: Ubillo; Bilbo, 1989: Trueba, Estefania; Iruñea, 1989: Agerre, Urmeneta; Bilbo, 1990: Novia de Salcedo, M. Arruza, G. Manterola; Zarautz, 1990: G. Arrue; Andoain, 1991: Larramendi; Sara, 1991: Elizanburu; Oñati, 1993 eta Donostia, 1994: Euskaltzaindiaren 75. urtea; Iruñea, 1994: Etxenike; Oiartzun,

(12) Euskaltzain berrien sarrera-hitzaldi eta erantzunek ere euskalari eta euskaltzaleen, eta tokian tokiko hizkeren albisteak ugari eman izan dute. Oraingoz begiratzeke uzten dut hori.



1994: Herri-literatura; Donostia, 1994-1995: Euskaltzaindiari Urrezko Domina; Bilbo, 1994: Villasante; Gasteiz, 1994: Olabide eta abar; Miarritze, 1994: Lhande; Aramaio, 1995: G. Jauregi; Heleta, 1995: Anaia Elizanburu; Legazpi, 1995: Bähr; Zarautz, 1996: Lizardi; Sohüta, 1996: Belapeire; Erreterria, 1996: Jautarkol; Iruñea, 1996: B. Etxepare; Tolosa, 1996: Aitzol; Azkoitia, 1997: Arana; Iraizotz: Aita Polikarpo; Hendaia, 1997: Abbadia; Azkoitia, 1998: Aizkibel; Areatza, 1998: Añibarro; Doneztebe, 1998: *Euskalegunak*; Markina, 1998: J. A. Mogel; Tolosa, 1998: Labaien; Zumaia, 1998: Tx. Agirre; Aramaio, 1999: *Euskal Jaiak*; Legazpi, 2000: G. Bähr; Zizur Txikia, 2000: *Nafarroa Oinez* dela eta; Lekeitio, 2001: Azkue; Luhuso/Uztaritze, 2001: Lafitte; Lodosa, 2001: toponimia, legeria; Mendata, 2001: Gandiaga; Arantzazu, 2002: frantziskotarrak; Tutera, 2002: idazle nafarrak; Hernani, 2003: Kardaberaz; Laudio, 2003: F. Belaustegigoitia; Mirandako Arga, 2003: Karrantza (13); Bilbo, 2003: S. Arana; Atharratze, 2003: Intxauspe; Lezama 2004: Zarate; Larresoro, 2004: Harriet; Lizarra, 2004: euskara eskualdean; Barrundia, 2005: Perez Lazarraga; Irisarri, 2005: Laphitz eta Arbelbide; Mungia, 2005: Lauaxeta; Altsasu 2005: *Nafarroa Oinez*-en; Urnieta, 2006: P. Muxika; Elantxobe, 2006: Ibinagabeitia, Berriatua, Renteria; Zaldibia, 2006: F. I. Lardizabal.

Ospakizunetatik at, ez da falta izan Jardunaldi berezietan EHS aztertze-ko aukerarik, hainbat aztergai argitara ekarriz:

- emakumearen eta euskararen arteko loturak aztertzean (1982);
- Elizaren eliza politika arakatzean (Donostia, 1980: *Itun Berri* bateratua; Hendaia, 2002: Baionako diozesiaz; Irunberri, 2003: Nafarroakoaz; Gasteizkoaz, 2004: Araba eta Euskal Herriko Elizaz, orokorrean; Bilbo, 2005: Bizkaiaz);
- bertsolaritzaren iraganaz eta jardunaz albisteak jasotzean (1980);
- Euskal Jaien oroitzapena berritzean (Elizondo, 1979; Bera, 1980; Aramaio, 1999);
- euskalaritzaren nazioarteko komunitate zientifikoaren albisteak eskaintzean (Bilbo, 1980).
- zuzeneko ikerlan gutxi-asko historiko soziolinguistikoak ez dira falta: Arabaz (Ibiate, 2001), Nafarroako Erriberaz (Sainz, 2001), Villaverde Turtzios-*ez* (2004), Estelleriaz (2004).

Horien ondoan ez dira alboratu uztekoak Euskaltzaindiarekin herri literaturaz arduratu direnenak, hizkuntzaren azalpen sozial hau errealitate zaharra eta belaunez belaun berritua izan baita, gure egunak arte. Aipa ditzadan, bada, han-hemen banatutako ikerlanen ondoan, Akademiak eratu dituen herri-literaturari buruzko jardunaldiak (1989, 1992, 1995, 1996, 1998, 2000, 2002, 2005). Izan ere, hizkuntzaren presentzia sozialaren aldetik, zer dago hiztunen espaintan ahozko literatura landua baino ezer gizartekoagorik?

---

(13) *Euskera* agerkarian bi ataletan emanda daude orduko lanak: 2003, 181-197, 583-598.

Toponimiarekiko lan erraldoiak ahaztu gabe (*Onomasticon Vasconiae*), EHSK badu noski *Euskera*-n zenbait idazlan xumeago zuzenean alde historikoa lantzerantz joan dena, edo azken orduko egoera deskribatu diguna:

- Muniategi-ren Konstituzioarekikoa (1989),
- Lizarrerri (Satrustegi, 1991),
- Araba (1990) eta Zigoitiako euskal historia (1993),
- edo *Jagon* Sailak sustaturik Nafarroako egoeraz prestatutako idazlanak, azalpen ofiziala eta Euskaltzainburuak Gobernuburuari bidalitako gutuna (2001: *Euskera*. 46, 2001-1, 331-381) (14),
- Frantzia Euskaltzaindiak duen lege-egoera (2005), etab.

Zenbaitetan, EHSetik urrun suma zitezkeen gaietan ere, historia soziala baino gehiagotan bistaratzen zaigu: «Euskal azentu eta ebakeraz» Donostian 1986an egindako Jardunaldietan, adibidez, gizartean indarra hartuz zetozen eredu estandarren nondik norako sozialak ere begiratzen baitziren.

Errealitate sozio-politikotik gertuago ageri da, oster, Euskaltzaindiaren beste zenbait azalpen. Hala nola:

- «Declaración sobre el Anteproyecto de Ley del Euskera en Navarra» (1985; *Euskera*, 1986), Nafarroako Irratien baimenen arazoak (1990, 1997), Nafarroako Parlamentuaren Erabakiaz (1994), Nafarroako Epaitegiko auziaz (1994), Nafarroako Epaitegiarenaz (1997);
- Frantziako Estatu Kontseiluaren iritziaz (1997);
- antzeko ardura sozialekin eman zuen bere sarrera-hitzaldia A. Urrutia euskaltzainak, legearen munduan euskarak bidea nondik urra zezakeen aztertuz (1998);
- eta esparru bertsuan aritu ziren E. Baxok Iparraldeaz (1999, 2001), A. Iñigo, A. Urrutia eta J. C. Alli Nafarroaz (2001, 1999), eta Euskaltzaindia bera Nafarroako Unibertsitateko Errektorearekin harremanetan (2001: Euskaltzainburuaren gutuna),
- berau egon zen, gainera, Eusko Legebiltzarrean (2003), eta hor dago Nafarroako Euskara Kontseiluari egindako azalpena (2003).

Esan behar da, gainera, 1994an *Jagon* Sailak Jardunaldi monografiko bat eskaini ziola, hain zuzen, Hizkuntzen eta Euskararen Soziolinguistikari, galiziera eta katalana gogoan hartuz eta Administrazio, Hezkuntza eta Komunikabideetako euskararen lorpen eta egitekoak aztertuz; azpimarratzekoa da, gai-

---

(14) Nafarroako euskalkiei ere eskaini izan die Euskaltzaindiak Jardunaldi berezirik (Iruñea-Uharte, 2004).

nera, Akademiak Jardunaldien bukaeran aurkeztu zuen ondorio-agiria (*Euskera*. 39, 1994-1, 33-277). Jardunaldi haiek lehenago *Euskararen Liburu Zuria*-n agerian jarritako kezka bertsuak ageri dituzte: oraingoan hizkuntzaren segidana-hiari berorren zuzentasunarena gehitzen zitzaion (15). Kalitatearen hau indartuz joango da Akademian (Zubimendi, 1997; Zuazo, 1999), *Jagonet* zerbitzua sortuz (1999).

Nabaria da euskara batuaren eta euskalkien munduan gogor lan egin dela, eta hainbat idazlan dago hona ekar daitekeena. Atlas-erako lanen berri emanda dago (B. Oyharçabal) eta dialektologiako lanak aski ugari datoz. Toponimia bezala dialektologia hizkuntzaren geografia historikoa marrazteko lan-gaiak sortzen ari dira.

\* \* \*

### III. ERANSKINA

#### SIADeco: soziolinguistikako lanak (1967...)

1967. urtetik hona (16), hainbat dira SIADeCOK (17) soziolinguistikaren alorrean eta eremu geografiko desberdinetan egindako proiektuak gai eta metodologia ezberdinak erabiliz (18).

Jarraian, soziolinguistikaren zenbait eremutan SIADeCOK egindako proiektu batzuk aipatuko ditugu, argibide argigarri modura:

- Ikerketa soziolinguistikoko orokorrak. Eremu honetan, metodologia desberdinak aplikatuz (inkestak, dinamika kualitatiboak, behaketa zuzena...) euskararen egoera orokorra aztertu da dagokion eremu geografikoan. Hona hemen adibide batzuk: Tolosaldea (1978), Tolosa (1983), Irun (1983), Basauri (1985), Iruñea (1986), Donostia-San Sebastián (1986), Vitoria-Gasteiz (1986), Bilbo (1990), Errenteria (1990), Iparraldea (1987, 1991), Getxo (1994), Barañain (1996), Hendaia (1999), Usurbil (2003).

(15) Norabide bertsuan doa, noski, A. SAGARNA-ren hura: «Lexiko-berrikuntzaren antolamendua zenbait herrialdetan». *Euskera*. 32, 1987, 165-184. Aipatzen diren kasuak hauek dira: Bangladesh, Egipto, Etiopia, Filipinak, Finlandia, Indonesia-Malaysia, Israel, Québec, Katalunia, Norvegia.

(16) Txosten honen osagarri gisara, aberasgarri eta argigarria iruditu zait SIADeCOK-en albiste laburtu eta trinko hauen osorik ematea. Eskerrik asko SIADeCO berari, laguntza hau eskaintzeagatik; hitzez hitz berea du testua.

(17) Siadeco = Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario.

(18) Proiektu hauen bezero sustatzaileak izaera eta eremu desberdinetakoak izan dira: udal-letxeak, eskualde mailako mankomunitateak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurilaritza eta izaera desberdineko erakunde pribatuak (komunikabideak, hezkuntza alorreko eragileak).

- Euskararen erabilera errealaren nahiz hizkuntza paisaiaren inguruko neurketak. Euskara mintzatuaren erabilera erreala neurtzeko eta baita hizkuntza paisaian hizkuntzek duten presentzia aztertzeko, SIADECOK metodologia propioa asmatu eta aplikatu du. Hona hemen adibide batzuk: Donostia (1991-1995), Lekeitio (1993), Getxo (1994), Irun (1995), Amorebieta-Etxano (1997), Elgoibar (1999), Hendaia (1999), Andoain (2000), Hondarribia (2000), Lazkao (2001), Zarautz (2005), Ibarra (2005), EAEko hiri paisaia (2007).
- Gazteak eta hizkuntza normalizazioa. Hainbat dira gazteen artean hizkuntzaren egoera aztertu eta planifikatzeko egiten ditugun proiektuak. Hona adibide batzuk: Tolosa (1989, 2000), Donostia (1992), Orio (1992), Erreterria (1997), Villabona (1999).
- Hizkuntza normalkuntza hezkuntzaren esparruan. Irakaskuntza eta hezkuntzaren eremuan hizkuntza sustatzeko egindako proiektuen adibide batzuk honakoak dira: Euskalduntze-alfabetatze mugimenduko irakasleak eta euskara batua (1978), Euskararen irakaskuntzaren azterketa prospektiboa Urolan (1981), Euskara irakaskuntzan: faktoreen E.I.F.E (1984), Euskara Donostiako Ikastoletan (1985), Hizkuntza gaitasuna eta eredu linguistikoak Lea-Artibain (1986), Iparraldeko Ikastolen eta Sesaska Elkartearen egoeraz azterketa (1987), EHU-ko Zuzenbide Fakultatean irakaskuntza elebidunaren balantzea (1993), Iruñako Ikastoletan euskara sustatzeko plangintza (1994), DLH mailako «B» ereduko ikasleei buruzko azterlana (1999), Ikastoletan hizkuntza gaitasunaren aurrerapen maila neurtzeko testa (2005).
- Aisialdi elkarteetan eta eskola orduz kanpoko eremuan hizkuntza normalkuntza sustatzeko proiektuen adibide batzuk: Donostia (1993), Lasarte-Oria (1999), Pasaia (1994), Erreterria (1996), Sakana (1996), Uribe Kosta (1997), Arrigorriaga (1998), Lazkao (2001), Elorrio (2001), Erandio (2002), Hondarribia (2002), Leioa (2003), Durangoko Merinaldea (2004), Azpeitia (2006).
- Lan munduan hizkuntza normalkuntza sustatzeko proiektuak. Alor honetan garatutako proiektuak izaera desberdinekoak izan dira:
  - enpresetan eta eremu sozioekonomikoan oro har, euskararen erabile-  
ra areagotzeko azterketak eta planak: Andoain (2000-2002), Tolosa  
(2000, 2003), Hernani (2000), Eibar (2001-2005), Pasaia (2001),  
Erreterria (2001) Lasarte-Oria (2000-2001), Deba (2001), Orio  
(2001), Ibarra (2001), Villabona (2000, 2003), EAE (2004), Honda-  
rribia (2004-2006), Galdakao (2006), Leioa (2006), Azpeitia (2006).
  - Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea. Alor zehatz honetan  
aspalditik ari da SIADECO egitasmo desberdinak bideratzen. Hona he-  
men adibide batzuk: Donostia (1992), Bergara (1993), UEMA-ko uda-

lerriak (1994), Malerreka (1996), Vitoria/Gasteizko merkataritzagunea (1998), Oarsoaldea (2002-2003), Arrigorriaga (2003), Erandio (2003), Iruñerria (Atarrabia, Berriozar, Burlata, Barañain, Huarte, Zizur Nagusia (2003), Getxo (2004), Tolosa (2004), Eibar (2005), Lasarte-Oria (2004), Hernani (2004), Andoain (2004), Ordizia (2005), Galdakao (2006), Bilbo (2006), Irun (2006), Villabona (2007), Leioa (2007).

- Kirolean hizkuntza normalizazioa sustatzeko proiektuak. Hona hemen adibide batzuk: Donostia (1993), Gipuzkoako Kirol Federazioak (2001), «Kirola Euskaraz» egitasmoa EAEn (2001), Gipuzkoako kirol jarduerak (2004), Getxo (2005), Hondarribia (2005), «Kirola Euskaraz» Programa Bidasoa Beherean (2006).
- Euskarazko komunikabideen nahiz euskararen sustapenerako kanpainen inguruko proiektuak. Hona hemen adibide batzuk: ETB-ko telesail eta filmeen bikoizketan hizkuntza eredu egokien definitzeko azterketa (1991), «Irutxulo» aldizkariaren harpidedunei buruzko azterketa (1996), *EiTB* Taldearen komunikabideen estaldura eta kontsumoari buruzko ikerketa Nafarroan eta Iparraldean (2000), Irutxulo eta Gaztetxulo aldizkariaren bideragarritasun plana (2000), Argia aldizkariaren merkatu ikerketa eta marketing plana (2001), *EiTB*-ren ikus entzuleria euskaldunari buruzko ikerketak (1993-2005), komunikazio egoeren azterketa eta kanpaina baten inpaktu neurtzea Gasteizen (2005).
- Hizkuntza normalkuntza alorrean aitzindariak, berritzaileak izen diren proiektuak:
  - Euskararen Azterketa Soziolinguistikoa Euskal Herrian (1978).
  - *Euskararen Liburu Zuria* (1978).
  - Euskara Batua irakaskuntzan (1978).
  - *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* (1979).
  - EAeko Soziolinguistikazko mapa (1988).
  - Euskararen Familia bidezko transmisioa EAEn (1993).
  - Euskararen inguruko diskurtsoen eraiketari buruzko azterketa kualitatiboa, Nafarroan (1999).
  - Nafarroako 12-16 urte bitarteko gazteen artean, euskararen erregistro informalen ezagupena eta erabilera sustatzeko proiektua (2000).
  - Euskararen Plan Nagusia Bilbon (2004).
  - EAeko esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko azterketa kualitatiboa (2004).

- EAEko hizkuntza paisaiaren analisi eta planifikaziorako marko teoriko eta metodologikoa eraikitzea (2004).
- Euskararen sustapenerako EAEko aurrekontu publikoen analisia (2002, 2005).
- Ikastoletan hizkuntza gaitasunaren aurrerapen maila neurtzeko testa (2005).
- Hizkuntza normalkuntzarako aholkularitza tekniko integrala: Donostia (1992), Azpeitia (2005), Gipuzkoako Foru Aldundia (2004, 2005, 2006).
- Dimensio handiko inkesta soziolinguistikoak: EAEko erdaldunei inkesta (2001), Iparraldeko biztanleriari inkesta (2007).
- Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen ikerketa soziologikoa (2007).

# AHOZKO ONDAREA BILTZEKO EGITASMOA

## Euskaltzaindia: Dialektologia Batzordea

*Adolfo Arejita,  
Dialektologia Batzordearen zuzendaria*

### 1. EGITASMOAREN ARRAZOIAK

Euskal hizkuntza bere osotasunean hartzea da Euskaltzaindiari dagokion eginkizuna. Ertz askotatik ora dakioke hizkuntzari, eta besteak beste, ondarea den aldetik, kultura ondarea eta euskal kulturaren ondarea den aldetik, alegia.

*Kultura ondare* hitza dantzugunean, errealitate material eta fisikoak datozkigu gogora berehala: arte monumentuak, arkeologi aztarnategiak, pintura-lanak, museorako objektuak... Eta hizkuntza ondareztat jotzen dugunean ere, gehienik gogoan ohi ditugunak paper euskarriz guganatu diren izkribuak dira: eskuizkribuak, edizio zaharrak eta halakoak.

Ahozko hizkera bera edo haren edukiak eurak ere –lexiko, fonetika, morfologia edo sintaxi mailakoak direla– ondareztat hartu ohi dira idatziz finkatzen diren neurrian, eta batez ere, literaturan txertatzen diren neurrian.

Bada, ostera, ondareztat hartu beharreko hizkuntza errealitate bat, ukietuzin eta ikusezin dena: belanez belan jaso dugun ahozko altxorra. Ondarea, ez dugu esango hizkuntza bera bakarrik denik, ezpada hizkuntza horren bidez transmititu zaigun ondasun zabalagoa: esaera zaharrak, ipuinak, sinesmen eta sineskerak, pasadizoak, jokoak, kantuak... *Ondare* kontzeptutik kanpora egon da luzaroan errealitate hori, bazterturik, nahiz guztiok jakin, herri baten izate osorik ez dagoela hori barik.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1990. urtean Eusko Jaurlaritzak onartutako Ondareari buruzko Legeak barruan jaso zuen ondarearen izaera zabalago hori. Lege horren bosgarren kapituluko ondare etnografikoari dagokion 53. artikulua hau diosku:

*gauzakoez besteko etnografi ondasunak hara nola, ekandu, ohitura, sor-kuntza edo jokaerak, hauek aurkitu daitezkeeneko gauzako aztarnak baino garrantzikoago direnak, lege honen arabera gaitasunaren jabe den Administrazio-*

*ak zainduko ditu*, horretarako, horien ikerketa eta bilketa zehatz horiek etorkizuneko belaunaldienganaino ailegatzea bermatuko duten gauzazko euskarrietan egitea sustatuz.

Euskaldunon kasuan ere, gure hizkuntza gertatu da gure jendearen eta gure giza taldeen kultura ondarea bideratu duena, belaunaldi batetik bestera eta ahoz transmititu duena. Gurasoek euren seme-alabei irakatsi dizkiete euren uste-sinesteak, baloreak, ohiturak, ikusmodeak, jokabideak.

Baina ahozko transmisio bide hori eten egin da neurri handi baten, batez ere gizartea aldaketa sakonetan murgildu den unetik. Eta gizartean gertatu diren aldaketa sakonen artean, transmisio bideak eurak aldatu dira batez ere: lehen etxean gurasoetatik ikasten zirenak gaur eskolan irakasten dira, eta familiak betetzen zuen sozializazio funtzioa gaur eskolek betetzen dute. Hedabideen eragina ere hor sar daiteke: ikus-entzunezkoak, paperezkoak zein digitalak direla.

Horren ondorio zuzena da, mendeetan zehar herri-pentsamoldea osatu duten elementuak, lehen gure aurretikoengandik modu naturalez hartu izan ditugunak, desagertzeko zorian gertatu izana.

Transmisioaren etena gure kasuan beste gizarte batzuetan baino biziagoa izan da. Arrazoi askogatik, baina hizkuntzaren aldetik; gure gizarteak aldaketa sakonok ezagutu dituen garaian, gure hizkuntza beste batzuk baino egoera ahulagoan gertatu delako gizarte mailan. Horrezaz gainera, euskal gizarteak ezagutu eta jasan duen aldaketa-prozesua bizkorra eta sakona izan da era batera: jendearen bizimodua erabat aldatu da; bizimodu modernoak tradizionala ito egin du. Eta oro har, tradiziozko ogibideak, lan-prozesuak, ohiturak, sinesteak, lexikoa..., azkenean mundu oso bat joanez doa, eta horrekin batera gure hizkuntza zaharraren alderdi handi bat.

## 2. ORAIN ARTEA EGIN DENAZ

Euskaltzaindiak berak lan handia egin du orain artea ahozko ondarea jasotzeko ahaleaginean. Beste ekinbide garrantzitsu eta ugarietako ezer kendu barik, EHHA-z ari naiz zuzen, Euskal Hizkuntzaren Atlasa delakoaz. Altxor handi hori jasorik dago: bozak grabaturik daude, esanak transkribaturik eta material guztia metodologia zehatz baten arabera sailkaturik. Hor jasorik dagoen eduki zabal-ugariak galtzeko arriskurik ez du honezkero. Etortzekoa etorriko da, baina altxorra altxor.

Egitasmo hori bideratzeaz jadetsi den eskuratze-lana gaur ezinezkoa izango zen. Bilketa egin zenetik urteak joan dira, ia hamarkadak; eta orduko informatzaileetarik asko hilak dira; haien lekukotasunik ez dugu gehiago, bildurik dagoena baizen. Altxor horren jabe da Euskaltzaindia, eta gurekin batera Euskal Herria eta euskal gizarte osoa.



Ondare horrek baditu muga batzuk, hizkuntza atlas bati dagokion alde-  
tik: hitzetan oinarritua dago gehienbat –gramatikan ere zati bat–, edo zehaz-  
kiago esanda, esparru tematikoetan. Kontzeptu jakin bat adierazten duten hi-  
tzak euskararen eremu osoan zein diren biltzea du irizpide eta lehenasun.  
Baina bide batez esan barik ezin utz daiteke, hitzen arrimura ingurune abera-  
tsa jaso dela, nolabait «etnotestotzat» jo daitezkeenak: hitzonguruko azal-  
pen-argibideak, erabilera-kontestuak, bide batez batu diren zenbait sineste, ohi-  
tura, esaera, errefracu, e.a.

Beste erakunde eta ikertzaile batzuk ere badira ahozko materialaren eremu  
horretan jardun dutenak. Unibertsitateetan doktoretza-tesi ugariak defenditu  
eta argitaratu dira azken hamarkada bietan –nahiz jasotze-lana gehienetan ida-  
tziz egin den–. Unibertsitate batzuetan entzutezko edukiaren banko informati-  
koak ere sortu dira eta ahozko material hori sailkatzen dihardute.

Osterantzeko erakunde batzuk ere badira lan meritugarria egiten dihar-  
dutenak: batzuk etnografiaren tradizio ikuspegitik, beste batzuk gizarte mun-  
du modernoagoaren ikuspegitik. Baina funtsean guztiok dute ardatz bat: ahoz  
transmitituriko edukiak dira gorde eta sailkatzen dituztenak; ahozko materialaren  
biltegi antolatuak prestatzen dituzte. Bestetara esanda, idatzizko biblioteken  
paralelo diren biblioteka modernoak sortzen ari dira: oraltatearen biltegiak.

### **3. EGITASMOAREN NORABIDEA ETA EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA**

Ahozko transmisioaren ondarea modu sistematikoz eta metodologikoz ba-  
tzeko plan bat abian jartzea da gure asmoa. Euskaltzaindia ere partaide izatea  
«errekuperatze» lan horretan.

Zergatik Euskaltzaindia sartu zeregin horretan?

Arrazoi diferenteak dira:

- a) Euskararen eremu osoa hartzen du bere barruan. Eremu osoko kide,  
laguntzaile eta ordezkariak ditu. Beste inork baino errazago izan de-  
zake informatzaile interesgarrien berri eta eurekiko ezaupideak egite-  
ko bide erraza.
- b) EHHA egitasmoa egiterakoan esperientzia aberatsa irabazi da: bilke-  
ta nola egin; edukiak nola sailkatu, transkribatu eta gorde; programa  
informatiko beren-beregikoak nola prestatu, materiala sailkatu eta us-  
tiatu ahal izateko.
- c) Euskaltzaindia euskal biblioteka eta artxibo aberatsen jabe da, horre-  
tan ere biltze eta katalogatze-lanetan luzaroan saiatua delarik.

- d) Euskararen inguruko ondare ahalik eta osatuena jasotzea Euskaltzaindiaren eginbideen artean dago, hor idatzizkoa ez eze, ahozkoa ere sartzen dela.
- e) Ondare hori jagon eta batez ere hurrengo belaunaldietara transmititzeko bidea bermatzea ere badagokio gure erakundeari.
- f) Ahozko hizkuntzaren erreferentzia ezinbestekoa izango du geroari buruz: bai hizkuntza-ereduaren inguruko erabakiak hartzeko, bai ikerketan eta ikerketa-ildo berriak urratzeko. Bigarren honekin, gure erakundearen etorkizuneko ikerketetarako proiektzioa zabaltzea bilatzen da.
- g) Euskal gizartean Euskaltzaindiak duen begiruneari esker, han-hor-hemen egon daitezkeen lehenagotik jasoriko ahozko material partikularrak ere errazago bil daitezke gure erakundera, baldin guk halako «Ahozkotasunaren Biltegi» antolatu eta ezagutua badugu, gizarteari eta ikertzaileei halako berme sendo bat eskainiko diena.

## 4. ZER, NON ETA NORI JASO

### 4.1. Eremua

Non egin bilketak, edota nondik hasi horretan, urtekako planen bidez zehaztuko da, lehentasunen arabera.

Euskalki eta hizkera diferente guztiak kontutan hartuko dira, baina lehentasuna emango zaie bazterretakoei edo galtzeko arriskurik gehien duten hizkeren eremuei.

Lekuko kalitatea eta interesgarritasuna izango da beste irizpide fidagarri bat: edonongoa edo edozein hizkeratakoa dela ere, lekuko «pribilegiatu» baten berri dugularik, lehentasuna emango zaio.

Euskaltzaindiaren esku norbaitek utz lezakeen entzutezko materiala, behar adinako kalitate neurria badu eta gutxieneko baldintzak betetzen baditu, edozein hizkeratakoa dela ere Ondare Biltegi horretan sartuko da, katalogatu ondoren.

### 4.2. Lekukoak

Lekuko edo informatzaile fidagarriak bilatuko dira betiere. Herri bat plan barruan sartzen delarik, hango azpieuskalkia ordezkatzan duen informatzaile-kopuru gutxieneko bat bilatuko da; egoera soziolinguistikoaren arabera, handiagoa edo txikiagoa.

Lekukoen kalitateari jaramongo zaio: oroimen onekoak eta solastunak diren; berbertakoak diren; bizimodu edo lanbide jakingarrietan ibiliak diren, besteak beste.

Lekuko bakoitzari, kalitate oneko gaia eskaintzen duen kasuan, 10 bat orduko grabazioa egin dakioke.

### **4.3. Gaiak**

Lekuko bakoitzarekin erabiliko diren gaiak bakoitzaren berezitasunen arabera zehaztuko dira, guztien bizipenak ez baitira berdinak eta nork bere biografia berezia baitu.

Hala ere, Jose Migel Barandiaranek Euskal Herriko Atlas Etnografikorako eratu zuen gidan oinarrituriko galdetegi edo galdera-zerrenda bat har daiteke abiapuntutzat, hoberik ezean.

Ondoko gai-arloak izenda daitezke: eguneroko bizimodua, lanbideak, urte-sasoiei loturiko ohiturak eta ekintzak, lehenagoko gertaerak, ipuinak, esera zaharrak, kantuak.

## **5. JARDUERA**

### **5.1. Grabazioa eta filmatzea**

Grabazioak izango dira ondarearen oinarria. Kasu batzuetan filmatzea ere egingo da, interesgarri ikusten den neurrian.

Grabazioak leku eta egoera desberdinetan egingo dira: etxe barruan, kanpoan, lanean edo beste kontesturen batean. Horrela gai bakoitzaren gaineko informazioa eta testuingurua ahalik eta egokien jasotzea bilatuko da.

## **6. BALIABIDEAK**

### **6.1. Giza baliabideak**

Dialektologia Batzordea arduratuko da egitasmo honen bidetik, lehenengo Plan Orokor Zehatzago bat idazten, eta ondoren hori gauzatuko duten Urteroko Ekintza Planak zehazten.

Jardun-eremu honetatik hurbil dauden beste batzorde batzuekiko lankidetzatza bilatzea ere komenigarri ikusten da Euskaltzaindi barruan; Herri literaturakoa edo besteren bat dela.

Herri-hizkera eta herri-jakintza gaietan zaletasuna eta esperientzia duen pertsona batek, ordukako dedikazioaz oraingoz, ardura zuzena hartuko luke, zehaztutako plana abian ipini eta gauzatzeko.

Informatika zerbitzuaren laguntza beharko da programa informatiko be-  
reziak egokitzeko eta eguneratzeko.

Biblioteka eta Artxibo zerbitzuaren laguntza beharko da materialok kata-  
logatu, gorde eta kontserbatzeko.

## **6.2. Diru baliabideak**

Urtean-urtean zein lurraldetan eta zein eskualdetan lan egingo den, lu-  
rralde horretako administrazioekin diren hitzarmen ohikoetan, edota leku ba-  
koitzerako egin daitezkeen hitzarmen berezien bidez, zuzenduko da kasuan ka-  
suko diru ornidura.

## **7. ONDAREAREN ARGITARATZEA**

Egitasmo hau aurkezterakoan, oraingoz ez da zehaztuko Ahozko Ondare  
hori nola agerira eman. Aurreragoko plan zehatzagoen bidez finkatuko da noiz,  
zer, nola eta zein laguntzaz bideratu eduki jakin bat.

Antzeman daitekeenez, era askotako ustiatze bideak eskaintzen ditu ho-  
rrelako ondare batek, eta beste egitasmo diferente bat edo batzuk izan daitez-  
ke horretarako bidea irekiko dutenak.

## **ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA KULTURA HITZAK EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI BATUAREN BIGARREN ITZULIAN**

*Xabier Kintana*

Duela zenbait urte, Euskara Batuaren bigarren itzulia lexikoz aberastu eta osatzeko asmoz, proposamen batzuk egin ziren, arlo berezi batzuetako terminologia bildu ahal izateko. Hor, besteak beste, eguneroko lexikoa, etxeko ohi-ko tresnena, haurrekikoa, jurisprudentzia eta administraziokoa, kiroletakoa eta zientzia eta teknologiarena bildu eta sartzea erabaki zen.

Ni neu zientzia eta teknologia arlokoa biltzeaz arduratuko nintzela esan nuen, eta bera prestatzeko prozedura aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, halaxe onartu zuen Euskaltzaindiak 2000ko abenduaren 22an Bilbon egindako bileran. Urte askotxo iragan dira harrezkero eta, beraz, bidezkoa dirudi, atzerapen horren arrazoiak, laburki bederen, hemen azaltzeak. Bere hitza bete duen bakarra Andres Urrutia izan da, zuzenbide eta administrazio lexikoaren lehen emaitza Laudion 2002ko abenduaren 20an ekarri baitzuen, baina atzean geldituen artean bakarra ez naizen arren, eta Euskaltzaindiko proiektu askok, honegatik edo hargatik sarritan ustekabeko atzerapena izaten dutela jakinik ere, horiek ez nauten ni zuritzen eta, beraz, hitz emana zor, berriz ere horretara natorkizue.

Garai hartan EHUko Euskararako Kabinete Teknikoaren zuzendaria nintzen eta unibertsitateak, irakasle elebidunak kontratatzeko orduan, aurretik egin ohi zitzaizen azterketan bazen atal bat zientzia-terminologiari zegokiona. Horregatik beharrezko eta presazko neritzon lehenbailehen Euskaltzaindiak era horretako gutxieneko zerrenda bat onartua izateari, azterketari, inolako zalantzarik gabe, hura erabat onar zezaten. Handik laster, baina, Unibertsitateko Euskara-errektoreordea aldatu egin zen eta, berriak, irakasle elebidunen gaitasuna neurtzeko probetan terminologiaren atala erabat kentzea erabaki zuen. Hortaz, jadanik datuak biltzen eta lankideekiko harremanak lantzen hasi baintzen ere, ez nuen hura hain berehalako eta presakako zeregintzat hartu, ordua arteko beharra eta larritasuna ematuak baitziren.

Izan ere, berez zientzi hitzen zerrendaren premiak bere hartan bazirauen ere, kontuan izan behar da Hiztegi Batuaren bigarren itzulia osatzeko oraindik denbora asko falta zela, –eta dela– eta era horretako terminologia berezi-

tua ohiko lexiko osoari eransteke zerbait zela, z-raino heltzean multzo osoan tartekatzea, eta ez letraz letra gehitzea.

Halere, berandu baino lehen, era honetako hitz bilketak ez baitira goiz batean egiten, uste izan dut garaia dela lan honi ekiteko.

Alfer-lana litzateke duela zazpi urte esan eta idatzi nituenak hemen beriz ere banan-banan errepikatzea (ikus EUSKERA, XLVI, 2001, 1, 317-324), baina komenigarri iruditzen zait, halere, haren sintesia laburki egin eta, ordutik hona gertaturiko aldaketak kontuan izanda, lan prozeduraz zerbait esatea.

Alde batetik, ukaezinezkoa da euskarak, azken hogeitaz urte luzeotako ofizialtasunari esker, hegoaldean izandako garabidea, irakaskuntza, administrazio, hedabide eta argitalpenetan. Hor erabiliriko lexikoa sistematikoki biltzen eta, maiztasun ertainaren arabera Euskara Batuko Hiztegiaren bigarren pasaldi honetan sartzen ari gara. Halere, badira hitz garrantzizko asko biltzeke geldituak, arlo espezifiko mugatu eta bereziagoetan sarritan erabiltzen diren arren, mintzaira orokorrean gutxieneko maiztasunera heltzen ez direlako. Horien artean, *akanto*, *bonobo*, *kolesterol*, *pandemia*, *plaketa* edo *sintetizatzaile*, zein bere arloan egunerokoak izanik, edozein pertsona landuk dakizkienak. Hori gertatzen da, bereziki, Matematika, Fisika, Kimika, Biologia, Genetika, Ekologia, Geologia, Ingeniaritza, Arkitektura eta Arte Ederrak, Literatura, Informatika, Filosofia, Teologia, Liturgia, Psikologia, Historia, Geografia, Antropologia, Etnografia, Hizkuntzalaritza, Astronomia, Metereologia, Nautika, Aeronautika, Astronautika, Ekonomia eta Enpresa, Medikuntza, Erizaintza, Farmazia, Albaitaritza, Gizarte-Zientziak, Pedagogia, Musika, Gimnastika, edo Kirolak bezalako eremuetan.

Hutsune hori bete eta, bigarren itzuli honetan, Euskal Hiztegi Batua abarasteko, beharrezkoa dateke, laginketa batzuk prestatzea, arlo horietako berbarik erabilienak eta garrantzitsuenak eskuratzeko. Helburua, beraz, alor horietatik *berrehun bana* berba nabarmenenak biltzea litzateke.

Zientzi arloko hitzak biltzeko lehen proposamena egin zenetik hona, bestalde, aurrerapen batzuk izan ditugu bai lexikografian eta bai datu-baseetan ere. Horiek, jakina, nahitaez kontuan eduki beharko ditugu, emaitza fidagarriagoa egiteaz gainera, lana neurri handiz erraztuko digute eta.

Norbaitek galde dezake lexiko zientifiko horren batez besteko mailaz: Behiala 8 urte arteko hiztegitxoa prestatu zuen Euskaltzaindiak. 2000. urteko Hiztegi Batua, bere 20.000 hitzekin, jasoagoa dela esan daiteke, baina, lexiko orokor eta arruntari dagokionez, Batxilergoa ongi gaintitzen duela esan genezakeen arren, beldur naiz ez den horrela zientzi arloan.

Beraz, oraingoak noraino heldu behar luke, Unibertsitateraino ote? Ezin zehazki esan. Berez mailak erlatiboak izaten dira eta atzo ikasirikoontzat maila handiko hitz potolo ez gutxi jadanik erabat arrunt bihurtu zaizkie gaurko haur eta gazteei. Gogoan izan gero eta lagun gehiago iristen ari direla uni-

bertsitatera, eta horiexek izango direla, hots, gaurko eta biharko euskaldun ikasi eta alfabetatuak, gure hiztegiaren hartzaile nagusiak. Hortaz, nik neuk lexiko hori jada *unibertsitate mailakoa* beharko genukeela esango nuke, *baina, halere, ez berezituergia*. Dena den, maila finkatzea lan-taldekoen artean eztabaidatu eta adosteko kontua litzateke.

Bestalde, sistema periodikoaren elementuez maiz gure artean esan denez, bistan dago bilketa lanak, hein batean, sistematikoa izan beharko lukeela, bana-banako hitzetan gelditu barik. Hau da, ardura bereziaz jokatu beharko dugu multzo edo konstelazio bereko hitz guztiak, edo nagusienak bederen, batera biltzeko, *kateto* gabeko *hipotenusarik*, edo *aurikularik* gabeko *bentrikuluak* izan ez daitezzen, lehen itzulian inoiz gertatu zaigunez. Hortaz, alor bakoitzeko hitz kopuruaz batera, eremu batzuetako multzo-ikuspegia ere zaindu beharko da, aipaturiko hutsune horiek saihesteko.

Aurreko txostenean aipatu bezala, oraingoan ere, lan-taldeak bere zeregin-a betetzeko, zientzi arloka jokatu du. Horretarako, goian aipaturiko zientzia horietan zerrenda bana prestatu eta landuko da, hitz bakoitzari buruzko testuinguru eta informazioa bilduz: zeintzuk liburu eta testuingurutan erabilia izan zen, nazioartekoa ote den, inguruko hizkuntzetan agertzen den modua eta euskararako proposatzen dena baterakidea den etab.

Zientziaz zientziako zerrenda hauetako bakoitza behin landu eta gero, Euskaltzaindiaren osoko batzarrean aurkeztuko da, euskaltzainek beren oharrak egin ondoren, onar ditzaten. Ondoan, zerrenda hauek gorde izango dira, harik eta bigarren itzuliko ohiko lexiko arrunta aztertzen amaitu arte, eta orduan zientzi arloko hitz-zerrenda horiek bigarren itzulian tartekatuko lirerateke, bide batez, artean erabakirikoarekin gerta litezkeen bana-banako kontraesanak zuzenduz.

## Lan-taldearen osaera

Bidezkoa den bezala, euskaltzain batek eraman beharko du lan-talde honen gidaritza eta koordinazio lana. Kasu honetan, proposatzaile gisa, neronek hartuko dut zeregin hori. Beste batzorde batzuetan izandako esperientziaren arabera, argi dago ez dela komeni lan-taldeak jende gehiegiz osatzea, elkarretartzea errazteko. Hortaz, ene ustez, lan-taldea sei lagunez osatuko litzateke:

**Burua:** Xabier Kintana (Euskaltzain osoa)

**Idazkaria:** Iñaki Irazabalbeitia (Elhuyar)

**Lan-prestatzailea:** Antton Gurutzaga (Elhuyar)

**Lankideak:** Xabier Alberdi (EHUko Euskara Zerbitzuko burua)

Kepa Altonaga (EHUko Zientzien Fakultatea)

Andres Alberdi (Jauralaritzako Testu-zuzenketa batzordekoa).

Udaberri honetan bertan hasiko gara lanean, lehendik bilduriko material ez eta orain jada kontsultagai dauden datu-baseez baliatuz.

**TEODORO ARBURUA  
ETA  
EUSEBIO DE ETXALAR**

*Etxalar, 2007-IV-21*



**TEODORO ARBURUA**  
**eta**  
**EUSEBIO DE ETXALAR**

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Etxalarko alkatea, zinegotzi eta herritarrok!  
Euskaltzainok! Jaun-andreak!  
Egun on guztioi!

Etxalarrera etorri da lehenbizikoz Euskaltzaindia bere XV. Barne-Jardunaldiak eta osoko bilkura egitera.

Hortaz, lan egitera etorri da Euskaltzaindia Etxalarrera. Halaxe egin du, egin ere, ostegunetik ostiralera, bi urterik behin egiten dituen gogoeta aldiak gauzatzera.

Jardunaldiak aberasgarri izan direnik ezin uka; besteak beste, urrats esanguratsuak eman dira, egungo baliabide informatiko eta teknikoek eskaintzen dutena euskararen mesederako jarriz.

Izan ere, hortxe du helburu nagusia Euskararen Akademiak. Euskara aurreratzea eta ontzea, zorroztea eta fintzea. Horretarako ere Euskal Herriko ki-deak batzen ditu batzar zein batzordeetan, euskalki, lurralde zein pentsamolde desberdinetakoak, eta euskararen ahaleginetan jartzen ditu.

Eginkizun honen kezka sortu zen eta horretan dirau Euskaltzaindiak, al-dian-aldian euskararen premiak zein diren zehazten eta horiei erantzuna emanez.

Ez da falta, horratio, Euskaltzaindiaren lan eta neke horretan Etxalarko herritarren ekarria. Hain zuzen ere, jarraian entzungo ditugu, Pello Apezetxea ohorezko euskaltzainaren azalpenetan eta Patxi Iñigo euskaltzain urgazlearen hitzetan, Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalarren nondik norakoak eta eginak eta gero Bortzirietako hizkeraren berezitasunak gazteen euskaran.

Leku ederra, zinez, Etxalarkoa. Are ederragoak, zuek eskaini dizkiguzuen erraztasunak eta harrera abegikorra. Pozik doa Euskaltzaindia Etxalartik. Seguru nago, aurrerantzean ere gure aho-mihietan, zuen herrian eman ditugun egunen oroitzapenak bizi-biziak izango direla.

Mila esker, beraz, zuei eta entzun ditzagun hitzaldiak.

## **BI ETXALARTAR EUSKALTZAINDIAREN SORRERAN: TEODORO ARBURUA - EUSEBIO DE ETXALAR**

*Pello Apezetxea Zubiri*

1919an sortu zen Euskaltzaindia, 12 kidez osatua, nahiz erabakia aitzineko urtean hartu. Urriaren 7an, goiz eta arratsalde, egin zituen bere lehen bilerak Donostian. Urriaren 26an, biltzen zen bigarren egunean, Donostian oraingoan ere, 40 euskaltzain urgazle hautatu zituen, Euskal Herriko herrialde guztietakoak. Bortz Nafarroakoak, eta horietatik bi Etxalarkoak: Teodoro Arburua eta Fr. Eusebio de Etxalar.

Teodoro Arburua eta Fr. Eusebio de Etxalar ez dira sobera ezagunak. Zuzenagoa izanen da, ezezagunak direla erraten badut. Baita niretzat ere, orain arte. Bakarrik Teodoro Arburua da entzuna eta zenbaitentzat ezaguna, hemen bizi zelako: Etxeberriko apeza deitzen zioten, eta horrela gogoratu dute hainbatek. Dena den, ahal dudana begiratu dut haiei buruzko argibideak biltzen. Eskuratu dudana eskainiko dizuet.

\* \* \*

### **TEODORO ARBURUA IRISARRI**

Idazterakoan, *Arburu'tar Todor* izena erabiltzen zuen berak, gehienetan.

1876ko azaroaren 8an jaio zen Etxalarren, *Iñarreta* auzoko *Etxeberria* etxean. Iruñeko Apeztegian ikasketak burutu, eta 1900.ean apeztu zen. Etxalarren bertan eman zituen bere bizitzako urte gehienak, erretorearen apezlagunkide. 1917tik 1920ra erretore ardura bere gain izan eta, berriz ere lagun-kide jarraitu zuen, Etxalarko egonaldi luzea Estatu espainoleko gerra zibilak moztu zuen arte, 1936ko abuztuan Etxalartik kanporatua izan baitzen, arrazoi politikoengatik, bertze hainbat bezala. Iruñeko Seminariora eramana, lehenbizi, Arakilgo *Etxarrenen* izan zela diote batzuek. Han, ordea, elizako liburuetan ez da bere izenik ageri. Bertzalde, iloba batek familian entzundakoaren arabera, *Ezkaba* mendiko San Kristobaleko kartzelan sartu zuten, hemen *Larraldea* baserrian bizi zen Migel anaia baten ordezkoa betetzen edo. Bertze ilobaren entzunetik, kartzelatu ez zuten egin bere osasun txarragatik, diabetesak hartua baitzen aspalditik. Argirik eta errepidetik gabeko herri batera bida-

li zutela ere aditua dute. Dena den, 1937ko irailaren 14an Zubietan ikusten dugu bere sinadura, hileta elizkizun baten ondotik. 1938an ere han zela egiaz-tatua dugu, bertako erretore. 1941eko martxoan Etxalarren ageri da berriz ere, parrokiako apez lagunkide, gerra aitzineko urteetan bezala. Hemen hil zen 1942ko otsailaren 11n, 66 urte zituela

Teodoro Arburuaz zerbait nabarmendu behar eta, euskaltzale sutsua izan zela erranen nuke, euskararen eta euskal kulturaren kontzientziadun eta horren arabera jokatu zuena, euskaraz bizi eta ukitzen zuen guztiari euskal hatsa ematen ziona. Etxalar euskalduna da, eta euskalduna zen Teodororen urteetan ere. Apezak ere hala ziren, baina Teodoro bertzeak baino euskaldunago zela argi ikusten da. Erregistroko Matrikula liburuan, gainerakoak bezala gaztelania hutsez egiten bazen ere, berak betebeharra izan zuenean, etxe izenen grafian z, tz, tx sartu zituen. *Eliz dorreko* azken ezkilaren testua, 1918koa, euskaraz idatzia da. Gaur egun arte bere etxean kontserbatu diren gutun, ohar, abisu paperak... denak euskaraz daude. Elizkizun eta katekesiaz gain, kantu eta antzerki lanak ere euskaraz egin zituen.

Haren sentipen horren euzaugarri bat *Euskara ta yaupariak* izenburudun *Euskal-Esnaleko* idazkian dioena da: denek

ezagutu dezakete Yainkoak eman digun mintzai argi-argi ta gere abendaren ontasun berexi ta dirdirgile bitxia galtzerat ez uzteko egiten ditugun aleginak, di-rela beti beti egintz on, deun, sarigarriak eta txalogarriak.

Donezteben Euskaltzaindiak 1923an egindako bere Bigarren Euskal Egunen ekitaldietan parte hartu zuen, Etxalarko hainbat haurrekin euskarazko lan-txoak idatzi eta eramanez: Hugo Etxeberria, Victoriano Legaz, Toribio Agesta, Estefanía Danboriena, Antonio Arburua, Felisa Almandoz.

\* \* \*

## Idatziak

Haren idazteari dagokionez, *Euskal-Esnalean* bortsu testu argitaratu zituen, 1916-1920. urteetan. Bi edo hiru orrialdeko testuak dira:

- *Egizko ipuya*, 135. zenb., 215-218. orr., 1916/08/15.  
Erdara ikasi nahi zuen agure euskaldun baten ixtorioa.
- *Uso eizkera zar pollit bat*, id., 317-319. orr., 1916/11/30.  
Gehien bat, Etxalarko sareko ehizaren deskribapena da.
- *Uts bat*, 147. zenb., 25-26. orr., 1917/02/15.  
*Euskal-Esnaleak* fruiturik ematen ez ote duen galdetu eta, euskaldunok gure hizkuntzaren alde gehiago saiatu beharra azpimarratu zuen.

- *Izkirimiriak*, 150. zenb., 72. or., 1917/03/30.  
Gertakari irrigarri labor pare bat.
- *Euskara ta yaupariak*, 201. zenb., 125-126. orr., 1920/09  
Apez euskaldunen euskaltzaletasunaren gorabeherak ditu gai.

## Toponimia lana

Mikel Belaskok idatzitako artikulu batean hau irakurri dut:

1875-1936

*Asociación Euskara de Navarra/Euskara Elkargoaren eraginez hainbat ekimen aurrera eraman nahi izan ziren. Iruñeko udalarekin batera, esate baterako, ikerketa lanak bultzatu ziren baina arrakasta handirik gabe. 1882-1886. urteetan toponimia lehiaketak antolatu baziren ere inork ez zuen lanik aurkeztu. 1915. urtean Arturo Kanpionek iritzi artikulu garrantzitsua idatzi zuen «A los vascos de buena voluntad». Bertan toponimia lanei akuilu ematen zitzairen eta ikerlarien kontzientzia piztu nahi zen. Oraingo honetan ekimena arrakastatsua suertatu zen eta zenbait ikerlari lanean hasi ziren. Adibide gisa aipatuko dugu lerro hauen egilearen birraitonak, Teodoro Arburua euskaltzain urgazleak, 1915. urtean eskuratutako 25 pezetetako saria Etxalarko toponimiari buruz egindako ikerketa-rengatik. Saria Iruñeko Udalak eman zuen.*

\* \* \*

1924an *Jaungoiko-Zaleren Idaztiak* sailean *Otso zañaren onua* izeneko ipuin laburra sinatua du. Jon Iturrondoren ipuin batekin Julio Urquijoren liburuxkan argitaratua. Bitxikeria ageri da: Arburuarena nahiz Iturrondorena, biok bizkaieraz idatziak ageri dira.

\* \* \*

*La Tradicion navarra* egunkarian, 1910 eta 1911n zazpi alditan idatzi zuen, «Bortzeritik» atalean, Bidasoako Bortz herrietako berriak kontatzen. Euskaraz.

\* \* \*

Antzeko lana egin zuen *La Voz de Navarra* egunkarian 1930-36. urteetan, baina Etxalarko berriei buruz. 44 idazki dira, zeinetatik 26 euskaraz idatziak. Bertze 18 gaztelaniaz, baina euskal hitz ugari tartekatuz. Gaztelaniaz egindakoak Egunkariaren aginduz idatzi izanen zituela pentsatzen dut.

\* \* \*

Idazki gehien *Argia* astekarian argitaratu zuen. 162 eskuratu ditugu. Be-rauetatik 65 nekazaritzari buruz, 40 denetariko berriez, 45 gogoeta artikulu eta 12 ipuin, denak 1921-1936. urteetan idatziak. 1936ko altxamendu militarrek moztu zuen astekaria, eta Arburuaren idazte emaria, *La Voz de Navarrarekin* gertatu zen bezala.

Euskaltzaindiak eskatuta, *Erizkizundi Irukoitza* galdeketa burutu zuen Etxalar, Zugarramurdi eta Urdazubin. Pena da ez ditugula eskuratzen ahal.

\* \* \*

1926an, *Euskararen Adiskideak* elkarteak sari bat eman zion, Nafarroako herri istorioz idatzitako lan batengatik. Ez zen argitaratua izan.

### **Julio Urquijori gutunak**

Lau gutun ikusi ahal izan ditut, Julio Urquijori eginak. Hiru euskaraz, 1906koak bi eta 1918koa bertzea. Errespetu handiko tratamendua eskaintzen dio: «Jaun agurgarri», «Euskalzale agurgarri ta maitagarria», Euskalzale iaun on ta agurgaria». Eta, batzuetan, Berorika zuzentzen zaio. Bera apaiza izan eta, jendeagandik orduan segur aski berorikako tratamendua hartu zuena, Urquijori horrela egiteak honenganako begiramendu handia adierazten du.

1906ko abuztuaren 28koan, Urkijo liburuak biltzen aritzen dela eta, etxe-ko zokoetan aurkitu dituen biren izenak jakinarazten dizkio:

Guia catholicac..., bata, A. Gazteluzar, Jesusen Lagundikoak egina ta moldizkidatua Pauen 1686ean, geiena itz neurtuetan moldatua Lapurdiko euskaran.

#### **Bertzea**

Hilostea edo Devozionerako bide erakustaillea S. Franses Salescoak eguina ta M. Joannes de Haraneder, Donibaneko iaun apezak euscararat itzulia 1749an Tolosan argitaratua. Azkenik bertze bi Sebastian Mendibururenak, ...Iruñean 1760an Antonio Castillaren etxean eginekotik.

1906ko abenduaren 6koan, Urkijok Saran liburu batzuk utzi zizkiola eta eskerrak eman zizkion.

Teodorok «Axular aundia»ren gurasoak Etxalarkoak ote ziren planteatua zion Urkixori noizbait, herri honetan *Axular* izeneko baserria badelako. Baina, gutun honetan, Parrokiako artxiboko liburuetan begiratu-eta ondorioztatu duela dio, ez dela daturik hori egiaztatzeko.

Hemengo etxe batzuetan bertze liburu zahar batzuk aurkitu zituela ere jakinarazi zion: Mendibururen «Otoitz gaien 1, 2 eta 6garren liburuak».

1918ko gutunean, Pedro de Axularren «1632, 1634 eta 1636ko diru ar-tuen ageriak» bidaliko dizkiola dio.

Laugarrena gaztelaniaz, bataio agiri bati buruz.

Bertzerik? Sortetxean, goiko solairua berritzerakoan, hainbat paper eta li-buru hondar ikusi zituzten ilobek, xaguen janari izandakoak. Jasandako eta le-hen gogoratutako gerraren eraginak.

\* \* \*

## AITA EUSEBI ETXELARKO/FR. EUSEBIO DE ETXALAR

Euskaraz idazterakoan erabili zuen lehenbizikoa: Eusebi Etxelarkoa. Gaz-telaniazko idazkietan, berriz, Fr. Eusebio de Echalar/Etxalar.

Etxalarren 1874ko abenduaren 16an jaioa, haren jatorriko izen-deiturak Eusebio Eltzaurdia Zubieta dira. Iñarreta auzoko Iriondoan jaio zela dirudi. 9 urte zituela han bizi zen behintzat. Fraide kaputxino egin, eta 1898an Leka-rozen apeztua izan zen. Bertan jarraitu zuen, irakasle eta predikari, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Madrilen *El Pardoko* komentuan arduradun izendatu zuten, XX. Mendearen hasieran. Kaputxinoen Probintzien muga aldaketak zirela eta, Nafarroako Probintziari atxikia gelditu, eta Lekarozera etorri zen. 1909az ge-roztik 1956an hil arteko urteak hemen egin zituen. 82 urte bizi izan bazen ere, gazte-gaztetandik hagitz osasun eskasekoa izan zen. Hain eskasekoa, eskola emateko ere ez baitzen gauza izan urte gehienetan.

Ikasteko bai, ordea, trebea eta ikasizalea izan zen, ezagutu zutenek dio-tenez. Teologia eta Historiaz gain, ekialdeko hizkuntzak ikasteari gogotsu ekin zion, hebraierari batez ere, Bibliako *Itun Zaharreko* hizkuntza zelako edo.

Hizkuntza horiek jakiteak eman zion Historia eta Arteko arloetan jakita-tea aberasteko ahalbidea. Adibide bat Erdi Aroko kutxatila arabiarrari buruz-koa da, Iruñeko katedralean dagoen *Abdelmeliken* kutxa. Horrek duen ins-kripzioa oraindik XX. mendean ongi ulertu gabea zegoen, Etxalarko Eusebiok begiratu zuen arte. Haren interpretazioa egokia zela eta goraipatua izan zen. *Boletín de la Comisión de Monumentos histórico-artísticos*en XII. liburukiak dakar interpretazio testua, 56-59. orrialdeetan, 1921.ean. Aldizkari horren zu-zendaritzak honela dio, aitzin solasean, Eusebioz:

Kaputxinoen egiazko ospe eta harrotasuna da, trebetasun berezikoa eta ja-kitate hagitz handikoa.

Euskara ere, bere ama-hizkuntza, lantzen aritu zen. Argitara eman zituen zenbait lan aipatuko ditut:

1. *Voces vascas en los Fueros de Navarra.*

Eusebiok dioen bezala, Nafarroako Foruak ez daude *Lingua Navarrorum* deitutakoan idatziak, erromantzean baizik. 1815eko argitalpenari, Antonio Chavierrek egindakoaren kopia, Felipe Baraibar de Harok «Diccionario para facilitar la inteligencia...» gehitu zion. Baina, Eusebioren hitzetan, zuzenketa ugari egin izanagatik, edizioa irakurgaitza da. Pasarte errepikatuak, esaldi nahasiak, arau gabeko ortografia, hitz ilunak. Hori alde batetik.

Eta idazleen pentsamoldea, bertzetik. Eusebioren iduriko, liburuan bildutako foruen koaderno batzuk euskaldunek idatziak behar zuten izan. Erromantzean eginagatik, arrazonamenduaren haria euskarazkoa da. Gaur egun ere euskaldun batzuek gutuna idazten dutenean, hitzak eta gaztelaniazkoak izaten dira, baina esaldien egitura euskarazkoa. Gainera, Foruen testuan euskal solasak ere badira.

Eusebiok hitzak argitu eta zuzendu, eta beren erranahia azaldu zuen goian aipatutako *Boletín de la Comisión de Monumentos histórico-artísticos*en, XII. liburukian, borts zatitan. 1921. urtea zen.

\* \* \*

2. *Palabras vascas en monumentos romanos*. Monumentu erromatarretan ageri diren euskal hitzak ikertu eta aztertu zituen. *Yakintza* aldizkarian argitaratua, denera 47 orrialdeko testua da, zazpi zatitan, 1933tik 1935era.

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 218-228. orr., 1933 *Loraila-garagarrila*.

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 4. zenb., 273-282. orr., 1933 *urraila-dagonila*.

«Voces vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 7. zenb., 58-61. orr., 1934 *Ilbelta-otsaila*.

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 11. zenb., 369-378. orr., 1934 *agorrila-urrila*.

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 12. zenb., 451-457. orr., 1934 *azaroa-lotazilla*

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 14. zenb., 131-137. orr., 1935 *epailla-jorrailla*.

«Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Yakintza*, 16. zenb., 305-312 orr., 1935 *uztailla-dagonilla*.

\* \* \*

3. «Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos», Altadilen *Geografía General del País Vasco*, Navarra 2º.

50 orrialdeko lana da, 1050-1099. orrialdeak. Bai honetan eta bai bertze lanetan ikusten da anitz hizkuntza ezagutzen zituela. Horrela, hitzen erranahia argitzeko, hizkuntza batean eta bertzean begiratu eta konparatuz egin zuen lana.

\* \* \*

#### 4. «EUSKARIA», iruzkina.

*Euzkadi, zientzia, arte eder eta literatura hiruhilabetekarian, 11.zenb., 367-375. orr., 1911n.*

Juan Sebastián Jaca jaunak *Euskaria* izenburuko lan luzea idatzi zuen, Eusebioren solasetan *nazioen historia politiko-sozialaz filosofiaren ikuspuntutik*. Denera 1000 orrialde, bi liburukitan, Buenos Airesko *La Euskaria*-ren inprimategian ikusi zuen argia. Bada, horretaz eskaini zuen bere iruzkina Etxalarko Eusebiok.

Jacak dioenez, aitzinateko Egipto, Asiria, Persia, Grezia eta Erromako zibilizazioek, baita Erdi Arokoek eta Modernoek ere ezabatu egin zituzten jendeak eta familiak, hiritarren banako eskubideak ukatu. Euskaldunen legedian, berriz, gobernu era *quasi* patriarkala izan zen beti. Legea herriak egina zen, jendearen usadioa zuen oinarria. Markatzen duen bertze gauza, euskaldunek ez zutela konkistarako gerrarik egin.

Ez dago ados Eusebio lehenengo gaiari buruz. Ez zituen indibidualismoak eragin XIII. mendeko euskal herrialdeen bereizteak? galdetzen du Eusebiok. Ez zen gertatu indibidualismoagatik *Noingo* sarraskia ere, non euskaldun batzuek suntsitu baitzituzten bertze euskaldunak?

Lekarozen sinatua da azterketa hau 1911ko apirilean.

\* \* \*

#### 5. *Asmakeria*. Lau zati ditut nik ikusiak.

*El canto de Lelo. El canto de los cántabros*. XVI. mendean Europako mendebaldean gertatutako hainbat gorabehera kontatzen du, gerrak batez ere. Eta, neurri batean, kantabriarren eta euskaldunen parte hartzea. Eusebioren idazkiak 33 orrialde ditu.

\* \* \*

6. Julio Urquijori gutunak. 11 gutun eskuratu ahal izan ditut. Pentsatzen dut, hauei begira, aunitzez gehiago idatzi zituztela, bai Eusebiok, bai Teodoro Arburuak ere.

– 1918ko neguillaren 2koa.

Urquijok Oñatin irakurritako *Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca* lanaren iruzkina da. Euskal lexikoa aldatzeaz, berri-tzeaz, bertze hizkuntzetatik hartzeaz gogoeta da.



- 1919ko azaroaren 25koa.  
Axularrek, beharbada, orduan hagitz ezaguna zen Ludovicus Blossius-en idatziak erabili zituela. Hori du gai nagusia.
- 1920ko otsailaren 3koa.  
Gaia: Euskararen egoeraz gogoeta. Eta euskararen aldeko gogoia bero-tzea. Hasmentako lau lerro irakurriko ditut:  
Egia da nekez ari garela euskaraz ari garen guziok. Ala ere, burura nai lu-kenak, permatu bear. Izerdi lekarik gabe, aitzintze guti.
- 1920ko jorraitaren 20koa
- 1921eko urrilaren 9koa,  
*Anso* izenaren erranahia azaldu zuen. Hain zuzen, Urquijok *Euskal Erria-  
ren alde* aldizkarian erranarekin ez zegoela ados eta, egin zion gutuna.
- 1922ko azaroaren 24koa,  
Zuberoako Arahnen, Andre Madalenen elizako inskriptzioz idatzia da. Denen ustez latinezkoa dena, euskarazkoa izan daitekeela dio Eusebiok. Eta bere azalpena ematen du.
- 1925koa. Julio Urquijok «Menéndez y Pelayo y los Caballeritos de Azcoiti» izenburuarekin idatzitakoaz, egin zion gutuna. Atseginez irakurri duela dio Eusebiok, ezagutzen baitzuen Menendez y Pelayok Azkoitikoaren kontra idatzia. Eusebioren hitzetan, jakitate handiko gizon horrek euskaldunenganako jaiotzetiko ezinikusia zuen.
- 1926ko urriaren 7koa.
- 1927ko urtarrilaren 27koa (2).
- 1931ko maiatzaren 12koa.

Bukatzeko, Euskaltzaindiari gure esker ona agertu beharrean gaude. Berak eman baitigu euskaltzain etxalartar hauek ezagutzeko aukera eta.

## **BORTZIRIETAKO HIZKERAREN ZENBAIT BEREZITASUN GAURKO GAZTEEN MINTZAIRAN**

*Patxi Iñigo*

### **Sarrera**

Bortzirietako hizkerak dituen zenbait berezitasun –helduen artean barra-barra entzuten direnak– gero eta gutiago aditzen dira gaurko gazteen eta haurren mintzairan. Lehen euskara ahoz aho ikasten zen eta bertako hizkeraren berezitasunak hobeki igarotzen ziren gurasoetatik seme-alabetara edo lagunetatik lagunetara. Gaur bertze eragile batzuk ere baditugu euskara ikasteko orduan: handiena eskola, eta, eskolatik aparte, hedabideak –ahozkoak nahiz idatziz–, inguruko herrietakoekin dugun harreman gero eta handiagoa, eta abar. Honek guziak izugarri lagundu dio gure herrietako euskarari nahiz eta, normala den bezala, onurarekin batera hutsune batzuk ere ekarri dituen eta herrietako bat, hain juxtu, tokian tokiko berezitasun batzuk galdu izana.

Gaurko nire asmoa ez da kexa egitea, bai baitakigu galera anitz eboluzio baten ondorio izaten ahal direla; are gutiago kritika egitea. Kritika egiten hasi eta, nori egin behar diogu? Eskolari?

Gogoratu bertzerik ez dugu zein zen gure herrietako euskararen egoera orain dela 26 urte –1980-1981eko ikasturtean–. Beran erraterako, 12-14 urteko mutikoen %54k bakarrik zekien euskaraz. Eta nesken artean %32k eta nesken %50ek ez zuen ulertu ere egiten euskaraz. (Kontuan hartu ikasturte horretan ikastolan ikasten ari ziren zaharrenek oraindik bederatzi urte zituztela). Eta Etxalarren, nahiz eta 12-14 urteko gehienek euskaraz jakin, mutiko eta neska guziak –%100– gaztelaniaz aritzen ziren elkarrekin. Eta Igantzin gauza bera gertatzen zen, eta Lesakan %12k egiten zuten elkarrekin euskaraz.

Gaur, ikusita mutiko-neska guziek dakitela euskaraz, ia denak elkarrekin euskaraz ari direla, eta izan den aldaketa, neurri handi batean, eskolari esker izan dela –hasieran ikastolari esker eta gero gainerako eskolei esker–, nola hasiko gara, bada, eskola kritikatzan? Egia da bere hutsuneak ere ekarri dituela, baina onura anitzez handiagoa izan da.

Bertzalde, nire helburua ez da azalpen sakon bat egitea edota berezitasun guziak xehero-xehero aipatzea. Niri nabarmenak iduritzen zaizkidan berezita-

sun batzuk aipatuko ditut eta horietatik, zein ari diren gutika-gutika desager-  
tzen eta zein diren indarrean dirautenak.

Eta azkenik, gazteei eginen dizkiedan erreferentziak, normala den bezala,  
Berako gazteei buruzkoak izanen dira, horien euskara baita gehien entzuten du-  
dana. Baina badut uste, ñabardurak ñabardura, bertze herrietako gazteek ere an-  
tzera solastatzen direla, inoizka entzuten diedanean halatsu egiten baitute.

Eta bertzerik gabe, has gaitezen berezitasun batzuk aipatzen.

## 1. Bokalismoa

Jakina da, bai Bortzerrietan eta bai Malerrekan, bokalen arteko elkarke-  
tetan *e* eta *o* bokalak beti ixten direla bokal ireki baten aitzinean daudenean,  
hala nola:

**e+a > ia:** atea > atia, esnea > esnia...

**e+o > io:** behor > bior; etxe ona > itxi ona...

**e+e > ie:** igandetan > igandietan / iganditan; jabeena > jabiena / jabina...

**o+a > ua:** astoa > astua; beroa > berua...

Eta bokal ixte honi eusten zaio bai helduen, bai gazteen artean.

Baina Malerrekan ez bezala, Bortzerrietan –eta Sunbillan ere bai– **i+a**,  
**i+o** eta **i+e** bokal elkarkeketan *y* epentetikoa sartzen zaie tartean, hala nola: zu-  
**bia** > zubiya, **ardia** > ardiya...; **medio** > mediyo, **demonio** > demoniyo...; **biek**  
> biyek, **banekien** > banakiyen...

Dena dela, Beran eta Etxalarren gehiago markatzen da epentesia Lesakan,  
Igantzin eta Arantzan baino. Gainera, gaur egun, azken hiru herri hauetan **i** bo-  
kala atonoa denean ez da sartzen *y* epentetikorik; tonikoa denean, bai: *ttikíya*,  
*argíya*, *herríya*; baina *basérria*, *ikáragarria*, *demónio*. Halere, N. Holmer-ek (1)  
1954an Arantzan egin zuen ikerketan, atonoen ondotik ere *y* epentetikoa ageri  
da, hala nola: *arráilaríya*, *alférkeríyan*, *izúgarriya*, *lámiyak*, *illárgíyan*, *txistúla-  
ríya*... Honek erran nahi du galdu berria dela atonoen ondoko *y* epentetikoa.

Ana M<sup>a</sup> Echaidek (2) 1965-1967 urteetan egindako inkestan, gaur egun-  
go banaketa ageri da: *illárgia* (Ar., Les. Sunb.) / *illárgiya* (Bera, Etx.) (3); *eló-  
rria* (Ar., Les., Sunb.) / *elórriya* (Bera, Etx.) (4); *ipúrdia* (Ar., Les., Sunb.) /  
*ipúrdiya* (Bera, Etx.) (5).

(1) Holmer, N. M., 1964, *El idioma vasco hablado*, Seminario «Julio de Urquijo», San Se-  
bastián. 137-147.

(2) Echaide Itarte, A. M., 1983, «El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas 1965-1967»,  
*Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección, Hizkuntza eta Literatura*, 8.

(3) Ibid. 38. or.

(4) Ibid. 94. or.

(5) Ibid. 152. or.

Beran eta Etxalarren, bada, tonikoa nahiz atonoa izan, ongi kontzen (eusten, atxekitzen) zaio ezaugarri honi, oraindik ere, adinekoen artean, eta bertze herrietan baino gehiago markatzen da: *bíyek*, *ipúrdiya*, *illárgiya*, *elórriya*. Eta Etxalarren zenbait hiztunek, *aseya* (< *hasia*), *aundeya*, *ikaragarreya*... ahoskatzten dute.

Eta inesibo singularrean, batez ere Arantzan eta Igantzin, hagitz maiz asimilazioa egiten da, batez ere *i* tonikoa denean eta batzuetan atonoa denean ere bai: *errían* > *erríyin*; *guzían* > *guzíyin*; *zazpían* > *zazpiyin*; *azpían* > *azpiyin*...; *lénbizian* > *lémizíyin*.

Gosta zitzaigun *lémizíyin*. (Igantzi)

Gaur y epentetikoa galtzen ari da gazteen artean eta erran genezake ia erabat galdu dela zenbait gazte eta haurren hizkeran, nahiz eta *erríyin* eta gisakoak inoizka entzuten diren. Hortaz, gaur gazteek berdin gauzatzen dute *atea* eta *eztia* hitzen bokal elkarketa: *atía* eta *eztía*. Adinekoek, ordea, bereizten segitzen dute: *atía*, baina *eztíya*.

**Aferesia.** Gauza jakina da eskualde honetan indar handia duela aferesiak. Kasurik zabalena aditzaren hasierako *e-* eta *i-* bokalak ezabatzea litzateke, hagitz maiz isiltzen baita: *ekarri* > *karri*; *eman* > *man*; *ezagutu* > *zautu*; *etorri* > *torri*; *ikusi* > *kusi*; *ikasi* > *kasi*; *izan* > *zan*; *ibili* > *billi*:

Bertze bazkakin nasteko *zatten* tzen. (Bera)

Emen ez ta *kusten* grifua ongi. (Etxalar)

Guretzat beti ongi *zatten* da. (Igantzi)

Ta aurten *kar* dut bat bakarra. (Lesaka)

Eta ez aditzek bakarrik, bertze hitz batzuek ere galtzen dute inoizka hasierako bokala: *akordeona* > *kordiona* / *kordioia*; *etxe* > *txe*; *hemen* > *men*; *isilik* > *xilik*; *ipurdi* > *purdi*; *itsusi* > *tsusi*...

Denbora agitz *tsusia* jarri zen. (Arantza)

Pagua *zatten* tzen eta *purttik* bota ta billu pistara. (Arantza)

Hauetz gain, *ere* lokailuak eta *omen* eta *ote* partikula modalek ere maiz galtzen dute hasierako bokala: *ere* > *re*; *omen* > *men*; *ote* > *te*.

Ta ill ura *re* bueltan kar gunun. (Bera)

Ondarko, jua *te* zen? Eztakit batere. (Bera)

–In *te te?* (< egin ote dute?)

–Bai, in zamar *te* (< egin izan behar dute). (Arantza)

Aferesia gero eta gutiago egiten da gazteen eta haurren hizkeran.

Bertzerik da orainaldiko aditz laguntzailean egiten den aferesia: *ditut* > *ttut* (*tut*); *diti* > *ttit* (*tit*); *dituzte* > *ttuzte* (*tuzte*); *ditiogu* > *ttiogu* (*tiogu*); *dinat* > *ñat*; *dute* > *te*, *duzu* > *zu*; *dizuet* > *zuet*... (6).

Urtin iten *tu* iru prueba or, motobonbak ia ongi *tun* mangerak ta... (Etxalar)

Gañerako telebistak ere ikusten *ttugu* agitz ongi. (Lesaka)

Arrunta da eskualde honetako mintzairan eta gazteen eta haurren artean ere ohikoa da entzutea.

**Sinkopa.** Beti erran izan da goi nafarrerako hizkera anitzen ezaugarria dela sinkopa, eta garbi dago Bortzerrietan hagitz anitz ageri dela. Kasurik gehienetan, ezabatzen den bokalaren aitzineko silabak darama azentu nagusia: *abísatu* > *abístu*; *espératu* > *espétu*; *garízuma* > *garízma*; *kamíseta* > *ka-místa*; *diférente* > *difénte*; *arrátsetan* > *arrástan*; *zínetan* > *zíntan*...

*Espetu*, oyek kentzian *irausko* (< erakutsiko). (Bera)

Ez genun *disfrutu* nai den bazala. (Igantzi)

Bakotxak matten tzun kafia ta kopa edo *txokóltia* edo gazta ta ogi-ya. (Arantza)

Pionak *arrastan* (< arratsetan) ibiltzen tzuten. (Etxalar)

Ordun bai, asi ziren *zintan* (< zinetan) lanin. (Igantzi)

Sinkopa kontu honetan Arantza dugu txapeldun, bertze lau herrietan egiten ez direnak ere egiten baitituzte: *basérritarra* > *basértarra*; *astélehena* > *astélna*; *itsásotik* > *itsástik*; *fabríkatik* > *fabríktik*; *eskópetakoa* > *eskóptkua*; *bezálako* > *bezálko*; *dagóeneko* > *dagónko*; *hanketan* > *ánktan*; *góizago* > *góizgo*...

Egia da gazteen eta haurren hizkeran ez dela adinekoen artean bezainbat sinkopa egiten, baina orokorki nahiko ongi kontzen diote ezaugarri honi.

**Diptongoen murrizketa** hauek egiten dira:

**eu > u:** *euri* > *uri*; *euli* > *uli*; *euskara* > *uskara*

**ai > i:** *baino* > *biño*; *igitai* > *igitti*; *bezain* > *biziñ*

**ei > i:** *edozein* > *edoziñ*; *ehiztari* > *izturi*

**au > a:** *aurpegia* > *arpegia*; *aulkia* > *alkia*; *gaurgero* > *gargero*

Murrizketa hauek gaurko hizkeran ere egiten dira orokorki.

**Hiatoaren murrizketa:**

**e+a>ia>i:** *denean* > *denin*; *umeak* > *umik*; *bidean* > *bidin*

**o+a>ua>u:** *astoak* > *astuk*; *oilok* > *oiluk*; *soroan* > *sorun*

(6) Parentesi artean daudenak Etxalarko formak dira, gero, 2.f) atalean, ikusiko dugun bezala, Etxalarren palatalizaziorik egiten ez dutelako.

- u+a>u:** erotuak > erotuk; buruak > buruk; neguan > negun  
**i+a>i:** txistulariak > txistularik; nekazariak > nekazarik  
**i+e>i:** ttikiena > ttikina; azienda > azinda; Zubieta > Zubita  
**e+e>ie>i:** emakumeena > emakumina  
**o+e>ue>u:** auzoetan > auzutan; gurasoekin > gurasukin  
**u+e>u:** pañuelo > pañulo; kazuela > kazula; Goizueta > Goizuta

Lau *emakumezkuk* eta bi *gizonezkuk* ziren. (Arantza)

Gero bertze *auzuri* tokatzen tzayo. (Etxalar)

Bai, *astirtin* eta *astizkenin* ere bai. (Lesaka)

Dena dela, Etxalarren eta Beran batez ere, maiz eusten zaio hiatoari: *denian*, *soruan*, *erotuak*, *auzuetan*, eta abar. Eta batzuetan hiztun berak biak erabiltzen ditu, baita esaldi berean ere:

*Barrenian* zielikan, ostatun *barrenin* zielikan, tirua eskautu zaion. (Bera)

Bolada *batin inautik* egondu ziren franko *akautuak*. (Etxalar)

Gazteek ia bere horretan kontzen diote murrizketa honi.

## 2. Kontsonantismoa

Kontsonantismoari dagokionez, aldaketa batzuk nabari dira dagoeneko kontsonante batzuen ahoskeran gazteen artean eta batez ere haurren artean:

- a) **Ll > y.** Yeismo delakoa iritsi da eskualde honetako herrietara ere: *bi-llatu* > *biyatu*; *botilla* > *botiya*, *ibilli* > *ibiyi*, *Pello* > *Peyo*... Orain dela urte batzuk, hemengo jendeari kanpotar batek erran behar: *aizue*, *Bortzerrietako haurrei izigarri kostatzen zaie ll ahoskatzea, eta batzuei ezinezko zaie*. Nik dudarik ez dut egiten –eta ni neu izanen nintzen lehenbizikoa–, ez zutela sinetsiko. Egia da oraindik entzuten dela *ll* gazte batzuen artean, baina, Beran, behinik behin, haurrei ezinezkoa egiten zaie *ll* ahoskatzea. Orain dela bizpahiru aste egin nuen proba Beran, hamaika urteko dozena bat neska-mutikokin, eta ez nuen lortu bakar batek ere ongi ahoskatzea. Denek *y* egiten zuten. Horrela, berdin-berdin ahoskatzen zituzten *maila* eta *mahaia* > *maya*; *oihua* eta *oiloa* > *oyua*
- b) Gauza bertsua gertatzen hasi da *ts* kontsonantearekin. Gure eskualdean nabarmenki ahoskatu izan da orain artio kontsonante hau. Baina hondar urteetan *tx* ahoskatzen du haur eta gazte anitzek: *itxua*, *itxusia*, *otxoa*, *lotxa*, *matxa*, *pentxatu*...

- c) *Paper, plater, ur* eta *zur* hitzen **-r** badakigu samurra dela: *papera, platera, ura, zura*. Baina hurrengo hitza kontsonantez hasten denean, gogortu egiten zaigu: *paper~~r~~ polita, plater~~r~~ ttikia, ur~~r~~ zikina, zur~~r~~ samurra*.

Bortzerrietan, hurrengo hitza bokalez hasten denean samur ebaki izan da orain artio eta halaxe ahoskatzen dute adinekoek: *paper arina (paperariña), plater ederra (platerederra), ur ona (urona), zur ustela (zurustela)*.

Gazteen artean, ordea, gogortu egiten da bokalen aitzinean dagoenean ere: *plater~~r~~ ederra, ur~~r~~ ona* eta abar.

- d) **Nb > m** ahoskatzen da Bortzerrietan eta horrela egiten dute adinekoek: *lehenbizi > lemizi, zenbat > zemat, egin behar du > (e)imardu...*

Ikusi *balima* zte usuak, *egomar* te al den bezala gordiak. (Etxalar)

Gazteen artean nekez entzuten da **m**; normalean **nb** egiten dute, hala nola, *lenbizi, zenbat, (e)inbardu...*

- e) Bortzerrietan, ia Euskal Herri osoan bezala, *ez* adberbioaren ondorengo *b* eta *d* eta *g* **-g** ez beti-, ahoskabetu egiten dira: *ez bada > ezpada; ez da > ezta; ez gara > ezkara / ez gara*.

Halere, gazteen eta batez ere haurren hizkeran ohikoa da *ez bada; ez da* eta *ez dute* eta gisakoak entzutea.

- f) **Palatalizazioa**. Etxalarren izan ezik, palatalizazioa anitz egiten da Bortzerrietan eta gazteek ere, oro har, ongi kontzen diote hitz egiterakoan: *ukittu, itto, dittu (>ttu)...* Baina hurrengo bi kasu hauetan galtzen hasi da gazteen artean:

– **ind+bokala > indd+bokala** egin izan da Bortzerrietan eta horrela ahoskatzen dute adinekoek: *inddar, mainddire, aginddu, arinddu, zikinddu...*

Saldetsan *inddartuak*, Iratxekoberin ere bai. (Bera)

Gazteen artean gero eta gehiago entzuten dira: *indar, maindire, agindu, arindu, zikindu...*

- Bortzerrietako herrietan, Malerrekan ez bezala, *izan, egon, erran, eman* eta *eraman* aditzen aditz izena palatalizatu egiten da, hala nola: *izatten, egotten, erratten, ematten, eramatten*. [Etxalarren: *izaiten, egoiten, erraiten, emaiten, eramaiten*].

Argiñanok *erratten* dun bazala dena probextu imar da. (Arantza)

Emen gustora *egotten* gara. (Igantzi)

Urte aunitz da asi nitzela premiuk *eramatten*. (Lesaka)

Beti giro polita *emaiten* du eta gustorat *egoiten* gara. (Etxalar)

Gazteek normalean kontzen badiote ere oraindik palatalizazio honi, haurrak galtzen hasi dira –Beran behinik behin–, eta *izaten, egoten, erraten...* ahoskatzen dute. Eta Etxalarren ere gauza bera ari da gertatzen, alegia *ematen, erraten, egoten...* diotela, *emaiten, erraiten, egoiten...* erran ordez.

Orain dela hiruzpalau urte Etxalarko hamabortz urteko mutiko batekin solasean hasi eta *izaten, egoten...* ahoskatzen zuela ohartu nintzen; hori ez zela Etxalarren erabiltzen den ahoskera erran nionean, berak kontra egin zidan, alegia, Etxalarren *izaten, egoten* erraten zela. Iaz hemeretzi urteko neska bati ere gauza bera entzun nion eta honek ere mutikoak errandakoa erantzun zidan. Eta nik: *ohar zaitez, ohar zaitez nola ahoskatzen duen zure amatxik berarekin solas egiten duzunean*. Handik egun batzuetara berriz elkar ikusi eta, nik deus galdetu baino lehen, bera aitzinatu eta erran zidan: *arrazoi duzu, amatxik izaiten, emaiten, egoiten...* erraten du; *eta amak ere bai*.

Palatalizazioaren kontua bukatu baino lehen aipatu nahi nuke Berako gazte batzuei, eta 20-30 urte artekoei bereziki, palatalizazio berri bat entzuten die-dala, lehen entzuten ez nuena. *Dira* adizkia *ttire* bihurtzen dute; *etorri ttire, joan ttire, egon ttire...*

### 3. Izen morfologia

Izen morfologian bakarrik deklinabideko bi kasu aipatuko ditut: *adlatibo (nora)* kasua *-rat* egiten dute batez ere Beran eta Etxalarren: *etxerat, mendirat...* *joan naiz; ama ikusterat joan behar dut*.

*Iturrirat* joaki gara ura *ekartzerat* (Bera)

Bertze hiru herrietan erregularri *etxera, mendira...* egiten dute.

Gazteen artean, ordea, nekez entzuten da *norat* aldaera.

*Noraino* kasuarekin ere antzeko zerbait gertatzen ari da. Adinekoen artean oraindik entzuten den forma ez da *-raino, -ñigo* baizik, hala nola: *mendiñigo / menditañigo, Lesakañigo, ...*

Satelite oitan *izartañigo* joan nahi dute. (Lesaka)

*Sunbillañigo* sartu da lañoa. (Arantza)

Gaurko gazteei *mendi(ra)ño, mendita(ra)ño, izarta(ra)ño, Sunbillaño* entzunen diegu.



#### 4. Aditz morfologia

Aditz morfologiari dagokionez, aditz batzuen jokabide aldaketa, eta ahalera aipatu nahi nituzke.

Orain artio *hitz egin* eta *mintzatu* erabili izan dira Bortzerrietan, baina horiek baino maizago sinonimo diren *solas egin* eta *solastu* –Hiztegi Batuan *solastatu*–. Eta hauen jokabidea hau izan da orain artio: *solas egin dut*, baina *solastu naiz*.

Gaurko gateek eta haurrek *solas egin* ia ez dute erabiltzen eta *solastu dut* erraten dute gero eta gehiago *solastu naiz* erran beharrean.

Gauza bertsua gertatzen ari da *jokatu* eta *jostatu* aditzekin. Beti bereizi izan dira:

Pilota partida *jokatu dut*.

Patioan gustora(t) *jostatu naiz*.

Gaurko nerabeek *jostatu* gutitan erabiltzen dute; *jokatu* gehixeago. Eta orain artio hemen erabili ez den *jolastu* –berez *jostatu*-ren sinonimo dena– anitzez gehiago, *jostatu* nahiz *jokatu* adierazteko:

Pilota partida *jolastu dut*.

Patioan gustora(t) *jolastu dut*.

Ikusten den bezala, adiera aldatzeaz gain, aditzaren jokabidea ere aldatu dute: *jolastu dut*, *jolastu naiz* erran beharrean.

Eta *behar izan* aditzaren jokabidea ere aldatzen ari da. *Behar izan* aditz iragangaitz batekin doanean (*etorri*, *ibili*...), gure eskualdean orain artio *joan behar dut* edo *hurbildu behar dut* erran izan da.

Gaurko gazteen eta haurren artean ohikoak dira *joan behar naiz*, *hurbildu behar naiz*.

**Ahalera.** Botzerrietan ia beti *ahal izan* aditzaren bidez egin izan da: *egiten ahal du*, *egiten ahalko du*, *joaten ahal da*... eta arrunt guti erabiltzen dira *-kedun* adizkiak, *joan naiteke*, *egin nezake* eta gisakoak. *-kedun* adizkiak batez ere modu inpersonalean erabiltzen dira: *intteke* (< *egin daiteke*), *joantteke* (< *joan daiteke*)... Eta noizean behin entzuten dira *eztazket* (< *ez dezaket*) bezalakoak.

Eta gazteek ere *ahal izan*-ekin egindako formak *-kedun* adizkiak baino anitzez gehiago erabiltzen dituzte. Baina betiere, *-kedunak* adinekoek baino aise maizago.

Ezezko formetan bi aldaera erabiltzen dira normalean: *ez du egiten ahal*, *ez da joaten ahal* batetik, eta *ezin du egin*, *ezin da joan* bertetik.

Nik *ez* tut merke *itten al.* (Arantza)

Bi kuadrilla *ezin* tziren ibilli auzo batin. (Arantza)

Gazteei, berriz, hagitz gutitan entzuten zaizkie *ez dut egiten ahal* sailekoak eta, ia beti, *ezin du egin, ezin da joan...* erabiltzen dituzte.

## 5. Joskera

Atal honi dagokionez ere nabari daitezke aldaketa batzuk badirela adinekoen eta gazteen artean:

### A) **Erlatiboak** *bait-* aurrizkiarekin egiten dira maiz:

Mendi artara joan da Miguel, onddo aunitz billu *baigiñuen* (onddo anitz bildu *genuenera*). (Bera)

Nik enitun izautu Gaztelun, itxi aundi bat *baita*, Bankun onduan. (Etxalar)

Or bizi da Martin, zakur tiki bat *baitu*. (Igantzi)

Adinekoen mintzairan arrunt samarra den egitura hau nik ez diet inoiz entzun hurrei eta gazteei.

### B) **Denborazko perpausak** egiteko badira forma bereziak. Hurrengo egitura hauek arruntak dira adinekoentzat:

– *-n denboran* (= *-nean*).

Lana egiten *den denborin* ezin da besta ein. (Etxalar)

Istilluk izan gintun gerra asi *zen denborian*. (Bera)

Gazte eta haurren artean ia ez da entzuten.

– *-(e)larik(an)* (= *-nean*):

Gero zakuk urratzen *ttuztelikan* (< dituztelarikan) ere, an egotzen gara. (Lesaka)

Bertzia andik unat eldu da, ta *neizulikan* (< nahi duzularikan) gelditzen tzu emendikan. (Arantza)

Forma hau, ordea, adinekoek bezain maiz erabiltzen ez badute ere, anitzetan entzuten da gazteen eta haurren artean ere.

– *-t(z)earekin* (= *-t(z)en denean/duenean*).

Lehen ikusitako *-nean*, *-n denboran* edo *-larik(an)*-ek duten erranahi berbera hartzen du, baina beti geroari egin behar dio erreferentzia, ez iraganari. Hortaz, *fruta erostearekin ordaintzen nuen* edo

*ordaintzen dut* edo *ordainduko dut* erraten ahal dut, baina ez, *fruta erostearekin ordaindu dut* edo *ordaindu nuen*.

Ori sasoya *akautzikin* erranen dut. (Igantzi)

Semia *alletzikin* abituko gara Irunara. (Bera)

Egitura hau, Beran behinik behin, nekez entzuten da gazteen mintzairan.

– **Bezala** (= *bezain laster*).

Itxin sartu *bazala* dutxatzeko erran diot. (Bera)

Joannes Etxeberri Ziburukoak erabiltzen du zentzu honetan. *Manual devotioenezcoaren* 1.090 bertsoan honela dio:

«Hitzaz eta gutzaz berdin duc, herio cruela /

gure ahoa hersten duc hi aguertu **beçala**».

Denborazko forma hau ez dut inoiz entzun gazteen artean.

## 6. Aditz atzizkiak

Bortzerrietan eta inguruko herrietan hiru aditz atzizki erabiltzen dira: **–ki**, **–katu/ketu** eta **–gogo**. Hirurak anitz erabili izan dira gaur artio eta orain ere erabiltzen dituzte adinekoek; gazteen artean, aldiz, hagitx guti erabiltzen dira eta galtzeko zorian daudela iduritzen zait. Ikus ditzagun banan-banan hiru atzizkiak.

### A) **–ki aditz atzizkia.**

Aditzoinari lotzen zaio, ez partizipioari: *ibilki, ekarki, egoki*... Hiru eratara erabiltzen da:

– Adizki trinkoak erabili ordez, *puntukaritasuna* adierazteko erabiltzen dena. Gauza jakina da, Iparraldeko euskalki batzuetan bezala, Nafarroako Zugarramurdi, Urdazubi, Etxalar eta Bera herrietan aditz trinko batzuen adizki puntukariak: *doa / zihoan, dabil / zebilen, dakar / zekarren, darama / zerman* perifrastikoki ere egiten direla, hala nola: *joaki da / joaki zen, ibilki da / ibilki zen, ekarki du / ekarki zuen, eramaki du / eramaki zuen*:

Baserritik *ekarki zuen* traktoria rebisiua eiteko. (Etxalar)

Plazara *joaki naiz* Olentzero ikusterat. (Bera)

Garbi dago Beran eta Etxalarren bi adizkiak entzuten direla, **–trinkoa** eta **perifrastikoa**–, gauza bera adierazteko: *noaie* eta *joaki naiz*, erraterako. Beran behinik behin, adizki perifrastikoak (*joaki naiz*,

*ibilki naiz...*), ekialdeko auzoetan mendealdekoetan baino anitzez ere maizago entzuten dira. Eta normala da horrela izatea, mendealdeko auzoak Lesakatik hurbilago baitaude eta, lehen erran dugun bezala, Lesakan adizki perifrastiko horiek ez baitira erabiltzen.

Gazteek eta haurrek ere maiz erabiltzen dituzte eta, segur aski, adinekoek baino maizago. Bertako berezitasuntzat hartzen dituzte batzuek eta indarrean daude. Eta erabiltzen ez ziren herrietan ere hasi omen dira sartzten, lesakar batek kontatu zidana egia baldin bada. Lesakako haur batzuei *joaki naiz, ekarki dut* eta gisakoak entzuten omen zizkien, eta erran ere erran omen zien: *zer hasi zarete orain joaki eta ekarki? Hori ez duk Lesakakoa, hori Berakoa duk.*

Honek erran nahi du beharbada lehen baino indar handiagoa hartzen hasi dela.

- **ki aditz atzikiaren** bigarren erabilera *diosala* egiteko erabiltzen dena da. Adiera honetan bortz herrietan erabiltzen da, eta bai Nafarroako ondoko eskualdeetan ere. Eta gutienez hurrengo aditzekin erabiltzen da: *ari izan, egon, heldu* (= *etorri*-ren erranahiarekin), *ibili eta joan*. Adibidez:

*Ze, ariki?* (= zer, ari zara, ari zara?)

*Egoki?, egoki?* (= bazaudete?, bazaudete?)

*Ze, helduki?* (= zer, bazatoz?)

*Ibilki?* (= bazabiltza?)

*Joaki?* (= bazoaz?)

Hona hemen Arantzan aditutako adibide bat:

-*Ze, egoki?, egoki?* (= zer, atsedean hartzen?)

-*Bai, eta zu ibilki?* (Arantza) (= bai, eta zu paseoan?)

Adiera honetan ez diet inoiz entzun gazteei eta haurrei.

- **ki aditz atzikiaren** hirugarren adiera: *hanpatzailea* gaztelaniazko «resulta que» edo adierazten duena.

-**ki hanpatzailea** deitu genion Patxi Salaberri, Juan Joxe Zubirik eta hirurok *Fontes Linguae Vasconum* (7) aldizkarian argitaratu genuen «-Ki aditz atzikiaren gainean» lanean esaldiari nolabaiteko hanpadura-edo ematen diolako. Perpausari ñabardura edo indar berezia eman nahi diogunean, doinuaz gainera, erabiltzen dugun ba-liabideetako bat aditz laguntzailea ezabatzea izaten da. Adibidez:

---

(7) Iñigo, P., Salaberri, P., Zubiri, J. J., «-Ki aditz atzikiaren gainean», *Fontes Linguae Vasconum* 69, 1995, 243-295.

A bai! Inñen diat bai nik itxia!

Ta arek itxia *iñ!* [Gaztelaniaz, «y va la hace» edo «y resulta que...» edo holako zerbait] (Bera)

*Ta arek itxia iñ* esaldiak indar berezia du, hanpatua dago. Eta nola lortu du hanpatzea? Batetik *egin* aditzari laguntzailea kendu dio eta partizipio burutua soilik utzi. Esaldiak ez du indar bera *ta arek itxia in tzuen* erranda. Eta bertzetik, doinua ere bertzelakoa ematen zaio *ta arek itxia in* erratean.

Eta hanpadura adierazten duen ekintza puntukaria baldin bada eta aditz horrek puntukaritasuna adierazteko aditz formarik, baldin badu, partizipio burutua erabili beharrean, aditz oinari *-ki* aditz atzikia paratuz moldatzen da.

Hauek dira Bortzerrietan *-ki* aditz atzikia erabiliz, hanpadura puntukaria adierazteko, erabiltzen diren aditzak:

*Ageriki, ariki, egoki, ekarki, eramaki, helduki, ibilki, izaki -izan* eta *ukan* adieran-, *joaki, eta jakinki*. Eta noizean behin: *eduki(ki), bizi-ki* eta *nahiki*. Adibideak:

Ta eskolan dena erdaraz, guk erdarik ez *jakinki* ta. (Arantza)

Nor izanen ta ama *izaki*. (Lesaka)

Or *egoki* ta nik ez *jakinki*. (Igantzi)

Gu Altzata aldera begira ta ura Illekuetatik *elduki*. (Bera)

Adiera honetan gazteek eta hurrek ia ez dute erabiltzen. Hori bai, azken boladan batzuk *izaki* erabiltzen hasi dira forma hori bertako berezitasuna omen dela-eta erabili nahirik-edo. Bertze aditzekin, nik behinik behin, ez diet entzuten. Baina kontua da, *izaki* entzuten die-danetan, *izanik* (= ‘siendo’) ordezkatzeko erabiltzen dutela. Horretaz gainera, *izanik* gerundioari ematen zaion doinua ematen diote. Eta egia da testuinguru batzuetan *izanik*-ek hartzen duen zentzura hurbiltzen dela, baina doinua bertzelakoa izateaz gainera, *izanik* mendeko perpausa da eta *izaki*, aldiz, normalki koordinatua. Horregatik onartzen ditu bere ondoan *-izanik*-ek ez bezala- *eta* edo *baina* juntagailuak.

Iaz Berako 15-16 urteko neska-mutil talde batek *izaki* erabiltzen zuela ikusita, galdetu nien *izaki* erratean zer adierazi nahi zuten. Eta berehala erantzun zidaten: *izanik balitz bezala erabiltzen dugu, baina politagoa da eta gainera hemengoa*. Eta ea aukeran erabiltzen zituzten *-batak bertzea ordezkatzeko moduan- galdegin nienean, baietz, erantzun zidaten*. Eta nik orduan *Amodioa zoin den zoroa* kantaren zati bat erakutsi nien, eta erran ea hor ageri diren *izaki* eta

*eramaki* –beren ustez baliokideak diren– *izanik* eta *eramanik* erabiltza ordezkatzeko gauza ote ziren:

Amodioa zoin den zoroa  
 mundo guziak badaki.  
 Nik maiteño bat *izaki* eta  
 bertze batek *eramaki*...

Eta hasi ere hasi ziren: *nik maiteño bat izanik eta bertze batek eramanik*... Baina berehala konturatu ziren hori ezinezkoa zela.

Gauza bera adierazi nahi baduzue –erran nien–, saia zaitezte *izan* eta *eraman* sartzen, eta ikusiko duzue adiera bera izanen duela esaldiak eta, gainera, hanpadura eta doinua ere berbera izanen duela:

Nik maiteño bat *izan* eta  
 bertze batek *eraman*...

Horrela adierazten dute, hain zuzen, –partizipio burutua erabiliz– esaldiaren hanpadura bertze euskalki batzuek eta gipuzkerak batik bat. Hona hemen adibide batzuk, Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (8) nobelatik hartuak:

Nor izango ta behia *izan*. Denak berarekin ahaztuta *egon* nonbait (9).

[**Guk:** Nor izango ta behia *izaki*. Denak berarekin ahaztuta *egoki* nonbait.]

Baina aurreneko behi hura ergela *izan*, eta gure mordoxka zenbatekoa zen *galdetu* ez (10).

[**Guk:** Baina aurreneko behi hura ergela *izaki*, eta gure mordoxka zenbatekoa zen *galdetu* ez.]

Jakina, umea *izan* eta artean ez *jakin* munduan hizkuntza desberdin asko zeudenik (11).

[**Guk:** Jakina, umea *izaki* eta artean ez *jakinki* munduan hizkuntza desberdin asko zeudenik.]

Garbi ikusten ahal da Atxagaren partizipio hanpatuak eta gure –*ki* atzizkidunak baliokide direla.

(8) Atxaga, B., 1991, *Behi euskaldun baten memoriak*, Pamiela, Iruñea.

(9) *Ibid.* 34. or.

(10) *Ibid.* 35. or.

(11) *Ibid.* 47. or.

Koldo Zuazok ere badarabil partizipio burutu hanpatua bere *Euskararen sendabelarrak* (12) liburuan erraterako. Hona hemen adibide pare bat:

Eta horretarako, nonbait, euskalkiak ez *izan*, egokiak, ez *izan*, behar bezain jasoak (13).

[**Guk:** Eta horretarako, nonbait, euskalkiak ez *izaki* egokiak, ez *izaki* behar bezain jasoak.]

Baina, nonbait, «merkealdia» ez *izan* nahikoa jaso eta moderno! (14)

[**Guk:** Baina, nonbait, «merkealdia» ez *izaki* nahikoa jaso eta moderno]

Hemen ere baliokideak direla ikusten dugu.

Eta lehen aipatutako Berako neska-mutilengana itzuliz, galdetu nien:

- Eta zuei nork erran dizue *izanik* eta *izaki* sinonimoak direla eta batak bertzea ordezkatzan ahal duela?
- Hiztegietan hala paratzen du.
- Eta zein dira begiratzan dituzuen hiztegiak?
- Euskara-euskararako Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta euskara-gaztelaniarako Elhuyar-en *Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco Hiztegia* eta gehien *Elhuyar Hiztegi Txikia*.

Begiratu ditut hiztegi horiek eta honela diote:

Ibon Sarasolaren *Euskal hiztegiak*:

«**2 izaki izanik**

Indar guztiak eskuetan *izaki*, eta halere jendearen beldur.

Beste eginkizunik ez *izaki* eta, hor aritzen dira umeentzako eskolak egiten».

Adibide hauetan, guk errandakoaren arabera, primeran jarriak daude bi *izaki*-ak, esaldi hanpatzaileak baitira; baina ezinezkoa zaigu *izaki* paratu beharrean *izanik* paratzea. Eta jartzekotan, aldaketa batzuk egin beharrean egonen gara. Batetik ondotik doazen *eta hale-re* lehenengoan, eta *eta* bigarreanean kendu beharko ditugu eta, orduan, hanpadura galtzen digute esaldiek. Eta jendeak hiztegian

(12) Zuazo, K., 2000, *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Irun.

(13) Ibid. 138. or.

(14) Ibid. 139. or.

*izaki*=*izanik* ikusten badu, sinonimotzat hartzen ditu eta, aukeran, norberaren gogoaren arabera bata edo bertzea erabiltzen.

Baina saia gaitezen *izaki*-ren ordez *izan* paratzen. Ez digu inolako arazorik sortuko, ez erranahiaren aldetik, ez hanpaduraren aldetik, eta gainera ez dugu juntadurarik kendu beharko.

Indar guztiak eskuetan *izan*, eta halere jendearen beldur.

Beste eginkizunik ez *izan* eta, hor aritzen dira umeentzako eskolak egiten.

[Sarasolaren hiztegiak gero honela segitzen du:

«*D(ir)elako, izaten d(ir)elako.*

Oihenart poetak ez du merezi, ene ustez, Oihenart historialariari zor zaion laudorioa; bi dohain horiek, ordea, elkar ezin ikusi dutenak *izaki*, apika.

Eta azkenean, nork esan, inor baino berritsuago azaldu zaigu: zaharra hiztuna *izaki* nonbait».

Honek ez du inolako arazorik sortzen, gutiz goiti beheiti, hori delako bere erranahia. Dena dela, esaldi hauetan ere *izaki*-ren ordez *izan* sartu eta esaldiak ez digu inolako ñabardurarik galduko]

*Elhuyar Hiztegiak* honela dio:

«**2 izaki.** *Adb.* 1 *Siendo, al ser; teniendo, al tener; estando, al estar:*

Indar guztia eskuetan *izaki*, pilotan jokatzen hasi zen: *al tener toda la fuerza en las manos comenzó a jugar a pelota.*

Beste lanik ez *izaki*, etxera joan dira: *al no tener más trabajo se han ido a casa*».

Zalantzarria da esaldi horietan *izanik* sartzea *izaki* ordezkatzeko. Eta ordezkatzuz gero, batetik *izaki*-k duen hanpatzeko indarra galduko du; bertzetik, doinua ere bertzelakoa litzateke, eta hitzen ordena behinik behin aldatu beharko litzateke. Bigarren esaldian konparazio baterako, «etxera joan dira, beste lanik ez *izaki* nonbait».

[Gero honela segitzen du:

«**2** *Pues es, está, tiene...*:

Gau guztia hitz egin eta hitz egin aritu naiz: oso hiztuna *izaki* nonbait: me he pasado toda la noche charlando, *pues* al parecer *soy* muy cotorra».

Honek ez du inolako arazorik sortzen eta *izan* jartzen ahal dugu *izaki* ordezkatzeko eta esaldiak ez digu inolako ñabardurarik galduko].



*Elhuyar Hiztegi Txikia*-k –aipatutako gure neska-mutilek gehien erabiltzen omen zutenak–, honela dio:

«**2 izaki.** *Adb. Siendo, estando, teniendo.*

Zuek nire ondoan *izaki*, lasai egon naiteke: *estando* vosotros a mi lado, puedo estar tranquilo».

Hiztegi txikiak handiaren laburpena *izaki* nonbait, eta behin kentzen hasita zuzen zegoena kendu eta okerrena aukeratu. Adibide horretan garbi dago esaldiak *izanik* eskatzen duela eta ez *izaki*.

Hona iritsita, ohar bat egin nahi nuke. Ez dakit hiztegien eragina gure gatzetxoengana ez ezik helduengana ere ez ote den iritsi. Izan ere, gaurko euskal hedabideetako esatari batzuek, *izaki* gero eta maizago erabiltzen digute –bertzeak: *eramaki, joaki, ekarki, jakinki... ez dizkiezu inoiz entzunen*–. Eta esaldiaren ordenari eta ematen dioten doinuari erreparatzen diogunean, berehala konturatzen gara, hamarretatik bederatzietan, *izanik*-en sinonimotzat hartu eta hau ordezkatzeko erabiltzen dutela.

Eta zein da –*ki* atziki hanpatzailearen kontu honetatik ateratzen ahal dugun ondorioa?

Jose Maria Azpirotzek (15), euskaltzain urgazle izan zenak, zera dio gai honi buruz: «En Leiza –*ki* [izaki, ibilki] no tiene sentido de gerundio. La traducción sería “resultó que entonces... aquel día...”» (16).

Hogeita bortz urte lehenago, Manuel Lekuonak (17) antzeko zerbait idatzi zuen. Hona hemen bere hitzak: «Oyartzun`en *izaki, ibilki, ego-ki...* erabiltzen ditugu –itzetik ortzera erabili gañera–, bañan ez gerundio bezela, infinitibo bezela baizik. *Izaki* erabiltzen dugu *izan* bezela-bezelaxe. Gipuzkeraz –*ki* gabeak duan esan-nai berbera ematen diogu guk» (18).

Eta ni erabat bat nator, bai Azpirotzekin bai Lekuonarekin eta, haiek bezala, ondorio hau aterako nuke: Nafarroan –eta Bortzerrietan zehazki– *izaki* ez da *izanik, izan* baizik; *izan* hanpatzailea alegia, eta aspektu puntukaria duena, Atxaga eta Zuazoren esaldietan ikusi dugun bezala. Eta *izaki*-z dioguna gauza bera diogu *ibilki, joaki, ego-ki, helduki, ekarki, eramaki, jakinki* eta abarrei buruz.

(15) Azpiroz, J. M., «Azkue hiztegiari gehituz», *Euskera* 26, 239-244.

(16) Ibid. 243. or.

(17) Lecuona, M., «-Ki, gerundio atzizki?», *Euskera* 1, 1956, Bilbo, 145-148.

(18) Ibid. 146. or.

B) *-katu/-ketu* aditz atzizkia

Gramatketan ez dut inon aditz atzizki honen aipamenik ikusi. Nik aurkitu ditudan aipamen bakarrak gaur hemen omenduak izan diren eta, Pello Apezetxeari esker, hobeki ezagutu eta gogoratu ditugun Fr. Eusebio de Echalar eta Teodoro Arburua etxalartarrek egindakoak dira. Fr. Eusebio aditz atzizki honen hedaduraz ari izan zitzaigun *Jakintza*-n (19). Honela dio:

«Nosotros empleamos frecuentemente un sufijo verbal no recogido por los tratadistas: *-ketu*, v. gr. *ibilliketu*, *izanduketu*, *etorriketu*, *ikusiketu*, *emanketu*. Se dice en los pueblos del Bidasoa hasta Fuenterrabía. No se declina. He solido andar, estar, venir, ver, dar, he llegado a...»

Guk badakigu Malerrekan ere ohikoa dela eta Goizuetan ere erabiltzen dela; baina uste dut ez dela Baztanera iristen.

*-katu* erabiltzen da gehienetan; Bortzerrietan *-ketu* ere aditzen da batzuetan.

Partizipio burutuari lotzen zaio *-katu* / *-ketu* eta ez aditzoinari, eta bertze hizkera batzuetan *izan*-ek hartzen duen adiera bera du, gaztelaniazko «*he llegado a...*» edo adierazteko erabiltzen dena:

*Ikusikatu* dut erreka ortan gizon bat illa (= *ikusi izan* dut erreka horretan gizon bat hila). (Etxalar)

Baina ikus dezagun Teodoro Arburuak *Euskal-Esnalea*-n eman zigun azalpena:

«*Ikusiketu*, *adituketu...* *ta abar*. Bera'n eta Etxelar'an eta bear bada bertze auzo-erriyetan erraiten dugu:

–*Ikusiketu* dut or lenago erbia.

–Ori adituketu nion aita zenari.

–Oriyek zelayan, zabaliyan, utziketu gaituzte.

Adierazi nai dugu oriyetan erdaldunen:

–*Ahí he llegado á ver antes liebre.*

–*He solido oír eso al difunto padre.*

–*Esos nos han solido dejar á la luna de Valencia.*

¿Zein ote da *ketu* orren itxorkuna?

(19) Echalar, Fr. E., «Palabras vascas en Monumentos Romanos», *Jakintza* 1933, 279

Azkue aba jaunari oartu zitzayon itz orriyaz, eta egundaño ez entzun eta ez irakurri etzuela ziyon euzkel-yakitun aundi orrek» (20).

Hona hemen Bortzerrietako adibide batzuk:

Ta nola zen ola eiña, soldaduk *einkatuk*, (<eginkatuak), ta nola ziren planuk... (Bera)

Nik olko kontuk *adittuketu* ttut. (Igantzi)

Erriyin *ibilkatu* gara urtezar arrats batin... (Arantza)

Zenbaitetan *izan* eta *-katu*, biak, erabiltzen dira erredundantea bada ere:

Ni ibilli *izandukatu* naiz an. (Etxalar)

Aditz atzizki hau ere nekez entzuten da gazteen eta haurren artean.

### C) **gogo aditz atzizkia.**

Atzizki hau ere partizipioari lotzen zaio eta ez aditzoinari: *joangogo*, *erosigogo*, *ekarrigogo*, eta abar.

Adierari dagokionez, garbi dago ez direla *joateko gogoa dut* edo *erosteko gogoa dut* esaldien baliokideak. Aditzari, gogoarena baino gehiago, asmoaren ñabardura eransten dio, aditzaren ekintza gauzatzeko erabakia hartua-edo izanen balu bezala. Hortaz, *-t(z)zeko asmoa* edo, adierazten du.

Aditz atzizki honen hedadura ez da hagitz zabala, baina zalantzarik gabe *-katu/ketu* atzizkiarena baino zabalagoa. Hona hemen zenbait adibide:

Biyar zure itxera *joangoo* dut (= zure etxera joateko asmoa dut, joatea pentsatzen dut). (Lesaka)

Olko zerra bat *erosigoo* dut (= holako zerra erosteko asmotan nabil, erostea pentsatzen dut). (Arantza)

Eldu den urtian tillatua *moldatugoo* dut, okerrikan suertzen ez-pada (= Heldu den urtean teilatua moldatzeko asmoa dut / moldatzea pentsatzen dut, okerrik suertatzen ez bada). (Bera)

Donamaritik do bertze nunbaitik *ekarrigoo* dugu egurra negua trankill pasatzeko (= ekartzeko asmoa dugu / ekartzea pentsatzen dugu. (Lesaka)

Aurreko aditz atzizkia bezala, hau ere nekez aditzen da gazteen artean.

(20) Arburua Teodoro, «Galdeak 10<sup>o</sup>g. Galdea» *Euskal-Esnalea* 1914, 20.

## 7. Azentua

Beti aditu izan dugu Bidasoa aldeko azentua hitzaren azentua dela eta ez esaldiarena eta nahiko markatua (Zuberoakoaren ondotik agian markatuena):

Bedé(ra)tzi, abís(a)tu, zár(re)na, óin(e)tukuk / óin(e)takuk...

Bortzerrietan eta Malerrekan beti lehenbiziko edo bigarren silaban joanen da azentua, inoiz ez hirugarrenean (Irun eta Hondarribian edo Baztanen, bai):

Ostíkua, katákuxintxa, berótasuna, kánpotarra, mínbizi(y)a...

Eta behin azentuak silaba batean jotzen badu, handik ez da mugitzen, nahiz eta hitz hori nahi den adina luzatu:

kánpo, kánpotarra, kánpotarrari, kánpotarrangatik...

emákumia, emákumindako...

Elízondo, Elízondokundako...

Normalena bigarren silaban jartzen da azentua:

astélena, baséri(y)a, gorpútza...

Silaba bakarreoetan, jakina, lehenbiziko silaban eta bi silabako batzuetan ere bai:

bágo, bésta, írri, bíño, séme, txístu, télla...

Orain artio errandakoan Malerreka eta Bortzerriak bat etorri dira azentuan, eta gazteek ere, normalki, adinekoek bezala egiten dute.

Baina bada kasu bat gazteak adinekoengandik aldenuz joan direna. Hitz konposatuetan lehenengo elementuak azentua non, han joko du azentuak konposizioa egin eta gero. Adibidez:

kánpo+santua > kánposantua.

Eta, jakina, lehenengo elementua silababakarra baldin bada, azentua lehenengo silaba horretan joanen da konposizioan eta hortik ez da mugituko:

oin+utsik > óinutsik

bi+garren > bígarren

des+egin > dése(g)in

san+ferminak > sánferminak

san+estebanak > sánestebanak

Bortz+herriak > Bórtzerri(y)ak, eta abar.

Eta, erran bezala, gazteek atzo artio iraun duen azentu modu hau aldatu dute hitz konposatu batzuetan. Gaur hiru hondarreko hitzetan bigarren silaban sartzen da azentua, hala nola:

*Lesakako sanférminak, Berako sanéstebanak, Botzíriak / Bortzériak...*

Egia erran, gaur 70-80 urtekoek bakarrik markatzen dute lehenengo silaba hiru hitz konposatu horietan.

Eta gazteen artean *oinútsik dabil* eta gisakoak ere entzuten dira.

## 8. Esapideak edo erranerak

Hona hemen erranera batzuk gaur artio barra-barra entzun izan direnak, bertzeak bertze Bortzerrietan erraten direnak, baina gazteek hagitz gutitan edo behin ere erabiltzen ez dituztenak.

- Isiltzeko *hobea zaude!* (= *baduzu isiltzeko ordua*)
- Bestak bukatzeko *hobeak ziren»* (= *eskerrak bukatu diren!*)
- *Hobe duzu gero inori ez erran!* (= *ez gero inori erran!*)
- Zurekin solas egin nahi dut, erran zion *abatik hortzera.* (= *hitzetik hortzera*)
- Etxe horretako semea? *Haize puska bat!* (= *espantu eta itxura bertzerik ez*)
- Zuk kontatutakoa gezurra ez ote den *egoten naiz* batzuetan. (= *pentsatzen dut*)
- Egunero autoan eraman behar bazaitu, *ez diozu lan txarra eman!* (= *zama handia jarri diozu*)
- Eginen dizu biharko *barrenak hala laguntzen badio.* (= *gogorik baldin badu*)
- *Hi bizi haiz, hi!* (= *bai ongi bizi haizela!*)
- *Hi haiz, hi!* (= *ikaragarria haiz gero!*)
- *Atzokoaren ondoan anitez hobeki da gaur!* (= *atzokoarekin konparatuta*)
- *Ezarian-ezarian erran zizkion ederrak!* (= *poliki-poliki, pixkaka-pixkaka*)
- Joan den astean *euria leher aritu* zuen. (= *ikaragarri*)

- *Hats handitua* ailegatu da etxera. (= *arnas estuka...*)
- Hau eta hau erran nion *alde-aldera*. (= *gutiz goiti beheiti*)
- Zorriak baino lotsagabeagoa da. *Hala duzu, bada!* (= *badakit gaizki dagoela erran dudana, baina merezia zuen!*)
- Dirua *hobeki dauka* emakume horrek! (= *dirua bertzerik ez du*)
- Ordu batez bukatuko nuke lan hori! *Nonbaitere!* (= *gero ere bertzelako gauza!*)
- *Igandea gabe* joan nahi dut Elizondora. (= *igandea iritsi baino lehen*)
- Amak ere joan nahi du *noski* gurekin Irunera. (= hala iruditzen zait, hala uste dut)
- *Duikabe* oroituko da bihar nire urtebetetzea dela. (= *hala uste dut, hala espero dut*)
- Hi aizkoran ikusi eta *harritu ez banaiz ni!* (= *erabat harrituta utzi nauk*)
- Koldo ere heldu da gurekin? *Heldu ote den, bada!* (= *jakina! Horixe!*)
- *Nork egin baitu* ere etxe hori, ez du gustu handirik izan. (= *egin duenak egin duela*)
- *Iduri eta horrek jakinki* nor izan den. (= *badakien plantak egiten ari da, baina ziur naiz ez dakiela...*)
- Ez duzu ukatu; *geroztik* egia zen. (= *beraz,...*)
- Adinak *nola eramaten duen!* (= *ahalbideak galarazten ditu*)
- Ezkilak *jotze aldera* kafea, kopa eta purua ematen zidaten. (= *jo orde, jotzeagatik*)
- *Apen demonios / apen kristo* etorriko da! (= *ez da etorriko, ez!*)

## 9. Lexikoa

Lexikoari dagokionez ere, esapideekin gertatzen zaigun gauza bera gertatzen zaigu. Hurrengo hitzak, erraterako, orain artio ahotik hortzera erabili izan badira ere, nekez entzuten ditugu gazteen ahotan:

- *Agian* (= ‘*ojalá*’): etorriko da *agian!* (= *etorriko ahal da!*)
- *Artexa [artezia]* (= *esku trebea*): nire anaia *artexa* izan da betitik.
- *Ausarki* (= *ugari*): badugu janaria *ausarki*. (= *anitz, ugari...*)
- *Bizkorki* (= *ugari, anitz...*): jendea *bizkorki* etorri zen.

- *Erdazu* (= *lerdetsu*): ume *erdazu* zikina!
- *Erogarri* (= *zoragarri*): eguraldi *erogarria* egin zigun.
- *Ezki* (= *beldurti, eskapoka dabilena*): jende *ezkia* duzu hori.
- *Gutizia* (= *irrika, gogo bizia*): txokolatea jateko *gutizia* dut.
- *Iraungi* (= *itzali*): *iraungi* dituzu argiak?
- *Hitz debeku* (= *toteltasun*): *hitz debekua* du mutiko horrek. (= *totela da*)
- *Jendaki* (= *ahaide*): zure *jendakia* da hori?
- *Kokollka* (= *kokoriko*): gustura ibiltzen dira *kokollka*.
- *Mendratu* (= *mespretxatu*): mundu guzian *mendratu* nahizik dabil.
- *Obeni(a)n* [*hoberenean*] (= *beharbada*): *obenin* gaur joanen dira.
- *Zenberena* (= 'requesón'): hagitz goxoa zagon *zenberena*.

***IKER SAILA***



## **DIALEKTOLOGIA**

UHARTE (IRUÑEA):  
EUSKALKIAK ETA KOMUNUKABIDEA

*2004-VI-16*

## EUSKALKIEN TRATAERA IKUS-ENTZUNEZKO HEDABIDEETAN

*Esti Arzuaga,  
Proyeccion taldea*

Arraro samar egiten da [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv)ren esperientziaren berri ematea egoera eta Jardunaldi hauetan. Izan ere, «euskalkien trataera ikus-entzunezko medioetan» izanik jardunaldien gaia, eta kontutan hartuta [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv)k euskara batua oinarritzat hartzen duela, lehen begirada batean behintzat Jardunaldi hauetan eztabaidarako aukera gutxi ematen duela pentsa liteke. Are gehiago, ofizialki lau hilabete eskas dituela kontuan hartuta, historia eta garpen aldetik aztertzeo «iragan» gutxi duela ere argi baitago.

Baina, bestalde, [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv)ren ezaugarri horiek beraiek hausnarke-tarako aukera sorrarazi dezaketela uste dut, eta hori espero gainera. Etorkizunari begira ikus-entzunezko euskarri berrietan euskalkiek bete beharreko lekua aztertzeo bidexka bat ireki dezakeela, uste dut. Jarraian aipatuko diren egoera eta ezaugarriek euskalkien trataeraren azterketan beste bide berri bat ireki dezaketela, edo behintzat euskarri berriak ere hor badaudela gogoratu dezaketela, uste dut: euskalkiek Interneteko hedabideetan ere beren txokoa izan beharko luketela, alegia.

Izan ere, gurea ikus-entzunezko hedabide digitala den eienean, eta daukan emisio ezaugarriak direla eta, euskararen (eta euskalkien) aldetik aztertu beharreko beste bide bat ere bada.

Lehenengo eta behin [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv)ren berri ematea da beharbada egoiena: zer den eta zer egiten duen azaltzea.

[www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv) Internet bidez emititzen duen ikus-entzunezko komunikabide digitala da; labur esanda, Internet bidez soilik emititzen duen euskarazko telebista.

*Proyección* taldearen baitan kokatzen da [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv); enpresa honen ikus-entzunezko arloan. Atal hau 4 kidek osatzen dute eta, beste gauza batzuen artean, 2 ikus-entzunezko hedabide digital ekoizten dituzte: soilik internet bidez emititzen duten [www.proyeccion.tv](http://www.proyeccion.tv) eta [www.euskaraz.tv](http://www.euskaraz.tv)

Hausnaketa honi ekiteko orain arte aipatutako bi ezaugarri nabarmenduko nituzke: Internet bidez emititzen dela (soilik Internet bidez) eta telebista bat dela (Bilbon kokatzen den telebista).

Zertan datza «Internet bidezko telebista» kontzeptua?

Behin atariaren orri nagusira sartzean 6 kanalekin egiten dugu topo eta kanal horietako bakoitzak arlo bat lantzen du. Beraz, kanal bakoitzak arlo hori lantzen duten bideoak biltzen ditu: Albisteak, Hitzaldiak, Expo-Art, Turismoa, Zabalik eta Kongresuena.

Horrela, erabiltzailea bertara sartu eta dohainik bideo hauek euskaraz ikusi eta entzun ditzake, osorik.

Eta, osotasun hau berau da beharbada ezaugarri bereziena eta euskara aldetik ere bereiztasuna ekartzen diona.

Izan ere, ekitaldi informatiboa osorik grabatu, bideoa egin eta osorik eskegitzen dugu kanal horietan, igorleak berak eskaini edo igorri duen modu berean eta igorlearen beraren eskutik gainera.

Beraz, kasu honetan, igorle horren eta azken finean protagonista horren euskara (euskalkia) da bideo horretan ageri dena. Guk bideo horren ganean egiten dugun trataera bakarra berau laburtzea da (geroago e-mail bidez laburpen hori hartzaileei igortzeko); eta, laburpen horretan dago guk euskara aldetik egiten dugun aukeraketa bakarra, erabaki bakarra. Oraingoan hartutako erabakia euskara batuaren aldekoa izan da, laburpen hori euskara batuan egitea, alegia. Eta, zentzu honetan komunikabidearen ezaugarri hauek hori egitera bultzatzen dutela uste dugu.

Hiru ideia nagusiren inguruan laburtuko nuke nik erabaki horren egokitasuna.

## 1. HEDADURA

Euskaltzaindiaren adierazpena oinarritzat hartuta, eta, hedadura kontuak hizpide, *www.euskaraz.tv* zein motatako hedabidea den aztertzearekin hasi gaitzke.

Komunikabide mota zehazteko hedadura oinarritzat hartuz, *www.euskaraz.tv* tokian tokiko telebista al da?

Bere hedadura edo jardun esparrua Internet izanik, esparru hori zabala dela kontsideratu daiteke; baina, bestalde, lantzen dituen edukiak nahiko eskualdekoak direla ere argi dago: Bilbo inguruan gertatzen direnak.

Egia da eduki kontuan Euskal Herri mailako edukiak lantzeraz jotzen dugula, nahiz eta emititzen denaren erdia baino gehiago Bilbora mugatu; baina,

Bilbo inguruan kokatu arren, oihartzuna Euskal Herri mailakoa izaten da kasu gehienetan.

Adib.: Bizkaiko Foru Aldundiko hainbat prentsurrekoren gaineko interesa printzipioz Bizkaia ingurura mugatzen den arren, politika mailan eduki gehienak Euskal Herri mailako interesa dutela, esan liteke.

Beraz, Internet bezalako euskarri batean tokikotasunak ezaugarri bereziak dituela argi dago.

## **2. INTERNET EMISIORAKO EUSKARRI BAKARRA DA**

Ikus-entzunezko beste atariekiko edo komunikabide batzuekiko ezberdintasun bat ere badu honek: kasu hauetako askotan Interneteko emanaldia osagarria izaten da, euskarri nagusiago baten osagarria.

Gure kasuan Internet euskarri nagusia eta bakarra da; eta egitura aldetik ere *www.euskaraz.tv-k* telebista izaera mantendu nahi du, kanaletako banaketa eginez.

Beraz, Internet euskarri nagusia izanik bere hartzaile potentzialak Bilbo inguruneaz gain Euskal Herri mailako euskarazko hartzaileak izan litezke.

## **3. IGORLEAREN ESKUTIK JASOTZEA INFORMAZIOA**

Lehen esan bezala, edukiak osorik eta hartzailearen eskutik jasotzen ditugu; beraz, hartzaileak izortzen dituen modu berean: euskara batuan bada, batuan eta euskalkiren batean bada euskalkiren batean.

Guk horren aurrean egiten dugun «lanketa» bakarra laburpen bat da, gero e-postaz bidaliko dena; eta, zentzu honetan, eta aurretik aipatutako beste bi ezaugarriei begira, ahalik eta zabalaren eta orokorren izateko batua komenigarriagotzat jotzen dugu, laburpen horiek ahalik eta bateratuen izateko.

Beraz, hau guztiau kontuan hartuz, batua aukeratu dugu gure lanketarako: igorleak bere euskalkian igorri dezake albistea edo ekitaldi informatiboa; eta, biak batera erabiltzen diren arren, ez dira elkarrekin nahasten, eta bai bataren eta bai bestearen izaera mantendu egiten dira, atalez atal bereiztuta gelditzen direla kontsideratuz.

Horrela, igorlearen nortasuna mantendu egiten da (hori baita azken batean gure ezaugarri bereizgarrienetako bat); baina baita informazioa zabaltzeko guk egokitzen jotzen dugun bateratasuna, laburpenetako euskara batuaren bidez lortzen dena.

Eta, honen adibide argia hitzaldien kanalean aurki daitekeen Julen Gabiriaren hitzaldia izan daiteke; berak bere euskalkia erabili arren, guk bateratasun eta Internetek ematen duen zabalera hori mantentzeko euskara batuan idatzi genuen hitzaldi horren laburpena.

Beraz, Internet bidez emititzeak eta igorlearen eskutik bertatik informazioa zuzenean jasotzeak euskararen erabilera aztertzeko aukera berri bat plazara dezake. Nortasuna mantenduz Internetek eskaintzen duen bateratasuna lortzea izan da guk horren aurrean hartutako erabakia.

## EUSKALKIAK ETA HERRI KOMUNIKABIDEAK

*Iñaki Mundiñano Larraza,  
Guaixe, **Bierrik** Elkartea*

Euskalkiek Nafarroako herri komunikabideetan duten tratamendua aztertzeko Jardunaldien barnean aipagai dugu Sakanako *Bierrik* Elkartek bere menpe dituen komunikabideetan euskalkiek duten tokia. Euskalkien eta herri komunikabideen gaiari zuzen-zuzenean heldu aurretik, garrantzitsua izanen da *Bierrik* Elkartea zer den azaltzea eta Sakanak dituen berezitasunak agerian uztea:

### **BIERRIK ELKARTEA**

*Bierrik* Elkartea 1994. urtean sortu zen. Hasierako helburua Sakanako euskarazko komunikabideak indartzea izan zen eta, hori da, nagusiki, mantentzen duen helburua. Sortu zen urtean berean hasi zen argitaratzen *Guaixe* hilabetekaria.



*Guaixe* hilabetekaria garaiko herri komunikabideen eredura sortu zen: bailarako berriak eman, erreportaiak, elkarrizketak... Eredua izan ziren sorrera garaian indartsu argitaratzen ziren herri aldizkariak: *ttipi-ttapa*, *Arrasate Press*, *Eta kitto!*...

Gerora, 1998an *Beleixe* irratia sortu zuen elkarteak eta ia garai berean *Oixe* astekaria. Guztiek betetzen dute ezaugarri bera: sakandarrendako informazio iturri izatea euskaraz eta irakurzaletasuna bultzatzea. Idatziaren esparrua osatuz diseinu zerbitzua sortu da eta bertan udal buletinak, festetako programak, aldizkariak, ikas agendak... sortu eta maketatu dira.

\* \* \*

2003a bitarte komunikabideen egoera:

- ***Guaixe*** hilabetekaria (1994-2003): 40 orrialdeko aldizkaria. 3.600 ale hilero. Harpidedunen etxeetan banaturik.
- ***Oixe*** astekaria (2000-2003): 8 orrialdeko argitalpena. Egunkari formatua. 2.500 ale astean. Dendetan uzten zen, ez zen etxeetan banatzen.
- ***Beleixe*** Irratia: eguneroko saioa goizez. Herri hizkera eta batua tartekaturik.

\* \* \*

Bestealde, hainbat libururen eta materialen bultzatzaile eta laguntzaile izan da elkarteak:

- Liburuak:
  - Jose Maria Satrustegiren *Sakanerri Barrena* (1999).
  - Jose Miguel Bidadorren *Sakanako Euskal Idazleen Antologia I* (2000).
  - Jose Luis Erdoziaren *Sakana erdialdeko jostagarri eta esaerak* (2003).
  - Maria Floresen *Basogintza Sakanan* (2003).
- Diskoak:
  - *Sakanan egina* (1999).
- Jokoak:
  - *Sakanako Tribiala*.
- Sakanako ahozko tradizioa aztertzeke beka:
  - Sakanako ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoa (hizkerak, topnimia, ohiturak, literatura...).
  - Euskara maila hobetzeko ikastaroak.
  - ...

Komunikabideez gain, euskal txokoak ere sortu ditu elkarteak: Etxarri-Aranatzen bat eta Altsasun bestea. Bertan kultur ekitaldi ugari egin da azken urte hauetan.



Proiektua bultzatzen duten 400 bazkide inguru ditu elkarteak eta aipatu-takoen kuotekin, publizitatearekin eta erakundeek emandako diru-laguntzei esker egiten du aurrera *Bierrik* elkartearen proiektuak.

Aurten egindako berrikuntzen artean, nabarmenena, *Guaixe* hilabetekaria astekari bihurtzea izan da.

## ZER DA SAKANA?

Sakana Nafarroa ipar-mendebaldean kokatua da. Esanak esan, Sakana ez da haran bat, hiru haran biltzen dituen mendiarte baizik (*Aralar* eta *Andia-Urbsa* mendiak, alegia): *Burunda*, *Aranatz* eta *Arakil*.




Hauexek dira Sakanako datu orokorrak:

- Herri asko biltzen ditu: 30 herri.
- 35 kilometro luze da.
- Herrien artean desberdintasun handiak daude. Esate baterako, Arruazuk 99 biztanle ditu eta Altsasuk 6.965.
- Zenbait herritan euskara bizi-bizirik *dago* (hiru herri, Arbizu, Etxarri-Aranatz eta Urdiain, UEMAKo kide dira), beste batzuetan helduenek baino ez dute ezagutzen eta beste-etan bertako euskara galdua da. Esandakoaren adibide, Altsasun 5 inguru izanen dira bizirik gelditzen diren euskaldunak eta Olaztin joan zen urtean hil zen bertako azken euskalduna.




Euskaldunak: % 37.40  
la-Euskadunak: % 20.30  
Erdaldunak: % 42.30

Ondorengo grafikoek lagunduko digute Sakanako egoera hobeki ulertzen:



Herri euskaldunenak erdialdeko herriak dira gehienak, bertan euskarak osasuntsu edo segitzen du: Urdiain, Etxarri-Aranatz, Lizarragabengoa, Ergoiena (Lizarraga, Unanu eta Dorrao), Arbizu, Lakuntza eta Arruazu. Ondorengo grafikoa ikusiz gero, ordea, irauli egiten zaizkigu, nolabait, goiko datuak: herri erdaldunenak dira populatuena eta hauetan txikia da euskaldunen proportzioa (% 22 Altsasan, % 20 inguru Arakilen eta Irurtzunen). Zutabeen gainean ageri diren zenbakiak herrietako euskaldunen kopuruak dira.



**SAKANAKO EUSKALKIAK**

Bertako euskalkiei erreparatzen badiegu, kontraste handiko eskualdea dugu Sakana. Luis Lucien Bonapartek berak ere lanak izan zituen bertako euskalkiak mapan behar zen bezala adierazteko. Sakanako euskalkiek mendebaldeko hizkeren eta nafarreraren arteko zubi lana egiten dute eta hori dela eta, aberastasun handia eta aldaketa ugari biltzen dute bertako hizkerak. Aberastasun honen erakusle dugu ondorengo isoglosa. Bitxikeria hutsa bada ere, argi eta garbi adierazten du Sakanako euskalkien auzia:




Bonapartek 1863an egin zuen euskalkien maparen arabera honela sailkatu zituen Sakanako hizkerak:

- Gipuzkera (Burunda eta Etxarri-Aranatzeko hizkerak).
- Iparraldeko goi nafarrera (Arbizutik ekialdera).
- Hegoaldeko goi nafarrera (Ihabarretik ekialdera).



Koldo Zuazok egin duen euskalkien sailkapen berrian tarteko hizkeratako hartu ditu Burundako hizkerak eta beste gainerakoak nafarreratakoak hartu ditu. Zuazoren esanetan Burundako hizkerak mendebaldekoaren, erdialdekoaren eta nafarreraren tarteko hizkerak dira eta Sakanako beste gainerakoak hizkera nafarrean sailkatzen ditu, hego-sartaldeko azpieuskalkian (\*).



Sailkapenak saikapen, herri batetik bestera hizkera aldatu egiten da, eta ez gutxi gero (aditz sistema ezberdinak, ekialde eta mendebaldeko ezaugarriak...). Nabaria da hizkeren arteko batasun falta eta honek, zorionez, hizkuntza aberastasun izugarri handia ematen digu baina era berean, zoritxarrez, homogeneotasunik ezak ahuldu egiten du herri hizkeren indarra.

Sakanako hizkerak sailkatzen zailak izanagatik, orain gutxi arte gehiegi ikertu ez diren hizkerak izan dira. Bonapartek zenbait testu itzularazi zuen zenbait hizkeratara, Damaso Intzak Burundako aditzak landu zituen; Arturo Campionek Orreaga balada itzularazi zuen; Lurdes Oñederrak Burundako despaltalizazioa aztertu zuen...; baina urteak behar izan dira bertako hizkerak behar den bezala aztertzen hasteko. Koldo Zuazok Burundako hizkera deskribatu zuen 1995ean, azken honek euskalkien sailkapen berria egiteko ikerketak egin ditu; Iñaki Caminok Goñerriko hizkerak lantzerakoan Sakanakoak kontuan hartu ditu; Jose Luis Erdoziak tesia egin du Sakana erdialdeko hizkeren sailkapena finkatzeko, bertako kantu eta jolasak biltzen dituen liburua argitaratu du, Sakanako lexikoa biltzen duen hiztegia argitaratu berri du... Azken hamar urteetan hasi dira ikerketa lanak.

Sakanan orain arte izan den hizkuntza egoera 3 puntutan labur daiteke:

- a) Orain arte bertako hizkerak idazteko / lantzeko joerarik ez da izan. Bertako hizkerak ez dute tradizio idatzirik.
- b) Euskararen galera historikoari dagokionez, Sakana gune erdaldunen arteko irla da. Araba aldeko hizkerak, Iruñea alderakoak eta Lizarraldekoak desagertuak dira eta iparraldekoak urruti daude. Aralar eta Andia-Urba mendiek mugatzen dute Sakana.
- c) Kulturalki Gipuzkoarekin izan dira hartu emanak (ikastolak...)

(\*) Koldo Zuazo, «Euskalkiak gaur», *Berria* 2004-07-11, «Igandea» gehigarria.

## **GUAIXE ETA HIZKUNTZA ESTILOAK**

1994. urtean *Guaixe* hilabetekaria sortu zenean hasiera-hasieratik hartu zen bertako euskalkiak erabiltzeko erabakia. Asmoa bai, baina nola jakin ez, ordea. Irizpiderik ez zen finkatu eta hausnarketarik ere ez zen egin. Herrietako kronikak idazten zituzten kolaboratzaileek ahal izan zuten bezala, borondaterik onenarekin, egin zuten beren lana baina gehienak oso kaskarrak izan ziren.

Egoera honi aurre egiteko sortu zen *Euskalki Batzordea*. Batzorde honean herri hizkerak idazteko irizpideak adostu ziren eta euskara estandarrean txertatu beharreko Sakanako euskalkien formak aztertu zituen.

*Euskalki Batzordeak* adosturiko irizpideak:

- a) Hizkera bizirik dagoen herrietan bertako hizkeran (Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Lizarragabengoa, Etxarri-Aranatz eta Urdiain) – Aldizkariaren % 5-10 inguru. Beste gainerako herrietan Sakanako hizkuntza ezaugarriak txertatzeko planteamentua.
- b) Beste atalak: elkarrizketak, erreportaiak... euskara batuan, Sakanako hizkuntza ezaugarriak kontuan harturik. Sakanako euskara batua dei dezakeguna, euskara batua euskalkietako formez aberasturik.

Herri hizkerak idazteko ereduak ondorengo helburua bete behar zuen: «batetik, herri hizkerak ahalik eta fidelen islatu behar ditu eta bestetik, euskara batuaren idazkera arauetara ahalik eta gehien gerturatuko da».

Hizkeren aldeko apostua egiteko 4 arrazoi agertu ziren:

1. Gertutasuna.
2. Identifikazioa.
3. Hizkeraren beraren prestigioa.
4. Estandarrerako zubi izaera (euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez).

Aldizkarian herri hizkerak herrietako albisteetan baino ez dira erabiltzen eta aldizkari gehiena euskara batuan idazten da. Hizkeradun herritarren aurreneko joera euren herriko berriak irakurtzea izan ohi da eta bigarren pausoa beste guztia begiratzea. Sakanako hizkerak orain arte ez dute prestigiorik izan eta herritarrak lotsatu egin izan dira beren hizkera erabiltzerakoan. Herri hizkerak idatzirik eta txukun ikusirik, hizkerak prestigioa berreskuratuko du.

Askotan etxeko euskararen erabiltzen diren formak ez dira euskara batuarekin identifikatzen eta ondorioz, normalean erabiltzen ez dena bihurtzen da forma batua. Esate baterako, herrian *ongi* erabiltzen duenak batura salto egitean *ondo* aukeratzen du. Hitzunak bere hizkerarekiko kontzientzia falta du eta arrotzago zaiona hartu ohi du euskara batuatako. Ezinbestekoa zaigu herrietako formak jaso eta zabaltzea, hiztunak inguruan duen aberastasuna ezagut eta erabil dezan.

Gorago aipatu dira Sakanako hizkeren berezitasunak eta egoera. Irakurtzeko ohiturarik ez duen euskaldunarendako zubi-lan bihurtu da aldizkaria; askotan aldizkaria da euskaraz irakurtzen den gauza bakarra. Aldizkariak herri hizkerak landuz eta Sakanako hizkeren berezitasunak txertatuz hizkeradunak salto egin ahal izanen du euskara batura eta irakurzaletasunera.

*Euskalki Batzordean* herri hizkerak idazteko irizpideak finkatu ziren. Gauri hartan, 1995. urte inguruan, Aretxabaletan eta Eibarren adostutako irizpideen oso antzekoak adostu ziren. Hona hemen *Erabilitako Grafia, Euskalkiak idazteko aholkuak, alegia*:

### Erabilitako Grafia

Lan hau aurrera eraman ahal izateko izan dugun lehendabiziko arazoa herri hizkerak idatzian nola agertu izan da. *Guaixeko* Euskalki Batzordean eztabaidatutakoa eta onartutakoa da hemen dakarkiguna. Proposatutako sistemak herri hizkerak ahalik eta fidelen islatu behar zituen batetik, eta bestetik, euskara batuaren idazkera arauetara ahalik eta gehien gerturatu nahi genuen. Hauxe da, besterik ezean, adostutakoa:

#### Euskalkiak idazteko aholkuak:

**Alfabetoan «Y»:** Euskaltzaindiak «dd» proposatzen badu ere, herritarren artean ezaguna den forma erabiliko dugu. Adib.: *mendiye, biyer...*

**«H»-a dela eta:** idazterakoan erabiltzea aholkatzen da. Hala ere, alboko hizkietan aldaketa fonetikoren bat sortzen denean h-rik gabe idatziko dira hitzak. Adib.: *biyer* «bihar», *nei* «nahi», ...

**«EZ» partikula:** aditzetik bereizirik idatziko da batuan bezala. adib.:

eztakau ..... ez dakau.  
enengon..... ez nengon.

**Erakusleak eta «BAT»:** hitzetik bereizirik idaztea aholkatzen da. Hala egitekotan, hitzak erakusleekin lotzerakoan sortzen diren aldaketa fonetikoak ez dira adieraziko. Adib.:

Momentubontan..... momentu hontan.  
Etxioi..... etxe hoi.  
Zuluat..... zulo bat.

**Bustidura:** LL, Ñ eta TT hizkiekin adieraziko da bustidura. Hauen aurretik «i» jartzea ere aholkatzen da. Beraz, *ill*, *iñ* eta *itt* idatziko ditugu:

<u>I</u> tturri	<u>p</u> illota	<u>i</u> ñezture
a <u>i</u> ttune	a <u>i</u> llatu	ezpe <u>i</u> ñe

.../...

«**BEHAR**» + **adizkia**: bereizirik idaztea aholkatzen da baina loturik idazteko aukera ere badago. Adib.:

ein biet..... ein ber det.  
ekar biala ..... ekar ber dala.

**Geroaldia** + **adizkia**: Sakanan bi aukera daude geroaldia egiteko: *-en* eta *-ko*. Lehenengoa idazteko orduan ez dago arazorik (*eiñen det, yonen ga...*) eta bigarrena idazterakoan bereizirik egitea proposatzen da. Adib.:

ekarkuet..... ekarko det.  
einkuet..... einko det.

**Bokal luzeak**: bakarra idaztea proposatzen da. Hala ere, bokal luzeek bi forma desberdin bereizten dituztenean erabiltzea gomendatzen da. Adib.:

ziñen (zu)..... ziñeen (zuek).  
eman..... emaan (emanen).  
eskolan (non)..... eskolaan (noren).  
borda (zer) ..... bordaa (nora).

**GABE** (*bage* forma zaharretik eratorria, *be* bezalaxe) **nola idatzi**: normalean bereizirik idatziko da:

*etor be* «etorri gabe».  
*bota be* «bota gabe».

Hala ere, partitiboarekin (*-rik*) loturik idaztea gomendatzen da (*ogipe* «ogirik gabe», *diruipe* «dirurik gabe»...).

*Be* «gabe» eta *be* «bere» desberdintzeko bigarrena bokal bikoitzez idatziko da (*bee* «bere»). Adib.:

*ezere ein be gaude*                      «ezer egin gabe gaude».  
*bee kontu autzi diau*                      «bere kontu utzi dugu».

**ERE nola idatzi**: «ere» idazteko de eta ee erabiliko dira.

**ETA nola idatzi**: hitz egiterakoan ETA-k dituen hiru aldaeretatik (eta, ta, da) «ETA» eta «TA» gomendatzen dira (\*).

(\*) Maiz, Eneka & Mundiñano, Iñaki, 1998, *Etxarrietatik Sakanerara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Ondorengo komikiak azaltzen du hasierako asmoa:



Maiz, Eneka & Mundiñano, Iñaki, 1998, *Etxarrietatik Sakanerara*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.

\* \* \*

Helburua hizkeradunak bere hizkeraz kontzientzia hartzea da, bere hizkera ezagutzeta eta batuan erabili ahal izatea. Zubia eraiki behar da hizkeren eta euskara batuaren artean. Ez dago halako alderik, bertako formak euskara batuan txertatuz gero, baina arazo nagusia ohitura falta da: euskaraz irakurtzeko ohitura falta batetik, eta erdialdeko estandarra ez den euskara batua irakurtzeko ohitura falta bestetik. Hau da, hiztunen euren hizkerarekiko kontzientzia falta.

Arazoak ez dira falta izan hizkeraren aldeko hautua egin eta gero:

**Kexak:** egia esan, hasierako testuen maila ikusirik, ez da bat ere harritzekoa jendea kexatzea.

**Kontrakoak:** herri hizkerak idatzian erabiltzearen kontra daudenak. Herri hizkerak ez omen dira idatzirako. Hauen artean sar ditzakegu *Guaixe* hilabetekaria osorik herri hizkeran idazten zela ziotenak. Gorago aipatu bezala, hila-betekariaren % 5 edo idazten zen herri hizkeran, hizkera bizirik den herrietako kroniketan bakarrik. Berez, herri hizkeraren erabilera eremua herrira bertara mugatu beharko litzateke, baina herrietan ez dago komunikabiderik eta bailara guztia kontuan hartzen duen toki posible bakarra du herri hizkerak: *Guaixe*.

**Kazetarien / berriemalen maila kaskarra:** oso desberdina da herri hizkeran idatzitako testu bat ulertezina izatea hizkeran idatzia dagoelako edota idatzi duenaren maila kaskarra delako. Hizkuntza idatzia lantzen den generoa da, edonork ezin du edozertaz nolana idatzi. Kazetariak eta berriemaliek jantzi egin behar dute maila oneko testuak ekoizteko.



Euskara batua bertako formekin aberasterakoan ere, antzekoa gertatzen da. Ikasi eta erabili egin behar dira bertako formak.

## ETORKIZUNeko ERRONKAK

Aldaketa handiak izan dira *Bierrik* Elkartean 2003. urtea bukatzearekin batera. *Guaixe* hilabetekaria ASTEKARI bihurtu da. Hala, azken 4 urteetan asteko informazioa landu duen *Oixe* astekaria desagertu egin da. Azkenean, 10 urte eta gero, *Guaixe* benetan komunikatzen duen komunikabide bihurtu da: gaurkotasuna, informazio erabilgarria... hilabeteroko maiztasunak ekartzen zituena mugak hautsi dira.

Astekari bihurtzearekin herrietako berriemakak desagertu egin dira eta ez dugu herrietako kronikarik. Astekariko kazetariak egiten dituzte kronika, elkarrizketa, erreportaiak gehienak. Hori dela eta, herri hizkerak ia erabat desagertu dira.

Euskara batuan, eredu estandarrean, Sakanako bertako ezaugarriak txertatzeko ahalegina egiten da baina ez da sistematikoa. Kazetarien formazioa behar-beharrezkoa da. Kazetari batzuek ez dute beren hizkerarekiko kontzientziarik eta ezinbestekoa da bertako hizkerak ezagutu eta erabiltzea, eredu batua osatu / hobetu ahal izateko; bestela, Koldo Zuazok aipatzen duen *sasiletraukeria* sortzen zaigu:

Gure arteko askori berdin die fisika nuklearrak jardun edo asteburuko mendi ibilaldiaz, beti erabiltzen dute euskara jaso bera. Berdin die 60 urteko hitz heldu batekin hitz egin edo 7 urteko ume batekin, beti erabiltzen dute euskara bera. Ni ere euskara batu eta jasoaren aldekoa naiz, baina noiz, zertaz eta noizkin dihardugun izan behar dugu kontuan. Oso barneratua daukagu sasi-letratukeria. Zenbat eta hitz exotikoagoak erabili, orduan eta euskara hobea egiten dugula uste dugu eta hori ez da nahita ez egia. Ezin ditugu nonahi eta noiznahi XVI. eta XVII. mendeko hitzak, Zuberoakoak, Erronkarikoak edo Arabakoak nahasian erabili. Hori ez da aberastasuna, hori hizkuntza zer den ez jakitea da, sasi-letratukeria hutsa.

Koldo Zuazo, 2001, *Ikastola* aldizkaria 97

Herri hizkeren tokia zein den hausnartu egin behar da. Hilabetekaria astekari bihurtzeko prozesu luze eta nekezak ez du hizkuntzaren trataera kontuan hartu eta orain egin beharko diogu aurre eztabaidari. Non eta nola agertu behar duen herri hizkerak eta nork egin behar duen: zorion-agurren txokoa, inkestak atalean, hizkera bizirik den herritako berri batzuk, elkarrizketa laburretan...

## **EUSKALKIAK ETA KOMUNIKABIDEAK**

*Iñaki Zabaleta Urkiola,  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU,  
Ikus-entzunezko Informazioaren Teoria,  
Teknika eta Teknologian Katedraduna  
Kazetaritza Saila  
Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea*

### **HITZ GAKOAK**

Euskalkia, herri-hizkera, komunikabideak, kalitatea, edukia, kazetaria.

### **LABURPENA**

Euskalkien barrenean azpieuskalkiak daude, azpieuskalkietan eskualde-hizkera desberdinak, eskualde-hizkeretan herri-hizkerak, eta baita herri-hizkeretan auzo-hizkerak ere. Aniztasun horrek eragina du euskarazko komunikabideei buruz mintzatzean –tokikoetan batez ere– eta horiek egokietsi beharko luketen mintzairan.

Baina euskalki eta herri-hizkeretan ere beharrezkoa da beste sailkapen bat egitea, alegia, erabilera arrunt eta jasoarena, eta funtsezkoa da bereizketa horretaz jabetzea herri- eta eskualde-komunikabideen jardueran. Halaber, euskara batua «bertakotu» egin behar da, *euskara batu bertaratua* bihurtu, tokiko hitz eta esaldiak erabiliz.

Komunikabideen gizarte-funtzio nagusiak zaintza (informazioa), ebaluazioa (iritzia, eztabaida), gizarte-balioen transmisioa, entretenimendua eta publikitate dira, ikerketa zientifikoak erakutsi duenez. Komunikabideen kalitatea bermatzeko, berriz, bost parametro nagusi zaindu behar dira: edukia, estiloa, seinale teknikoa, enpresa-jarduera eta, bosgarrena, hizkuntzaren kalitatea. Gai korapilatsua da azken hori, konstruktuko konzeptual modura hartu eta aztertu behar baita, azkenean ebaluazio hurbiltzaile batera heltzeko, non hainbat mota eta mailatako hizkuntzak eta mintzairak dauden.

Ongi dakigunez, hedabideak, hedaduraren arabera, hainbat kategoriatan bana ditzakegu (herri/eskualde, probintzia/euskalki, eta nazio/hizkuntza komunitatearen zabalkunde mailakoak), eta gizarte-erakunde modura jarduten dutenez, mintzaira-maila jasoa erabiltzen dute normalean. Proposamen orokor modura, eta salbuespenak salbuespen, idatzizko tokiko hedabideetan *euskara batu bertaratua* erabiltzea egokiagoa ikusten da. Ikus-entzunezko tokiko komunikabideetan, berriz, biak, *euskara batu bertaratua* eta euskalki edo herri-hizkera; beti ere, mintzaira jasoa hobetsiz, maizenean.

## 1. EUSKALKIEN GAINEAN

Beharrezkoa da euskalkien inguruan gogoeta batzuk egitea, ondoren komunikabideekin duten harremana aztertzeko. Asko idatzi da euskalkiez, eta luze sakondu, baina, zientziaz harago, aitortu behar da gai honetan beti dagoela subjektibitatearen bidez soilik ezagut daitekeen alderdia, soziala batez ere.

### 1.1. Sailkapenak eta mugak

Euskal literatura eta hizkuntzalaritza jorratu duten guztientzat ezaguna denez, historian zehar, euskalkien sailkapenean ez dira ados jarri adituak. Euskaltzaindiak (1977) argitaratutako *Libro Blanco del Euskara* liburuan esaten den bezala, «las discrepancias en la clasificación prueban que aquí juegan un papel importante la estimativa o apreciación particular y un tanto subjetiva» (147. or.).

Gauza bertsua zioen Gotzon Aurrekoetxeak (1998), «Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren Ekarrria Bizkaierari» txostenean.

Izan ere, Luis Luciano Bonapartek zortzi euskalki bereizi zituen 1869an (1). Ondoren, Azkuek aldaketa batzuk egin zizkion Bonaparteren sailkapenari, eta zazpi euskalki utzi zituen guztira. Azkueren aldaketen artean zeuden Erronkaria euskalkizat hartzea eta bi Goi-Nafarrerak eta bi Behe-Nafarrerak euskalki banatan batzea. Beranduago, Mitxelenak ere beste hiru euskalki berri proposatu zituen: Hegoaldeko euskalkia –Araban hitz egindakoa–, aezkera eta zaraitzuera.

**Muga-arazoak.** Dena den, hizkuntzalaritzaren metodoak ahalik eta zuhurren erabiliz, dialektologoek ezarri dituzten sailkapenak baliagarriak zaizkigu, nahiz eta ongi dakigun ez direla zehatzak, baizik dibertsitatea edo askotariko-

---

(1) Bizkaiera (B), Gipuzkera (G), Iparraldeko Goi-Nafarrera (Alto Navarro Septentrional ANS), Hegoaldeko Goi-Nafarrera (Alto Navarro Meridional ANM), Lapurtera (L), Ekialdeko Behe-Nafarrera (Bajo Navarro Occidental, BNOC; zaraitzuera barne), Mendebaleko Behe-Nafarrera (Bajo Navarro Oriental, BNOR; aezkera barne), eta Zuberera (Z; erronkaria barne).

tasuna mugatuki ordenatzeko tresnak, lanerako definizio kokatu batzuen bitartez eraikitako kategoriak. Horrek esan nahi du, euskalki bakoitzaren barrenean aldaera eta molde desberdinak egoten direla, eta agian, euskalki baten barrenean sartzen den herri edo eskualde bateko euskara hurbilago dagoela beste euskalki batetik. Adibidez, Areso edo Leitzako euskara, Goi-Nafarreratik baino hurbilago egon daiteke Gipuzkeratik.

**Euskalkiak, azpieuskalkiak, herri-hizkerak eta auzo-hizkerak.** Euskalkien sailkapenetan sakontzen badugu, gero eta kategoria txikiagoak egin daitezke. Luis Luciano Bonapartek 25 azpieuskalki bereizi zituen 1869an, eta sailkapen-lan honetan bahe estuagoa jartzen badugu, azpieuskalkietan eskualde-hizkera desberdinak aurki ditzakegu, eskualde-hizkeretan herri-hizkerak, eta baita herri-hizkeretan auzo-hizkerak ere. Adibideak bazter guztietan daude. Leitzako Gorritzaran eta Erasote borda-auzoetan (2) euskara ez dute osotara berdin erabiltzen, badituzte desberdintasunak; Gorritzaranen «arrunt ona» moduko esaldiak, «arrunt» hitza superlatiboaren adieran erabiliz, arruntak ziren eta dira oraindik zaharrengan, ez seguruenik Erasoten. Gauza bertsua esan liteke Leitza eta Ezkurra edo Eratsun herrien arteko aldeez. Jakina, hizkeraniztasun horrek eragina du euskarazko komunikabideei eta hauek erabiltzen eta erabil dezaketen hizkuntzari buruz gogoeta egitean.

**Euskalkiak muga politikoan gainetik.** Era berean, badakigu euskalkien eremuek erkidego politikoak eta probintzia administratiboak gainditzen dituztela eta, adibidez, bizkaiera deitzen den euskalkia Gipuzkoan sartzen dela. Horrek, administrazio politikoan arteko elkarlan eta adostasuna eskatzen ditu, eta badirudi horretan behintzat bat datozela agintariak.

## 1.2. Euskalkien arteko hierarkiak

Koldo Zuazok «Euskalkien erabileraz ohar batzuk» txostenean dioen modura (1992) (3), euskalkien artean prestigio-hierarkia izan da historian zehar. Horrela, jendearen artean, Gipuzkoako Beterriko hizkerak ospe edo balioespen handiagoa zeukan Goierrikoak baino; gipuzkerak bizkaierak baino; lapurterak behe-nafarrerak baino, eta azkenik, maila gorenera igoz, gaztelaniak eta frantsesak euskarak baino ohore eta balio handiagoa jasotzen zuten gizartean. Jakina, prestigioaren hierarkiak gizarte-funtzioen eta erabileren hierarkia zeraman bere baitan eta, adibidez, euskalki ospedunak egokiagoak ikusten ziren literaturarako, idazkuntza-lanetarako eta, oro har, administrazio zerbizuetarako.

(2) «Borda» eta «bordaria» deitzen baitzitzaizen Leitza mendiko etxeari eta etxeoari 1962. urtera arte gutxienez. Ondoren, Gipuzkoatik etorritako «baserri» eta «baserritar» hitzak hasi ziren nagusitzen eta bertakoa ordezkatzeko.

(3) Autoreak dioenez, artikulua hau *Jakin* aldizkarian agertu zen aurretik.

**Euskara batuarekiko hierarkia.** Gaur egun, euskalkien arteko ospe-hierarkia amaitu da, guztiek antzeko balioespena hartzen baitute, eta euskara batua onartu eta zabaldu denez geroztik, beste erlazio bat ezarri da, euskara batua lehen mailan eta euskalkia bigarrenan egotea. Erlazio hori noiz eta zein egoera eta funtziotan mantendu behar den jakitea da auzia. Txosten honetan, komunikabideen alorra aztertuko dugu.

Dena den, ez da ahantzi behar *euskara batua, arau komunarengatik eza-gunagoa den arren, euskalki guztien artean uneoro osatzen eta eraikitzen den hizkuntza dela*, alderdi batzuetan euskalki jakin batetik edo batzuetatik gehiago hartzen badu ere. Horregatik, euskalki bakoitzean dauden hitz eta esaldi desberdin guzti-guztiak euskara batuaren parte dira berez, euskararenak diren neurrian. Jakina, euskara batuak aukeraketak, edo lehenespenak, egiten ditu hitz edo forma baliokideak dituzten aldaeren artean. Hala ere, euskara batua hizkuntza «artifizialki sortua» eta euskalkien naturaltasunarekin kontrajarria den iritzia uste baino zabalduago dago oraindik, hala erdal giroetan nola euskalki eta herri-hizkeren zale frankoren artean ere.

### 1.3. Euskalkien arteko desberdintasunak

Adituek diotenez, euskalkiak elkarrengandik hurbilago omen zeuden XVI. eta XVII. mendeetan «orain dauden baino», eta «euskalkiek gaur egun ageri dituzten *berezitasun* asko eta asko, azken orduko berrikuntzak baizik ez dira batzuetan eta besteetan, aldiz, antzina euskalki guztienak izanik, gero, gainerakoetan galduz ostein, euskalki jakin batek edo bestek baizik atxiki ez dituenak» (4). Zorionerako, euskara batuak geldiarazi egin zuen euskalkien aldentzea.

Beraz, euskalkien aldeko diskurtsoa egitean ongi jakin behar genuke zein diren egiaz euskalki baten berezko ezaugarriak eta zein ustezkoak, ezjakintasunak edo azalkeriak puztuak. Izan ere, autore batzuek diotenez, «euskalkien arteko desberdintasunak ez dira uste dugun bezain ugariak eta sakonak. Azalekoak, hiztegi mailakoak dira batez ere eta, jakina denez, erdaretatik mailegatuak dira maiz hitzak» (5).

Ezagu zaigu, hiztegiak gain, aditzen, deklinabideen eta esaldien formetan ere desberdintasunak eta aldaerak daudela, baina ez egitura desberdinak osatzeraino. Esandakoak euskalki gehienetarako balio dezake (gipuzkera, goi eta behe-nafarrera, lapurtera), bi euskalkirako salbu, itxuraz euskara batuaren azaleko moldetik urrutien daudenetarako, preseski: bizkaiera eta zuberera.

(4) Zuazo, 1993, op. cit., 42 or.

(5) Ibidem, 46 or.

**Ahozko hizkeraren desberdintasuna.** Alabaina, maiz, euskalkien artean eta euskalkien eta euskara batuaren artean dauden desberdintasunak eta elkar ezin ulertzeak, jendeak mintzatzean egiten duen *hitz-laburtzearen* eta erabiltzen duen *fonetikaren* ondorioa izaten dira, euskalkiarenak berarenak baino gehiago. Beraz, euskalkien arteko bestelakotasuna franko erlatibizatu behar genuke, ahozko hizkeraren ondorio pragmatikoa izaten baita maiz.

#### 1.4. Euskalkiaren erabilerak eta «euskara batu bertaratua»

Euskalkiaren erabilera arruntak esan nahi du hiztunak eguneroko moduan erabiltzen duela bere hizkera, ardura berezirik hartu gabe, eta mintzakide soilaren papera hartuz. Ondorioz, maiz, hitzak eta esaldiak franko jaten ditu, komunikazioaren ulermen nahiko eta arinari lehtasuna emanez, mezuaren hizkuntzaren biribiltasun eta argitasunari eman ordez.

Euskalkiaren erabilera jasoak, berriz, hizkuntza modu arduratsuan eta osatuan lantzea esan nahi du. Askotan, erabilera jaso gertatzen da komunikatzaileak rol instituzionalizatu edo erakundetu bat hartzen duenean (kazetari, alkate, batzarburu eta antzekoen modura hitz egitean) edo ekitaldi erakundetu batean dagoenean (bilera bateko partaide denean, adibidez). Uste dugu bereizketa horretaz jabetzea funtsezkoa dela hizkuntzaren erabilerak eta komunikazio-ekintzak modu egokian bideratzeko. Alegia, ‘hizketan ari denak’, edo idazleak, jakin behar du noiz erabili behar duen hizkera arrunta eta noiz jaso; eta normalean ongi jakiten du.

Adibidez, Leitzako gazte batek gaurko leitzar hizkera arruntean «hoi in beha zo» esan lezake; bertako era jaso samarrean hitz eginen balu «hoi ein behar dozo» esanen luke; eta oraindik leitzar euskara jasoagoan mintzatuko bultzatuko, «jaso-ikasiaz» (alabaina, finean dena da ikasiaz) dei genezakeena, «hoi egin behar dozo» adieraziko luke. Beste kontu bat da, euskalki-hierarkiaren eraginez, leitzar bati herriko euskara jasoan hitz egiteko eskatu eta horrek, ia konaturatu gabe, gipuzkera erabiltzea eta, ustez Leitzakoa balitz modura, «hori egin behar det» esatea, aspaldi gertatu zen modura; edo, bestela, nafarrerako/batu-ko «dut» aditz-forma sartzea.

Leitza aipatu dudanez, 2001. urtearen hasieran, herriko euskara-teknikariak leitzar batzuei galdegin zien ea zer iritzi zuten «Leitzako euskaraz idazteko» irizpideei buruz. Galdera bera harrigarria iruditu zitzaidan, hiperlokalismoak joa baitzirudien. Erantzunean esan nuen gure herriko euskara asko ari zela pobretzen, gazteen artean batez ere, eta hobe genukeela «Leitzako euskaraz hobeki eta oparoago hitz egiteko irizpideak, kanpaina, eta jarduerak antolatu eta egitea, urterik urte, eten gabe, eta idazkuntzaren alderdia, euskara batuaren irizpideetan uztea, Leitzako hitz eta esamoldeak pozik eta mara-mara erabiliz». Alegia, jarraian aipatzen dudana *euskara batu bertaratua*z ari nintzen.

Komunikabideei dagokienez, kazetaritzaren eta komunikazioaren teoriek diote informaziozko eta eztabaidazko edukiak transmititzean medioek hizkuntzaren erabilera jaso egin behar dutela ia beti, salbuespenak salbuespen (efektu berezi eta hurbiltzaile bat lortu nahi denean, adibidez). Entretenimenduzko edukietan ere gehien bat mintzaira jasoz baliatzea komeni izaten da, nahiz eta ikus-entzunezko hedabideetan herri-hizkera arrunta batzuetan erabiltzen den, audientziarekiko bertakotasuna adierazteko.

Jakina, komunikabide eta egoera bakoitzean azterketa zehatz eta argudiatua egin behar da, euskara batua edo euskalki jaso erabili beharraz. Puntu horrek garamatza, hain zuzen, euskara batuaren bertakotasunaz eta urruntasunaz zer bait esatera, tokiko komunikabideekin zerikusi handia duena.

**Euskara batu bertaratua.** Maiz entzuten den «euskalkia (jasoa) *versus* euskara batua» diskurtsoak ez du zentzu handirik, dikotomia faltsu batean eraiakia baitago. Areago oraindik, euskara batua «urrutiko euskara batutzat» hartzen da, non «urrutiko» horrek esan nahi duen kanpoko hizkuntza dela, edo beste herrialde edo euskalkietako hitz eta esaldiak gehiegitan erabiltzen dituela, audientziarengan hizkuntza-arroztasuna sorraraziz.

«Euskara batu bertaratua» deiturarekin adierazi nahi dugu, euskara batua modu kokatuan, tokituan edo bertakotuan erabili behar dela, herri edo eskualde bateko hitz eta esaldi jatorrak oparotasunez sartuz. Azken finean, euskara batua, hizkuntza estandar guztiak bezala, orokortasunezko eremu komuna mantenduz, inguru sozial eta geografiko bakoitzera egokitzen baita lexiko eta esaldietan, inguru hauetako kazetari, idazle, hizlari eta jende ilustratuen bitartez. Hortik euskalki jasorako tartea oso txikia da. Horregatik, euskara batua, bertakotzen den neurrian, oso hurbil dago euskalkitik, baita bizkaierazko kasuan ere.

## 1.5. Euskalkien diskurtsoaren suspertzea

Hain zuzen, 1969. urte aldera idatzizko lanetarako hizkuntza estandar modura euskara batua onartu zenetik aurrera, euskalkien ikerkuntza eta erabilera jaso apaldu egin zen hezkuntzan eta hedabideetan. Egiaz, ondorio logiko eta beharrezkoa zen, euskara batua hedatu, sendotu eta garatu behar baitzen, hizkuntza bera biziko bazen. Hezkuntza-sistema funtsezkoa izan zen lan horretan eta, hedabideen alorrean, *Anaitasuna* (6) eta *Zeruko Argia* lehenik, 1982an sortutako Euskal Irrati eta Telebista ondoren, eta 1990etik aurrera *Euskaldunon Egunkaria*, euskara batuaren bultzatzaile garrantzitsuak izan dira.

---

(6) Imanol Berriatuaren lan bikain eta maisugarria ezin dugu ahanzti.

Euskalkien gaiak indar berriak hartu zituen 1990eko hamarraldian eta, oro har, horien aldeko diskurtso berri bat eraiki eta kaleratu zen gizartean. Nire ustez, eragile nagusia *mugimendu euskaltzalea* izan zen, eta «mugimendu» deitura horren barnean sartzen ditut bai Euskaltzaindiaren moduko erakunde ofizial batzuk (baina ez politiko-administratiboak) eta bai «euskararen gizarterakundeak», gehienak Kontseiluan bilduak. Jakina, komunikabideak faktore eragile handia izan ziren.

Euskalkien aldeko diskurtso eta mugimendu horren abaroan, unibertsitatean ikerkuntza hasi zen eta Euskaltzaindiak *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*a ikerkuntza-proiektua bideratu zuen (hizkuntza-geografia sinkronikoa), 1985. urte inguruan hasi eta hainbat urtez luzatua.

Baina euskalkien aldeko diskurtso horren funtza, nire ustez, ez zegoen hizkuntzan edo soziolinguistikan, «berezkotasunean/propiotasunean» oinarritutako teoria soziopolitikoan baizik. Hau da, mundu guztian, globalizazioak ekar zezakeen uniformizazioaren aurrean, herriek eta jendeek beren nortasun propioa babestu nahi zuten, beren garapen propioa bermatu, beren ezaugarriak aldarrikatu.

Euskal Herriaren kasuan, euskara batuaren funtzio-orotasuna kritikatzan hasi ziren batzuk, euskalkiari bere espazioa eta funtzioak ezagutu behar zitzaiokiola argudiatuz. Maiz, lehen esan dudan bezala, jarrera horren aldekoak euskararen mugimendukoak izan dira. Baina uste dut, euskalkiak baino gehiago, askotan herri-hizkerak suspertu nahi zituztela. Horren adibide dugu tokiko komunikabideen garapena.

Beste batzuk, jokabide politiko abertzaleari aurre egiteko uste eta asmoan, euskara batuaren aurkako erresistentziak paratzen hasi ziren. Erresistentzia horietako bat euskalkiak euskara batuaren aurkari modura puztea izan zen.

Beraz, bi ikuspegi soziopolitikoki kontrajarririk euskalkien aldeko lanean jardun dute, bakoitza bere helburu eta lanabesekin. Puntu honetara ailegatuta, azter ditzagun orain komunikabideen funtzioak eta, jarraian, zer nolako harremana izan dezaketen euskalkiekin.

## **2. KOMUNIKABIDEEN FUNTZIOAK, MOTAK ETA KALITATEA**

Komunikabideetan erabili behar den, edo erabiltzea egoki den, hizkuntza-era zein den jakiteko, oso garrantzitsua da zehaztea zertarako nahi diren hedabideak, zer funtzio bete behar duten, eta zer klasetakoak diren. Horrela, argiago ikusi ahal izanen da euskalkien eta euskara batu bertaratuaren arteko harremana eta osagarritasuna.



## 2.1. Funtzioak

Harold Laswell autore ezagunak (1948) hiru funtziotan laburtu zituen komunikabideen zereginak:

- *Zaintza*: komunikabideek ingurua zaindu eta horren gaineko informazioa ematen dute (albisteak, eguraldia, zerbitzuak, etab.). Sor daitezkeen disfuntzioen artean beldurra, normaltasun distorsionatua eta pasibitatea daude.
- *Ebaluazioa (korrelazioa)*: iritzizko edukiei dagokie, artikulu eta editorialei batez ere, eta komunikabideek horien bitartez gizarteko gaiak aztertu, kritikatu eta horien aurrean nola jokatu behar den adierazten dute. Disfuntzioen artean estereotipazioa, uniformizazioa eta gutxiengoan bazterketa izan daitezke.
- *Transmisioa*: komunikabideek belaunaldi baten balioak, arauak, kultura eta hizkuntza hurrengoari pasatzen dizkiote. Horrela, gizartearen lotura indartu eta adostasun soziopolitikoaren oinarriak jartzen ditu informazioak. Halaber, gizabanakoari gizartean txertatzen laguntzen dio, komunitateko parte sentiarazten. Disfuntzioen artean uniformizazioa eta despertsonalizazioa daude, aurrez aurreko harremana urritzen delako.

Urte batzuk geroago, Charles Wright ikertzaileak (1959) laugarren funtzio bat gehitu zuen, *entretanimendua*, gaur egun nagusitzen ari dena; izan ere, aisialdirako tresna garrantzitsu bihurtu baitira komunikabideak. Disfuntzioen artean, pasibitatea eta azalergia izan daitezke.

Urte horietan ere, F. Liebert, T. Peterson eta W. Schramm-ek (1956), *Four Theories of the Press* liburuan, «erantzukizun sozialeko teorian» oinarritzen ziren hedabideei (7) –hau da, egiazko sistema demokratikoa duten herrialdeetako komunikabideei–, sei funtzio esleitu zizkieten:

1. Sistema politikoa zerbitzatzea, gizarteko gaien inguruan informazioa, elkarrizketa eta eztabaida hornituz;
2. gizartea argitzea, bere burua gobernatzeko gai izan dadin;
3. gizabanakoaren eskubideak babestea, gobernuaren aurrean/aurka zaindari-lana betez (*watchdog*);
4. gizarteari entretanimendua hornitzea;
5. sistema ekonomikoa zerbitzatzea, publizitatearen bitartez ondasun eta zerbitzuen saltzaileak eta erosleak elkarrengana ekarri; eta
6. ekonomikoki bere buruaren jabe izatea (autofinantzazioa).

---

(7) «A Free and Responsible Press» txostean oinarritua, *Comission On Freedom of the Press* batzordeak 1947an Chicagon argitaratua, Robert Hutchins-en zuzendaritzapean.

Beraz, autore horientzat, komunikabideek, gizarte osasuntsua garatzeko zeregin funtsezkoa izateaz gain, eginkizun azpimarragarria dute merkataritzagune modura.

Aurreko funtzioekin zeharkako harremana bilbatuz, beste bi eginkizun aipa ditzakegu: audientziari gaien agenda/zerrenda ezartzea eta zalantzaren urritzea (Zabaleta 1997). Bion esanahia deiturak berak egiten du ulergarri, azaletik behintzat. Lehena, azken hogeita bost urte hauetan ikertzaile eta kazetarien artean oso aipatua, uste baino konplexuagoa da. Bigarrenak, zalantzaren urritzeak, alor oso zabala hartzen du eta bertan sar genezake euskararen moduko hizkuntza txiki edo minoritarioetan hizkuntzaren inguruan irakurleria eta entzuleriari zalantzak argitzea, hitz berriak erakustea, etab.

Beraz, aipatutako funtzio horiek guztiek balio al dute euskalkien eta he-dabideen artean izan daitekeen harremanari buruzko gogoeta egiteko, eta to-kiko edo herrialdeko komunikabideetan erabiltzea komeni den mintzairari bu-ruzko proposamenak egiteko? Erantzuna erabat baiezkoa da. Arazoa izaten da, funtzio nagusi bakoitzerako (zaintza, ebaluazioa, transmisioa, entretenimen-dua, merkataritza-publizitatea) eduki, hizkera eta estilo desberdinak erabiltzen direla eta horietan ongi asmatzea ez dela erraza.

## 2.2. Komunikabide-motak

Digitalizazioa eta teknologia berriak indarrez garatzen ari badira ere, oraindik komunikabideak bi irizpide nagusiren arabera sailka ditzakegu: sei-nalearen euskarria eta hedadura.

- *Seinalearen euskarria* kontuan izanik, komunikabide nagusiak ikus-en-tzunezkoak eta idatzizkoak izan daitezke, horien edukia garraiatzeko bi-deak askotarikoak baldin badira ere (papera, airea, kablea, satelitea, te-lefono-haria). Internetek bi komunikabide horien arteko uztardura egiten duela esan daiteke.
- *Hedadura* kontuan izanik, komunikabideak hiru mailatan bana ditzakegu:
  1. tokikoak/eskualdekoak,
  2. probintziakoak edo/eta euskalki-betedorakoak (8);
  3. nazionalak edo hizkuntza-komunitate osoaren mailakoak.

---

(8) «Betadura» hobesten dugu gaztelaniazko «cobertura» eta ingelesezko «coverage» adie-razteko, hala «informazioa bete» («cubrir la información») nola «telefonoaren betadura» (cober-tura del teléfono) moduko erabileretan, «estaldura» izenaren aldean, azken honek «tapatzea edo gordetzea» adieretan baitu indar handiena, gure ustez, eta «funtzio bat kunplitzea/betetzea» esanahia lehenak.

Bi irizpide horiek oso baliagarriak zaizkigu gure gairako, zein motatako euskara eta zer komunikazio-hizkera erabili behar den bereizten laguntzen baitigute.

**Komunikabideak instituzio modura.** Gogoan izan behar dugu, halaber, hedabideek gizarte-erakunde modura jarduten dutela eta, beraz, erakundeei dagozkien jokabideak eta hizkuntza erabiltzen dituztela. Horrek esan nahi du, arruntki, hizkuntza jaso erabiltzen dutela, salbuespenak salbuespen; efektu berezi bat lortu nahi denean, kasurako.

### 2.3. Komunikabideen kalitatea

Komunikabideen kalitatea, neurri handi batean, aurretik aipatutako gizarte-funtzioak ongi betetzean datza (zaintza, ebaluazioa, transmisioa, entretene-mendua, merkataritza-publizitatea). Funtzio horiek komunikabideko edukiaren bitartez ahalbidetzen direnez, eta kalitatearen kontzeptua konplexua denez, hurrengo alderdi hauek erabili beharko ditugu kalitatea neurtzeko:

- Edukiaren kalitatea.
- Estiloaren kalitatea.
- Seinalearen/euskarriaren kalitate teknikoa.
- Enpresa-jardueraren kalitatea.
- Hizkuntzaren kalitatea.

Lehenbiziko lau parametroek edozein komunikabide, zein-nahi hizkuntzatakoa izanik, neurtzeko erabil daitezke. Baina herri, eskualde eta probintzietako euskal komunikabideen kasuan bosgarren neurriak, hizkuntzaren kalitateak, arreta berezia behar du.

Egia esan, bost neurri horiek ez dira soilik komunikabideen kalitatea neurtzeko, baizik baita *komunikazio ororen* kalitatea balioesteko ere, behar diren egokitzapenak eginez. Adibidez, bi lagunen arteko elkarrizketa batean, eduki, estilo eta hizkuntzaren kalitateak ez du esanahi berezirik hartzen, baina bai seinalearen kalitate teknikoak eta enpresa-jardueraren kalitateak. Seinalearen kasuan, kalitateak kontuan izan behar du ahots, ahoskera, inguruko zarata eta hartzailearen entzumenaren arteko erlazioa; enpresa-jardueraren kalitatean, berriz, elkarrizketa oparotzeko mintzaideak egin ditzakeen ekarpenak sar ditzakegu (edan eta jatekoa eskaini, esate baterako).

Gogoeta-bide horretatik abiatuz, uste dugu nahiko murrizta dela euskararen kalitatea komunikazioarenarekin parekatzea, batzuek egiten duten modura; izan ere, komunikazioarena askoz eremu zabalagoa baita.

**Edukiaren kalitatea.** Edukiaren kalitateak esan nahi du komunikabide-ek ongi adierazi behar dutela gaia eta ongi burutu dagokion funtzio soziala. Lau funtzio sozial nagusi daudenez lau eduki-mota ere bereiz ditzakegu, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

- *Informazio-edukiaren kalitatea* neurtzeko parametro nagusiak egiazkotasuna, argitasuna, narraziotasuna eta objektibitatea dira; kazetaritza-hizkuntzaren ohiko helburuak direnak, bestalde.
- *Eztabaida-edukiaren kalitatea* ebaluatzeko parametro nagusiak gaien, ikuspuntuaren eta eztabaidatzaileen askotarikotasuna eta garrantzia izan daitezke.
- *Entretanimendu-edukiaren kalitatea* neurtzeko erabil daitezkeen parametroak zehaztea ez da oso erraza baina, seguruenik, eduki-mota honen adimena, irudimena, parte-hartzea eta lasaitasuna edo intentsitatea behintzat elikatu beharko ditu.
- *Publizitate-edukiaren kalitatea* ezagutzeko neurria ez dago bakarrik iragarkien kantitatean eta barietatean, baizik eta baita horien egiazkotasun eta baliagarritasunean ere.
- Lau eduki-mota horien artean komunikabidearen diskurtsoa osatzen dute, bai medio inprimatuetan eta bai ikus-entzunezkoetan. Azken horietan, gainera, programazio deitura erabiltzen da.

**Estiloaren kalitatea.** Estiloaren kalitatea edukiaren edizio/muntaketari eta aurkezpenari dagokio gehien bat. Edizioarekin edukiari egitura eta narrazioa ezartzen zaizkio, bai hedabide inprimatuetan eta bai ikus-entzunezkoetan. Aurkezpenaren bitartez muntaketari forma jakin bat ematen diote kazetariak eta mezua eraikitzen duten guztiek.

Ongi dakigunez, estiloaren ebaluazioan garrantzi handia du komunikatzailearen sinesgarritasun eta erakargarritasunak, baina hori ez da dena, erabiltzen den hizkuntza-mota ere oso kontuan hartu behar baita.

**Seinalearen/euskarriaren kalitate teknikoa.** Maiz ahaztu egiten da kalitate-mota hau, nahiz eta oso garrantzitsua den. Hitz gutxitan esanda, ikus-entzunezko hedabideetan seinale elektronikoak duen kalitateari dagokio, hau da, irudiaren eta soinuaren bereizmenari edo zehaztasunari (definizioa); medio inprimatuetan, berriz, paperaren eta tintaren kalitate eta irakurgarritasunari.

**Enpresa-jardueraren kalitatea.** Esandakoak esanda ere, komunikabide baten edukiak ez du agortzen medioaren izaera eta audientziak horri buruz dauzkan ikuspegia eta itzaropidea. Enpresak, entitate ekonomiko modura jarduera zuzena eramateaz gain, saihetseko ekimen asko gauzatu behar ditu komunikabidearen kalitatea sendotzeko. Horien artean sartzen dira, besteak beste, publizitate-kanpainak, zozketak, opariak eta irakurle eta ikus-entzuleen bisitak.

**Hizkuntzaren kalitatea.** Gai hau korapilatsua izaten da, konstruktuko kontzeptual modura hartu eta aztertu behar baita, azkenean kalitatearen ebaluazio hurbiltzaile batera heltzeko. Konstruktuko horretan sartu behar diren kontzeptualor nagusiak bi dira: hizkuntza-mota (euskara batu bertaratua, euskalkia edo herri-hizkera), eta mintzaira-maila (arrunta edo jaso). Beraz, modu orokorrean esanda, hizkuntzaren kalitateak adierazten du zer hizkuntza-mota erabili behar den, *komunikabideetako edukiak bere funtzio sozialak ahalik eta hobekien bidera eta lor ditzan*; alegia, euskara batu bertaratua, euskalkia edo herri-hizkera jaso, ala euskalkia edo herri-hizkera arrunta erabiltzea komeni den. Ez gara «komunikazioaren kalitateaz» mintzatzen ari, lehenago adierazi dugun modura, hizkuntzarenaz baizik.

Antton Aranburu kazetariaren ustez (1994), «komunikabideetako hizkuntzak herritarren gehiengoak ahotan darabilen hizkuntzatik ahalik eta hurbilekoena izan behar du». Ez gaude horrekin erabat ados, jende gehienak *ahotan darabilen* hizkuntza jartzen baitu Aranburuk erreferentziatzat, hizlaria alegia, eta guk, berriz, jende gehienak *ongi eta erraztasunez ulertzen* duen hizkuntza jotzen dugu irizpide; hartzailea, alegia. Izan ere, pertsonak, edozein komunikazio-ekintzatan, gaitasun handiagoa izaten du maila altuagoko hizkuntza ulertu eta interpretatzeko, erabiltzeko baino.

Azpian dagoen beste eztabaidetako bat honako hau izan daiteke, «edukiak bere funtzio sozialak ongi betetzea» eta «audientziarentzat erakargarri izatea» gauza parekagarria ote diren, eta zeinek daukan lehentasuna. Gure ustez lehenbizikoak hartu behar du aurrea, modu egokiagoan eramaten baikaitu bigarrena, alderantziz baino; baita entretenimenduzko edukietan ere.

**Kazetaritzaren hizkuntza.** Kazetaritza-hizkuntzaren kontzeptua oso aipatua izaten da Fakultate eta hedabideetan, baina nahiko konplexu eta lausoa da, zenbait alor hartzen baititu bere baitan (9). Labur esanda, alor horiek kazetaritza-edukiak (10) prestatzeko erabiltzen diren narrazio-estiloari eta hizkuntza-motari dagozkio, eta bi kontzeptu horiek ikusiak ditugu jada.

**Aldez aurreko prestaketa versus bat-batekotasuna.** Idatzizko komunikabideetan, jakina, beti dago aldez aurreko prestaketa, eta, normalean, hiru pausoko prozesuaren bitartez gauzatzen da edukia: «pentsatu-idatzi-orratzu». Ikus-entzunezko komunikabideetan, gezurra badirudi ere, antzeko bidea eraman beharko litzateke, 1980. urte aldera arte egiten zen modura: lehenbizi, gidoi eta testu osoa idatzi, eta hori ezin bada, gutxienez ongi hausnartu gero esan beharreko puntu edo ideia nagusiak; bigarren, mikrofonoaren aurrean modu naturalean irakurri, ia hitzetik hortzera esaten ari bagina bezala («ia» diogu, ez «berdin»), irakurketaren lehentasuna kentzeko.

---

(9) Ikus Zabaleta (2005).

(10) Informazioa, iritzia, elkarrizketa, eztabaida.

Alabaina, azken urteotan, teknologiaren berrikuntzen eraginez, enpresek egindako gastuen eta profesionalen urriketen ondorioz, eta bat-batekotasunaren aldeko diskurtso puztuegiaren babesean, edukien eta mezuen aldez aurreko prestaketa gutxitu egin da nabarmen, eta inprobisazioari ematen zaio ohorea, hurrengo bide hau lehenetsiz: «aldez aurreko prestaketa eskasa egin eta, mikrofonoaren aurrean egonik, bat-batean adimenera etortzen diren ideiak eta hitzak esan». Jokabide horren ondorioak oso kaltegarriak dira komunikabidearen, edukiaren eta hizkuntzaren kalitaterako eta, maiz, bi gauza adierazten dituzte:

- Aurkezlearen gaitasun profesional urria.
- Esatariaren hizkuntza-gaitasun mugatua.

Zoritzarrez, bat-bateko jokabide desegoki horren justifikaziorako, profesional batzuek herri-hizkeraren eta euskalkiaren defentsa erabiltzen dute aitzakia modura; naturaltasuna bat-batekotasunarekin ezinbestez lotuta balego legez.

## **2.4. Profesional/kazetariaren kalitatea**

Komunikabideetako edukia atontzen eta aurkezten duten profesional asko kazetariak izaten dira, baina ez guztiak. Ikus-entzunezko hedabideetan beste kategoria orokorrago bat «aurkezlea/gidaria» izaten da. Gure ustez, aukeran (aukerarik ez badago, ez dago zer esanik), hobe da kazetaritza-ikasketak dituen profesionala hartzea, kalitatea hobeki berma baitezake eta, halaber, eduki eta lanaldi ia guztietarako prestaketa baitauka; hau da, informaziozko eta eztabaida/iritzizko edukiak landu ditzake, edizioa eta muntaketa egin dezake eta baita entretenimendua eskaini ere, aurkezle modura.

Gaitasun profesionalarekin batera hizkuntzaren jantzitasunari ere begiratu behar diogu, eta are modu bereziago batean euskalkiak erabil ditzaketen komunikabideetan. Ongi dakigu hedabide horietan kazetariak/profesionalak euskara ongi menderatu behar duela, bai batua eta bai euskalkia. Ez dugu bi horien artean garrantziaren araberako ordenarik jarriko, biok oso hurbil baitaude «euskara batu bertaratuaren» kontzeptutik, baina gaude kazetariak euskalkia modu jasoan ezagutu behar duela eta euskalki literarioa ongi menderatu, euskalkia modu arruntean soilik dakien profesionalak ez baitu askorako balio. Hau diogu zeren badirudi batzuek «herriko euskara arruntaren ezagutza eta erabilera» hobesten dutela, irrati eta telebistarako batez ere.

## **3. EUSKALKIAK ETA HERRI-HIZKERAK KOMUNIKABIDEETAN: PROPOSAMENAK**

Aurreko lerroetan esandakoak oinarritzat hartuz, euskalkien eta herri-hizkerak komunikabideetan izan dezaketen erabilerari buruzko zenbait ideia, proposamen eta eztabaidagai aurkeztuko ditugu:

- *Idatzizko tokiko komunikabideetan* (herri, eskualde eta probintziako hedadura dutenak) «euskara batu bertaratua» erabiltzea gehienetan egokiagoa dela uste dugu. Seguru asko, euskara batutik urrutien dauden euskalkietako eremuetan (bizkaiera eta zuberera, agian) tokiko komunikabideek biak erabil ditzakete, alegia, euskara batu bertaratua eta euskalki jaso. Hori egiten dute, adibidez, Durangaldeko *Anboto* aldizkarian, non edukiak erdibana idazten dituzten (Amuriza, 2003).
- *Ikus-entzunezko tokiko komunikabideetan* (herri, eskualde eta probintziako hedadura dutenak) biak erabiltzea egokia dela deritzogu, alegia, «euskara batu bertaratua» eta bertako euskalki jaso. Lehena hobea da informazio eta iritzi-edukietarako, eta bigarrena elkarrizketa eta eztabaida-gaietarako. Idatzizko hedabideetarako esan dugunaren bidetik, euskara batutik urrutien dauden euskalkietako eremuetan (bizkaiera eta zuberera, agian) nagusitasuna bertako euskalkiak, modu jasoan landua, izan beharko luke, batuaren aurretik; baina ez besteetan.

Azkenik, frankotan, ikus-entzunezko komunikabideei dagokienez behintzat, «euskalki *versus* euskara batua» eztabaidaren azpian beste bi arazo egoten dira ezkutuan: profesionalaren hizkuntza-gaitasunaren ahulezia eta edukien alde aurreko prestaketa desegokia. Bi neke horien aurrean abaro erretorikoa bilatzeko, euskalkiaren eta herri-hizkeraren aldarrikapena erabiltzen da; baita horien forma arruntena ere. Egiaz, *euskara batu bertaratuaren* kontzeptuan oinarrituz, hizkuntza estandarrak ez du arazorik euskalkiekin, auziak bitasunean eztabaidatzeko joeratik aldentzen bagara behintzat.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- AMURIZA, XABIER. 2003. «Tokiko hedabideen ikuspegia Europako Batasuneko hizkuntza gutxituetan», *Tokiko hedabideak etorkizunera begira*, Topaguneak editatua. Abadiño (Bizkaia): Euskara Elkartearen Topagunea.
- ARANBURU, ANTON. 1994. «Kazetaria eta euskara», *Hedabideetako euskara*, G. J. Palaziok editatua. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- AURREKOETXEA, GOTZON. 1993. «Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren Ekarria Bizkaierari», *Bizkaiko euskera, bizkaiera? II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*. Bilbo: Bilboko Udala.
- EUSKALTZAINDIA. 1977. *Libro Blanco del Euskara*. Bilbao: Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.
- LASWELL, H.D. 1948. «The Structure and function of communication in society», *The Communication of Ideas*, L. Brysonek editatua. New York: Institute for Religious and Social Studies (*Mass Communications* modu-

- ra berrinprimatua, W. Schramm editorea, Urbana: University of Illinois Press, 1960; halaber, *Sociología de la comunicación de masas II. Estructura, funciones y efectos* itzulia, M. de Moragas editorea, Barcelona: Gustavo Gili, 1985.
- SIEBERT, FRED, THEODORE PETERSEN, ETA WILBUR SCHRAMM. 1956. *Four theories of the press*. Chicago: University of illinois Press.
- WRIGHT, CHARLES. 1959. *Mass Communication*. New York: Random House (gaztelaniaz: *Comunicación de masas, una perspectiva sociológica*. Buenos Aires: Paidós, 1976; ikus, baita ere, M. de Moragas, *Sociología de la comunicación de masas*, 1985, op. cit.).
- ZABALETA URKIOLA, IÑAKI. 1997. *Komunikazioaren Ikerkuntzarako Metodologia*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).
- . 2005. *Teoría, técnica e imagen de la información en televisión y radio: sistemas digitales y analógicos*. Barcelona: Bosch.
- ZUAZO, KOLDO. 1992. *I. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*. Bilbo: Bilboko Udala.



## **KARRAPE IRRATIAN EUSKALKIEN ERABILERA**

*Arantxa Iparragirre*

Tokian tokiko euskalkiek beren garantiza dute inguru, eskualde edo herri horren hizkeraren nortasuna finkatzeko balio behar dutelako.

Leitza bezalako herri euskaldunean irratian bertako euskalkia erabiltzea premiazkoa dela uste dut, beti ere ahalik eta era naturalenean egiten bada. Euskalkien erabilera bermatu egin behar dugu kolaboratzaile herritarrekin jardunean ari garenean edota bertako entzulegoarekin harremanetan ari garenean ere. Irratian gainera transmisio lana egin behar dugula iruditzen zait, bestela urte gutxira gure herriko gazteak ez dira jakitun izanen beren guraso edo aitona-amonon hizkera zeinen aberatsa den baloratzean. Esapide edo espresio asko galduz joanen da berez, poliki-poliki, Leitzako biztanlegoa aldatzen doan heinean.

# NAFARROAKO EUSKAL KOMUNIKABIDEAK

*Patxi Iñigo*

## 1. ALDIZKARIAK

### 1.1. Euskara hutsean

*Ttupi ttapa:*

- 1981etik aitzinera
- Hamaboskaria
- 6.000 ale
- Esparru geografikoa: Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Sara, Senpere, Azkain, Leitza, Areso, Goizueta, Arano

*Guaixe:*

- 1995etik aitzinera
- Hilabetekaria / astekaria
- 4.000 ale
- Esparru geografikoa: Ziordiatik Irurtzuneraino

*Laisterkan:*

- 1998tik aitzinera
- Hiruhilabetekaria
- 1.100 ale
- Esparru geografikoa: Sakanako ikastetxeetan (6-12 urtekoentzat)

*Gu geu:*

- 1998tik aitzinera
- Hiruhilabetekaria
- 1.200 ale
- Esparru geografikoa: Sakana (12-18 urteko gaztetxoentzat)

*Mailope:*

- 1990etik aitzinera
- Hilabetekaria
- 1.300 ale
- Esparru geografikoa: Larraun, Betelu, Araitz

*Marmari:*

- 2000tik aitzinera
- Sei hilabetetik
- 900 ale
- Esparru geografikoa: Leitza

*Xapo:*

- 2002tik aitzinera
- Urtekaria
- 300 ale
- Esparru geografikoa: Goizueta

*Pulunpe:*

- 1998tik aitzinera
- Hiruhilabetekaria
- 1.300 ale
- Esparru geografikoa: Ultzama, Basaburua, Imotz, Lantz, Anue, Odieta

*Karrika:*

- Hilabetekaria
- 3.000 ale
- Esparru geografikoa: Iruñea

*Axular:*

- 1997tik aitzinera
- Hiruhilabetekaria
- 3.000 ale
- Esparru geografikoa: Burlata

*Xuka:*

- 2000tik aitzinera
- Hilabetekaria
- 750 ale
- Esparru geografikoa: Atarrabia

*Nabarra:*

- 2001etik aitzinera
- Hilabetekaria
- 4.000 ale (2.000 harpidedun)
- Esparru geografikoa: Iruñea, Nafarroa, EH

*Entzun:*

- 2002tik aitzinera (diseinu berria)
- Hilabetekaria
- 2.000 ale
- Esparru geografikoa: Nafarroa eta EH

**1.2. Euskaraz eta ingelesez***The balde:*

- 2001etik aitzinera
- 15.000 ale
- Esparru geografikoa: Nafarroa eta EH

**1.3. Gaztelaniaz eta euskaraz***Zer berri?:*

- 1997tik aitzinera
- Bihilabetekaria
- 70.000 ale
- Esparru geografikoa: Iruñerria, Estellerria, Zaraitzu, Agoitzerría, Longida...

*Ibaialde:*

- 2002tik aitzinera
- Hilabetekaria
- 6.000 ale
- Esparru geografikoa: Burlata, Atarrabia, Uharte

*Txantrean auzolan:*

- 1998tik aitzinera
- Hilabetekaria
- 6.000 ale
- Esparru geografikoa: Txantrea

*Aldapa:*

- 2000tik aitzinera
- Hilabetekaria
- 2.000 ale
- Esparru geografikoa: Alde Zaharra

*Orbela (Ibaialde, Txantrean eta Aldaparekin batera banatzen den gehigarria):*

- 2000tik aitzinera
- Hilabetekaria
- 15.000 ale

*El Tuto:* Agoitz*Mendixut:* Zaraitzu*Vivir en Barañain:* Barañain*Teatro-Antzerkia:* Antzerki Eskola*Ezkaba:* Antsoain*Barríos:* Donibane, Iturrama, Mendillorri, Mendebaldea, Azpilagaña...

- 55.500 ale

*Arrotxapea:* Arrotxapea*La Voz de la Merindad:* Tafalla*Sua:* Suhiltzaileena*La Verdad (Elizbarrutiko astekaria):*

- Nafarroako euskal eremuan 4 orrialde euskaraz

**1.4. Egunkariak***Diario de Noticias:*

- Astean lau orrialde euskaraz

*Diario de Navarra:*

- Astean orrialde bat euskaraz

## 2. IRRATIAK

### 2.1. Euskara hutsean eta euskal eremuan

#### *Xorroxin irratia:*

- 1975etik aitzinera
- Esparru geografikoa: Baztan, Malerreka, Bertizarana, Bortziriak

#### *Aralar irratia:*

- 1991etik aitzinera
- Esparru geografikoa: Lekunberri, Larraun, Araitz, Betelu

#### *Erran-Esan:*

- 1998tik aitzinera
- Esparru geografikoa: Basaburua, Ultzama, Atetz, Odieta, Imotz, Anue, Lantz

#### *Karrape:*

- 1995etik aitzinera
- Esparru geografikoa: Leitza, Areso eta inguruan

#### *Beleixe:*

- 1999tik aitzinera
- Esparru geografikoa: Sakana (Ziordiatik Irurtzuneraino)

### 2.2. Euskara hutsean eta eremu mistoan

#### *Euskalerrria irratia:*

- 1988tik aitzinera
- Esparru geografikoa: Iruñerria eta inguruko eremu zabalagoan

### 2.3. Gaztelaniaz eta zetzobait euskaraz eremu mistoan

#### *Radio de la Universidad de Navarra:*

- Egunero ordu erdi bat euskaraz
- Esparru geografikoa: Iruñerria eta inguruko eremu zabalagoan

### **3. TELEBISTAK**

#### **3.1. Euskara hutsean eta euskal eremuan:**

*Xaloa telebista:*

- 1997tik aitzinera
- Esparru geografikoa: Baztan, Bertizarana, Malerreka

*Ttiti itapa telebista:*

- 1998tik aitzinera
- Esparru geografikoa: Bortziriak, Malerreka, Bertizarana

#### **3.2. Gaztelaniaz eta zertxobait euskaraz eremu mistoan:**

*Centro Regional de TVE:*

- Albisteen bizpahiru minutuko laburpenak
- Esparru geografikoa: Nafarroa osoa

*Canal 4:*

- Albisteen laburpenak
- Esparru geografikoa: Iruñerria

*C 6 Navarra:*

- 21:00etan albisteak euskaraz (astelehenetik ostiralera, ordu erdiko saioa)
- Esparru geografikoa: Iruñerria

## EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

### ttipi-ttapan

*Pello Apezetxea,  
Ttipi-ttapa Fundazioko burua*

### EREMU GEOGRAFIKO, DEMOGRAFIKO ETA LINGUISTIKOA

*Ttipi-ttapa* erratean, bi hedabidez ari gara, edota hiru hedabidez ere erraten ahal dugu: *ttipi-ttapa* aldizkariak eta *ttipi-ttapa* telebistaz, batez ere. Horiez gain *ttipi-ttapa* duen Kulturkari izeneko lantegian ere euskarazko testuak idatzi eta argitaratzen direnez gero, egin nahi dugun azalpen eta azterketa honetan hori ere sartzen ahal dugu. Hori bai, ez dute hirurek lur-eremu eta giza-eremu bera betetzen, eta horren xehetasun batzuk azaltzea beharrezkotzat jotzen dut gaiaren ikuspegi egokia agertzekotan. Euskalkia, izan ere, lurralde jakin batean eta biztanlegoone jakin batean gauzatzen da.

### ALDIZKARIA

1. *Ttipi-ttapa* aldizkaria dugu adinez eta luze-zabaleraz handiena, lehenago sortu eta lurralde zabalagoan hedatzen dena. 1981ean hasi bazen ere, 1990ean bilakatu zen hamaboskari, eta urte horretan hartu zuen oraindik ere nagusiki eusten dion eduki-egitura: herriz herriko berriak kontatzea. Honek eman dio, hain zuzen, eta neurri handianean, euskarazko irakurle ez zen herritar anitzen atxikimendua. Hainbatek aitortu duen bezala, *Ttipi-ttapa* da bere bizitzan euskaraz irakurri duen lehenbiziko testua, eta, anitzetan, bakarra. Gainera, aldizkaria dohainik banatu izan bada ere, irakurle anitzi posta gastuak ordaintzeko diru ekarpena eskatu zaio azkenaldian. Eta ia denek baiezkoa eman dute. 6.000 ale argitaratzen dira.
2. Esparru geografikoari dagokionez, Nafarroa Garaia ipar-mendebaleko eskualde diren Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan, Bertizarana, Mallerreka, Leitzaldea (Leitza, Areso, Goizueta, Arano) eta Bortzirriak hartzen ditu, eta Lapurdiko Azkain, Sara eta Senpere. 35.000 inguruko biztanlegoa, denera, 1.200 km karratutan eta 41 biztanlegoan sa-



kabanatua. Populazio txikiko guneak dira, bada, erdiak baino gehiago 500 bizilagunera ailegatzen ez direnak. Eta orografia menditsuan kokatuak. Hau ere aipatu beharra da, badela zenbait herri hiru mila bizilaguneko kopurua gainditzen duena, eta erakartze eta eragite nabaria duena inguruko tikiengan.

3. Kokaera geografiko-linguistikoa. Koldo Zuazoren euskalki-sailkatzean, *Tipi-ttapa* aldizkariaren esparru ia osoko solaskera nafarreratzat jotzen du. Esparru ia osokoa diot, zeren eta Sara, Azkain eta Senperekoa lapurtera baita, Zuazok nafar-lapurtera deitzen diona. Baina Bortziriak eta Baztan Lapurdirekin mugakide direla behar dugu gogoan izan, eta, are gehiago, Zugarramurdi eta Urdazubi. Horregatik herri hauetako zenbaitetan ikusten da lapurteraren eragina. Baina baita gipuzkerarena ere, honekin mugakide diren Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon.

## TELEBISTA

Telebistak ezaugarri bereziak ditu, Aldizkariarekin konparatzen badugu.

1. 1998an lehen pausoak emana, *Tipi-ttapa* telebistaren zabalkunde-eremua txikiagoa da, Bortziriak, Bertizarana eta Malerrekako mugen barnekoa.
2. Horren ondorioz, kokaera geografiko-linguistikoa ere ez da Aldizkariarena bera. Lapurdiko herriek, Urdazubi-Zugarramurdi, Baztanek eta Leitzaldeak ez dute-eta telebista-emisioaren seinalerik jasotzen.
3. Aldizkaritik bereizten duen bertze alderdia hizkera da. Aldizkarian idatzia, telebistan berriz ahozkoa, gehiena, behinik behin. Ahozkoan, idatzitakoa irakurri ere egiten da, berriei buruzko zenbait testu, errate baterako. Bertzetan, ordea, bat-bateko mintzaera izaten da, maiz eskaintzen diren elkarriketetan, adibidez.

## KULTURKARI

Neurri ezberdineko testuak ekoizten ditu, kartelak, oroitzapen agiriak, liburuxkak, baina denak idatziak.

## EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN ERABILERA

*Tipi-ttapa*k egiten duen askotariko lanen arabera, zenbait berezitasun eta ñabardura agertarazi beharrekoak direla uste dut, idatzizko edo ahozkoa iza-

naren arabera, batez ere; baina baita hizkeraren esparruagatik ere, esparrua ez baita bera, lehen erran bezala.

1. *Tiipi-ttapak*, oro har, Euskaltzaindiak arautu eta agindutako bidea hautatu du, euskara batuarena: ortografia eta aditza, behinik behin, eta lexiko aldaerak ere bai, gehienetan. Hori horrela da, idatzizkoari begiratzen badiogu, Aldizkariari eta Kulturkariri, alegia. Eta horrela egin da Euskaltzaindiaren erabakiagatik, erabakia arrazoizkotzat hartu delako.

Dena den, aukeraketa horretarako erraztasunak ere izan dira. *Tiipi-ttapako* langile guztiak gazteak izan dira, eta gazteak dira, Batua erabakitzearen ondokoak. Ez ditu jasan hainbat tokitan eta taldetan izan ziren eztabaidak eta kasailak. Bertze aldetik, gure eremuko euskalkiak eta batuaren arteko aldea ez da handia, ez ulergarritasuna anitz zailtzeko modukoa, behinik behin. Bizkaierarekin edo zubererarekin konparatuta, errate baterako. Zailtasunak, batzuetan, hiztegitik sortzen dira, eguneroko solaskeran erabiltzen ez den izen bat edo bertze sartzen delako, idaztean batez ere.

2. Euskara batua bada ere nagusi, idatzian batez ere, bertako euskararen kutsua ez da falta, *bertze*, *ortziral*, *heldu* (etorri), *anitz solas*, *eginen*, *ahala* eta abarren erabilerak, eta hiztegiko bertze hainbatek adierazten duten bezala. Hori Iparraldekoen idatzietan oraindik gehiago ikusten da. Galdemodua da ea aski probetxatzen eta zaintzen diren euskalkien probetxagarriak eta aberasgarriak; lexikoaz gain, erranak edo esapideak. Euskaltzaindiak berak dienez, batuak eta euskalkiak elkarren osagarri eta aberasgarri izan behar baitute: (Lezama, 2004ko martxoaren 26a).
3. Euskara hedabideetan sartzea garrantzitsua da, euskararen erabilera bizitzan normalizatzeko. Eta euskarazko irakaskuntza, zer erranik ez. Baina egia da, hori gertatzearekin eta euskara batuaren formak eta arauak ematearekin hainbat eta hainbat zalantza gaineratuz ibili gara urte hauetan. Ziurtasunik ezak zenbaitetan lehengo utzi, lehendik genekiena utzi eta era berriak eta hiztegi berria erabiltzera eraman gaitu. Batzuetan, herriko eta eskualdeko hitz egokiak utzi egiten ahal dira, ustezko idazkera hobe baten bila. Horrela, lexikoa galdu eta jendearendako ulergaitzago bihurtzen ahal dugu testua. Arrisku hori beti dugu gainean. Batua bai, bada; baina batuaren kontrako ez den bertakoari eutsiz. Nahiz eta beti ez den hain erraza hori betetzea.
4. Bertze aldetik, hedabideetan euskara ona erabiltzea ere hagitx garrantzitsua da. Behin eta berriz entzunez izugarri eragina baitu jendearengan. Telebista, irrati edo aldizkari nahiz egunkarian ikusten eta entzuten dena, jakitunen hizkeratzat hartzen du entzuleak eta ikusleak, hau da, hizkera ontzat. Hala ez bada ere beti. Behin baino gehiagotan ikusten da ongi mintzatzen dakien jende heldua, gurasoengandik jasotako

erran zuzena utzi eta komunikabidean entzundakoa bereganatzen. Berztetan eskolan dabilen haurrari aditutakoa hartzen duen bezala.

5. Telebistaren emisioetan gauza zerbait aldatzen da, zerbait, edo zenbaitetan franko. Ahoz eta bat-batean egiten diren saioretan, herrietako jendearekin elkarrizketak direla eta, bertako hizkera anitzez gehiago agertzen baita, bai telebistako langileen aldetik, baina herritar erantzule eta parte hartzaileen aldetik batez ere. Hor jasotzen dira gehienbat euskalkiaren berezitasunak.

## BATU ETA EUSKALKI LANDUAK

1. Lehen erran bezala, hedabideek eragin azkarra dute, handia alegia, jendearen solaskeran, ahozko hedabideek bereziki. Horregatik, hedabideek erabiltzen duten euskara zuzena eta egokia izatearen garrantzia. Nola ziurtatu euskara ona? Jardueran profesional prestatuak sartuta, prestakuntza lantzen joanez. Horrek, ordea, esperientzia eta ikastaro bereziak eskatzen ditu, gauza zaila baliabideak urriak direnean. Herri hedabideetan nazio-hedabide eta diru publikoaz eraikitakoen maila lortzea pentsaezina da. Maila apalagoan ere erakunde publikoen diru-laguntzarik gabe ia-ia ez dira bizitzen ahal. Euskararen eta euskarazko alorrean gehienetan gertatu den eta oraindik ere gertatzen ari den bezala, ilusio, borondate eta bihotz handiko taldeari zor zaio *Ttipi-ttapan* sortzea eta, batez ere, aitzinera egitea, hainbertze zailtasunen gainetik. Eta talde barnean balio eta prestakuntza maila oneko zenbait kide, lehen nahiz orain, badirelako. Hurbiletik jarraitu eta zerbaitetan lagundu dugunok horren testigantza egin beharrean gaude.
2. *Ttipi-ttapan* euskara banaz bertze aski duina dela erranen nuke nik. Hala ere, ez dut ukatzen ahal badela beti zertan hobetu. Eta gai hori mahai gainean dago, eta eguneroko ardura da. Une honetan bertan bada programatua Baztango Udala, Bortzirietako Mankomunitatea eta Malerrekako Mankomunitatearen laguntzarekin, *Ttipi-ttapa*, *Xaloa* eta *Xorroxine*koen euskara hobetzeko ikastaro interesgarria. Baina ibilbide horretan ere diru-laguntza haundiagoak nahitaezkoak dira, eguneroko lana betetzeko jendea estu eta larri dabilen bezala ibili eta.
3. Bertze aldetik, autofinantzatzea litzateke, dudarik gabe, interesgarriena, hedabideak autonomia eta askatasunez jokatzeko. Eta hori errealtate bihurtzeko ahaleginak egitea merezi du. *Ttipi-ttapan* urrats handiak eman dira horretan, nire ustez, aldizkari eta kulturkarin batez ere. Telebistan bidea maldatsuago bilakatzen da, garestiago baita antolamendua eta lana, eta eskasagoak, berriz, diru iturriak.

4. Nafarroako Gobernuak, eta bertze zenbait erakundek, nolabaiteko interesa agertzen dute, bertako euskalkiez. Urte hauetan Nafarroako ahozko tradizio eta solaskeraz argitaratzen ari diren lanei eskaintzen zaien diru-laguntza dugu horren lekuko. Gero, ordea, zera ikusten dugu, ez dutela beharko luketen laguntzarik jasotzen, euskarazko lanetan ari diren euskal komunikabideek. Alderantzizkoa, bai, ikusten ari gara. Zerbait aipatu behar eta, *Ttipi-ttapa* aldizkariari subentzioa erdia baino gehiago ttikitu dio Nafarroako Gobernuak hondarreko urte hauetan: ia 50.000 eurotik 18.000ra.

Aipatu gabe ezin utzi bertze hau ere: martxoaren 12an onartu zuen Madrildo Gobernuak Tokiko Telebista Digitalen Plana, oraindik gauzatzekoa zena, eta bertan bortz eremu edo demarkazio aurrikusi ditu Nafarroa osorako. Bakoitzean gehienez ere launa telebista kanal digital izanen da, denetara hoge. Horietatik bat bakarrik ere ez euskara ofiziala den eremurako. Egun nekez bederen ari diren bi telebistek, *Xaloa* eta *Ttipi-ttapak*, ez dute digitalean emititzerik izanen, eta beraz, prest daukate dagoeneko heriotza agiria 2012rako, Nafarroako Gobernuak ez badu erremediorik jartzen, bistan da. Gainerakoan, ez batuak eta ez Nafarroako euskalkiek, ez lukete zereginik emanen etorkizuneko komunikabideetan.

Itxuraren arabera, interesa handiago dute agintedunek eta erakundeetako hainbat kultura arduradunek, hildako euskalki eta kulturaren oroitzapen politik eraikitzeko, nahiz eta garestiak izan, bizi diren hizkeren eta kulturen iraupena bermatzeko eta sendotzeko baino. Gaurko eta biharko gisako Jardunaldiak, ordea, hizkuntzaren bizitza hobeki ulertu eta osasuntsuago bilakatzen laguntzea dute helburu. Zein bertzela?

## EUSKALKIAK ETA KOMUNIKABIDEAK

*Joseba Igarabide Huarte,  
Xorroxin Irratiko eta Xaloa Telebistako  
sortzailetariko bat*

Bertako edo Toki-Komunikabideek, kasu honetan irrati eta telebistek, herri ttikien egituraren deuseztatzea zailtzen dute. Herriek bizirik mantentzen laguntzeaz gain bere ongi izatea eta autoestima goratzea lortzen da baita.

Gure ohiturek, bizimoduak, kulturak, hizkuntzak, toki propio bat dute mundu globalizatu eta «uniformizatzaile» honetan; bertako hizkuntza diot eta euskaraz ari garenean bertako «euskalkie» da baita.

Euskalkia ahoz ahoko tradizioaren bidez iristen zaigu.

Euskerak jasotzen duen tratu txarraren ondorioz, batez ere Nafarroan, atzerakada izugarria eman du eta ez erabilpenean bakarrik, baizik eta herritarrek eta euskaldunek hainbat urtez jasotako mezuaz... «euskarak ez duela ezertarako balio». Mespretxu horren eraginez hainbat urtez hizkuntza etxeko txo-koetara baztertua geratu da.

Euskeraren prestigioa eta berpiztea batuaren eskutik iritsi da, ondorioz euskalki erabiltzaileek (euskaldun zaharrek gehienetan) bigarren mailako hizkuntza delakoaren irizpide okerra eten gabe hedatzen dute.

Euskalkien aberastasuna eta prestigioa berreskuratu behar dugu, gehiago erabiliz... hor *Xaloa* Telebista, eta toki komunikabideek zer egina daukagu.

## EUSKALKIAK ETA KOMUNIKABIDEAK

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Egun eta hemen Nafarroan zilegi bekit aldarrikatzea zer den Euskaltzaindiaren ikusmoldea euskalkiei eta euskara batuari buruz. Euskaltzainburu izanikan ere ez dut ahazten baigorriarra naizela eta argi eta garbi azaltzen dut Baigorriin naizelarik erabiltzen dudala hango euskalkia. Baina idazle gisa eta irakurle gehienek ulertzeko gisan, euskara batua da derabildana.

Badu orain mende laurden bat baino gehiago euskara batuaz arduratzen dela Euskaltzaindia, lehenbiziko urratsak eginez Arantzazuko kongresuaren (1968) eta Bergarako kongresuaren (1978) artean. Baina, denbora berean ez ditu sekula euskalkiak arbuia. Aitzitik, Bergarako kongresuaren ondotik kaleratu zuen orduko adierazpena, bere 5. puntuan honela diona:

*euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindia, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.*

Beharrezko adierazpena zeren eta maiz entzuten baitzen euskara batuaren alde eta euskalkien etsai bihurtu zela Euskaltzaindia. Denek badakite orain ez dela egia. Alabaina, nork egin du euskalkien alde Euskaltzaindiak egin duen baino gehiago? Nork publikatu ditu Bonaparte printzearen lan gehienak ez baldin bada Euskaltzaindia? Nork kaleratu ditu euskal aditzari buruz eta euskalkiak kontuan hartuz Pedro de Yrizar jaunak egin dituen azterketak ez baldin bada Euskaltzaindia? Nor sartu da sekula egin izan ez den ikerketa sakonean euskalkiei buruz, Hizkuntza Atlas bat agertu beharrean ez baldin bada Euskaltzaindia? Lan luzea, inkestak eginez 145 tokitan eta toki bakoitzeko leku-koari 2800 galdera eginez, baina helburu ederra erakusteko zer diren egiazki euskalkiak, zer den bakoitzaren eremua Euskal Herriko zazpi probintzietan. Euskara batuaren aurka zirenek ez dute holakorik egin beren xokokerietan murgilduak zirelaketz.

Baina, nahitaez Euskaltzaindiak ikusi zuen 1968an Arantzazuko kongresuan euskara batua beharrezkoa zela Euskal Herriarentzat euskaldun guztiak erabil zezaketena Bilbotik Mauleraino, ez zela hizkuntza utopikoa, are gutiago hizkuntza artifiziala, euskalkietan oinarritzen baitzen, euskalkiak ziren iturrietatik edaten zuela nasaiki eta haiei esker joritzen. Egun ager dadila garbi-

ki, batek (euskara batuak) ez dituela bertzeak baztertzen (euskalkiak), ez dela haien etsai bilakatu eta ez dituela batere ehortzi nahi. Egia erran, elkarrekin bizi daitezke euskara batua eta euskalkiak, elkarren ondoan, adiskidantza osoan, bakoitza bere eremuan. Adibidez, hartzen baldin badut Euskal Herriko prentsa, ez da dudarik gure egunkari bakarrak eta Euskal Herri osoan zabalitzen diren bertze astekari eta aldizkariak lehentasuna eman behar diotela euskara batuari, denek ulertzeko gisan; aldiz eremu mugatu batean hedatzen den prentsak balia dezake tokian tokiko hizkera, lehentasuna emanaz hurbiltasunari. Gauza berbera gertatzen zaie bertze komunikabideei, irrati edo telebistei. Bakoitzak ukanen du bere hizkuntza politika ikusiz nori mintzatzten zaion eta nor mintzo den. Zazpi eremuetara bota behar den mezua euskara batuan joanen da, mugatua den mezuak, aldiz, euskalkia baliatuko du.

Hauxe da erran nahi nuena eta argi izan dadila Euskaltzaindiak bultzatzen duen euskaldunen arteko lokarri den euskara batua ez dituela, denbora berean, arbuiatzen euskalkiak.

## **ONOMASTIKA**



## IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta administrazio batzordeek, baita beste administrazio desberdinek Onomastika Batzordeari egindako irizpen eskaerak biltzen dira. Gogoan izan behar dugu EAEn herri edo kontzejuaren izena aldatzeko irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari. Irizpenak eskatutako hizkuntza edo hizkuntzetan ematen dira.

Mikel Gorratxategi,  
Onomastika Batzordeko idazkaria

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico de la junta administrativa de *Undiano* del municipio de *Cizur* en su forma eusquérica académica actual es: ***Undio***.


Que dicho nombre se documenta en los años 1257 y 1278 como *Undiano*; en 1274-79 como *Ondiano* y en 1595 como *Undio*, tal como se recoge en la obra de José María Jimeno Jurio *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*.

Que el nombre empleado por el pueblo, era, sin duda, *Undio* forma que ha pervivido entre los hablantes eusquéricos de Navarra, tal y como recogió el académico Patxi Salaberri en 1988 en la localidad de Urritzola en Arakil. Dichos datos se recogieron en la obra *Nomenclátor Eusquérico de Navarra / Nafarroako Euskal Izendegia* publicada por esta institución y el Gobierno de Navarra. Esto mismo se observa en la toponimia menor donde se documenta, *Undiobidea* «El camino a Undio» y variantes, en los pueblos de los alrededores: *Astrain (Undiobidea y Undiobide barberaren parezepean, Undiobidegaña, Undiobidepea, Undiobide senda)*; *Larraia (Undiobide)*; *Muru-Astrain (Undiobidea y Undiobidepea)*; el despoblado de *Oiertza (Undiobidea)*; y *Sagues (Undiobidea)* como se observa en el libro de J. M. Jimeno Jurío antes citado.

Posteriormente, con la pérdida del euskera en dicho pueblo, predominó la forma *Undiano* única empleada de forma oficial, ya que la administración tiende a mantener formas más arcaicas y en contadas ocasiones da paso a las formas eusquéricas. La pérdida de la consonante *-n- lenis*, o suave, entre vocales es una de las características de la fonética vasca, tanto en palabras de origen eusquérico (*ardoa* o *gazta*, de *\*ardano* y *\*gaztan*), como en préstamos latinos (*katea* y *area*, en castellano *cadena* y *arena*). Dicho fenómeno es también habitual en toponimia, tal como lo demuestran, entre otros muchos, los nombres de las localidades de *Aramaio* (A), *Dorrao* (Na), *Lazkao* (Gi) y *Otxandio* (Bi), de *Aramaiona*, *Torrano*, *Lazkano* y *Otxandiano* respectivamente.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, este es *undiotar*, tal y como se recogió en 1990 en el antes citado.

Vº Bº



---

Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen idazkariak,

### EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Bakaikun, Zuia udalerrian da-  
goen *Luquiano* kontzejuko Administrazio Batzordeak eginiko eskaera aztertu  
zuela.

Eskaera hori ikusita, Batzordeak hurrengo azalpen argigarriak egitea era-  
baki du:

1. Euskaltzaindia, bai otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren, bai  
abenduarien 18ko 3/1979 Euskadiko Autonomia Estatutuaren Lege Or-  
ganikoaren 6.4 artikulua araberak, euskarari dagozkion gaietan era-  
kunde aholkulari ofiziala da eta, ondorioz bere eskumena du, besteak  
beste, lekuen euskal izen egokiak ebaztea.
2. Euskara alorreko eginkizun hori betetzeko, Akademia honek, bere  
Onomastika batzordearen bidez, 1986an Eusko Jaurlaritzarekin batera  
*Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* liburua eta  
2001ean EUDELekin batera *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-  
entitateak* izenekoa argitaratu zituen. Bietan *Luquiano* herri-izenaren  
euskal ordaina **Lukiano** zela ebatzi zuen. 2002ko urrian, Administra-  
zio Batzordeak hala eskatuta, kontzeju honen izenari buruz egin zen  
ebazpenean ere izen hau berretsi zen.
3. Toponimo euskaldun honen izena 1257. urtean dokumentatzen da le-  
hendabiziko aldiz *Luquiano* moduan, Akademia honek argitara eman-  
dako Gerardo Lopez de Gereñuren *Toponimia Alavesa seguido de  
Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* liburuan ageri den be-  
zala.
4. Gomendatutako aldaera *Lukiano* da, inguruko toponimiaren ikerketa  
egiten ez den bitartean ezin delako zehatz-mehatz jakin zein zen eus-  
kaldunek erabiltzen zuten izena inguru horretan euskara desagertu ai-  
tzinetik. Gogoan izan behar da bokalen arteko *-n*-ren galera euskal fo-  
netikaren ezaugarri bat dela eta gertaera hau ohikoa dela bai jatorrizko  
hitzetan (*ardoa* eta *gazta* ezagunak *\*ardano* y *\*gaztana* hitzetatik sor-  
tu ziren) bai kanpotik hartutakoetan (*catena* eta *arena* euskaraz *katea*

eta *area* bihurtu ziren). Toponimian ere gertaera hau oso arrunta da. Horren adibide dira, besteak beste, *Aramaio* (Alaba), *Argomaiz* (Araba), *Dorrao* (Nafarroa), *Galdakao* (Bizkaia), *Lazkao* (Gipuzkoa), *Miñao* (Araba), *Otxandio* (Bizkaia) eta *Uzkio* (Trebiñu) herri izenak. Hala ere, oraingoz egiaztatu gabe dago euskaldunek \*Lukio erabili ote zuten Lukiano izendatzeko. Horregatik, lekukotzarik aurkitzen ez den bitartean, *Lukiano* gomendatzen da.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, gorago aipatu bezala, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera arautzeko oinarrizko legearen 10. artikulua kontuan izanik, lehendik hartutako ebazpena berretsi du, jakinaraziz erabaki hori hizkuntzaren araudi arlokoa dela eta ez arlo politiko-administratiboari dagokiona. Hori guztia kontuan izanik,


#### HONAKO HAU EBATZI DU:

Zuia udalerriko *Luquiano* Administrazio Batzarraren euskal izena **LUKIANO** dela.

Herritar izenari dagokionez, ez da orain arte lekukorik aurkitu. Dena dela, Onomastika batzordeak uste du *lukianoar* izanen litzatekeela.

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila zazpigarreneko urtarrilaren hogeita bian.

Ontzat emana



Andres Iñigo,  
Batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en su reunión celebrada en Bakaiku, estudió la petición de la Junta Administrativa de *Luquiano* del municipio de Zuia.

Visto el contenido de dicha petición, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar la forma eusquérica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, publicó en 1986 junto con el Gobierno Vasco el libro titulado *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* y en 2001, en coedición con EUDEL, el libro *Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*. En ambos se documenta **Lukiano** como equivalente eusquérico de *Luquiano*. En fecha de octubre de 2002 se emitió, a petición de la Junta Administrativa, un certificado sobre la denominación eusquérica del concejo refrendando dicha denominación.
3. Este topónimo vasco se documenta como *Luquiano* en su primera cita en 1257, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.
4. La forma recomendada es *Lukiano*, porque la falta de estudios pormenorizados de la toponimia de la zona impide saber a ciencia cierta cuál era la forma utilizada oralmente por los habitantes de la misma antes de la pérdida del euskera. Cabe recordar al respecto que la pérdida de la consonante *n lenis* (débil) entre vocales es una de las ca-

racterísticas de la fonética vasca, tanto en palabras de origen euskérico (por ejemplo, *ardoa* y *gazta* han salido de *\*ardano* y *\*gatzana*), como en préstamos latinos (*catena* y *arena* han dado *katea* y *area* en euskera). En toponimia es un fenómeno habitual. Así lo confirman, por ejemplo, los casos de las localidades de *Aramaio* (Alava), *Argomaiz* (Alava), *Dorrao* (Navarra) *Galdakao* (Bizkaia), *Lazkao* (Gipuzkoa), *Miñao* (Alava), *Otxandio* (Bizkaia) y *Uzkio* (Treviño) entre otros. No obstante, en el caso de *Lukiano* está por confirmar que se usase la forma *\*Lukio*. Por ello, ante la falta de testimonios, se recomienda la forma *Lukiano*

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el Artículo 6.4, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado anteriormente, haciendo constar que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,


#### HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Luquiano*, del municipio de *Zuia*, en su forma eusquérica académica actual, es **Lukiano**.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión cree que sería *lukianoar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintidos de enero de dos mil siete.

Vº Bº



Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA,

#### CERTIFICA:

Que el nombre de la junta administrativa de *Retes de Llanteno*, del municipio de *Ayala/Aiara*, en su forma eusquérica académica actual es ***Erretes***.

Que, como es sabido, en las fuentes documentales históricas del lugar, la forma más habitual es *Retes de junto a Llanteno* para diferenciarlo de *Retes de Tudela*, ya que ambos pueblos pertenecían a la Tierra de Ayala. Posteriormente, al crearse los actuales ayuntamientos, *Retes de Tudela* pasó a ser un barrio de Artziniega, perdiendo su carácter de junta administrativa propia. El nombre de este segundo pueblo deriva del valle de Tudela al que perteneció.

Que esta Real Academia de la Lengua propuso en su *Nomenclátor* de 1986 la forma *Erreta Lantenu*, recogiendo las propuestas de la época. Esta forma, no documentada, se creó teniendo en cuenta que, por una parte, en euskera no existe la *-r-* inicial y, por otra, que es común que los topónimos eusquéricos que empiezan por *Erre-* pierdan la vocal inicial en romance. Así, *Errekalde*, *Errotabarri* y *Errekatxu*, por poner algún ejemplo, han sido castellanizados como *Recalde*, *Rotabarri* y *Recachu*. Esta pérdida se produce como consecuencia de la confusión con la preposición castellana «de»: *de Erretes* > *de Retes*. Teniendo en cuenta que en dicho pueblo el idioma original era el euskera, algo que se puede constatar en topónimos del lugar como *Anduribai*, *Zubiaga* o *Itxabetxi*, es poco probable que sus antiguos habitantes usaran la forma *Retes*.

Que aunque la primera cita conocida de este nombre es del Fuero de Ayala de 1491, donde aparece *Lopez de Retes*, sin embargo, en la Fogueración de Urduña de 1745 un vecino de la calle «Yerro» de Orduña se inscribe como «Juan de Herretes». Cabe señalar que el hecho de añadir una *h-* al inicio de este nombre corresponde a la costumbre de hacerlo con las palabras que comienzan por *er-*, como es el caso de *Hermita*, hoy *Ermita*, o *Hermua*. En el siglo XVI *Erretes* aparece además como apellido de un comerciante de Bilbao. Igualmente, el vecino pueblo de Retes de Tudela aparece por primera vez en el *Becerro de Behetrías* de D. Pedro I (1351-1352) como «*Erretes*».

Que de adoptarse la forma ***Erretes*** es innecesario añadir *de Llanteno*, ya que sería la única localidad de ese nombre. Además, *Erretes* ha sido siempre




un pueblo independiente de Llanteno, por lo que esta denominación, sin mención al vecino pueblo, no es del todo correcta y se presta a confusión. En el caso de querer diferenciar esta población de *Retes de Tudela*, sería más apropiado hacer referencia a Aiara, que es el municipio donde está ubicada.

A pesar de no disponer de testimonios documentales, de acuerdo con los usos de la lengua, el gentilicio debiera ser *erretestar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a dos de mayo de dos mil siete.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', is written over a horizontal line.

Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/EUSKALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre de la junta administrativa de *Guereñu*, del municipio de *Iruraz-Gauna*, en su forma eusquérica académica actual es ***Gereñu***.

Que, como es sabido, este nombre se documenta bajo distintas formas a lo largo de la historia; *Guereño* en 1257, *Guerennu* (1461), *Greñu* (1762), tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.


Que el nombre empleado por el pueblo era, sin duda, *Gereñu*, tal como se desprende por los testimonios de toponimia menor *Guereñubide(a)* y *Guereñubideazpia*, obtenidos en la documentación de los pueblos vecinos, que se recogen en la citada obra. De conformidad con la grafía eusquérica, debe transcribirse bajo la forma ***Gereñu***.

Que, en consecuencia, el cambio de *Guereñu* a *Gereñu* es meramente gráfico, sin que suponga cambio alguno en la pronunciación, debido a que en el sistema de escritura actual de la lengua vasca el grafema <g> se pronuncia siempre como el castellano -g-.

De acuerdo con los usos de la lengua, el gentilicio sería *gereñutar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a dos de mayo de dos mil siete.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

## **TOLOSAKO LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA**

*Tolosa, bi mila eta zazpiko martxoaren zortzian*

*Mikel Gorrotxategi*

Arratsalde on.

Hasi aurretik ohikoa eta legezkoa da eskerrak ematea, agintariei, bereziki lan hau bideratzeagatik, ikerlariei egindako lan bikainarengatik, lan honekin nola edo hala laguntzen ibili garenoi eta azkenik, baina ez garrantzi gutxienekoa, Tolosako herritarrei eta orobat hona etorri diren guztiei.

Esku artean daukagun liburua hartzean baten bat harri eta zur geldi liteke hor agertzen diren aldaketa batzuk ikustean. Betidanik ezagutu dituzuen izen batzuk aldatuta ikusiko dituzue. Nola da posible?

Aldaketak ikusten ditugunean sarritan pentsatzen dugu nola den posible *betidanik* ezagutzen dugun izena aldatzea. Baina zer da *betidanik*?? Sarritan gure bizitzaren azken urteak izaten dira «beti». Iaz aipatuko ez dudan udal batek erabaki zuen izena aldatzea *Villa* hitza gehituta horrela ezagutzen baitzen herria «desde tiempo inmemorial». Paperak aztertu eta konturatu ginen izen horren lehenengo aipamena 1928koa zela, ehun urte baino gutxiago. Hau bai *tiempo inmemorial* luzea!

Gurean ere halakoak gertatzen dira. Bilbon, esaterako, *Casco Viejo/Alde Zaharra* izena nagusitu da *Zazpikaleak/Sietecalles* izen jatorraren ordean. Jende gutxi daki izen hori 1968an asmatu zutela dendariak berriki ireki zen Corte Ingelesari aurre egiteko.

Tolosako Udalak bertako ondarea den toponimia ikertzea erabaki zuenean laguntza eskatu zion Euskaltzaindiari lana ahalik eta ondoen egiteko. Azken erakunde honek eta EUDEL-ek sinatuta duten hitzarmenaren barruan, kale izendegiaren azterketa eta egokitze lana burutu zen. Dakizuen bezala lan honen hastapenetan Joan Ignazio Elozegi izan zen ikerlaria eta amaieran Irma Goikoetxea.

Baten batek galdetuko du zertarako aldatu azken urteotan erabilitakoa. Erantzuna erraza da, leku izenak gure ondarea dira, Nazio Batuen Erakundeak ongi zehaztu bezala, eta era duin batean gorde eta zaindu behar ditugu. Na-

farroan, esaterako, foruak zehazten du etxeko jabearen eginkizunetako bat etxearen izena gordetzea dela. Euskal Herrian izenak jatorrizkoa ez zen hizkuntzetan idatzi behar izateak arazoak eman eta ematen dizkigu.

Batzuetan euskal izenak itxuraldatzen dira erdaraz ez dauden soinuengatik: *Anzaerreca*, *Iturrioz*, *Cacholaiz*,...

Besteetan ahoz heldu zaizkigunen kasuetan azken mendeko aldaera «euskaldunagotzat» jotzeko ohitura dugulako: *Ibarrola* > *Ibarla*.

*Atxabalta* eta *Izal* esan arren ondotxo dakigu leku horien euskal izen osoak *Aretxabaleta* eta *Idiazabal* direla. Azken kasu horretan euskal izena, *ch*-az idatzita ere, ofiziala izan da. Beste kasuetan, berriz, eta batez ere baserri izen eta soro izenetan, ez dugu inoiz izen egokiaren berri eta ahoz baino ez dugu ezagutu. Hori dela eta ahozko aldaera hori euskarazkoa jotzeko ohitura dugu.

Horiek dira *Intxurre* edo *Apatte* izenen kasuak. Lehenengoaren kasuan deklinatzean erabiltzen den -e gehitu zaio izenari *Lemoize* edo *Mendibile* izenetan bezala. Bigarrenean berriz pentsatzekoa da *Abade* hitzaren eragina ere egon dela.

Beraz, gaizki dago *Intxurre*, *Apatte*, etab. esatea? Horri erantzuteko munduan zer den arrunta eta naturala ikusi behar dugu. Estatu Batuetan *Frisko* esaten diote San *Franciscori*, Andaluzian *Güerba* eta *Zebiya*, *Huelva* eta *Sevilla*-ri eta Ingalaterran *Leister*, *Leicester* hiriari, maila desberdinak baitira ahozkoa eta idatzikoa. Guk ere etxekoak izendatzeko erabiltzen ditugun izenak ez genituzke epaitegi batean erabiliko.

Beraz, ez da gauza bera zer esaten den eta zer idazten den eta hori dela eta izenak idatziz edo maila landuan erabiltzen ditugunean modu batez egingo dugu, eta ahoz batzuetan beste desberdin batez.

Gurera edo hobeki esan zuenera joanda aldaketa asko ikusiko dituzue, ez guztiak maila berekoak. Uste dut Irmak eginiko azalpenak argiak direla, baina bat edo beste zuei azaldu nahiko nizkizueke, aldaketok gure hizkuntzaren Akademiaren, Euskaltzaindiaren, onarpena izan baitute.

– **Laskurain** izena ezagutu duzue orain arte, baina dokumentazioa argia da izen zahar honen lekukotza guztietan Laskoain dugu. *Laskoain*: 1378. urtean agertzen da lehen aldiz *Laskoain* idatzita. Urteetan mantentzen da aldaera berbera; 1922an, oraindik ere, *Laskoain* forma azaltzen da. 1956an, berriz, *Lascurain-Etxeberri* agertzen da dokumentatua eta aurrerantzean ere *Laskorain* eta *Laskurain* formak gailentzen dira. Kasu honetan, dokumentazioak garbi erakusten digu arautu beharreko forma **Laskoain** dela, eta ez *Laskorain* edo *Laskurain*. Izan ere, azken bi aldaera hauek (-r-dunak) duela gutxi sortutako berrikuntzak dira. Honaino adituek esan digutena. Hala eta guztiz ere, ukaezina da erabat gizarteratua dagoela *Laskorain* forma, ikastola izen horrekin bataiatu zu-

telako duela 40ren bat urte eta kalea ere badelako Tolosan, eta garrantzitsua gainera.

- **Iruntxur:** Hizpide dugun adibidean, forma zaharrena *Yrunchur* da, 1598an azaltzen da idatzita (**Yrunchur eta Yrunchurgaña**). 1719an, *Yrunchun* agertzen da dokumentatua eta 1956tik aurrera erabiltzen den forma *Intxurre* da. Litekeena da oinarrian *hiri* hitza izatea eta horri eutsiz guk proposatutako forma **Iruntxur** da.
- **Zerkausia:** Izen zahar eta eder hau berreskuratzea erabaki du, oso egoki, udalak Solana izenaren orde. Izenak antzinako harresiaren oihartzuna du. Arrasaten ere badugu Zerkoite izeneko kalea, zerka baitzen hirietako euskaraz muralla esateko erabiltzen zen hitz jatorra.
- **Igerondo:** igera ondoko edo errota ondoko esparrua izendatzen zuen izen honek. Ihera hitza Tolosan galdu bada ere Iparraldean bizi-bizirik dago. Igerondo izan zen izena herri-etimologia dela medio *Igarondo* bihurtu zen arte. Herritarrak beti saiatzen dira izenen arrazoia aurkitzen eta igera (eihera) hitza galduta *igaro* aditzarekin lotu zen.
- **Igeralde** izenaren kasuan Igarondo-ren berbera dugu.
- **Andre Maria:** Nahiz eta gaur egun Tolosako euskaldunon artean gaztelaniazko *Santa Maria* izena nagusitu den Jesusen amaren euskal izen jatorra *Andre Maria* da. Izen hau ageri da ezagutzen dugun lehengo euskal hiztegian, XII. mendean Compostelara erromes joan zen Aymeric Picaud jaunak idatzi zuen *Liber Sancti Iacobi* ezaguna. Bertan Euskal herriari buruzko beste datu askoren artean, gehienak ez oso onak, gure hiztegitxo bat ageri da.

Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares. Barbara enim lingua penitus habentur. Deum uocant **Urcia**, Dei genitricem **Andrea Maria**, panem **ogui**, uinum **ardum**, carnem **aragui**, piscem **araign**, domum **echea**, dominum domus **iaona**, dominam **andrea** [...] triticum **gari**, aquam **uric**, regem **ereguia**, sanctum Iacobum **Iaona domne Iacue**...

Honen itzulpena hau duzue:

Hitz egiten entzungo bazenitu, zaunka ari diren zakurrekin oroituko zinateke, hizkuntza erabat basatia baitute: Jainkoari *Urcia* deitzen diote, Jainkoaren Amari *Andrea Maria*, ogiari *ogui*, ardoari *ardum*, haragiari *aragui*, arrainari *araign*, etxeari *echea*, etxeko jaunari *iaona*, etxeko andreari *andrea* [...], gariari *gari*, urari *uric*, erregeari *ereguia*, Santiagori *Iaona domne Iacue* (1)

---

(1) Gidor Bilbao jaunak argitara emandako itzulpenean oinarrituta.

- **Enpradore kalea:** izena euskaratu nahian Agintari kalea jarri zen, baina herriak Enperadore kalea erabiltzen du, Enpero kalea. Izenak Karlos V. Enperadorea bertatik igaro zuela gogoratzen digu eta hori dela eta gordetzea erabaki zen.
- **San Joan:** Andre Mariaren kasuan bezala euskarazko izen arautuari emna zaio lehentasuna.
- **Iruntxur:** Hizpide dugun adibidean, forma zaharrena *Yrunchur* da, 1598an azaltzen da idatzita (**Yrunchur eta Yrunchurgaña**). 1719an, *Yrunchun* agertzen da dokumentatua eta 1956tik aurrera erabiltzen den forma *Intxurre* da. Litekeena da oinarrian *irun* hitza izatea (Iruña ezagunean dugun berbera) eta horri eutsiz **Iruntxur** izena berreskuratu nahi dugu.

Beste aldaketa batzuk ere badira, Armeria plaza Parke Jurasiko izenaz ezagutua, Amarotz, Iturritxiki, Santa Lutzia, Rondilla kalea... baina ez naiz hemen gehiago luzatuko.

Ongi izan eta eskerrik asko etortzeagatik.

## HONDARRIBIA / FUENTERRABÍA TOPONIMO(AR)EN GAINEAN

*Iruñean, 2007ko maiatzaren 11n*

*Patxi Salaberri*

Vinsonek (1909: 352) eman diren azalpen etimologiko errazegien artean *Ondarrabia* aipatzen du, eta «deux sables» «bi hareak, bi legar» ezin itzul daitekeela zehazten. Pixka bat aurrerago (ibid., 354) izen honen bukaeran *bia* dagoela dio, *Beobia* eta *Urtubia*-n bezala, eta bere buruari galdegiten dio amaiera hori ez ote den latineko *via*-ren egokitzapenen bat, *bide*-rekin loturik dagokeena. Ondorioz «voie sur le sable» «hondarraren gaineko bidea» itzultzen du, baina badirudi, *Beobia*-ren kasuan bezala, zalantzan dagoela azkenean osagai hori *gué* ez ote den, *ibia* alegia.

H. Gavelek (1935: 631-32) erraten du herriaren izena *Ondarrabia* edo *Ondarrabi* (aldaera laburtua) dela euskaraz, eta hizkuntza honen bidez azal daitekeela: osagaiak *ondar* «hondakina», «hareak», «hondartza» (< *ondo* < *fundum*) eta *ibai* «[le] fleuve [plein] de sable» edo *ibi* «[le] gué de sable» dirateke, edo, beharbada, *ondar* eta *obi* «hobia», «zuloa», «hutsunea» hitzaren ordez egoten den *abi*; azken kasu honetan «le creux de sable» litzateke toponimoaren erranahia. Hiruretarik lehena, *ibai*-ren bidezkoa, iruditzen zaio onesten zailena, *ai* > *i* laburtzearen lekukotasunik ez dagoelako, Hondarribi aldeko hizkeran. Beste biak onargariagoak direla uste du, baina oztoppa ere bada, haren irudiko, ontzat hartzeko: ez dakusa garbi nola *Ondarrabia*-tik atera zitekeen espainoleko *Fuenterrabía* egokitzapena, ez eta ere *fuelle* «iturria» hori zeri zor zaion. Aise errazagoa izanen litzateke kontua, haren irudituan, baldin eta gaztelaniako izena erdiesteko gaskoi zaharreko *hont*-etik abiatuko bagina, hots, *Hont-arrabía* ebakitzen zen *Font-arrabía* hartuko bagenu abiapuntuzat. Kasu honetan frantseseko *Fontarabie* izen horren atxikitzea besterik ez litzateke, dardarkari anizkuna bakun bihurtu eta ondoan; *Ondarrabia*, bestalde, gaskoiko forma haren euskaratzearen ondore zuzena litzateke. Azalpen honi autoreak berak dakuskion alderdi txarra *-arrabía* hori behar bezain argi ez egotea da, baina frantseseko *Font-ravine*-ren baliokidetzat hartzea proposatzen du, hots, «iturri baserreka», osagaien hurrenkeraz deus erraten ez badu ere.

Menéndez Pidal filologo entzutetsuak, *Orígenes del Español* liburu eza-gunean (1986 [1926]: 536), latineko *rapidu*-k gaztelanian izan dituen ondo-

rengoak aztertzean erraten du «eboluziorik ugariena» den *rábío* forma *rabia*-rekiko homonimiaz galdu zela, eta bakarrik hizkuntza zaharrean eta toponimian atxiki zela. Aipatzen dituen leku izenak Santanderko *La Rabia*, Oviedoko *Rabias*, Portugalgo *Rabia*, *Arrabia*, *Raiva* eta Euskal Herriko *Fuenterrabía* dira. Azkeneko hau dela eta, ikusten du azentua tokiz kanpo dagoela, hots, ez dela, etimologiaz legokiokkeen moduan, *Fuenterrabia* erraten, eta hau justifikatzeko azaltzen du Euskal Herrian indar azentua ezezaguna dela. Hau ez dator bat bost urte lehenago, 1921ean Bilbon eman eta 1962an argitaratutako hiztealdian erraten duenarekin (43-44. orr.), hartan «seudorromanización» deitzen baitzuen *Ondarrabia* toki izena *Fuenterrabía* bihurtu izana.

Koldo Mitxelenak *Apellidos Vascos*-en lehen argitaralditik (1953tik beraz) osagaitzat (*h*)*ondar* duten toponimoen artean sartzen du *Ondarrabiya* (490. sarrera), hots, egun *Hondarribia* forma arautuarekin ezagutzen dugun hiribilduaren izena. Lan honen ondoko argitalpenetan Menéndez Pidalen hipotesia, etimotzat *\*Fontem rapidum* ematen duena, «absolutamente inacceptable» iruditzen zaio, Donostiako foruan agertzen den *Ondarribia* (edo *Undarribia*, *Hundarribia*) aldaera erabat gardena delako (*hondar* + *ibia*), eta osagai horiek beste euskal toponimo frankotan ere agertzen direlako: *Ondarreta*, *Ondarزابال*, *Undarrağa* (*hondartza* izen arruntaz landara) batetik, eta *Arribi*, *Astibia*, *Oñatibia*, *Zaldibia* eta abar bestetik.

Erreterriako hizkuntzalariak lan berean azaltzen duen bezala, Gipuzkoako hiriburuko foruaren tradizio «eskuidatzia» akastuna da eta berak uste du *Hundarribia* hobetsi behar dela, *Undarabia*-ren aldean. 1964an kaleratutako *Textos Arcaicos Vascos*-en (3.1.12), Zaldibiak eta Isastik biltzen dituzten *Ondarrabian zana*, *Ondarribira sana* aipatu ondoan, segurutzat jotzen du *Ondarribia* aldaera *Ondarrabia* baino zaharragoa dela, eta iritzi bera plazaratzen du *FHV*-n (390. or.).

Donostiaren fundazioa 1180 ingurukoa da Orellaren arabera, baina foruaren kopiarik zaharrena Juan de Sorola eskribauak 1474an egin zuena da, eta bertan *Hundarribia* ageri da, Mitxelenak dioenez (*AV*, 490). Hondarribiko bereko udal artxiboan, berriz, herri izenaren erdarazko aldaera azaltzen zaigu, harritzekoa ez dena bestalde, Euskal Herriko herri izen anitzen euskal aldaera ez baitugu sekula dokumentu ofizialetan aurkitzen, euskara administrazioaren hizkuntza behin ere izan ez delako, jakina den bezala. Hauek dira leku-kotasun horietako batzuk (Larrañaga & Tapia, 1993):

«... sobre discordia que era entre el conçejo de Fuenterrauia de una parte e Juan Martin señor de Lastola de la otra» (1299, 7, 12. or.).

«... los nuestros montes que son en termino d'Oyarçun e de Yrun Yrançu y de Fuenterrauia» (1328, 13, 22. or.).

«... que no les enbarguen en la canal de Fuenterrauia [...]» (1328, 13, 24. or.)

«San Sebastian y Fuenterravia e Villanueva de Oyarçun» (1397, 25, 51. or.)



«... desde el rio de Oyarzu hasta el rio de Fuenterrauia y de peña de'Aya hasta la mar» (1399, 26, 73. or.).

«... e de la dicha villa de San Sebastian azia la parte de Fuenterrabia asta el licle o punta de Amuayça» (1432, 31, 95. or.).

Batzuetan euskarazko eta erdarazko aldaeren artekoa irudi duen *Fontarrabia* azaltzen da:

«Primo. dixo q[ue] debe al conçejo dela villa de fontarrabia [...]» (1541, Elizondoko protokoloak, 1, 89-1).

«... gobernador de fontarrabia, tierra de labort» (1542, Doneztebeko protokoloak, 9).

Inoiz bestelako aldaeraren bat ere agertzen da (*fuentarravia*, 1581, Doneztebeko protokoloak, 42) (1).

\* \* \*

Orain artekoak gogoan harturik honako baieztapen hauek egin daitezkeela, uste dut:

1. *Hondarribia* toponimoak azalpen argia eta koherentea du euskal toponimian, *hondar* edo *ibia* osagaiak dituzten leku izenak ugariak direlako. Oroitu beharra da Bidasoan, gorago, *Behobia* (*Beoybia* ere dokumentatzen da) edo *Pausua* dagoela, eta Donostian *Ondarreta*.
2. Garai batean izen honek hasperenketa zukeen (cf. *Hundarribia*) eta erraza zatekeen eskribauek euskal toponimoaren lehen osagaiaren aspirazioa latineko *fontem*-en ondorengoek berandu arte izan zutenarekin nahastea.
3. Gaztelaniazko azentuaketa ez dator bat alegiazko etimoak zuenarekin, ez eta honen ondorengoek, beste leku batzuetan, egun dutenarekin. Ez dirudi ustezko toki-aldatzearen hobena euskal azentuaren gain eman daitekeenik.
4. Lehen osagaitako latineko *fontem* duten erdal toponimo zaharrek aldaera laburtua izan ohi dute, eta diptongatugabea, azentugabea baita (*Orígenes*, 222-223): *Fonseca*, *Fontecha*, *Hontoria* eta abar. *Fuenterrabia*-ren kasuan ere *Fon-* edo (*H*)*on-* espero genuke toponimoa jatorrizkoa balitz, hots, *fontem rapidum*-etik edo, generoa aldatuz, *fontem rapidam*-etik atera balitz.
5. *Ondarrabia* aldaera aise azal daiteke *Ondarribia*-tik abiaturik, asimilazioz.

(1) Azken datu hauek Andres Iñigori zor dizkiot.

6. (*H*)undarribia forma ere erraz azaltzen da (*H*)ondarribia-tik abiatzen bagara (cf. (*h*)undar «hondarra», *hontan* «honetan», e.a.).
7. Dokumentazioan lehenik eta gehienik erdarazko aldaera agertzea hagitx arrunta eta ohikoa da gurean, euskara administrazio hizkuntza inoiz izan ez delako.
8. Egungo aldaera arautua, *Hondarribia*, «etimologiko»tzat har daiteke, hasierako grafeman ikusten den bezala.
9. Bukaerako *-a* hori artikulua da etorkiz, eta, izen arruntetan agitzen den moduan, erori egiten da zenbait deklinabide kasutan: *Hondarribiko*, *Hondarribira*, *Hondarribitik*...

## BIBLIOGRAFIA

- GAVEL, H. (1935): «Le nom de Fontarabie est-il d'origine gasconne?», *Mélanges de Littérature, d'Histoire et de Philosophie*, 629-633.
- LARRAÑAGA, M. ETA TAPIA, I. (1993): *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 48, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- MENÉNDEZ PIDAL, R. (1962): *En torno a la lengua vasca*, Espasa-Calpe argentina, Buenos Aires.
- (1986 [1926]): *Orígenes del Español*, Espasa-Calpe, Madril, hamargarren argitaraldia.
- MITXELENA, K. (1953): *Apellidos Vascos (AV)*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia. Txertoa argitaletxeak 1997an hiri berean egin-dako edizioa ere (bosgarrena) erabili dugu.
- (1964): *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril.
- (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca*, «Julio Urkixo» Euskal Filología Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, laugarren argitaraldia.
- ORELLA, J.L. (2001): «El fuero de San Sebastián y su entorno histórico», in *Relaciones medievales entre Gasconia y Guipúzcoa: la diócesis de Pamplona y de Bayona. Medieval relationships between Gascony and Guipúzcoa: the diocese of Pamplona and Bayonne. Jornadas de reflexión sobre la Eurociudad Vasca Baionne-San Sebastián*, Azkoaga. *Cuadernos de Ciencias Sociales y Económicas* 11, 93-212.
- VINSON, J. (1909): «Importance des noms topographiques, lieux-dits, etc., pour l'étude de la langue basque», *RIEV* 3, 349-356.

## NAFARROAKO HERRI IZENEN BUKAERAKO TXISTUKARIA ETA TOPONIMOEN ARAUTZEA

*Patxi Salaberri,  
euskaltzaina (\*)*

Nafarroako herri izenak arautzean aurkezten zaigun arazoetarik bat, eta ez hutsalena, toponimo batzuek, frankok, bukaeran duten txistukariaren nola-koari doakiona da, hots, txistukari horrek igurzkaria (-s, -z) izan behar duen ala afrikatua (-ts, -tz). Lehen kasuan, ebakera bana izanagatik ere, gaztelaniarekin bat letorke euskal grafia, puntu honetan behintzat, maizkara, toponimoren barnean belare ahoskaberaren bat edo gaztelaniaz era batera eta euskaraz bestera idatzi behar den beste soinuren bat ere egon ohi baita. Bigarrenean berri, alegia, euskal izenak edo izenaren euskal aldaerak bukaeran afrikatua badu, beste desberdintasun bat izanen dugu euskal izenean, erdal izenarekin alderatzen dugunean, honek beti, erran den moduan, igurzkaria duelako, hortz-hobietakoa (<s>) edo hortzartekoa (<z>).

Irizpideak gure ustean, eta bukaerako txistukariez ari garela, hau izan behar du: lekuan lekuko ebakera begiratu eta atxiki behar dugu izenean, hau da, *in situ*, tokiaren gainean nola ebakitzen den eta hala arautu behar dugu. 1990ean argia ikusi zuen *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra* (1) delakoan -ts eta -tz aurkitzen dugu hondarreko lekunean txistukaria duten herri izen gehienetan, Baztangoetan, Zaraitzu-Erronkarieta-koetan, Nabaskozeko Almiradiokoetan eta Urraulbeitiko batzuetan izan ezik, horietan, bertako ahoskeraren arabera, -iz, -oz baitute lehen ibarreko izenek (*Almandoz, Aniz, Arraioz, Lekaroz, Oronoz*) eta -ize, -oze gainerakoek (*Apardoze, Bidankoze, Ezkaroze, Galoze, Izize, Nabaskoze, Nardoze, Ustaize, Uztarroze*), ozen ondoan -tze duten *Arbontze* (2) (< \**Arbóneze*), *Orontze* (< *Orontz*), *Sartze* (< \**Sárreze*), eta *Uskartze* (< *Uskárreze*) alde batera uzten baditugu bederik. Hauekin batean erdaraz *Aspurz* eta euskaraz *Aizpurgi* deitu izan den herrixka dugu, eta hurbil *Arrakasgoiti* arautu zen *Racas-Alto*, biak Nabaskozeko Almiradioan. Urraulbeitin, gainera, *Arripodas* araututako *Ripodas* dago.

---

(\*) Onomastika Batzordeak Bakaikun bi mila eta zazpiko urtarriaren hemeretziari onartua.

(1) Euskaltzaindiak 1988an onartua eta 1990ean Nafarroako Gobernuarekin batera argitaratua.

(2) Caro Barojak (1945: 136) biltzen du.

Nafarroan dugun arazo larriena, onomastikan eta beste anitz arlotan, euskararen desagertzea da, honekin batera askotan toponimoen euskal ebakera galdu delako, zantzurik eta aztarnarik utzi gabe galdu ere zenbait aldiz. Kontua da azken lekunean txistukaria duten herri izenak ugariak direla erdararatutako alderdi zabalean: *Aos*, *Ayanz*, *Górriz*, *Itoiz*, *Larrángoz*, *Meoz*, *Orbaiz* (Longida), *Ardanaz*, *Beroiz*, *Urroz* (Itzagaondoa), *Alzórriz*, *Artai* (Untzitibar), *Sengáriz* (Ibargoiti), *Aoiz*, *Galdúroz*, *Janáriz*, *Lerruz*, *Mendióroz*, *Oscáriz*, *Uroz*, *Yelz*, *Zaldaiz* (Lizoainibar), *Egüés*, *Ardanaz*, *Echálaz*, *Eransus*, *Gorraiz*, *Olaz*, *Ustárruz* (Eguesibar), *Adériz*, *Anoz*, *Azoz*, *Cildoz*, *Garrués* (Ezkabarte), *Larráyo*, *Navaz* (Txulapain), *Aldaz*, *Áriz*, *Ordériz* (Itza zendea), *Artázcoz* (Oltza zendea), *Anoz* (Olluibar), *Munárriz*, *Urdános* (Goñerri), *Arzoz*, *Esténoz*, *Muez* (Gesalatz), *Alloz*, *Andéraz* (Deierri), *Eulz* (Allinibar), *Mués* (Berrotza), *Arguiñáriz* (Mañeruibar), *Adios*, *Basongaiz*, *Enériz*, *Obanos*, *Olcoz* (Itzarbeibar), *Arróniz* (Iguzkitza Doneztebe), *Gazólaz* (Zizur zendea), *Esquíroz*, *Olaz* (Galar zendea), *Elorz*, *Óriz*, *Yárnos* (Elortzibar), *Bézquiz*, *Leoz*, *Olóriz* (Orbaibar).

1990ean eskuetaratu zitzaigun arazoa izan zen euskara galdutako alderdi zabal horretan nola jokatu behar ote genuen erabakitzea, eta erabaki zena hegoaldereneko herri eta ibar euskaldunetan nagusi zen joera ontzat hartzea izan zen, hots, bukaeran afrikatua zuten aldaerak hobestea, hau da, *Antxoritz*, *Ezkirotz*, *Ilarratz*, *Ilurdotz*, *Irotz*, *Osteritz*, *Urdaitz* (Esteribar), *Nagitz* (Ezkabarte) (3), *Lantz*, *Ostitz*, *Ziarritz* (Anue), *Goldaratz*, *Imotz*, *Muskitz*, *Oskotz*, *Zarrantz* (Imotz), *Atetz* (Atetz), *Aldatz*, *Arruitz*, *Astitz*, *Madotz*, *Oderitz* (Larraun), *Errotz* (Arakil) herri izenetan ikusten den afrikatuaren aldeko joera lehenestea.

Hegoalderago dauden herri batzuen izenak inguruko euskaldunek afrikatuarekin ematen dituzte, dokumentazioan horrela azaltzen dira edo bi gauzak batera: *Geretz* (dok.) (Urraulbeiti), *Aiantz* (dok.), *Itoitz* (dok.), *Larrangotz* (dok.), *Meotz* (dok.), *Orbaitz* (dok.) (Longida), *Ardanatz* (dok.), *Urrotz* (dok.) (Itzagaondoa), *Agoitz* (ahoz), *Iheltz* (dok.) (4), *Janaritz* (dok.), *Orotz* (*Mendiorotz*) (dok.), *Ozkaritz* (dok.), *Urotz* (dok.), *Zaldaitz* (dok.) (Lizoainibar), *Ardanatz* (dok.) (\**Ardaatz* > *Ardatz*, *Ardachabidea* «Ardatza doan bidea» toponimoak garbi erakusten digun bezala), *Etxalatz* (dok.), *Gorraitz* (dok.), *Olatz* (dok.) (Eguesibar), *Anotz* (ahoz) (5), *Azotz* (ahoz), *Zildotz* (ahoz) (Ezkabarte), *Larraioitz* (ahoz), *Nabat* (ahoz) (Txulapain), *Aldatz* (ahoz), *Aritz* (ahoz), *Oderitz* (ahoz) (Itza zendea), *Artazkotz* (ahoz) (Oltza zendea), *Gazolatz* (ahoz) (Zizur zendea), *Ezkirotz* (ahoz), *Olatz* (ahoz) (Galar zendea), *Etxabakoitz* (ahoz) (Iruñea), *Anotz* (ahoz) (Olluibar), *Munarriz* (ahoz), *Urdanotz* ([dok.] > *Urdo(t)z*, top.) (Goñerri), *Artzotz* (ahoz), *Estenotz* (ahoz), *Gesalatz* (ahoz),

(3) Koldo Artolak egindako grabaketa batean ageri da (1985: 109).

(4) Agirietan azaltzen diren aldaerak ez dira beti egungoen berdin-berdinak, baina gauzak errazteagatik ez dugu xehetasunik aipatzen.

(5) Afrikatua, batzuetan, izena deklinatzean agertzen da. Izan ere, bestela, izen ofizialaren eraginez, absolutiboan igurzkaria aurkitzen baitugu zenbait aldiz.

*Muetz* (ahoz) (*Gesalatz*), *Anderatz* (ahoz), *Allotz* (ahoz) (*Deierri*), *Eultz* (dok.) (*Allinibar*), *Argiñaritz* (dok.) (*Mañeruibar*), *Eneritz* (ahoz), *Olkotz* (dok.) (*Itzarbeibar*), *Iharnotz* (dok.), *Oritz* (dok.) (*Elortzibar*), *Bezkitz* (dok.), *Leotz* (dok.) (*Orbaibar*).

Ondorioz, gure irudiko, zuzena da *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra* apailatzean hartu zen irizpidea, eta horregatik uste dugu hitz bukaerako txistukariak lan horretan ageri diren bezala utzi behar direla, ukitu gabe, Malerrekako *Oitz* eta *Urrotz* toponimoen kasuan izan ezik, hauek bertako ahoskeraren arabera, *Oiz* eta *Urroz* izan behar baitute. Egia da, azken toponimoari dagokionez, badela izen bereko beste herri bat Iruñetik ekialdera, hain zuzen ere gaztelaniaz *Urroz Villa* eta euskaraz *Urrotz* deitzen dena, eta bitxi egin dakiokela norbaiti Malerrekan *Urroz* eta Itzagaondo aldean *Urrotz* aurkitzea, baina hau bat dator bertako ebakerarekin, goiko herriaren kasuan, eta alderdian dagoen eta egon den joerarekin, behekoaren kasuan, hots, toponimoen (edo behinik behin toponimo batzuen) bukaeran afrikatua erabiltzearekin. Cf. bizirik dagoen *Agoitz* eta toponimiak erakusten digun *Ardatz* aipatua, biak *Urrotz* herritik hurbil.

Bukatzeko, uste dugu Bortzirietako *Arantza* herri izena ez dagoela ongi arautua eta *Aranatz* eman behar dela. Izan ere, *Arantza* aldaera eskualdeko metatesi ezagun baten fruitu besterik ez da, *Aienats* > *Aientsa*, *Itolatz* > *Itoltza*, *Mantxolatz* > *Matxoltza*; *Ortzorrotz*, *Oltzorrotz* > *Eltzortza*, *Urtzortza* eta *Totolatz* > *Totoltza*-n dakusagun berbera hain zuzen. Honi gehitu behar zaio, gainera, alderdian dagoen toponimoei *-a* eransteke joera, *Doneztua* (< *Doneztebe* + *a*), *Ittuna* (*Ituren* + *a*), *Labaina* (< *Labaien* edo *Labaien* + *a*), *Oiza* (< *Oiz* + *a*), *Saldisa* (< *Saldias* edo *Saldias* + *a*), *Urroza* (< *Urroz* + *a*) izen herrikoietan garbi ageri dena. Hondarreko herri izen hauek guztiak artikulurik gabe arautu ziren 1990ean eta uste dugu *Arantza*-ren kasuan ere herri hizkerak sortutako aldakuntza alde bat utzi behar dela, izan dadin hau metatesiaren ondorio (*Aranatz* > *Arantza*), izan dadin artikuludun aldaera sinkopatzearena (\**Aranatza* > *Arantza*).

## BIBLIOGRAFIA

- ARTOLA, K. (1985): «Ezkaibarteko euskara. Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan», in *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 95-112.
- CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Bada Txertoa argitaletxeak Donostian 1990ean egindako beste edizio bat.
- EUSKALTZAINDIA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

## EN TORNO A LA FORMA VASCA DEL TOPÓNIMO MAYOR *LARRAONA* (AMESKOA)

*Pamplona / Iruñea, 9 de mayo de 2007*

*Patxi Salaberri*

El ilustre lingüista Koldo Mitxelena afirmaba en su conocida obra *Apellidos Vascos* (entradas 395 y 488) que *Larraona* era un compuesto de *larre* «pastizal, dehesa» y *ona* «bueno», es decir, que significaba en origen «el pastizal bueno», «la dehesa buena». Con posterioridad, sin embargo, hemos sabido que la localidad de Ameskoa Alta o Ameskoagoiena aparece en la documentación histórica como *Larraфона* y *Larrahona*, desde el siglo XI hasta 1350 por lo menos (véase Euskaltzaindia – Gobierno de Navarra, *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, pág. 206), aunque la forma actual *Larraona* se muestra por primera vez, según dicha obra, en 1268 y se repite en 1280.

Es un hecho conocidísimo que las variantes eusquéricas de los nombres de población no aparecen sino contadas veces en la documentación histórica, dado que la lengua vasca no ha sido nunca la lengua de la Administración. Por ello, para encontrar dichas variantes eusquéricas tenemos que recurrir frecuentemente, en las zonas donde la lengua se ha perdido, a censales, documentos de compraventa y testamentos en los que se recogen los nombres de los términos que se compraban y vendían, se dejaban en herencia, etc., ya que a veces aparece el nombre de una determinada localidad en un nombre de término de alguno de los pueblos circundantes. Así, por ejemplo, en Eslaba existe el término de *Lergabidea* «el camino de Lerga», que está tocante al antiguo camino que iba de esa localidad a la mugante Lerga, en Oteitza de la Solana se documenta *Larragabidea* «el camino de Larraga», en Abaigar *Lanarabidea* «el camino para el valle de Lana», en Narkue *Iribarribidagaina* «lo de encima del camino de Ulibarri», etc.

En Ameskoa Alta / Ameskoagoiena encontramos a menudo el nombre de término *Larragoabidea* o *Larraguabidea* en el que, claramente, aparece *Larragoa*, *Larragua*, variante vasca de *Larraona*. Estos son algunos de los testimonios documentales que conocemos:

«*Otra pieza [...] en Larragoa Videa [...] afrontada [...] con [...] camino real que ban a Larraona*», Aranaratxe, 1687 (protocolos de Artabia, legajo 4).

«*Otra pieza en Larraguabidea termino de Eulate [...] ten[fi]en[te] a pieza del palacio de S[an] M[arti]n*», Eulate, 1693 (protocolos de Artabia, legajo 7).

«*Otra [pieza] en larraguabidegaina*», Eulate, 1705 (protocolos de Artabia, legajo 19).

«*Otra pieza [...] en larraguabideapea [afrontada] con [...] Camino R[ea]l que ban a larraona*», Aranaratxe, 1709 (protocolos de Artabia, legajo 20).

«*Otra pieza [...] en larraguarabidea*», Aranaratxe, 1711 (protocolos de Artabia, legajo 20), Eulate, 1700 (ibid., legajo 16).

*Larragoa Videa*, *Larraguabidea* quiere decir «el camino de Larraona», *Larraguabidegaina* «lo de encima del camino de Larraona», *Larraguabideapea* «lo de debajo del camino de Larraona» y *Larraguarabidea* «el camino que va a Larraona».

La forma más antigua y más acorde con los criterios de normalización de topónimos eusquéricos es *Larragoa*. La forma *Larragua* es un cambio secundario que se debe al parecer al acento (*Larrágoa* > *Larrágua*), esdrújulo en principio, igual que en un gran número de topónimos alaveses (*Azáceta*, por ejemplo).

Desde el punto de vista de la fonética vasca no hay ningún problema para derivar el primitivo *Larrahona*, con <h> aspirada, a *Larragoa*. Dicha aspirada se representó también gráficamente, en alguna ocasión, como <f>, dado que en la evolución del latín al castellano la *f*- de aquella lengua, generalmente (no siempre: *focum* > *fuego*), se aspiró en *h*- primero y luego se perdió (*fari-nam* > *harina*, *feminam* > *hembra*, *ficum* > *higo*, etc.).

La evolución fue la siguiente:

- a) En castellano: *Larráhona* > *Larraóna* (con pérdida de la aspiración y adecuación al modelo acentual más extendido en esta lengua).
- b) En euskera: *Larráhona* > \**Larrágoa* (con -g-, huella y resto de una aspirada anterior, como en *aho* > *ago* «boca», *behor* > *begor* «yegua», *ehun* > *egun* «cien» en hablas vascas de Navarra) > *Larrágoa* (con pérdida de la -n- suave intervocálica, como en *Torrano* > \**Dorrano* > *Dorrao*, *Undiano* > \**Undiao* > *Undio* o en *Aramaiona* > *Aramaioa* > *Aramaio*). Posteriormente, por acción del acento, y de acuerdo con un fonetismo muy corriente en euskera, *Larrágoa* se convirtió en *Larrágua*, como *ahoa* «(la) boca» en *ágwa*, u *olloa* «(la) gallina» en *óllwa*. Es claro, por lo tanto, que *Larragoa* es la forma eusquérica de la población conocida en castellano como *Larraona*.

En cuanto a la etimología del topónimo y con los datos que tenemos ahora, no hay duda de que la explicación dada en su día por Mitxelena no puede ser aceptada, puesto que el eusquérico *ona* «bueno», no pierde nunca la *-n-* (*Lekuona*, *Lekuine* por ejemplo). Es preferible, por lo tanto, pensar en un topónimo basado en un nombre de persona, en un antropónimo, que podría muy bien ser *Larrahe* (o *Larrahi*; véase J. Gorrotxategi, 1995: 227), nombre de deidad documentado en Navarra, más el final *-ona* que parece indicar posesión, similar al *-ana* / *-a*, *-ano* / *-ao* de otras localidades como *Audicana* / *Audika*, *Baquedano* / *Bakedao*, *Galdeano* / *Galdio* o al *-ain* presente en *Barañáin*, *Paternáin*, *Zuriain*, etc. Encontramos dicho final *-ona* en *Aramaiona* > *Aramaioa* > *Aramaio* (en Álava), \**Leiona* > *Leioa*, *Lemona* > *Lemoa* (Bizkaia), *Arrona* > *Arroa*, *Zestona* > *Zestoa* (en Gipuzkoa), *Aizkona* > *Aizkoa*, *Artaxona* > *Artaxoa* (Azcona, Artajona, en Navarra), etc., aunque seguramente no en todos estos topónimos el valor, (y quizás el origen) del sufijo sea el mismo. Se trataría pues de *Larrahe* + *-ona*, «la villa, localidad... dedicada a la deidad denominada *Larrahe*», de donde *Larrahona* > \**Larragona* > *Larragoa*.

## BIBLIOGRAFÍA

- EUSKALTZAINDIA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Gobierno de Navarra, Pamplona.
- GORROTXATEGI, J. (1995): «Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas», *Veleia* 12, 181-234.
- MITXELENA, K. (1997): *Apellidos Vascos*, Txertoa, San Sebastián, quinta edición.



***JAGON SAILA***

**SUSTAPEN BATZORDEA**

# EUSKALTZAINDIAREN ERAGINA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN HIZKUNTZA POLITIKA PROIEKTUAN (\*)

2007-III-29

*Erramun Baxok*

Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko urrian aurkeztu zuen 2007-2010 arteko hizkuntza politikaren egitasmoa eta Euskaltzaindiari bere pentsamoldea eskatu zion. Euskaltzaindiak bere ekarpenak helarazi dizkio Euskararen Erakunde Publikoari 2006ko abenduaren 6an. Administrazio kontseiluko hautetsiek aginte publikoaren 5 mailak ordezkatzeko dituzte (Estatua, Akitaniako eskualdea, Pirinio Atlantiketako departamendua, Euskal kultura sostengatzen duen herrien arteko sindikata, Euskal Herriko hautetsien kontseilua); hizkuntza politikaren testua onartu zuten abenduaren 21ean.

Onarpenaren aurretik zuzenketak egin ziren. Galdea hau da, Euskaltzaindiaren ekarpenek zein eragin ukan zuten egitasmoaren zuzenketa horietan? Eragin nabaria, nire ustez, zuzenean edo zeharkako bide batetik. Alabaina Euskaltzain osoak eta urgazleak badira aholku batzordean, beren oharrak eginak baitzituzten Euskaltzaindiaren testu ofiziala etorri aitzinetik. Zehazki irakurritz, ekarpen hauetan 13 aldaketa-proposamen aurki ditzakegu. Egin dezakeguna da neurtzea, puntuz puntu, zein diren ekarpenen eta proiektuaren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak, onartua den testuan.

Erreferentziak – Azpi-tituluetako erreferentziak Euskaltzaindiaren txostene-koak dira. Lerroaldeetan proiektuko orrialdeak agertzen dira, adibidez (7) irakur (proiektuko 7. orrialdean).

## **1. Euskararen berezkotasuna (1.a)**

«*Euskara da Euskal Herriaren berezko hizkuntza*», Euskaltzaindiaren aitortzen hau ez da hitzez hitz proiektuan agertzen.

---

(\*) *Euskera* Agerkaria 2006,2, 51. liburukia (2. aldia), Euskaltzaindia, Bilbo, 1026-1040. orr.

Baina bai molde inplizituan, historia eta geopolitika kontuan hartuz:

Euskara Europako hizkuntza zaharrenetarikoa da, euskaldunek milaka urtez mintzatua, euskal nortasunaren giltzarria. Gaur egun, administrazio antolaketa eta legeria oso ezberdinek kudeatua dagoen eremu geografiko batean kokatua da.

Lurralde bakoitzeko aginte publikoei dagokie hizkuntza alorrean eraman beharreko politikaren libreki definitzea. Printzipio hau, euskarak eta orokorki euskal kulturak ondare historiko amankomuna osatzen duelako berezitasunaren errespetuarekin osoki bateragarria da.

Berezitasun hau, Euskararen Erakunde Publikoaren baitan bilduak diren botere publiko frantsesek eta bere lurraldean eskuduntza duen Euskal Autonomia Erkidegoak ofizialki kontuan hartua dute, mugaz gaindiko lankidetzak akordio berritzaila eta handinahia gauzatuz euskararen alorrean (7 & 8).

## 2. Adierazpen askatasuna (1.b)

«*Herritar orok mintzatzeko askatasuna dauka*» aitorten konstituzionala da, hizkuntza hautuari eta hitz egiteko nahiari zilegitasuna emaiten diena. Testua ez da den bezala agertzen proiektuan. Halere hizkuntza politikaren bi oinarriak maiz aipatuak dira, hiztunen nahia eta esparru juridikoa, oraingoa eta gerokoa «zabalduko balitz». Adibidez:

Botere publikoen euskararen aldeko ekintza, gizarte-eragile guzien hautu librearen eta hiztunen nahikundearen errespetuan oinarritu behar da. Printzipio hau politika proiektu osoari aplikatzen zaio, eta egitasmoak herri hizkuntzak aipatzen dituzten legeak eta beste testu ofizialak ere kontuan hartzen ditu (11).

Gainera 1. eranskinean, tokiko hizkuntzei buruzko araudiaren aurkibide osoa zerrendatua da, legeak, dekretuak, kodigoak, aginteak, zirkularrak (p. 107). Jakinez, halere, legeria honen helburua dela hiztun bakoitzaren askatasuna zaintzea, inolako eskubide edo eginbide kolektiborik sortu gabe.

## 3. Euskaltzaindiaren aitormena (1.c)

«*Aitormena ez jasotzea kezagarri*» zaio Euskaltzaindiari, Nafarroa eta Autonomia Estatutua jarraibidetzat emanez.

12. puntuan ikusiko dugun bezala, Euskararen Erakunde Publikoak Euskaltzaindiaren araei jarraitzeko xedea adierazten du, hizkuntzaren norma auzian den aldi oroz: hiztegiak, toponimoak, kartografia ...

Euskaltzaindiak, euskararen kalitatea zaindu eta hizkuntza araudiak jarri behar dituen erakundeak, funtsezko eragina ukan du hizkuntzari eman zaion egokipenean, eta ildo horretarik jarraitzen du. Euskararen Erakundeak abian jarriko dituen antolaketak eramateko, erreferentziazko solaskidea izanen da Euskaltzaindia, bere eskuduntza eremuan (71).

Bestalde Euskararen Erakunde Publikoak lankidetzeta eta laguntza ekonomikoak eskaintzen dizkio Euskaltzaindiari. Hitzarmen bat izenpetuko da lankidetzeta indartzeko eta harremanak finkatzeko bi erakundeen artean, hizkuntza politikaren proiektua oinarritzat hartuz.

Zer gehiago egin dezake erakunde deszentralizatu batek? Pariseko Estatu Kontseiluak «onura publikoaren onarpena» eman zion 1997an Euskaltzaindiari, 1901 legearen babespean dagoen elkarte honen garrantzia eta ospea ikusiz eta lan bikaina eskertuz. Gauzak aitzinatuko dira, legebiltzarrak herri hizkuntzen estatutu ofizial bat onartuko duelarik.

#### 4. Gazteak lehentasun ala hastapen (1.d)

Euskaltzaindiak proiektuaren titulua aldatzea proposatu zuen:

hiztun osoak helburu, haurrengandik eta gazteengandik hasirik.

Ez da egin, alde batetik berantegi baitzen atalburu nagusia azken momentuan berritzeko.

Bestalde, semantika zorrotzegian sartu gabe, «*haur eta gazteak lehentasun*» erraten delarik ez da muga bat ezartzen, proiektu osoak frogatzen duen bezala. Titulua kronologikoki uler daiteke, *lehenik* nondik hasi behar den. *Lehen* zatia euskararen transmisioa da, baina, eta denbora berean hor daude beste zatiak, gizarte erabilera, helduen euskalduntzea eta beste:

hizkuntza politika proiektuak euskararen gizarte erabilpena sustatu nahi badu, euskal komunikabide edo aisialdi aktibitate eskaintza erakargarri baten bidez hizkuntza biziarazi behar du. Horretarako hiztun osoen beharra du, alor bakoitzean (70).

Atalburua ez bada aldatu, halere proiektuak Euskaltzaidiaren xedea errespetatzen du:

hizkuntza politika proiektuak orduan helburutzat finkatzen du euskararen gizarte-erabilpena sustatzea, ikasi den hizkuntza hori, bizitza guneetan hizkuntza mintzatua, ikusia eta entzuna izan dadin (40).

#### 5. Sentiberatze jarduerak (1.d)

Euskaltzaindiaren gomendioa argia bezain indartsua da:

inguruabar horretan sakonduz, euskararekiko atxikimendua eta haren prestigioa areagotzeko sentiberatze jarduerak behar-beharrezkoak direla azpimarratu nahi dugu.

Hasieratik Euskararen Erakunde Publikoak sentimendu berdina adierazi zuen, lehen eskeman erakusten zuelarik motibapenaren erronka zela beste erronka guztien baldintza nagusia. Proiektua bururatzeko lerroaldean agertzen den kolorezko eskeman, «motibapena» hitza goialdean agertzen da eta marra lodiz inguraturik, funtzio nagusi bat betetzen duela erakusteko (98. or.).

Motibapenaren 12. kapitulua, azkena eta luzeena, zehazki landua da. Adibidez, erronka nagusi honen 4. orientabide estrategikoak Euskaltzaindiaren kezkarri zuzenean erantzuten dio:

motibapena piztu eta azkartu, sentiberatze estrategia egokiak abiatuz: 4.4 euskararen irudipen baikor baten bilaketa sentiberatze estrategien muinean sartu (94 & 95).

## 6. Epeak (3.a)

«Alor guztietan epeak-eta ongi zehaztu beharko liratekeela iritzi dio Euskaltzaindiak». Egutegi zehatzaren gomendioa egiten dela uler daiteke. Hots, egitasmoa egitarau bilaka dadin.

Proiektua «ibilbide-orria» da (*feuille de route*), urtero jarduera-programa bilakatuko dena.

Proiektu hau, 2007tik goiti hizkuntza-politika gidatuko duen «ibilbide-orria» da. Urtero, harek gidaturik, finkatuko da Euskararen Erakunde Publikoaren jarduera-programa (99).

Proiektua gidoi bat da, helburu nagusiak, norabide estrategikoak eta lan ardatzak ongi zehaztu dituena. Baina, salbu irakaskuntza eskaintzarentzat, oso zaila da kronograma bat a priori definitzea, bakoitzaren nahikundean oinarritua den egitasmo batean. Beraz urtero neurtuko da zer lortu den (adierazleen zerrenda 3. eranskinean dago). Eta ebaluaketa horren arabera programatuko da *a posteriori* hurrengo urtea.

Gainera Hizkuntza Teknikarien sarearen eginbidea da proiektu hau moldatzea tokiko hizkuntza egoeraren arabera. Alabaina lehentasunak ez dira berdinak Biarritzen eta Garazin. Eraginkortasunaren izenean herri elkargo bakoitzak definituko du bere programazioa. Euskararen Erakunde Publikoak etapismoaren ibilmoldea hautatu du.

## 7. Irakaskuntzaren eskaintza (3.b)

Euskal ikaskuntzaren eskaintza biziki ongi programatua da (ikus 2. eranskina 109-113), baina Euskaltzaindiaren kezka da «gazte guztiei eskaintzea».

Euskararen Erakunde Publikoak kezka berdina dauka. Bere helburua da euskararen alde egiten den guztia «*lurralde osoan*» zabaltzea. Eta euskal ikaskuntza hedatzea irakaskuntza maila eta sail guztietan:

familiei eman, lurralde osoan, beren haurrentzat euskarazko irakaskuntza baten hautazeko aukera (...). Irakaskuntza publikoarentzat, irakaskuntza girstinoarentzat eta Seaskarentzat definitu jardunbideak eta egutegiak gauzatu, lehen mailan zein bigarrenean, adostuak diren 3 printzipioei jarraikiz: familien hautu librea, lurralde osoaren estaltzea, irakaskuntza maila ezberdinen arteko jarraipena (...). Gisa berean, programazio lan bat eraman, orain arte aztertu gabe dauden beste irakaskuntza sailetan: formakuntza tekniko eta profesioaletan, laborantzazko irakaskuntzan, goi mailako irakaskuntzan (p. 33).

## 8. Ekonomia eta giza baliabideak (3.c)

Euskaltzaindiak dio:

erronka horiek garabidean jarri izateko, aurrikusitakoak baino ekonomi eta giza baliabide are gehiago behar direla.

Egia da onartuak diren helburuak garrantzi handikoak direla. Bestalde aurrekontua da borondate politikoaren neurria eta arrakastaren baldintza. Zertan dira gaur eguneko ahalmenak?

- Ikaskuntza elebidunean badira 300 irakasle, 15 milioiko aurrekontuarekin aurten.
- Irakaskuntzaz kanpoko aurrekontua 2.066.000 eurokoa da urtero, iragan urtetan baino % 20 gehiago.
- Alor bakoitzak badu bere ohiko finantzamendua, nola haurtzaindegiek hala aisialdiek eta beste. Erakunde Publikoak ez du dena ordaintzerik, bere ekarpena da laguntza tekniko: euskararen erabilera bultzatzeko, animazioak antolatzeke besteak beste.
- Gizabaliabideak ere garatuko dira aurten. Euskal Erakundeko 5 ardura-dunetz gain, Hizkuntza teknikari sarea osatuko da, herri elkargoetan. 7 teknikari kontratatuko dira 2007an, hiru eginbide betetzeko:

Herriko Etxeetan euskararen presentzia garatzeko lana, eskualdeko eragiliei buruzko lan bultzatzailea, tokiko erakundeen itzulpen beharrei erantzuna (67).

Ahalegin guzti hau ez dela nahikoa erranez, botila erdi betea ala erdi hutsaren dialektikan sartzan gara. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontuari begira, ez gara hein berean. Hemengo lehenagoko aurrekontuei begira aitzinamendu nabaria gertatu da. Aitzinamendu hori segurtatu beharko da urte batetik bestera.

## 9. Erabilera eremuak (3.d)

*Euskaltzaindiak Euskararen Erakunde Publikoa animatu nahi du urratsak egin daitezen egiazko aukerak eta erabilera eremuak emendatzeko.*

8. erronkan zerrendatuak dira euskaldundu behar diren alor estrategikoak: erakundeak, administrazioak, zerbitzu publikoak, saltegiak, supermerkatuak, osasun zerbitzuak, bankuak, garraioak ... (65).

## 10. Eragileen arteko lankidetzak (4.)

*Egitasmoa aurrerapauso handia da Euskaltzaindiaren aburuz.* Hargatik eragile guzti-guztiak elkarrekin lan egin behar lukete, bakoitza bere tokian, lehia antzuak eta bikoizketak baztertuz.

Euskararen Erakunde Publikoak, aitzinsolas orokorrean, idea bera adierazten du euskalgintzaren historia lekukotzat hartuz:

luzaz elkarteek euskalgintzako antolaketa egituratzaileenak sortu dituzte, eraman eta garatu alor anitzetan. Hedatzen ari den politika publikoak ez du elkarte-ekimena ordezkatu nahi. Alderantziz, elkarte-ekimena sendotu eta lagundu nahi du, botere publikoek finkatu dituzten norabideekin osagarritasuna eta koherentzia bermatuz.

Euskararen egoera larriegia da gaur egun lehia batean sartzeko arriskua hartzeko, alde batetik urraspedeari kalte egingen bailioke eta, bestetik, batzuk eta beste eraman dituzten ekintzen arrakastari ezinbestekoa zaion gizartearen onarpena ahulduko bailuke (13).

## 11. Toponimia ala Onomastika (5.1a)

Euskaltzaindiaren proposamena da 7. atalaren «*izenburua bera aldatzea, hots «Toponimia» izan beharrean «Onomastika» jartzea*». Alabaina Onomastika da izen propioak tratatzen dituen zientzia, leku izenak (Toponimia) bai eta ere pertsona izenak (Antroponimia). Ondorioz 7. erronkaren edukia aintzez zabaldu behar litzateke.

Hizkuntza Politika proiektuan Toponimiak leku handia dauka, Euskaltzaindiak eta beste egitura batzuk aspaldidanik hasi lanaren jarraian: IGN kartografia, seinaleta, etxeen-izenak telefono urtekarian eta beste. Antroponomia ere interesgarria zaio Euskararen Erakunde Publikoari. Baina azken tenorean ez zuen programazio berri baten antolatzeko denborarik. Alabaina Frantzian jendeen izenei buruzko legeria izugarri zorrotza delakotz, ikerketa juridiko bat egin behar da, egokitze ahalmek neurtzeko.



Halere geroari buruz atea irekirik dago:

Toponomia hizkuntza politikaren erroken artean sartzea komenigarria da, euskara agerian jartzeko eta publiko berri bat euskarara erakartzeko aukera baita. Tokien-izen soilez gain, urraspide berdina egokitu dakioke Onomastika osoari, azterketa baten ondotik (41).

## **12. Euskaltzaindiaren Arauak (5.1b)**

Toponimiaren kapituluan «Euskal Autonomia Erkidegoko arautze erizpi-deak» erreferentziatzen hartzeko ordez, proiektuak:

Euskaltzaindiaren Arauak eta irizpenak betez jarri beharko luke.

Alabaina Hego Euskal Herriko bi erkidegoetan Euskaltzaindia baita arauemaile euskararen alorrean.

Hizkuntza politikaren azken edizioan zuzenketak egin dira hiru lekutan, Toponimiaren grafia egokitzeko, ahozko eta idatzizko toponimoak biltzeko lan ardatzetan. Aldi oroz irakur daiteke:

Euskaltzaindiaren Arauei eta irizpideei jarraikiz (60 & 61).

## **13. Europako Erreferentzia Markoa (5.2)**

Euskaltzaindiaren iritziz:

ezinbestekoa da, gaur egun, Europako Erreferentzia Markoa segitzea, bai programazioetan bai ebaluazioetan, horren arabera definitu behar baita agiri bakoitzari dagokion hizkuntza-maila edo hizkuntza-eskakizuna.

HABE jarraibidetzat ematen da, zeinek Europako neurriak aplikatzen baitizkie Hegoaldeko agiri desberdinei, agiri horien baliokidetasuna bideratzeko.

Hizkuntza politikari begira, jadanik aitzinproiektuan Europako neurgailua oinarritzat hartua zen helduen euskalduntze mailak definitzeko. Euskaltzaindiaren gomendioak bultzaturik, Europako Erreferentzia Markoa erabiliko da ere gaitasun agirien arteko baliokidetasuna frogatzeko:

unibertsitateekin eta Euskaltzaindiarekin partaidetzan, Europako Erreferentzia Markoarekin bat egiten duen egiaztapena definitu eta plantan jarri, mugaz beste aldean dauden agiriarekin baliokidetasun sistema eraikiz. (77).

## **Laburbilduz**

Euskararen Erakunde Publikoak arreta handiz irakurri ditu Euskaltzaindiaren ekarpenak, bai indarguneak azpimarratzen dituen lerroaldea, bai eta ere

ahulguneak indartzeko eginak diren gomendioak. Azken tenorean aldaketa batzu ezin ziren egin «*hitzez hitz*». Halere testu azterketa honek erakusten du hizkuntza politikaren proiektua, oro har, Euskaltzaindiaren «*izpirituan*» mugitzen dela. Etorkizunari begira, pentsa daiteke bi erakundeon arteko harremanak orain bezain onak eta eraginkorrak izaten jarraiko dutela euskararen normalizazioan eta lankidetzan definitu batzutan, adibidez Adituen Batzordean.

Azterketa honek kontuan hartzen ditu Erakunde Publikoan egin zaizkion oharra.

**EUSKALTZAINDIAREN  
AGIRIAK**

## **BATZAR-AGIRIAK**

## Donostian, 2007ko otsailaren 2an

(Bilbon urtarrilaren 26an egitekoa zen baina eguraldiatik atzeratu behar izan zenaren ordekoa)

Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, Iker sailburua,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Adolfo Arejita,  
Miren Azkarate,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Ana Toledo,  
eta Piarres Xarritton euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Aduriz eta Iñaki Kareaga, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Jean Haritschelharrek ezin etorria adierazi du. Adolfo Arejitak (etorri bitartean), ahala Jose Luis Lizundiari; Miren Azkaratek (etorri bitartean), ahala Pello Salabururi; Jose Irazuk, ahala A. Urrutiari; Patxi Salaberrik (etorri bitartean), ahala Andres Iñigori; Pello Salaburuk ahala Beñat Oihartzabali; Patxi Zabaletak, ahala, Andres Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiaren batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Aurretiko oharrak** Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, eguneko egitekoak azaldu ditu: goizeko batzarra

eguerdira arte izanen dela, eta arratsaldean ez dela ekitaldirik izanen. Hilberrien ome-zko ageriko bilkura otsaileko azken batzarrean egingen da.

Andoni Sagarnari ongietorria eman dio.

### 2. Aurreko akta onartzea

Aurreko bilkuraren akta, Jose Luis Lizundiaren eta Andoni Sagarnaren ohar banarekin, ontzat eman da. (Markina-Xemein izena osorik jartzeko eta, etorri bitartean, ahala eman eta ezin etorria adierazi duten lagunak zehazkiago jartzea.)

### 3. Hizkuntza gaiak

**3.1. Onomastika: Nafarroako izendegia:** 1. zerrenda aurkeztea. Iruñeko merindadeko iparraldeko izenak hartzen dituen lehen zerrenda hau Andres Iñigok azaldu du, bai eta hor agertzen diren zuzenketa-aldaketak banan-banan komentatu ere. Patxi Salaberrik «Nafarroako herri izenen bukaerako txistukaria eta toponimoen arautzea» lana aurkeztu eta azaldu du, izen batzuen amaierako *-s*, *-z* eta *-tz* batzuen kasuistika aztertuz. Oharrak otsailaren 15erako bidali beharko direla gogorarazi du.

**3.2. Hiztegi Batua: «E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** Pello Salaburu batzordeburuaren ezin etorriaz, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *egile-tik egozkarri*-rainoko hitzak aztertu, eztabaidatu eta onartu dira.

#### 4. Esku artekoak

**4.1. Euskaltzain berrien sarrera-hitzaldiak.** Euskaltzainburuak jakinarazi du Jose Irazuren sarrera-hitzaldia Asteasun martxoaren 17an izango dela, eta Osoko Batzarra, aldiz, martxoaren 30ean, Donostian. Mikel Zalbideren sarrera-hitzaldia, aldiz, ekainaren 2an egingo da.

**4.2. Azkue Sarietarako mahaikideak.** Literatura Ikerketa batzordeak proposaturik, hauek dira, 2006ko Azkue Sariketarako, Zuzendaritzak onartu dituen epaimahai-kideak:

*A mailan:* Yolanda Arrieta, Antton Irusta Zamalloa eta Manu Lopez Gaseni.

*B mailan:* Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

**4.3. Barne Erregelak: quorum-erako testua.** Aurreko bilkuran erabaki beza-lan, Jose Luis Lizundiak quorum-erako testua ekarri du. Hasteko, Jean Haritschelharri, absentzian, eskerrak eman dizkio eta joan den hileko batzarreko eztabaidan hark arrazoia zuela aitortu du. Egoera berriaren baldintzak Euskaltzaindia hemendik aurrerako quorum-aren izaera argitzera behartzen duela eta, Jose Luis Lizundiak, aurreko bilkuran entzundakoak kontuan izanda, bere proposamen idatzia -Zuzendaritzak onartua-ekarri, banatu eta azaldu du. Oharrak egiteko, otsailaren 15era arteko epea dagoela gogoratu du.

Patxi Goenagak eta Jean-Louis Davantek argitasun batzuk eskatu dituzte. Jose Luis Lizundiak eta Andres Urrutiak eman dizkiete.

#### 4.4. Hitzarmena

EiTBrekin (Euskal Irrati Telebistarekin) Euskaltzaindiak bigarren hitzarmena sinatu duela, urtarrilaren 23an, adierazi du Euskaltzainburuak. Nahi duenak testua eska dezake.

#### 4.5. Euskera Agerkariaren bilatze informatikoa

Euskaltzainburuak hala eskaturik, Iñaki Kareaga informatikariak, azken bi hila-beteotan berak, Azkue bibliotekako kideek eta kanpoko enpresa batek garatu duten programa informatikoa aurkeztu du, horren bidez *Euskera* agerkarian dagoen informazioa modu osoago eta errazagoan eskuratu daitekeela erakutsiz. Gaiak, autoreak eta erreferentzi hitzak bilatzeko sistemak azaldu ditu, bai eta egin zaizkion galderei erantzun ere. Eskerrak eman zaizkio aurkezpen eta azalpenengatik.

#### 5. Azken ordukoak

Euskaltzaleen Biltzarra Baionan: Piarres Xarritonek orri bat banatu eta azaldu du, Euskaltzaleen Biltzarraren Administrazio kontseiluaren bilkura Baionan 2007ko urtarrilaren 10ean egin dela jakinaraziz. Elkarte horrek Euskaltzaindiarekin elkarlanean jarduteko gogoia erakutsi omen duela eta, Andres Urrutiak Euskaltzaindia bera ere Biltzarrarekin kolaboratzeko prest dagoela erantzun dio.

Irteeran *Euskera* agerkariaren azken zenbakia (2006, 1) banatu eta, Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren opariz, Parker bolaluma dotore bana eman dira.

Batzarra 14:25ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Bilbon, 2007ko otsailaren 23an

Andres Urrutia euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, Iker sailburua,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Jose Antonio Arana Martija,  
Adolfo Arejita,  
Jean-Louis Davant,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu  
eta Ana Toledo euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz eta Mikel Gorrotxategi zegozkien  
gaietan.

eguerdiko ordu bat eta erdietan Eliseo Gil jaunak eta bere arkeologo taldeak Iruña-Ve-  
leian aurkituriko euskal izkribu zaharren aurkezpena egingo dutela esan du. Euskal-  
tzaindiak oparitan atera dituen bolaluma ere aipatu ditu, eta euskaltzainei bolaluma  
bana eman zaie.

**2. Aurreko akta onartzea.** Aurreko bilkuraren akta, bere ezin etorria jartzeko J.  
Haritschelharren oharrarekin, ontzat eman da.

**3. Barne erregelen aldaketa.** J. L. Lizundiak hitza hartu eta J. L. Davantek bi-  
daliriko oharra eta B. Oihartzabalek puntuak elkarrengandik banatzeko iradokizuna  
kontuan hartu eta ontzat eman daitezkeela jakinarazi du.

J. Haritschelharrek hauxe jartzea eskatu du: quoruma euskaltzain emerituen pre-  
sentiaren arabera izango dela. A. Urrutiak proposamena ontzat eman du, baina  
quorum hori botazioa egin behar den guztietan kontutan hartu beharko dela azpi-  
marratuz. B. Oihartzabalek ere gauza bera argi jartzea eskatu du. Euskaltzainburuak  
J. Haritschelharren proposamenarekin testua egokitu du eta horrela, aho batez, onar-  
tu da.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkara-  
tek ahala Pello Salabururi; Patxi Goena-  
gak, ahala Beñat Oihartzabali; Jose Ira-  
zuk, ahala Andres Urrutiari. Henrike  
Knörrek, etorri artean, ahala Andres  
Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala, Andres  
Iñigori. Mikel Zalbidek, ahala Andres  
Urrutiari. Jean Haritschelharrek, ahoz,  
Piarres Xarrittonen ezin etorria ere adie-  
razi du.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Eus-  
kaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerre-  
ko zutabearen ageri diren euskaltzainak  
bertan direla.

**1. Ahoz esateko oharrak.** Euskaltzain-  
buruak ondokook adierazi ditu: bilera  
goizean izango dela, Federico Barrenen-  
goa, Gaizka Barandiaran eta Jose Maria  
Etxaburu «Kamifazpi»ren hilberri-txos-  
tenak arratsalderako utzita. Era berean,



#### 4. Hizkuntza gaiak

**4.1.1. Onomastika: Nafarroako izendegia 1. zerrenda (Iruñeko merinaldeko iparralde) onartzea.** A. Sagarnak *Xareta* deritzon herri-elkarteari buruz bidaliriko oharra azaldu du A. Iñigok. Izen hori ohar batean jartzea erabaki da.

M. Azkaraterengandik ere beste ohar bat jaso da, *Aranatz / Arantz*a izenaz. A. Iñigok izen hori M. Azkarate etor dadinean aztertzeko proposatu du eta hala onartu da, hurrengoan tratatzeko utzirik; zerrendako gainerako izen guztiak ontzat eman dira.

**4.1.2. Onomastika: Nafarroako izendegia: 2. zerrenda (Iruñeko merinaldeko erdialdea) aurkeztea.** A. Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren aldaketak eta gehipenak xehetasunez azaldu ditu. *Ibarra* izena batzuetan kendu eta beste batzuetan uztearen arrazoia ere eman du. Oharrak egiteko epea martxoaren 20ra artekoa izanen da.

**4.1.3. Exonomastika: «Munduko estatu izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak»** 38. arau gaurkotua aurkeztea. J. L. Lizundiak azaldu du lehengo arauaren gaurkotzea dela, munduan aspaldiko urteotan gertaturiko aldaketa politikoak kontuan izanda, hots, estatu berrien sorrera, hiriburu-aldaketak, etab. Alfontso Mujika batzordekideak datuak bilatzen eta eguneratzen egindako lan bikaina azpimarratu du. Oharrak bidaltzeko epea: martxoaren 20a.

**4.2. Hiztegi Batua: «E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *eguar*gi-tik *eguzari*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

#### 5. Esku artekoak

**5.1. Aurelia Arkotxa andrearen kandidatura.** J.-L. Davant, E. Larre, Tx. Peillen eta B. Oihartzabal euskaltzainek sinaturik, Aurelia Arkotxa andrearen kandidatura aurkeztu da 25. zenbakiko euskaltzain-hutsartea betetzeko. Botazioa datorren batzarrean izanen da.

**5.2. Euskaltzain berriak hautatzeko deia.** Euskaltzainburuak 27 eta 28. zenbakietako euskaltzainak hautatzeko deia gaur egiten dela jakinarazi du, hemendik aurrera kandidatuak aurkezteko bi hilabete izanez.

**5.3. Bernardo Atxagaren sarrera hitzaldia.** A. Urrutiak, Jose Irazu «Bernardo Atxaga» euskaltzainaren sarrera-hitzaldia datorren martxoaren 17an Asteasun, goizeko 11,30etan, izango dela iragarri du, eta ohiko batzar-deia bidaliko dela.

**5.4. Euskaltzaindiaren osoko bilkura.** Era berean, euskaltzainburuak Akademiaren osoko bilkura Donostian martxoaren 30ean izango dela jakinarazi du.

**5.5. Ezin etorria.** J. Haritschelharrek, Jose Irazu «Bernardo Atxaga» euskaltzainaren sarrera-hitzaldirako bere ezin etorria aurrez adierazi du.

**5.6. Liburu banaketa.** Kepa Altonaga irakaslearen *Etxepare Aldudeko medikua* liburuaren ale bana eman zaie euskaltzainei. Obra hau EHU-Euskaltzaindia-Elhuyar-en arteko elkarlanean argitaratu da.

**5.7. Batzar-karpeta.** J. Haritschelharrek harridura adierazi du, etortzerik izan ez zuen aurreko batzarreko batzar-karpeta etxera bidali ez zaiolako. Euskaltzainburuak hau

gogorarazi du: erabakita dagoela, duela bi urteko batzar batean, euskaltzainek idatziz adierazi behar dutela etxera batzar-karpeta bidaltzeko eskabidea, batzarrera ez datozerako.

**5.8. Iruña-Veleiako indusketetako izkribuen agerpena.** Bilkuraren hasieran esan bezala, A. Urrutiak ondoren hau gogorarazi du, Euskaltzaindiaren beheko solairuko aretoan, Eliseo Gil jaunak eta bere arkeologi taldekoek Iruña-Veleiako indusketetan aurkituriko euskal izkribuen erakusketa euskaltzain osoei aurkeztuko dietela, eta horrela egin da.

Bilera 14:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## AGERIKO BILKURA

*Bilbo, 2007-II-23*

Otsailaren 23an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ageriko bilkura egin du Akademiak, arratsaldeko 17:00etan, hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua eta Jose Antonio Arana Martija, Andoni Sagarna eta Ana Toledo euskaltzain osoak.
- Xabier Gereño ohorezko euskaltzaina.
- Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Sebastian Garcia Trujillo, Pruden Gartzia, Pello Telleria, Patxi Uribarren, Jose Mari Velez de Mendizabal eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi du Ricardo Gomez euskaltzain urgazleak.
- Amaia Okariz, Lutxi Alberdi eta Emilio Porras Euskaltzaindiko langileak.

Xabier Kintana idazkariak eman dio hasiera ekitaldiari, Euskaltzaindiak goizean egin duen osoko batzarraren berri emanez, batez ere tratatu diren hizkuntza-gaiak aipatuz. Andres Urrutia euskaltzainburuak bilkurara etorri direnei ongietorria eman ondoren, mahaian daudenak aurkeztu ditu eta ekitaldian zehar kasuan kasuko hizlariari hitza eman die. Hauek izan dira mahaian:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua
- Xabier Kintana, idazkaria
- Henrike Knörr, Federico Barrenengoaren hilberri-txostena irakurtzeko.
- Jose M. Velez de Mendizabal, Gaizka Barandiaranen hilberri-txostena irakurtzeko.
- Gorka Aulestia, Jose Mari Etxaburu «Kamiñazpi»ren hilberri-txostena irakurtzeko.

### **Federico Barrenengoa Arberas (1916-2005)**

Henrike Knörrrek Federico Barrenengoaren bizitzako zertzelada nagusiak eman ditu. Amurrión jaioa 1916ko urriaren 18an eta 2005eko abenduaren 30ean zendua. Ha-

mahiru urte zituela, Gasteizko apaizgaitegi zaharrean sartu zen eta bigarren mailatik aurrera seminario berrira aldatu zen. Knörren esanetan, zalantzarik gabe, Barrenengoaren euskaltzaletasuna, jakin-mina eta jakitea han piztu eta zabaldu ziren.

Onomastikan eta toponimian aditua zen Barrenengoa, eta horren lekuko da *Onomástica de la Tierra de Ayala*, 1968-1990 bitartean hiru liburukitan argitaratua. Onomastika ez ezik, historia ere maite zuen Barrenengoak, batez ere Amurrio eta Aiarako historia. Firestone lantegiko liburuzaina izan zen 1972tik, jubilatzen arte. Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka batzordekidea ere izan zen. Ohorezko euskaltzaina izendatu zuen Euskaltzaindiak 2004ko azaroaren 26an. «Irriñoa beti ezpainetan, entzutera emanago mintzatzera baino, ez zaigu inoiz ahantziko gizon leiala eta xaloa» adieraziz amaitu du Henrike Knörrek.

### **Gaizka Barandiaran (1916-03-03 / 2006-07-20)**

Jose Mari Velez de Mendizabalen esanetan, Gaizka Barandiaran bere garaiko seme zintzoa izan zen. 1916ko martxoaren 3an Oñatin jaioa, bi urterekin joan zen sendiarekin Arrasatera. Laster hasi zen jendaurrean euskaraz irakurtzen, gero antzerki lanetan, euskal abestiak ikasten eta baita dantzan ere.

Gaizka Barandiaranen euskaragintzako abiapuntua, berriz, Belgikako Tournai hirian, jesuitetan nobiziagoa egiten ari zeneko garaian kokatu du Velez de Mendizabalek: «Barandiaranek beti pentsatu zuen, euskara larre-hizkuntza izatetik kultura hizkuntza izatera pasatu ahalko genuela».

Tuteran kaleratu zuen *Iliasena*, 1956an, herri hartan Gaizkaren ikasle izandako Rafael Moneo arkitektoaren marrazkiekin apaindua. «Nire adimeneko lehen semea –esan omen zuen Barandiaranek– *Iliasena* izan zen; merezi zuen, bada, Homerok eta, noski, euskarak». Ordurako Gaizkaren artikuluak *Euzko Gogoa*-n irakurtzen ziren, batez ere filosofiari buruz osatuak. Kant, Aristoteles, Sokrates, Platon, Heidegger, Marcel, Sartre, Seneca,... zituen atsegin. Urte askotako emaitza bezala *Gauzaki*, *Izaki* eta *Gizaki* lanarekin Andima Ibiñagabeitia Saria irabazi zuen eta 1989an argitaratu zioten, «Unibertsitaterako liburuak» sailkapenean. Euskaltzain urgazlea zen 1961eko martxoaren 3tik, eta 2006ko uztailaren 20an hil zen Loiolan, Jesuiten egoitzan.

### **Jose Maria Etxaburu Etxaburu (1913-2006)**

Jose Mari Etxaburu «Kamiñazpi» Ondarroan jaio zen 1913ko irailaren 23an, eta Hondarribian hil 2006ko abenduaren 28an. Gorka Aulestiak 1942an ezagutu zuen: «ez zen Jose Mari txalo, ohore, ospe eta botere bila ibiltzen zen horietakoa; bai, ordea, gizon umila eta isila; pertsona ona eta adiskide leiala; kristau zintzoa eta bakezalea; aberzale fina eta euskaltzale amorratua, halaber hizkuntzarekin batera biziro maite zuen euskal kultura; langile porrokatua eta zehatza; lagun zentzuduna eta zuzena».

Jose Mari Etxabururen bizitzaren ezaugarri batzuk ekarri ditu gogora Gorka Aulestiak: autodidakta izan zen eta urte luzeetako jardunari esker, ekinaren ekinez, oso gazterik *Ekin* Zornotzako astekarian bere lantxoak argitaratzen hasi zen *Iturriondo* ize-

nordearekin. Herri euskeraren aldeko apustu garbia egin zuen hasiera-hasieratik eta, zer esanik ez, hizkuntzaren militantea izan zen hil arte. Biziro maite zituen herri xumearen kultur adierazpen xeheak, batez ere itsasertz girokoak.

Garai gogorak bizi izan zituen, gerra garaian preso hartu baitzuten eta zigortua izan zen. Gerra osteko 40ko hamarkadan, euskara debekatuta zegoen garaian, zapaldurik eta zigorturik zegoen hizkuntzari irtenbide bat ematen ahalegindu zen Jose Mari. Euskaraz idatzi zuen, baita euskara eskolak ematen eta material didaktikoa prestatzen hasi ere. 1964an, gau-eskolak antolatu zituen Ondarroan, «Celedonio Arriola» eskola nazionaletako José Santos Reiriz zuzendariaren baimenaz baliatuz.

Artikulu ugari eta liburu batzuk -haurrentzako ipuinak barne- idatzi zituen. Aulestiaren esanetan: «Horra hor gure Jose Mari gizon apal eta euskaltzale finaren testamentua: haurrak, euskara eta Euskal Herria.» 1966ko azaroaren 25etik euskaltzain urgazlea zen.

Ekitaldia arratsaldeko 18:15ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## AGERIKO BILKURA

*Asteasu, 2007-III-17*

Martxoaren 17an, Asteasuko *Usarrabi* kiroldegian, ageriko bilkura egin du Akademiak, goizeko 11:30etik 13:45era, Jose Irazu Garmendia «Bernardo Atxaga» euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia gauzatzeko.

Bildu dira:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, burordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Emile Larre, Andoni Sagarna, Ana Toledo eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Txomin Peillen, Patxi Salaberri eta Pello Salaburuk.
- Ohorezko euskaltzainak: Ander Manterola eta Karmele Rotaetxe.
- Euskaltzain urgazleak: Joseba Agirreazkuenaga, Dorleta Alberdi, Kasildo Alkorta, Kepa Altonaga, Antton Aranburu, Xabier Aranburu, Aurelia Arkotxa, Xabier Artola, Mikel Atxaga, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Xabier Erdozia, Pello Esnal, Jesus Mari Etxezarreta, Pruden Gartzia, Jazinto Iturbe, Joxemari Iturralde, Jabier Kaltzakorta, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Karlos Otegi, Pello Telleria, Juan Mari Torrealдай, Miriam Urkia, Patri Urkizu, Juan Jose Zearreta eta Joxe Ramon Zubimendi. Ezin etorria adierazi dute Mikel Gorrotxategik, Paskual Rekaldek eta Juan Jose Zubirik.
- Erramun Osa batzordekidea.
- Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko langileak.

Iñaki Amenabar Asteasuko alkatearen ongietorriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agur-hitzekin hasi da ekitaldia. Jarraian, Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du eta, ondoren Ana Toledo eta Jose Luis Lizundia euskaltzainek lagunduta, batzar tokira sartu da Jose Irazu Garmendia «Bernardo Atxaga» euskaltzaina «Antzarak, zenbakiak eta letrak» sarrera-hitzaldia irakurtzera.

### **Asteasutik Asteasura: unibertsoa**

«Bernardo Atxaga» ez zeneko garaia, hots, Jose Irazu soilik zenekoa, horixe izan du Asteasuko euskaltzainak gaurko abiapuntua. Asteasun jaio eta bertan hazia Jose ize-

neko haurrak antzarak nola ezagutu zituen gogorarazi du. Asteasuko inguruak ezagutarazi ditu, Andoaindik abiatu eta sorterriko pilotalekuan pausatu arte. Geografian bere esperientziak eta oroitzapenak kokatu ditu, behin eta berriro ibilbide nagusitik atera eta zeharkako txokoetan barneratuz.

Atxagaren kontaketa ibilbide luzean zehar gogoan izan ditu hainbat pertsona eta leku: Juan Bautista Agirre XVIII. mendeko idazlea, Pedro Mari Otaño, Pello Errota, Orixe, Lizardi, Gabriel Aresti, Antonio Zavala eta Antonio Arrue euskaltzale eta euskaltzain izandakoa, Manuel Lekuona eta Juan Mari Lekuona.

Literatura, euskara eta euskal kulturaz mintzatu da. Hizkuntzaren erabileraren aldeko apustua egin du, erabiltzeak ematen diolako hizkuntzari baliorik handiena, nahiz eta ideologia politikoa baino zerbait gehiago beharko dela adierazi duen gure hizkuntza eta gure kultura aurrera ateratzeko.

### **Xabier Kintana: «Atxaga, gure enbaxadore ezagunena»**

Xabier Kintanak erantzun dio Bernardo Atxagari. Bere berbaldiari «Ekintzaileen laudorioa» izenburua jarri dio, hain zuzen ere, ondo asko laburbiltzen dituelako idazlearen izaera eta ibilbidea. Garai zailtan haziriko idazlea da, bere herriarekiko eta hizkuntzarekiko konpromiso tinkoa harturikoa, hori egitea hain erraza ez zen denboran. Ideia horri lotuta, Kintanak hitz gozoak izan ditu Euskal Herriko zati batean garatua den autogobernuarentzat, euskarari ekarri dion onura nabarmenduz. Baina, era berean gogora ekarri duenez, agintarien aldetiko laguntzak beharrezkoak diren arren, garbi dago euskara euskaldunok hala gura dugun bitartean biziko dela, eta hala nahi dugun neurrian. Testuinguru horretan, Atxaga moduko «herritar normalen» ekina go-raipatu du eta, bide beretik, herri konpromisodun eta moral handiko herritar intelektualtzat definitu du.

Atxagaren literatura-jarduerari lotuago, Kintana benetan harritzen duena da Atxagak istorioak asmatzeko daukan ahalmena. Batez ere errealtateari heldu eta hortik bere langaia nola moldatzen duen. Literaturaren mundu zabalean euskaldunok dugun enbaxadore ezagunena Atxaga dela adierazi du Kintanak. Haren lanek, eleberriek bereziki, sona handia izan dute gure mugetatik kanpo ere. Atxagaren jardunaren beste arlo bat nabarmendu nahi izan du, poesiagintza, hain zuzen. Hitzaldiaren amaieran, Kintanak harrera egin dio Atxagari ongietorria eman ez eta elkarrekin lanerako gonbita eginez.

Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta zortzigarren zenbakia duen domina eman dizkio Jose Irazuri. Domina hau izan duten aurretiko euskaltzainak hauek dira: Intzagarai, Manuel Lekuona eta Juan Mari Lekuona. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriendu eta besarkatu dute.

Ekitaldi akademikoa amaitu ondoren, Asteasuko bertso eskolako Haritz Mujika mutikoak hiru bertso kantatu ditu Atxagaren omenez. Gero, herriaren izenean, Iñaki Amenabar alkateak euskal makila eman dio eta hiru lagunek Asteasuko argazkia darman koadroa eskaini diote.

Ondoren, Pello Errota herri ikastetxeko haur, guraso eta Asteasuko herritarren kuroak bi abesti eskaini ditu: *Hegoak ebaki banizkio...* eta *Eskola txikietako festarako abestia*, Bernardo Atxagak berak idatzia.

Azkenik, *Oinkari* dantza taldekide bik aureskua eskaini diote euskaltzain berriari, eta Mila Iztueta irakasleak, Mirari Irurtzun musikariak lagunduta, *Soinujolearen semea* liburuaren pasarte bat irakurri du.

Ekitaldia eguerdiko 13:45ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria



## Donostian, 2007ko martxoaren 30ean

Andres Urrutia euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, Iker sailburua,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Adolfo Arejita,  
Jean-Louis Davant,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna  
Patxi Salaberri,  
Ana Toledo,  
Piarres Xarritton  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien  
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkaratek,  
ahala Beñat Oihartzabali; Patxi Goenagak,  
ahala Beñat Oihartzabali; Jose Irazuk,  
ahala Andres Urrutiari; Henrike Knörrek,  
etorri artean, ahala Andres Urrutiari; Pello  
Salaburuk, ahala Jean Haritschelharri; Pa-  
txi Zabaletak, ahala, Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 9,30etan hasi da Gi-  
puzkoako Foru Diputazioaren Donostia-  
ko Jauregiko batzar-aretoan, ezkerreko  
zutabean ageri diren euskaltzainak eta  
bertan direla.

**1. Ahoz esateko oharrak** Euskaltzain-  
buruak ahoz ondokook adierazi ditu: bi-  
lera goizean izango dela. Hautagaiaren  
bozketa aurreratu egingo dela, hedabide-  
ak eta kontuan harturik. Aurrekoetan be-  
zala eginen da, akta onartu eta Onomas-  
tikako gaien ondoan. Jarraian, Hiztegi  
Batuarekin segituko da.

**2. Aurreko akta onartzea:** aurreko batzarraren akta, oharrak gabe, ontzat eman da.

### **3. Hizkuntza-gaiak**

**3.1.1. Onomastika: Nafarroako izendegia 2. zerrenda (Iruñeko merindadeko erdialdea) onartzea.** Andres Iñigok azaldu duenez, zerrenda horri buruzko oharrak ez da bat ere jaso. Beraz, ontzat eman da.

**3.1.2. Onomastika: Nafarroako izendegia: 3. zerrenda (Iruñeko merindadeko hegoaldea) aurkeztea.** Andres Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren al-  
daketak, berrikuntzak eta zuzenketak azaldu ditu. Oharrak egiteko epea apirilaren 13ra  
artekoa izanen da.

**3.1.3. Exonomastika: «Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkun-  
tza ofizialak eta hiriburuak» 38.** arau gaurkotua onartzea. Jose Luis Lizundiak horri  
buruz oharrak ez dela jaso jakinarazi du. Piarres Xarrittonek eta Beñat Oihartzabalek  
estatu-izen batzuk erabakitzeke irizpideez egindako galderei erantzunez, Mikel Gorro-  
txategik argibideak eman dizkie. Zerrenda ontzat eman da.

**3.1.4. Hiztegi Batua: «E» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.** Pello Salaburu batzordeburuaren ezin etorriaz, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *eguzki*-tik *ekitate*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

#### **4. 25 zenbaki-hutsarterako hautagaia bozkatzea.**

25. zenbakirako hautagaitzarako aurkezturiko kandidatu bakarra Aurelia Arkotxa andrea izan da. Botazioa eginda, ondoko emaitzak izan dira: Aurelia Arkotxaren alde: 20 boto. Zuri: 1. Beraz, Aurelia Arkotxa andrea euskaltzain hautatu dela aldarrikatzen da.

**5. Esku artekoak.** Euskaltzainburuak ondokoen berri eman du:

**5.1. Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Kutzaren Euskal Herritar Unibertsia saria.** Urteroko sari honen 2007ko deialdia kaleratu da jada. Euskaltzaindiari hautagai bat aurkezteko aukera eskaintzen zaio, karpetan sarturiko paperean ageri denez. Proposamen ofiziala egiteko epea apirilaren 20rako izanik eta hori Zuzendaritzan aurretik erabaki beharko denez gero, euskaltzainek beren proposamenak apirilaren 12rako bidali beharko dituzte.

**5.2. Eusko Ikaskuntza – Euskadiko Kutxa: Humanitate saria.** Urtero antolaten den sari honetarako, karpetan sartua, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Jose Antonio Arana Martija proposatzea erabaki du. Bilkuran bilduek ontzat eman dute.

**5.3. Ez dok amairu-ren erakusketa.** Usurbilgo Udaletik Euskaltzaindiaren egoitzara ekarriko erakusketa Akademiaren hitzaldi-aretoan martxoaren 28tik apirilaren 27ra egonen da. Horren berri komunikabideei joan den astelehenean iragarri zitzairen, inaugurazioa biharamunean, martxoaren 27an, izanik. Euskaltzainei diptiko bana eman zaie, erakusketaren argitasunekin.

**5.4. Hileroko batzarra, XV. Barne Jardunaldiak eta Ageriko bilkura. Euskaltzaindiaren osoko batzarra.** Hauek guztiok apirilaren 19-20-21ean egingo dira Etxalarren, Nafarroan, karpetan jarriko paperean ageri den programaren arabera.

**5.5. Elhuyar-ekiko hitzarmena.** Euskaltzainburuak Akademiak martxoaren 16an Elhuyar-ekin lexikografia arlorako hitzarmena sinatu zuela jakinarazi du.

**5.6. Biltzar-karpetak etxera bidaltzeaz.** Bilkurara ezin etorria izanik, biltzar-karpeta jaso nahi duten euskaltzainek, hori, ezin etorriaz batera, beti ere idatziz eskatu behar dutela gogorarazi da.

**5.7. Baionako ordezkari berria.** Baionako ordezkari berria datorren apirilaren 2an, astelehenean, inauguratuko dela iragarri da. Euskaltzain guztiei gonbita igorri zaie Baionatik.

**5.8. Euskaltzaindiaren Bibliotekako soberazko liburuak.** Jose Luis Lizundiak azaldu duenez, Euskaltzaindiaren bibliotekan soberan dauden liburuen zerrenda banatu zaie euskaltzainei, horiek dohainik jaso nahi dituztenek, Pruden Gartzia Bibliotekako zuzendariak azaltzen duen prozeduraren arabera, hemendik bi hilabeteko epean, eska ditzaten.

Bilera 14:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Ettxalarren, 2007ko apirilaren 19an eta 20an

Andres Urrutia, euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea  
Xabier Kintana, idazkaria  
Jose Luis Lizundia, diruzaina  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua  
Aurelia Arkotxa  
Adolfo Arejita  
Miren Azkarate, (ostegunean)  
Jean-Louis Davant, (ostiralean)  
Jean Haritschelhar  
Emile Larre, (ostiralean)  
Txomin Peillen  
Andoni Sagarna  
Patxi Salaberri  
Ana Toledo  
Piarres Xarritton (ostiralean)  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien  
gaietan.

ongiotorria eman dio eta izendapenagatik zorionak agertu ere bai, berarengandik Eus-  
kaltzaindiak asko espero duela adieraziz.

Ondoren, euskaltzainburuak ondoko oharrak egin ditu: Osoko Batzarraren eta  
Barne Jardunaldien jardupidea, ordutegia eta programa laburki azaldu, eta euskaltzai-  
nentzako ostatuaren kokalekua non den jakinarazi.

**2. Aurreko akta onartzea.** Aurreko batzarraren akta ontzat eman da, Txomin  
Peillenen ohar batekin, martxoaren 17ko bilkuran bere ezin etorria azaldu beharra da-  
goela gogoratuz.

### 3. Hizkuntza-gaiak

**3.1. Onomastika: Nafarroako izendegia 3. zerrenda (Iruñeko merindadeko  
hegoaldea) onartzea:** Andres Iñigok azaldu duenez, zerrenda horri buruz ez da oha-  
rrik bat ere jaso. Beraz, ontzat eman da.

**3.2. Onomastika: Nafarroako izendegia: 4. zerrenda (Zangozako merinda-  
deko iparraldea) aurkeztea.** Andres Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Areji-  
tak, etorri bitartean, ahala Jose Luis Li-  
zundiari; Miren Azkaratek, ahala Beñat  
Oihartzabali; Patxi Goenagak, ahala Be-  
ñat Oihartzabali; Jose Irazuk, ahala An-  
dres Urrutiari. Pello Salaburuk, ahala  
Miren Azkarateri, eta, ez dagoenean,  
Jean Haritschelharri edo Beñat Oihar-  
tzabali; Patxi Zabaletak, ahala, Andres  
Iñigori.

Henrike Knörrek berandu etorriko dela  
adierazi du. Jean Haritschelharrek Piarres  
Xarrittonen ostegunerako ezin etorria  
adierazi du.

Batzarra arratsaldeko 17,30etan hasi da  
Ettxalarko Kultura Etxean, ezkerreko zu-  
tabean ageri diren euskaltzainak eta ber-  
tan direla.

**1. Ahoz esateko oharrak.** Andres Urru-  
tiak Aurelia Arkotxa euskaltzain berriari

aldaketak, berrikuntzak eta zuzenketak azaldu ditu, batez ere *abaurrear*, *Orbaizeta*, *Arztibar*, *Eguesibar*, *Lizoainibar*, *Jaurrieta*, *Otsagabia* izenei buruz. Oharrak egiteko epea maiatzaren 15era artekoa izanen da.

**3.3. Aranatz / Arantza toponimoari buruzko azalpena.** Miren Azkarateren oharri erantzunez, Andres Iñigok aldaketaren zergatia azaldu du. Miren Azkaratek esan duenez, kontuz ibili behar da jada *Arantza* izen hori ofizialki onartua denez gero, era horretako aldaketek kostu soziala daukatelako. Jose Luis Lizundiak eta Mikel Zalbidetik ere iritzi berekoak direla adierazi dute. Patxi Salaberrik argitu duenez, berrikusketan honetarako, datu hobek eta oinarrituagoak eduki dira kontuan, Euskaltzaindiak aurreko iritziak, bere kasuan, zuzentzeko. Eztabaida luzearen ondoren, botoetara joanda, *Arantza* eta *aranaztar* uztea erabaki da.

**3.4. Hiztegi Batua: «E» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.** Pello Salaburu batzordeburuaren ezin etorriaz, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *eklosionatu*-tik *ele-edertasun*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

Bilkura arratseko 20,15ean eten da.

\* \* \*

2007ko apirilaren 20an (ostirala), goizeko 9,30etan batzarrari berriro ekin zaio.

Miren Azkaratek bere ahala Beñat Oihartzabali uzten dio; Adolfo Arejitak, etorri artean, Jose Luis Lizundiari.

**Hiztegi Batua (segida): «E» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.** Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *elekari*-tik *eltzar*-erainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira. Aurreko bilkuran aztergai utziriko *eiheraldi* eta *ehoaldi* ere onartu dira, Xarritonek eta Lizundiak hala eskaturik.

**4. Esku artekoak.** Euskaltzainburuak ondokoen berri eman du:

**4.1. Erdal Letren Sariak:** Espainiako Kultura Ministerioak aurtengo literatura sarietarako egin duen epaimahaikide-eskariari erantzunez, Euskaltzaindiak, Literatura Ikerketa batzordea entzun eta gero, ordezkari hauek izendatzea erabaki du:

Premio Nacional de las Letras Españolas: *Aurelia Arkotxa*

Premio Nacional de Literatura (Poesía): *Jon Kortazar*

Premio Nacional de Literatura (Narratiba): *Ur Apalategi*

Premio Nacional de Literatura (Saioa): *Lourdes Otaegi*

Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramatikoa): *Sebastian García*

Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil: *Miguel Asiain*

Premio Nacional de la Mejor Traducción y P.N. a la Obra de un Traductor: *An-doni Sagarna*

**4.2. Euskaldun unibertsala.** Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Kutxaren Euskal Herritar Unibertsala sarirako inoren izenik aurkeztu ez denez, aurreko Euskaltzaindiak ez du kandidaturik proposatu.

**4.3. Nafarroako Gobernuarekiko protokoloa.** Andres Urrutiak Euskaltzaindiak Nafar Gobernuarekin aurtengo hitzarmen-protokoloa apirilaren 16an sinatu duela adierazi du.

**4.4. Euskaltzaindiaren maiatzeko batzarra.** Maiatzeko osoko batzarra, 31n (osteguna) arratsaldean hasiko da. Hurrengo egunean, ostiral goizean, Hiztegi Batuko hitzen eztabaidarekin segitzeko aukera izanen da. Larunbat goizean, aldiz, Gipuzkoako Diputazioaren foru-jauregian Mikel Zalbideren sarrera-hitzaldia izanen da. Hotelak eta erreserbatzeko, euskaltzainei aurretik abisatzeko eskatu zaie.

**4.5. Euskaltzain berrien kandidaturak. Bi proposamen jaso dira.**

Lehena, 27. zenbakirako, Patxi Zabaletak, Patxi Salaberrik eta Andres Iñigok sinatua, *Sagrario Aleman Astiz* andrearen alde.

Bigarrena, 28.erako, *Joseba Lakarra Andrinua* jaunaren alde, Jose Antonio Aranak, Xabier Kintanak eta Jose Luis Lizundiak proposatua.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## XV. BARNE JARDUNALDIEN EGITARAUA

*ETXALAR (Kultura Etxea)*


### **Apirilaren 20a, ostirala**

- 16:00etan Euskaltzainburuaren sarrera txostena.
- 16:45ean a) Aribideko egitasmoei buruzko errendapenak eta 2007-2008rako jarraipena.
- Ibon Sarasola: Euskaltzaindiaren hiztegia.
  - Pello Salaburu: EGO (Euskal Gramatika Orokorra).
  - Andres Iñigo: ECO (Euskal Corpus Onomastikoa).
- b) Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia: Euskaltzaindiaren XVI. Biltzara.

### **Apirilaren 21a, larunbata**

- 9:30ean Egitasmo berrien aurkezpenak:
- Andoni Sagarna: «Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak».
  - Joseba Intxausti: «*Joanes Etxeberri* Egitasmoa (2007-2008): Euskararen Historia Sozialerako (EHS) Proiektua».
  - Adolfo Arejita: «Ahozkotasanaren ondarea».
  - Xabier Kintana: «Zientzia eta teknologia Hiztegi Batuan».
- 12:00etan XV. Barne Jardunaldien amaiera.

Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldiak (1979 - 2007; I - XV)



## Etxalarren, 2007ko apirilaren 20an eta 21ean

### XV. Barne Jardunaldien agiria

Andres Urrutia, euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea (larunbatean)  
Xabier Kintana, idazkaria  
Jose Luis Lizundia, diruzaina  
Henrike Knörr, *Iker* sailburua  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua  
Adolfo Arejita  
Aurelia Arkotxa (larunbatean)  
Jean-Louis Davant  
Jean Haritschelhar (ostiralean)  
Emile Larre  
Txomin Peillen  
Andoni Sagarna  
Patxi Salaberrri  
Pello Salaburu (ostiralean)  
Ibon Sarasola (ostiralean)  
Ana Toledo  
Piarres Xarritton (ostiralean)  
Mikel Zalbide euskaltzain osoak eta Joseba Intxausti, ohorezko euskaltzaina (larunbatean).  
Pello Telleria, idazkariordea eta Juan Jose Zearreta kudeatzailea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Goenagak, ahala Beñat Oihartzabali; Jose Irazuk, ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk, ahala Miren Azkarateri, eta, ez balego, Jean Haritschelharri edo B. Oihartzabali; Patxi Zabaletak, ahala, Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16,00etan hasi da Etxalarko Kultura Etxean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

#### 1. Jardunaldien sarrera

Euskaltzainburuak, laburki, XV. Barne Jardunaldien ibilbidea azaldu du, sarreratxostena irakurriz.

J. Haritschelharrek fundazioaren egoeraz galdetu du. A. Urrutiak ahal delarik, hurrengo bi urteotan gauzatu nahi lukeela erantzun dio.

J. Haritschelharrek M. Azkarateri eta J. J. Gonzalez de Txabarriri esker izandako hitzarmen hobea azpimarratu du. A. Urrutiak, kideetasun giro hori baietsi eta,

horiez gainera, Bizkaiko Foru Diputazioaren jarrera ona ere gogoratu du, eta gainerako agintari publikoen (Arabako Foru Aldundiaren, Madrilako Gobernuaren eta Euskalaren Erakunde Publikoaren) eta hainbat pertsona pribaturena ere bai.

Ondoren, P. Xarrittonek hitza hartu eta Euskaltzainburuak txostenean aipatu dituen zenbait gairi buruzko iritzia eman du. A. Urrutia euskaltzainburuak puntuz puntu erantzun dio X. Xarritoni aipatu dituen gaietan.

#### 2. Aribideko egitasmoei buruzko errendapenak eta 2007-2008rako jarraipena.

**2.1. Euskaltzaindiaren Hiztegia.** Gai honetaz I. Sarasolak prestatuturiko txostena banatu ondoren, egileak hau azaldu du: lehenengo eta behin, hiztegia antolatzeke eraz gogoeta orokorra egin du, hitzen definizioa eta erabilera moduak (joskeran batik bat) azalduz.



Lan egiteko darabilen sisteman aurkituriko eragozpen teknikoak aipatu ditu. Gramatikazko zenbait puntu erabakitze lan-batzorde bat eratzea beharrezkoa dakusa. Hori dela eta, P. Salaburuk eta A. Arejitak komentario batzuk egin dituzte, eta A. Sagarnak sistema informatiko ezberdinen on-gaitzak azaldu ditu. Hiztegiaren eta informatikariaren arteko harremanak sendotu eta argitu beharra nabarmendu da.

X. Kintanak hitzak definitzeko prozedura-formularioaz galdetu du, alde aurretik adostekoa. A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak erantzun diote ordezkari talde bat prestatu beharra dagoela, lan horretan laguntzeko. Egileak egindako eskariak eta euskaltzainen beste laguntza-proposamenak ontzat eman dira.

**2.2. Euskal Gramatika Orokorra (EGO).** P. Salaburuk EGO proiektua zertan den, idatzirik banatu ondoren, irakurri du. Hasteko, inguruko beste hizkuntzen gramatika ereduak aipatu ditu, nahi dugun gramatikak nolakoa izan beharko lukeen galdetuz. Ondoren, 2005etik gaur arte egindako lana, aurkituriko laguntzak eta izandako oztipoak aipatu ditu.

Andres Urrutiak erantzun dio Euskaltzaindiaren zuzendaritza oztipoak gainditzen laguntzeko prest dagoela, beti ere barne-ibilbideari dagokiona betez. Eginiko lana onetsi da.

**2.3. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO).** A. Inigok ECOren azalpena eta kontu errendapena banatu eta pantailan azaldu du, bai lan-prozedurak eta bai urtez urteko lan xehatua eskainiz. A. Sagarnak Gipuzkoako Diputazioarekin harremanetan jarri ote diren galdetu du. Baietz erantzun dio. M. Zalbidek ere toponimoen datazioaz galdetu dio. Lana ontzat eman da.

**2.4. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra.** H. Knörrek eta J. L. Lizundiak 2008an Iruñean antolatzekotan den Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarraz txosten bana aurkeztu eta azaldu dute, «Pirinioak: hizkuntzak eta literaturak» izenaz. Biltzar horretan ukituko liratekeen gai nagusiak, hizlariak eta partaideak xeheki azaldu dituzte. Ontzat eman da.

Bilkura 20:00etan amaitu da.

\* \* \*

2007ko apirilaren 21ean, larunbatean, Etxalarren, leku berean ekitaldiari segida eman zaio, goizeko 9,30etan hasita.

### 3. Egitasmo berrien aurkezpenak

**3.1. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eta Euskaltzaindiaren edukiak (IKT).** Andoni Sagarnak bere txostena banatu eta irakurri du. Hor Euskaltzaindiak bere ikerketak egin eta arauak emateko behar dituen testu-corpusak antolatze premia azpimarratu du, horren ondoan, informatikaren baliabide berriekin emaitza horiek gizarteratzeko. Holako proiektua gauzatzeko plana ere aurkeztu du .

Tx. Peillenek, xehetasun batzuei buruz egindako galderei ere erantzun die Sagarnak. Ondoren, J. L. Lizundia, B. Oiharzabal, A. Arejita eta A. Urrutia mintzatu dira Euskaltzaindiaren corpusez eta lanez jabetasuna gordetzeko eta horren ondarearen gozamenaz gizarteratzeko garrantziaz. Hori bideratu eta jagoteko marko juridikoa erabakitzekoaz nork bere iritzia eman du.

IKT proiektua ontzat eman da.

**3.2. Joanes Etxeberri Egitasmoa (2007-2008): Euskararen historia sozialerako proiektua (EHS).** Joseba Intxaustik, berak prestaturiko txostena banatu eta azaldu du. Hor hizkuntzaren historia soziala ikertu eta idazteko asmoa agertzen da, munduan zehar arlo horretan ikuspegi ezberdinetatik egindako obra aberats eta interesgarriak aipatuz. Euskal arloan lan egiteko prozedura ere iradoki du.

Bibliografiari dagokionez, Tx. Peillenek euskararen irakaskuntzaz frantsesez egindako tesina interesgarri eta argitaratu gabe baten berri eman du, lan horretarako kontuan hartzekoa. J. L. Lizundiak irakaskuntzaz gainera administrazio-legeez ere arduratzeak daukan garrantziaz hitz egin du. A. Arkotxak bibliografia gehitzeko datu batzuk eman ditu aurreko mendeetan Frantziako hizkuntzen egoera zertan zen jakiteko baliagarriak. J. L. Davantek euskarari buruz oraindik batzuek errepikatzen dituzten dogma batzuk salatu ditu, zoritxarrez antzinateaz dagoen daturik ezaz baliaturik.

EHS proiektua onartu da.

**3.3. Ahozkotasunaren ondarea.** Adolfo Arejitak prestaturiko txostena banatu eta azaldu du. H. Knörrek presa handiko lana deritzo lan horri, informatzaileak adinagatik desagertu baino lehen bildu beharrekoa. Eskuratu nahi diren elkarrizketa horietan, X. Kintanak haurren jolasak eta kantuak, janzteko ohiturak, gazteen arteko harremanak, etab. ere kontuan hartu beharko lirатеkeela gogorarazi du. J. L. Lizundiak lanbide tradizionalen eta hirietako euskararen berri ere jasotzea eskatu du. Ontzat eman da, eta hurrengoan lan egiteko prozedura xehekiago ekartzea eskatu zaio A. Arejitari.

**3.4. Zientzia eta teknologia Hiztegi Batuan.** X. Kintanak gai honetaz txosten bat prestatu du, bilkuran banatua. Hor Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua espezialitateetako lexiko bereziaz osatu eta aberasteko premiaz mintzatzen da, zientzia, teknika eta irakaskuntzako oinarritzko eta maila ertaineko hitzak biltzeko. Horretarako, Euskaltzaindiak lehendik jada onartu zuen bideari jarraitu, batzorde bat eratu eta prozedura bat proposatu du. M. Zalbidek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean egiten diharduten lana azaldu du eta batzorde horrekin harremanetan egotea komeni dela. Txostengileak ongi iritzi dio. Batzorde hori ibilian jartzea ere ontzat eman da.

#### **4. XV. Barne Jardunaldien amaiera.**

Amaitzeko, euskaltzainburuak txostengile eta partaideei eskerrak eman dizkie orain arte egindako lanagatik eta hemendik aurrerako asmo berrietarako laguntza eskaini ere bai.

XV. Barne Jardunaldien lan-bilkura eguerdiko 12etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## AGERIKO BILKURA

*Etxalar, 2007-IV-21*

Apirilaren 21ean, Etxalarko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Nafarroako herri horretan, bertako bi euskaltzain urgazleren omenez: Teodoro Arburua eta Eusebio Etxalarkoa. Horrezaz gain, Bortzirietako hizkera ere hizpide izan da gaurko bilkuran. Eguerdiko 12,30etatik 14,00etara izan da bilkura, Kultura Etxean.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua eta Adolfo Arejita, Jean-Louis Davant, Emile Larre, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Pello Apezetxea eta Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak.
- Euskaltzain urgazleak: Pakita Arregi, Jose Maria Etxebarria, Patxi Iñigo, Pruden Gartzia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dute Paula Casares, Paskual Rekalde eta Xabier Erdoziak.
- Amaia Okariz eta Gema Insausti Euskaltzaindiko langileak.

Patxiku Irisarri alkateak ongietorria eman die euskaltzainei eta bertaratu diren herritarrei. Ondoren, Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio alkateari, emandako laguntzagatik; Euskaltzaindia apirilaren 19tik 21era egon da Etxalarren, Kultura Etxean, hileko batzarra, XV. Barne Jardunaldiak eta Ageriko Bilkura egiteko.

Ondoren, bi hizlarik parte hartu dute: Pello Apezetxeak eta Patxi Iñigok.

### **Teodoro Arburua eta Etxalarko Eusebio**

Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar euskaltzale etxalartarren bizitzak izan ditu hizpide Pello Apezetxea ohorezko euskaltzainak bere mintzaldian. Biak Etxalar-koak, biak euskaltzain urgazle –Euskaltzaindia sortu zen urte berean izendatuak, 1919ko urriaren 26an– biak euskaltzaleak, baina modu berean biak ia ezezagunak.

Teodoro Arburua Etxalarren jaio zen, 1876ko azaroan. 1936ra arte Etxalarko apaiza izan zen eta, 1936ko abuztuan, gerra zela-eta Etxalartik kanporatua izan zen, beste hainbat apaiz bezala. 1941eko martxoan Etxalarren ageri da berriz ere, parrokiako apaiz

laguntzaile, gerra aitzineko urteetan bezala. Hemen hil zen 1942ko otsailaren 11n, 66 urte zituela.

Apeztearen hitzetan Arburua euskaltzale sutsua izan zen: «Euskararen eta euskal kulturaren kontzientzia izan eta horren arabera jokatu zuena. Euskaraz bizi eta ukitzen zuen guztiari euskal hatsa ematen ziona. Gaur egun arte –gaineratu du ohorezko euskaltzainak– bere etxean kontserbatu diren gutun, ohar, abisu paper denak euskaraz daude. Elizkizun eta katekesiaz gain, kantu eta antzerki lanak ere euskaraz egin zituen».

Besteak beste, *Euskal-Esnalea*, *La Tradición navarra* edota *La voz de Navarra* agerkarietan idatzi zuen. Toponimia arloa ere landu zuen eta, 1915ean Iruñeko Udalak sari bat eman zion Etxalarko toponimiari buruz egindako ikerketarengatik. 1926an, Euskararen Adiskideak elkarteak ere saritu zuen, Nafarroako herri istorioez idatzitako lan batengatik.

Eusebi Etxalarkoa, –horixe baitzen euskaraz idazten zuenean erabiltzen zuen izena– 1874ko abenduan jaio zen. Erlijosoko kaputxinoa izan zen eta apaiztu ostean, Leharozen izan zen irakasle eta predikari, eta bertan hil zen 1956an, 82 urte zituela.

Apeztearen esanetan, Teologia eta Historiaz gain, Ekialdeko hizkuntzak ikasteari gogotsu ekin zion, hebreera batez ere, «Bibliako Itun Zaharreko hizkuntza zelako-edo. Hizkuntza horiek jakiteak eman zion historia eta arte arloetan jakitatea aberasteko ahalbidea. Adibide bat Erdiaroko kutxatila arabiarrari buruzkoa da, Iruñeko katedralean dagoena: Abdelmelik-en kutxa, hain zuzen. Horrek duen inskripzioa oraindik XX. mendean ongi ulertu gabea zegoen, Etxalarko Eusebiok begiratu zuen arte. Bere interpretazioa egokia zela-eta goraiptua izan zen *Boletín de la Comisión de Monumentos histórico-artísticos*»en.

Bere lanen artean, hauek dira aipagarriak: *Voces Vascas en los Fueros de Navarra* –Nafarroako Foruen testuaren hitzak argitu eta zuzendu zituen, baita bere esanahia azaldu ere–, *Palabras vascas en monumentos romanos*, *Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos* (Altadilen *Geografía General del País Vasco* argitalpenean), *Asmakeria*. Arburuak bezala, Eusebi Etxalarkoak ere hainbat gutun idatzi zion Julio Urkixori.

## Bortzirietako hizkera

«Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan» izan da Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak jorratu duen gaia. Adibide gisa, kasu zehatzak aipatu ditu Iñigok, berari Bortzirietako hizkeran nabarmenak iruditzen zaizkionak alegia, eta horietatik zein ari diren gutika-gutika desagertzen, aldatzen eta zein diren indarrean dirautenak nabarmendu du.

Mintzaldiaren abiapuntua hauxe izan da: Bortzirietako hizkerak izan dituen –eta helduen artean barra-barra entzuten diren– zenbait berezitasun gero eta gutxiago aditzen dira gaurko gazteen eta haurren hizkeran. «Lehen –esan du– euskara ahoz aho ikasten zen eta bertako hizkeraren berezitasunak hobeki igarotzen ziren gurasoengandik seme-alabetara edo lagunetatik lagunetara. Gaur batzuek –Beran erraterako gehienek– eskolan ere ikasten dute euskara, eta haur guztiek eskolan lantzen dute; horre-

taz gainera, lehen ez bezala, hedabideetan euskaraz entzuten edota irakurtzen dute. Eta, eskolak bereziki, izugarrizko mesedea egin dio euskarari. Baina onurarekin batera hutsune batzuk ere ekarri dizkio eta horietako bat bertako berezitasun batzuk galdu izana.»

Ildo horretatik, bokalismoa, aferesia, kontsonantismoa, erlatiboak, denborazko perpausak, azentua eta esapideak edo erranerak erreparatu ditu, besteak beste, Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

**ERANSKINA:**  
**EUSKALTZAINDIAREN BATZORDE-ORGANIGRAMA**  
**2007-2008 (\*)**

**A. IKER SAILA**

*IKER* sailburua: Knörr, Henrike

**I. HIZTEGIGINTZA**

**I.1. Euskaltzaindiaren hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoa**

Zuzendaria: Sarasola, Ibon  
Teknikariak: Fraile, Grabiela  
Kruzeta, Elizabet  
Loidi, Ane  
Otamendi, Ainhoa

**Onarpen batzordea**

**I.2. Hiztegi Batuko lantaldea**

Arduraduna: Aduriz, Jose Antonio  
Kideak: Arrarats, Irene  
Baraiazarra, Luis  
Davant, Jean-Louis  
Gurrutxaga, Antton  
Navarro, Koro  
Rekalde, Paskual  
Sagarna, Andoni  
Segurola, Iñaki  
Urkia, Miriam  
Videgain, Xarles

**I.3. Hiztegi Batua (2. itzulua) Batzordea**

Burua: Salaburu, Pello  
Idazkaria: Aduriz, Jose Antonio  
Aholkulariak: Azkarate, Miren  
Kintana, Xabier

---

(\*) Euskaltzaindiak 2007ko maiatzaren 31n eta ekainaren 29an onartua.

**I.4. Zientzia eta teknika hiztegia biltzeko egitasmoa**

Zuzendaria: Kintana, Xabier  
Idazkaria: Irazabalbeitia, Iñaki  
Kideak: Alberdi, Andres  
Alberdi, Xabier  
Altonaga, Kepa  
Gurrutxaga, Antton

\* \* \*

**II. GRAMATIKA****II.1. Gramatika Batzordea**

Burua: Salaburu, Pello  
Idazkaria: Makatzaga, Jesus Mari  
Kideak: Amundarain, Iñaki  
Azkarate, Miren  
Charritton, Piarres  
Fernández, Beatriz  
Garzia, Juan  
Goenaga, Patxi  
Iriarte, Nora  
King, Alan  
Laka, Itziar  
Lasarte, Maria Pilar  
Mujika, Jose Antonio  
Oihartzabal, Beñat  
Rekalde, Paskual  
Rotaetxe, Karnele

**II.2. Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa**

Zuzendaria: Salaburu, Pello  
Idazkaria: Makatzaga, Jesus Mari  
Kideak: Goenaga, Patxi  
Laka, Itziar  
Oihartzabal, Beñat  
Rekalde, Paskual  
Teknikaria: Monreal, Haritz

\* \* \*

### III. DIALEKTOLOGIA

#### III.1. Euskararen Herri Hizkeren *Atlasa* egitasmoa

- Zuzendaria: Arejita, Adolfo
- Arduradunak: Aurrekoetxea, Gotzon; Videgain, Xarles
- Teknikariak: Camino, Iñaki  
Etxebeste, Izaskun  
Segurola, Koro
- Aholkulariak: Atutxa, Isaac  
Etxaide, Ana Maria  
Etxebarria, Jose Maria

#### III.2. Ahozko tradizioa biltzeko egitasmoa

- Zuzendaria: Arejita, Adolfo

\* \* \*

### IV. ONOMASTIKA

#### IV.1. Onomastika Batzordea

- Burua: Iñigo, Andres
- Idazkaria: Gorrotxategi, Mikel
- Kideak: Galé, Patxi  
Goikoetxea, Imanol  
Gonzalez de Viñaspre, Roberto  
Iglesias, Hector  
Knörr, Henrike  
Lasa, Iratxe  
Lizundia, Jose Luis  
Martínez de Madina, Elena  
Mugurutza, Felix  
Peillen, Txomin  
Salaberri Zaratiegi, Patxi
- Aholkulariak: Davant, Jean-Louis  
Gonzalez Salazar, Jose Antonio  
Orpustan, Jean-Baptiste  
Ruiz Urrestarazu, Manuel Maria  
Soulé, Bernadette  
Usabiaga, Amaia  
Zaldua, Luis Mari



**IV.2. Exonomastika Batzordea**

Burua: Lizundia, Jose Luis

Idazkaria: Mujika, Alfontso

Kideak: Gorrotxategi, Mikel  
Irazabalbeitia, Iñaki  
Kintana, Xabier

Aholkulariak: Arrarats, Irene  
Bilbao, Gidor  
Galé, Patxi  
Larrinaga, Asier

**IV.3. Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa**

Zuzendaria: Iñigo, Andres

Teknikaria: Galé, Patxi

\* \* \*

**V. LITERATURA****V.1. Herri Literatura Batzordea**

Burua: Esnal, Pello

Idazkaria: Zubimendi, Joxe Ramon

Kideak: Aranburu, Antton  
Arejita, Adolfo  
Etxebarria, Juan Manuel  
Etxezarreta, Jesus Maria  
Iriondo, Jose Maria  
Kaltzakorta, Jabier  
Larre, Emile  
Muniategi, Abel  
Perez, Xabier «Euzkitze»  
Perurena, Patziku  
Zavala, Antonio

**V.2. Literatura Ikerketa Batzordea**

Burua: Haritschelhar, Jean

Idazkaria: Otaegi, Lourdes

Kideak: Aldekoa, Iñaki  
Apalategi, Ur  
Arkotxa, Aurelia

Aulestia, Gorka  
 Casenave, Jon  
 Garcia Trujillo, Sebastian  
 Kortazar, Jon  
 Olaziregi, Maria Jose  
 Otegi, Karlos  
 Peillen, Txomin  
 Retolaza, Iratxe  
 Toledo, Ana  
 Urkizu, Patri

\* \* \*

## **B. JAGON SAILA**

*JAGON* sailburua: Iñigo, Andres

### **1. Corpus Batzordea**

Burua: Urrutia, Andres  
 Idazkaria: Rekalde, Paskual  
 Kideak: Amundarain, Dionisio  
 Butron, Joseba  
 Esnal, Pello  
 Etxebarria, Igone  
 Goikoetxea, Juan Luis  
 Iñigo, Andres  
 Iñigo, Patxi  
 Mendiguren, Xabier  
 Zubimendi, Joxe Ramon

### **2. Euskalkien lantaldea**

Arduraduna: Rekalde, Paskual  
 Kideak: Alkorta, Kaxildo  
 Aurre, Jon  
 Erdozia, Jose Luis  
 Esnal, Pello  
 Etxebarria, Nagore  
 Goikoetxea, Juan Luis  
 Hiribarren, Maialen  
 Iñigo, Patxi  
 Ormazabal, Manu  
 Zubimendi, Joxe Ramon

**3. Sustapen Batzordea**

- Burua: Iñigo, Andres
- Idazkaria: Osa, Erramun
- Kideak: Arabako ordezkaria  
Gipuzkoako ordezkaria  
Iparraldeko ordezkaria  
Nafarroako ordezkaria  
Aleman, Sagrario  
Baxok, Erramun  
Coyos, Jean-Baptiste  
Epaltza, Aingeru  
Juaristi, Patxi  
Larrazabal, Santiago  
Ruiz Urrestarazu, Manuel Maria  
Urrutia, Andres
- Aholkulariak: Erize, Xabier  
Lizundia, Jose Luis  
Rotaetxe, Karmele

**4. Joanes Etxeberri egitasmoa (Euskararen Historia Soziala)**

- Zuzendaria: Intxausti, Joseba
- Aholkularia: Zalbide, Mikel

\* \* \*

**C. EGITURAZKO batzordeak (Zuzendaritzari atxikiak)****1. Argitalpen Batzordea**

- Burua: Euskaltzainburua: Urrutia, Andres
- Idazkaria: Argitalpen eragilea: Badiola Uriarte, Ricardo
- Kideak: Euskaltzainburuordea: Oihartzabal, Beñat  
Idazkaria: Kintana, Xabier  
Diruzaina: Lizundia, Jose Luis  
*Iker* Sailburua: Knörr, Henrike  
*Jagon* Sailburua: Iñigo, Andres  
Arejita, Adolfo  
Salaburu, Pello
- Aholkulariak: Idazkariordea: Telleria, Pello  
Kudeatzailea: Zearreta, Juan Jose

## **2. Azkue Biblioteka Batzordea**

Burua: Arana Martija, Jose Antonio, bibliotekaria

Idazkaria: Gartzia, Prudentzio, zuzendaria

Kideak: Altonaga, Kepa  
Bilbao, Gidor  
Gartzia Trujillo, Sebastian  
Lakarra, Joseba  
Luzuriaga, Gerardo

Aholkulariak: Agirreazkuenaga, Joseba  
Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»  
Juanena, Agurtzane  
Knörr, Henrike

## **3. EKONOMIA - FUNDAZIOA Batzordea**

Burua: Lizundia, Jose Luis, diruzaina

Idazkari: Zearreta, Juan Jose, kudeatzailea

Kideak: Erdozia, Xabier  
Gartzia Trujillo, Sebastian  
Laskurain, Juan Luis  
Makua Goienetxe, Jose Mari  
Muniategi, Abel  
Saizar, Javier  
Urrutia, Andres

## **4. Informazio eta Komunikazioaren teknologiak Batzordea**

Burua: Euskaltzainburua

Idazkaria: Euskaltzaindiaren informatikaria

Arduraduna: Andoni Sagarna

Kideak: Diruzaina  
Kudeatzailea

Aholkulariak: batzordeburuak, egitasmo-zuzendariak eta lan-taldeen arduradunak, gaiaren arabera

Artola, Xabier  
Urkia, Miriam

\* \* \*

**XVI. Biltzarraren Batzorde akademiko suntsikorra**

- Burua: Urrutia, Andres (Deustuko Unibertsitatea)
- Idazkaria: Kintana, Xabier (EHU/UPV)
- Kideak: Knörr, Henrike (EHU/UPV)  
Lakarra, Joseba (EHU/UPV)  
Oihartzabal, Beñat (CNRS eta Baiona – Bordeleko Unibertsitateak)  
Peillen, Txomin  
(Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko irakasle emeritua)  
Salaberri Zaratiegi, Patxi (NUP)

**XVI. Biltzarraren antolakizun Batzorde suntsikorra**

- Burua: Lizundia, Jose Luis, diruzaina
- Idazkaria: Zearreta, Juan Jose, kudeatzailea
- Kideak: Aleman, Sagrario, Nafarroako euskaltzaina  
Iñigo, Andres, Nafarroako ordezkaria  
Okariz, Amaia, Prentsa eta Komunikazio arduraduna  
Telleria, Pello, idazkariordea

## Bilbon, 2007ko maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean

Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,  
Aurelia Arkotxa,  
Miren Azkarate (ostiralean)  
Adolfo Arejita,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo,  
Piarres Xarritton,  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien  
gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jean-Louis Da-  
vantek, ahala Txomin Peilleni; Jose Ira-

zuk ahala Andres Urrutiari; Henrike Knö-  
rrek, ahala Andres Urrutiari; P. Zabaletak,  
ahala, Andres Iñigori; Miren Azkaratek,  
etorri bitartean, Patxi Goenagari.

Batzarra arratsaldeko 17:00etan hasi da  
Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezke-  
rreko zutabearen ageri diren euskaltzainak  
bertan direla.

**1. Ahoz esateko oharra.** A. Urrutiak  
euskaltzainburuak etorriei agur egin eta  
bilera egunetako jardupidea, laburki,  
azaldu die.

**2. Aurreko akta onartzea.** A. Toledok  
egindako bi oharrekin, aurreko batzarra-  
ren akta ontzat eman da.

**3. Larunbateko eginkizunerako oha-  
rrak.** Juan Jose Zearretak larunbatean  
Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundia-  
ren jauregian Mikel Zalbide euskaltzai-  
naren sarrera-hitzaldia dela eta, egiteko  
den ekitaldiaren protokolo-egitekoak  
azaldu ditu xeheki.

**4. Euskaltzaindiaren *Iker* eta *Jagon* sailetako batzorde-organigrama onar-  
tzea.** A. Urrutiak Euskaltzaindiko batzorde, egitasmo eta lantaldeen azalpen orokorra  
eman du, horiek izendatzeko terminologia, erabilera eta osakerari buruz. P. Goenagak  
ohar bat egin du kargudunen izenen erdal baliokidetasunez, kontuan hartuko dena. P.  
Telleriak batzorde, egitasmo eta lantaldeen osaera banan-banan azaldu du. Ondoren,  
euskaltzainek egindako ohar eta galderei Euskaltzainburuak erantzun die. J. Ha-  
ritschelharren eskaria dela eta, Iparraldeko kide gehiago sartzeko, argitu zaio oso zai-  
la izan dela, orain arte ere, Iparraldeko kideak biltzea, baina, edozein kasutan, Hari-  
tschelharri horien partaidetza lortzen laguntzea beti ere eskertuko zaiola. *Iker* eta *Ja-  
gon* sailetako batzorde-organigrama ontzat eman da. (*Ikus eranskina*).

### 5. Batzordeei esku-ematearen arautzeaz

Euskaltzainburuak gaur indarrean diren Barne Erregeletako 97. artikulua irakurri  
du eta, hori garatuz, orain proposatzen diren aldaketen zergatia eta helburuak azaldu  
ditu. J. L. Lizundiak ere, bide berean, aldaketa horiek direla eta, beste hizkuntza aka-

demiek dituzten arauak gogoratu ditu, eta horiek onartzeak ekar ditzakeen prozedura-onurak ere bai. P. Salaburuk galdetu du ea batzordeari, baldintza moduan, kide osagarriren batzuk erants dakizkiokeen. Baietz erantzun zaio, osoko batzarrak hala erabakiz gero. Aurkeztu den proposamenari oharrak egiteko epea datorren ekainaren 20 artekoa izanen da.

## 6. Batzordeen lan-errendapena

P. Telleriak 2005 eta 2006. urteetan zehar batzordeek egindako lan-errendapenen informazio idatzia banatu du euskaltzainen artean.

## 7. Hizkuntza-gaiak

**7.1. Onomastika. Nafarroako izendegiaren 4. zerrenda (Zangozako merindadeko iparraldea) onartzea.** A. Iñigok azaldu duenez, zerrenda horri buruz ez da oharrik bat ere jaso. Udala ez denez gero, *Zaraitzu ibarra* barik, *Zaraitzu* utzirik, zerrenda osoa ontzat eman da.

**7.2. Onomastika. Nafarroako izendegiaren 5. zerrenda (Zangozako merindadeko hegoaldea) aurkeztea.** A. Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren aldatketak, berrikuntzak, zuzenketak eta gehitzeak azaldu ditu, batez ere *Tebas*, *galipentzutar*, *urrauldar*, *erroamantzatuar*, *Urraulbeiti*, *Urraulgoiti*, *Ledeatar*, *Petilla Aragoi* eta *Elortzibar* izenei buruzkoak. Oharrak egiteko epea ekainaren 14 artekoa izanen da.

**7.3. Hiztegi Batua. «E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *eltzari*-tik *emakidatu*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

Bilkura arratseko 20:00etan eten da.

\* \* \*

2007ko ekainaren 1ean (ostirala), goizeko 9:45ean batzarrari berriro ekin zaio.

(M. Azkaratek, etorri bitartean, bere ahala, Patxi Goenagari uzten dio; A. Arejita, etorri artean, J. L. Lizundiari).

## 8. 27 eta 28. dominetarako hautagaiak bozkatzea

27. domina-hutsarterako Sagrario Aleman andrea da hautagaia, Andres Iñigo, Patxi Salaberri eta Patxi Zabaleta euskaltzainek aurkeztua. Bozketaren emaitza: alde,18; zuri, 2. Hautaturik gelditu da.

28. domina-hutsarterako Joseba Lakarra jauna da hautagaia, J. A. Arana Martija, J. L. Lizundia eta X. Kintana euskaltzainek aurkeztua. Bozketaren emaitza: alde,19; zuri, 1. Hautaturik gelditu da.

**9. Hiztegi Batua (segida). «E letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren eta, berorren absentsiaz, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *emakume apaiz*-etik *enkargu*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

## 10. Esku artekoak

Euskaltzainburuak ondokoen berri eman du:

- 2007ko bigarren urte-erdiko batzar egutegia, P. Telleriak azaldua. Horren araberaren, uztaile eta urriko bilkurak Donostian egingen dira. Irailekoa eta azarokoa, aldiz, Bilbon eta abendukoa Lapurdin.
- Hilberria. *Jose Manuel Lasarte Mugiro* euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri eman da. Horren hilberri-txostena P. Zabaleta euskaltzainak egingen du.
- Literatur lehiaketarako epaimahaikidea. Iruñeko Udalak urtero gazteentzat antolatzen duen literatura lehiaketarako epaimahaikide Paskual Rekalde izendatzea erabaki da.
- Azkenik, euskaltzainen artean *Euskaltzaindiaren 2006ko Oroitidazkia* banatu da.

Batzarra 14:10ean amaitu da

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria



## AGERIKO BILKURA

*Donostian, 2007ko ekainaren 2an.*

Ekainaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiko *Jargi* aretoan, ageriko bilkura egin du Akademiak, goizeko 11:00etatik 13:00etara, Mikel Zalbide Elustondo euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia gauzatzeko. Patxi Altuna zenaren lekua beteko du Zalbidek Euskaltzaindian.

Bildu dira:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, burordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Joseba Lakarra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Jose Antonio Arana Martija, Jose Irazu «Bernardo Atxaga» eta Emile Larrek.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Joseba Intxausti eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi dute Pello Apezetxea, Xabier Gereño eta Patxi Oroz Arizkurenek.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Dorleta Alberdi, Dionisio Amundarain, Luis Alberto Aranberri «Amatiño», Antton Aranburu, Xabier Aranburu, Pakita Arregi, Xabier Artola, Mikel Atxaga, Ricardo Badiola, Xabier Erdozia, Pello Esnal, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Iñaki Irazabalbeitia, Jose Mari Iriondo, Jazinto Iturbe, Odile Kruzeta, Maria Pilar Lasarte, Alfontso Mujika, Jose Antonio Mujika, Lourdes Oñederra, Lourdes Otaegi, Elisabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Pello Telleria, Miriam Urkia, Juan Jose Zearreta eta Joxe Ramon Zubimendi. Ezin etorria adierazi dute Jon Casenave, Jose Mari Etxebarria eta Juan Mari Torrealdaiak.
- Roberto Gonzalez de Viñaspre, Elizabete Kruzeta, Ane Miren Loidi eta Erramun Osa batzordekideak.
- Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko langileak.

Ekitaldiaren hasieran, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregelek euskaltzainen sarrera-hitzaldiaz diotena irakurri du, ekitaldiaren atal nagusien berri emanez. Ondoren, Juan Jose Zearreta kudeatzaileak ospakizunaren xehetasunak eman ditu eta parte hartuko dutenen aurkezpena egin.

Sarrera-ekitaldiaren egitaraua betez, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako Diputatu Nagisiaren *ongietorria* eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren *agurra* entzun dituzte bertaratutakoek. Euskaltzainburuak esan duenez, «arlo askotan saiatu da Mikel Zalbide urte luzeetan zehar, euskalgintzan eta Euskaltzaindian. Ezin, hortaz, den-denak aipatu. Bi, alabaina, ezin bazterrean utz. Lehena, hiztegitzinta eta LEF Batzordea, eragin eta ondorio zabalekoak euskara batuan. Bigarrena, aldiz, *Jagon* Saitetik letorke, horretan Mikel Zalbidek ondutako lana gidari izan baita azken hamabost urteetan Euskaltzaindiaren barruan».

Andres Urrutiaren ostean, Joxe Joan Gonzalez Txabarrik hartu du hitza eta Gipuzkoako Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren arteko harreman luzea ekarri du gogora:

areto honetan egin zuen Euskaltzaindiak batzar eratzailea eta bertan aukeratu Resurreccion Maria Azkue lehen euskaltzainburu eta Luis Eleizalde idazkari, lagun zituztela Julio Urkixo eta Arturo Kanpion lehen euskaltzainak. Gela honetantxe izendatu zituzten Eguzkiza, Inzagaray, Landetxe, Lhande eta Olabide jaunak euskaltzain; baita Schuchardt, Vinson eta Uhlenbeck ere ohorezko euskaltzain. Eta bertan aukeratu zituen lehen berrogeita lau euskaltzain urgazleak». Harreman luzea, esan bezala, «elkarren arteko begirunean eta errespetuan oinarritua. Erakundetik erakundera.

Patxi Salaberri eta Ana Toledo euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Mikel Zalbide sarrera-hitzaldia irakurtzeko.

### **Mikel Zalbide:**

#### ***Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan***

Patxi Altuna zena ekarri du gogora euskaltzain berriak eta pedagogo bezala goraiatu du Azpeitiko euskaltzaina. Ondoren, Agustin Iturriaga (Hernani, 1778-1851) izan da euskaltzain berriaren hitzaldiaren hizpide. Euskararen normalizazioaren aitzindaritzaz zor zaio Iturriagari Mikel Zalbideren ustez. Izan ere, haren garaiko Gipuzkoan jende gehienak euskara jakin eta erabiltzen bazuen ere, geroan etorriko ziren arazoak aurreikusituz zituen. Horregatik, bere lan pedagogikoaren helburu nagusia zen «euskaraz eta gaztelaniaz ondo egiten jakitea, ahoz eta idatziz». Ezinbesteko baldintza ikusten zuen ordurako, «hizkuntza ahula bizirik aterako bazen».

Iturriaga prestaeraz eta lanbidez apaiz, formazio zabalekoa eta, pentsaeraz ilustratuen oinordeko zen. Ezaugarri hori behin eta berririo nabarmendu du Zalbidek mintzaldian, Iturriagaren lana diskurtso sendo baten inguruan eraiki baitzen. Europan zehar barreiatzen ari ziren korrante liberalen jarraitzaile zelarik, «gizartea aurrera zihoala, eta ezinbestean aurrera jarraitu beharko zuela sinesten zuen». Eta testuinguru zabal horretan, euskarak lekurik bazuela uste zuen:

jatortasun etnokulturala eta gizarte berria, euskara, gaztelania eta, halako neurri batean, Europako hizkuntza handiak, elkarren eskutik eraman nahi zituen.

Apaiz ikasketak Oñatiko Unibertsitatean burutu, eta 1805ean Hernanira itzuli zen, Parrokiako benefiziadun izendatu zutelarik. 1818an, ikastetxea zabaldu zuen eta fama handia lortu, Gipuzkoa osotik eta Nafarroatik ere ikasleak etortzen zitzaizkion. Esko-

la berritzailea zen: zigorra debekatua zegoen, ikasgai osagarriak eskaintzen ziren eta, Zalbidek adierazi bezala,

beren kultur giro osoan txertatuz erakusten ziren hizkuntzak.

Esperientzia ez zen alperrekoa izan, eta 1820 eta 1823 arteko aldi liberalean lanean jardun zuen probintziako agintaritzaren enkarguz, ikasmaterial egokiak sortzen, absolutismoaren berrezartzeaz batera bere ekin guztiak bertan behera geratu baziren ere; are gehiago, irakasle-lanean jardutea debekatu zioten, betirako debekatu ere.

Halako ardurak eragotzita, baina, Iturriaga ez zen geldirik egon eta bere burua euskara aldetik janzten hasi zen. Zalbideren esanetan:

erraz eta jator hitz egiten zuen Agustinek, baina ez zen euskaraz idazteko gai». Alfa-betazten hasi zen. Laster hasiko zen berriro lanean, gainera, 1830ean Gipuzkoako Batzar Nagusiek deitu egin baitzuten Sustapen-batzordera, euskara gainbehera zetorrela eta. Egin zioten eskaera ez zen txikia, euskara indarberritzeko plan bat eratzea, hain zuzen ere. Mikel Zalbidek azpimarratu duenez, «hau da lehenengo aldia, dakigularik, Gipuzkoako goi-agintariek euskararen aldeko hizkuntza-politika esplizitu eta orokorra egitea erabaki zutena. Hizkuntza-politikakazko erabaki asko harturik ziren aurreko mendeetan, partzialak eta implizituak gehienetan. Oraingoan, ordea, euskararen *aldeko* politika egin nahi zen, batetik, eta politika orokorra bestetik: euskara bizirik ateratzeko eta ilustratzeko neurriak planteatzea eskatzen zitzaion Sustapen-batzordeari. Euskararen bizia arriskuan zegoela onartu zen beraz, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Euskararen gizarte-dimentsioa garrantzizko gai bihurturik agertu zen, lehenengo aldiz, Probintziako herri-agintearen organo gorenean. Ez dago kontantziarik, halakorik egin izanaz 1830a aurretik, eta ez dirudi horren pareko erabaki zabalik berriro hartu zenik XIX. mende osoan ere.

Beraz, euskara indarberritzeko lehen euskara-plan ofiziala prestatu zuen Iturriagak eta landu zuen proposamenak «eskola-elebitasuna izan zuen helburu. Ez nolana hiko elebitasuna, *elebitasun bete*a baizik. Plana aurrera aterako bazen, eskola-elebitasun *beterako* material sorta zabala beharra zegoen». Lanari ekin zion, beraz, euskara kontuan maisu zuen Juan Inazio Iztuetaekin batera:

euskara bizirik gordetzea –laburbildu du Zalbidek– eta gizarte-bizitzan goi-mailako funtzioetara (funtzio zabatueta bederen) zabaltzen laguntzea: hori zuen xede Agustin Iturriagak. Gizarte modu berrirako beharrezkoak iruditzen zitzaizkion alorretan egin nahi zuen, bereziki, aurrera: etxetik euskaldun ziren neska-mutilak euskaraz alfabetatu beharra zegoen, lehenik eta behin; oinarriko formaziorako lehengaiak ere, horren osagarri, neska-mutil horiek euskaraz eta gaztelaniaz jasotzea komeni zen. Azkenik, euskal literatura jaso eta landurako oinarriak jartzea ikusten zuen beharrezko.

Horra Iturriagaren testamentua, horra bere xede: errealitateari bizkar ez ematea eta aurrera begirako ikuspegia sendotzea. Mikel Zalbideren esanetan, «lehendik zetorren kate luze baten adierazle dugu bera, eta ondorengoak ere ugari izan ditu gure artean». Herri baten adierazle.

### **Henrike Knörr: *zerbitzari eta eragile zabala***

Henrike Knörr Euskaltzaindiaren *Iker* sailburuak prestatu du Mikel Zalbide euskaltzain berriaren erantzun-hitzaldia. Xabier Kintanak irakurri du.

Mikel Zalbide ingeniari eta 1983az gero euskaltzain urgazlearen urteetako lana nabarmendu du Knörrek. Giltza izan da, Knörren ustez, Zalbide Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean, irakaskuntza, euskararen ofizialtasunak sortu dituen premia berrietara egokitzeke.

Zalbide ikertzailea ere goraiatu du hizlariak, eta oroitarazi ditu euskararen batasunari begira Hendaian eta Hondarribian XX. mendearen hasieran egin ziren biltzarrez Zalbidek argitaratu zuen artikulua, edo Lardizabal gramatikalariak eta Iturriaga idazleaz egin ikerketak.

Hitzaldiaren azken aldean kezkatu agertu da Henrike Knörr, ikusirik nola Akademiaren arauak ez diren behar adina betetzen, eta aipatu ditu, besteak beste, zentzuga-beko ebakerak, *Biriatú*, adibidez, edo *Eusko Label* izena, aspaldi duelarik Euskaltzaindiak erabaki *sor-marka* hitza «label» edo «dénomination d'origine» delakoaren ordaintzat.

Dei bat egin du bukaeran Knörrek, «ezjakintasunaren tsunamiari» aurre egiteko, eta adibide bat jarri du: Fakultateetara sartzen diren ikasle askori guztiz arrotz zaizkie Iparragirre, Villasante edo Guridiren izenak.

\* \* \*

Ekitaldiaren amaieran, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duen diploma eta hamazazpigarren zenbakia duen domina eman dizkio. Domina hau izan duten aurretiko euskaltzainak hauek dira: Jose Maria Lojendio eta Patxi Altuna. Ondoren, euskaltzainak hurbildu eta banan-banan euskaltzain berria zorriondu dute.

Ekitaldia eguerdiko 13:00etan bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Donostian, 2007ko ekainaren 29an

Andres Urrutia euskaltzainburua  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Henrike Knörr, Iker saiburua,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Aurelia Arkotxa,  
Adolfo Arejita,  
Jean-Louis Davant,  
Jean Haritschelhar,  
Jose Irazu «Bernardo Atxaga»  
Txomin Peillen,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ibon Sarasola,  
Ana Toledo,  
Piarres Xarritton,  
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-  
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien  
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkara-  
tek, ahala P. Goenagari; P. Goenagak,  
ahala B. Oihartzabali; Joseba Irazuk, ba-  
tzarrean izan ez den bitartean, ahala A.  
Urrutiari; Henrike Knörrek, etorri bitar-  
tean, ahala A. Urrutiari; Joseba Lakarrak,  
ahala Euskaltzainburuari; P. Zabaletak,  
ahala, Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donos-  
tian, Gipuzkoako Foru-Diputazioaren  
Jauregiko Batzar aretoan, ezkerreko zu-  
tabean ageri diren euskaltzainak bertan  
direla.

**1. Ahoz esateko oharra.** A. Urrutiak  
batzarrera etorri diren euskaltzainei agur  
egin eta bilkuraren jardupidea, laburki  
azaldu du.

**2. Aurreko akta onartzea.** Aurreko ba-  
tzarraren akta ontzat eman da.

**3. Barne erregelen 97. artikulua al-  
daketa.** Oharrik ez da heldu eta, beraz,  
testua ontzat ematen da.

### 4. Ordezkarien izendatzea.

Zuzendaritzan erabakiaren arabera, ondokoak proposatzen dira:

– **Gipuzkoako ordezkaria:** Ana Toledo

– **Arabako ordezkaria:** Henrike Knörr.

• **Ordezkariordea:** Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

– **Nafarroako ordezkaria:** Andres Iñigo.

– **Iparraldeko ordezkaria:** Beñat Oihartzabal.

• **Baionako bulegoaren arduraduna:** Piarres Xarritton.

Guztiak ontzat eman dira.

J. Haritschelharrek Iparraldeko ordezkari-arduradunen izendapenez bere adostasuna agertu ondoren, Euskaltzainburuordearen figura 1966an sortu zela gogoratu du, Frantzia beste estatu bat izanez, harekiko harremanetarako egoki baita figura hori ere egotea.

P. Xarritonek P. Lafitte-ren eskuizkribuen egoeraren berri eman du eta «D» Hizkuntza Gaitasun Agiriari buruzko problemak ere azaldu ditu.

**5. Egiturazko batzorde organigrama onartzea.** Euskaltzainburuak batzordeetan izandako berrespen, aldaketa eta gehitzeak, euskaltzainen artean paperean banatuak, xeheki azaldu ditu. Ontzat eman da. (*Ikus eranskina*).

## 6. Hizkuntza-gaiak

**6.1. Onomastika. Nafarroako izendegia: 5. zerrenda (Zangozako merindadeko hegoaldea) onartzea.** A. Iñigok aurreko bilkuran aurkezturiko lanari inork oharrik ez diola egin azaldu du. Beraz, zerrenda ontzat eman da.

**6.2. Onomastika. Nafarroako izendegia: 6. zerrenda (Lizarrako merindadeko iparralde) aurkeztea.** A. Iñigok zerrenda hori aurkeztu eta hor ageri diren aldaketak, berrikuntzak, zuzenketak eta gehitzeak azaldu ditu, batez ere *Ameskoa Larragoa*, *Arroitz*, *Lukin* izenei buruzkoak. Oharrak egiteko epea uztailaren 16ra artekoa izanen da.

**6.3. Hiztegi Batua. «E» letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea.** P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *enkarnatu-tik enterru / entierro*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

## 7. Azken ordukoak

Euskaltzainburuak ondokoak azaldu ditu:

**Hurrengo batzarra** uztailaren 20an Egoitzan izango da; hor 2008ko aurrekontuak eztabaidatuko dira.

**Sinatu diren hitzarmenen** berri ere eman du: Euskaltzaindiaren Hiztegia, Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) eta Gasteizko Toponimia.

**J. Haritschelharren eskari-proposamena:** Azkainen uholdeak kalte handiak egin dituela eta, Euskaltzaindiak kaltetuekiko atxikimendua erakusteko, Azkaingo eskola publikoari Azkue sarietan argitaratu diren liburuak oparitzea proposatu du Jean Haritschelharrek. Ontzat eman da horrela egitea.

**Suzuko Tamura ohorezko euskaltzaina** egunotan Euskal Herrian zehar bisitan dabilela eta, Euskaltzaindiko bilkuraren amaieran harrera eta ongi etorria eman zaio.

Bukaeran Gipuzkoako Foru Diputazioaren opariz, Arantzazuko santutegiko argazki-liburu bana eman zaie euskaltzainei. Era berean Mikel Zalbideren sarrera-hitzaldiko bina argazki ere bai.

Batzarra eguerdiko 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## **EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK**

## MUNDUKO ESTATU-IZENAK, HERRITARREN IZENAK, HIZKUNTZA OFIZIALAK ETA HIRIBURUAK<sup>1</sup>

### Arau zuzendua eta eguneratua

#### ATARIKOA

1995eko uztailaren 28an onartu zuen Euskaltzaindiak munduko estatuen zerrenda: 38. araua izan zen. Geroago, 1999ko maiatzaren 28an eta uztailaren 23an, 53. araua onartu zuen: munduko estatuetako hizkuntza ofizialak. Hizkuntza ofizialen zerrenda estatuen zerrendari erantsita osatu zen 38. araua.

Hamabi urte igaro dira munduko estatuen izenak arautu zirenetik, eta zortzi urte joan dira hizkuntza ofizialak erantsi zirenetik. Arauok argitaratuz geroztik, hainbat aldaketa izan dira munduan: estatuak sortu dira (*Ekialdeko Timor, Serbia, Montenegro*) edo desagertu (*Jugoslavia*); estatuen izen ofizialetan, aldaketak gertatu dira (adibidez, Fiji estatuaren izen ofiziala *Fijiko Errepublika Burujabe Demokratikoa* zen lehen; orain, berriz, *Fiji Uharteetako Errepublika*); estatu-hiriburuetan, beste hainbeste (adibidez, Palauko hiriburua *Koror* zen, baina, gaur egun, *Melekeok* da); hizkuntza ofizialetan ere, aldaketak gertatu dira (adibidez, Mazedonian, *albaniera* ere hizkuntza ofiziala da orain; Iraken, *asiriera* eta *turkomanera* ere ofizialak dira). Bestalde, 55. araua argitaratu zenean, ezinezkoa izan zen Errusiako hizkuntza ofizialen datu fidagarriak lortzea, egoera politikoaren nahasiagatik.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da orduko araua eguneratzea, gaur egungo datuak emateko, orduan ezin eman izan ziren datuak emateko, eta, bide batez, huts batzuk zuzentzeko. Azkenik, zerrendak aurkezteko era ere aldatu da, erabilgarriagoa izan dadin.

#### Oharrak:

1. Izen laburtua (*Venezuela*) eta ofiziala (*Venezuelako Bolibartar Errepublika*) ematen dira.
2. Batzuetan, bi aukera uzten dira: *Irlanda/Eire*, nahi dena erabil dadin.
3. Estatu ez izanagatik, hona garrantzi handiko beste bi izen:
  - *Europar Batasuna* (es: *Unión Europea*; fr: *Union européenne*) (Euskaltzaindiak, Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an onartua)
  - *Estatu Burujabeen Erkidegoa (EBE)* (es: *Comunidad de Estados Independientes [CEI]*; fr: *Communauté des États indépendants [CEI]*)
4. Zenbaitetan, estatu batzuetako herritarrak izendatzeko, sasisinonimoak erabiltzen dira. Hala, behin baino gehiagotan entzuten edo irakurtzen da *judu* hitza Israel estatuko herritarrak izendatzeko; *azteka* hitza, Mexikoko herritarrak izendatzeko; *ingeles* hitza, Erresuma Batuko herritarrak izendatzeko...

Izendapen horiek ez dira zuzenak, ez zehatzak. Ez da komeni historia aldatzea, ezta etnia-izenak eta herritar-izenak nahastea ere. Israel estatuko herritarrak *israeldarrak* dira; batzuk *juduak*, eta besteak

<sup>1</sup> Euskaltzaindiak, Bilbon 1995eko uztailaren 28an onarturiko testuaren ordez, Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an, eta Donostian, 1999ko uztailaren 23an, testu berria onartu zuen. Bigarren testu horren ordez, berri hau onartu du Euskaltzaindiak Donostian, 2007ko martxoaren 30ean.



*arabiar* (musulmanak eta kristauak). Mexiko estatuko herritarrak *mexikarrak* dira. *Aztekak* Mesoamerikako herri batzuk izendatzeko hitza da; gaur egungo Mexiko estatuko erdialdean bakarrik bizi izan zirenak izendatzeko, hain zuzen. Erresuma Batuko herritarrak *britainiarrak* dira; batzuk *ingelesak*, beste batzuk *eskoziarrak*, edo *galestarrak*, edo *ulstertarrak*. Orokortze horiek egitea *frantsesak* izendatzeko *galiar* hitza erabiltzea edo *espainolak* izendatzeko *iberiar* edo *gaztelau* hitzak erabiltzea bezain zehaztugabetzat jo behar da. Testuinguru berezietan edo egokiera berezietan lizentzia onargarritzat har badaitezke ere, ez dira zehatzak eta ez dira gomendatzekoak. Adibidez:

- *azeriar* etnia-izena da. Azeriar asko azerbaijandarrak dira, baina beste asko irandarrak dira.
- *uzbeko* etnia-izena da. Uzbekistanen bizi dira gehienak, baina Afganistanen, Tajikistanen, Kirgizistanen, Turkmenistanen edo Kazakhstanen ere uzbeko asko bizi dira.
- *mongol* etnia-izena da. Mongol asko mongoliarrak dira, baina mongol asko bizi dira Txinan (Barne Mongoliako Eskualde Autonomoan) eta Errusian ere (Buriatiako Errepublikan Autonomoan).
- *magyar* etnia-izena da. Magyar gehienak hungariarrak dira, baina badira magyar asko beste estatu batzuetan ere, hala nola Errumanian, Eslovakian edo Serbian.

Beste hainbeste esan daiteke *turko/turkiar* eta beste «etnia-izen / herritar-izen» bikote askori buruz ere.

*Heleniar*, *lusitaniar* eta *galiar* izenen erreferenteak, adibidez, Antzinateko Grezia, Lusitania eta Galia izeneko eskualdeak dira (adibidez, Lusitaniako hiriburua egungo Extremadurako hiriburua da: Mérida –Emerita Augusta–). Herritar-izen horiek, beraz, ez dira egokiak, ezta zehatzak ere, behialako eskualde horiek zeuden tokian –gutxi gorabehera– gaur egun diren Grezia, Portugal eta Frantzia izeneko estatuetao herritarrak izendatzeko.

### I. Munduko estatuak euskaraz

Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala	Herritarren jende-izena	Hizkuntza ofiziala(k)	Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena
Afganistan, <i>Afganistango Estatu Islamiarra</i>	afganistandar / afganiar	paxtuera, persiera	Kabul; kabuldar
Afrika Erdiko Errepublika	afrikaerditar	frantses (ofiziala), sango (hizkuntza nagusia)	Bangi; bangiar
Albania, <i>Albaniako Errepublika</i>	albaniar	albaniera	Tirana; tiranar
Alemania, <i>Alemaniko Errepublika Federala</i>	alemaniar / aleman	aleman	Berlin; berlindar
Aljeria, <i>Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa</i>	aljeriar	arabiera	Aljer; aljertar
Ameriketako Estatu Batuak, AEB	estatubatuar	ez dago hizkuntza ofizialik, baina ingelesa da, <i>de facto</i> , hizkuntza ofiziala	Washington; washingtondar
Andorra, <i>Andorrrako Printzerria</i>	andorrtar	katalan	Andorra la Vella; andorrtar
Angola, <i>Angolako Errepublika</i>	angolar	portuges	Luanda; luandar
Antigua eta Barbuda	antiguar	ingeles	Saint John's; saintjohnstar
Arabiar Emirerri Batuak	emirerribatuar	arabiera	Abu Dhabi; abudhabiar

*Munduko estatu-izenak, herritarren...*

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburu; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Argentina, <i>Argentinako Errepublika</i>	argentinarrak	gaztelania	Buenos Aires; buenosairestar
Armenia, <i>Armeniako Errepublika</i>	armeniar	armeniera	Erevan; erevandar
Australia, <i>Austrialiako Commonwealth</i>	australiarrak	ez dago hizkuntza ofizialik, baina ingelesa da, <i>de facto</i> , hizkuntza ofiziala	Canberra; canberrarrak
Austria, <i>Austriako Errepublika</i>	austriar	aleman (ofiziala estatu osoan); esloveniera (ofiziala Karintian); kroaziera eta hungariera (ofizialak Burgenlanden)	Viena; vienarrak
Azerbaijan, <i>Azerbaijango Errepublika</i>	azerbajandar	azerbajjanera	Baku; bakutar
Bahamak, <i>Bahametako Commonwealth</i>	bahamar	ingeles	Nassau; nassautarrak
Bahrain, <i>Bahraingo Erresuma</i>	bahraindar	arabiera	Manama; manamarrak
Bangladesh, <i>Bangladeshko Herri Errepublika</i>	bangladeshtar	bengalera	Dhaka; dhakatar
Barbados	barbadostar	ingeles	Bridgetown; bridgetowndarrak
Belgika, <i>Belgikako Erresuma</i>	belgikarrak	aleman (Eupen eta Saint-Vith kantonamenduetan), frantses, nederlandera	Brusela; bruselarrak
Belize	belizetar	ingeles	Belmopan; belmopandarrak
Benin, <i>Beningo Errepublika</i>	benindarrak	frantses	Porto Novo; portonovotarrak
Bhutan, <i>Bhutango Erresuma</i>	bhutandar	dzongkha	Thimphu; thimphutarrak
Bielorrusia, <i>Bielorruasiako Errepublika</i>	bielorrusiar	bielorrusiera, errusiera	Minsk; minskarrak
Boli Kosta, <i>Boli Kostako Errepublika</i>	bolikostarrak	frantses	Abidjan (hiriburu administratiboa); abidjandar Jamusukro (hiriburu ofiziala); jamusukrotarrak
Bolivia, <i>Boliviako Errepublika</i>	boliviarrak	aimara, gaztelania, kitxua	La Paz (hiriburu administratiboa); lapaztar Sucre (hiriburu konstituzionala); sucretarrak
Bosnia-Herzegovina, <i>Bosnia eta Herzegovina</i>	bosniarrak	bosniera, kroaziera, serbiera (berez hizkuntza bakarra izan arren –serbokroaziera–, ofizialki hiru hizkuntza gisa –bosniera, kroaziera, serbiera– izendatzen da)	Sarajevo; sarajevoarrak

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Botswana, <i>Botswanako Errepublika</i>	botswanar	ingeles (ofiziala), tswanera (hizkuntza nagusia)	Gaborone; gaboronetar
Brasil, <i>Brasilgo Errepublika Federala</i>	brasildar	portuges	Brasilia; brasiliar
Brunei, <i>Bruneiko Estatua, Bakearen Egoitza (Negara Brunei Darussalam)</i>	bruneitar	ingeles, malaysiera	Bandar Seri Begawan; begawandar
Bulgaria, <i>Bulgariako Errepublika</i>	bulgariar	bulgariera	Sofia; sofiar
Burkina Faso	burkinafasoar	frantses	Uagadugu; uagadugutar
Burundi, <i>Burundiko Errepublika</i>	burundiar	frantses, kirundi	Bujumbura; bujumburar
Cabo Verde, <i>Cabo Verdeko Errepublika</i>	caboverdetar	portuges	Praia; praiatar
Costa Rica, <i>Costa Ricako Errepublika</i>	costarricar	gaztelania	San Jose; sanjosetar
Danimarka, <i>Danimarkako Erresuma</i>	danimarkar / daniar	daniara; Groenlandian groenlandiera eta Faroe uhartetan faroera ofizialak dira	Kopenhage; kopenhagetar
Djibuti, <i>Djibutiko Errepublika</i>	djibutiar	arabiera, frantses	Djibuti; djibutiar
Dominika, <i>Dominikako Commonwealth</i>	dominikar	ingeles	Roseau; roseautar
Dominikar Errepublika	dominikar	gaztelania	Santo Domingo; santodomingoar
Egipto, <i>Egiptoko Arabiar Errepublika</i>	egiptoar	arabiera	Kairo; kairotar
Eire / Irlanda	eiretar / irlandar	Irlandako gaeliko / irlandera; ingeles	Dublin; dublindar
Ekialdeko Timor, <i>Ekialdeko Timorko Errepublika Demokratikoa</i>	timortar	portuges, tetum	Dili; diliar
Ekvador, <i>Ekvadoro Errepublika</i>	ekvadorar	gaztelania, kitxua, shuarera	Quito; quitoar
Ekvatore Ginea, <i>Ekvatore Gineako Errepublika</i>	ginear / ekvatoreginear	gaztelania, frantses	Malabo; malaboar
El Salvador, <i>El Salvadoro Errepublika</i>	salvadorar	gaztelania	San Salvador; sansalvadorar
Eritrea, <i>Eritreako Estatua</i>	eritrear	ez dago hizkuntza ofizialik	Asmara; asmarar

*Munduko estatu-izenak, herritarren...*

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Erresuma Batua, <i>Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua</i>	britainiar	ingeles ( <i>de facto</i> hizkuntza ofiziala); Galesen galesa eta Eskozian Eskoziako gaelikoa hizkuntza ofizialak dira	Londres; londrestar
Errumania	errumaniar	errumaniera	Bukarest; bukarestar
Errusia, <i>Errusiar Federakundea</i>	errusiar	<i>errusiera; gainerako hizkuntza ofizialak</i> (parentesi artean adierazten da hizkuntza non den ofiziala): abazera, karatxaiera, txerkesera (Karatxai-Txerkesia) adigera (Adigea) altaiera (Altai) baxkirera (Baxkortostan/Baxkiria) buriatera (Buriatia) dolganera (Taimiria) erziera eta mokxera (Mordovia) evenkera (Evenkia) inguxera (Inguxetia) kabardera eta balkarera (Kabardino-Balkaria) kalmukera (Kalmukia) khakasera (Khakasia) khantiera eta mansiera (Khanti-Mansi) komiera (Komi) koriakera (Koriakia) mariera (Mari El) nenetsera (Nenetsia) osetiera (Ipar Osetia-Alania) sakhera/jakutera (Sakha/Jakutia) tatarera (Tatarstan/Tartaria) tuvera (Tuva) txetxenera (Txetxenia) txuktxiera (Txukotka) txuvaxera (Txuvaxia) udmurtera (Udmurtia) yiddish (Juduen Lurralde Autonomoa)	Mosku; moskutar
Eslovakia, <i>Eslovakiar Errepublika</i>	eslovakiar	eslovakiera	Bratislava; bratislavar
Eslovenia, <i>Esloveniako Errepublika</i>	esloveniari	esloveniera	Ljubljana; ljubljanar
Espainia, <i>Espainiako Erresuma</i>	espainiar / español	espainiera / gaztelania; Galizian galiziera, Hego Euskal Herrian euskara eta Herrialde Katalanetan katalana hizkuntza ofizialak dira. Valentziako Erkidegoan katalanari, ofizialki, valentziera deritzen. Aran Haranean, okzitaniararen aldaera den aranera ofiziala da	Madril; madrildar
Estonia, <i>Estoniako Errepublika</i>	estoniar	estoniera	Tallinn; tallimndar
Etiopia, <i>Etiopiako Errepublika Demokratiko Federala</i>	etiopiar	ez dago hizkuntza ofizialik, baina amharera da, <i>de facto</i> , hizkuntza ofiziala	Addis Abeba; addisabebarr
Fiji, <i>Fiji Uharteetako Errepublika</i>	fijiar	ingeles, fijiera, hindustanera	Suva; suvatar

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Filipinak, <i>Filipinetako Errepublika</i>	filipinar	ingeles, filipinera (tagalo hizkuntzaren aldaera estandarizatua da)	Manila; manilar
Finlandia/Suomi, <i>Finlandiako Errepublika / Suomiko Errepublika</i>	finlandiar / suomitar	finlandiera / suomiera, suediera	Helsinki; helsinkiar
Frantzia, <i>Frantziako Errepublika</i>	frantses / frantziar	frantses	Paris; paristar
Gabon, <i>Gabondar Errepublika</i>	gabondar	frantses	Libreville; librevilletar
Gambia, <i>Gambiako Errepublika</i>	gambiar	ingeles	Banjul; banjuldar
Georgia	georgiar <sup>2</sup>	georgiera, abkhaziera (ofiziala Abkhaziako Errepublika Autonomoan)	Tbilisi; tbilistar
Ghana, <i>Ghanako Errepublika</i>	ghanatar	ingeles	Akkra; akkratar
Ginea, <i>Gineako Errepublika</i>	ginear	frantses	Konakry; konakriar
Ginea Bissau, <i>Ginea Bissauko Errepublika</i>	ginear / gineabissautar	portuges	Bissau; bissautar
Grenada	grenadar	ingeles	Saint Georges; saintgeorgestar
Grezia, <i>Heleniar Errepublika</i>	greko, greziar	greko / greziera	Atenas; atenastar
Guatemala, <i>Guatemalako Errepublika</i>	guatemalar	gaztelania	Guatemalako Hiria; guatemalar
Guyana, <i>Guyanako Errepublika Kooperatiboa</i>	guyanar	ingeles	Georgetown; georgetowndar
Haiti, <i>Haitiko Errepublika</i>	haitiar	frantses, Haitiko kreolera	Port-au-Prince; portauprincetar
Hegoafrika, <i>Hegoafrikako Errepublika</i>	hegoafrikar	afrikaans, ingeles, ndebelera, pediera, sothoera, swaziera, tsongera, tswanera, vendera, xhosea, zuluera	Pretoria (administratiboa); pretoriar Bloemfontein (judiziala); bloemfonteindar Lurmutur Hiria (Parlamentuaren egoitza); lurmuturtar
Hego Korea, <i>Koreako Errepublika</i>	korear	koreera	Seul; seuldar
Herbehereak, <i>Herbehereetako Erresuma</i>	herbeheretar / nederlandar	nederlandera, frisiera (Frisian)	Amsterdam; amsterdamdar
Honduras, <i>Hondurasko Errepublika</i>	hondurastar	gaztelania	Tegucigalpa; tegucigalpar

<sup>2</sup> Kartveliar ere onartzen da.

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburu; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Hungaria, <i>Hungariako Errepublika</i>	hungariar	hungariera	Budapest; budapestar
India, <i>Indiako Errepublika</i>	indiar	assamera, bengalera, bodoera, dograera/dogri, gujaratera, hindi, ingeles, kannada, kaxmirera, konkanera, maithili, malabarera, manipurera, marathera, nepalera, oriya, punjabera, sanskritoa, santalera, sindhi, tamilera, telugu, urdu	New Delhi; newdelhiar
Indonesia, <i>Indonesiako Errepublika</i>	indonesiar	indonesiera	Jakarta; jakartar
Ipar Korea, <i>Koreako Herri Errepublika Demokratikoa</i>	korear	koreera	Piongiang; piongiangdar
Irak, <i>Irakeko Errepublika</i>	irakiar	arabiera, kurduera, asiriera, turkomanera	Bagdad; bagdadar
Iran, <i>Irango Islamiar Errepublika</i>	irandar	persiera	Teheran; teherandar
Irlanda / Eire	irlandar / eiretar	irlandera, ingeles	Dublin; dublindar
Islandia, <i>Islandiako Errepublika</i>	islandiar	islandiera	Reykjavik; reykjavikar
Israel, <i>Israelgo Estatu</i>	israeldar	arabiera, hebreera	Jerusalem; jerusalemdar
Italia, <i>Italiako Errepublika</i>	italiar	italiera; Hego Tirolen alemana eta Val d'Aostan frantsesa hizkuntza ofizialak dira	Erroma; erromatar
Jamaika	jamaikar	ingeles	Kingston; kingstondar
Japonia	japoniar <sup>3</sup>	japoniera	Tokio; tokiotar
Jordania, <i>Jordaniako Haxemi Erresuma</i>	jordaniar	arabiera	Amman; ammandar
Kamerun, <i>Kamerungo Errepublika</i>	kamerundar	frantses, ingeles	Jaunde; jaundetar
Kanada	kanadar	frantses, ingeles	Ottawa; ottawar
Kanbodia, <i>Kanbodiako Erresuma</i>	kanbodiar	khmerera	Phnom Penh; phnompenhdar
Kazakhstan, <i>Kazakhstango Errepublika</i>	kazakhstandar	errusiera, kazakhera	Astana; astanar
Kenya, <i>Kenyako Errepublika</i>	kenyar	ingeles, swahili	Nairobi; nairobiar
Kirgizistan/Kirgizia, <i>Kirgizistango Errepublika</i>	kirgizistandar	errusiera, kirgizera	Bishkek; bishkekar

<sup>3</sup> Nipondar ere onartzen da.

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Kiribati, <i>Kiribatiko Errepublika</i>	kiribatiar	ez dago hizkuntza ofizialik, baina, <i>de facto</i> , ingele- sa eta kiribatiera dira ofizialak	Hego Tarawa; tarawar
Kolonbia, <i>Kolonbiako Errepublika</i>	kolonbiar	gaztelania	Bogota; bogotar
Komoreak, <i>Komoreetako Batasuna</i>	komoretar	arabiera, frantses, komoreera	Moroni; moroniar
Kongo, <i>Kongoko Errepublika</i>	kongoar	frantses, lingala, kituba (munukutuba)	Brazzaville; brazzavilletar
Kongo, <i>Kongoko Errepublika Demokratikoa</i> (lehen, Zaire)	kongoar	frantses (ofiziala); kikongo, lingala, swahili, tshilu- ba (nazio-hizkuntzak)	Kinshasa; kinshasar
Kroazia, <i>Kroazjako Errepublika</i>	kroaziar	kroaziera	Zagreb; zagrebar
Kuba, <i>Kubako Errepublika</i>	kubatar	gaztelania	Habana; habanar
Kuwait, <i>Kuwaiteko Estata</i>	kuwaitar	arabiera	Kuwait; kuwaitar
Laos, <i>Laosko Herri Errepublika Demokratikoa</i>	laostar	laosera	Vientian; vientiandar
Lesotho, <i>Lesothoko Erresuma</i>	lesothoar	ingeles, sothoera	Maseru; maseruar
Letonia, <i>Letoniako Errepublika</i>	letoniar	letoniera	Riga; rigatar
Libano, <i>Libanoko Errepublika</i>	libanoar	arabiera	Beirut; beirutar
Liberia, <i>Liberiako Errepublika</i>	liberiar	ingeles	Monrovia; monroviar
Libia, <i>Libiako Arabiar Herri Jamahiriya Sozialista Handia</i>	libiar	arabiera	Tripoli; tripoliar
Liechtenstein, <i>Liechtensteingo Printzerria</i>	liechtensteindar	aleman	Vaduz; vaduztar
Lituania, <i>Lituaniako Errepublika</i>	lituaniar	lituaniera	Vilnius; vilniustar
Luxenburg <sup>4</sup> , <i>Luxenburgoko Dukerri Handia</i>	luxenburgotar	ez dago hizkuntza ofizialik; alemana eta frantsesa administrazio-hizkuntzak dira, eta luxenburgera nazio-hizkuntza	Luxenburg; luxenburgotar
Madagaskar, <i>Madagaskarko Errepublika</i>	madagaskartar	frantses, malgaxe	Antananarivo; antananarivoar

<sup>4</sup> *Luxemburg (luxemburgar) ere onartzen da.*

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Malawi, <i>Malawiko Errepublika</i>	malawiar	chewera (chichewa)	Lilongwe; lilongwetar
Malaysia	malaysiar	malaysiera	Kuala Lumpur; kualalumpur
Maldivak, <i>Maldivetako Errepublika</i>	maldivar	dhivehi (maldivera)	Male; maletar
Mali, <i>Maliko Errepublika</i>	maliar	frantses	Bamako; bamakoar
Malta, <i>Maltako Errepublika</i>	maltar	ingeles, maltera	Valleta; valletar
Maroko, <i>Marokoko Erresuma</i>	marokoar	arabiera; amazigera (behialako berberera, irakaskuntzarako ofizialki onartua)	Rabat; rabatar
Marshall Uharteak, <i>Marshall Uharteetako Errepublika</i>	marshallar	ingeles, marshallera	Majuro; majuroar
Mauritania, <i>Mauritaniako Errepublika Islamiarra</i>	mauritaniar	arabiera (ofiziala); fula, soninkera, wolofera (nazio-hizkuntzak)	Nuakhot; nuakhotar
Maurizio, <i>Maurizioko Errepublika</i>	mauriziar	ingeles	Port Louis; portlouistar
Mazedonia, <i>Mazedoniako Errepublika</i> (estatuak bere buruari emandako izendapena da. Nazioarteko erakundeetan, behin-behineko izendapen ofiziala hau da: <i>Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia</i> )	mazedoniar	albanniera, mazedoniera	Skopje; skopjetar
Mexiko, <i>Mexikoko Estatu Batuak</i>	mexikar	gaztelania ( <i>de facto</i> hizkuntza ofiziala); maia hizkuntzak nazio-hizkuntzat onartuak dira, eta, zeinek bere eremuan, balio ofiziala dute	Mexiko Hiria; mexikar
Mikronesia, <i>Mikronesiako Estatu Federatuak</i>	mikronesiar	ingeles, yapera, chuukera, pohnpeiera, kosraera, woleaiera, ulithiera	Palikir; palikirtar
Moldavia, <i>Moldaviako Errepublika</i>	moldaviar	errusiera, gagauzera, moldaviera (errumaniera)	Chisinau; chisinauar
Monako, <i>Monakoko Printzerria</i>	monakoar	frantses	Monako; monakoar
Mongolia	mongoliar	mongoliera	Ulan Bator; ulanbatortar
Montenegro, <i>Montenegroko Errepublika</i>	montenegroar	serbiera	Podgorica; podgoricar



<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Mozambike, <i>Mozambikeko Errepublika</i>	mozambiketar	portuges	Maputo; maputoar
Myanmar (Birmania), <i>Myanmarko Batasuna (Birmaniako Batasuna)</i>	myanmartar, birmaniar	birmaniera	Yangon (Rangun); yangondar, rangun- dar Naypyidaw (hiriburu administratibo berria)
Namibia, <i>Namibiako Errepublika</i>	namibiar	ingeles	Windhoek; windhoektar
Nauru, <i>Nauruko Errepublika</i>	nauruar	nauruera	Yaren; yarendar
Nepal, <i>Nepalgo Erresuma</i>	nepaldar	nepalera	Katmandu; katmandutar
Niger, <i>Nigerko Errepublika</i>	nigertar	frantses (ofiziala); fula, zarma (hizkuntza nagusiak)	Niamei; niameiar
Nigeria, <i>Nigeriako Errepublika Federala</i>	nigeriar	ingeles (ofiziala); hausa, igboera, jorubera (hizkuntza nagusiak)	Abuja; abujar
Nikaragua, <i>Nikaraguako Errepublika</i>	nikaraguar	gaztelania; miskitoera hizkuntza onartua da miskitoen lurralde autonomoan	Managua; managuar
Norvegia, <i>Norvegiako Erresuma</i>	norvegiar	norvegiera (estatu osoan); finlandiera, samiera/laponiera (udalerrri batzuetan)	Oslo; osloar
Oman, <i>Omango Sultanerria</i>	omandar	arabiera	Maskat; maskatar
Pakistan, <i>Pakistango Islamiar Errepublika</i>	pakistandar	ingeles, urdu	Islamabad; islamabadar
Palau, <i>Palauko Errepublika</i>	palauar	angaurrera, ingeles, japoniera, palauera, sonsoralera, tobiera	Melekeok; melekeoktar
Panama, <i>Panamako Errepublika</i>	panamar	gaztelania	Panama Hiria; panamar
Papua Ginea Berria, <i>Papua Ginea Berriko Estatu Burujabea</i>	gineaberriar	hiri motu, ingeles, motu, tok pisin	Port Moresby; portmoresbiar
Paraguai, <i>Paraguaiako Errepublika</i>	paraguaitar	gaztelania, guaraniera	Asuncion; asunciondar
Peru, <i>Peruko Errepublika</i>	perutar	aimara, gaztelania, kitxua	Lima; limatar
Polonia, <i>Poloniako Errepublika</i>	poloniar	poloniera	Varsovia; varsoviar
Portugal, <i>Portugalgo Errepublika</i>	portuges	portuges; mirandes (Miranda do Douro eta Vimoso udalerrietan erabiltzen den astur-leonesaren aldaera)	Lisboa; lisboar
Puerto Rico, <i>Puerto Ricoko Estatu Libre Elkartua</i>	puertorricar	gaztelania	San Juan; sanjuandar

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburu; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Qatar, <i>Qatarko Estata</i>	qatartar	arabiera	Doha; dohatar
Ruanda, <i>Ruandako Errepublika</i>	ruandar	frantses, ingeles, kinyaruanda	Kigali; kigaliar
Saint Kitts eta Nevis, <i>Saint Kitts eta Nevisko Federazioa</i>	sankistar	ingeles	Basseterre; basseterretar
Saint Vincent eta Grenadinak	saintvincentar	ingeles	Kingstown; kingstowndar
Salomon Uharteak	salomondar	ingeles	Honiara; honiarar
Samoa, <i>Samoako Estatu Burujabea</i>	samoar	ingeles, samoera	Apia; apiar
San Marino, <i>San Marinoko Errepublika</i>	sanmarinoar	italiera	San Marino; sanmarinoar
Santa Luzia	santaluziar	ingeles	Castries; castriestar
Sao Tome eta Principe, <i>Sao Tome eta Principeko Errepublika Demokratikoa</i>	saotometar	portuges	Sao Tome; saotometar
Saudi Arabia, <i>Saudi Arabiako Erresuma</i>	saudiarabiar	arabiera	Riad; riadar
Senegal, <i>Senegalgo Errepublika</i>	senegaldar	frantses	Dakar; dakartar
Serbia, <i>Serbiako Errepublika</i>	serbiar	serbiera (Vojvodinako Probintzia Autonomoan, serbieraz gainera, hungariera, eslovakiera, errumaniera, ruteniera eta kroaziera ere ofizialak dira. Kosovon, serbieraz gainera, albaniera eta ingelesez ere ofizialak dira)	Belgrad; belgradar
Seychelleak, <i>Seychelleetako Errepublika</i>	seychelletar	frantses, ingeles, Seychelleetako kreolera	Victoria; victoriar
Sierra Leona, <i>Sierra Leonako Errepublika</i>	sierraleonar	ingeles	Freetown; freetowndar
Singapur, <i>Singapurko Errepublika</i>	singapurtar	ingeles, malaysiera, tamilera, txinera	Singapur; singapurtar
Siria, <i>Siriako Arabiar Errepublika</i>	siriar	arabiera	Damasko; damaskoar
Somalia	somaliar	arabiera, somaliera	Muqdisho; muqdishoar
Sri Lanka, <i>Sri Lankako Errepublika Sozialista Demokratikoa</i>	srilankar	tamilera, sinhala	Kolonbo (hiriburu administratiboa); kolonboar Sri Jayewardenepura Kotte (legegintza-hiriburu); kottear
Sudan, <i>Sudango Errepublika</i>	sudandar	arabiera	Khartum; khartumdar

<b>Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala</b>	<b>Herritarren jende-izena</b>	<b>Hizkuntza ofiziala(k)</b>	<b>Hiriburua; hiriburuko herritarren jende-izena</b>
Suedia, <i>Suediako Erresuma</i>	suediar	suediera ( <i>de factoko</i> hizkuntza ofiziala)	Stockholm; stockholmardar
Suitza, <i>Suitzar Konfederakundea</i>	suitzar	aleman, erretorromaniera, frantses, italiara	Berna; bernatar
Surinam, <i>Surinamgo Errepublika</i>	surinamdar	nederlandera	Paramaribo; paramariboar
Swazilandia, <i>Swazilandiako Erresuma</i>	swazilandiarr	ingeles, swaziera	Mbabane (hiriburu administratiboa); mbabanetar Lobamba (legeintza-hiriburua); lobambar
Tajikistan, <i>Tajikistango Errepublika</i>	tajikistandar	tajikera	Dushanbe; dushanbetar
Taiwan, <i>Txinako Errepublika</i>	taiwandar	txinera	Taipei; taipeitar
Tanzania, <i>Tanzaniako Errepublika Batua</i>	tanzaniar	ingeles, swahili	Dar es Salaam (hiriburu administratiboa); daressalaamdar Dodoma (hiriburu ofiziala); dodomar
Thailandia, <i>Thailandiako Erresuma</i>	thailandiarr	thaiara/thailandiera	Bangkok; bangkokar
Togo, <i>Togoko Errepublika</i>	togoar	frantses	Lome; lometar
Tonga, <i>Tongako Erresuma</i>	tongatar	ingeles, tongera	Nuku'alofa; nukualofar
Trinidad eta Tobago, <i>Trinidad eta Tobagoko Errepublika</i>	trinitatear	ingeles	Port-of-Spain; portofspaindar
Tunisia, <i>Tunisiako Errepublika</i>	tunisiar	arabiera	Tunis; tunistar
Turkia, <i>Turkiako Errepublika</i>	turkiarra	turkiera	Ankara; ankarar
Turkmenistan	turkmenistandar	turkmenera	Ashgabat; ashgabatar
Tuvalu	tuvalutar	ingeles, tuvaluera	Funafuti; funafutiar
Txad, <i>Txadeko Errepublika</i>	txadar	arabiera, frantses	N'Djamena; n'djamenar
Txekia, <i>Txekiar Errepublika</i>	txekiar	txekiera	Praga; pragatar
Txile, <i>Txileko Errepublika</i>	txiletar	gaztelania	Santiago; santiagotar
Txina, <i>Txinako Herri Errepublika</i>	txinatar	txinera; kantонера, ingeles, portuges, uigurrera, mongoliera, tibetera eta koreera hizkuntzak ere ofizialak dira zenbait lurraldetan	Pekin <sup>5</sup> ; pekindar

<sup>5</sup> Beijing (*beijingdar*) ere onartzen da.

Herrialdearen izena, estatuaren izen ofiziala	Herritarren jende-izena	Hizkuntza ofiziala(k)	Hiriburu; hiriburuko herritarren jende-izena
Uganda, <i>Ugandako Errepublika</i>	ugandar	ingeles, swahili	Kampala; kampalar
Ukraina	ukrainar	ukrainera	Kiev; kievtar
Uruguai, <i>Uruguaito Ekialdeko Errepublika</i>	uruguaitar	gaztelania	Montevideo; montevideoar
Uzbekistan, <i>Uzbekistango Errepublika</i>	uzbekistandar	uzbekera	Tashkent; tashkentar
Vanuatu, <i>Vanuatuko Errepublika</i>	vanuatuar	bislama, frantses, ingeles	Port Vila; portvilatar
Vatikanoa (Egoitza Santua*), <i>Vatikano Hiriko Estatu</i>	vatikanoar	latin	Vatikano Hiria; vatikanoar
Venezuela, <i>Venezuelako Bolibartar Errepublika</i>	venezuelar	gaztelania	Caracas; caracastar
Vietnam, <i>Vietnango Errepublika Sozialista</i>	vietnamdar	vietnamera	Hanoi; hanoitar
Yemen, <i>Yemengo Errepublika</i>	yemendar	arabiera	Sana; sanatar
Zambia, <i>Zambiako Errepublika</i>	zambar	ingeles	Lusaka; lusakar
Zeelanda Berria	zeelandaberritar	ingeles, maoriera	Wellington; wellingtondar
Zimbabwe, <i>Zimbabweko Errepublika</i>	zimbabwetar	ingeles	Harare; hararetar
Zipre, <i>Zipreko Errepublika</i>	zipretar	greko, turkiera	Nikosia; nikosiar

## II. Munduko estatuak gaztelaniaz eta euskaraz

Gaztelaniazko izen laburtua	Euskarazko izena
Afganistán	Afganistan, <i>Afganistango Estatu Islamiarra</i>
Albania	Albania, <i>Albaniako Errepublika</i>
Alemania	Alemania, <i>Alemaniko Errepublika Federala</i>
Andorra	Andorra, <i>Andorrako Printzerria</i>
Angola	Angola, <i>Angolako Errepublika</i>
Antigua y Barbuda	Antigua eta Barbuda

\* Vatikano Hiria eta Egoitza Santuak izaera juridiko desberdina dute nazioarteko zuzenbidean.

<b>Gaztelaniazko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Arabia Saudí	Saudi Arabia, <i>Saudi Arabiako Erresuma</i>
Argelia	Aljeria, <i>Aljeriako Herri Errepublikak Demokratikoa</i>
Argentina	Argentina, <i>Argentinako Errepublika</i>
Armenia	Armenia, <i>Armeniako Errepublika</i>
Australia	Australia, <i>Australiako Commonwealth</i>
Austria	Austria, <i>Austriako Errepublika</i>
Azerbaiján	Azerbaijan, <i>Azerbaijango Errepublika</i>
Bahamas	Bahamak, <i>Bahametako Commonwealth</i>
Bahréin	Bahrain, <i>Bahraingo Erresuma</i>
Bangladesh	Bangladesh, <i>Bangladeshko Herri Errepublika</i>
Barbados	Barbados
Bélgica	Belgika, <i>Belgikako Erresuma</i>
Belice	Belize
Benín	Benin, <i>Beningo Errepublika</i>
Bhután	Bhutan, <i>Bhutango Erresuma</i>
Bielorrusia (Belarús)	Bielorrusia, <i>Bielorrusiako Errepublika</i>
Bolivia	Bolivia, <i>Boliviako Errepublika</i>
Bosnia y Herzegovina	Bosnia-Herzegovina, Bosnia eta Herzegovina
Botsuana	Botswana, <i>Botswanako Errepublika</i>
Brasil	Brasil, <i>Brasilgo Errepublika Federala</i>
Brunéi	Brunei, <i>Bruneiko Estatuak, Bakearen Egoitza (Negara Brunei Darussalam)</i>
Bulgaria	Bulgaria, <i>Bulgariako Errepublika</i>
Burkina Faso	Burkina Faso
Burundi	Burundi, <i>Burundiko Errepublika</i>
Cabo Verde	Cabo Verde, <i>Cabo Verdeko Errepublika</i>
Camboya	Kanbodia, <i>Kanbodiako Erresuma</i>
Camerún	Kamerun, <i>Kamerungo Errepublika</i>
Canadá	Kanada
Chad	Txad, <i>Txadeko Errepublika</i>
Chequia (República Checa)	Txekia, <i>Txekiar Errepublika</i>
Chile	Txile, <i>Txileko Errepublika</i>
China	Txina, <i>Txinako Herri Errepublika</i>

<b>Gaztelaniazko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Chipre	Zipre, <i>Zipreko Errepublika</i>
Colombia	Kolonia, <i>Kolonbiako Errepublika</i>
Comoras	Komoreak, <i>Komoreetako Batasuna</i>
Congo (República del Congo)	Kongo, <i>Kongoko Errepublika</i>
Congo (República Democrática del Congo)	Kongo, <i>Kongoko Errepublika Demokratikoa</i> (lehen, Zaire)
Corea del Norte	Ipar Korea, <i>Koreako Herri Errepublika Demokratikoa</i>
Corea del Sur	Hego Korea, <i>Koreako Errepublika</i>
Costa de Marfil	Boli Kosta, <i>Boli Kostako Errepublika</i>
Costa Rica	Costa Rica, <i>Costa Ricako Errepublika</i>
Croacia	Kroazia, <i>Kroaziako Errepublika</i>
Cuba	Kuba, <i>Kubako Errepublika</i>
Dinamarca	Danimarka, <i>Danimarkako Erresuma</i>
Dominica	Dominika, <i>Dominikako Commonwealth</i>
Ecuador	Ekvador, <i>Ekvadoroko Errepublika</i>
Egipto	Egipto, <i>Egiptoko Arabiar Errepublika</i>
El Salvador	El Salvador, <i>El Salvadoroko Errepublika</i>
Emiratos Árabes Unidos	Arabiar Emirerri Batuak
Eritrea	Eritrea, <i>Eritreako Estatu</i>
Eslovaquia	Eslovakia, <i>Eslovakiar Errepublika</i>
Eslovenia	Eslovenia, <i>Esloveniako Errepublika</i>
España	Espainia, <i>Espainiako Erresuma</i>
Estados Unidos	Ameriketako Estatu Batuak, AEB
Estonia	Estonia, <i>Estoniako Errepublika</i>
Etiopía	Etiopia, <i>Etiopiako Errepublika Demokratiko Federala</i>
Filipinas	Filipinak, <i>Filipinetako Errepublika</i>
Finlandia	Finlandia / Suomi, <i>Finlandiako Errepublika / Suomiko Errepublika</i>
Fiyi	Fiji, <i>Fiji Uharteetako Errepublika</i>
Francia	Frantzia, <i>Frantziako Errepublika</i>
Gabón	Gabon, <i>Gabondar Errepublika</i>
Gambia	Gambia, <i>Gambiako Errepublika</i>
Georgia	Georgia

<b>Gaztelaniazko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Ghana	Ghana, <i>Ghanako Errepublika</i>
Granada	Grenada
Grecia	Grezia, <i>Heleniar Errepublika</i>
Guatemala	Guatemala, <i>Guatemalako Errepublika</i>
Guinea	Ginea, <i>Gineako Errepublika</i>
Guinea Ecuatorial	Ekuatore Ginea, <i>Ekuatore Gineako Errepublika</i>
Guinea-Bissau	Ginea Bissau, <i>Ginea Bissauko Errepublika</i>
Guyana	Guyana, <i>Guyanako Errepublika Kooperatiboa</i>
Haití	Haiti, <i>Haitiko Errepublika</i>
Honduras	Honduras, <i>Hondurasko Errepublika</i>
Hungria	Hungaria, <i>Hungariako Errepublika</i>
India	India, <i>Indiako Errepublika</i>
Indonesia	Indonesia, <i>Indonesiako Errepublika</i>
Irán	Iran, <i>Irango Islamiar Errepublika</i>
Iraq	Irak, <i>Irakeko Errepublika</i>
Irlanda	Eire / Irlanda
Islandia	Islandia, <i>Islandiako Errepublika</i>
Islas Marshall	Marshall Uharteak, <i>Marshall Uharteetako Errepublika</i>
Islas Salomón	Salomon Uharteak
Israel	Israel, <i>Israelgo Estatu</i>
Italia	Italia, <i>Italiako Errepublika</i>
Jamaica	Jamaika
Japón	Japonia
Jordania	Jordania, <i>Jordaniako Haxemi Erresuma</i>
Kazajstán	Kazakhstan, <i>Kazakhstango Errepublika</i>
Kenia	Kenya, <i>Kenyako Errepublika</i>
Kirguistán	Kirgizistan/Kirgizia, <i>Kirgizistango Errepublika</i>
Kiribati	Kiribati, <i>Kiribatiko Errepublika</i>
Kuwait	Kuwait, <i>Kuwaiteko Estatu</i>
Laos	Laos, <i>Laosko Herri Errepublika Demokratikoa</i>
Lesotho	Lesotho, <i>Lesothoko Erresuma</i>
Letonia	Letonia, <i>Letoniako Errepublika</i>

Gaztelaniazko izen laburtua	Euskarazko izena
Libano	Libano, <i>Libanoko Errepublika</i>
Liberia	Liberia, <i>Liberiako Errepublika</i>
Libia	Libia, <i>Libiako Arabiar Herri Jamahiriya Sozialista Handia</i>
Liechtenstein	Liechtenstein, <i>Liechtensteingo Printzerria</i>
Lituania	Lituania, <i>Lituaniako Errepublika</i>
Luxemburgo	Luxemburgo <sup>7</sup> , <i>Luxenburgoko Dukerri Handia</i>
Macedonia	Mazedonia, <i>Mazedoniako Errepublika</i> (estatuak bere buruari emandako izendapena da. Nazioarteko erakundeetan, behin-behineko izendapen ofiziala hau da: <i>Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia</i> )
Madagascar	Madagaskar, <i>Madagaskarko Errepublika</i>
Malasia	Malaysia
Malawi	Malawi, <i>Malawiko Errepublika</i>
Maldivas	Maldivak, <i>Maldivetako Errepublika</i>
Malí	Mali, <i>Maliko Errepublika</i>
Malta	Malta, <i>Maltako Errepublika</i>
Marruecos	Maroko, <i>Marokoko Erresuma</i>
Mauricio	Maurizio, <i>Maurizioko Errepublika</i>
Mauritania	Mauritania, <i>Mauritaniako Errepublika Islamiarra</i>
México	Mexiko, <i>Mexikoko Estatu Batuak</i>
Micronesia	Mikronesia, <i>Mikronesiako Estatu Federatuak</i>
Moldavia (Moldova)	Moldavia, <i>Moldaviako Errepublika</i>
Mónaco	Monako, <i>Monakoko Printzerria</i>
Mongolia	Mongolia
Montenegro	Montenegro, <i>Montenegroko Errepublika</i>
Mozambique	Mozambique, <i>Mozambikeko Errepublika</i>
Myanmar (Birmania)	Myanmar (Birmania), <i>Myanmarko Batasuna (Birmaniako Batasuna)</i>
Namibia	Namibia, <i>Namibiako Errepublika</i>
Nauru	Nauru, <i>Nauruko Errepublika</i>
Nepal	Nepal, <i>Nepalgo Erresuma</i>
Nicaragua	Nikaragua, <i>Nikaraguako Errepublika</i>
Níger	Niger, <i>Nigerko Errepublika</i>
Nigeria	Nigeria, <i>Nigeriako Errepublika Federala</i>

<sup>7</sup> *Luxemburg* ere onartzen da.



<b>Gaztelaniazko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Noruega	Norvegia, <i>Norvegiako Erresuma</i>
Nueva Zelanda	Zeelanda Berria
Omán	Oman, <i>Omango Sultanerria</i>
Países Bajos	Herbehereak, <i>Herbehereetako Erresuma</i>
Pakistán	Pakistan, <i>Pakistango Islamiar Errepublika</i>
Paláu (Palaos)	Palau, <i>Palauko Errepublika</i>
Panamá	Panama, <i>Panamako Errepublika</i>
Papúa Nueva Guinea	Papua Ginea Berria, <i>Papua Ginea Berriko Estatu Burujabea</i>
Paraguay	Paraguai, <i>Paraguaiako Errepublika</i>
Perú	Peru, <i>Peruko Errepublika</i>
Polonia	Polonia, <i>Poloniako Errepublika</i>
Portugal	Portugal, <i>Portugalgo Errepublika</i>
Puerto Rico	Puerto Rico, <i>Puerto Ricoko Estatu Libre Elkartua</i>
Qatar	Qatar, <i>Qatarako Estatu</i>
Reino Unido	Erresuma Batua, <i>Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua</i>
República Centrafricana	Afrika Erdiko Errepublika
República Dominicana	Dominikar Errepublika
Ruanda	Ruanda, <i>Ruandako Errepublika</i>
Rumanía	Errumania
Rusia	Errusia, <i>Errusiar Federakundea</i>
Samoa	Samoa, <i>Samoako Estatu Burujabea</i>
San Cristóbal y Nieves	Saint Kitts eta Nevis, <i>Saint Kitts eta Nevisko Federazioa</i>
San Marino	San Marino, <i>San Marinoko Errepublika</i>
San Vicente y las Granadinas	Saint Vincent eta Grenadinak
Santa Lucía	Santa Luzia
Santo Tomé y Príncipe	Sao Tome eta Principe, <i>Sao Tome eta Principeko Errepublika Demokratikoa</i>
Senegal	Senegal, <i>Senegalgo Errepublika</i>
Serbia	Serbia, <i>Serbiako Errepublika</i>
Seychelles	Seychelleak, <i>Seychelleetako Errepublika</i>
Sierra Leona	Sierra Leona, <i>Sierra Leonako Errepublika</i>
Singapur	Singapur, <i>Singapurko Errepublika</i>

## III. Munduko estatuak frantsesez eta euskaraz

Frantsesezko izen laburtua	Euskarazko izena
Afghanistan	Afganistan, <i>Afganistango Estatu Islamiarra</i>
Afrique du Sud	Hegoafrika, <i>Hegoafrikako Errepublika</i>
Albanie	Albania, <i>Albaniako Errepublika</i>
Algérie	Aljeria, <i>Aljeriako Herri Errepublika Demokratikoa</i>
Allemagne	Alemania, <i>Alemaniko Errepublika Federala</i>
Andorre	Andorra, <i>Andorrako Printzerria</i>
Angola	Angola, <i>Angolako Errepublika</i>
Antigua-et-Barbuda	Antigua eta Barbuda
Arabie saoudite	Saudi Arabia, <i>Saudi Arabiako Erresuma</i>
Argentine	Argentina, <i>Argentinako Errepublika</i>
Arménie	Armenia, <i>Armeniako Errepublika</i>
Australie	Australia, <i>Austriako Commonwealth</i>
Autriche	Austria, <i>Austriako Errepublika</i>
Azerbaïdjan	Azerbaijan, <i>Azerbaijango Errepublika</i>
Bahamas	Bahamak, <i>Bahametako Commonwealth</i>
Bahreïn	Bahrain, <i>Bahraingo Erresuma</i>
Bangladesh	Bangladesh, <i>Bangladeshko Herri Errepublika</i>
Barbade	Barbados
Belgique	Belgika, <i>Belgikako Erresuma</i>
Belize	Belize
Bénin	Benin, <i>Beningo Errepublika</i>
Bhoutan	Bhutan, <i>Bhutango Erresuma</i>
Biélorussie (Bélarus)	Bielorrusia, <i>Bielorruasiako Errepublika</i>
Bolivie	Bolivia, <i>Boliviako Errepublika</i>
Bosnie-Herzégovine	Bosnia-Herzegovina, <i>Bosnia eta Herzegovina</i>
Botswana	Botswana, <i>Botswanako Errepublika</i>
Brésil	Brasil, <i>Brasilgo Errepublika Federala</i>
Brunei	Brunei, <i>Bruneiko Estatu, Bakearen Egoitza (Negara Brunei Darussalam)</i>
Bulgarie	Bulgaria, <i>Bulgariako Errepublika</i>
Burkina Faso	Burkina Faso
Burundi	Burundi, <i>Burundiko Errepublika</i>

<b>Gaztelaniazko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Siria	Siria, <i>Siriako Arabiar Errepublika</i>
Somalia	Somalia
Sri Lanka	Sri Lanka, <i>Sri Lankako Errepublika Sozialista Demokratikoa</i>
Suazilandia	Swazilandia, <i>Swazilandiako Erresuma</i>
Sudáfrica	Hegoafrika, <i>Hegoafrikako Errepublika</i>
Sudán	Sudan, <i>Sudango Errepublika</i>
Suecia	Suedia, <i>Suediako Erresuma</i>
Suiza	Suitza, <i>Suitzar Konfederakundea</i>
Surinam	Surinam, <i>Surinango Errepublika</i>
Tailandia	Thailandia, <i>Thailandiako Erresuma</i>
Taiwán	Taiwan, <i>Txinako Errepublika</i>
Tanzania	Tanzania, <i>Tanzaniako Errepublika Batua</i>
Tayikistán	Tajikistan, <i>Tajikistango Errepublika</i>
Timor Oriental	Ekialdeko Timor, <i>Ekialdeko Timorko Errepublika Demokratikoa</i>
Togo	Togo, <i>Togoko Errepublika</i>
Tonga	Tonga, <i>Tongako Erresuma</i>
Trinidad y Tobago	Trinidad eta Tobago, <i>Trinidad eta Tobagoko Errepublika</i>
Túnez	Tunisia, <i>Tunisiako Errepublika</i>
Turkmenistán	Turkmenistan
Turquía	Turkia, <i>Turkiako Errepublika</i>
Tuvalu	Tuvalu
Ucrania	Ukraina
Uganda	Uganda, <i>Ugandako Errepublika</i>
Uruguay	Uruguai, <i>Uruguaiako Ekialdeko Errepublika</i>
Uzbekistán	Uzbekistan, <i>Uzbekistango Errepublika</i>
Vanuatu	Vanuatu, <i>Vanuatuko Errepublika</i>
Vaticano (Santa Sede)	Vatikanoa (Egoitza Santua <sup>8</sup> ), <i>Vatikano Hiriko Estatua</i>
Venezuela	Venezuela, <i>Venezuelako Bolibartar Errepublika</i>
Vietnam	Vietnam, <i>Vietnamgo Errepublika Sozialista</i>
Yemen	Yemen, <i>Yemengo Errepublika</i>
Yibuti	Djibuti, <i>Djibutiko Errepublika</i>
Zambia	Zambia, <i>Zambiako Errepublika</i>
Zimbabwe	Zimbabwe, <i>Zimbabweko Errepublika</i>

<sup>8</sup> Vatikano Hiriak eta Egoitza Santuak izaera juridiko desberdina dute nazioarteko zuzenbidean.

<b>Frantsesezko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Cambodge	Kanbodia, <i>Kanbodiako Erresuma</i>
Cameroun	Kamerun, <i>Kamerungo Errepublika</i>
Canada	Kanada
Cap-Vert	Cabo Verde, <i>Cabo Verdeko Errepublika</i>
Chili	Txile, <i>Txileko Errepublika</i>
Chine	Txina, <i>Txinako Herri Errepublika</i>
Chypre	Zipre, <i>Zipreko Errepublika</i>
Colombie	Kolonbia, <i>Kolonbiako Errepublika</i>
Comores	Komoreak, <i>Komoreetako Batasuna</i>
Congo (République démocratique du Congo)	Kongo, <i>Kongoko Errepublika Demokratikoa</i> (lehen, Zaire)
Congo (République du Congo)	Kongo, <i>Kongoko Errepublika</i>
Corée du Nord	Ipar Korea, <i>Koreako Herri Errepublika Demokratikoa</i>
Corée du Sud	Hego Korea, <i>Koreako Errepublika</i>
Costa Rica	Costa Rica, <i>Costa Ricako Errepublika</i>
Côte d'Ivoire	Boli Kosta, <i>Boli Kostako Errepublika</i>
Croatie	Kroazia, <i>Kroaziako Errepublika</i>
Cuba	Kuba, <i>Kubako Errepublika</i>
Danemark	Danimarka, <i>Danimarkako Erresuma</i>
Djibouti	Djibuti, <i>Djibutiko Errepublika</i>
Dominique	Dominika, <i>Dominikako Commonwealth</i>
Égypte	Egipto, <i>Egiptoko Arabiar Errepublika</i>
Émirats arabes unis	Arabiar Emirerri Batuak
Équateur	Ekvador, <i>Ekvadoroko Errepublika</i>
Érythrée	Eritrea, <i>Eritreako Estatua</i>
Espagne	Espainia, <i>Espainiako Erresuma</i>
Estonie	Estonia, <i>Estoniako Errepublika</i>
États-Unis	Ameriketako Estatu Batuak, AEB
Éthiopie	Etiopia, <i>Etiopiako Errepublika Demokratiko Federala</i>
Fidji	Fiji, <i>Fiji Uharteetako Errepublika</i>
Finlande	Finlandia / Suomi, <i>Finlandiako Errepublika / Suomiko Errepublika</i>
France	Frantzia, <i>Frantziako Errepublika</i>

<b>Frantsesezko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Gabon	Gabon, <i>Gabondar Errepublika</i>
Gambie	Gambia, <i>Gambiako Errepublika</i>
Géorgie	Georgia
Ghana	Ghana, <i>Ghanako Errepublika</i>
Grèce	Grezia, <i>Heleniar Errepublika</i>
Grenade	Grenada
Guatemala	Guatemala, <i>Guatemalako Errepublika</i>
Guinée	Ginea, <i>Gineako Errepublika</i>
Guinée équatoriale	Ekuatore Ginea, <i>Ekuatore Gineako Errepublika</i>
Guinée-Bissau	Ginea Bissau, <i>Ginea Bissauko Errepublika</i>
Guyana	Guyana, <i>Guyanako Errepublika Kooperatiboa</i>
Haïti	Haiti, <i>Haitiko Errepublika</i>
Honduras	Honduras, <i>Hondurasko Errepublika</i>
Hongrie	Hungaria, <i>Hungariako Errepublika</i>
Inde	India, <i>Indiako Errepublika</i>
Indonésie	Indonesia, <i>Indonesiako Errepublika</i>
Irak/Iraq	Irak, <i>Irakeko Errepublika</i>
Iran	Iran, <i>Irango Islamiar Errepublika</i>
Irlande	Eire / Irlanda
Islande	Islandia, <i>Islandiako Errepublika</i>
Israël	Israel, <i>Israelgo Estatu</i>
Italie	Italia, <i>Italiako Errepublika</i>
Jamaïque	Jamaika
Japon	Japonia
Jordanie	Jordania, <i>Jordaniako Haxemi Erresuma</i>
Kazakhstan	Kazakhstan, <i>Kazakhstango Errepublika</i>
Kenya	Kenya, <i>Kenyako Errepublika</i>
Kirghizstan/Kirghizie	Kirgizistan/Kirgizia, <i>Kirgizistango Errepublika</i>
Kiribati	Kiribati, <i>Kiribatiko Errepublika</i>
Koweït	Kuwait, <i>Kuwaiteko Estatu</i>
Laos	Laos, <i>Laosko Herri Errepublika Demokratikoa</i>
Lesotho	Lesotho, <i>Lesothoko Erresuma</i>

*Munduko estatu-izenak, herritarren...*

Frantseseko izen laburtua	Euskarazko izena
Lettonie	Letonia, <i>Letoniako Errepublika</i>
Liban	Libano, <i>Libanoko Errepublika</i>
Liberia	Liberia, <i>Liberiako Errepublika</i>
Libye	Libia, <i>Libiako Arabiar Herri Jamahiriya Sozialista Handia</i>
Liechtenstein	Liechtenstein, <i>Liechtensteingo Printzerria</i>
Lituania	Lituania, <i>Lituaniako Errepublika</i>
Luxembourg	Luxenburg <sup>o</sup> , <i>Luxenburgoko Dukerri Handia</i>
Macédoine	Mazedonia, <i>Mazedoniako Errepublika</i> (estatuak bere buruari emandako izendapena da. Nazioarteko erakundeetan, behin-behineko izendapen ofiziala hau da: <i>Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia</i> )
Madagascar	Madagaskar, <i>Madagaskarko Errepublika</i>
Malaisie	Malaysia
Malawi	Malawi, <i>Malawiko Errepublika</i>
Maldives	Maldivak, <i>Maldivetako Errepublika</i>
Mali	Mali, <i>Maliko Errepublika</i>
Malte	Malta, <i>Maltako Errepublika</i>
Maroc	Maroko, <i>Marokoko Erresuma</i>
Marshall	Marshall Uharteak, <i>Marshall Uharteetako Errepublika</i>
Maurice	Maurizio, <i>Maurizioko Errepublika</i>
Mauritanie	Mauritania, <i>Mauritaniako Errepublika Islamiarra</i>
Mexique	Mexiko, <i>Mexikoko Estatu Batuak</i>
Micronésie	Mikronesia, <i>Mikronesiako Estatu Federatuak</i>
Moldavie (Moldova)	Moldavia, <i>Moldaviako Errepublika</i>
Monaco	Monako, <i>Monakoko Printzerria</i>
Mongolie	Mongolia
Monténégro	Montenegro, <i>Montenegroko Errepublika</i>
Mozambique	Mozambique, <i>Mozambiqueko Errepublika</i>
Myanmar (Birmanie)	Myanmar (Birmania), <i>Myanmarko Batasuna (Birmaniako Batasuna)</i>
Namibie	Namibia, <i>Namibiako Errepublika</i>
Nauru	Nauru, <i>Nauruko Errepublika</i>
Népal	Nepal, <i>Nepalgo Erresuma</i>
Nicaragua	Nikaragua, <i>Nikaraguako Errepublika</i>

<sup>o</sup> *Luxenburg* ere onartzen da.

<b>Frantsesezko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Niger	Niger, <i>Nigerko Errepublika</i>
Nigeria	Nigeria, <i>Nigeriako Errepublika Federala</i>
Norvège	Norvegia, <i>Norvegiako Erresuma</i>
Nouvelle-Zélande	Zeelanda Berria
Oman	Oman, <i>Omango Sultaneria</i>
Ouganda	Uganda, <i>Ugandako Errepublika</i>
Ouzbékistan	Uzbekistan, <i>Uzbekistango Errepublika</i>
Pakistan	Pakistan, <i>Pakistango Islamiar Errepublika</i>
Palaos	Palau, <i>Palauko Errepublika</i>
Panama	Panama, <i>Panamako Errepublika</i>
Papouasie-Nouvelle-Guinée	Papua Ginea Berria, <i>Papua Ginea Berriko Estatu Burujabea</i>
Paraguay	Paraguai, <i>Paraguaiko Errepublika</i>
Pays-Bas	Herbehereak, <i>Herbehereetako Erresuma</i>
Pérou	Peru, <i>Peruko Errepublika</i>
Philippines	Filipinak, <i>Filipinetako Errepublika</i>
Pologne	Polonia, <i>Poloniako Errepublika</i>
Porto Rico	Puerto Rico, <i>Puerto Ricoko Estatu Libre Elkartua</i>
Portugal	Portugal, <i>Portugalgo Errepublika</i>
Qatar	Qatar, <i>Qatarko Estatu</i>
République centrafricaine	Afrika Erdiko Errepublika
République dominicaine	Dominikar Errepublika
République tchèque	Txekia, <i>Txekiar Errepublika</i>
Roumanie	Errumania
Royaume-Uni	Erresuma Batua, <i>Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua</i>
Russie	Errusia, <i>Errusiar Federakundea</i>
Rwanda	Ruanda, <i>Ruandako Errepublika</i>
Sainte-Lucie	Santa Luzia
Saint-Kitts-et-Nevis	Saint Kitts eta Nevis, <i>Saint Kitts eta Nevisko Federazioa</i>
Saint-Marin	San Marino, <i>San Marinoko Errepublika</i>
Saint-Vincent-et-les-Grenadines	Saint Vincent eta Grenadinak
Salomon	Salomon Uharteak

Frantsesezko izen laburtua	Euskarazko izena
Salvador	El Salvador, <i>El Salvador</i> ko Errepublika
Samoa	Samoa, <i>Samoako Estatu Burujabea</i>
Sao Tomé-et-Principe	Sao Tome eta Principe, <i>Sao Tome eta Principe</i> ko Errepublika Demokratikoa
Sénégal	Senegal, <i>Senegalgo</i> Errepublika
Serbie	Serbia, <i>Serbiako</i> Errepublika
Seychelles	Seychelleak, <i>Seychelle</i> etako Errepublika
Sierra Leone	Sierra Leona, <i>Sierra Leonako</i> Errepublika
Singapour	Singapur, <i>Singapur</i> ko Errepublika
Slovaquie	Eslovakia, <i>Eslovakia</i> ko Errepublika
Slovénie	Eslovenia, <i>Eslovenia</i> ko Errepublika
Somalie	Somalia
Soudan	Sudan, <i>Sudango</i> Errepublika
Sri Lanka	Sri Lanka, <i>Sri Lankako</i> Errepublika Sozialista Demokratikoa
Suède	Suedia, <i>Suedia</i> ko Erresuma
Suisse	Suitza, <i>Suitzar</i> Konfederakundea
Suriname	Surinam, <i>Surinamgo</i> Errepublika
Swaziland	Swazilandia, <i>Swazilandia</i> ko Erresuma
Syrie	Siria, <i>Siriako</i> Arabiar Errepublika
Tadjikistan	Tajikistan, <i>Tajikistango</i> Errepublika
Taïwan	Taiwan, <i>Txinako</i> Errepublika
Tanzanie	Tanzania, <i>Tanzaniako</i> Errepublika Batua
Tchad	Txad, <i>Txadeko</i> Errepublika
Thaïlande	Thailandia, <i>Thailandia</i> ko Erresuma
Timor oriental	Ekialdeko Timor, <i>Ekialdeko Timorko</i> Errepublika Demokratikoa
Togo	Togo, <i>Togoko</i> Errepublika
Tonga	Tonga, <i>Tongako</i> Erresuma
Trinité-et-Tobago	Trinidad eta Tobago, <i>Trinidad eta Tobago</i> ko Errepublika
Tunisie	Tunisia, <i>Tunisiako</i> Errepublika
Turkménistan	Turkmenistan
Turquie	Turkia, <i>Turkiako</i> Errepublika
Tuvalu	Tuvalu
Ukraine	Ukraina



<b>Frantsesezko izen laburtua</b>	<b>Euskarazko izena</b>
Uruguay	Uruguai, <i>Uruguaiako Ekialdeko Errepublika</i>
Vanuatu	Vanuatu, <i>Vanuatuako Errepublika</i>
Vatican (Saint-Siège)	Vatikanoa (Egoitza Santua <sup>10</sup> ), <i>Vatikano Hiriko Estatu</i>
Venezuela	Venezuela, <i>Venezuelako Bolibartar Errepublika</i>
Vietnam	Vietnam, <i>Vietnamgo Errepublika Sozialista</i>
Yémen	Yemen, <i>Yemengo Errepublika</i>
Zambie	Zambia, <i>Zambiako Errepublika</i>
Zimbabwe	Zimbabwe, <i>Zimbabweko Errepublika</i>

(Euskaltzaindiak, 2007ko martxoaren 30ean, Donostian, onartua)

<sup>10</sup> Vatikano Hiriak eta Egoitza Santuak izaera juridiko desberdina dute nazioarteko zuzenbidean.

## **EUSKALTZAINDIAREN BAIONAKO ORDEZKARITZA BERRIAREN INAUGURAZIOA**

*Baionan, 2007ko apirilaren 18an*

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Baionako auzapeza,  
Agintariak,  
Euskaltzainkideak,  
Jaun-andreak

Arratsalde on!

Zinez pozgarri da Euskaltzaindiarentzat egun zuekin bat egitea Baionako ordezkari berria irekitzeko ekitaldi honetan.

Euskaltzaindia erakundeak, hortaz, baditu aurrerantzean instalazio berriak Euskal Herriaren eta euskararen herrialde honetan, bertan lan egiteko eta euskaldun guztiei zerbitzua emateko.

Badaki Euskaltzaindiak horrelakoetan premiazkoak eta ezinbestekoak izaten direla baliabide anitz eta ugariak. Badaki, orobat, erakundeen aldetik laguntza jasotzen duela, eta, zer esanik ez, eskerrak ematea ere legezko eta tazuzkoa dela.

Har bitzate, hortaz, nire ahotik Baionako auzapezak eta Baionako hiriak Euskaltzaindiaren eskerrik beroenak, Euskaltzaindiari eskaini diotelako bere euskal lanetan jarraitzeko leku duin eta erosoak.

Lanean jarraitzeko esan diot, Euskaltzaindia aspalditik ari baita lanean Euskal Herriko Iparralde honetan. Zehatzago esateko, bere sorrera datatik bertatik, ordurik hona etengabekoa izan baita Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ordezkarien presentzia Euskaltzaindian, dela euskaltzain ohorezko, dela euskaltzain oso, dela euskaltzain urgazle edota laguntzaile gisa.

Euskaltzaindia da, izan ere, euskararen erakundea. Hala da euskararen lurraldeetan; hala izan da eta hala beharko du izan, baldin eta nahi bada euskararen hizkuntza, ideologia eta pentsamolde desberdinetatik at izatea. Hainbatez

gogora dezadan Euskaltzaindiaren estatus juridikoa, bera baita bakarra, euskarari dagozkionetan, erakunde ofizial eta arau-emailea, Hego Euskal Herrian, eta onura publikoarena, Ipar Euskal Herrian. Ofizialtasun-puntua behar du eskuratu Euskal Herriko Iparralde honetan, eta horretarako ahaleginetan dihar-du Euskaltzaindiak.

At edo kanpo izateak, alabaina, ez du esan nahi gizartetik aldentuta, aparte bizi behar duenik Euskaltzaindiak. Hala egingo balu, galbidea besterik ez luke ekarriko horrek bere xede garrantzitsuarentzat, euskararentzat. Itxurakerian ere ezin bizi, euskara kinka larrian dagoen une honetan. Zertan izango luke, beraz, Euskaltzaindiak bere bidea, euskarari bere babes eta sustatze-lana ahalik hobekien emateko?

Bistan da galdera horri erantzun bakarra ematerik ez dagoela. Bai, ordea, askotariko arapostua, alde eta ikuspegi askotakoa. Baten batzuk hautatzekotan, hona hemen nireak:

- Euskaltzaindiari dagokio, batetik, euskararen herrialde guztietan horien egoera eta erabilera bultzatzea, tokian tokiko ezaugarri berezkoekin, betiere, ahantzi eta baztertu gabe, euskara bat eta bakarra dela, molde eta tenore desberdinak bere baitan biltzen dituen.
- Euskaltzaindiari dagokio euskararen herrialde desberdinetako tradizioa biltzea eta ikuspegi zientifikotik ikertzea, euskararen normatibizazioa eta estandarizazioa erdiesteko, euskara moderno eta erabilgarri baten bila.
- Euskaltzaindiari dagokio herrialde bakoitzaren agintariekin hitzarmenak sinatzea, euskararen hizkuntza-politikaren eremuan gure ahotsa eta gure aholkua har ditzaten, inolako alderdikeriarik gabe eta herrialde horien egoera propioa aintzat hartuta.

Azken horren froga da gaurko ekitaldia, bi erakunderen arteko lan elkartuaren emaitza. Horren bidez ere lortu da Euskaltzaindiarentzat ordezkari berria, egungo ikerketa- eta zerbitzu-mailak behar duena. Euskaldunek ere erdietsi dute Euskaltzaindiak berak zerbitzu duinagoa eman ahal izatea.

Betor, ildo beretik, lehendik ere Euskararen Erakunde Publikoarekin dugun hitzarmena eta horren garatzea. Aldanahi eta egonzaleen artean, aspalditik hartua du erabakia Euskaltzaindiak, gibelera baino, aitzina begira jokatzeko. Iraganari muzin egin gabe, berak erakusten digu sarri-sarri zuzeneko bidea; on da ideia eta gogoeta berrietan murgiltzea, gizarteak aurrera egiten duen ber, euskarak ere zahar ukitua izan ez dezan, gizakiarekin batera hizkuntza ere aldatuz doalako.

Kantitu beharrik ez dagoela uste duenaren kontra, egokitu beharra ikusten du Euskaltzaindiak euskararen baitan, egokitu, gaurkotu, eguneratu... eta

erabilgarri eta ezin utzizko bihurtu eguneroko zereginetan. Horra hor gakoa eta muina.

Egin dezagun lan elkarrekin guztiok euskara aitzinatzeko, euskara baita gure kultur ondarearen zati garrantzitsua eta alboraezina. Horretarako tokia eta baliabideak badatoz, borondatea eta gogoia ez da faltako Euskaltzaindiaren aldetik.

Mila esker guztioi, eta bereziki urte luzetan gure buru izan den Jean Haritschelharri, bere lana eta aholkuengatik. Orobat Iparraldeko euskaltzain oho-rezko, oso eta urgazleei, Euskaltzaindiaren langileei eta euskaltzale guztiei, egunero-egunero euskararen eta Euskaltzaindiaren lana hartzen duzuelako adore eta kemen handiz.

Ekin diezaiogun, bada, egitekoari.

\* \* \*

Monsieur le Maire de Bayonne,  
Monsieur le Vice-Président du Conseil Général et Président de l'Office  
Public de la Langue basque,  
Monsieur le Député,  
Chers collègues membres de l'Académie,  
Mesdames,  
Messieurs.

C'est un réel plaisir pour l'Académie de la Langue basque de vous recevoir à l'occasion de cette acte d'inauguration de sa nouvelle délégation bayonnaise.

Euskaltzaindia a donc désormais un nouveau siège de délégation pour proposer ses services à tous les Basques de cette partie du Pays basque et de l'euskara.

L'Académie n'ignore pas que que les besoins des délégations sont nombreux et importants, et qu'elle reçoit pour les satisfaire l'aide des institutions publiques. Comme il convient et comme il se doit, elle les en remercie vivement.

Que le Maire de Bayonne, et la ville de Bayonne reçoivent donc par ma bouche les remerciements les plus chaleureux de l'Académie, à qui ils offrent un lieu de travail digne et fonctionnel pour poursuivre ses activités en Iparralde.

De poursuivre ses activités, ai-je dit, car il y a fort longtemps que l'Académie travaille de ce côté-ci de la frontière. En fait, c'est depuis la création

même de l'Académie qu'il y a eu des représentants du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule au sein de l'Académie, en tant qu'académiciens d'honneur, académiciens titulaires, ou membres correspondants.

Euskalzaindia a été, et demeure, l'institution de la langue basque. Elle est présente comme telle dans tous les territoires bascophones. Ceci est indispensable si l'on veut que l'euskara demeure une élément transcendant les différences de mode de pensée ou idéologiques. Permettez-moi, de rappeler aussi son statut juridique, qui est unique, d'une part en tant qu'institution publique officielle de normalisation linguistique relativement à l'euskara en Pays basque sud, d'autre part, en tant qu'Association reconnue d'Utilité publique en Iparalde. Nous savons qu'il manque encore à l'euskara une reconnaissance officielle de la part de l'Etat en France, mais nous espérons que celle-ci pourra être obtenue dans l'avenir, et nous travaillerons à cet effet.

Demeurer en dehors des différences et conflits de la société ne veut pas dire pour l'Académie rester loin de la réalité sociale. S'il en était ainsi, cela la conduirait à l'échec total relativement à ses responsabilités à l'égard de son objet principal, c'est à dire de la langue basque, à l'heure précisément où celle-ci se trouve dans une situation très préoccupante. Impossible d'ignorer cette réalité.

Quelles sont les tâches qui incombent à notre Académie pour défendre et promouvoir l'euskara et encourager son usage ? Bien sûr, il n'est pas possible de donner une réponse unique à cette question. Les réponses seront donc plurielles, et ayant des perspectives différentes. S'il faut en choisir certaines, voici quelles seraient les miennes:

- L'Académie se doit, d'une part, d'encourager dans tous les territoires de la langue basque son usage, et d'améliorer sa situation, dans le respect des particularités locales, mais sans oublier que si elle présente des aspects divers et connaît des situations différentes, la langue basque est une.
- L'Académie se doit également de recueillir les traditions des différentes territoires du basque, et de les étudier de manière scientifique, de façon en particulier à établir des normes linguistiques et une standardisation adéquates, dans la perspective du développement d'un basque moderne et pratique pour les locuteurs actuels.
- Il faut également que l'Académie signe avec les autorités des diverses provinces des conventions par lesquelles, en matière d'aménagement linguistique relatif au basque, notre voix et nos recommandations soient entendues, sans aucune prévention partisane, et en prenant en compte la situation spécifique de chacune des provinces.

L'inauguration de ce jour, résultat de la collaboration de deux institutions, est une illustration de tout ceci. Grâce à ce partenariat l'Académie est désor-

mais dotée d'un siège de délégation nouveau, présentant les caractéristiques techniques permettant de répondre aux exigences actuelles en matière de recherche et de services. Les Basques pourront ainsi recevoir un service plus digne de la part d'Euskaltzaindia.

Qu'il en advienne ainsi quant à la signature et au développement de la Convention avec l'Office public de la Langue basque. Entre les conservateurs et les rénovateurs, il y a bien longtemps que l'Académie a choisi d'agir en regardant vers l'avenir, mais sans renier le passé car c'est lui qui nous montre souvent la voie à suivre. Il est bon de se confronter aux idées et pensées nouvelles, de façon qu'à mesure que la société progresse, le basque ne se trouve pas enfermé dans le passé, car la langue change avec les individus.

Contrairement à ceux qui pensent qu'il ne faut rien changer, l'Académie perçoit le besoin d'adapter la langue, de la rénover et de la moderniser pour la rendre à même de répondre aux exigences de la vie quotidienne. Voilà l'enjeu majeur et central.

Travaillons tous ensemble pour faire avancer et progresser l'euskara, lequel constitue la part la plus importante, incontournable, de notre patrimoine culturel. Si les ressources et moyens lui sont pourvus comme il convient, ni la bonne volonté ni l'ardeur ne manqueront à l'Académie.

Mettons nous donc à l'ouvrage!

Mila esker.

**BERRIAK**

## ***EiTB* ETA *EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO* *LANKIDETZA-HITZARMENA***

*Iurreta, 2007-I-23*

Andoni Ortuzar Euskal Irrati Telebista (EiTB) herri erakundeko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak EiTBren –eta horren sozietate Euskal Telebista, Eusko Irratia eta Radio Vitoriaren– eta Euskaltzaindiaren arteko bigarren lankidetzaz hitzarmena sinatu dute gaur, urtarrilak 23, EiTBren Iurretako egoitzan. Hitzarmen horren bidez, EiTBko hedabideetan euskararen erabilera egokia sustatuko da, euskal gizartean euskara normalizatzeko eta bultzatzeko helburuarekin. Ekitaldian halaber, Jose Luis Lizundia diruzainak eta Julian Beloki EiTB Irratiko zuzendari koordinatzaileak parte hartu dute.

Bi erakundeen arteko lankidetzaz hiru esparrutan gauzatuko da:

- Lexikoa, batez ere Onomastikaren alorrean, eta bereziki EiTBn erabiltzen diren toponimo, exotoponimo eta antroponimoei lotua.
- Hizkuntzaren gramatika.
- Ahoskerari buruzko arauak eta jarraibideak.

Era horretan, euskararen erabilera egokirako, EiTBri aholkua eskainiko dio Euskaltzaindiak, eta horrez gain, urtean behin, txostena osatuko du. EiTBk, bere aldetik, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera zuzena bultzatuko ditu.

EiTBren hedabideek egindako kontsultei lehentasuna emango die Akademiak. Erakunde bietako ordezkari bana arituko dira kontsulta horiek eta erantzunak bideratzen.

Hiru urteko iraupena izango duen hitzarmen hau behar bezala betetzen ari dela ziurtatzeko Euskal Irrati Telebistak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea eratuko dute.



## **EUSKALTZAINDIAK ETA *ELHUYAR* FUNDAZIOAK ELKARLANERAKO HITZARMENA SINATU DUTE**

Martxoaren 16an, *Elhuyar* Fundazioaren egoitzan, elkarlanerako hitzarmena eta 2007ko protokoloa sinatu zituzten Euskaltzaindiak eta Elhuyar Fundazioak. Fundazioaren izenean Jose Mari Rodriguez Ibabe *Elhuyar* Fundazioko buruak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du.

Sinatze-ekitaldiaren aurretik, Elhuyarrek bere jardunaren berri zehatza eman zien Euskaltzaindikoko kideei, batez ere hizkuntza-zerbitzu eta teknologien arloan. *Elhuyar* Fundazioaren izenean hauek izan ziren: Jose Mari Rodriguez-Ibabe, burua; Itziar Nogeras, zuzendari nagusia; Josu Waliño, proiektu-zuzendaria; Josu Aztiria, hizkuntza zerbitzuak saileko arduraduna; Antton Gurrutxaga eta Alfontso Mujika Etxeberria, Hizkuntza Zerbitzuak saileko kideak; Olatz Estensoro, Elhuyar aholkularitzako kidea; Ibon Aizpurua Ugarte, Eleka ingeniaria linguistikoko kidea. Euskaltzaindiaren izenean hauek izan ziren: Andres Urrutia, burua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andres Iñigo, *Jagon* Sailburua eta Pello Telleria, idazkariordea.

## **BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA-EUSKALTZAINDIA 2006ko R.M. AZKUE LITERATURA SARIAK**

*Bilbo, egoitza, 2007-III-12*

11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko deialdia da.

Martxoaren 12an, Euskaltzaindiaren Egoitzan 2006ko Resurrecion Maria Azkue Literatura sariak banatu dira. Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.

Jakina denez, sariak bi lan mota hartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia, alegia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat.

Hauxe dugu aurtengo edizioan izan den partaidetza kopurua:

- A mailan, narrazioan: 60 lan.
- A maila, olerkian: 39 lan.
- B maila, narrazioan: 86 lan.
- B maila, olerkian: 94 lan.

### **EPAIMAHAIKOAK**

Urtero bezala, aurtren ere literatura eremuko pertsona adituak osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Antton Irusta eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

### **SARIDUNAK**

#### **A MAILAko sariak**

##### *Narrazio alorrean*

Lehen Saria: *Liburuaren sekretua*. Egilea: Mailen Dagorret (Itsasu-Lapurdi).  
Ikastetxea: Kanboko *Xalbador* Kolegioa. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren Saria: «Laurgaineko kontesa». Egilea: Lierni Varela Egiguren (Azpeitia-Gipuzkoa). Ikastetxea: *Urola* Ikastetxea BHI. Laguntzailea: Mikel Sarasua.

Hirugarren Saria: «Usoa eta armiarma». Egilea: Aurélie Christmann (Kanbo-Lapurdi). Ikastetxea: *Xalbador* ikastetxea. Laguntzailea: Pruden Sudupe.

### ***Olerki alorrean***

Lehen Saria: «Nire burutik». Egilea: Leire Arenas Belamendia (Azpeitia-Gipuzkoa). Ikastetxea: *Ikasberri* ikastola. Laguntzailea: Luix Gurrutxaga.

Bigarren Saria: «Zure irudia». Egilea: Naia Leconte (Angelu-Lapurdi). Ikastetxea: Kanboko *Xalbador* Kolegioa. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Hirugarren Saria: «Amatxi». Egilea: Kattalin Duhalde (Aiherra-Nafarroa Beherea). Ikastetxea: Kanboko *Xalbador* Kolegioa. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune

## **B MAILAko sariak**

### ***Narrazio alorrean***

Lehen Saria: «Trapuzko panpinaren egunerokoa». Egilea: Izar Azpiroz Irigorri (Oiartzun-Gipuzkoa). Ikastetxea: Errenteriako *Oiartzo* Batxilergo Ikastola. Laguntzailea: Aizpea Aizpurua.

Bigarren Saria: «Bizitzaren pentagraman jolasean». Egilea: Alaine Agirre Garmendia (Bermeo-Bizkaia). Ikastetxea: *Ignacio Arozena* Institutua. Laguntzailea: Marian Bilbao.

Hirugarren Saria: «Ohartu zarelako». Egilea: Olaia Azpiroz (Oiartzun-Gipuzkoa). Ikastetxea: *Haurtzaro* Ikastola. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman du:

- «Kafe usaina». Egilea: Jon Cadierno Gutierrez (Zumarraga-Gipuzkoa). Ikastetxea: *Jose Maria Iparragirre* BHI. Laguntzailea: Itziar Agirre.
- «Begien bakarrizketan». Egilea: Maite Agirre Mujika (Beasain-Gipuzkoa). Ikastetxea: *Loinazpe* BHI. Laguntzailea: Reme Arrondo.

***Olerki alorrean***

Lehen Saria: «Prefabrikatutako ametsak bide itxietan». Egilea: Haizea Alvarez Martinez (Getxo-Bizkaia). Ikastetxea: *Aixerrota* BHI. Laguntzailea: Imanol Goienaga.

Bigarren Saria: «Txoriak askatzen». Egilea: Izar Azpiroz Irigorri (Oiarzun-Gipuzkoa). Ikastetxea: Errenteriako *Oiartzo* Batxilergo Ikastola. Laguntzailea: Aizpea Aizpurua.

Hirugarren Saria: «Etsaiak». Egilea: Unai Lires Arrieta (Ondarroa-Bizkaia). Ikastetxea: *Txomin Agirre* Ikastola. Laguntzailea: Unai Arza.

## **BBK - EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK: 2007KO DEIALDIA**

*Bilbo, egoitza, 2007-III-12*

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak, bi erakundeok aspaldidanik antolatzen duten literatura lehiaketaren aurtengo deialdia kaleratu dute. Jakina denez, sariak lau dira: *Txomin Agirre* Eleberri-saria, *Toribio Altzaga* Antzerki-saria, *Felipe Arrese Beitia* Olerki-saria eta *Mikel Zarate* Saio-saria.

### ***Txomin Agirre* Saria. Eleberria**

Lanak gutxienez, 125 orriko luzera izango dute  
8.000 euroko sari bakarra.

### ***Toribio Altzaga* Saria. Antzerkia**

Lanak nahi den neurrikoak izan daitezke  
5.000 euroko sari bakarra.

### ***Felipe Arrese Beitia* Saria. Olerkia**

Lanak gutxienez, 750 bertso-lerroko luzera izango dute  
5.000 euroko sari bakarra.

### ***Mikel Zarate* Saria. Saioa**

Lanak gutxienez, 125 orriko luzera izango dute  
6.000 euroko sari bakarra.

\* \* \*

## **AURKEZPENA**

Aurkezteko epea 2007ko urriaren 16an amaituko da eta, lanak, helbide honetara bidaliko:

Bilbao Bizkaia Kutzaren Kultura Gela  
Elkano, 20  
48008 Bilbo

## **SARIAK IRAGARTZEA**

Epaimahaikoen erabakiak, 2007ko abenduaren 31 baino lehen iragarriko dira.

## **2006AN LAN SARITUAK KALEAN**

Bestalde, 2006. urtean saritutako literatura-lanen argitalpenak kalean dira. Ondoko hauek dira 2006ko deialdiko irabazleak:

- *Arkitektoa*. Egilea: Txema Garcia-Viana.
- *Joanes (itxaropenaren semea)*. Egilea: Alaitz Olaizola.
- *Zirrikituak*. Egilea: Aintzane Galardi.
- *Herri maitea, Herri dorpea*. Egilea: Sebastian Gartzia Trujillo.

## KEPA ALTONAGAREN *ETXEPARE, ALDUDEKO MEDIKUA*

### Liburuaren aurkezpena

Otsailaren 15ean, *Etxepare, Aldudeko medikua* liburuaren aurkezpena euskararen aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Akademiaren Egoitzan, Bilbon. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ludger Mees, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak; eta Kepa Altonaga egileak.

Liburu hau, Kepa Altonaga egileak 2003an irabazi zuen CAF-Elhuyar zientzia-dibulgaziorako sarian oinarrituz egin da. Eta kaleratu Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Akademiaren arteko hitzarmenari esker.

«Jean Etxepare guztiz intrigagarria da». Horrela adierazten du Kepa Altonagak berak, hitzaurrean, liburuaren idazteko izan zuen arrazoietako bat:

nire begietarako Jean Etxepare idazle dotorea da, eta zorrotza. Berritzailea da. Eta irekia. Areago: Jean Etxepare idazle ekumenikoa da. Atseginez irakurtzen da.

Hark dioen bezala, Etxeparek eboluzionismoa euskararen munduan sartu nahi izan zuen; hori:

erabakigarri suertatu zitzaidan. Une horretatik aurrera gogo bizia eduki izan dut, idazleaz bestalde gizona ulertzeko, eta bai gizon horren ingurua ere.

Gogo horrek bultzaturik, Jean Etxepareren nortasuna eta ibilbidea ezagutu nahi izan ditu Altonagak. *Etxepare, Aldudeko medikua* liburuaren bitartez,

Jean Etxepare medikua bere testuinguruan ulertzen ahaleginduko gara, eta izatez, Aldudeko medikuaren bizitza eta obra izan dira liburu honen ardatza eta denbora-bidaierako aitzakia.

Izan ere, pertsonaren ibilbideaz eta pentsamenduaz baliaturik, zientziaren aspektu orokor batzuk eta garaiko Euskal Herriaren berri ematen du Altonagak bere liburuan.


\* \* \*

Kepa Altonaga Biologian doktorea da eta Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Euskal Herriko Unibertsitatean. UEUKo kidea da eta UZEI eta Elhuyarrekin kolaboratu izan du. Euskaltzain urgazlea

da. *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (1998) eta *Armand David, pandaren aita* (2001) liburuak argitaratu ditu.

\* \* \*

Jean Etxepare Bidegorri (1877-1935) Argentinan jaio zen, *Mar Chiquita* herrian, baina haurra zela bueltatu zen Euskal Herrira. Medikuntza ikasi zuen Bordelen eta 1901ean, doktore-tesia aurkeztu. Garaiko idazle laiko bakarrenetarikoa izan zen. Gaztetandik hasi zen *Eskualduna* aldizkarian kolaboratzen. Bi liburu argitaratu zituen: *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931). Haren lan guztiak bildu eta argitaratu ditu Piarres Xarritton euskaltzain osoak. Eskualtzaleen Biltzarreko burua izan zen eta *Gure Herria* aldizkariaren buruorde eta idazkari nagusia. Kanbon hil zen, 1935ean.





**«EZ DOK AMAIRU» ERAKUSKETA**

*Euskaltzaindiaren egoitza, 2007-III-27*

## «EZ DOK AMAIRU» ERAKUSKETA

*Andres Urrutia,  
euskaltzainburua*

Usurbilgo alkate jauna,  
Agintariok,  
Euskaltzainkideok,  
Jaun-andreok,

Arratsaldeon guztioi!

Joan den mendeko hirurogeigarren hamarkadaren azken hondarretan euskalgintzara hurbildu ginenontzat, ezin baztertzeko oroitzapenak dakarzkigu gaur zabaltzen den erakusketak. Izan ere, *Ez dok amairu* izenaren barruan ezagutu genituen gerora gure biografian guztiz esanguratsu gertatu diren izenetatik hainbat: Lete, Laboa, Lertxundi, Iriondo, Irigarai, Oskarbi... Hor zegoen proposamen berria, musika eta estetika garaikideaz lagunduta, eta euskara hogeigarren mendean jartzen zuena.

Horixe da, izatez, Bilboko eta Bizkaiko jendearen aurrean jartzen duguna, Jesus Artze Fundazioarekin eta Usurbilgo Udalarekin batera. Uste dugu, uste ere, horrekin Euskaltzaindiak garai bateko giroa eta bizipenak berreskuratzen dituela euskaltzale guztientzat.

Garai batekoak esan dut, baina egunotakoa ere gogoratu behar dut, hain zuzen ere, garai batekoak gure gaurkoaren oinarriak direla azpimarratzeko. Oinarri sendoak eta zutabe indartsuak, euskara bera etorkizunera eramateko modukoak. Hor dago gure lana; hor dago gure egunerokotasuna. *Ez dok amairu* taldearen lorratzari muzin egin gabe, norabide berrien bila abiatu eta abiarazi euskara eta euskal kultura.

Mila esker.

«EZ DOK AMAIRU»  
ERAKUSKETA

1966-03-06 – 1972ko abendua

*Joxemari Iriondo*

Arratsalde on, Euskaltzainburua, Usurbilgo alkate jauna, eta zuoi denoi.

2003ko apirilean, Jexuxmari Artzeren heriotzako lehenengo urteurrenean usurbildarrek antolatu zuten *Ez dok amairu* erakusketa ximple baina oso eta eder hau antolatu zutenean pozez zorutzen txalotu genuen ahalegin hura. Hala ere, egia esan behar dizuet, beldur nintzen, oso beldur, hantxe, Usurbilen bertan gelditu eta itoko zela dena, egiten ditugun ahalegin gehienak horrelaxe amaitzen baitira askotan gure artean. Oker nengoen ordea, zorionez. Izan ere, lehengo udazkenean Urnietan ikusi ahal izan genuen erakusketa hau, Lourdes Iriondoren heriotzako urteurrenaren atarian. Usurbilgo Udalak eta Urnietakoa, bata bestea lagunduz, Artze gazte zenaren oroitzarrez egindakoa Urnietako *Lekaiora* eraman zuten, eta 60. hamarraldian *Ez dok amairu* ezagutu eta txalotu zutenek, talde mitiko hura berriro gogoratzeko aukera izan zuten, eta gatzetxoak izan eta ezagutu ez zutenek *Ez dok amairu*-ren argazkiak, diskoak eta han-hemengo egunkari eta astekarietan argitara emandako kronikak irakurri ahal izan zituzten.

Baina gaur beste urrats handi bat eman duzue: nora ekarriko eta Bilboraino ekarri Usurbilen hasitakoa, alajaina! Areago: zein interesatuko talde haren historiaz eta Euskaltzaindia bera interesatu gainera, Bilbo eta Bizkaiko jendeak ere ikusi eta gogora ditzan garai hartako ibilerak. Bejondeizuela! Eskerrik asko, bihotzez.

\* \* \*

Atsegin eta pozbide bikoitza da niretzat gaurko eguna. Batetik, Usurbilen amaitu eta ito ez zelako ahalegin handi hura. Eta bestetik, Gipuzkoako mugak gainditu eta Bilboraino heldu delako erakusketa, *Ez dok amairu* taldea Bilbon ere oso estimatua eta onartua izan baitzen. Zuoetako askok gogoan izango duzuenek, saio asko eman zuen talde gipuzkoarrak Bizkaian, askotan taldeka eta besteetan bakarka, binaka, hirunaka eta abar. Garai hartan hartu nituen nire oharretan jasota daukadanez, honako jaialdi hauek eman zituen *Ez dok amairu* taldeak Bilbon eta Bizkaian, gutxienez ere:

- 1966ko azaroaren 6an, Ondarroan kantatu zuen.
- II. Euskal Liburu eta Disko azoka zelata, Durangon kantatu zuten hurrena *Ez dok amairuko* kantariak, hara nola: Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta Bihurriak (Arantxa Gurmendi), 1966ko azaroaren 30 eguerdian; egun berean, Joxe Antonio Villar, Julen Lekuona eta Mikel Laboak kantatu zuten, arratsaldean; eta gauean, berriz, Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta Artze anaien saioa egin zen.
- 1967ko urtarrilean jaialdi ederra eman zuen taldeak Bilboko Santiago Apostol aretoan; eta otsailean, berriro (taldearen erdia) Bilbon izan zen. 1971ko martxoaren 6an, berriz, *Baga, biga, higa ikuskaria/sentikaria* eman zuten Coliseo Albia aretoan. Sekulako arrakasta izan zuten hiru agerraldietan ere, Xabier Gereño eta Migel Angel Astizek ondo asko goraiatu zuten.
- 1967ko urtarrilean Bermeon izan ziren.
- 1967ko otsailean, Lekeition
- 1967ko otsailaren 12an, eta 1971ko apirilaren 30ean (*Baga, biga, higa*), Barakaldon.
- 1970eko abuztuaren 22an Portugaleten egin zuen *Ez dok amairuk* bere *Baga, biga, higa* ikuskari/sentikari esperimenteraren lehenengo emandaldia, estreno mundiala alegia, ausardia osoz. Herriko *Elai-Alai* taldeak lagundu zien jaialdia antolatzen, eta sekulako arrakasta izan zuten han ere.
- 1970an Elorrion eman zuten bigarren ikuskari/sentikaria; eta
- 1971ko irailaren 26an, Zorrotzan (Bilbon).

Esan bezala, *Ez dok amairu* taldeak 1966tik 1972ra emandako jaialdiak dira aipatu ditudan hauek, batez ere, bakarka emandakoak alde batera utzita.

### ***Ez dok amairu. Sorrera***

Ukaezina da 60-70ko hamarraldian gure Herrian izan zen kultura mugimenduaren ezaugarriak serio eta sendoenetarikoa dela *Ez dok amairu* –euskal kantagintzaren sailean bereziki–. Belaunaldi helduek nekez ahaztuko dute 1966. urtearen hasieran talde mitiko hark gure artera ekarri zuen poza eta ilusioa, frankismoaren garai petralean zerbaiten behar gorrian geunden-eta Euskal Herrian.

Gipuzkoako kantari ezagun asko bildu zen taldera, elkarlanean zerbait gehiago egin nahita, Catalunyan *Els Segte Jutges*-ek egin zuen moduan. *Ez*

*dok amairu*, batez ere, euskal kantagintza berriaren bideetan topo egin zuten lagun batzuen egitasmoa zen oro har, taldera bildu nahi zuten denei ateak idetik. 1965eko urriaren 13an Zarautzen, eta handik hamabost egunera Azpeitian egin ziren lehenengo bilerak; eta urte hartako azaroaren lehen hamabostaldian euskal musika eta kulturaren alor ezberdinetan lanean ari zirenei dei egin zitzaizen, egitasmo hartan partaide izan zitezen. Eta halaxe bildu ziren Lourdes Iriondo, Joxean Artze, Joxemari Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Julen Lekuona, Joxe Angel eta Juan Migel Irigarai, Bihurriak (Aranxta Gurmendi), Jose Luis Frantzesena *Schubert*, Manolo Urbietta, Joxe Antonio Villar, Juantxo Mingo, Mikel Bikondoa, Yoloak, Oskarbi, Angel Mari Arenas eta abar, Nemesio Etxaniz apaiz idazlea ere laguntzaile zela. Bestalde, ahantz ezina da taldearen sorreran Jorge de Oteizak, Koldo Romerok, Jose Luis Zumetak, Nestor Basterretxeak, Fernando Larrukertek eta beste hainbat euskaltzalek emandako animoa ere.

### Aurkezpen ofiziala

Hernanin egin zen lehenengo jaialdia, 1966ko urtarrilaren 9an; eta urtarrilaren 23an bigarrena, Donostiako Victoria Eugenia aretoan. *Jarrai* antzerki taldeak antolatu zituen bi jaialdiok ez ziren egin ordea taldearen izenean, ez. *Ez dok amairu* izenarekin eman zen lehenengo jaialdia, taldearen aurkezpen ofiziala, Irungo *Bellas Artes* aretoan egin zen, 1966ko martxoare 6, eguerdian.

Jaialdiaren hasieran, *Martintxo errementaria* (1) ipuina irakurri zuen Xabier Letek, offean, aretoko argiak itzalita; eta gero, Joxemari Iriondoren aurkezpenaren ostean, Lourdes Iriondok, Julen Lekuonak, Joxe Antonio Villarrekk, Bihurriak eta Oleskariak zortzikoak kantatu zuten, eta Artze anaiek txalaparta jo. Jaialdiaren osagarri, *Pelotari* filmea (Basterretxea-Larrukert) eman zen azkenean.

Taldekide asko estu eta larri bazegoen ere, berebiziko arrakasta izan zuen lehen aurkezpeneko jaialdi hark, orduko egunkarietako kroniketan irakur daitekeenez. Irungo aretoa gainezka bete zen, baina 9.050 pezeta bildu ziren sarreretatik, eta 150 pezeta bakarrik gelditu kaxarako, aretoaren alokairua, *SGAE-Menores* zergak eta beste zenbait gastu ordaindu ostean.

Hurrengo jaialdiak, berriz, Zumarragan, Seguran, Ordizian, Madrilen, Donibane Lohizunen, Errenterian, Orion, Ondarroan, Durangon, Bilbon, Eibarren, Ondarroan (bigarren aldiz), Bermeon, Andoainen, Bergaran, Lekeition, Do-

---

(1) *Martintxo errementaria* – Joxe Migel Barandiaran «Obras Completas», Tomo I – Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, eta R.M. Azkue: *Euskalerrriaren yakintza*, Madrid, Espasa-Calpe.

nostian, Barakaldon, Bilbon (bigarren aldiz), Bartzelonan eta abar eman ziren, hurrenez hurren. Jendeak ondo baino hobeto erantzun zuen ia gehienetan. Hala ere, antolaketa lanetan taldeak jarraipen zehatza egin beharra zeukala ikusi zen zenbait herritan gauzak seriotasunez egiteko.

*Ez dok amairu* taldearen arrakasta ukaezineko zerbait izan zen hasiera beretik. Ez dago zenbait kronika irakurri besterik hori egiaztatzeko. Donostian emandakoaren ostean, honela idatzi zuten bere izenik eman ez zuen norbaitek (Nemesio Etxaniz?):

*Zeruko Argia* onen beste orrialde batean, gertaera pozgarri bat aitutzen degu. Hernani'n ilbeltzaren 9an eta Donosti'ko Victoria Eugenia antzokian 23'garrenean, garaipen aundia izan du gure izkuntzak.

Egun oietan, izan ere, lenengo aldiz antolatu da Euskal Abesti Berrien Jaialdia. Gure gaztedia, nexka eta mutil, bildu dira gaurko giro berriko kanta sail bat abesten. Erriak, berriz, ederki erantzun du, ta kantarien lana gogoz txalotu ere.

Kitarra ta pilarmonikaz lagunduak batzuek; orkestinaren laguntzaz besteak, gaurko telebistan erderaz entzuten ditugun abesti berrien giro ta aidetan, euskerazko itzekin abestuak entzun ditugu alako kanta atsegiñak. Euskerak gaur arte lur berria zuan kanta sail ori. Gaurtik euskerak beretzako irabazi du kanta berrien saila.

Benito Lertxundi oriotarrak asiera eman zion jaialdiari. Mutil onek bere kitarraz, igaz *La Voz de España*'k antolatutako leiaketan, bigarren saria jaso zuan. Euskeraz ere jator kantatzen du.

Urrengo, Kemen izeneko neska irukotea, pilarmonikaz lagunduta agertu zitzaigun, kanta arin eta atsegiñez. Mikel Laboa mediku gazteak, kanta zaarrak berrituta bezela erakutsi zizkigun Ermani'n. Bere diskoa ezaguna da Euskalerrian, eta aurrera dijoa diskoak gertatzen.

Mari Lourdes Iriondo'k ez du iñoren bearrrik kitarra artu ta zoragarri abes-teko. Erriz-erri dabilkigu, eske guztiei erantzun eziñaz. Zuaznabar anaian Txalaparta ere antziñako usaiz igurtzia zetorkigun. Arantxa Gurmendi'k bere era berria erakutsi zigun dotore ta txairo orkestinaz bere doiñuak apainduaz. Julian Lekuo-na apaiz jaunak, ostera, abesti sakonak eta zirrarakorrek ixuri zizkigun, kitarra es-kuetan artuta.

Azkenean, Bikondoa auspo-joille yayoa, España'ko txapeldun eta Europa'n bosgarrena gelditu danak, bere soiñuaz gozatu du jendea. Bukatzeko, *Pelotari* pelikula, euskeraz azaldua ikusi genduan, ari ta zur. Alako zine ederrik eta ikus-garririk! Gure pelota joko zoragarria, esnaera pozgarrian agertzen du, gazte ta za-rrerentzat.

Orrelako Jaialdi berria atsegin da gure izkuntzarentzako. Orain ekin beste gazteok ere, zuen gaitasuna sail ontan erakusten. Sortu kanta berriak, lengo zaar-rekin batera kanta ditzan Euskalerriak. Iparragirre'renak bere sasoi bezela, ba-rraia ditezela aide berriok Euskalerrri guztian! (2)

---

(2) «Euskal kanta berriak aidean», *Zeruko Argia*, 1966.01.30, 7. or.

Susmo eta kritika okerrak ere izan ziren taldearen sorreran, bai. Izan ere, norbaitzuen iritziz, ez zen zilegi eta ez komenigarri kanpoko musika gurean onartzea, Nemesio Etxanizek eta beste askok oso besterik uste bazuten ere. Gaztelaniatzko egunkarrietan baino modu hobexean, baina Jon Oñatibia bera ere beldur zen nonbait, luze idatzi zuenez:

egoera ortaz oarturik, era berriko musika oyek euskeraz emateko alegiñetan dabilta batzuek. Ta jakiña, kanta berriak sortzia baiño kanpotik datozenai euskerazko itzak ipintzia askoz ere errezagoa dalako, lan ortan fede onez diarduten euskaldunak badira. Baiña, nere iritziko, bi egokiez ditu lan orrek. Aztertu ditzagun.

Alde batetik, atzerritik etorritako kanta berriak, lendabizi berexi, gero itzak jarri, eta urren, gure erriari atsegin zaizkiola ikusi ondoren, bere diskoa egin nai degunerako abesti orrek alde egin du lur ontatik eta bere orde besterik berri batzuek jabetu dira gazteen biotzetaz. Bestela, oroitu emen «Gaztetxo naiz» abesten asi giñanerako, aspaldi obiratua zegoen gaiñerako errialdeetan.

Bigarren egokieza, berriz, atzerritik etorritako eresi berriak euskal nortasunari kalte aundia egioten diolako da; berrikeri oyek, alde guztietako giroetaz nagusituta, alako berdintasun belaska bat sortzen bai dute, bide batez, erri bakoi-tzeko nortasunak uxatuz... (3)

Anonimoak eta mehatxuak jaso genituen behin baino gehiagotan taldeko kantarien abestiak grabatu eta irratian ematen genituelako. Baina gure entzuleek horiexek entzun nahi, eta bai guk pozik eman ere. Eta zuzenean egindako kritikak baino kalte gehiago egin ohi zuten zuzendariarekin, edo nagusia-rekin hitz egin eta zeharka etorritako presioek. Hala ere, arriskatu eta aurrera egin genuen, halaxe behar zela-eta, bistan denez:

1966ko urtarrilaren 23an Donostiako Victoria Eugenia antolatutako Lehen Euskal Abesti Berrien jaialdiari buruz. Arrisku handiko gauza zan baina jendea pozik zegoen. Berebiziko jaialdia igaro zuten. Txalo sutuen bidez, ontzat eman zuten eginiko proba.

Egunak aurrera, erdaldun eguneroko batean emakumezko baten lana agertu zan jaialdi hauen egite kaltegarria aipatuaz. Gerxeago, beste eguneroko bat aurrez idatzitakoarekin bat egiñaz, jantzi-urratzea gehituaz, ondoren irrati bat, gero...

Ritmo berriko abesti batzuek abestu zirala? Bai, jaunak. Izan ziren gureak, zaharrak edo sortu berriak, Prestley, Holliday eta Beatlesen abestiak ere bai ordea. Ta, zergatik ez? Gure hizkuntza euskara izaki, eta zer dela eta ezin dugu euskaraz kanta? Euskarak mugak al ditu? Honetarako erabili daiteke eta beste gauza hartarako ez?

Ez, ez dugu zuek bezela pentsatzen. Guretzako euskara, ez da baserri batean edo urrezko bitrina batean gorde behar dugun gauza bat; guretzat euskara, gure egintza guztietan beraz balia gindezkeen gauza bat izatea nahi dugu.

---

(3) «Kanta berrien ondorena», *Zeruko Argia*, 1966.03.20, 12. or.

Gaztediak ez ditu abesti zaharrak gorrotatzen, hori argi erakutsi du Mikel Laboaren diskari eman harrerarekin. Edizio guztia agortu da. Nahi gabe, ordea, telebisio, irratia, diska eta abarrek beste ritmo batzuetara eramaten du. Zergatik orduan berari atsegin zaion doinuari euskal hitzak eman ez? Hori ezin diteke inola ere, euskararen aurka joatea izan. Euskara, beste hizkuntza guztiak bezala, erabiltzeko da, eta, gure iritziz, zernahitan erabili behar da.

–A, baina zuek barkaezineko pekatu bat egin duzue: gitarra (4) joaz euskeraz abestu!

Pena ematen digu horrelako jendeak, ezin ditugu aintzakotzat artu, barre besterik ezin dezakegu egin. Hauek gure mendietako baserri batean telebisioren antena bat ikusten dutenean, su ta gar jartzen dira, herriaren amaiera ikusiaz. Gu ere ez gara alaitzen, ez; ala da. Ez ordea euskal baserrira telebisiola iritsi delako, euskaraz ez izateak, horrek mintzen gaitu.

Jaialdi hori dela eta «anonimoak» jasotzea ez zaigu batere harrigarri egin, bagenekien gauza da «aspaldiko espiritua», eta «euskal arima» mito bat besterik ez direla (5).

*Ez dok amairu* taldeak, besteak beste, haize eta indar berria, ilusioa, nor-tasuna eta duintasuna eman zion gure herrietako jaialdiak antolatzeko moduari, nahiz eta horretan ere oztopo gogorrak izan zituen bidean. Edozein herritara joan, ordu t'erdi edo bi orduko jaialdia eman, entzuleak ahoa zabalik gozatzen eduki, eta ikastolen alde, espetxeratuen alde, edo...beti zerbaiten aldeko jaialdia osatu eta bi sos eskatzea ontzat hartzen ez zuen jendea ezagutu genuen. Kritika, ona nahiz txarra, onartu egin behar da, kritikagileak bere eskubideak ditu-eta. Baina...

asko poztutzen gera euskaldunok, euskal abesti berria indarra artzen dijoala-ta, batez ere zarrak baztertu gabe. Berri auekin gure abesaila aberasten dijoalako, erriak oso onartu du, baiña tamalez emen ere badaukagu abeslarien aldetik akats aundia, nere ustez beintzat.

Oraintsu, euskal jai ikusgarriak izan ditugu emen, Bilbo'n. Onetarako euskal abeslari berriak ekarri ziran. Eta oso izen aundikoak gaiñera. Beste bati ere itz egin omen zioten, oraintxe izen edo ospe aundia artu duena. Baiña bere ekitaldiagatik bost milla laurleko eskatu omen zituan... Nere ustez auxe da akatsa.

Badakigu bere lantxoak dagokiola: abestiak ikasi, eresiari izkia ipiñi, edo eresia ta izkia guztiz berriak asmatu... Ezaugarri gera bere lan orreri dagokionez edo bere bizibide edo irabazi ori daukatenez, utsean ezin ibili litekeala. Baiña geiegizkoa deritzat eskatu duena. Ez degu uste oso euskaldun jokatzea danik.

Jai antolatzailleak ezingo bai lioteke bakoitzari orrenbeste ordaindu, erriarentzat sarpideak garestiegi joko lutekelako. Nere ustez era au erriari bere egarrian itozteko litzake. Ez dezala ba gaizkitara artu abeslari onek. Erriaren ona nai badegu, erriarentzat abestu bear da. Ta ez erriaren bizkar sakela berotu.

(4) *Gitarra española* euskal kantuetan erabiltzea ez omen zen zilegi.

(5) «Bestelakoak al gera saila», *Z. Argia*, 1966.03.13.



Barkatu, baiña «kritika» bidez zuzendu litezkealako ekin diot idazkera oni. Gauzak garbi ikusi bear ditugu. Ta gero euskalzale zintzo bezela jokatu.

Gure Iparragirre jatorrak  
onela jokatu izan bazuen,  
gaur gure Euskal Erriak  
bere oroimenik etzuen.  
Bai aurreko ta ondorengoak  
erri ta erriarentzat ziran.  
Guk beste ainbeste dagikegu;  
ez, bada, erri zaltzaille izan (6).

1968ko azaroaren 17ko *Zeruko Argian* berriro idatzi zuen *Iturrigar* jaunak aurrekoa gaizki interpretatu bazioten ere:

artista bat ez da artistagoa diru geiago eskatzen dualako. Ta euskaldun jatorra bada, ez du euskeraz abestutzeagatik geiegirik eskatuko, batez ere auzo langille batean bada antzerkaldia edo, obetoago esateko, abestaldia...

Abeslari ospetsua bada ta asko irabazi balezake, ondo egingo du ordaindu al dioten leketan eskatzen; baiña euskaldun bezela, aberatsak ez diraneri erreztasuna eman bear zaiela uste det.

Orain berrogei urte dirala  
Donostiko irratian,  
neronek ere abesten nuen  
«prezio» ondo merkean...  
Abesti bakoitzaren salneurria  
zan amabost laurleko;  
ta guk pozik abesten genduan  
euskeraren alde egiteko...

Gogorak ziren Imanol Badiolak *Anaitasunan* bota zituen sake haiexek ere, «*Ez dok amairu, ez eta ez!*» tituluarekin. Gozo-gozo hasi zuen kronika, baina bai artikulu gogorra huraxe:

ba ote dago erririk, «Ez dok Amairu» ezagutzen ez dauanik? «Ez dok Amairu» Euskalerrri guztian ezagutzen da, bera izan dalako, gure artean, euskal kutsua sartzen saiatu dana, gaurko abesti ta musika barriak geureganatzen ahalegindu dana... Gure txaloak benetan gaurkotasunez eta baita sakontasunez be jantzita dagoen euskal kantarien familia barri horrerri. Baina familia guztietan ere, zer bait egoten da tamalgarri eta txalotzeko aina ez dana.

Azkenengo barriak dinoskue, «Ez Dok Amairuk» ehuneko irurogei (60%) eskatzen dautsela, euskal ikastolen laguntzarako jaialdien antolatzaileei. Gauza honeen aurrean, legezkoak dira itaun honek: Dantza tokietan eta osterantzeko jaialdietan ehuneko irurogeita bost eskatzea bidezkoa da. Baina zuzena ote da, ikastolen laguntzarako nahiz Erriaren laguntzarako egiten dan jaialdi baten, ehuneko irurogei kentzea? Behar beharrezko ote da «Ez dok Amairuk» aktuatzan

(6) «Euskal abeslari berriari buruz». Iturrigar, *Zeruko Argia*, 1968.12.25.

duanean, beste inork ez aktuatzea? Gauza guztiok danon artean pentsatzeko dira, baina gauza bat dago garbi: Erriak ez dauala nahi, informazio eta turismoko talde bat lez, diru trukez eksibizino eder bat egiten dauan euskal kantari talderik. Erri sentitzen dan taldea nahi dau. Erri sentitzeak, bere konpromisutxoak daukaz, ez bakarrik euskerea sartzan dan arloan, baita diru arloan bere (7)

Garai eta egoera hori askok bizi eta sufritu zuen gure artean. Izan ere, zerbait egiten zuena, arriskutsua zen beti: auskalo zergatik ari zen! nork jakin zer nahi zuen. Egindako lana ordainduko ez bazizuten ere –ez zenuen horretarako eskubiderik, jakina–, antolatzaile asko kapaz izaten zen, gero, jaialdiaren ostean, auskalo nongo jatetxe ederretara eraman eta sekulako bazkaria edo afaria emateko, horrela zor guztiak kitatu eta goseak behintzat ez ginela hilko-eta. Bideko gastu eta arriskuak, gauzak prestatzen egindako lanorduak, etxetik kanpora egindako orduak... Horrek guztiorrek ez zuen deusik balio. Edo zerbait balio bazuen ere, hori bere bizkar har zezala artistak, eta kitto! Zertarako daude ba artistak Euskal Herrian?

Hala ere, bestela pentsatzen zuen jende asko zegoen Euskal Herrian, zorionez. Taldearen kontra baino alde, gehiago, ezbairik gabe. Serafin Basauri eibartar argiak zuzen erantzun zion Badiola jaunari, «Ez dok amairu, bai eta bai» titulu erabiliz, honela:

kantua egitea arte bat da, eta artegintza, lan bat. Lanak, zerbait serioerik egin nahi bada, bere denborea eroaten dau. Eta inor aizetik bizi ez dan ezkeru, lana ordaindu beharrezkoa da... «Ez Dok Amairu» euskal kantua goren mailara jaso dauan kantari talde ezaguna dozue. Kantari profesionalak, nahiz eta, euren lanetik bizi ezinean –kantu lanetik bizi ezinean–, beste zeregin batzuetan jardun behar. Kantariak, beste pertsona batzuek mekaniko, tekniko, bulego langile, nekazari edo moldeatzaile diran legez. Oso lan ona egiten dabenak, eta lagatzen jaken neurrian, egiteko prest dagozanak...

Baina beste gauza batez kontura gaitezen nahiko neuke: errietan egiten diren jaialdirik gehienak, ikastolen alderakoak izaten dira. Beraz, hoietan ez kobratu, jaialdi banaka batzuetan bakarrik kobratuko leukee euren lanari eta mailari dagokiona...

Badago beste puntu bat bere aipatu beharrezkoa: ikastolen diru arazoa ez da urtean jaialdi benefiko bat antolatuz konpontzen. Erriak artu behar dau bere gain ikastolea mantentzea, erria kontzientziatu egin behar da ikastola arazoetaz. Jakina, hori lan nekegarria da; askozaz errazoa, gure ahuleziaren errua dana besteren lepora botatzea, askozaz errazagoa radikalismoz berba egitea, radikalismoz lan egitea baino (8).

Baina diru gutxi, oso diru gutxi eman du orain arte Euskal Herriko artegintzatik. Eta gure kantarien errealitatea ez zen hobea, ez hain oparoa, ez diru-iturri ona. Euskal Herrian, Madrilan, Britainian, Okzitanian, Katalunian, hain-

(7) «Ez dok amairu, ez eta ez». Imanol Badiola. *Anaitasuna*, 1970.01.15.

(8) «Ez dok amairu, bai eta bai!» S. Basauri. *Anaitasuna*, 1970.02.15.

bat herrialdetan hala txalotu eta goraipatu izan arren, hartatik ez zen inor aberastu, ez horixe. Joxan Artzeri egindako elkarrizketa batek argi erakusten duenez, ez zegoen zenbaitek esan edo salatu nahi zuen bezalako irabazirik euskal kantutik, ez burgesiarik. Aipatu solasaldi hartan taldearen asmoak eta helburuak kontatu zizkion lehendabizi elkarrizketatzaileari usurbildarrak. Eta gero, galdetu ahala erantzun:

–nik uste, zuen asmoa zer izan dan zure iritzi hauek garbi agertzen dutela, eta Baga Bigaren garrantzia konprenditzeko bide izango direla. Baina badago argitu behar diguzun beste puntu bat, diru asuntua, alegia. Asko kobratzen omen duzue...

–Orain arte zorrez ibili gara. Sentikariaren ogeita laugarren representazioa egin arte ez genuen xentimorik jaso.

–Jakin baledi behintzat, artista bakoitzak representazio bakoitzeko zenbat jasotzen du?

–Zergatik ez? Baga Bigaren representazio bakoitzeko 500 pezeta. Eta jakin ezazu, Donostiako representazioan, arratsaldeko bostetan plazan geundela gauzak prestatzen, eta goizaldeko ordubietan oraindik ere plazan geundela. Eta horrela ibiltzen gara gehienetan.

Arotz batek, egiten duan lana, nolabait, kobratu egiten du. Guri hori ere ukatu egiten zaigu. Horra, guk zerbait egiteko orduak sartu behar ditugu beste guztiek bezelaxe. Ordu horiek guk laneko beste orduei kentzen dizkiegu. Eta bizi nahi badugu, lana egin behar dugu; eta jateko badakizu zer behar dan (9).

### ***Baga, biga, higa***

Mila aipamen egingo nuke gaur zuen aurrean, baina ez zaituztet aspertu gura. *Ez dok amairuk* uhin gaiztoen artean gure zorionerako aurrera egin zuen bezalaxe, aurrera egingo dut nik ere, gainerakoak alde batera utzita gaurkoz.

Sei-zazpi urtean mila eragozpen gainditu eta Euskal Herriko pilotalekue-tan, plazetan eta aretoetan ozenki kantatu eta entzule/ikusleen gose-egarriari ondo erantzuten saiatu ostetan, bide berriak urratzeari ekin zion *Ez dok amairu* taldeak, 1970ean, ordura arte egindako lanaz pittin bat aspertuta edo urrats bat aurrera egin behar zela konbentziturata. Lehenengo jaialdietako aurkezpena-kantaria-aurkezpena-kantaria eredu eta formula zaharkitu egin zela irudituta, talde osoa eskenategira irten eta aldian-aldian elkarri koroa eginez ikuskari osoago eta bateratuagoa antolatzen saiatu ziren 1967ko udazkenetik aurrera, taldea aireberritu nahirik. Ahalegin horren lekukorik behar izan ezkeru, udazken hartan Azpeitian eta Zaldibian (10) emandako jaialdiak gogoratu besterik

(9) «Baga, biga, higa» *Z. Argia* 1971.09.26, 1. or.

(10) *Iztueta-aren jaiotzeko bigarren mendeurrena*. Zaldibia, 1967.1126 – 1967.12.03.

ez dago, adibidez. Gero, berriz, Baztanen jasotako kantu zahar baten izen bixia goiburutzat hartu eta *Baga, biga, higa sentikari/ikuskaria* prestatu zuten, 1970eko udaldirako. Formula berriko jaialdiak ematen nondik hasiko eta Portugaleteko herria hautatu zuten estreinaldia handikiro egiteko, 1970eko abuztu sargoriaren 22an. Herriko *Elai-Alai* talde ezagunak lagundu zien antolaketak egiten. Ausardia behar zen hartarakoxe, baina sekulako arrakasta izan zuten, «Portugaleten euskaldun gutxi zela eta han kontuz ibiltzeko» gomen-dioa egin bazieten ere.

*Portuko* arrakastaren ostean, Elorrión eman zuten bigarren jaialdia; eta gero, Urnietan, Tolosan, Iruñean, Azpeitian, Bergaran, Barakaldon, Zegaman, Ordizian, Beasainen, Hondarribian, Usurbilen, Zarautzen, Hernanin, Zumarragan, Pasaian, Donostian, Paben, Bartzelonan, Donostian, Gasteizen, Bretanin, bat bestearen ondoren:

### BAGA, BIGA, HIGA

Ikus-entzukizunaren emanaldien koadroa (11)

Urtea	Eguna	Herria	Tokia	Ordua	Emanaldiak	Oharrak
1970	Abuztuak 22	Portugalete				Jende asko
1970	–	Elorrio	–	–	–	
1970	San Migel jaietan	Urnietan	Herriko antzokia	–	–	Ikusle asko
1971	Otsailak 14	Tolosa	Teatro <i>Leidor</i>	11:00	behin	2.000 ikusle. Kritika ona
1971	Otsailak 23	Iruñea	Teatro <i>Gayarre</i>	19:30	behin	1.000 ikusle
1971	Martxoak 6	Bilbo	Santiago Apostol	19:30	behin	1.400 ikusle
1971	Martxoak 16	Donostia	Teatro <i>Astoria</i>	19:30	behin	1.500 ikusle
1971	Martxoak 20	Gasteiz	Teatro <i>Guridi</i>	19:30	behin	1.500 ikusle
1971	Martxoak 29,30,31	Bartzelona (12)	Teatro <i>Romea</i>	29-30: 22:00 31: 19:30	Hiru emanaldi	2.200 ikusle bildu ziren
1971	Apirilak 20	Pabe	Casino <i>Pau</i>	21:00	behin	150 ikusle
1971	Apirilak 30	Barakaldo	Teatro <i>Barakaldo</i>	21:00	behin	800 ikusle
1971	Apirilak 24-25	Azpeitia	Salon <i>Soreasu</i>	22:00 eta 23:00	Bi emanaldi	1.500 ikusle inguru
1971	Maiatzak 29-30	Beasain	Zine <i>Usurbe</i>	22:30 - 23:00	Bi emanaldi	1.900 ikusle inguru

(11) Xabier Leteri zor diot lauki hau, garai hartan egindakoa galdua nuen-eta.

(12) Oso kritika ona izan zuten Bartzelonako emanaldietan.

Urtea	Eguna	Herria	Tokia	Ordua	Emanaldiak	Oharrak
1971	Ekainak 19	Mondragoe	<i>Zaldibar</i> frontoia	22:00	Behin	2.000 ikusle
1971	Ekainak 27	Pasai S. Pedro	Herri Eparantza	22:00	Behin	1.000 ikusle inguru
1971	Uztailak 3	Zumarraga	Cine <i>Itzalon</i>	22:00	Behin	900 ikusle
1971	Uztailak 11	Iruñea	Teatro <i>Gayarre</i>	11:00	Behin	850 ikusle
1971	Uztailak 24 Abuztuak 2	<b>Bretainia</b> (13)	Toki ezberdinetan	–	–	600 ikusle batez beste
1971	Abuztuak 7	Oiartzun	<i>Ibargain</i>	22:00	Behin	1.000 ikusle
1971	Abuztuak 28	Zegama	Cine parroquial	22:00	Behin	700 ikusle
1971	Irailak 4	Ordizia	Pelota tokia	22:00	Behin	1.000 ikusle
1971	Irailak 7-8	Donostia (14)	Trinitate <i>Enpara.</i>	20:00 - 22:00	Bi emanaldi	3.500 ikusle inguru
1971	Irailak 10	Hondarribia	<i>Zezen plaza</i>	22:00	Behin	2.000 ikusle
1971	Irailak 11	Bergara	Pilota tokia	22:00	Behin	1.800 ikusle
1971	Irailak 26	Zorrotxa	Cine <i>Zorroza</i>	19:30	Behin	600 ikusle
1971	Urriak 2	Usurbil	Pilota tokia	22:00	Behin	1.200 ikusle
1971	Urriak 11	Zarautz	Pilota tokia	22:00	Behin	1.400 ikusle
1971	–	Hernani	<i>Galarreta</i>	22:00	Behin	1.000 ikusle

Baina zer zen ordea delako *Baga, biga, higa ikuskari* hori?, galdetuko dizazu, agian. Horren argitasun eta esplikaziorik onena taldeak berak eman zuen bere lehen agerraldirako atera zuen orrian, eta berehalaxe emango dizuet, osoa ez bada ere, hitzez hitz:

egun ez duzu betiko eran egiten genuen jaialdirik idoroko. Egun, gisa berri batez azaltzen gaituzu. Orain arte, kantari baten atzetik bestea zetorrelarik zoan jaialdia. Hau, emanaldien egiteko era bat da; eta ez dugu baliosa ez denik esaten, ez gutxiagorik ere. Sakonkiago egin behar direlakoan gaude, eta guk jarraituko dugu egiten. Baina egun, behar baten barrenean aurkitzen gara: atzokoan funtsa-tua eta oinarri biharkoarena.

Zenbait urtetan elkarrekin ibiliz gero, bestearen beharra senditzen dugu. Hau bizitzaren maila guztietan gertatzen da; eta areago, talde baten barrenean. Ez dugu artalde batetan amildu nahi; aitzitik, taldearen barrenean arituz eta haren bidez, norberaren burua aberasten joan dadin nahi genuke. Eta horrela, guztiona.

Gure egungo azalpena, elkarren arteko lanaren lehen adierazpena da; lehen urratsa besterik eman ez dugularik.

(13) Hamar eguneko bisitaldia egin zuten Bretainiara; eta *Sentikaria*, Chateannet eta Brest-en eman zuten. Errezitalak, *Menez-Kamm* eta *Sourin*-en. Batez beste, 600 ikusle.

(14) Bi saio hauek euskal jaietako programaren barruan zeuden.

Pentsatzen dugu, egungo antze-lana ez dela hainbat xoil-xoilik batek egin dezakeena, nola elkarrekilakoa. Hain zuzen, honek izan nahi du gure eginkizunaren ardatz eta funtsa: elkarren arteko egintzatan, aske sortutako lana; norberaren nortasunaren bila joan nahi duena. Biderik egokiena delakoan guade.

Erdian txalaparta daukagu; antziñako lan-tresna, oraiko gizonen lanaren adiereazpena; taldearen beraren errorik sakonenetarikoa. Erdian daukagula, beraz, kondairaren akelarrea –kanta zaharrak, tresna zaharrak, gure kantak, olerkiak, dantza–, gure izatea zehar osaturikako sentikaria agertu nahi genuke. Eta orok parte hartuz, kondaira zehar osatzen eta aberasten joatea.

Oharra: euskerazko programa, dizka batekin batera agertu nahi dugu, eta horregatik ez dago oraindik inprimaturik. Bitartean, *sentikaria* ulertu ahal izateko, eskuetan duzun hau egin dugu.

Taldeko kantari bakoitzak, *Ez dok amairu*-ko kide bakoitzak alegia, bere izena eta zeregin zehatza izan zituen *Baga, biga, higa* sentikariko banaketan, honelaxe:

Jesus Arza.....	«Panpalox»
Joxan Arza.....	«Ziripot»
Julian Beraetxe.....	«Belagile bat»
Juan Migel Irigarai.....	«Belagile bat»
Jose Angel Irigarai.....	«Miel Otxin»
Lourdes Iriondo.....	«Mari-eder»
Kepa Garbizu.....	«Belagile bat»
Mikel Laboa.....	«Perenauxea»
Benito Lertxundi.....	«Erlandeko»
Xabier Lete.....	«Anaios»
Nekane Oiarbide.....	«Sorgin bat»
Jose-Mari Zabala.....	«Xagit»

#### *Musika-tresnak*

Txalaparta, tobera.....	Arza anaiak
Soiñua.....	Juan Migel Irigarai
Musu-kitarra.....	Jose Angel Irigarai
Gitarra-laguntzak, flauta.....	Jose-Mari Zabala
Txistu.....	Jose-Mari Irastorza (Argia)

Argazkiak: Jose-Mari Zabala

Kartela: Jose Luis Zumeta eta Jose Mari Zabala

Antolaketak: Nekane Oiarbide

Ikuskari honen zuzendari orokorra: Joxan Arza

Taldearen zuzendari: Jose Angel Irigarai.

Bestalde, *Baga, Biga, Higa ikuskari/sentikaria* jaialdi bateratua zen, hasi eta amaitu talde osoa agertokian zela egiten zena, baina bi zatitan banatuta,

jaialdietan ohiko zen aurkezlerik gabe. Haren egitura orokorra honelatsu banatuta zegoen:

1. zatia:

- *Baztango mutil dantza*, talde osoak.
- *Xoxoak galdu du*, Joxe A. Irigarai.
- *Txalaparta*, Arza anaiak.
- *O, Pello Pello*, Mikel Laboa - Jose M. Zabala.
- *Txorietan buruzagi*, taldea.
- *Arranoak bortuetan*, Mikel Laboa - J.M. Zabala.
- *Txoria kaloian*, Mikel Laboa.
- *Tobera*, Arza anaiak.
- *Behin batez*, Xabier Lete.
- *Udaberria*, poesia, Joxe A. Irigarai.
- *Emakumea*, poesia, Joxe A. Arza.
- *Jarraian*, J.A. Irigarai, Lourdes Iriondo, Arza eta abar, poesia osatuz.
- *Zatozte denok*, poesia erreztatua, J.A. Arza.
- *Partitzeko tenorea*, Lourdes eta Xabier
- *Poesia irakurtzea*, Joxe A. Irigarai
- *Katea*, X. Lete, Juan Migel Irigarai, Lourdes Iriondo, B.Lertxundi
- *Txori txikia*, Benito Lertxundi, amaieran talde osoak lagunduta

2. Zatia:

- *Tobera*, Arza anaiak eta talde osoak  
*San Martin de la Moja/ Moja de San Martin*
- *Bertsoak + tobera*, Xabier Lete.
- *Alzateko jaun*, X. Lete.
- *Txoriak txori*, Mikel Laboa - Jose M. Zabala.
- *Poesia irakurtzea*, Joxean Arza.
- *Haur bati*, B. Lertxundi.
- *Muxu-kitarra*, J. A. Irigarai.
- *Ia guriak egin du*, bertsoak, X. Lete.
- *Umeek ere jakin dute*, B. Lertxundi.
- *Tristura haundi bat*, J.A. Irigarai eta Juan Migel Irigarai.
- *Muxu-kitarra*, J.A. Irigarai.
- *Kontutxoak*, Lourdes Iriondo, Juan Migel Irigarai, Lertxundi
- *Etzait gustatzen katerik*, J.A. Irigarai

- *Gizona, lana, makina*, denak batera.
- Lourdes, X. Lete, J.A. Irigarai, J.A. Artze, J.M. Artze.
- *Baga, biga, higa*, Mikel Laboa, J.M. Zabala eta korua, denak batera.
- Julian Beraetxe (argiak) eta Nekane Oiarbide ere agertokian sartzen dira eta ikusleak tauladura igotzen.
- *Baztango Mutil dantza* eta amaia.

\* \* \*

Inoiz edo behin aldaketa txikiren bat egiten bazuten ere, hauxe zen, funtsean, *Baga, biga, higa ikuskari/sentikariaren* eskema. Eta taldekide bakoitzaren zeregina goian aipatutako zerrendaren arabera banatuta bazegoen ere, jaialdi eta herri bakoitzean sortzen ziren beste antolaketa eta egitekoak taldean burutzen ziren, organigramako kategoriei begiratu gabe. Profesionalizazioa zen *Ez dok amairu*-ren helburu handietako bat, baina geroz jaialdi profesionalago eta hobeak egitea zen zeregin nagusia, bakoitzaren estatusa alde batera utzita, behar zenean.

Herrietan izandako arrakastaren eredu bat aipatzeko, Tolosakoaren ostean, *Baga, biga, higa...nigan sentikaria* izenburuarekin argitara emandako kronika luze huraxe aipatuko dut gaurkoz, *Leidor* antzokian igande euritsu hartan ikusitakoaren kronika, alegia. Antzeratsu idatzi edota esan genuen beste edozein herritan behin eta berriz ikusi genuen edonork ere:

jendetza handia ikusi genuen Tolosan; jendetza hau, noski, ondo trazatutako propaganda batek bildu zuen, zeren handia izan zen propagandaren irrintzina, baina baita *Ez dok amairu*-ren izen eta obraren duintasunak ere. Jaialdia Anoetako Ikastolaren alde egin zen, eta euskaldun guztion onerako.

Txistu gozo batek ireki zuen sentikariaren atea; hasiera zen. Hamabi lagun dantzan; mutil dantza egiten zuten. Isilaldia, eta ondoren xoxoaren izaera: xoxoaren herioa, azken hatsa; dana ohostu diote: mokoia, begia, burua, hegala, xankoa, gorputza; xoxoa urkamendian.

Baina badator txalapartaren egunsentia, udaberria, haizearen librea. Txalapartaren egurrak eta herriaren hezurak lotuko dituzte beren destinoak.

Elkar-izanaz joango dira egurra eta hezurra, txalaparta eta herria...

Baga, Biga, Higa sentikariak arrakasta handia ukanen duelakoan nago. Euskal Herriko hiriburu gehienetan agertu dute: Tolosan, Iruñean, Bilbaon, eta, agian, Donostian. Pozkarri da benetan gure herrian honelako lanak egitea eta goimailako talde batek egitea. Lan eder eta bikaina EZ DOK HAMAIRUkoek egin diguten hau. Baga, Biga, Higa sentikaria, hots, arte moldetan mamitutako gaurko Euskal Herriaren sentikaratze hau (15).

---

(15) «Baga, biga, higa... Nigan sentikaria». Haranburu-tik, *Z. Argia*, 1971.03.14, 6. or.



Ez neukake esan beharrik ere oso harrera ona izan zuela *Ez dok amairu* taldeak Euskal Herrian egindako emanaldietan. Baina Bretainian, Pauen eta, batez ere, Bartzelonan ahogozo bikaina utzi zuen. Julio Manegat kazetariak *El Noticiero Universalen* zioenez, «Un hermoso y emocionante espectáculo. Lástima que su representación se haya reducido sólo a tres días» izan zen Bartzelonako ikusleentzat. Eta emanaldi haiek baino egun batzuk lehenago Donostian ikusi bide zuen jaialdia Ricard Salvat kazetariak, eta kritika oso onbera egin zion, idazlan bere kronika batean:

cansados de los recitales unitarios, el grupo se ha dado cuenta de la urgente necesidad de investigar nuevas formulas de expresión artística, y, sobre todo, formas de expresión más completas... Esperamos con gran interés la representación de Baga, Biga, Higa en el Romea, a cuya empresa agradecemos la posibilidad de conocer tan interesante espectáculo.

### Larraizko gaupasa

Eraso eta zalaparta asko sortu zuen 1971ko urriaren 31n egin zen Larraizko gaupasa dontsuak. *Ez dok amairuk* ez zuen zerikusirik antolaketa hartan, taldeko norbaitzuk han izan baziren ere, hala nola Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Artze anaiak. Hala ere taldearen bizkarrera bota nahi izan zuten jaialdi haren erantzukizun osoa, eta bai egurra eman ere kupidarik gabe. 3.000 lagun omen ginen han udazkeneko gau ikaragarri hotz eta heze hartan, eta hura akelarre lotsagabe/lotsagarria izan bide zen, esan zutenez. Egia esan, nik ez nuen ikusi ez akerrik ez akelarrerik, baina hotzak hezurretaraino hartu ninduen, dios! *Fray Bartolomé Armuñota* izenordaina erabili zuen idazle erremi-nak, edota hari informazioa pasatu zionak, «*El escandaloso aquelarre de Larraitz* (16)» ikusi omen zuen, honela idatzi baitzuen gero:

vergonzoso es que más de 3.500 jóvenes nuestros de ambos sexos (hay quien afirma que fueron 6.000) pasen toda una noche en una promiscuidad repugnante, sin más testigos que las sombras de la nocturnidad. Vergonzoso que, so pretexto de un acto folklórico-cultural vasco, se hayan exhibido dos banderas rojas con la hoz y el martillo y una gran bandera euzkadiana...

Vergonzoso y deprimente que hubiera clérigos y religiosos en aquella concentración pagana, con reminiscencias de un culto gentilicio al mítico Aitor, celebrado por los días de los novilunios, en las cumbres de las montañas. Todo esto y mucho más es lo ocurrido en la noche del 31 de octubre al 1 de noviembre en la campa de Larraitz...

Nadie se escandalice que apuntemos aquí al señor Obispo de San Sebastián. Tenemos derecho a que nos diga, sin rebozos ni tapujos, la verdad, toda la verdad monda y llanamente, por muy amarga, dolorosa y humillante que ésta sea, cuando como en el caso presente, aquélla ha rebasado ampliamente los límites de

---

(16) *Editorial Fuerza Nueva, 1972.*

lo puramente circunstancial, privado y particular, y es de dominio público y están en juego intereses muy sagrados...

Hala ere, ez zuen eragin handirik izan Larraizko gaupasak Euskal Herrian, orohar; baina Nafarroan bai, Nafarroan bazterrak astintzen saiatu ziren gogotik, Xabier Letek berak aitortu zuenez:

Nafarroan ordurarte presentzia normal bat genian, eta ordutik aurrera nik uste gauzak okertu egin zirela. Azken urte hauetan ikusten dut ez dela antolatzen jaialdirik Nafarroan... (17).

1971ko San Fermin jaietan Iruñeko Udalak gonbitea egin zion *Ez dok amairu* taldeari bere saioa han eman zezan, eta bai onartu ere, bidezkoa zenez. Baina *Pensamiento Navarro* egunkarian gogor eraso zien norbaitek, suak hartuta:

lo que no podemos tolerar sin nuestra protesta es que, al socaire y bajo respetable manto de lo vasco, se nos quiera pasar de matute mercancías averiadas que en Navarra no son de recibo. Ya de entrada quiere dar la impresión de que el Pueblo Vasco es un pueblo terriblemente triste, sin esperanzas, agonizante y encadenado. Y de que no saldrá de esa tristeza sino gozando al límite del único placer que vale la pena: el sexual...

Terminamos rogando al Ayuntamiento que revise su acuerdo. El Gayarre es de todos y exige un mínimo de respeto y decoro. Quede este espectáculo para salas particulares de más amplias tragaderas, y para mayores de 50 años.

Gaur eguneko ikuspegitik zaila da, ezinezkoa, orduko giroaren petrala argi eta garbi jendeari adieraztea. Baina zuetariko askok badakizue, ordea, garai hartako gauzak nolatsu izan ohi ziren, eta ez du esplikazio zehatzagorik beharko, seguru asko. Beraz, bego horretan.

\* \* \*

### ***Ez dok amairu-ren azkena***

1965eko hondarretan eta 1966ko urtearen hasieran indartsu eta ilusioz beteta lanean serio hasi zen *Ez dok amairu* taldea eta berak erabaki gogorra hartu zuen 1972ko abenduan, sei-zazpi urte luzean egindako lana amaitutzat eman ez. Nekea, asperkizuna, talde barruko eta kanpoko tentsioa, hartatik bizitzeko modurik eza, susmoak... Auskalo zer izan zen han; edota, denetik zerbait, seguru asko.

Taldea desegin zen behintzat, zoritxarrez. Eta Mikel Laboarentzat «*Talde bezala inportantea izan zen*» hura; Benito Lertxundirentzat, berriz, «*Ez dok amairu fase historiko bat izan da. Buelta asko eman dizkiot gai horri, baina*

---

(17) *Euskal kantagintza berria*, P. Aristi, Erein, 1985.

*ez dut traumarik sentitzen, eta esango nuke euskaldunen susmo txarrak lehenagotik ere banituela eta gertakizun harekin areagotu egin zitzaizkidala (18)». Joxan Artzerentzat, «gure bizitzako gauzarik garrantzitsuena izan zitekeela pentsatu genuen». Baina Xabier Letek 2003ko apirilean Usurbilen, Jexuxmari Artzeren heriotzako urteurrenekoan esan zuena belarri-ertzean gelditu zitzaidan:*

etenaldiaren zergaitia, sekula inork kontatu ez duguna da, eta kontatuko ez duguna, seguraski, kontatu nahi ez dugulako. Baina desegin egin zen taldea; eta errealitatea horixe da.

Esan ez diren arrazoi horiexengatik, ez zen argitara eman taldearekin leiala izatearren grabatu ez nuen *Baga, biga, higa ikuskari/sentikaria* diskoa ere, nahiz eta grabazio ofiziala noiz eta nork egin zuen jakinekoa den.

Luzatu naiz gogotik gaur ere, baina esateko asko gelditu zait oraindik, egia-egiatan. Barkatu. Mila esker denoi, eta mila zorion Euskaltzaindiari erakusketa hau Bilbora ekarri duzuelako, eta Bizkaian zehar beste herrialde askotan ere ikus dezaten ahaleginak egingo dituzuelako.

\* \* \*

### ***Ez dok amairu***

*Ez dok amairu* edo *Martintxo errementaria* ipuinaren jatorria:

1. Resurrección Maria Azkue: *Euskalerrriaren yakintza (Literatura Popular del País Vasco)*. Tomo II: *Cuentos y leyendas*. Madrid ESPASA-CALPE, S.A., 1942.
2. José Miguel de Barandiaran *Obras completas*, Tomo I. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca y algunas de sus fuentes*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972.

(Ikus eranskina)

---

(18) Ez dok Amairukoen familia argazkia, Jexux Artzeren omenez, *Deia*, 2003.04.23.

## 111. — SAN MARTINEN ESTUTASUNA



AN Martin erementaria zan. Bein bere arazo-artean, nekearen nekeaz eta beroaren beroaz edo, minduta asafez egoan gizona; eta Txefeni, estualdi atatik atarateafen, arimea emoteko gertu egoala esan eban.

Beingoan agertu dakan Txefen,

—Amen naukak, Martin —esanda. Ezaut nik bear i ezetarako.

—Euk dei egin daustak eta ona ni.

—Dei egin badauat zer egiten doadantzakidala egin izango doat.

—¡Ta ta ta ta ta! Neugaz bear dok.

—Ezetariko gogo bagarik egin do dala.

—Martin: nire eskuetatik jara (libre) egon gura badok, gauza bi egin bear izango dozak oraintxe: lenengoa, burdinazko tresna bafi bat asmau; bigafena, amabi misterio andiak zeintzuk diran esan.

—¡Burdinazko tresna bafi bat!! —agin-artean esanda, lafi lufera begira egon zan lenengo; gero goialdera, laguntasun-eske bailegoan; eta gaxtaina-adafetan akas dun ofi eder luzeak ikusteak burutasun bafi bat sofarazo eutsan garun-artean.

Gero urduri-urduri lanean asi zan. Burdinazko zatal ta silarak sutan sartu ta txingura-ganera pozikaz ekarri ta taunk eta taunk, taunk eta

## 111. — EL APURO DE SAN MARTÍN (B)

San Martín era herrero. Una vez estaba en sus ocupaciones muy enfadado, probablemente por efecto de la enormidad del trabajo y del calor; y dijo que estaba dispuesto a entregar su alma al demonio con la condición de que le sacara de aquel apuro.

Al momento se le apareció el demonio, diciendo:

—Aquí mismo me tienes, Martín.

—No te necesito a ti para nada.

—Tú me has llamado y heme aquí.

—Si te he llamado habrá sido sin saber lo que hacía.

—¡Ta ta ta ta! Tienes que venir conmigo.

—Que he hecho sin voluntad de ningún género.

—Martín, si quieres librarte de mis manos, tendrás que hacer dos cosas ahora mismo: la primera, inventar un nuevo instrumento de hierro; la segunda, decir cuáles son los doce grandes misterios.

—¡Un nuevo instrumento de hierro! —dijo entre dientes y estuvo apurado, mirando primero al suelo; luego a lo alto, cual si estuviese pidiendo ayuda; y el ver hermosas y largas hojas melladas en las ramas del castaño hizo surgir en su cerebro una nueva idea.

Luego, todo nervioso, comenzó a trabajar. Metiendo en el fuego las barras y flejes de hierro y trayéndolas con las tenazas sobre el yunque,

taunk ekin eutsan San Martinek lan-ari... Lenengo zefeak orduantxe gizon baten eskuartetik burua atarau eban.

Bigafen eskabidea, amabi misterio andiak aitatzea, bien artean egin eben: Txefenek itandu, San Martinek erantzun.

—Martintxo: esaik bat.

—Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik bi.

—Efomako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik iru.

—Iru Trinidadetak iru, Efomako altarak bi; gure Jauna bera dok...

—Martintxo: esaik lau.

—Lau ebanjelariak lau, iru Trinidadetak iru, Efomako altarak bi... eta abar.

—Martintxo: esaik bost.

—Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinidadetak... e. a.

—Martintxo: esaik sei.

—Sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak... e. a.

—Martintxo: esaik zazpi.

—Zazpi Sakramentuak, sei argi-egileak...

—Martintxo: esaik zortzi.

—Zortzirik dira zeruan, zazpi...

—Martintxo: esaik bederatzi.

—Bederatzi ordenamentuak... eta abar...

—Martintxo: esaik amar.

comenzó San Martín a trabajar dando enormes martillazos. Entonces, salió de entre las manos de un hombre la primera sierra.

La segunda petición, el mencionar los doce grandes misterios, la hicieron entre los dos: el demonio preguntaba y San Martín daba la respuesta.

—Martinico: di uno.

—Nuestro Señor, Él es uno, Él nos salvará; pero no a ti.

—Martinico: di dos.

—Dos son los altares de Roma; nuestro Señor Él es uno, Él nos salvará; pero no a ti.

—Martinico: di tres.

—La Trinidad son tres; dos son los altares de Roma; nuestro Señor, Él es uno, Él nos salvará..., etc.

—Martinico: di cuatro.

—Los cuatro evangelistas, cuatro; la Trinidad, tres; dos los altares de Roma, etc.

—Martinico: di cinco.

—Las llagas de Jesucristo son cinco; los cuatro evangelistas, etc., etc.

—Martinico: di seis.

—Seis son los luceros; cinco las llagas de Jesucristo; cuatro los..., etc.

—Martinico: di siete.

—Siete los Sacramentos; seis los luceros..., etc., etc.

—Martinico: di ocho.

—Los ocho están en el Cielo; siete los Sacramentos, etc.

—Martinico: di nueve.

—Nueve son las Ordenes; los ocho están en el Cielo, etc.

—Martinico: di diez.

—Amar mandamentuak... e. a.

—Martintxo: esaiak amaika.

—Amaika mila aingeruak... e. a.

—Martintxo: esaiak amabi.

—Amabi apostoluak, amaika mila aingeruak, amar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruan, zazpi sakramentuak, sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinidadak iru, Eñomako altarak bi, Jesukristo bera dok bat, berak salbauko gaitozak; baina ez i.

—Martintxo: esaiak amairu.

—Extok amairu.

—Badok amairu.

—Oilafak yoten dau munduan, aingeru ederak zeruan, neure arimea izten dautsat Andra Mariari altzöan.

Eta orduan itsutu (alienatu) zan Txofen.

—Diez son los Mandamientos; nueve, etc., etc.

—Martinico: di once.

—Once mil los ángeles, etc., etc.

—Martinico: di doce.

—Doce los apóstoles; once mil los ángeles; diez los mandamientos; nueve las Ordenes; ocho están en el Cielo; siete son los Sacramentos; seis los luceros; cinco las llagas de Jesucristo; cuatro los evangelistas; la Trinidad son tres; dos los altares de Roma; uno es Nuestro Señor Jesucristo, Él nos salvará; pero no a ti.

—Martinico: di trece.

—No hay trece.

—Ya hay trece.

—El gallo canta en el mundo, El ángel hermoso en el Cielo, dejo mi alma a la Santísima Virgen en el regazo.

Y entonces desapareció el demonio.

Aprendido de una mujer de Ermua (B)

Esta enumeración de los doce misterios puede verse también en el cuento *Les douze Mystères*, que, tomado de Cerquand, publicó J. Vinson en su *Folk-lore du Pays Basque*, págs. 11 y sig.

Es muy posible que este cuento arranque de un cuento celta, del que se habla largamente en la página 915 de mi *Cancionero popular*.

Joxe Migel Barandiaranek honela dio ipuinaren aurkezpenean:

Es bastante conocido todavía en el país vasco el llamado «Canto de San Martín» (*Samartinen kanta*). El año 1918 recogí en Cortézubi una variante del cuento de «las doce palabras retornadas» que es el mencionado canto. Me la refirió Tomás Kobeaga, vecino del barrio Oma (Nabárniz) que a la sazón trabajaba, como obrero, en nuestras excavaciones de la cueva de Santimamíste. Me dijo que un carbonero de aquella región rogó al diablo que le ayudase en reunir la leña que tenía desparramada en su bosque. El diablo le ayudó en su trabajo y le pidió como jornal su alma o, en su lugar, que demostrase saber el canto de San Martín. El carbonero optó por lo segundo. Entonces el diablo y el carbonero entablaron el diálogo siguiente:

Diabruak: **Esak bat.**

Ikazkiñak: **Gure Jaune bera dok bat, berak salbauko galttuzak.**

D.: **Esak bi.**

I.: **Erromako altarak bi, gure Jaune bera dok bat, berak sabauko galttuzak.**

D.: **Esak iru.**

I.: **Iru Trindadeak iru, Erromako altarak bi, gure Jaune bera dok bat, berak salbauko galttuzak.**

D.: **Esak lau.**

I.: **Lau Ebanjelistek lau, iru Trindadeak iru, Erroma'ko altarak bi, gure Jaune bera dok bat, etc.**

D.: **Esak bost.**

I.: **Jesukristoren bost lagak bost, lau Ebanjelistek lau, etc.**

D.: **Esak sei.**

I.: **Sei argillarijuük sei, Jesukristoren bost lagak bost, etc.,**

D.: **Esak sasp.**

I.: **Sasprek, Sakramentuük; sei argillarijuük sei, etc.**

D.: **Esak sortzi.**

I.: **Sortzirak dira. Seruük; sasprek Sakramentuük, etc.**

D.: **Esak bederatz.**

I.: **Bederatzak, Ordenamentuük; sortzirak dira Seruük, etc.**

El diablo: **Di uno.**

El carbonero: **Nuestro Señor él es uno, él nos salvará.**

D.: **Di dos.**

C.: **Los altares de Roma dos, nuestro Señor él es uno, él nos salvará.**

D.: **Di tres.**

C.: **Las tres Trindades tres, los altares de Roma dos, nuestro Señor él es uno, él nos salvará.**

D.: **Di cuatro.**

C.: **Los cuatro Evangelistas cuatro, las tres Trindades tres, los altares de Roma dos, nuestro Señor él es uno, etc.**

D.: **Di cinco.**

C.: **Las cinco llagas de Jesucristo cinco, los cuatro Evangelistas cuatro, etc.**

D.: **Di seis.**

C.: **Los seis candelabros seis, las cinco llagas de Jesucristo cinco, etc.**

D.: **Di siete.**

C.: **Los siete, los Sacramentos; los seis candelabros seis, etc.**

D.: **Di ocho.**

C.: **Los ocho son los Cielos; los siete los Sacramentos, etc.**

D.: **Di nueve.**

C.: **Los nueve, los Ordenes; los ocho son los Cielos, etc.**

—Amar mandamentuak... e. a.

—Martintxo: esaik amaika.

—Amaika mila aingeruak... e. a.

—Martintxo: esaik amabi.

—Amabi apostoluak, amaika mila aingeruak, amar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirik dira zeruan, zazpi sakramentuak, sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinitadeak iru, Eñomako altarak bi, Jesukristo bera dok bat, berak salbauko gailozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik amairu.

—Extok amairu.

—Badok amairu.

—Oilañak yoten dau munduan, aingeru ederak zeruan, neure arimea izten dautsat Andra Mariari altzöan.

Etsa orduan itsutu (aienatu) zan Txefen.

—Diez son los Mandamientos; nueve, etc., etc.

—Martinico: di once.

—Once mil los ángeles, etc., etc.

—Martinico: di doce.

—Doce los apóstoles; once mil los ángeles; diez los mandamientos; nueve las Ordenes; ocho están en el Cielo; siete son los Sacramentos; seis los luceros; cinco las llagas de Jesucristo; cuatro los evangelistas; la Trinidad son tres; dos los altares de Roma; uno es Nuestro Señor Jesucristo, Él nos salvará; pero no a ti.

—Martinico: di trece.

—No hay trece.

—Ya hay trece.

—El gallo canta en el mundo, El ángel hermoso en el Cielo, dejo mi alma a la Santísima Virgen en el regazo.

Y entonces desapareció el demonio.

Aprendido de una mujer de Ermua (B)

Esta enumeración de los doce misterios puede verse también en el cuento *Les douze Mystères*, que, tomado de Cerquand, publicó J. Vinson en su *Folk-lore du Pays Basque*, págs. 11 y sig.

Es muy posible que este cuento arranque de un cuento celta, del que se habla largamente en la página 915 de mi *Cancionero popular*.